

GOTZON GARATE



ERDARAKADAK

**Euskaraz ongi mintzatzeko
Hiztegia
Zazpi Probintzietaiko Adibideak**

GERO

MENSAJERO

2.10.99
2270²³

GOTZONGARATE



ERIKADAK



Elgoibar
Zarpi Probintziaren Auzoak



GOTZON GARATE

ERDARAKADAK

*Euskaraz ongi mintzatzeko
Hiztegia
Zazpi Probintzietako Adibideak*

GERO 
EVSKAL LIBURVAK


Ediciones
Mensajero

ERDARAKADAK

Euskara ongi mintzatzen
 Hitzegia
 Nazpi Robinizteko Adibideak

© Ediciones Mensajero, S.A. - GERO Euskal Liburuak
 Post. Zenb. 73 - 48080 BILBAO
 I.S.B.N.: 84-271-1510-5
 Legezko gordailu: BI-848-88
 Imprimatzailea: GRAFO, S.A. - Bilbo



Eskeintza:
 Panpi Sainte Marie
 eta Fernando Beristaini
 eta Euskal Herriaren alde
 eta euskararen alde
 ari diren guziei
 bihotz bihotzez

Gotzon Garate

NAHARAREN

ERDARAKADAK

1. Hitzegia 100
 2. Nazpi Robinizteko Adibideak 100
 3. ...
 4. ...
 5. ...
 6. ...
 7. ...
 8. ...
 9. ...
 10. ...
 11. ...
 12. ...
 13. ...
 14. ...
 15. ...
 16. ...
 17. ...
 18. ...
 19. ...
 20. ...

OHARGAILUAK

OHAR NAGUSIA: Aztergaia letra handiz edo beltzez idatzitakoa da. Baserrietako adibideak aztergaia argitzeko dira. Bila ezazu nahi duzun hitza bi tokitan: hiztegian bertan eta aurkibidean.

- ~ Ohargailu honen aurreko esaldia ere baserrian entzuna. Ondoko moldeetan ere esan liteke.
- * Ohargailu honen ondoko esaldiak egitura beratsuaren adibideak dira.
- / Ezker—eskubiko esaldiok jazargoan daude. Bereiz itzazu.
- ∅ Atzizkirik gabe.
- Hitzez hitz itzulia.
- ↗ Ikus ezazu.
- : Hurrengo esaldiok baserrietan jasoak.
- (GR) Gramatikaren arauera. Ez da baserrietan jasoak.

BASERRIEN IZENAK

- AL: Altzai (Zuberoa). Apezetxea.
- AM: Amaiur. Iriarte.
- AR: Arizkun. Errazuri.
- AZ: Aitxola Zarra (Azkoitia).
- G: Goizueta. Errero Borda.
- EG: Enparangain (Azpeitia).
- EL: Elgoibar (Senideak).
- IB: Irunbein (Markin-Etxebarri).
- ID: Idiazabal. Aitzeder.
- IN: Intxaurbe (Zeanuri).
- IP: Ipurtotz (Aramaio).
- ITS: Itsasu (Lapurdi). Saldaten Borda.
- KA: Kapotenea (Aiherra). Nafarroa Beherea.
- LAN: Landibarre (Nafarroa Beherea). Matrika.
- LAR: Larrañe (Zuberoa). Etxebarnia.
- MO: Motxone (Mungia).
- O: Odriozolatxo (Azpeitia).
- S: Sunbilla. Ixtola.
- U: Unanua (Nafarroa) Algarteko Etxea.

AX: Axular. *Gero*.

LEIZ: Leizarraga. *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*.

HITZAURREA*

«Eta nola bat bedera bere hitzkuntzan baita ezagun nongo den: frantsez mintzo dena Franziaiko dela: eta españolez mintzo dena Espaiñiako...». Ax. 173.

1. ESKERRAK

Ene aurreneko hitzok, zuontzat, zazpi probintziatako baserriar-laborari maitontzat, hogen urte honetan erakutsi didazuen maitasunarengatik eskerrak emateko.

Maitasunarengatik ez ezik eroapenarengatik ere bai. Zenbat mila eta mila galdera ez ote dizuedan egin urteotan. Hiztegi honetan bakarrik 25.000 esaldi inguru agertzen dira, den denok zeuek esanda. Eta hiztegi honetaz gainera baditut, zuei esker, inongo hiztegietan agertzen ez diren hitz, esaldi eta atsotitez beteriko beste liburuak.

Baserrietan haurride izan zaituztet, senide eta maisu. Zuen ikasle izan naiz. Zuek bezala mintzatzen saiatu naiz. Egin izan didaten goralpenik handiena horixe izan da: «Baserriarren kutsua suma liteke zure liburuetan».

Kasete asko bete ditut zuen kontakizunez. Hor mintzo diren batzuk herioak atzemanda, Jainkoaren aintzinean dira. Haiei eta zuei, ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ.

2. EUSKARAREN EGOERA

Euskarak gorakada handia egin du, zorionez. Inoiz baino jende gehiago mintzo da euskaraz. Gero eta liburu gehiago idazten da. Sekula ez dugu ikusi horrenbeste jende gure hizkuntza ikasten. Euskal Herriko gazteria euskararen alde zintzo ari da lanean.

Bada alde ilunik, halere.

* Hitzaurre osoa irakurtzeko astirik ez baduzu, irakur ezazu 8 ataltxoa.

Egungo egunean euskarak bi alderdi txar ditu. Bata: erdaraz pentsatzen dugula. Bestea: dakigun euskara, ona bada ere, oso murrizta dela. Gehienetan geure herri inguruko euskara bakarrik dakigu.

Mugaz bestaldekoek ez dakite alderdi honetako aberastasunen berririk. Halaber, honuzkaldeko mugen barruan bizi garenoi hango euskara joria, ikastea merezi ez duen bitxikeria iruditzen zaigu.

Beste aldetatik ere larri ikusten dugu euskara. Euskaraz ongi dakitenek, baserri-tarrek, ez dute euskaraz idazten. Euskaraz idazten dutenek, berriz, maiz ez dakite ongi euskaraz. Idazten diren liburuetan zenbat eta zenbat huts!

Ingeleseraren eraso dela eta, espainolak eta frantsesak kezkatuak daude. Hara frantsesen salaketa: egungo egunean frantsesez baino *franglais-er* mintzo omen dira batzuk Frantzia.

Espainian ere arrangura berdintsua entzun-irakurtzen dugu. Berrikitan Lain Entralgok espainiera mehatxaturik zegoela esan zuen, *futbol* eta horren antzeko hitzak erabiltzen direlako.

Zer esan beharko ote dugu guk? Euskararen ehunka erdal hitz alferrik sartuaz gainera, hizkuntza bera, euskararen muina eta sena maxkaldua eta lardaskaturik ikusita?

Egungo zenbait liburu irakurri eta gero, «erromantze berria» sortzen ari ez ote ginen galdetzen zuen Gipuzkoako idazle batek oraintxe orain.

Beste arriskurik ere bada. Euskal Herriko bizilagunetarik % 30 omen gara euskaldunok. Bide luzea dugu denak euskaldundu arte.

Bide horretan euskara ez ote zaigu erdaldunko? Ez ote da desegingo? Talde tikia gatz izan beharrean ez ote da gezatuko? Edo ez ote da gatz uretan bezala erdararen urtuko? Ardoak ur gehiegirekin nahasirik ez ote du ardoaren saporea galduko? Ez ote da urardo txepela bihurtuko?

Egungo egunean, dena dela, hauxe dugu denetan akatsik handiena: erdaraz pentsatzen dugula. Erdaraz pentsatuz gero, ordea, ezin ongi hitz egin, ezin hutsik gabe idatzi.

Hortik heldu da erdara euskarara hitzez hitz aldatu nahi izatea. Eta jakina, erdaraz bi gauza bi eratara esaten badira, euskaraz ere horrela esan behar dela uste izatea. Ez da zuzen.

Euskaraz *gazteria*, *gastarua* eta *gastetasuna* bereizi egiten dira. Erdaraz ez. Hiru horientzat hitz bat aski da: «juventud». Euskaraz *denbora* eta *eguraldia* oso bana dira. Espainieraz hitz batez adierazten dute: «tiempo».

Alderantziz ere gauza bera gertatzen. Espainieraz bereizi egiten dutelako, ez da euskaraz nahitaez bereizi behar.

Ohartu gabe geure buruei iruzur egiten diegu. Euskal gramatika ikasi dugulako,

euskaraz ongi dakigula uste dugu. Nik doike, aleman eta ingeles askok baino hobeki dakit alemaniar eta inglandar gramatika. Aleman eta ingeles horiek, ordea, ni baino askoz hobeki mintzo dira eta idazten dute beren hizkuntzez.

Euskal Filologia egin, oposizioetara agertu eta hankaz gora bota zuten bat ezagutu dugu. Euskaraz solasten ez zekiela, hain zuzen ere.

Euskara bat delarik ere, mugaz bi aldetara bizi garenok elkarrengandik gero eta berexiago ibiltzeko arrisku handia dugu.

Hori ez da horren nabarmen hitz zientifikoetan. Eguneroko bizitzan, oster, bai. Gauza eta gorabehera arruntak adierazteko, Iparraldekoek frantzieratik jasotzen dituzte hitzak eta guk espainieratik.

Guk *nobela* esaten dugu, haiek (*er*)*romana*. Horrela dozenaka hitz bikote elkar-ulertezinak sortu dira.

Promenatu/paseatu, punitu/kastigo eman, tronpatu/enganiatu, kaierra/koadernoa, arrañatu/arreglatu, kado/erregalo, oto/kotxe, brika/ladrillo, trikota/jertsei, kafarra/kukaratxa, linetak/gafak, errido/kortina, xofaxa/kalefazioa, mera/alkate, faktur/kartero, melioratu/mejoratu, tabloa/kuadroa, desinatu/dibujatu, portreta/ertrato, bulanjerra/panadero, muntra/erloju, burra/mantekila.

Zergatik ahaleginu ez, elkar ulertzen? Biok erabiltzen ditugun eta biontzat ulergarri diren hitzak hartu beharko genituzke, hitz horiek nahiko ezagun direnean batez ere.

Elaberria, *eskuera*, *eskuerakutsia*, *labezomorroa*, *berebila*, *auzapeza*, *marrazkiak* egin, *argazkia*, *ogiketaria* edo *okina*... erabiliz, mugaz bestaldeko batasunari lagunduko genioke. Mila aldiz esana da, zuzen esan ere, euskararen batasunak duen oztoporik handiena ez dagoela aditzean, hitzetan baizik.

Euskaraz idazten dugunean, guk, Espainiar Estatu barruan bizi garenok, ez genituzke txitean pitean Espainiako hitzak eta egiturak erabili behar.

Hauxe galdetu beharko genieke geure buruei: ulertuko al dute gure mugaz bestaldeko haurrideek idazten ari naizena? Euskal probintziak lau direla uste duena ez da benetako euskaldun.

3. EUSKARA ABERATSA DA

Euskara aberatsa da. Zoritxarrez ez dugu maiz aberastasunok geureganatu. Zazpi probintzietan altxor handia gordea da. Egungo egunean ere erabili egiten dute zaharrek. Zoritxarrez guk geure herriko euskara apurtzua bakarrik dakigu.

Gauzarik gehientsuenak esan litezke ongi euskaraz. Euskarak baditu erdarak bezala, eguneroko harremanetan erabiltzeko esamoldeak eta esakerak. Hor daude lekuko Koldi Eizagirrek bildutakoak. Nik neuk ere milaka bildu ditut 20 urte honetan

eta gerokoan ere biltzekotan nago. Egun batez, zahartzaroan horiekin liburu bat aterako dut.

Erdara-euskaraz bikain idazten duen batek esan zuen bezala-ugerraren antzeko da: euskara erdoiltzen eta jaten ari da. Gero eta sarriago entzuten dira *bajau, juntau, eskapau, pastorea, salto egin, tio...* herriak *jaitsi, elkartu, ihes egin, artzain, jauzi egin, osaba...* ere erabili arren.

Zergatik erleak bezala izan ez? Lore kolkoz kolko ibili ezitia xurgatzen? Hobe al da kakalardo izatea, eta trakeskeria guziak biltzea?

Filologia ikasi zuen bati hauxe entzun nion: *eskapau* eta *ihes egin, tio* eta *osaba* ez zirela gauza bera. Konnotazio ezberdinak zituztela.

Hauxe erantzun liteke: gaurko hizkuntzalari batzuek sinonimorik ez dela esaten dute. Neronek entzun diet Iparrameriketean. Ez direla bi hitz sema guziak bat dituztenik. Beraz, espainieraren hitz guziak aldatu beharko genituzke euskarara.

Berriz ere esan behar: Bai aberatsa Bizkaitik Zuberoaraino egiten den euskara! Hogei urte honetan harriturik gelditu naiz ni zazpi probintzietako baserritarrei entzuten. Aho zabalik. Horien etorria, horien oparo berba egitea, horien euskararen edertasuna, zaulitasuna eta bizitasuna!

Bizkaitik Zuberoara bide luzea da eta herri bakoitzean gordetzen dira besteetan galdu diren hitz, esamolde eta atsotitz jatorrak. Dena bildurik euskararen dotoretasuna!

4. HIZTEGI HAU ZER DEN

Esan dut lehenago ere, ene lan hau zuzen zuzenik Euskal Gramatikaren alderdi ilunak, argitzeko eta esaldi okerrak zuzentzeko dela.

Alferrikako erdal hitzak baztertze ere bai. Behar denean erdal hitzak erabilteza ongi dago. Zenbait alorretan kanpoko hitzak geureganatzea nahitaezkoa dugu.

Askok, ordea, eguneroko gorabeheratan, erdaraz pentsatzen dutelako, euskal hitz jatorren orde, erdarazkoak erabiltzen dituzte. Batzutan, gainera, erdal hitzek euskal perpausaren egitura azpikoz gain iraultzen dute. Euskal sustraiari lotzen ahalagindu naiz, beraz.

Zuzenik hau ez da esakera, erramolde edo atsotitzen hiztegia. Haseran esan dut, geroago, beharbada, ekinen diodala inongo hiztegieta azaltzen ez diren hitzez, esakera eta atsotitzez eginiko bilduma baten lanari. Halere, holakorik asko edirenen du irakurleak hiztegi honetan.

Hiztegi hau, hein handiz, euskaraz idazten dutenei begira egin dut. Euskaraz airoski idazteko lehen urratsa erdarak eragindako aldrebeskeriarik ez egitea da.

Idazle onak ez luke erdarakada nabarmenik idatzi behar, idatzitako okerrak larriago dira eta, solasean egiten direnak baino. Idazleak —irudigileak harri konkorra bezala— hizkuntzaren latza leuntzeko, mazelak kendu eta apaintzeko astirik bait du, antzerik edukiz gero.

Hori ez da aski, ordea. Lore artifizialetan ez dugu, apika, hutsik aurkituko. Lore arfizialek, baina, usaina, goxoa, jantzia, bizia falta dute.

Eraberean, gure euskararen okerrak ez bada ere, agian ez da argirik, bizitasunik, zaulitasun eta garazirik sumatzen. Euskara plastifikatua eta arfiziala, robot bat bezala laborategian egina izan liteke. Zenbait esaldi gramatika aldetik gaizki daudenik ezin esan. Euskal arima eskas dute, ordea.

Ez da ene asmoa estilistika libururik idaztea ere. Halabaina, maiz gauza bera-tua molde askotara esan litekeela ikusiko du aztertzaileak. Estilistika bidean nolabait ere urrats batzuk egingo ditu hartaz axoldurik dagoenak.

5. ZEIN ESALDI BILDU DUDAN.

Egungo egunean maiz agertzen diren esaldi okerrak bildu ditudala uste dut. Jakina, ez dira hemen guziak.

Esaldi okerrak gehienok azken urteotan idatzi diren elaberrietatik (romanetarik) jaso ditut. Han eta hemen entzundakoak ere aldatu ditut liburu honetara.

Ene Euskal Filologia ikasleek ere maiz ekartzen dizkidate esaldi okerrak eta zalantzazkoak, argitzeko. Hemen agertzen den esaldi asko aztertzen ihardun dugu eskolan.

Neronek 18 liburu idazterakoan aurkitu ditudan oztupoak eta kekkak baserritarrekin garbitu izan ditut. Horiek ere sartu ditut lan honetan. Non linburtu edo behaztopa litekeen jakiteko, nor bera bidean ibiltzea hoberena.

Izena ERDERAKADAK eman badiot ere, ez dut esan nahi esaldi guztiok gaizki direnik. Lehentxeago ere esan dut zalantzazkoak ere ekarri ditudala, ongi egon arren.

Bestalde, esaldi bat gaizki edo ongi dagoen esatea ez da erraz. Gaizkiaren edo zuzenaren mugak ezartzea ezinezkoa da. Dena dela, euskal sen pixkat duenak, berehala ikusiko du zenbait esaldik itxura hobea duela, besteek baino.

Zorrotz hartuz gero —hizkuntzalariek horrela diote— geure artean darabiltza-gun esaldiak ulergarri badira, ez dago gaizki direnik esaterikan. Gehienez hauxe esan genezake: erdararen antza ematen zaiela, hitzez hitz erdaratik itzuliak direla edoeta erdal usaina dutela.

Beraz, gauzak estu estu harturik honatx geure aitormena: ikertzeko ekarri ditugun esaldiok zazpi probintzietako baserritarrek beste modu batera ere esaten dute.

Esaldi baten ondoan baserriaren izena ipintzerakoan hauxe bakarrik adierazi nahi dut: hor bildu dudala. Ez dut esaten hor bertan beste modutara esaten ez denik edo beste baserrietan ere horrela esaten ez denik.

Noiz behinka galderari zuzen erantzuten ez dioten adibideak ipini ditut; nolabait ere galderari lorturik edo hurbil zaizkion alor semantikoetakoak.

Batzutan bildu ditudan adibideei ohar luzeagoak egiteko gogoak eman dit. Ene lan hau gehiegi hantuko litzakeela ikusi dut, ordea, eta bere hartan utzi dut. Beste gramatikalariei leporatzen diet egiteko hori.

Beste alderdi zail bat ere bazen ene lanean. Nola aldatu baserriarren esanak hiztegi honetara? Beraiek esanda bezala? Horrela aholkatu naute batzuk. Euskalkien onetan ezer ez aldatzeko.

Beste batzuk, ostera, inola ere hori ez egiteko. Euskara batuaz emaitako. Askoz errezago dela jendearentzat. Zer egin?

Erdi bidetik jo dut. Batzutan euskara batuaz eta bestetan zuzentxeago. Horrela euskalkiak aztertu nahi dituztenei bidea leunduko diet. Edozelan ere gogoan hauxe eduki behar dugu. Egungo egunean benetan euskaraz ongi ari direnak euskalkiz mintzo direla. Garbi dago zergatik ekarri ditudan esaldi osoak. Lexemek ez dute balio osorik esaldietan baizik. Zenbait hiztegiren alderdi txarra horixe da. Hitza badakarte; nola erabili, ostera, ez. Zeini eta nola lotu ez dute erakusten. Zenbait esaldi ezarriz gero, ez legoke zalantzarik. Horretan Retanaren, Villasante-Axularren eta Sarasolaren hiztegiak txalogarri dira, hitza ez ezik, nola josi ere erakusten digutelako.

Lan hau basetxetan bildutako esaldietan oinarritu arren, maiz Axularren eta Leizarragaren adibideak ezarri ditut, biok maisu handizat ditudalako.

6. EUSKAL HERRIAN EGITEN DIREN EUSKARAZKO HUTSAK

Aberastasun berexiekin batera Euskal Herriko eskualdeek badute zeinek bere murriztapen jakina.

Mugaz bestaldean egiten diren hutsetan bi dira nagusi, ene ustez. Berriz ere galde egin behar, hutsok huts direnez. Dei itzazu nahi duzun bezala.

Oso sarri ez dute *nork-nori* eta *nork-nor* bereizten. *Amari esan dut, amari mintzatu naiz* eta horrelakoak entzungo dituzu, *amari esan diot* eta *amari mintzatu natzaio* esan beharrean. Frantzierak eraginda, gero eta sarriago *nork-nor* moldeak erabiltzeko joera dute: «ama laguntzen dut», «haurra igurikitzen dut».

Beste murriztapentxoak: galdegaiarena. Ez dituzte bereizten *Jon erori da* eta *Jon erori egin da*.

Joskera: perpausa nagusia bakan ipintzen dute azkenean. *Erran du jinen dela*. Bizkaia eta Gipuzkoako baserrietan sarriago entzungo duzu: «etorriko dela esan du».

Frantsesaren eraginez ez dute horren garbi egon/izan bikotea bereizten.

Erakusle intentsiboak eta erreflexiboak galduxeak dituzte.

Hegoaldeko baserriarrei sarriago entzungo diezu euskal senari dagokion *iragan oraingotua* (orainaldi historikoa): «Bazen Ezkurran gizon indartsu bat. *Joan da Donostiara...*» (*Joaten da Donostiara*: ez da hain jator).

Mugaz honuzkaldean aditza aldetik motzago ibiltzen gara iparraldekoak baino. Zuberoan batez ere aditzaldi kontuetan askoz aberatsago dira, esaldiak zehaztasunez eta bizitasunez apaintzen dituztela.

Bestela ere, guk nahasi egiten ditugu erroa eta partizipioa. «Hartu dezagun», «hartu ezazu»... eta horien antzekorik ez duzu Iparraldean entzungo, «har dezagun», «har ezazu»... baizik.

Espainierak eraginda, Hegoaldean maizago aditzen dira *nork-nori* moldeak, behar ez direnean. «Kalean Mireni ikusi diot», «amari nor eramango dio kotxez?». Iparraldekoek ez dute ia inoiz horrelako hutsik egiten.

Hegoaldean, denera jota, aditzak *nork-nori* moldeei lotuago ikusten ditugu: «Deitu amari», «utzi bakean amari». Iparraldean: «Dei ezazu ama», «utz ezazu ama bakean».

Eskualdeetara etorri, Bizkaian galdegaia, erakusleak, erreflexiboak... zoragarri egiten dira. Axularren eta Leizarragaren euskara irakurri eta egungo bizkaitarren euskara entzunez gero, berdintsu direla esan liteke, alderdi guziotan.

Hogei urtean zazpi probintzietako baserrietan ibili eta gero, eritzi honetara heldu naiz: Bizkaiko euskara aurpegi itsuska baina osasun ederra duen neskatila bezalako delako, bihotza, birrikak, gibela... biziki osasuntsu dituen neskatxa.

Gipuzkoako euskara neskatila begitarte polita da. Eskuarki fonema leunagoak hartzen dituelako, belarrietarako Bizkaiko euskara baino goxoago da. Osagarria, ostera, Bizkaikoa baino hobea duenik ez nintzateke ni esatera ausartuko.

Ez nuke hau esango neu giputza ez banintz. Usu ikusi dut, ordea, bizkaitarrak uzkur eta lotsa giputzen aurrean. Ahalke horrek kalte handia egin dio euskarari, bizkaitar askok erdarara jo bait dute, euren euskara *zatarra* delakoan.

Euskal egiturei begira, hutsik gutxienik ediren dudak eskualdea Markinakoa liteke. Zaila hango inguruetako euskarari okerrik harrapatzen.

Guziok dugu non ikasi. Izan gaitezen apal. Nork bere probintziako euskara ezertan edukitzea on da. Beste probintzietako euskarak guk galdu ditugun aberastasunak gorde dituela sinets dezagun, ordea. Familia bateko haurride gara. Maitasunean elkarrengandik asko ikas genezake.

7. LANA NOLA EGIN DUDAN

Esaldi okerrak edo zalantzazkoak zuzentzeko baserrietara jo dut.

Alemanieraz edo ingeleseraz ikasteko hizkuntza horiez mintzo diren lurraldeetara joan behar da. Euskaraz ongi ikasteko euskaraz mintzo den tokietara.

Zazpi probintzietako adibideak edirenen dituzu hiztegi honetan. Zazpiak bat gara, zazpi probintzietako euskara bat da.

Euskarari odol berria eman behar diogu. Horretarako euskalkien txertoa sartu behar. Bada arriskurik euskara batua Gipuzkoako euskara maxkala egiteko, ez Gipuzkoako baserriarren euskara indartsua, euskara «funtzionala», ahula, plastikozkoa baizik.

Arbasoek eman diguten ondasuna, guretzat gorde duten altxorra ez dezagun zapuztu. Maiz egiazko euskal hitzak erabiltzeko uzkur gara. Non edo han bakarrik esaten omen dira eta horregatik gutietsi. Erabiltzen baditugu, ez dira gehiago baztar bati bakarrik lotuak izango.

Gu ere, berandu bada ere, Prousten antzera «à la recherche du basque perdu» ibili beharko ginake.

Baserrietan jende zaharren esaldiak bildu ditut batez ere. Baserrietan beraietan ere zaharrak baino zabartxoago da jende gaztea. Gazteek frantzieraz edo espainieraz erraz iharduten dute. Zaharrek euskaraz hobeki dakite. Aiton-amonetarik bilobietara bada aldaketarik. Txarrerako, zoritxarrez!

8. NOLA ERABILI HIZTEGI HAU

OHAR NAGUSIA: Aztergaia letra handiz edo beltzez idatzitakoa da. Baserrietako adibideak aztergaia argitzeko dira. Bila ezazu nahi duzun hitza bi tokitan: lehenik hiztegian eta gero aurkibidean. Bietan ediren zenezake gura duzuna. Erdarazko hitz batzuk ere sartu ditut, bilatzeko lana errazteko.

Batzutan atzizkia da aztergai. *Egitearren* ikertzeko ez egin-en bila ibil; *-tearren* duzu azaldurik.

Esaldietan, gehienetan, oker den lexema hartzen dugu oinarri. Hots, hiztegia gaizki edo aztergai den hitzen arauera egina dago.

Batzutan sustantiboa izan liteke aztergai. Bestetan aditza. *Astoan bihurtu zen* perpausan *astoa* gaizki badago ere, *bihurtu* da aztergai, hori bait da esaldi okerrak sortarazten dituen lexema.

Esaldi baten atzean baserri baten izena baino gehiago agertzen bada, esaldia zuzen lehen baserriari dagokala esan nahi du. Eta beste baserrietan ere egitura bera darabilte.

9. NEURE LAN HAU EUSKALTZALEEN ERAGINGARRI IZATEA NAHI NUKE

IRAKURLE: hemen aurkituko duzu esaldi asko zeure herrian beste moldez esaten dutela ikusiko duzu. Agian, askoz hobeto esan ere bai.

Arren, egin ezazu esaldiz esaldi zeure herriko euskararekin nik hemen baserri hauetan egin dudana. Bai mesedea egingo diozula Euskal Herriari!

Azken denborotan, euskaraz hobeki ikasteko, liburu klasiko-zaharretara jotzen dugu. Oso ongi. Ez da aski, baina. Gutxi idatzi izan dugu. Liburuetan, zoritxarrez, ez dago jasorik herriak erabili duen eta egun erabiltzen duen zatitxo tipia baizik.

Hondikotz, asko galdu dugu. Nafarroan, adibidez, eskualde askotako euskara betiko iraungi da.

Bildu gabe dagoen eta jendearen ahotan dagoen altxorra jaso beharra dago.

Zoaz, beraz, euskaltzale, baserrietan gaindi, hel zaitetz mendiko sakanetara eta batu euskaldunen aberastasunak.

Galderak egin jende zaharri, ahal den zaharrenei, erderaz gaizki eta euskaraz ongi mintzatzen, gauzak euskaraz ikusi eta burutan euskaraz irauli-biribildu egiten dutenei.

Euskal hitz, esaldi, esamolde eta atsotitz bakoitza harribitxia bezala jaso, gorde, maite, erabili beharko genuke. Herriak darabiltzan hitzak baztertzea geure burua murriztu, maxkaldu eta ahultzea da.

Landarbasoan 24.000 urteko giza hondakinak aurkitu ditugula eta pozik. Ez ote dute askoz gehiago balio oraindik bizirik baina herrietan izkutatuturik dauden euskarazko hezurak?

Egun jasotzen ez badugu, bihar galdua izango da.

Horretarako lagun handiak izango dituzu kasetak. Eraman zuerekin magnetofonoa eta jaso zaharren hizketak, ipuinak, oroitzapenak.

Herri bakoitzean egin beharko genuke lan hau eta gero lanaren kopia bat Euskaltzaindiari igorri.

EUSKAL HERRIKO UDALETXEEI: udaletxetako lan ederra bada aintzinetako oroitzapenak atxikitzea eta berritzea, areago geure izatearen muina den euskara.

Horretarako gai direnei dirua eman eta azter ezazue zeuen herriko euskara, egin herriko gramatika, ahalik eta hiztegi osoena ere bai, esaldi osoak eman.

Gero argitaratu. Udaletxe guziek egin beharko lukete hori, **EUSKAL HERRIAREN ONETAN.**

AMAIERA: hasi naizen bezala bukatu nahi dut. Lan hau bururatzen hogeitau urte honetan lagundu didazuen zazpi probintzietako baserri-laborari maiteok: **ESKERRIK ASKO.**

A

BEREIZ: Ø / -A

- *A. 1. egon da 2. egona da ~ egonda dago.
- B. 1. etorri da 2. etorria da ~ etorrita dago.
- D. 1. saldu da 2. Saldua da ~ salduta dago.
- E. 1. ikusi dut 2. ikusia dut ~ ikusita daukat.
- F. 1. ikusi nuen 2. ikusia nuen ~ ikusita neuhan jaio zen kan, han jaioa zen

OHARRA: 1. *oraintxe gertatu da*. 2. *zerbait lehenago gertatu zen eta behar bada orain ere gertakizun haren eraginak badirau*.

*ADIBIDEAK: 1. egun ikusi dut filma hori (KA, G). 2. ikusia dut filma hori; ez noa, beraz, berriz ikustera (KA, G).

1. igaz ikusi nuen filma hori (G, AM, KA).
2. ikusita neukan filma hura; ez nintzen, beraz, ikustera joan = *lo tenia visto, lo habia visto* (ID, AM).

*azken hatsa botiaia zuen (ITS), oraintxe jakin ditut xehetasunak / jakinak ditut xehetasunak (ITS, AM), behi gehienak salduak ditugu (ITS, O, ID), han izatua da (ITS).

*1. lanak egiten asia naiz (aspaldi, edo orain bost minutu...) (G, O), bearrak iten asita nago (IN, IP). 2. lanak egiten asi naiz (oraintxe) (G, O), bearrak iten asi naz (IN, IP).

*joan da (KA, EG, AZ, S) ↗ **gerundio**. joana da (KA, S), joanik da (AL, LAR).

-A. **BEREIZ:** zoragarri / zoragarria ↗ **zoragarri**.

-A. indarra hartu, poza eman, sua egin, argia egin ↗ **mugagabe:** indar hartu, poz eman, su egin.

ARAUA: hitz elkartuetan -A ez denean ez ipini -A: *pozemaile, su egile, argiegile...* □ *poz eman, su egin...*

Lege honek beste kasu anitzetako balio du:
1. *egin: argi, kalte, bultz, deadar, bero, hotz, elur, egur... haur, otoitz, amets, eztul, lan*. 2. *eman: berri, musu, min*. 3. *hartu: arnas, erruki, poz*. 4. *edan: esne, garagardo, kafe*. 5. *hil: txarri, txori...* 6...

*ADIBIDEAK: untzi xahatzen (LAN), jateko prestatzen (AL), ohe egiten (KA, LAN), xerri bazkatze (LAN), jada etxeari su emaitera zoon (ITS), othe epaiten (AL), txarri hiltzea (U), erhauts khentzen (ITS, KA), ixtorio kondatzen (ITS)...

*uskaldun / uskalduna (AL), etxen / etxean (AL) ↗ **mugagabe**. katu lodi eta polita / katu lodia eta polita: bi katu izan litezke (O).

*eri / eria ↗ **gaixo**.

*ikusi behar dut / ikusi beharra dut (premia handiago) (IB, EL, G).

Elgoibarren egon zen **ABADETZAT** ↗ **-tzat**, **bezala:** Elgoibarren abade egon zan (IP, IN, EL), apez egon zen Altzain (AL, O, G), Goizuetan egondu zen apez (G, AM, S), Idiazabalen egon zen apaiz (ID, O), Itsasun bikario egon zen (ITS, AL, G, KA).

ABALANTXA bat izan da: elur etena egin da (O), elurra goitik betti bildu da (G), elhür lurtak izan dira (AL), elur bankada irris-tuta joan da (S), elur jausia (IP), elur luizia (ID, O).

18 segundutako **ABANTAILA** atera dio: 18 segundu kendu dizkio (ID, O, G, KA), bost minutu(re)n alde kendu dio (G, U, O).

auzia **ABANDONATU** zuen ↗ **sobreseitua**. oso **ABANDONATURIK** ibiltzen da ↗ **zaindu** (gabea).

zakurrekin, katuekin eta **ABAR** pozik zegoen: eta abarrekin \nearrow **joskera**.

ogiketariak ez zuen **ABASTORIK** ematen: eskatu ahala ez dute egiten (S), eruen ala zeuen emoten (IP), naiko ezuen emoten (IP), etzuen ematen eskatu aña (O), naikua etzun ematen (G), ekarri ala saltze euren (IN), ez du manatu bezainbat fornitzen (KA), jenteak arrapaska eramaten du ogi hau (O).

katuak **ABERE** politikak dira: abere = behi jentea (LAN), Landibarren aberea adarduentzat erabiltzen da (LAN), behia, zezena... aberekunde dira (LAND) behorak, astoak, zamariak, gereñoak zaldikundu dira (LAND) ardiak eta ilea dutenak azien-dakundu dira (LAND). Goizuetan eta Odriozolatxon *abere* kaskoa duen animalia da: behorra, zaldia... **azienda**: ilea dutenak (G), abel gorri = behi jentea (O, S), Asnasak: zaldi jentea, behor, asto (S), katuak animale politikak dira (O), gatia ez da abere (LAN), kabalak artatu behar ditugu (= animaliak) (KA, LAR), hazienda: ilea duten animaliak (LAN, KA).

ABIADURA: abiara ederra darama orrek (O), aballa ederra ari du orrek (G), ze belozidade daraman orrek (S), abiadura handia daramala (AX 61), orrek damakien abiara (O), abiara ederrean jun zan (O), egiñale-tan dioa (G), oso bizkor, azkar, aguro dijoa (EL, O), egiñal guzietan dioa (G), oso arin doa (S), egiñala guztian dijua (O, ID), egiñalean darame (S), abixara guztien doie (IP), tira ahala joan da (KA), biziki fite joan da (KA), ahal bezein fite joan da (KA).

ABIADURA murriztu zuen \nearrow **murriztu**.

oso **ABILA** da \nearrow **balio**. 1. lanean adret da (AL, KA, LAR, LAN). 2. gauza oietako antzakaitza da (G). 3. antxosu da lanean (S), gauza oietako antzoso da (G), gauza ontarako, ontan ez naiz antzoso (S), moldakaitz / antzoso (S). 4. gauza auetan oso artexa da (O). 5. gauza hauetan egokia da (O), langile egokia da (O), oso lan egokia da Joxeba (O), arotz lanean ere oso egokia da (O). 6. esku onekoa da bearrerako (IN, IP). 7. laneko ganua badüzü (AL, LAR). 8.

bearrerako badauko gatza (IP). 9. gitarra jotzeko dohain handia du (KA). 10. oso moldoxua da (O). 11. oso tajutsua da edozer gauzatan (O, ID), tajua ~ egokitasuna (ID). 12. agitz trebea da ori (S). 13. orrek badu gitarra jotzeko adurra (O), lan egiteko adurra (O). 14. esku onekoa da; gaztak ongi egiten ditu (G), eskuondo ona / txarra du (S). 15. orrek badu gitarra jotzeko alderdia (AM), ez baitut nik egundaino dantzako alderdirik izatu (ITS)... alderdi aundia (AM, G).

ABISATU \nearrow **deitu** \nearrow **entzun** \nearrow **ikutu** \nearrow **obeditu**.

OHARRA: Aditz askorekin gertatzen da: *Mendebaldean datiboari lotzen dioguna (maiz espainolaren eraginez), Ekialdean akusatiboari (maiz frantsesaren eraginez) lotzen diote*. 1. *abisatu amari* (IN, ID, O, G, U, IP, IN). 2. *ama abisatu* (AM, ITS, G, S), *medikia abertitu* (LAN, KA), *abisa gitzazu bihar* (ITS), *abisa zazue medikue* (AM), *Landibarreko mera abisatu zuten* (LAN), *abisa zaitzan* (AX 211), *aberti ezazu mera* (LAR).

ABISATUTA zaude: jakinaren gainean zaude (G, O, S), jakin dago oi (U).

Espainiako Konstituzioa **ABOLITU** zuen: kendu (G, O, U, IP, KA).

maiz gizonak behartzen du emakumea **ABORTATZERA**: haur ukaitzea (LAN), ume galtzea (G), haur galaztea (AL), haur egoizte (AL), haur galtze (AL, O, G, KA), haur ekoizte (AL), umia bota (IP).

toki **ABRIGATUAN** dago: toki gordean (IP, O), leku ezkutuen (IP), etxe ori toki babesean dago (O, ID), toki ezkutuen (IN, IP), ostondute = *escondido* (IN), leku malda da (KA), aizen girizen gaude (G, S), aize babesian (G), haizemaldan dira ardiak (KA) / haizetoki (S).

berrogeik haren alde eman zuten botua. Hoge **ABSTENITU** egin ziren: Hogeik ez zuten boturik eman (O, ID, EL), ogei eman gabe gelditu ziran (O, ID, EL), ogei jendeak ez dute bozkatu (KA).

Begia eduki esaldi **ABSTRAKTOEI**. Zehatz eta erraz ezazu!

*ADIBIDEAK: irratia-aren potentzialitatea

eta kredibilitatea langileen adostasunean eta kapabilitatean fundamentatzen da: langileak batuago eta antzetsuago, irrati hobe eta adituago (GR).

*datorren igandeko Atletiren garaipenaren posibilitatea entrenatzearen maiztasunean dago: Atletik, maiz entrenatzen bada, irabazi egingo du igandean (GR).

*euskaldungoa da bezero kopuruaren gehiengoa: bezerorik gehienak euskaldunak dira (IB, EL, O), (klientak) (KA).

*hori ona izango da lanpostuen sormenerako: lanpostuak sortzeko (O), lana ugaltzeko (O), lan gehiago izaiteko ~ ukaiteko (KA).

ABSURDOA da \nearrow **sentidurik**.

ez ibili **ADARRETATIK**: goazen harira (ID), utzi berrikerari eta segi lengoari (G), erara berba egin dau (IP), bueltaka ez ibili (O, ID, EL), saltoka ari (S, AM), batetik bestera aldatzen da, ez daki konbertsazioa eramaten (G), ez du konbertsaziorik erabakitzen (O), goazen muinera (ID), solastun berdina ~ polita da (S), gure gaiari segitu behar diogu (O), gere gaiakin segi behar degu (ID), lengoari segitu behar diogu (G), erran garbi inguruka ibilli gabe (KA), denbora ez galdu berrikeran! (U), etzazula nahaskeriarik konda (KA), berrikerak utzi! (O), garbiki erran itzazu gauzak itzulikan ari gabe (KA), berrikeran denbora galdu dugu (G), oiek solasean bai denbora azkarri galdu (S), ez duzu izketan bukatzen; autsi zak behin (G), gauzia esan zazu garbi, dan bezala (O), ... orrenbeste buelta eman gabe (O), orrek ez du inoiz konbertsazio bat ondo erabakitzen (O), ez daki konbertsaziorik erabakitzen (O), ez daki hizketan egiten (ID), esan gauzak garbi, dudan ibilli gabe (G), ez du konbertsazioa ongi eramateko balio (G), eztaki berbetan (IP), eztaki berbaz (IN) ez daki solasean (S), erroak utzirik, adarreki lotzea (AX).

zure **ADIN** berekoa da: \nearrow **denboraren** (aldea). 1. nere adine da (AM, S), biak adina dira (AR), Antonio gure adina zen (S, AM, AL), Alfredoren adina da (S). 2. ene adintsu da (AL, AM, S, LAN), adintsuak gira (LAN). 3. Alfredon beradineko da (AL),

zure ber adinekua da (AL), ber adina düzie (AL), beradinak ginen (AL), Juaniton adin adina da (S), adin berak gira (LAN), haren adin bera du (KA). 4. adin berekoak dire (AM, LAN, KA). 5. Alfredoren adinekoa da (U), adinekoak ziraie (AL, U), nire adineko laguna (S). 6. nire kidekoa da (S, U). 7. urte batekoak dira (IN, O), urte barrukoak dira (O, IN), urte berekoak dire (S, G, AM, KA).

ADIN oneko emakumea zen \nearrow **urtetan** (sartua). 1. adin gordineko presuna (ITS), adinik hoberenean da (KA), adin gordinean da (LAN), sasoi emakumea da (O), sasoi ederra dauka (G), sasoi oneko andrea (IN, U), emakume ori gazte da oño (AM), adinik oberen oberenean oraintxe dago (S). 2. adin handia du (KA).

ADIN diferentzia zegoen \nearrow **denboraren** (aldea).

nire **ADINA** aurrera doa \nearrow **urtetan** (sartuta). A. **ADINA** ~ bezanbat ~ beste ~ hainbat (zenbatasuna adierazten dute): nahi adina (O) ~ bezenbat (KA) ~ beste ~ hainbat (S), irabazten du.

B. **bezin** (nolakotasuna adierazten du): Miren Iruñe bezain polita da (S), Patrizia Maite bezein pollita da (KA).

lehen **ADINA** gizonak ba dira: leen a(d)ina gizon ba dira (O), lehen bezainbat gizon bada (KA), leen aña sagar ba da orain (U), leen ainbat sagar ba da (AM), zer nahi sagar bazen (KA), nai gaña gaztaña ba zegoen (O, S), nahi ainbat (S).

sagararak ADINA udareak jan ditu \nearrow (sagararak) **hainbeste**.

nola bizitzeko **diru ADINA** lortu?: bizitzeko aña irabazten dugu (AM, O), bizitzeko diña diru ba dogu (S), bizitzeko sosa aski badugu (KA), zelan iribazi bizitzeko beste diru (IN), nola irabazi bizitzeko ainbeste diru (G).

ez dakigu **zenbat ADINAKO** positiboa izan den: eztakigu zenbaterainoko positibo izan dan (O), eztakigu zenbaterainoko ona izan dan (O).

gure **ADINAREKIN** nora joango gara: oraingo gure adinean nora joan giñeke? (S, AM).

ADITU: 1. entzun. 2. ulertu. 3. esana egin. 4. elkarrekin ongi konpondu. 5. usain aditu ↗ **aditzera**.

1. aizu, gizon! (O, ID), ori aitu dugu (AM, KA), otoi, adi nezazu (ITS), mesedez, ai zazu (U), behin baino gehiagotan aditu dut (LAN). 2. gauza oietan neri etzit aditzen, ejat aditzen (EL), gauza orretan eztoz ezer aietan (IP), hitz horrek erran nahi duen gauza ez du aditzen (ITS), legea gaizki aditurik (AX 213), Baina hek etzezaten adi erran zerauen hitza (LEIZ. Luk 2,50) orretan gauzetan ezer ezteu aituten (IN). 3. erran ta erran ta ez aitzen (AM, S). 4. elgar ongi aditzen dugu (ITS) ↗ **konpondu**. elgar aditzea bilatzen dute (ITS). 5. usain txarra aditzen dut emen (G, O, S), usain txarra usaindu dot (EL), usine asmau ot (IN), zeozeren usaia aditzen det nik emen (O).

ADITZALDIAK: Kontuz aditzaldiokin! ↗ **orainaldia** ↗ **joskera**.

*gaixorik **zegoen** hiru ilabetez: gaizki egon zen iru illebetz (U), eri egon zen hiru hilabetez (KA), hirur hilabetez eri izan zen (AL, S, AM), iru illabete(a)n gaizki egondu zen (G).

*Joan **den** astean egin **zituen** 5 urte Arruazura etorri naizela: lengo astian ~ jun dan astian bete dira bost urte onera etorri nintzala (O, G, EL), diela bost urte jin nintzen (KA), orain bost egun etorri nintzen (S).

*Euskal elaberrigintza joan **zen** gizaldean hasten **dela** esan genezake: hasi zela (O).

*ba **zirudien** erabaki bat hartu **duela**: bere erabakia artua zeukana ematen zun (G), erabakia artu dula dirudi (O).

*izen horiek ez ditu aipatzen ordurako hilak **daudelako**: izen oiek eztitu aitatzen ordurako illak ziralako (O).

*ia jo **duzu** atea! ~ ia atie jo zenun! (S, G, O, ID).

*ia erori **zara!** ~ ia erori zinen (ID, S, G, O), ia bota zinen (AM, U), aantxu erori zira (KA), doidoiak egin du ez bainiz mustupilka erori (ITS).

*eia hori egiten **du**: ia hori egiten duen (O, ID, EG), eia eginen düzünez hori (LAR), ikus dezagun hea egiten duen (KA).

***atzo** etorri **naiz**: atzo etorri nintzen (O,

MO, IB, EG, S), atzo jin nintzan (KA, LAR).

*orain bi hilabete hasi **da** edaten ~ hasi zen edaten (O, ID, EL), badu bi hilabete edaten hasi dela (KA).

*euskal telebista **laster** ikus **liteke** Nafarroan: ... laster ikusiko da (O, ID, G), euskal telebista egun ere ikusi leike Nafarroan (O, ID), fitesko ikusten ahalko dugu (KA, S).

No te tienes que poner así!* ■ ez **duzu horrela jarri behar!: ez zenuen ola jarri bear (G, S), etzendun orrela jarri bear (O, ID), ez du balio kexatzea (KA).

*Gasteizera joan behar **nintzela** esaten dide date lagunek: joan bearo nukela (O, ID), joan bearo nintzala (EL), Abaigarrera gan bear nukela erran date lagunak (AM, G), Baionarat joan behar ginukeela erran dakute lagunak (KA).

*bere aulkitik eguzkia **altxatuz** ikus dezake ↗ -z. eguzkia ertetzen (O, ID), eguzkia ateratzen (S, ID), eguzkia jalitzen (KA), eguzkia azaltzen (laino denean eta) (ID).

oi un ruido que se acercaba a mí* ■ zarata entzun nuen neuregana **hurbilduz: neuregana hurbiltzen zen zarata entzun nuen (GR), gero ta zarata haundiago entzuten nun (O), gero ta soñu andiagoa aitzen nun (G).

***ibiltzean** ere loak hartzen du: ori, dabilela ere lokartu egiten da (U, O, G, ID), doala be (IN), dabilelikan ere lukartzen da (S), dabilelarik ere loa etortzen zaio ~ lokartzen da (AM).

*haur bat oraindik, eta **dagoeneko** honen ateraldiak famatuak **ziren** herrian: haur zelarik ere, ordurako haren ateraldiak... (GR), artean umia zan, baiña haren ateraldiak... (O, ID).

***lehengo** astean egon **naiz** han: ... egon nintzen (O, ID, IN).

*autobusa **egunero** hamarretan **doa** Donostiara: egunero hamarretan joaten da (O, G, ID), egun guziez otobisa pasatzen da (KA).

***hemendik aurrera** autobusa hamaiketean **doa** Donostiara: ... joango da (O, G, ID).

le cogió del cuello, diciéndole: «te mataré»* ■ lepotik hartu zuen **esaten: «hilgo zaitut» ~ lepotik eldu zion esanez... (O, ID), sa-

matik goatu eutsen esaten... (IN), lepotik hartu zuen erranez: «hilen zaitut» (KA).

ADITZERA ~ **aditzen** eman. **a.** a(d)itzera eman nion (O, U, ID), jakitun ifini neun (IP), aditzera emaiten (AX 6), horren aditzera haundia degu (O, G, U, ID). **b.** a(d)itzen emon (EI) a(d)itzen eman (EL).

EMOZIOA ADITZERA eman zuen: bere sentimentua azaldu zun (O, ID, G), «nere barrengo sentimentuak nai ditut adierazi» (Txirrita) (G), bere barneko arrenurak erran ditu (KA), orrek iraus du bere sentimendua (S), bere sentimendua erran du (S), agertuten (IN).

ADOS nago zurekin ~ ↗ **konpartitzen**. **erlijioaz ADOS** daudenak asko dira: erlijioarekin ados nago (GR), akort niz (KA), erlijioarekin pozik dago ori (O, EL, EG).

AFALDU dugu ~ afaldu gara ↗ **gosaldu**.

AFARIAN hitz egingo dugu ↗ **gosarian**.

AFEMINATUA da: **A.** emakumea bear zun (O, ID), emakume ematen du (G), ondo eme antzekoa da orixe (O), ondo emea da horixe (O), emakume gixon (S), emakume xamarra ematen du horrek (O), emakumea egiten hasi ta mutiko aterea; ta orain ez bat ez bertze (S), erdi emakume erdi gizaseme da (G), emazte manerak ditu (KA), olako marixu bat zan (EL), Ernesto gizontzale omen da (O), gizonondoko sobera fina (S), esan lei andrazkoa dala. / **B.** marimutilla ~ marimutiko (G, ID, KA).

AFIRMATIBOA esan zidan ↗ **baiezkoa**.

-AGATIK ↗ **-arren** ↗ **-teagatik**.

*esanagatik esan nion ↗ **-teagatik**.

*eskerrik asko, Jauna, ene otoi-tza entzunagatik ↗ **-teagatik**. ene otoi-tza entzun duzulako (ITS, G, S, IB, KA).

aparece una persona tocando el piano ■ pertsonaia bat **DAGER** pianoa jotzen: agertu da (G), agertzen da (G).

AGINDU (joskera bera: **esan, nahi...**) ↗ **esan**.

1. libre utzi zezatela agindu zuen (ID). 2. libre uzteko (O, EL, G, KA), ixteko (IN, S). 3. utz zezaten (ITS, LAN, AL), buruzagiak manatu dako hori egin dezan (KA, AL, LAR), amak agindu dau hori in deien (IN). 4. amak ori iten agindu dau (IN).

AGINTERA nola erabili. 1. aditz sintetikoe-

kin gehienetan lehendabizi aditza: zoaz etxera (O, ID, KA) / etxera zoaz = *vas a casa* (O), dagigun ongi (AX), zabilta ongi / ongi zabilta = *andas bien* (G, ID). 2. aditz perifrastikoein aditza zehatzailearen atzetik: ongi ibili (O, ID), entsa ibili (KA), gutxi gastatu (AZ, EG), ona izan (MO, IN, EG).

*gélidi zaoz (agint.) / geldí zaoz (orain.) (IN).

*zoaz eta ekar ezazu egurra ~ ekarri zazu egurra, joanda (O).

*zakurra aurkitu dugu; jabeak dei irratira: dei dezala (G, ID, EG).

AGRADEZITUTA gelditzen naiz: estimetan deusut (IN), estimatzen dizut (G, O, AM), estimatzen dut (KA), estimetausut (IP).

agineko **minez** ezin **AGUANTATU**: agineko minek ezin iraun dut (AM, S), ... ezin nintzan egon (G, ID), ahoko minarekin ezinegona nuen (KA), agineko minez ezin iraun (O).

***loagatik** ezin dut **aguantatu**: loari eutsi ezinik nabil, nago (O, ID), logalez ezin det iraun (O), loari ezin eutsiz nago (G), loa ezin atxikia dut (KA), logaleak ezin iraun (AM), loguriari eutsi ezinda nao (IN), logalea ezin eduki du (S).

***barrea** ezin **aguantaturik** dago: irriari ezin ekontu (S), azienda itzuli nahi eta ezin ekontu (S), indar sobera artu eta motoa gainbeheran ezin ekontu (S), barreari eutsi ezinik nabil, nago (O, ID), parriari eutsi ezinda (O, G), barreari ezin izin deusat eutsin (IN), ura parra ezin edukia (G), ez dut irria atxikitzen ahal (KA), parrik ezin eduki (G), enian erria etxekitzen ahal (AL), irrie ezin (e)txiki nuen (AM), irria ezin atxikia dut (KA), irria ezin nuen begiratu (LAN).

***gosez** ezin **aguantatu**: goseak ezin iraun dut (AM, S), goseak ezin egon (ID), goseak iraun ezinda (O), gosez ezin egon (S), beroak iraun ezinda nago (O), gosekin ahuldu niz (S), hotzak ezin iraun (O), beroa ontsa egarten düt (AL), otzez ezin iraun (O), minez ezin nuen iraun (ID), hola ez dut nik irauten ahal (KA), nik ez dezaket hola iraun (ITS).

*ez du etxean aguantatzen ↗ (kanpora) gustatzen.

*karga ongi aguantatzen du: *a.* ezin düt karga hori egar (AL), ez dūgū karga hori egarten (AL), Oraino anhitz gauza dut zuei erraiteko, baina ezin egar ditzakezue orain (LEIZ. Ioan 16,12), lagūnek lagūntū beitie beti bazterrik gabe bere arrūnkūen egarten (AL), bizkarrarian egar ahal ereman zian (AL), irauntsia egari behar dūgū (AL). *b.* emaztearen arrangurak aise jasaiten ditu (ITS), elgar ezin jasan (LAN), nola jasaiten ote du pisu hori zama hori (ITS), karga ia-saiteko (LEIZ. Luk 11,16), karga handia iasaiten du (AX, 77), eskualdunek eskupeko izaitea ez dute jasaiten (ITS). *d.* ezin paira dezake bekhatu benial bat ere (AX 275), neke hura ez zuen pairatu ahal izan (LAN), *e.* orrekin ezkontzearen, pozik eramango nituzke neke oiek (O, EL, G). *f.* nik ezin karga ori dena ixan (S).

tengo una AGUJETAS terribles ■ agujeta bildurgarriak dauzkat: dana mallauta nago (O) hau da bideondoa (LAN), hau da bes-taondoa! (S, LAN), atzo pilotan ari nintzen eta gaur besoa minberatua daukat (O), ... besoa dana minduta daukat (O), atzoko eiñia du (LAR), atzoko ondorea dut (S), miñamona galanta daukazu (IN), igandean besta eginda, astelenean buru aundi (AM), hau da astelehena (LAN).

han **AGURTU ziren:** elkar saldatu zuten (G, AM, IP), alkar ezagutu zuten (ID). oso adiskidetsu **AGURTU dit:** agurtu nau (EG, G, ID).

AHAL: ↗ ezin

ADIBIDEAK

*A. *Puedo hacer.* 1. egiten ahal dut (AM, LAND, KA), eiten altzu (G), ez nuen egiten ahal (ITS), egiten ahalko dut (AM), ez dut egiten ahalko (ITS), ez nuke egiten ahal (ITS), egin ahal dut = *he podido hacer* (LAND), egin ahal izan du (ITS, KA), ezpeitute nausiek pagatzen ahal (LAN), ez du bururatzen ahalko (LAN), amiatūren ahal dūtūgū kartieleko dantzari hoberenak (AL), hori egiten ahal zinduke? (LAN), artu al dot orain (IN), goizean artu al izin dot (IN), besta ederki finitu ahal izan zuten

(LAN, KA), joan zitzakozun erraiterat ea etzien zerbait egiten ahal (LAN). 2. bost kilo al dot altzau (seguru) (IN), ogei kilo altzau neinke (ez da seguru) (IN), al dot in (= ahal) (IN), al noan in (IN), al izangot in (IN), al dozu ifini? = *puedes poner?* (IN). 3. lenago esaten al zenuen (S, G, O, ID), erren al zuken leno (AM), lentxeago erraten al zenuen (S, AM), lenago esan ziñuken (U), esatea zeukan! = *podía haberlo dicho* (O, ID). 4. egin dezaket (ID), egin nezake (O, KA), egin al dezaket (S), sartu neinke labaiñia (IN).

B. *Puedo venir.* 1. etortzen (ah)al naiz (S, AM), etortzen altza (G), jiten ahal nūzū (AL), bihar enūkezū jiten ahal (AL), bihar enaite jin (AL), joaiten ahal nuxu Donapaleura (LAN), etortzen alko naiz (AM), sartzen ahalko da hemen? (ITS), otoz joaiten ahalko gira (ITS), deskantsatzen ahalko nauk (ITS), ausamendua kausitzen ahalko da egun horietan (ITS), etortzen al zinen onara (G, S, AM, O), bazoaz plazara? Joan neinteke (IN) (seguru ez), bazoaz plazara? Al dot joan (IN), eroan al dozu? Al dot (IN), eroan al dozu? eroan neinke (seguru ez) (IN), gizona etzuzun sartzen ahal deusen gisaz (LAN), etzen kurritzen ahal (LAN). 2. neuk be al dot joan (IN), joan al dot (IN), bihar al izango dot joan (IN), al dau joan (IN), al izango neunke joan (IN), atzo al izan noan joan (IN). 3. joatea zeukan (O, ID, IB), joaten al zen! (S). 4. etorriko al nintzake (S, AM), etortzen alko nintzake (S), jin nintake (AL), jin naite (AL), ama jin ahal ditake (KA), jun naike (EL), sartu nintike? (IN), jin nitake (KA), fan zaitezke (U), etortzen al ziñeke? (S), joaten ahalte nitzeke (S), joan neinke (IN), joan neike (O), joan naiteke (G).

¿nos podéis llevar a Eibar?* ■ Eibarrera **eraman ahal gaituzue?: ~ eramango al gaituzue? (O, G), errira eramanen nauzu? (S), eruango nozu? (IP), eruango nindekezu? (IP), eramango al niñuzuke? (O).

*hildakoarekin batera beste gazte bat zihuan; hau ere drogazale izan **daitekeelarik** ↗ **probablemente:** hildakoarekin batera

beste gazte bat zihuan; hura ere drogazale, nonbait (G, O).

puede ser que no* ■ **baliteke ezetz ↗ **igual.**

*etxe hori egiteko kezka handirik **eduki zezakeenik** ez dut uste: eukiko zuenik (G, O), etxe horren egiteko ez zuen buruausterik ukan (KA), etxe hori goitzeko eztakit modurikan aski izanen duten (S).

*zerbait gertatu **ahal zaiolakoan** beldurrez gaude ↗ **-lakoan** ↗ **beldurrez.**

*ardi asko daude or. Konta alak izango dira (G).

*ez dakigu zer gertatu **ahal zaion:** ... zer gertatu zaion (G, O, ID), gertatu zakon (KA).

¿te podré ver mañana?* ■ **Ikusi ahal zaitut bihar?: biar ikusiko al zaitut? (O, AM, G), Er. nahi nuke (G), ikusiko zitut (KA).

**para poder dar la batalla se fue a Zamora*

■ **borroka eman ahal izateko,** Zamorara joan zen ~ borrokan egiteko (G, O, IP, EL, IB, ID), borrokan artzeko (KA), Hasparnera joan niz horren erosteko (KA, LAR).

*lan egiten zuen, diru gehiago eduki **ahal zezan** ~ edukitzeko (G, O, MO), diru gehiago egiteko ~ irabazteko (KA, LAR).

*gauzak hobeki ulertu **ahal ditzagun** egiten du hori ~ guk gauzak hobeto entenditzeko egiten du ori (O), konprenitzeko (KA), ... entenditzea(ga)tik (O), entenditzearren (EL), aitutearren (= ulertzearren) (IN).

*lagunak saltzeko gerturik zegoen, bera salbatu **ahal izateko:** salbatzearren (EL), salbetearren (IN), bere burua salbatzeko (KA), salbatzea(ga)tik (O).

*nola **daiteke** hori **egitea** etxekoei: nola egin die hori etxekoei (O, ID), nola leike ori egin? (O, ID, G), zelan egin leixue ori etxekoei (IP), zelan in leike ori etzekoari (IN).

*horrek **dezake:** horrek badezake (S), horrek balezake (KA), Orrek in leik? Bai, in leik (IN).

*ez du **ahal** hori egitea: ez dago horren aha-lean hori egitea (AL, KA), ez dago orren esku hori egitea (O, G, ID), ... orren eskuen (IN), ez liroke egin (AL), ez du horren egiteko ahalik (KA), ez dago orren baitan ori egitea (AM), ez dago orren eskutan ori egiteko (S).

AHAL BEZAIN ~ AHAL DEN ~ AHALIK ~ A(HA)LBAIT: senda dadila ahal bezain laster (LAN), egin ahala laster jinen zaiku (LAN, KA),

***al dan** azkarrena (O, G, ID), zatoz al bait arinen (IN), al dan agurona (G), al dezun listoena (U), al dezun azkarrena (O).

***etorri al bezain** fite (AM), ahal bezain fite (KA), al zun bezin agudo (S), len bino len (S), zatoz lenbailen (O, IP), ziaurri, ahal bezain zalhe! (AL).

***ahalik** eta fitetzena (AX 136), mesedez, al bait arinen egin (IN), al den azkarrena (EL), egin zazu egin ahala (KA), ahalik eta agudoena (S), jantzita ahala jantzita ere, hotz (O).

***al dezun** goizena etorri zaitez (O), al den goizena (G, ID), atoz alik eta goizena (S), ahal bezain goizik zauri etxerat (KA), zatoz al bezain goizik (AM).

***in al bezain** ongi (AM), egin al den okina (G), egizu al dozunik ongien (IP), aldanik ondoen (IN), ahalik hobekiena (ITS), egin zazu ahal bezain untsa (KA).

***jan al bezain** guti (AM), al dan gutxienea (O), al dozuen geixen (IP), aldanik geien (IN), ahalik eta gutiena (AX 268), erran ahal bezain hitz gutitan (AL).

***al bezain** ixilik in solas (AM), al dan ixillena (O), al dozuen ixillen egon (IP), al danik ixillen (IN), ahalik ixilkienik (AL), al bait ixillen (IN), ahal bezain aphaltik (AL), ahalik eta ixilkiena (AX 153), ahalik eta sarriena (AL), mintza zaite ahal bezain apalik (KA).

egin **A(HA)LA** saltzen zuten (O). ↗ **arau.**

AHALEZKO ALDIA: Euskalerriko zenbait eskualdetan ahaletzko aldia erabiltzen da, erderaz orainaldia erabiltzen den kasuetan. 1. ezin genzake egin (O, G), ez ginezake egin (KA), ezin günūke egin (AL), «baserritarrak gera gu, ezin genzake ukatu» (Abesttia), nik ezin nezake ori egin (O), in geinke ori (IN, IP), orrek ori baiño geiago lezake (O). 2. Ori eliteke esan (G), ori ezin leike esan (IP, ID, IB), ori ezin leike esan (O) ~ ori eztago esaterik (O), esan leike (O), esan lei (IN), erraniake (S). 3. izin leike (IN) ↗ **posible.** izan leike (ID), leikena da (EL, IP),

ezin liteke inor bi nagusiren morroi izan (O) ~ ezin leizke txapel batekin bi buru tapatu (O), ezin gintekez andrazkoak pelotari izen? (IN), emakumeak ezin al gindezke pelotariak izan? (O). 4. zer esango zenuke (O) (zeunke) (IP, IN, ID), zuk zer esain zenuke? (G), ezin nezaizuke esan (O). 5. edozein gauza gerta liteke (G, O), gertatu leike (IP, ID), pasa leiteke (S), edozeini gerta leioke (O), horri hori hagitzen ahal liozū (AL), edozein gauza pasa litake (S). 6. hartu zeinke (IN) (zeike) (IP), zer hartu nahi zinueke? (ITS, O). 7. joan ninteke (G, O), joan nintake (KA), zu orraino joan al zinezke (G), ni ez niteke jon (G), joan niteke (IN), joan zintezke (IN), joan al neike oin (O). 8. zer nai zenuke (O, G), zer jain zenuke (AM). 9. zenbatean salduko zenuke? (O, ID), salduko zeunke (IP), salduko zeunke? (IN). 10. amarretarako an eon zeinke (IN).

AHAZTU: 1. -tea. 2. -ten. 3. -tera. 4. -teko.

1. ogia hartzea ahaztu egin zaie (IP, O, IN, IB). 2. aitzu in jako bizikletan ibiltzen (= erabat) / aitzu in jako bizikletan ibiltea (orain) (IN, IB, IP, O). 3. ahanz zekien ogi hartzera (LEIZ. Mat VI, 15) 4. ogia hartzeko ahantzi dut (KA).

BEREIZ: a. **AHAZTU** egin zaio irakurtzen (egun, lan handia izan duelakotz...). b. ahaztu zaio irakurtzea (erabat; ez da irakurtzeko gauza).

euskara **AHAZTU** zaio ~ eskuara pixka bat arrotzua du (ITS), euskara ahantzi du (KA).

AHO behera gelditu zen ↗ **aldapa**.

AHO gora ↗ **aldapa**.

AHOTSA hartuta dauka ↗ (eztarria) itxi ↗ katarroa.

AHOTSA bajatu!: ixillago ezin dezue ein itza? (U), boza apaltū (AL), boza ttipitū (AL), ixilxio itzeintzo (G, O.), apatikago mintza zite (AL), apalago mintza zite (KA), isilago mintza zaite (AM), goraxago, apaltxago (AL).

AI, min eman didazu!: atx! (AM, AR, ITS, LAN, AL, G, KA).

AIBA!: otsi! (O), tori! (G, S), hartu! (EL), no hori (neskari hika) (KA), to hori! (mutilari)

(KA), horzu! (KA), to! (S), autsi! (IN), eutsi! (EL).

jo eta **AIDERA** bota zuen ↗ **haize**.

ni ari naiz beti berandu **AILEGATZEN**: ni izan naiz beti azkena (G, O), ni bete berandu iristen naiz (O, ID), ni beti berandu nabill (O, ID), hori beti berant heldu da (KA), beti ni gibeletik (AM), gu beti azkenak (AM).

-**AINO** ↗ -ano.

AINZA(KOZA)T hartu ↗ **ondo** (hartu).

ez erre **AIRE** honetan! ↗ **prohibitu**.

ejercicios al AIRE libre ■ **aire libretako** ekin-tzak: ↗ **kanpo**: etxetik kanpoko jardunaldia (O).

bere **AIRERA** bizi zen ↗ (bizitze) **independiente**.

AITAK esana egin zan ↗ (aitak) **esana**.

AITA gurea zeruetan zaudena ↗ **profeta**.

Gure aita zeruetan ~ zeruan zaudena.

AITON amonaren batzuk agertu ziren: aitona amona batzuk (O), aitona amonak (G), aitatxi ta amatxi batzuk (AM, KA).

Arafat **AKABATUA** dago: Arafat kito da (O, G), ondatu de (AM), Arafat errekan dago (KA).

hondakin **haietaz** **AKABATZEA** erabaki zuen: azkeneko pastel ondarrak jan zituzten (G, O), ondar oiek bukatu (O), bixkotx undarrak jan ditugu (KA).

es el acabose ■ **AKABUA** da: au azkena da! (G, O, AM, KA), au atzena da (IN), azken azkenekoa da au! (S), hau sordeijena da (AL).

AKASO euskaldunak zarete?: Inondik ere euskaldunak al zerate (ID, O).

erropa **AKLARATU**: uran irago (G), ur garbian pasatu (KA), uretan astindu (O), ur garbian garbitu (S), txortolatū (AL), garbitzean galtzerdiak murruskatu (S), untxi hori xaharrazak untsa (LAN), erropa murruskatu eta bihurtitu (G, O), xafarratu (KA).

hori Keparen **AKOLITUA** da ↗ **monagillo**.

ongi **AKORDATZEN** naiz ↗ **gogoratu**.

ez da hemen **AKOSTUMBRATZEN** ↗ (kanpora) **gustatzen**.

AKTIBO ↗ **pasibo**: erdaraz pasibo moldetan ematen diren esaldiak, euskaraz aktibo

moldez eman litezke. **ADIBIDEAK**: Errealak gogortxo izango du partido hori (G, O), aur orrek ama falta du (G, O, KA), ama bizi du oraindik ere (G, O), (orai ere) (KA), iustitziaren arrazoin hau bortitzago iduriturik (AX 213), jendea arrituta eukitzen du orrek (O).

hau **AKUSATU** zuten: honen gainean bota zuten errua (O, G, ID), areri bota eutsie errua (IN), hura omen zen hobendun (KA), hura salhatu zuten (KA, AL).

AKUSAZIO gogorrak **bota**: arront salatu zuten (G), bortizki salatu dute (KA), salaketa aundiak egin (O, ID).

ALA galduz doa, *edo*-ren faboretan. ni naiz edo hori?: nor da erresumako ederrena? Ni niza ala nor da? (LAN, AL), hilik ala bizirik da? (AL), il da ala bizi da? (IP, IN, ID), hila ala bizi da? (KA, LAR).

BEREIZ: 1. Miren **ALA** Maite. 2. Miren *edo* Maite. 3. Miren **nahiz** Maite. 4. Miren eta Maite. 5. Bai Miren **bai** Maite.

nos hemos sentido el uno junto al otro ■ **ALBOAN** sentitu gara: alkarren ondoan pozik gengozen (IP, IN, O, ID), elgarren ondoan ~ elgarrekin kontent ginen (KA).

Pello etxe **ALDAMENETIK** igaro zen: aldameneko etxetik (O, ID), alboko etxetik (IN), auzoko etxearen ondolik ~ ondoan pasatu da (KA), auzoko etxetik (IN, S, ID), bazterreko etxetik (G), gazte ori barrideko etxetik pasatu da (AM).

ALDAPA ↗ (mendan) **gora** ↗ **sorbaldaz**.

A. 1. aldapan **bera** (O, ID), aldaparan **bera** (EL), aldapan **beiti** (S), aldatzak **bera** (IN), aldatz **bera** doiez (IP), aur beran **doa** (IN), gainbe(r)a fan da (U), gainbera eldu da (AM), gainbehera banoazū (AL), goitik **beiti** (S), malda **beiti** (S), maldak **beiti** (G), mada bati behera joan zen (LAN), paitia behera (AL), patarra behera abiatu gira (AL), khe biden behera eratxi zen (AL), mendiari behera ~ beheiti abiatu zen (ITS, KA), patarrari beheiti (KA), ura errekarri behera **doa** (ITS). 2. azpitik **goiti** daie (AM), aldatz **gora** (IP), aldatza **gora** **doa** (IN), aldapa **go(r)a** (U), petigora (AL), aldatz andi **dao** (IN), aldapa **goiti** (S), malda

goiti (S), patarrari **goiti** (KA), aldapa **gora** itzau da (U), aldaparan **gora** (EL).

B. 1. **agoz beiti** (AM), ahozpeka dago (LAN), ahozpez (AL, LAN, S, IN, O, U, IP), aozpezka erortzen (S, G), ipurdiz **gora** (O), ipurdizaz **gora** **jasi** zan (IP), lüherrastū da (AL). 2. a. **aoz gora** (O, ID, U), ahoz **goiti** (AL, KA, AM). b. azpikoz gain irauli zuen (S). d. erroz **gora** erori zen (AL, AM, ITS, KA, LAN). e. anka **gora** **jasi** zen (IN, O, EL), anka **goiti** erori zen (G), zankaz **gora** (AL). f. ortzekora erori da (S), ortzez **gora** (O), ortz **goiti** erori da (S), ortzaz **goiti** (S, G). g. etxea **pekoz** **gora** eman zuen (LAN), karreta **piaz** **gora** eman (AL). h. tripez **gora** (IN, IP). i. lau errotaz **gora** (AL), lau gurpilaz **gora** (O), lau zirrikaz **goiti** **gelditu** zen kotxea (AM), lau erroberaz **goiti** (G), lau txirrinkaz **gora** (IN, IP). j. ipurdiz **goiti** (S). 3. **orga** **bürüzpiko** jua, **bota** da (AL), **bürüzpiko** **jauzi** egin (AL), buruz **bera** **jauzi** (salto) ein (O, IP, EL, IP, IN), buruz **beiti** (S, AM, G, KA). 4. a. **mustupilka** erori da (LAN, KA). b. muturrez aintziña erori da (S), ...gan zen (AM), muturrez aintzika (S), muturrez aurrera (G, O, IP, U, ID), musuz aurre **jasi** (IN), musuz aurrera **jasi** da (IN, O). 5. a. **buruz atzera** erori zen (G). b. atzeraka (IP, EL), atzerantz **jasi** da (IN), atzeruntz (IP, EL), atzeruntz (IP, EL), atzekaldera **bota** da (AM, S), atzekaldera erori da (G), d. **giilka** erori da (KA), gibeledko aldera gan zen (AM), gibeledko gaintialat erori (AL), gibelain gainerat erori zen (LAN). e. kokotez atzera (O), okotzaz atzera (O). f. zabal zabal erori da (AL). 6. **atzekoz aurrera** esaten genuen dotriña (O, IP), gibeledkoz aintzineria (AM), hatsarretik azkentala eta azkenetik hatsarriala (AL), lehenetik azkeniala eta azkenetik leheniala (AL), aurretik atzera eta atzetik aurrera ikasten genuen (O), aintzinetik bigelera eta bigeletik aintzina (S) ~ (gibelerat) (KA), aurrekoz atzera eta atzekoz aurrera ikasten genuen (G), asi ta ondarrano (S, AM), asi ta akabo (S).

mila **pezeta** horiek ez **ALDATU**: milla **pezeta** ko ura ez hausteko erran zion (S).

etxetik **ALDATU** dira: etxez aldatu dira

(AM, O, G, IP, KA), bizitzez kanbitu dire (S), lekuz aldatu ziren (ITS), artzainak bazkatokiz aldatu ziren (LAN), ardiak lekuz aldaratu ditugu (ITS).

mejor cambiar de materia de conversación ■ hobe **hizketaz** ALDATZEA: obe beste gauza batez itzegitea (G, O), kontu hori utzi (G), utzi zazu kontu hori (S), solas ori utzi (S), hobe da bertze zerbaitez mintzatzea (KA), obe da bertze aldera mintzatzea (S), hitz hori utzi (S), berbeta oneri itxi beakotsogu (IN).

ALDE, ALDERA: 1. mandatu egin alde sagarra eman didate (S). 2. txirbilla ematen digute kentze aldera (O), jan jate aldera (O), lan egite aldera bildotsa eman zigun (G), esan esate aldera (O), ori da jardutea jardute aldera (O), laka iotze (ehotze) aldera kentzen zuten (G). 3. lan egiten zuen jana(re)n aldera (ID).

horregatik egin zuen **ALDE** etxetik: orregatik alde egin zuen etxetik (O, S, G, AM), etxetik joan da (KA).

handik **ALDE** egin ziren: egin zuten (O, S, G, AM, IP).

mandoa zubitik **ALDE** erazi zuen: bialdu zuen (G, O), igorri (AM), kendu ~ aldatu (S, G, AM, O).

Zein **ALDE** dago Manu eta **zuregandik?**: Manun eta zure artean (O, S, G), ze diferentzi dago Maitein eta Margaritain artean? (AM).

ALDE ederra dago ona izatearen eta txarra izatearen **artean**: alde ederra dago ona izan ala txarra izan (O, G, IP), ona izatetik txarra izatera (O, G, KA), ona izatetik gaizto izatera (S).

egin behar delaren **ALDEKO** gara ↗ **-laren**. egin behar denaren aldeko (S, AM), ni egite alde no (G), pista egitea(re)n alde gaude (O), (gira) (KA), pista onen alde gera gu (S).

orduan oso **mundutik** **ALDENDUTA** zegoen: bakartadean bizi zen (O, IP), bakartasunean (KA), bakarka ibiltzen da, ari eroa irudi duela (S), bakarka bizi dira (AM), bakarrik bizi da (AM).

ALDENTZEN ez **baduzu**, belarrondokoa emango dizut: aldentzen ezpazara... (IP),

parti zite, edo beharrondo bat ukanen duzu (KA), emendik ezpazara aldatzen ~ joaten, bi bearrondo emanen dizkizut (S).

ordu bata **ALDERA** agertu zen ↗ (hiruak) **ingurua** zen. 1. ordu(b)eta aldean agertu zen (AM, O, G) ordu bata aldera agertu zan (IP), ordu bata inguru ortan (O), ordu bata inguru (S), hamarrak inguruan etorri zen (O, AM), ordu bat inguruan (IN), altexian hamarrak (AL), ordu bata ingurun (G), oren bakotx altian ~ altexian (AL), zortziak irian jin zen (LAN, ITS), amaikkak aldean etorri zen (AM), ordu batan aurre-raxao, atzeraxao (U). 2. laurak aldera joango naiz zure etxera (O, S, ID), lau orenen altexian (AL), lauk alde(a)n jon naiz (G, O), laurak inguruan (O, S, IP, IN), amaikkak alde ortan abiatu zan (O), ortxe ortxe amaikkak aldean (O), hamarrak altexian joan zen (AL), amarrak inguruen (IN, IP), amarrak aldera joango da (S, IP, O), amarrak inguruan joan zan (O, IN, G, S), amarrak aldian joan zan (O, ID), bost orenen altexean (AL), amarrak aldera joan zen (S), hamekak irian jin zen (ITS, KA), amekoonak irian (KA), hamarren altian ~ altexian jin zen (AL), hirur orenen inguruan (LEIZ. Mt 20,3). 3. mila eta bederatzia ehungarren urte aldean jaio zen (G, O), ...urte aldera (S), ...urtean nunbait (AL), ...urtean altexian (AL).

eguerdia **ALDERA** etorriko da ↗ **arratsalde** (erdialdera). eguerdi aldera (AM, U, O, S, G, IP), eguerdi altexian jinen da (AL), eguerditsutan (AL), eguerdi inguruen etorri zen (IN, S, G), eguerdi irian (KA), eguerdi inguruen (O, IP), eguerdi altian jin zen (AL).

esas medidas fueron tomadas por el ayuntamiento ■ neurri oriek **udalaren ALDETIK hartuak** izan ziren (= *por el lado cercano al ayuntamiento*) ↗ **por**. Udalak artu zituen neurri oriek (O), neurri oriek udalak artuak izan ziran (O), meriak deliberamendu hori hartu du (KA).

goraipatua izan zen neskatxa **lagunaren ALDETIK** ↗ **por**. lagunak goraipatua izan zan neskatxa (O), lagunak goraipatu zuten

neskatxa (O), anaiak lagunduta egin dot (IP, IN, ID).

Inglatera estaba del lado de los vascos ■ Ingalaterra euskaldunen **ALDETIK** zegoen: euskaldunen alde (S, G, O, AL(alte), IP).

***OHARRA:** **ALDIA-ren eskemari** ↗ **hurrrango orrialdea**. 1. *Hitz ezagunen ondoan ez dut lekukoren izenik ipini*. 2. *geurtz: hitz hau ez dut inon entzun. Galdua dela dirudi*. 3. *gaur gabean ongi lo egin dut* ↗ **gaur** (gauean). 4. *Landibarren eta hango inguruetan: egun | gaur* ↗ **egun**. 5. *berriki ~ (berriro G) | arextian* ↗ **orain** (dela gutxi). 6. *artean | oraindik | artean* ↗ **oraindik**.

ALDIA: aldi-neurriak batzutan batetan hartzen dira. Entzun Lafittek dioena: «810. *Remarque sur le nombre*. En général, les commençants ayant à traduire des expressions comme un vase de cinq litres, un bâton de deux aunes, un pain de quatre livres, sont tentés d'employer le génitif locatif soit pluriel, soit indéfini, par exemple: bortz pintetako untzi bat, un vase de cinq litres. C'est une erreur. Il faut le singulier: bortz pintetako untzi bat, bi bergako makila, lau liberako ogi bat. La pièce de cinq francs s'appelait aussi bortz liberakoa et non liberetakoa. Pour l'âge, on peut dire par conséquent hiru urtheko haur bat, malgré l'habitude introduite ici et là d'écrire hiru urthetako haurra. Les expressions bortz pinta, bi berga, etc., sont traitées comme des singuliers collectifs». (Lafitte: Gramatika).

1. hogei urte ontan (honetan, huntan) pozik bizi da (AL, LAN, ITS, G, S, O) ↗ (zenbat) **urtez*** elur guti egiten du zenbait urte **huntan** (LAN, KA), ez daude ozke berian berrogoi urthe huntan (LAN, ITS, G, ID), hamairu aste huntan (ITS, O, G, LAN), bi oren huntan hire beha niok (ITS), (nuk) (KA). 2. sei **urtean** gartzelan egon zen (O, G, EL, IB, MO, IN) ↗ (zenbat) **urtez**. 3. hogei **urteko** gaztea da (OSO ONGI ESANA) (IP, IN, MO, IB, EG, G, S, AM, EL, O). 4. urte **askoan** Ameriketean egon da (G, O, EL, IB, MO, IN, ID). 5. handik lau **egunera** (ID, G, IB, MO, EG, IP, IN). 6. lau **metroko** etxea (IB, MO, IN, O, G, S, EG).

7. 5 **kilometrora** dago herria (IB, EG, MO, AZ).

hiru egunen **ALDIAREKIN** jaio ziren: hiru egunen barruan (O, IN, IP), iru egunen barringo(a)k dira (S), iru egunen barne dire (AM), hiru egun barne (KA), iru egunen barrene(a)n jaiok (G).

igandetan zenbait **ALDIZ** Atletik ikustera joaten gara: zenbait igandetan (KA), zenbait igandez (KA), igande (jai, domeka) batzutan (O, EL, G, ID, IN).

hace todas las cosas al revés ■ gauza guziak **ALDREBES** egiten ditu ↗ **aldapa**. horrek gauza guztiak binperrez goiti egitentzik (LAN), ...kinberrez (AL), oker (AL), makur (KA), batik bertzera (S), batekoz bestera (O, G), horrek gauzak kontreskualdez egiten ditu (KA), atzez aurre itun dauz gauzek (IN), atzekoz aurrera (O, G), buru buztanka egin du (LAN).

ALDREBES ulertu duzu: aintzineko bigela entenditu duzu (S), gaizki konprenitu dut (KA), orrek gauza guztiak atzekoz aurrera entendentzen ditu (O).

jertsea **ALDREBES jantzi** du ↗ **aldapa**. alde-rantziz (O), trikota ifrantzuz jantzi du (KA), itzulietara daukozu jersey (IN), hau du bere alde jantzi honek (S), kinberrez ~ oker (AL), bere alde / kontrakalde (S), kontrakaldera jantzi du (S), aldean bestaldera (ID), atzekoz aurrera eta alderantziz jantzi zuen jertsia (O), dotriña aurretik atzera eta atzekoz aurrera berdin esaten nuen (O), dotrina aintzenekoz gibelera eta gibelekoz aintzineria ikasi (AM).

dena **ALDREBES esaten** dute: dena ipurtzuloz aintziña erraten dute (S), banaz beste (G), dana atzekoz aurrera esaten du onek (ID, O), infrantzuz mintzo da (KA), dena oker esaten du (G).

euskaraz **ALDREBES** egiten du ↗ **menperatzen** (ez).

orrek pentsatzen **duenaren** **ALDREBES** hitz egiten du: orrek beti pentsatzen dunaz beste aldera itz eiten du (O), kontreskualdez (KA), pentsatzen duenaren kontrarioa egiten du (KA).

ALE, goaz!: tira, goazen! (S, O, G).

ALEGIA = balitz bezala, ustez. **ADIBI-**

ALDIA—ren zenbait alderdi

ere(ne)gunago (LAN) eranegun atzo arañun antxetik (IN) erañegun antxitik (O)	egun	bihar etzi etzidamu (G, AL, KA, O) etzikaramu etzilimo (IN) etziago (AM)
berdantxa (G) bart	GAUR	b. gauean e. gauean e. gauean e. gauean
bezperagokoan (LAN) bezperan	egun hartan	biharamunean biharamunagoan (LAN, KA)
	igaz	aurten geurtz (GR)
	orduan	orain orduan
lehen(ago)	orain	gero(ago)
aspaldi behinola berriki arextian		lehenbailehen laster
	artean	oraindik artean
goizegi	garaiz	berandu
	ezkaraiz ezorduz	

eguna = 24 ordu

goiza, eguerdia, arratsalde, gaua

eguna = argi denean / gaua = argirik ez den egunaren orduak

goizalde, eguarte					
goiztiri	goizlehen	gosalarde (zortzirak arte)	goizondo (LAN) (8-11)	goizerdi	goizberandu
arratsalde-gaua					
arratsalde (KA) arratsalde apala (KA) ilunabar, ilun apal (KA) arrats, arrastiri (KA) gau, gau- lehen (O) gau berandu, gauerdian (KA) gauean berant (KA)					

AL: eguerdi arrastiri arrastiri apal ülüntzia gaia

noiz				
beti	maiz usu sarri ...	inoiz behin edo behin batzutan ...	bakan gutxitan	inoiz ez sekula ez behin ere ez ...

DEAK: etxean sartu zen, alegia ama zela (ITS), alegia ez atxeman (ITS), nik hau emanen dakot, alegia zure binotza (ITS), alegia deus ez (= ezer gertatuko ez balitz bezala) (ITS), alegia erran du (erran errate aldera) (ITS), alegia erreberietan eginen dut (ametsetan banengo bezala) (ITS), alegia ez ikusten (LAN), Atharratzerat jin zen, alegia hari jarraikitzerat deliberatua (LAN), zaldi gainean jin zen, alegia jaun handia (LAN, KA), alegia lo zurrungan (LAN), lurrean etzan zen, alegia eta lo (ITS).

liburuak ALEKO 300 pezetan saltzen dira. liburuak bakoitzeko 300 pezetan (O), liburu bakoitzak 300 pezeta balio ditu (S, AM, G, (du) KA).

soldaduak ALERTA egoeran daude: erne daude (S, I, KA), ernai daude (O), zur dago (IN).

ALEMAN. Bereiz liteke. **a.** alemanak zintzo dira (sustantibo). **b.** alemaniar haurrak zintzo dira (izenlagun). **b.** Txema Auzmendik ongi daki alemanieraz (hizkuntza).

OHARRA: bereizketa bera egin liteke. 1. *espainol, frantses, ingeles...* 2. *espainiar, frantziar, inglandar...* 3. *espainiera, frantziara, ingelesera...*

ALFER, ALFERKERIA: barezuria baino alferrago (G), zuri samarra da hori (O), ez du kolpe zorrik egin (O), ez du kolpe zotzik egin (O), ez du kolpe zuririk egin (O), gatz(re)nik ez du egin (O), otx, otx, goroldio mugimendu ori (G), ori goroldioa baino motelago da (G), zakur beltza etorri zaio (alfergura) (G), gaur zakur nabarra dauka (S), zakur nabar ederra zeukek orrek (S), lan egin baino lepoa austeia naiago dute (G, O, S), «Alperraren kolpea xuxen» (alfer kolperik ez egiteko) (O), ez duzue pikorik iten (AM), ez du pikerik jotzen (S) ~ iten (S), gatzarentzat aña ez duzue egiten (O), alpe-rago da, pikorik ere ez du iten (G), lanan izpirik ez duzue egiten (O), bere atorraren-
nik ere ez du egiten (KA), mutiko ziria da (KA), auher ziria da (KA), ori langille urria da (O, S, AM, KA), Joxe oso lan urria da (O), alper zuria da (= alfer) (G), bare zuria

baino alperrago (G), orrek ez du deus ere eginen, orrek ez du ez josirik eta ez urratu-
rik (ganarobako dela) (S).

ALFERRIKO lana da: alperrikako lana (O, G, ID), alfer lana (S, AM, ID), lan hori alferretan da (KA), lan auher bat egin düzü (AL), ez dago arpeleko gauzarik (IN).

ALKATERAKO agertu da: alkatetzako ager-
tu da (O, G), mera izaiteko nahikaria du (KA), alkatetzarako (IN), alkaterako be-
reixi dute (S).

neska ALTA bat zen ↗ luzera.

hitz egin ezazu ALTOAGO ↗ bajoago. azka-
rrago LAR.

mendi ALTOAK: mendi gorak (AL, KA), do-
rre gora bat (AL), mendi handia (KA),
mendirik gorena (AL), dorreak bezen gora-
koak (LAN), hiri hua murrur gorako batez
inguratia zuzun (LAN), arthaldiak borte
goretan alhan ari dira (AL), horiek dira
mendi gorenak (ITS).

gizonaren ALTURA elur bazen ↗ profundoa.
gizona beteko elurra bazan (O, ID), gizona
beteko ura bada (G), gizon bat bete ur dao
(IP, O, ID), ur asko dao? Gizona betean
bai (IN), ...gizonaren betekoa bai (O), gizo-
nan burutik gorako uda zeuan an (O), gizo-
n bat bete baño ur geiago dao emen (O),
lepotik gorako ura zegoan (O), ur aundia
zan; gizonaren betean (S), haritza etxea
baino goragoa zen (ITS), lau-sei gizabete-
ko zuloa da (LAN), gizabeteko otea bada-
go (O), gizonaren heineko elurra bazen
(KA), osina ni baino haundiagokoa da
(KA), ene heinekoa (KA), ni bete ta geia-
goko putzua zegoen (O), ni bete baino put-
zu andiagoko zegoan (O), ni betekoa baino
handiago da putzua (O, G, IN), ni bete eta
arra bat baino gehiago da putzua (G), nere
bete baño ur geigao bada (AM), ur aundia
zen; ni bete aña bai (G, O), gizabeteko elu-
rra bazan (O), ni betean bada ura (IN), le-
poraño ura (O), gizona beteko ura zen
an (O), belaunetaraño ura (O), neu bete
eta eskua (IN), neu betean ura eta eskua
(IN), osiñan neu betian dao ura (IP), ni
bürüti gainti egitekuakin niz (LAR).

ehun metro ALTURAKOAK: ehun metro
gora (AL, KA), arbola ori metro bi bada

(O), torria ehun metra gora zen (AL, LAN, ITS), bi metro bazen gizon hura (ID), bi metra gora bazen (AL), ur handia zen, ni betekoa bai aixa (G), hura ni baino gorago da (KA), ni bezein gora da (KA).

liburu AMAIEAN : liburun bukaeran (G, O), libriaen ührentzian (AL), liburuaren bururatzean (KA), liburua akitzera eun pezeta arrapatu nituen (AM).

printze **batean AMESTU** zuen: printzipe batekin amets egin zuen (G, O), zurekin amets egin dut (S, O, AM, KA), zugez amesetan in dot (IP).

amoranteak etzion **AMORERIK**: 1. ez zion amodiorik ~ maitasunik (ITS, G, S, ID). 2. ez du amorerik emango (= *ceder*) (O), amor eman (AM), amorrik ez du ematen orrek (AM), demogula amore hirari (AX 193), amorerik ez emaitteak (AX 196).

zegoen AMORRATUA zegoela, ixildu egin zen \nearrow **zela**. bere onetik ertenda egon arren... (O), amorrazioaren amorrazioz etxea erre zuen (O), oso amorrauta egon arren, etxera joan zan (O, EL).

AMORRAZI dit \nearrow **arazi**. aserre eraziren zaituztet (LEIZ. Rom X, 19), errabiarazten nauzu (ITS, KA).

AMUAN pikatu du: amorria garrangari iratsi ~ itsatsi zio (= zaio) (G), amuari eldu dio (O), arraina amian lotu da (KA), Juanitori garrangan amorraia itsatsi zio (G), antzuloa autsikin artu du (S), usuki dü (AL), gahatü da hamian (AL).

nire ANAIA ona da: gure anaia ona da (sendian badira hiru haurride) (G, O, IP), □ gure ama, gure aita (G, O) (sendian badira bi haurride) etxean ~ gure etxean ~ gurean (O, ID, IB, IN, IP, G), gure semea (G, O), gure andreak ori esan du (O, IP, G).

ANAIARREBAK (G, O, EL), Hobeki: nebaarrebak (IN, MO, IP), anaiarrebak bizi dira etxe orretan (= neba eta arreba) (G, O, EL), bi senide bizi dira etxe ortan (G), etxe ortako haurrideak (AM, S).

miliun **ANDANA** bat irabazi du (KA) \nearrow **pila**. milloi pillá bat irabazi du (ID, G), milloi mordo bat (O), milloi mordoak irabazi zituan (EL), sos alde bat irabazi du (KA), sos anitz (LAR), milloi mukuru bat irauzi du

(S), milloi pillá earra irabazi zun (G), milaka pezetak irabazten ditu (AM), zaldi andana bat ikusi dut (KA), zombait miliun irabazi ditut (KA).

Edurne hartu zuen **ANDRE** \nearrow **emazte**. gure **ANDREA** kalera joan da (O, IP, G) \nearrow **anaia**. andrea kalera joan zaigu (O).

ANDREGAIA egin du (O, S), andrea **artu** du (O, S), andregaia ba omen du (O, S).

ANIMATU egin nau: arima izitua, bihotz har ezazu (AX), biotz emon (GR), bihotza altxatu zion (ITS, KA), biotza be zabaldu egin jatan (IN), burua berotu zioten (= txarrerako) (O, ID, G), buru berotzalleak baziran an (O, ID), puz emon (gehienetan txarrerako) (IN), makal ibili da baino orain zuzpeltu da (O), bizkortu da (O), hori egiteko adorerik ez deuko (IN), bihotz emaiten deraut *me da ánimo* (AX 7), zer da munduan... bihotz... ailtxagarriagorik...? (AX 295), auk biotz on (LEIZ. Mat 9,22; Ap Ak 23,11; Ioan 16,33), zaretan bihotz onetako (LEIZ. Ap Ak 27,22), guziek bihotz harturik (LEIZ. Ap Ak 27,36).

ardoa edatera **ANIMATU** zion: animatu zuen (GR), bultzatu zuen (O), Hark (sendagileak) ere esportzatzen zaitu (AX 384), ardo edatera eraman nahi zuen (O), ardo edateko zirikatzen zuen (O), sustatu dut etxerat joan dadin (LAN).

neskatxa ez da **ANIMATZEN**: ez zaio gogorik egiten (G, O), hori egiteko gogoak eman dio (O), ez dut horren egiteko emeiarik (KA), gogo tikiak egiten zaizko (S), jarki naz... argitara ateratera (Fr. Bart.).

hara joatera **ANIMATZEN** zarete?: horren egiteko emeiarik baduzia? (KA), hara joateko gogorik ba al dezue (O, EG, ID).

emaiozu ardoa, ea horrela maizago etortzera **ANIMATZEN** den: ...maizago etortzen den (G, S), emaiouz ardaia ia sarrixago etortzen dan (IP, O).

pilotaria **ANIMATZEN** ari ziren: sistatzen ari dira pilotaria (KA), pelotariari aupaka ari zaizkio (O), upatzen (AL), pelotaria biziitzen hasi zen (O), gero bizi jokatu zuen (O).

ANITZ da sator (LAN) lehen eue herritik

beretikan anitz joan duzu Ameriketarat (LAN), buhame biziki ba zen (LAN), lehenago anitz buhame bazen (KA).

-ANO, -aino. *Noraino* adierazteko ez ezik, *noiz arte* adierazteko ere erabiltzen da. gaurdaño (O), egungo egunerano (LEIZ. Kor II 3,14), egungo egun hunetarano (LEIZ. 3,15).

el euskera y el español tienen gran parecido ■ euskarak eta espainerak **ANTZ** haundia daukate = *tienen muy mal olor* \nearrow **elkar**. 1. oiek **elkarren** antz aundia daukate (O, IP, EL, IN, IB, G, U), orrek aizta biek arkalen antz andie deukie (IN), alkarren antzekoak (G, O, IN), euskarak eta erdarak ez dute alkarren antzikan (G), aitaren antza du (G), horrek badu aitaren karantza (S). 2. algarren egite ba dizügü (AL), elgarren eite handia dute (ITS, AM), elkarren itea dute (AM), ahizpa horiek ber egite ba die (AL), aitaren egite dü (AL), aitaren itea du (AM), baduzu haren eite (ITS, LAN), haur horrek aitari eite du (LAN). 3. Zeren denborak eta urak elkharren idurika handi baitute (AX 103), algar üdüri dira (AL), elkarren iduriak dire (AM), elgar iduri dute (ITS), denak elgar iduri gira (ITS), guziak elgar iduriak dituzu (ITS), oro alkharr üdüri dute (AL), algarri üdüri gütüzü (AL), badu anaiaren iduria (S), elgarri iduri dute (LAN), elkarren iduria badute (AM), dena hura iduria da (ITS), aita iduri du (ITS), aita iduria da (AM), aitari üdüri da (AL), Maite aitaren iduria da (AM), haren idurikoa da (ITS), etxea beste etxeak üdürixka da (AL). 4. ume hori ama bera da (O), berbera da (O), dena aitarena da haur hau (G), ume ori ama bera bera dator (O). 5. ume hori berdin berdina da (O), bi zakur horiek berdintsuak dira (G, O).

aren **ANTZA** artu nion (G, O, IP, IN) \nearrow **eza-guna**.

aparentemente aquel saco también estaba vacío ■ zaku hura ere hutsik zegoen, **ANTZEAN**: ...hutsik zegoen, itxuraz (S), ütüráz (AL). ...zegoen, nunbait (G, O, EL), zaku orrek utsik dagon itxura dauka (O), orrek in dau, antza (IN, EL).

beretikan anitz joan duzu Ameriketarat (LAN), buhame biziki ba zen (LAN), lehenago anitz buhame bazen (KA).

lapurren antzera (GR), lapurren moduen (IN), lapurrak bezala (O, G), uhuiñak bezala (AL).

ANTZEMAN = igerri / atxeman, atzeman = hartu, heldu, harrapatu \nearrow **atzaman**. gero ere **berdin ANTZERA** gertatu zen: antzean pasau da (IN), gero ere berdintsu irago zen (G, O, AM, S).

eztarria **siku ANTZERA** sentitu zuen: lehortxo, leortuta daukat (O, ID), leor samar (G), siku xamar (IP), zintzurra zukatia dut (KA), zintzurra idortua daukat (S), zintür-rra idor dü (LAR).

haurretik izan zuen **APAIZGINTZARAKO** gogo: ume umetatik ba zuen apaiz izateko gogo (G, O), haurretik bazuen apez egiteko gogo (KA).

APARKALEKUA. Hobeki legoke **parkalekua**, **parkinlekua** (GR), Erdarazko zenbait preposizio ez dira euskaraz erabiltzen: tortxa (AM, G, LAN), kordeoia (O), seguratu (O), benenauta (O, G, AM), penatu (O, EL).

Idoia amarekin bizi al da ala **APARTE?**: amarekin ala berex? (AM, KA), Altzain Maulerik berhezi zen (AL), emaztearenganik berexi da (KA).

etxe **horiek APARTE** badu besteak ere: etxe horietatik kanpo ba du besterik (AL), etxe hoiez gañera beste borda bat ba zuen (G, O), baserriz kanpora... (S), etxe hortaz bestalde (KA), etxe ortarik aparte (AM), etxe oiez aparte (O, G).

datu **historikoen APARTE**: datu historikoez aparte (O), janaz bertzalde (ITS), txakurretatik aparte, katuak ere bazituen (G), oixtion aipatu afariáz bestalde (LAN), amets ez bertzerik (ITS), gaztainaz bertzerik jan ditake (ITS).

APARTE de Miren e Irune, está Onintze ■ Miren eta Onintze **apartatuz**, Onintze dago: Miren eta Onintzez gañera ba dago beste aizpa bat (O), osabaz gainera, ba dute mutila ere (S), Miren ezik, Iñaki ere etorri da (G), hiru edo lauz gainerakoak (O).

zu APARTE ez da inor bizi: 1. zu besterik inor bizi al da? (O), zu besterik ba al zan inor? (O, S), zu eta nor besterik egon zintzien? (IN). 2. zutarik bertze nehor (ITS),

zütaz besterik jin da (AL), nizaz bertzerik (LEIZ.), zutaz bertzerik ez da (ITS), 3. zutaz bertzele non zen? (ITS, KA), hirixka batzuz bestalde (LAN), zuetarik bestalde nehor jinen dea? (KA), huntarik bestalde (KA, AM), unterik bertzaldera = *además de esto* (AM) 4. bigez bestiak hun dira (AL). 5. zutaz gainera ba al zen bertzerik? (S), zutaz gainera bertzerik bizi al da? (S), zuetaz gañera beste iñor jun altzan? (O). 6. bakarrik al zaude? Iñor al duzu etxean? (G). 7. zugandik aparte (IN), zuetarik aparte bertze bat bizi da (AM), zutarik aparte (AM).

APARTE de ser malos son caros ■ garesti **di-relarik aparte** txar dira: galeziak izateaz gainera oso txarrak dira (O, G), karu izanez ganera txarrak dire (IN), garestia den arren, txarra da gainera (S), kario izanik ere, txarra da (AM), ez jakinaz bertzalde (ITS).

eman **dizudanaren APARTE** zeuk ere ba duzu zerbait: eman dizudanaz gainera (O), zeuk emon dauztasunaz gañera... (IP, IN), gurasoek eman zidatenaz besterik (LAN).

zuei **APARTE** beste norbaiti ere dirurik utzi da dio?: zutaz gainera bertzieri dirurik utzi te die? (S), zueri beste iñori utzi al dio dirurik? (O), zueri besteri utzi al dio iñori? (G).

es apasionado de las mujeres ■ emakumeen **APASIONATUA** da: oso emakumezale (O, ID), andrazalia (IP, IN, O), emakoi (AX 237), oso gizonzalea da (O), neskatere (G), emazte gizakoiak (AX 237), emaztekarria (KA).

ukolondoak paretan **APOIATUTA**: arlaxari ukolondoak egotzita (GR), ikulondoak paretaren kontra jarrita (O), ukondoak paretari emanak (S), bizkarra paretaren kontra jarrita (O), bizkarrezurra paretari irasta ~ iratsita (G), murruan bermatuta (ITS), murruari bermatu da (= zaio) (KA).

APROPOS egin zuen: berariaz (AX), ustekabean ala berariaz (AX 208), berenberegi (IN), espres (KA, LAR).

APUR bat zuekin egongo naiz: igurikazu bertze aphur bat (AX 34), apur bat zuekin naiz (LEIZ. Ioan 13,33), apur bat egürük ezazü (AL), apur bat egüriozu (AL), aphur bat

deskantsatu ondoan (ITS), aphur bat elhketan egon ziren (AL), apur beten egongo naz zuokaz (IN, EL, IP).

gertakari horiek ez dute **kronologiarekin APURTZEN**: kronologia apurtzen (IN, IB, MO), puskatzen (O, ID).

AR / EME:

1. **behia** susaltzen asi da (S), behia susa dago (ID), susera dago (IN), susara da (G, KA), susaltzen bada, aterako ditu orroa ederrak (G), behiakin joan dira zezena ematera (G), behiari zezena eman dakote (KA), beia iizkotzera damate (O), behia izkotu du (ID), idizkoak behia estali du (O), zezenak estalazi du behia (KA, AM), zezenak ernaldtu du behia (AM, S), behia ernaldtu da (O, S), ernaritu da (IN), behia ernari da (KA, O, LAR, IN, G), behiak umea egin du (O, ID), behia umatu da (G), behia erüü da (AL), behia erdi da (AL, AM, LAN KA), txahal (ar edo eme) (EL, IN, IP, EG, ID) idixko / urruxa (O, IN, IP, ID), txokor (ar ttikia) (G), txekor (U, IP, IN), zokor, zekor (koxkortua) (ID, G), aretze zezenkoa / urruxa (AM, S), ahatxe kotxoa / urruxa (LAN, KA), behiko (U), zezen (IB, MO, EG, G), xexen (toriatzekoa) (G), bigantxa (hamabost hilabete artekoa) (O), miatxo (G), miga / ergi (zezen gaztea) (KA, LAN, S), miga erdi zaigu (S), migaxta alde bat ikusi dut (S), migantxa (LAN), biraia (ume egiteko gauza denean) (O).

2. **irausi dago ahardia** (ID), irausi da (G), irusi da (IN), ihausi da (KA), zerriak irauten direnean, aienatu egiten dira (G), zerria iñaus da (S), iñaustu da (S), zerria aketzangana eraman dugu (S), aketzera eraman (AM), zerriari aketza eman (AM, G, S), akeztara joan dira zerriarekin (G), akeztara eraman zuten ahardia (G), zerriarekin akeztara joan (G), txarria apotzen izan degu gaur (O), herautzak ahardia estalarazi du (KA, LAN), ahardia ernari da (KA, ID, O, G), zerri hori axun da (ernari) (S), zerrama umatu da (G), zerrikume (EG, ID), ordotsa / arkela (S, IP, IN, ID, O, G), arkela: bost hilabete arte. Gero bargoak dira; arkilli (IP), zerri: 9 hilabetez edo (AM, S, IN), akeztara (S), aketza (S), basurde aketza (S),

apota (zerri gazte arra) (O), txarrapo ~ apo (zaharra) (O), basurdea ahardiarekin: erdi basurde (S).

3. **ardia** arkera dago ~ dabil (ID, IN, IP), ardia arkaldtu da (G), ardia arkaltzen ari da (G), aharia arditara bota dute (G), aharia arkalketan dabilla (G, S), arkalketan ari du (G), ahariak ernaldtu egin du ardia (S), arkume: ahariko / urruxa (O, G), arkumari / arkuma urruxa (ID), arkumari (ahari izango den arkumea) (ID), asuri (IN), axuri (S, AM), umerri (S), bildotsa: 4-6 hilabetera arte, ardiatarik berexi arte (IP, ID, O, G), urtekoa: arkazte (IN, ID, O, IP), arkaste txikiroa (G), artantzu ~ antxu: urte (t'erdia) bete arte, hortzak aldatu arte (AM, G), arlantsak: 1-2 urtera arte (S), defota (ardi izatera heldu ez den arkaztea: 2-3 urtera arte) (S, AM), 3 urterekin ardia (AM, S, G), betutsa: hiru urtez gorakoa (G), adarki (adarrak dituen ardia, auntu) (S), marro (ahari) (LAN, KA), txikirosta: bi urteko ahari zikiratua; gerokoa zikiro (G), alondo (ardiekin arkalketan ibili eta gero zikiratua izan den aharia) (G), ahari hau barrasaketa da (zakua duena baina kozkorrik, barrabilik ez. Ernaltzeko ez du balio) (G).

4. **behorra** iel da (G, ID, IP), behorra, astoa ieldu dira (G, ID, IP, O), iduri zaut behorra giri dela (LAN, KA), behorra erdi da (S, AM), behorrari ametzaria eman behar zaio (ID), zaldia eman astameari: mando, mandakoa (O, G), behorrari gereinoa eman dakote (LAN, AM, S, KA), potta (behorkume) (AM), pottokoa zaldikoa edo behoka izan daiteke (AM, LAN), moxala (behorkume) (IP, O, G), muxala (ID), zaldiko / bihoxka (G), behoka (emea) (KA), xaldiko (ar) (Q, AM), txiko zaldia / txiko emea (IP), bihoxka gero behoka egingo da (G), gereinoa astainari eman: genetrea (KA), astarra astaemearekin: astakumea (G, ID, IN), astarra bota behorrari eta jaiotzen dena: astomando (S, G), astomandoko (G), astamandoko (S), mando haundia (S), zamari (zaldi zikiratua) (LAN), behorkiak sumo haundia du (S).

5. **auntza** auzkera dago (ID, O), uzkerda da (AM), akerraren eta auztaren umea: aumi

(IP, IN), antxume (O, ID, G), pittin (AM, S), pitika (KA), akerrondo (S).

6. **zakurra** ugara da (G), zakurra ohara da (KA), zakur hau ugaltzeko da (G), zakur hau ez da ugaltzen (G), ugaltzera doaie (S), zakurra ugaldtu da (S), zakurra umatu da (G), zakur emea erdi da (S), zakurkume (G, S, AM), zakur arra (G, S, AM).

7. **katua** ugara da (G, AM), katuak harro dira ~ dabilza (O), katarra (O, G), katamarru (EL), katua umatu da (G), katakume (IB, ID, O, EL).

barruak agintzen zion **ARABERA** ~ barneak galdegiten zeion arabera (KA), agintzen zion bezala (O).

atera ARAU edaten zuten (LAN), ixtorioak kontatu arau ikasten zituen (ITS, KA), eman aiflean jaten zuen (O), kontatu ala (IN, ID), garia sartu ala jotzen gindun (IN), kontuek kontatu ala (AM), irabazi ala gatatzen zuen (AM, S, G, O), egin a(ha)la saltzen zuten (O), irabazi ala gatatzen zuten (G), zenbat eta zarrago, igarrago (O, ID), zaartuaz, makaldu egin zan (IP), egin arau saltzen zuten (ITS, KA).

sortu **ARAZI**, lehertu arazi: sortarazi, lehertarazi. *erazi* edo *arazi* aditz erroari eransten zaio.

ARAZI, erazi / eragin / eragin.

ARAZI, ERAZI: huts asko egiten dira faktitibo erabilzerakoan / **eragin**. 1. zerbait. 2. zerbaiti edo norbaiti zerbait.

1. gu bide onera ekarrazteko il zen Jesukristo (O), alferren trabaila arazitzea (AX 16), usantzaren, abiaduraren eta lasterraren galarazitzea (AX 59), laguna gartzelatik aterazi zuten (O), herriko mutila etxez etxe iraganaztea (ITS), mundu hunetako irabazi aphur baten esperantzak... trabaila arazitzen bagaitu (AX 319).

2. semeari sagarrak ekarra(ra)zi zizkion menditik (O, G), ekarriazo (IN) gaixoari Agur Maria esanazi zion (O), errezauso eutson (IN), egindutako itza beteazi zion (O), amari min aundiak sufriazi zizkion (O), usaia du herriak paketa bat helaraztea erier (ITS), zerbait erran erazi nahi zakoten (LAN), hitz hunkigarri horiek biga-bost nigar jauz erazi die begietan (AL), Mauleko

dantza dantzarazi zion (ITS), güzier nahi-gabiak ahantz erazten zitzezün (AL).

*amorra arazi **zion lagunari**: amorra arazi zuten laguna (GR), errabitu nau (S), laguna berotuazi du (U).

*sendagileari etorri **erazi zioten**: medikua ekarri azi dugu (O, G).

*zaldiari **geldiarazi zion**: zaldia geldiazi zuen (O, G), trena geldizi zuen (G).

*presoari **hilerazi zion**: neskatoño hua hilazi zuen (LAN, AM, G, O), untsa izitarazi nindien (LAN), bakotxa bere bordaldian ari dira hango belharrak ezin idorraziz (AL), auzapeza hil arazi zuten (ITS, KA), eho azi du adixkidia (AL, LAR).

*Presoari hitzegin **erazi zion** / **arazi**. Presoa itzegin erazi zun (G), presonera mintzaarazi ~ eleketaarazi zuten (KA), preso solasazi dute (S).

*Aitorrek Kepari **isilaerazi zion**: laster ixilduazi zun (O), ixilizi zuen laguna (G), Piarrerek ixilarazi du François (LAND).

*nigar egin **arazi gaitu** / **eragin**. aski nigar guhaurri egin arazi daukuk (ITS), etxeko lan tzarrenak hari egin arazten zaskoten (LAN), ordian erreusituko zutela hari zerbaiten egin arazten (LAN), umiari parre era(g)in dio (EL, IB).

*amari maiz **sufriarazten zion**: ama maiz sufriarazten zuen (KA).

***umeari** zintzarazten: umea zintzarazten (KA), zintza arazazu zure ahizpa (KA), umeari mukiak zizten ari naiz (O), zintz eraiñizi dio (S).

***arazi, erazi**-ren ordez zenbait kasutan **agindu** erabiltzen da: anaia zaarrari agindu egin zion anaia dazteari sagarra emateko (G, O), erregek gizona makillakin jotzeko agindu zun (O), etsaia il erazi zun ~ iltzeko agindu zun (G, O).

ARAZO: afera, ona edo txarra. Txarra dela esateko, eskuarki beste hitza erabiltzen da.

*arnasa hartzeko **arazoa** dauka: esnasia ezin artuz dago (G), oso arnas estua dauka (EL), hatsantia da (KA).

eso no es problema, hombre!* ■ hori ez da **arazoa, gizona!: ez kezkatu motel! (O, ID), egon gustoa! Hori deuserik ez da! (KA),

lasai egon, gizona! (O, ID), lasai ibilli, hori ez da ezer! (O, ID, EL).

el problema está en que no tiene* ■ **arazoa da, ez daukala / **kuestioa**. ez dauka, ordea; or dago kontua! (O, ID), or dago koxka! (O, ID).

*Durangok **arazoak** ditu urarekin: goraberrak izaten ditu urarekin (ID, O, KA) udakin gaizki ibiltzen da (ID, G).

los problemas que ha tenido con la rodilla los ha superado* ■ belaunarekin izan dituen **arazoak gainditu ditu: belauna gaizki eduki du bainan osatu zaio (S), belaune txarto auki dau baie osatu jako (IN).

no tiene problemas para hablar en vasco* ■ ez du euskaraz mintzatzeko **arazorik / **menperatu**.

te creará problemas* ■ **arazoak sortuko dizkizu horrek: 1. zu arriskuan jartzetik ez nuke nahi (O, IP, ID), nereatik arriskuan ez jarri! (ID). 2. buruausteak emango dizkizu orrek (O). 3. burukomin ederrak emango (O, ID). 4. egiteko handitan erori zen (AX 259), ...koleratzetik sortzen dira... egitekotan ibentzeak (AX 186), eure Eliza anhitz alde bethi egitekotan denari (LEIZ. Heusk Her). 5. izangozu orrekin egualdi gorria (ID). 6. izango dituzu istillu ederrak orrekin (O, ID), eztut istillurik sortzerik ~ jartzetik nahi (O, ID), istilluetan sartuko zaitu (O), neregatik zu istillutan astea ez nuke nai (O, ID), istillu aundietan sartuko zera (O), istillu ederrean sartu zera (O), ze eskanbilla pasatu du (S). 7. horrekin ezkontzen bazara, izango dituzu bi ostiral astean (O, G, ID). 8. saltsa aundixan sartuko zara (IP, IN). 9. beti badu orrek zerbaitekin sesioa (G). 10. ez dut nahi enegatik ukan dezazun trabarik (KA), izango dituzu trabak (KA). 11. Jaungoikoak (uzten gaitu) hersturatan jartzera, egitekotan sartzera (AX 85).

tenia problemas* ■ **arazoak zeuzkan: 1. arrangura da (KA), orrek errenkurak dauzki (S). 2. oso asaldauta dabil (O). 3. nik bela berausten dut (G). 4. buruauste handia duzu hor (KA), buruausteak zeuzkan (O, IP, IN, ID). 5. zuk zerbait baduzu, ezbeharren bat, orrela egoteko (G). 6. estu

zebillen (O). 7. gogetatua harat eta hunarat dabil (ITS). 8. kezka aundiak zeuzkan (O), zuk baduzu zeozeren kezka bat (O, IP, ID), ni bereala kezketan jarten naz (IP), kezketan zegoen (G, AM), kezkatuta zegoen (O, ID). 9. lan ederra daukazu (S), lantegi ona daukazu (O, G). 10. larri zebillen (O, ID), ni bela (berehala) larritzen naiz (G). 11. ardurez egon zen (IN).

ARBOLATIK erori zen / **erori**.

ARDI / **ar**.

ARDO baso bat edan zuen / **baso**.

ARDO botella erdi bat gelditu zen edan gabe / **erdi** (hustuta).

goizean **ARDO batzuk** edaten ibili gara / **botila**. ardo edaten (IP, O), zurrutean ari dira goiz guztian (S), cstatuz ostatu dabilta (AM, G), goizean ardo edaten ari dira (G), ardo edanaz ibili gara (G).

zer **ARDURA** zaio horri! / **inporta**.

ARDURAPEAN zegoen / **arazoak** (zeuzkan) / (ardura)-**pean**.

ARDURAREKIN zeuden / **arazoak**: ardurez egon zan (IN), arrengurak baditu (KA).

lan hau **ARDURATU** dio / **bidali**.

ARDURATU / **-taz** (arduratu).

AREAGOTU zure arreta / **kontua**.

-AREN / (duenaren) **aurpegia**.

-(EN)AREN / **-enaren**.

ARETXEA laster **zezen** ederra egingo da / **ar**. aretxea koxkortzen denean aretze izanen da baina beti emea (G, AM, S), aha-
txea izan litake emea edo arra (KA), aretxe urruxa ta aretxe zezenkoa (S).

lanparak **ARGI** ederra **ematen** du: argi ederra egiten du (O, IN, AZ, S, G, U, AL), argi handia egiten du (KA), ongi argitzen du (AM).

dale a la luz ■ eman **ARGIARI** / **eman**: ixitu argie (IN), piztu argia (G, O, AM, AL), pitzazu argia (KA).

BEREIZ: **A. ARI** ~ egon ~ ihardun. **B. ibili**. **A.** Non dago Arantzazu? Orain gelan; ikasten ari da (O, S, ID, G, AL, AM, KA), ikasten dao (IN, EL, IP), ikasten diardu (EL). **B.** Aurten Abartzuzan dabil ikasten (= hara joaten da ikastera) (O, IP, S, ID, G, AL, AM), oraindikan eskolan dabil (O, IN, G, ID), eskolan dabile (S, G), Elizon-

don ikasten daile (AM), Maite eta Patrizia ikasten era(b)iltzen dira Hasparnen (KA).

***a. ari** / **b. egon**.

a. esnea berotzen ari naiz (O, G). **b.** otxak nengoen eta orain sutondoan berotzen nago (O, G).

ARI izan da ~ aritu da (G), ari izaten da ~ aritzen da (G), ari izango da ~ ariko da (G, ITS, KA).

ARI: **ADIBIDEAK**: 1. entzuten al didazu? Bai, apuntatzen dut: Bai, apuntazen ari naiz (O), notatzen ari niz (KA), apuntatzen diardu (EL). 2. ni ez naiz ari andregairen bila: ni ez nabil andregairen bila (O, G, AM, S), zure bila dator (O), emaztegaiaren txeka joan da (KA), zure eske fan dira (U), onddon xerka joan dira (AL). 3. lanean ari arren ez da aberasten: aritu arren (ID), arituagatik (S), jardun arren (IB, EL), lanean jardunagatik (O), lanetik ezta aberasketan (IP), bearretik inor ezta aberastuten (IN), lanean arizanik ere, ez da aberasten (KA). 4. emagalduekin aritzen da: ibiltzen da (S, O, G, EL), emagalduekin musean ari dira (O). 5. edanetxeetan ari diren ganorabakoekin ez ezkon: dabiltzan (O, G, EL). 6. milaka ari dira bizikletan hara eta hona ~ bizikletan dailtze (AM, S, G), bizikletean ari dira (KA, LAR), bizikletan in dugu buelta (AM), millaka dabilta bizikletan (O), pasaietan dailtze (AM). 7. *estando tratando de las ropas de invierno* ■ neguko jazkiak ari zirelarik: neguko jantziez, erropaz ari zirelarik (GR), neguko jantzien gañean ari dira izketan (O), neguko jantziaz (ID). 8. *sólo el abogado se encontraba en apuros* ■ legegizona bakarrik ari zen es-tualditan (S), larri aski ibilli da (S), larri dabil (O, IP, EL, S), larrialditan ibilli da (S), estuasunetan dago (ID), estutasunean dago (IP, IN), ark pasau du estuasuna (O), arrenkurak ditu (LAR). 9. paseatzen ari da ~ pasiatzen dabil (G, O), pasiaten dabil (IP), paseiün ari düzü (AL), pasaietan dailtze (AM), promenatzerat joana da (KA). 10. bide horretatik gaizki ari zara: zabilta (O, G, S), zoaz (S, AM), oker zoaz (IP), untsa joaniza bide hontarik? (KA), aldeko bide-a duta? (KA). 11. haurrari begira ari da:

dago (O, G), haurrari beha niz (KA). 12. zer moduz ari da partidoa?: Zer moduzko partidoa da? (O), zelako partidoa da? (IP), zer modu doae partida? (S), nola ari dira? (O), partidoa nola dioa? (G, O), nola joan da partida? (KA), nola doae pilota partida (AM), zenbana dira? (ITS). 13. Martzillako kalean ibiltzen ari da: ...kalean dabil (O, G, ID, IB), karrikan erabilki da (KA), egun guztian karrikan dabilla (S). 14. mintzaldiaren entzuten egon niz (AL, KA), mintzaldia entzuten egon naiz (AM, O), a(d)ditzen nago ~ aitzen ari naiz (G, O), zelatan egondu naiz (S), mintzaldiari beha egon niz (AL). 15. pentsatzen aritu nintzen ~ egon nintzen. pentsatzen egon nintzen (O, S, AM), pentsetan egon naiz (IP, IN), pentsamentükan egon niz (AL) ~ pentsamentükan ari niz (AL), pentsaketan ari izan niz (KA), belarretan, arraintzan ari niz (KA). 16. Onintze ez da konturatzen ari, ama non dagoen: ezta konturatzen ama non dun (G, O), haurra ez da ohartzen ama nun den (KA). 17. ikastaroak egiten ari dute: ikasketak egiten ari dira (O), karrera egiten ari da (G, S), karrera egiten dabil (EL). 18. euria, elurra, haizea, kaskabarra, txingorra... da ~ ari da ~ ari du ~ egiten du. euria ari da (KA), euri anitz egiten du (KA), barazuza uharra ari da (KA), euri uharra ~ erautsia ari da (KA), elurra ari du (G, O, KA, S), ari da (KA, S).

-ARI / -arentzat.

ene lehen ikustaldia saltzaileari izan da: ...saltzailearentzat (O, KA), ...amandako izan da (S) ~ amantzat (S).

ARIXTIN / berriki (berriro G) / orain (dela gutxi).

ARKITEKTUR hiztegia egiten ari direnak oso jator dira: arkitektura hiztegia (U, AZ, IB, O, LAN, AL, G, S, EL, AR) / kultur. Herriak inon eta inoiz ez ditu kultur, literatura, handidur, ...eta honen antzekoak erabili.

hor dago ARKUMEAREN ama / kuestioa. ederra ARMATU zen han: an ziran angoak (O), an ziran izatekoak (IP), an izan zirian (IN).

talde ARMATU etsaien mugimenduak: etsai-

talde armatuen mugimenduak (O), etsai harmatuen mugimenduak (KA).

ARNASA harrerazi ~ ekarri.

*berriz ere arnasa ekarri zioten (IN, G, O, IP), hatsa eman (KA), hatsa harrerazi (ITS).

qué mal aliento tiene! ■ a ze nolako ARNASA txarra daukan!: / usain txarra.

lortu al duzue ARRAKASTARIK?: hunen kantuek baitute arrakasta (LAN, AL), gaitzeko arrekasta ukan dute Itsasun (ITS), usaiako errekasta bildu dute (ITS), arrakasta ükhenen dik (AL, KA), errete izan (AM), arrakasta haundia izan du (ITS), besta horrek beitu arrakasta berhezia (AL), neskatilak ükhenen dik arrakasta gaztekilan (AL), loteriak arrakasta handia ukan du (LAN), haren libriez ezinagoko arrakasta zien (AL).

zerbait ARRARO sentitu al duzu etxe horretan?: ezer gauza xeberrik barruntatu al dezu etxe orretan? (O), ezer gauza arrigarrik barruntatu al dezu? (O) ~ sumatu (G, O), bitxikeri zerbait ikusi duzia? (KA).

istoria ARRAROA da hori: banan banako oietakoa (O), kontu ori xeberria da (S, G), bitxia (KA), istoria jauseza (= garrantzirik gabekoa) (S).

ARRAROA da lepozurra ez haustea: asko da, zamea apurtu ez itia (= egitea) (IN), aundia da nola ezpaitu burua autsi (G), aundia da nola ez zuntz burua txikitu (O), ez da miresteke (AX), mirakulua da ez baitu lepo hezurra hautsi (KA), gogorra izandu da nola ez duen burua hautsi (S), gizurra dirudi orrek ori egiteak (O, G), arrigarria... (O, G, IB, EL, ID).

ARRATXAK eukitzen ditu: 1. bolarak eukitzen ditu (O, G, IP), boladatsua da (O), boladaka ongi ibiltzen da (S), bolarak ematen dizkio (O). 2. aldi aundiak izaten ditu (AM, O). 3. pertsona barratsua da gogotikan (O), holako barrak izaten ditu (O). 4. gorabeheak (KA), goitibeiti(a)k izaten ditu (S), gorabera andiek (IN, O, KA), gorabera aundiak ibiltzen ditu (O). 5. aldarteak asko egiten du hotza sentitzeko (G), aldarte ederak izaten ditu (G).

oiloa ARRAULTZA jartzen ari da: 1. oiloak

erro egin du (AM), oiloa erro egiten ari da (AM). 2. oiloak agitz ongi erruten ari dira (S, AL, S, AM, G, LAN, ITS, AR), erroten ari dira (U, KA), oiloak errun du arraultzea (S, G, KA), oiloak arruntza erron do (U, S, KA). 3. oiloak arraultza egin du (G, O, IP, IN, S), arraultza asko in ditu (O, IN). 4. arraultza jaio berriak (G).

orain oiloak ez du ARRAULTZARIK jartzen / utzi. 1. oiloak errunustu dira (S), oiloak erronustuta daude (U). 2. erroitetik gelditu dira oiloak (AR, AM), errutetik gelditu da (G, KA). 3. oiloak errun gabe egoten dira (S), oiloak ez dute erru ingo (AM). 4. oiloak koroildu egin dira (G), koroilduta daude (G). 5. oiloak lumarindu dire eta errunustu dire (S), oilo oriek arrunt erruleak dire baina orain lumarindu dire (S), oiloak lumarintzen ari dire (S), oiloak lumerietu dira (AM). 6. oiloa mikauta dago (O, IP).

*Bereiz: 1. erruten gelditu da (G) = oiloak erro eginen du. 2. errutetik gelditu da (G) = lumarindu, mikatu egin da.

ARRAULTZA horiek jarri berriak dira: arraultza erron berriak (IN, U, KA), errun berriak (S), oiloak errun berria (G), arraultza jaio berri(a) (K, G, IP), arraultze errün berriak dütüzü (AL), oiloak erruten ari da (AM).

ARRAZA hortakoak dira: aien zaizkikoak dira (G), zaizkiak segitzen du (G), zerri hau lengo zaizkia da (G), aien zaizkiak dira (G), zaizki ona da zerri hau (G), gaitz hori zaizkitik heldu zaio (G), ardi hori, pertsona hori zaizkitik heldu da (G), Daniel dena amana da (G), au ama da oso osoa (O), ume onek zeinen aldera eman duen eztakit (O), hau amaren aldekoa da (O), ori aintzinekotik eldu da (S), hori heldu da aintzinekotara (S), aurrekoen siñua dauka orrek (G).

ARRAZOI duzu ~ zuzen zaude (IP, ID), zuzen duk (ITS), xüxenian zira (AL, ITS, KA), etzira xuxen (KA), ortan oker zaude (IP, O, ID, EL).

ARRAZIOEZ esan dio: zuzen esan dio (O, ID, S), ongi erran dio (S), zuzenki esan dio (GR), xuxen erran du (KA).

ARRAZOIRIK gabe egin dio (KA), zuzengabeki, zuzenki gabe egin du (LAR), bidegabeki (AX 166).

hori denekin ongi ARREGLATZEN da / konpondu.

ARREMANGATUTA zegoen: manga motzakin dabil (O, ID), manga motxekin nengoen (G), manga laburrekaz (IN), besoak goituta (G, KA), maukak goituak (S), atorrako besoak goiti altxazkitzu (KA), manga goituta dago (G), pantalonak goitutuak ditu (AM), beso gorriekin (O), maukak goitutuak (AM), besoak gora jasota dago (O, ID), besoak azituta (O).

-ARREN ~ -agatik / -teagatik.

*Bereiz: a. egitearren (IB, EL, IN) ~ egi-teagatik (O, G, ID). b. egin arren (IB, EL, IN) ~ eginagatik / nahiz.

*para conseguir eso... ■ hori iritsi arren / -teagatik. ori iristearren (ID), lortzearren (IP), ori iristea(gatik) (O, G, ID), ori izate(aga)tik Errusiara joango nintzake (G), ori izatearren (IN), ori eukitzearren, edozer gauza egingo nuke (EL).

*para facilitarle la labor al lector ■ irakurlearen lana erraztu arren / -teagatik: irakurleari lana erraztearren (GR), aixe egite(aga)tik (G), (errexago) (O), biarra errexago egitearren (EL).

*le dije por decir ■ esan arren esan nion / -teagatik.

*hori ez egin arren (O) ~ ori egin ez arren (IN), inork ez jakin arren (EL, G, O), inok jakin ez arren (IN, IP), inork ez jakinagatik (O), nehork ez dakielarik (KA).

*hori egin ez dute arren: hori egin ez duten arren.

ARREN ~ mesedez ~ faborez ~ otoi / otoi.

errotara arto bi ARROAREKIN joan zen / arto.

ARRONT ~ arrunt. 1. arront aberastu da (G), arrunt ona da (G), arrunt arraza zen (S). 2. pertsona ori arronta ~ polita da (= xaloa, sencillo) (S, KA), traje arronta ~ zentzilloa (S). 3. pertsona arrunta = goserara (LAN, AL), erropa arrunta = egunero-koa (LAN, AL).

ARROZKONLETXE: esne arroza (O), esne

irrisa (KA), arroz esnea (ID, IP), arroza esnekin (G), arroz postrea (O).

ARTE: ADIBIDEAK:

1. hamabietaraino egon zen: amabiak arte (O, S, G, AM, KA), ordu batak arte (IP), hamabiak artino (AL), eguerdi artino (KA), zortziek arteo (AM), bi orduk arte (S), bi orenak artino (AL), ordu bik arte (G), bedrazietarte (IN), bederatziak arte (S, O), seiatarik eta zazpiak et' erdi arte (ITS), lauretatik bostetara (O, G), bostak arte (S, G, O).
2. ordu batara arte (S), amarretatik ordu batetara (IN), oren bakotxartino (AL), ordu bateraño (AM), hamar orenetarik oren bat arte (KA), ordu bakotxiala artino (AL), ordu batetararte (IN), ordu bata arte (O), lauraino kontatu zuen (O), lauetatik zortzitarata bitartean (IN), lauretatik zortzirak arte (O), lautik zortzitako tarte ortan agertuko naiz (S), lautik zortzi arte (G), lautik zortzi arte (G), lautik zortzi arte (G), lautik zortziak arte ~ artino (AL), zazpietatik beatzitara ~ beatziak arte (O).
3. eguerdi arte (S, G, AM, ID, EL, KA, LAR), eguerdira arte ~ bitartean lana egingo degu (O, EL), eguerdirarte (IN), eguerdi aldera arte egon zan (IP), eguerdi gabe (AL, LAN), eguerdi arteo lanean aritzen zen (AM), egurdatean (IN), bazkal bitartean (U).
4. astelena arte ez da etorriko (S, G, IP, KA), astelena arte (ID), astele(he)nera arte ez da etorriko (IN, O, ID), larunbata arte (S, G), igande arte (S, G), astelehenala artino (AL) ~ astelehen arte (AL), larunbateraino (AM), igantartino (AL), igantarte (AL), igande arte (ITS), igandera arte (O), jaira arte (O), domekararte (IN), biharamun arte (ITS), datorren illera arte (ID), datorren urte ~ urtera arte (ID), azkenera arte zintzo izan zen (G), azken egunetaraino lanean ari izan zen (ITS), biar bitartean ezpa-du egiten (O).
5. 200. orri arte ez da agertuko (G, S), 1950. urte artio (ITS, KA), berreun urtetik irureun urtera bitartean gertatu zan (O), zazpitik bedezik arte (S), berrehun eta hiruehun urteen artean (AL).

6. pozik doaz Donostira arte (IP, IN, O, ID, G), Hasparne artino (KA), kontent joan dira Donostira artino (S).

7. gero arte (G, O, EL, IP, IN), sarri arte (S, KA), sarri artino (AL), berriz artino (AL), sarri arteo (AM), sarri dino (ITS), berant arte (ITS).

ARTE ~ artean ~ bitartean ~ -eno (denboraz ari garela). aita bizi den arte (G), bizi den artino (S), aita bizi den artean emen eongo naiz (O, EL), aita bizi den bitartean (G), eguardira arte ~ bitartean lana egingo degu (O), aita bizi deno (ITS, LAN, AL, KA), bizi diraukeeno (LAN).

zonbat orenak ARTIO egon zirezte elgarrekin? (ITS, KA), noiz arte (IP, O, ID, EL), zazpitik bederatzi ARTEN lan egin zuen (G), zazpitik bedezik arte (S), zazpietatik beatziak arte (IP, O, ID), zazpietatik beatzitara (ID), zazpi orenetarik eta beatzi orenak arte egon zen (KA).

ARTEAN / oraindik: Ohar: oraindik oraindirako / oraindik.

ARTEAN gazte zenean, gaixotu egin zen: artean gazte zela, gaixotu egin zen (O), gaztia zan arte gaixotu zan (O).

alde ederra dago ona izatearen eta txarra izatearen ARTEAN / alde (eder).

Miren eta Onintzaren ARTEAN adiskidetasun mina da (KA) ~ Mirenen eta Onintzaren artean (G, IP), Maria ta Luisan artean (O, U), elefant zaharraren eta gaztearen artean... (AX 122), tenplearen eta aldarearen artean (LEIZ.), katuein eta zakurrein artean (AM), emazte heien eta soldadoen arteko atxikimenduak (ITS).

talde bien ARTEAN bakea egin zuten (= hirugarren taldekoek): talde biek pakeak egin zituzten (G, O, IP), aserreak bukatu (G), bakea egin zuten (O), fakea in zuten (U), oiek elkarren artakan bakeak egin dituzte (S), aihertarrak eta hazpandarrak elgarretaratu dira (KA).

emakumeen eta gizonezkoen ARTEAN bostehun etorri ziren: emakume eta gizon, berrogei ba ziren (S), gizon da andre (U), berrogei bat ba ziren, emakume ta gizaseme (G), gizonezko ta emakumezko, berrogei bat etorri gara (IP), andra ta gizon, berro-

gei inguru (IN), gizon da emakume, berrogei bat (O), baziren hogoi bat gizon eta emazte (KA).

Maiteren aurpegia kortinen ARTEAN agertu zen: kortinatartetik (O, G), kortinen artakatik (S), errigadoaren artetik buru bat ikusi dut (KA).

Margarita kalera begira dago kortienen ARTEAN: kortinan tartetik zelatan (G), kortinen atzetik jarrita zelatan zagon (O), erridauen gibeletik beha zen (KA).

Durangoko liburu berrien ARTEAN, ipuinak ziren gehienak: Durangoko libururik geienak ipuinak ziren (G, IP, IN, ID), Durangoko liburuetatik geienak ipuñak ziran (O, ID), liburuek geienak irri egitekoak ziren (S), Durangoko liburuetan geienak barre egitekoak ziran (GR), liburu gehienak irri egiteko dira (KA).

«astakaiku galanta haiz», pentsatzen nuen ARTEAN / (bere) barruetarako.

frantziar eta espainiar gobernuaren ARTEKO laguntasuna: Frantzi(a)ko eta Espaini(a)ko gobernuen arteko laguntasuna (G, O, KA). gu eta Mariaxunen ARTEKO adiskidetasuna: gure eta Mariaxunen arteko... (AM, G, O), onaren eta gaiztoaren arteko diferentzia (AX), spirituaren eta haragiaren arteko gerla perilosa (AX 183), Zer da hire eta gure artean...? (LEIZ Marc 1,24), gure bien arteko adiskidantza (KA).

anaien arriben ARTEKO maitasuna: / eta nebarreben arteko maitasuna (IN, IP), anaian eta arriben arteko maitasuna (KA), anaianarriben arteko maitasuna (O, ID), umetarteko maitasuna (U), senideen arteko maitasuna (G), senidien artakako maitatasuna (S), haurrideen arteko maitasuna (KA).

Aristoteleseaz hasi ta gure ARTERAINO / -gandik.

belaunak ez zituen ARTIKULATZEN: jokatzen (O), ezta ankarik jokatzen (O), plegatzen (KA), biortzen (IN), biltzen (S), belau-na ezin bildu (S).

ARTO bi tonelada erosi zuen / kilo.

ARTOIRIN errua batekin talo asko egin litezke: errua bat artoiriñakin talo asko egin ziran (G), hirur neurri irinetan (LEIZ

Luk 13,21), arroa bat artoiriñakin (O), enea bat arto zazpi pezetan saltzen gunen (O), anega bat arturrun (IN), kilo bat irin jan zuen (KA).

ikasleak ASANBLADAN bildu dira: biltzarea egin dugu (KA), batzarra egin dugu (O, IN), ikasleak batzartu egin dira (GR), billera egin da baina orain eztaikit zertarako den (S, O), Erreboluzione denboran Pariseko bilkura handian mintzo zen (LAN, KA, LAR).

etxea ASEGURATUA zuten / aparkaleku. etxea segurata zuten (AM), segurata al dago ori? (= 1. asegurado. 2. toki seguruan ezarria) (O), ardia ongi se(gu)(ra)tua dago (G), asuratua (KA), bizipidia segurtatürük dü (AL, KA).

noiz ASENTATUKO duzu burua?: noiz asentatuko ote zaizu burua (O, G), moiz-bait ere juizioa etorriko zaizu! (S), noiz zentzatuko ote da au! (AM, KA).

ASKATU / libratu.

Elkartazue preso! ASKATU kateak!: / kateak kendu! (IP, IN, O), (kadenak) (KA), lixa ziozu kate ori bei orreri (S).

compro unos cuantos ejemplares sueltos ■ ale ASKATU batzuk erosi zituen / kontatu (batzuk).

boteila bat ASKATZERA noa: irekitzera noa (O), botoila ideki du (KA), idekitzera (S, AM), zabaltzera (AL, U).

BEREIZ: ASKI / nahiko: 1. aski = doi doia. Bizitzeko diru aski badugu (KA), 2. bizitzeko nahiko badugu (= behar dena baino gehiago) (KA).

ASKO: huts aunitz egiten dira hitz hau erabiltzerakoan. Asko, zenbat galderari erantzuteko erabili beharko genuke, eskuarki; hots, kopurua, zenbakia, kantitatea... adierazteko. Nolakoa adierazteko handia edo beste hitzen bat erabiltzea hobe.

*argi, beldur, hazkura, logura, gorrotoa, egarria, iluntasuna... eta bestelako hitz abstrakto eta orokor anitzi ez genioke asko lotu behar, handia baizik.

*aberastasan asko ematen diote hizkuntzari: haundia (AZ, MO), aberastasan aundia zaukan (G, O, KA).

*elaberrian baserriaren bizitzea asko ager-

tzen da: sarri (U, IP, IN, O), sarri askotan (IN), sarritan (O, IN, ID), maiz etortzen da (G, ID), usu heldu da (KA, LAR), ardura heldu da (LAN, KA).

***asko aldatu** da / **diferente**. diferentzi aundia egin du (O), diferentzi ederra artu du (G), alde aundia egin du (O), arrunt bi dira (KA), bi anaia horiek badute diferentzia handia (KA).

***argi handia** / **argi asko**: suak argi aundia egiten zuen (O, ID, KA), bideetan argi asko jarri (= ezarri) dituzte (O, ID).

***apetito asko** dauka Malialik: jateko gogo aundia (EL, O, ID), apetito andia (AM, G, IP, IN, KA), apetito txarra (AM, G, O).

***legatza asko atsegin** zaio: legatza jatea oso atsegin zaio (O), oso legatzalea da (O), oso lebatzalea da (IN, IP).

***beldur asko** dauka: beldur handia (O, G, KA, S, IN) oso bildurtuta nago (O, G).

***bero asko** egiten du / **gehiegi**. bero andia (IN, O, S, G, KA).

***burukomin asko** zeukan: aundia (O, ID, MO, IN, IB, KA), animaleko burukomina (KA).

***denbora asko** ez dela / **orain** (dela gutxi).

***denbora asko** egon zen Fustiñanan / **denbora** (pilla).

***diru asko** deuka horrek ~ horren diruketa ~ horren dirutza (O), diru mordoia (O), diru pillia (O), horrek ze dirualdia baduen! (KA), diru piloa langoa deuko (IN) a zelangoa diru piloa deukon (IN).

***edade asko** du: adin aundia du (AM, U, ITS, AL, LAN, KA).

***egarri asko** dut: aundia (MO, IN, AZ, IP, IN, ID), biziki egarritia niz (KA).

***gu gazte** ginenean elurra egun askotan egoten zen kalean ~ egunetan egoten zan (EL, IN, O, G), anitz denboraz (KA), anitz egunez bazen (KA).

***eguzki asko** da gaur: eguzki handia da (KA, S).

***elur asko** egin du: elur aundia (O), ori da elurtza (O), euri aundiak ari ditu (O), euri aundiak izan dira (O), lokatz aundia da bidean (O), ur aundia da osin ortan (O).

***asko entzuten** da hori hemen: aditzera aundikoa da (O, G), ori errate aundia bada

emen (AM), ori esateko oitura aundia da emen (G), esaera aundia da emen (G), esakerea (IN), hemen usu erraiten da hori (KA).

***lo ongi** egiteak **asko esan nahi** du: mesedegarri da (IN), agitz (S), arront ona (G), oso ona (O), lo onaren egitia biziki untsa da (KA).

***berebela esku askotan** ibiltzea txarra da: eskualdatzea txarra (O), eskuz aldatzea (G), eskuz kanbiatzea txarra dute kotxeak; esku batera obekiago ibiltzen dire (S, AM, KA).

***asko estimatzen** dut hori ~ oso estimatzen dut (O), oso estimau dauket (IP), oso estimatua det (ID), biziki estimatzen dut (KA).

***Iñigo asko etortzen** da etxera: maiz (G), sarritan (O), askotan ez (IN, O), bakan (AM), bakan jiten da (AL), ez da maizegi etortzen (G), usu / bakan heldu da (KA).

***euskaraz asko daki** / **menderatu** (euskara).

***asko ezagutzen** nuen: ezagun aundia nuen (IN, G, S, O, KA), nere ezagun aundixa da (IP).

***ezagutzen** al duk hiria? **Asko** ez: ongi ez (G), ez dut untsa ezagutzen (KA), ondo ez (O, IP, IN).

***eskolan asko faltatzen** dira: eskolatik piper asko egiten zun (G, O), maiz piper iten du (AM), usu eskola utsitzen du (KA), sarri eskolaz uts egiten du (IP).

***asko fidatu** zara horretaz / **fidatu**: ondo fia(t)u zera orrekin (O), arkin arront fiatu nitzan (G), nik badut konfiantza aundia orrekin (S), hartaz arrunt ~ biziki fidatzen niz (KA).

***begiak asko gorritzen** zaizkit: begiak biziki gorritzen zitzaizkizun (LAN, KA), begiak gorri gorri egiten zaizkit (O, G, S).

***hori egiteko gogo asko** daukat: gogo aundia daukat (IB, EG, IP), horren egiteko emeia haundia dut (KA), gogo handia ükhen düt (LAR).

***gose asko** daukat: gose aundia daukat (G, O, EL, ID), biziki gose naiz (LAN, KA), oso goseak nago (O, IP), gose hamikatua da (LAN, KA), oso goretuta dago (ID, G), gosez amorratua (O).

***garbitasun asko** dago etxe hontan: garbitasun aundia (EL, AZ), oso garbia dago etxea (EL, IN), biziki garbia da (KA), oso txukuna dago etxea (O).

***jakiteko gogo asko** neukan: jakiteko gogo aundikin nago (G), horren jakiteko emeia handia dut (KA), jakin naizik nago (S), jakin nai bizi bizian nengo (O).

***haize asko** dabil / **haize**.

***Pilare asko harritu** zen: oso harritu zan (O), arront arritu nitzan (G), biziki estonatu zen (KA).

***hotz asko** egiten du / **hotz**.

***asko ikusten** zaitut bide honetatik: maiz (G, S), sarritan (O), usu (KA), ardura (LAN).

***ile asko** / **ile**.

***ilun asko** dago: illunpe bizia da (O), illun illuna da (IN, G, IP, KA).

***indar asko** dauka horrek: indar aundia dauka orrek (IB, EG, ID, KA).

***Mucho le importa a ese!** / **asko inporta** zaio horri! / **inporta**.

***gu asko irtetzen** gara: maiz (G, S), sarritan (O), gu usu jalitzen gira (KA), askotan (G, IB, IN).

***asko jan du** ~ **gogotik jan du** (= 1. asko. 2. bere gogara) (O, ID, KA).

***nola nahi** duzu kafesnea, kafe askorekin? / **kafesnea**.

***sukaldean ke asko** dago: ke aundia da (G, O, KA), eke aundia dago (AM, S), ke mina dago = min ematen duena; begiak erretzen dituen (O).

***lan asko** dute: lan aundia dute (AM, O, KA), lan aundiakin daude oraingo bolada onetan (S), artoarendako zen biziki lan (LAN).

***logale asko** daukat: logura aundia dauka (O, IB), logale ederra daukat (G), oso logaletua nago (G), biziki logaletia niz (KA).

***ez dauka lotsa asko**: ez dauka lotsa aundirik (O, G), biziki ahalge da (KA).

***mahats asko** da aurten ~ mahats urtea da, sagar urtea da (O, ID, KA, LAR), mahatsa iaurri dugu aurten (KA).

***asko maite** dut Aldeko Elentxo: oso maite det (O), arrunt maite du ama (G), Landibarren biziki maite dute Irene (LAN, AM,

KA), oso ume maitea da (O), biziki maite ukan dizit beti ezta (LAN), biziki maite beitzien mestura esnearekin (LAN), maitasun aundia dio (ID, O), gorroto aundia (O, G), maitasun, herra handia badu horrendako (KA).

***min asko** egin didazu: min aundia eman didazu (G, AM, O, U, IP, KA).

***he sufrido mucho durante mi vida** / **nahigabe asko** izan dut neure denboran (= asko baina tiki izan litezke): naigabe aundiak izan ditut nere denboran (G, O, KA), maiz izan ditut naigabek (G), naigabe aunitz izan ditut baina ez haundiak (AM), gorriak ikusi ditu (G, O, ID, EL), ederrak ikusi ditu horrek (G), ederrak ikusia da hori (AM).

***asko poztu** zen: izigarri kontent jarri zen (AM, KA), arrunt poztu zen (G), oso poztu zan (O).

***asko saiatzen** da hori / **enpollon**.

***asko sartzen** da pertsonaia bakoitzaren barruan / **profundo**. **a.** maiz sartzen da (G), oso barren sartzen da (G), oso barruan sarzen da (EL, MO). **b.** ziloan hondo artino sartu zen (KA).

***sinesmen asko** deuka horrek: sinesmen handia (AM, G, O, KA).

***su asko** / **su handia**: **a.** legortegatik su asko izan dira Euskal Herrian (G, O, EL), su ainitz (KA). **b.** karobian su aundia da(go) (G, O, EL, KA), hango sutzarra (IN).

***asko tardatzen** zenuela iruditu zaigu / **tardatu**.

***asko tentatzen** zuen lagunak: maiz zirikatzen zuen lagunak (G), usu kitzikatzen du (KA), Trabailatzen dena... eztu haragiak tentatzen handi (AX 249).

***traba asko** egiten du: gurdi orrek traba aundia egiten du (G, AM, O).

***trafiko asko** dago: trafico aundia (G, O, KA).

***asko tristetu** zen: arront tristetu zen (G), biziki triste zen (KA), oso tristetu zan (O).

***ur asko** / **ur handia**: **a.** mendi horretan ur asko da (ID, G), ainitz (KA, S). **b.** ibai horretan ur handia da (ID, G, KA).

***uzta asko** izan da aurten: / **behi**: uzta

handi da (LEIZ Luk 10,2, KA), labore urte aundixa izan da (IP, IN, O), aurtan labore urte aterako da (S).

ASMOTAN ~ 1. -tekotan. 2. -tektotzat. 3. -tekoa. 4. nahiz. 5. gogo. 6. asmotan. 7. asmoz. 8. xedetan, xedearekin. 9. ideiatan. 10. deseinian.

1. ezkontzekotan zeuden baña bertanbera kito gelditu omen dira (O), ematekotan gaude (O, U), gibelerat itzultzekotan da (ITS, KA), gelditzekotan gira (ITS), itzultzekotan zire Iholdirat (LAN), gizon noble bat parti zedin... gero itzultzekotan (LEIZ. Luk 19,12), ezkontzekotan zebiltzan baña utzi egin diote (O) / -tekotan. 2. ni areri pastela emotekotzat nago (IN), ezkontakotzat egon dire, baie itxi in deutso (IN), ori itekotzat dao (IN). 3. ama bera jitekua zen (AL), nora juaitekoa hiz? (ITS, KA), zuen etxerat jitekua nintzen (ITS), ara joateko nago (G), noz joateko zara? (IN). 4. bildü nahiz jin da (AL), hori egin nahiz joan da (KA). 5. hori egin gogo dut (ITS, KA). 6. ori iteko asmoe deuko (IN), asmo bat daukat: etxera etortzekoa (O), hori egiteko asmotan dago, dabil (O, G), asmo orretan ibilli behar du (O), asmo bat daukat: etxera etortzea (O). 7. artoa jorratu asmoz gaude (ID), hori egin asmoz gabiltz (ID). 8. arrotzen lagüntzeko xedetan jinak dira (AL), meza entzuteko xedearekin jina zen (ITS, KA). 9. ezkontzeko ide(a)tan zeuden, baña gelditu egin dira (G), ezkontzeko ideatan zailtzen; gero utzi (egin) zuten (AM). 10. Atharratzerat joaiteko deseinian nündüzün (AL).

ASPALDI ez dut edan / orain (dela gutxi). askoz ASPALDIDANIK ezan zuen: aunitz lehenago (AM), anitx lehenagotik jinik da (LAR), askotaz leenago esan zuen (G, O), askoz le(he)nago esan nion (EL), aspaldian (KA).

ASTE: ADIBIDEAK. / egun, hil, urte. 1. astea pasadu da (IN). 2. aste bat pasatu du Iruñean (S, AM, LAN, KA), aste bat irago du (G), aste bat ba da emen itxin (S), as-teren bat egina izan bear du (O, G), aste bat etxean egiña du (O), aste bat igaranen dü (AL), aste bat ber bera igaran dü

(AL), aste bat bakarra egin omen du (O), aste bat bera igaran dü (AL). 3. mendian aste bete pasau noan (IN), aste bete bat (O). 4. aste batendako etorri da pixkat goiti beiti (AM), aste bateko (AM, G, S), aste batentako jinik niz (AL), aste batendako (KA), zortzi egunerako dator (= aste bateko) (IN, G, O, IP), aste baterako (O, U), zortzi bat eguneko G (= aste bateko). 5. bi asterako dator (O), aste bireko dator (IN), aste birako dator (IP), amabost egunerako (= bi aste) (O), amabost eguneko (= bi aste) (G, S), bi astendako jin da (KA, LAR), aste bi onetan gaixorik dago (EL), amabost aldi ontan ez du euldi onik in (G), amabost egun ontan (O). 6. iru asterako dator (IN, U, O), iru aste (S, G), ogeta bi egunerako (O), ogetabi bat eguneko (= hiru aste) (G, AM), iru astendeko (AM), iru bat asterako (O, ID), gaur ogeta bi emen izan zen (G, O), iru bet asterako dator (= gutxi gorabehera) (IN, O). 7. lau asterako dator (O, IN), ogeta beatzi egunerako (O), lau aste (G, S), gaur 29 izan omen zan (O), hilabete batendako (KA), illabete bateko etorri da (G, S), illebeteko etorri da (O), illbete baterako (O), lau astendako (LAR), illebeteko pasetako etorri da (O) (lau aste). 8. aste guzia Iruñean pasatu du (AM, S, O, G, KA), aste osa Landibarren pasatu du (LAN, AM, O), aste osoa ~ aste oso bat iragan dü Abaurregainan (AL), astea oso-rik Donapaleun iragan düzün (AL). 9. ainbeste astean an egonda gero ez du ezer ikasi (IP, IN), (hoinbeste) (KA), Abaltziske-tan zazpi astean egon zan (O, ID).

ASTE bete da oraintxe ~ astea pasatu da (O, S).

ASTEARTEAN arratsaldean etorri zen: as-tearte arratsaldean etorri zen (O) (jin) (KA), atsaldi(a)n (AM, S, G).

ASTEAZKEN: Intxaurren *asteburu* esan gura deu.

baloiari *ostikadak* ASTINDU zizkion: ostika-dak emon (IN, O), balonari ostikoa eman (KA), ostikoa eman (G), ostiko bat tiratu du (KA), beiak ostikada bat tira zion (O), Ptxik ostikada bat eman zidan (O), os-tikoaz jo nau (O), ostiko bat eman dot (U).

eztaukagu *galtzeko* ASTIRIK / (galtzeko) *denborarik*. 1. eztaukagu denbora galtzeko astirik (O), ez gaude denbora galtzeko (G), ez dugu denbora galtzekorik (KA), ez dut astirik huntan zabartzeko (KA), ez dut astirik denporea galtzeko (IN). 2. hola ibiltzeko ez daukat astirik (O, IN, EL), ...ez daukat betarik (O), ...ez dut denborarikan (G, KA, IN), ...ez dut aizinarik (KA, LAN).

paper ASTOKADA bat ekarri zuen Leitzatik / *lur* (palakada): astokada bat paper ekarri zuen (O), astokada papela (IN), astotara bat paper (KA), asto karga bat paper (G), astakada paper (O).

ASTORA igon zuen / (astora) *igon*.

ASTOTIK erori zen / *erori* / *jaitsi*.

ASTOZ ibiltzeko ez da biderik: astoa ibiltzeko moduko biderikan ezta (G), astoa ibiltzeko ere ez diren bideak dira (O), hau ez da asto bidea (KA).

qué pasado es! ■ *zein* ASTUNA den / *pe-saua*.

ASUNTO ona daukazu hor / *arazo*. hori da ASUNTOA! / *kuestioa*.

ASUNTOAK ekarri du gai hori: berbak ekarri dau (IP), izpidea jarri dit (O), berak eman zidan izpidea (O, G), txoferrari ez zaio izpiderik eman behar (G).

horrek ASUNTOTIK irten gabe hitzegiten du / *adartetatik*.

gaitzak *gibelera* ATAKATU dio: gibelera jo dio (O), gibe-leko mina arrapatu du (G), gaitzak bigelera eman dio (S, AM, G), eritasunarekin galtxurrunak ere honkiak zitu-ten (KA).

egungo *heroak* asko ATAKATU dio: gaurko beroak ziero erasanda nao (O), gaurko be-roak erabat erasan dit (O), eguzkiak kaltegin dit (G), eguzkiak Patrizia jo du (KA), gaurko beroak iraki (egin) nau (S), iguzki kolpe bat ukan du (KA), otzak ederki erasaten dio (O), atzoko janariak erasanda nago (O).

pipiak ez dio eukalptusari ATAKATZEN: eukalptusa jotzen (O), eukalptusa jaten (S), pipiak jan ~ zulatu (G), zura pipietu (egin) de (AM), zur hori azkarki zizkatua duk (KA, LAN).

ATAKE *epileptikoak* ematen dizkio: erorteko minak eman deio (LAR, KA), aldikadeak emon dutso (IN), aldiak izaten ditu (KA), aldiak izaten ditu (ID), erorteko min du (LAN, KA), aldika egiten zaio (S), liluria egiten zaio (S).

ATAKEA eman dio: atakea egiten zaio (O, G, AM), odol kolpe bat ükhen dü (AL), odol kolpe batek hil du (AM), kolpe batez hil da (AL, KA), orain ere joaldiak eman dio (O), atake(a)k eman dio (G, S), aldikadeak emon deutso (IN), gaitza aldika egiten zaio (S), joaldia du (O), joaldiak eman dio (O), aitari zerbeit jin zaio (ITS).

ATARI ondoan / *gudari*. atal ondoan ~ atal zapatin (S), atalburuan kana (= neur-tzen duzun neurriaz neurtuko zaituzte) (ID, O), ori ere neurtuko du atalburuko kanak (O), atarin aten ondo(a)n (G).

ATE danbatekoak entzun nituen: atean dan-batekoak entzun nituen (O), atean soiñua da (G), atean asotsa da (AM), bortan kas-kaka ari dira (KA).

ATEA ireki, atea zabaldu / *zabaldu*.

ATEAN jo dute: atea jo du bateonbatek (IN, G, S, AM, ITS, O), borta jo düte (AL, LAN, KA), atea jo debe (U), ate joka ari dira (AM, G, O, S), atea jotzen daude (EL), borondatearen atheak ioiten (AX 242).

hori beti ATENTO egoten da: zur egoten da (IN), erne egoten da (G, AM, O, ID, KA, S), beha niz (AL), belarriak tente eukitzen ditu orrek (O, EL), azti ibiltzen da (ID), be-harri ernik ttu orrek (S).

hori denekin oso ATENTO da: danantzat ar-gia da (IN, EL, G), Amagoia kasu egillea da (O), kasu egilea (= arta hartzen duena) (KA).

ATENTZIO handirekin entzuten zion: arreta andirekin (GR), arretaz entzun du (O, ID, EL), arreta aundia ipiñi (GR).

me llamo la atención ■ ATENTZIOA deitu zidan: atentzioa eman zidan (O, G), ez zi-dan atentziorik eman (O), atentzioa emate-ko bezalakoa da Olatz (O), jende guztiari atentzioa ematen zion (O).

ATENTZIOA deitu behar diogu: kargu egin behar diogu (S), esan egin behar diogu (ID, O), orri kargu artu bear diogu (O, G), kar-

gu artu bear zaio (O, G), kasu egin behar dut (= diot) haurrari (KA).

ez nion **ATENTZIORIK prestatu**: ez nion atentziorik artu (G, U), atentziona artu nion (O, IN, G, U), atentziona (a)txiki nion (AM), begia atxiki nakon (KA).

ATERAKADA hark barre eragin zidan ↗ **ir-teera** (bakoitza).

esnea **ATERAKO** da! ↗ **esnea**. esnea gaintzika daie (AM), esneak gañez egin du (O), esneak ganaz in dau (IN), eznea gaintitzen da (AL), esnea gaintitu da (LAN), gañez joan da (G, O), eltzeari... gainez doanean (AX), gañez in du (G), eltzea gaintzika daie (AM), esnea gañez doaie (S), esneak gora egin dau (IP), goiti joan da (KA), eznea iraili dü (AL), eznea iaurri dü (LAR).

ATERGABE zetorren jendea: jentea atertugabe eldu zen (G), gelditu gabe (O, AM, KA), uraxe jendearen etorria! (O), jentea dator faltazarik (IN).

ATERTU du **kaskabarra**: atertu du (IN, AM, KA), txingorra egin du baña atertu du (O).

ATRIBUTOA: on / ona, onak ↗ **mugagabe**. Ileana on da = *Ileana es buena* (GR), Ileana ona da = *es la buena* (GR), gizuna hun da (AL), gizonak on dira = *los hombres son buenos* (GR), gizonak onak dira = *son los buenos* (GR). Filma honetan Aitor ona da, Harkaitz txarra = *...el bueno... el malo* (GR), gizonal hun dira (AL), amoltsu eta bakezko zirenak ere, egiten baititu... traidore, bihotz gogor, krudel, eta erhaile (AX 459), Iosephék, zeren iusto baitzen (LEIZ. Mat 1,19), egiten zaituztet giza peskadore (LEIZ. Mat 4,19), Dohatsu dirade bihotzez xahu diradenak (LEIZ. Mat 5,8), berak dira bere baitan asko klar eta ozen (AX 5), zu bezalako aitaren semea, emazurtz izanagatik ere (AX 2), Zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira (AX 11), Oso diradenek eztute medikuren beharrik, baina eri diradenek (LEIZ. Marc 2,17).

ATSEDEN hartzen ari dira ~ ↗ **pausatu**: daude (O), deskantsatzen daude (G), exetzen ari naiz (U), atsedeten daude (O, G), deskantsu ederra hartu du (G, O, S), atsedenaldira artu dute (G, O).

elurrak ATSEDENALDI bat egin du: Elurra

zen baña aterune da (O), atertu du mementoan (KA), edurra egin euen, baña oiñ atertute dago (IP), aterri dau (IP), aterri dao (IN), elurra aritu du baña orain aterkantz dago (S), elurra atertu du (G, O, S, IN), euria atertu du (G, O, KA, S, IN), elurra botatze-tik gelditu du (S), elurra gelditu da (KA).

ATXAKIA hari **botatzen** dio: atxakia ifini (IN), aitzaki hori artuta jun da (O), aitzakia eman (G, O, S), aitzaki egin (O), aitzakirik eman ez eman (S, O, G), ez etortzeko ze estakulu paratu du? (AM), estakürü eman (AL, ITS, KA), ze estakulu eman du? (AM), estakuluek zituen (AM), aitzakia jarri (O), aitzaki ugari ipintzen du orrek (O), aitzaki ugari atertzen du (G, S), aitzaki emalle ederra da (G), eztugu bertzeri zer atxakia emanik (AX 360), ezin demaiot bertzeri atxakiarik (AX 383), hotzaren atxakia egin zuen (AX 33), hori eman zuen estakurutzat (ITS), estakuru ttipia aski du horrek, etxetik joaiteko (KA), pixa egitera zijoala aitzekian... (O), orren aitzakia e(g)in du (O), zakurra(re)n aitzaki in dute (G), hori eman zuen estakurutzat (ITS, KA), estakürü eman zian ez joaiteko (LAR), aitzaki ori atera du (S, G), ...jarri du (O), atxakie ifini dau (IN).

luzatzeko ATXAKIAK ematen ditu: luzapena luzapenakin beti (O), beti luzapena ematen du (O, KA), beti luzatuz dabila (S), beti luzapidea ematen (G).

ikusí behar dugularen **ATXAKIA** ↗ **-laren**. Tolosara jun zan, beia ikusi bear zuan aitzakin (O), behia ikusi behar zuelakoan, Tolosara joan zen (G), gaxtaginak atzeman estakuruan, ona preso altxatu (ITS), beia ikusteko aitzakin... (G), behia ikusi behar zuelako estakuruan, Hazparneko merkatu-
ra joan zen (KA).

gaixorik zegoelakoaren **ATXAKIAZ** ↗ **-lakoaren**: gaixorik zeuan aitzakin eskolara jun gabe gelditu zan (O), gaixo atxakiagaz ez zen etorri (IN), gaizki zegoan aitzaki(a)kin etzen etorri (G), eri zelakoan, etxean gelditu zen eskolara joan gabe (KA), eri dagolako aitzaki ta maitzaki, itxin gelditu da (S).

berehala **ATXEMAN** zion oso gizon jatorra zela ↗ **atzaman** ↗ **notatzen**.

ATXIKI: ADIBIDEAK: 1. aldeko, zale: eskola girixtinoari atxikiak dira (ITS, KA), Anje euskal kulturari atxikia da (ITS, KA), lagunari atxikitzen dio (ITS), mintzajari etxekirik (AL), lanari osoki etxekirik (AL). **2.** heldu, eutsi, gorde: pilotan «atxiki» egitea ez da haizu (GR), euskaldunak borrokatzen dira beren nortasuna atxikitzeko (LAN), horrek hitza etxekitzen du (AL), atxikitzen du dretxoa horren egiteko (ITS), atxik amodioa (ITS), ongi atxik liburu hori (ITS), mintzajia etxeki (AL), erortzera dohana atxiki (ITS), arau horiek etxeki behar dira (ITS), geroko etxik (AL), huts ttipia, hunki handia beno aisago orhit etxekitzen da (AL), hari hitz emana eztü etxekiten (AL). **3.** eduki: batasunak atxiki du bere biltzar nagusia (ITS, KA), jendea bi orenez enoatu gabe atxiki dute (ITS, KA), nik ere ele berdintsuak atxiki ditut (ITS), atxik go-goan egun hori (ITS), xoratuak atxiki gitu oro (LAR), urdea atxikitzen da egun bat goserik huñs dadin (LAN), gazitegian behar da atxiki hogei egun (LAN), ez ni beha atxikaraz! (LAN), guziak xarmaturik atxiki gitu (LAN). **4.** elkarrekin ongi etorri, ongi konpondu: elgar atxikitzeá gauza ederra da (ITS, KA), elgarri biziki atxikiak dira (LAN, KA), gük algar etxekitzen dügü (AL). **5.** sua datxeka (AX 323), sua datxetela (AX 367). **6.** zerbaiten ondoan egon, zerbaiti lotua egon: eremu horri datxikona, lur komuna da (ITS), azalari datxekana (AX 288), han datxekala (AX 341).

ATZAMAN ↗ **atzeman**.

poliziak **lapurren ATZEAN** joan ziren ↗ (mutil horren) **atzetik**.

eskuak **lepo ATZEKALDEAN** ipini zituen ↗ (eskuak buruaren) **behean**.

baloia harresiaren **ATZEKALDERA** erori da: ormean beste alderdire joan da (IN), paretaz beste aldera (O), murruz beste eskualderat (KA), pilota paret(a) beste aiekara bota du (G).

ATZEKOZ aurrera ↗ **aldapa**.

ATZAMAN ~ **ATZEMAN** ~ **ATXEMAN** / **ANTZEMAN** / **HARTU** / **UKAN** ↗ **antzman**. **a. atzman**: bila zabilta nolabait ere eta aurkitu egin duzu: untzizka bat

atzemanik, itsaso zabalerat jo zuen (ITS, KA), onjoka izan nuxu eta hatzeman txit bi kilo (LAN), onddoka izan nüzü eta bi kilo atzaman ~ bildü dü (AL, LAR), hatzeman dixit galdia nien aixkora (LAN), «xori eijer bat hatzaman düzü Paubeko seroren komentin» (kanta), xori eder bat hatzeman dizi Paubeko seroren komentian (LAN), perretxiko topetan joan eta kilo bat ekarri noan (IN), lagun bat atxeman zuen bidean (ITS, KA), bidean otsoa atzeman nizin (LAN, KA), bideko ogi puskak atzeman zituen (LAN, KA), neskatono hua ederra atzeman zuen (LAN), arboletan atzemaiten zen guk adarra deitzen geniena (LAN), onddoketa joan niz eta bi kilo atxeman ditut (KA). **b. antzman** ~ igarri, igerri ↗ **notatzen**. **d. hartu** (*aktibo*): harkitzu bi arroltze (LAN), hartazu sagar hori eta jan (LAN, AL). **e. ukan, uken**: (*recibir*): pena ukaiten dut (LAN, KA), ez kezkarik ukan (LAN), ukan zuen ukaitza osaba batenganik (LAN), jateko guti ukaiten zizin (LAN), ukan dugu zure letra (= eskutitza) (LAN, AL), ukhen dütü nahigabe eta bihotz-minak (AL), atsegin, damu, dolu ukan zuen (LAN, ITS, KA).

ATZERA aurrera ↗ (atzera) **aurrera**.

gure **ordularia ATZERA** ~ atzeratuta dago. erlojua atzeratuta dago (IN), aurrera dago (O, G), aintzinean da erloia (LAN, KA), atzerago dago (IN), (atzo do) (G), erloju au atzera dago (O, G, ID), atze(g)i do (G), atzetik dabil (IP), atzera dabil (IP), reloju au antzintxigo dago (S), erloju au aurrera xamar daille (U), erloia gibeletik da (KA), ene montra aintzina dü (AL), reloju bigeltua dago (S), ene montra gibel dü (AL), erlueje gibelatue dago (AM), erloju au Loiolakoarekin batera dago (O).

ATZERANTZA ↗ **aldapa**.

lana egiten **ATZERATUAK** ~ atzera gaude. atzera gaude (O, G), aurrera gaude (O, G), lanakin agitz bigeltu(a)k gaude (S), lanetan gi(be)letu(a)k gaude (AM), gibel gira lane-tan (AL, KA), lanakin oso atzera na(b)ille (U), lanak aurreratu(a)k dauzka(g)u (U), gibeltürük dütgü lanak (AL), lanak atzeratuta dauzkagu (ID).

aitaren ATZETIK berak hartu zuen oinordetza: aitararen ondoren berak artu zuen maiorazgoa (O, ID), aitararen urrena (G, O), aitararen ondotik artu zuen baserria (S) ~ etxaldea (AM), (ukan) (KA).

neskatila hori mutil horren ATZETIK dabil (O), (/ atzean) ~ neska ori beti ondoren dabilkit (O), neska hori mutiko horren gibeletik era(b)iltzen (= ibiltzen) da (KA), ondotik dabilkio (G), neskatxa ori mutil orren ondotik dabile (S, AM), zure ondotik dabil (ITS, KA), zeren ondotik othe dabila? (ITS), poliziak aien ondo(r)en joan ziran (O), neskoto ori mutil orren atzetik ibiltzen da (U, IN, G, IP, O), gibeletik beti hori du (ITS), orren gibeletik dabila polizia (S, AM, KA).

irratsaioak AUDIENTZIA handia du: entzulego handia (GR), entzule asko (O), Euskal Telebistak ikusle goa handia du (GR), Xiberoko Botzak badu behazale hanitx (LAR).

AUKERA ezazu, zoaz zu ala noa ni: zuk autetu, ni gatea ala zu gatea (AM), zeorrek aukeratu, zu joan edo ni joan (O), zeuk elejida, ni joan edo zu (IN), zuk berexi, ni joatea edo zu tortzea (S), zuk autsi, gu ara jon (ed)o zu onara etorri (G), zuharek hauta, eia nahi duzun zuhaur joatea edo niharu (KA).

auzapetzat AUKERATU dute ~ egin ~ izendatu / bezala. alkate egin dute (ID, O, EL, G, KA, S), alkate izendatu dute (ID, O), hautatu dute (KA).

baloia Salinasen AURKA joan da: baloia Salinas jo du (O, ID).

gaur, geure ohituraren AURKA, saio luzeago egingo degu irratian: usaiak bertzaldera (ITS, AM), usaiak kanpo (KA).

botalarriaren AURKAKO botika da: botalarria kentzeko botika da (O), goranaia kentzeko botika (G), goitik botatzeko gogoa kentzeko botika (AM), goiti ez egiteko erremedioa (KA).

ez zuten euriaren AURKAKO babesik: ez zuten legorrik (AM), ez zuten aterperik (O), aterberik (KA), ez zuten ezeren legorperik (G), egu(ra)ldi txarra izaki eta nun sarturik ez zuten (G).

ez dizut neure burua AURKEZTU / ezagutzera (eman).

era lo contrario de su padre ■ izaeraz bere aitararen AURKAKO zen / (Miren eta Irene) diferente.

legez AURKAKO da hori / prohibitu.

AURKITU: «encontrar», «hallar» adierazteko egokiago, «encontrarse», «hallarse» baino. Ingelese bezala: to find, to discover / to be. I found this watch at the station: erloju hau estazioan aurkitu dut./My wife was there: hantxe zen gure emaztea ere.

te has encontrado con Miren? ■ Mirenekin AURKITU al zara? / topo. 1. Mirenekin egon al zera? (O), Mirenekin topo egin al dezu? (O), kausitu ~ atxeman duzia Miren? (KA), topo topun arrapatu dut (S), ustekabin arekin topatu niz (S). 2. Euskal Herritik aurkitzen da: Euskalerrian dabil (O, EL, G), Euskalerrian dago (IP, IN, O), da (KA), Euskalerritik dabil (IN). 3. zerua oskarbi aurkitzen da / oskarbi. 4. gaixoa hobeto aurkitzen da: gaixoa obeto dago (O, EL, ID), (hobeki) (G, IN), eria hobekiago da (KA). 5. jendez beteta aurkitzen zen frontoia / bete / toperaino. frontoia jentetz beteta zegoan (O), (jendez) (ID, KA). 6. Bilbora joan beharrean aurkitzen gara: joan beharrean gaude (ID, O, EL, G), behar izinian gaiz (IN). 7. berebela ez da aurkitzen ibiltzeko moduan: ...ez dago ibiltzeko moduan (G, O, IN), ...ibiltzeko manerean (AM, KA). 8. ordurako hila aurkitzen zen: ordurako illa zan (ID), ordurako ilda zeuan (IB, EL, O), orduko hila zen (KA, S).

nos lo dijo con ta la cara ■ AURPEGI osoz esan zigun: lotsa aundirik gabe esan zun (O, G, ID), ahalkerik gabe (LAN, KA).

AURPEGIA eman zuen haren alde / frente (egin).

atseginezko AURPEGIA ipini zitzaion / notatzen.

ezer ulertzen ez duenaren AURPEGIA ipini zuen: ezer entenditzen ez dun a(u)rpegia jarri du (O, EL), naparreri pikaua daukan arpegia ezta oso ederra (O), berri hori entzun eta begitartea tristatu zako (KA).

AURPEGIZ bakarrik ezagutzen dut / fisikoki.

haren AURPEGIAN kezka hori nabari zaio / notatzen.

AURREA harrapatu ~ hartu: aurrea arrapatu nion beiri (O), antomobilla erosten aurrea arrapatu nion (O), aurrea artu (G), aintzinatu dut (KA), aintzinpidea ~ aintzinkaldea artu (S).

notizi horren AURREAN kezkatutik daude: berri orrekin oso kezkatuta daude (O), notizi orregaz arduetute gaiz (IN), berri horrekin biziki tristatu da (KA).

giro pesimistaren AURREAN ere, ez zuen etsi: giro tristea izanagatik ere, ez zuen etsi (O), amagatikan ere ez dut etsiko (G), itxea erreta ere etzuen etsi (G), estuasunean, kinka larrian, etzuen etsi (G), etxea errea izanik ere, ez da triste gelditu (KA),

itzaina idien AURREAN doa ~ inttaurrekoak idien aurretik doiez (IP), idien aurretik (IN, O), nere aintzinean doaie (S), zure aintzinean gain naiz (AM, KA), zazi zu aintzinean (AM, S), zure aurretik ~ zure aurrean dixte (EL, IN).

sendagilea izan genuen AURREKO bi igande direla: gaur amabost emen izan gendun medikua (O), gaur amabost emen egondu zan medikua (U), diela hamabost egun hemen izan zen mirikia (KA).

AURRERA eta atzera ikasten zuten kristau ikasbidea / aldapa.

atzera aurrrera ~ aintzinat eta gibelat ibili / aldapa. amaika atzera aurrrera egin zituen (O, ID), atzera ta aurrrera asko ibiltzen du (G), aintzinat eta gibelat ibiltzen gara (AM), aintzin bigela aunitz ibiltzen gara (S), ez dute aintzinzatzerik; aintzin gibelka eraiki dira (KA).

Azpeitia AURRERA heldu zen: Zeaunuri baño onago etorri zen (IN), lentxo(ago) (G), Sunbillara ia allegatun ikusi nuen (S) ~ ia allegatzean (S), Amaiur baño lentxago gelditu nitzen (AM, O), Aiherrako aintzinean gelditu zen (KA).

AURRERAGO batean esan nizan, nor naizen / beste (egunean).

hablaré más adelante con ése ■ AURRERAGO mintzatuko naiz horrekin ~ geroago (G, O, ID, IN), gero (KA), geroxeago (G, O, AM, S).

AURRERANTZ erori zen / aldapa.

AURRETIK / haurretik (= haurtzarotik) (AM, LAN, AL, ITS, KA).

gauza asko egin behar ditugu, baina AURREZ aurretik hau: lenbiziko au (U, G, AM), lehenbizi hau (ID), aurrena au (O, ID), estrañeko (O), aurreneko (O), lenengo lana au (O, ID), lehenik borta zerratuko düt (AL, ITS, LAN, KA), lelen goz (IP), lenengo au (IN), lelen go au ein biar dot (EL).

AURREZKIKUTXAREN zuzendaria / -ko / -aren.

AUSARTU: ADIBIDEAK / agindu. ni ori egiten ez naiz atrebitzen (O, IP, IN), Ausartzen dira bekhatu egitera (AX 89, S), Ezta azartuten arnasa artuten (PA), badut horren egiteko ausartzia (KA), ausarti izan da horren egiteko (LAR), haizü niz horren egiteko (LAR).

nire egunetako AUSENTZIA igarri gabean igaroko da / notatzen. egunetan kanpoan egon naizenik ez dit inork antzeman (O, ID), egunetan kanpoan egon naizenik ez du inork igarriko (G, EL), egunetan kanpoan egon naizenik ez tuzte inork igerriko (IP), egunetan kanpoan egon arren, ez tuzte inork igerriko (IN), egunetan kanpoan egon arren, ezta inork oartu (ID), ni luzaz kanpoan egonik ere, nehor ez da ohartuko (KA).

AUTOPISTAZ joango gara / trenean. autopistatik (S, AM, G, O, ID, IN), bidetik joan dira (AL), autopistatik fan dira (U), autopistaz autopista joan dira (G), bidez bidez joan dira (G), bidez hortarik joan dira (AL, KA), bidez hori hartu dute (KA).

autoservicio: AUTOZERBITZU: (nork berak) hartu-eraman (GR), (nork berak) hartu eta jan (GR).

gauza AXOLA handi gabekoa da / inporta. izena bost AXOLA zaizkit / inporta. ez du AXOLARIK zaldi bat agertzeak / inporta.

eso no tiene importancia ■ horrek ez du AXOLARIK / inporta.

behiak AZAL fina zuen: behiak larru fina zuen (KA, G, O, IB), narru (IP), behi horrek larria legun du (KA).

sagarrari AZALA kentzen ari naiz: sagarra zuritzen ari naiz (U, G, O, AM, AL, IP, KA), sagarra tipiltzen ari naiz (AL).

hemen ez AZALDU berriz / bistan (ikus). kotxeko AZIDENTEZ hil da ~ ezbearrez il da (IP, O, ID, EL), histripuz (ITS, KA), ixtripu ukan dute (KA).

bezain AZKAR ~ (bezain) laster / orduko. AZKEN ~ azkeneko ~ azkenengo ~ atzen ~ atzeneko ~ atzenengo ~ hondar ~ hondarreko. 1. azken libria (AL), azken eguna (AM, KA). 2. azkeneko eguna (G, O, U, S, AM, IP, ID). 3. azkenengo aldiz (S, EL). 4. orrela bizitzea atzena da (O). 5. atzeneko eguna. 6. atzenengo egunean (IN). 7. ondar eguna (AM, KA). 8. ondarroko egunean erartzen da (S).

AZKEN hauetan ez zaitut ikusi: azken aldi ontan ez zaitut ikusi (O), aspalditxoan (O), aspaldian (IN, AL, G, AM, IP), ba dū aspaldi etzütudala ikusi (AL), aspaldian etzütut ikusi (AL, KA), ola, zer diozu, aspaldion ikustekoa! (AM).

AZKEN zehaztasunetaraino aztertu zuen / sakonean (ezagutu).

urteak ziren hitz hau AZKENENGOZ esan zuela: ba dū urte anitx hitz horik esan zūntiala (AL, KA), urte anitx igaran dira zūk hitz horik erranez geroz (AL), aspaldi esan zeban ori azkenengo bidar (EL), azkeneko aldiz (G, O), atxine esa oan atzenengoz (IN), urte aunitz dira ori erran zula (S).

la última vez que le vi ■ AZKENETAN ikusi nuenean (= hiltzorian): 1.1. atzenengoan (EL), atzenengoz emen egon nintzanean (O), azkenengoz (IP), untzungoz (IN). 1.2. azken aldian (AL, KA), azkeneko aldian ikusi nulikan, eritua zen (S, AM), azkeneko aldiz (G), azkenengo aldiz lengo astean ikusi nun (O), azkeneko txandan (G). 1.3. orain urrena perratzalea izan zanean (O), oin urrengo(a)n (O), untzungoz (IN). 2. le-

nengoz ikusi noanean (IN), lenbiziko aldian ikusi nuenean (AM), lenbiziko aldi ikusi nuela (AM).

AZKENETAN dago / (hiltzeko) puntuan. gazte AZPEITIA bat / -tar.

Bereiz: 1. AZPIA (gehienetan tokia/ 2. mende (menpetasuna) / mende.

makurturik iragan dut leiho AZPIA / behe (aldetik argia).

gizona ardoaren AZPIAN dago / monagillo. publicó sus obras bajo el nombre de Lizardi ■ «Lizardi» izenaren AZPIAN argitaratu zituen bere lanak / pean. «Baserri» izena-(re)kin eskribitzen du (G, O, KA).

AZPIJOKOA jokatu zion: azpijokoa egin zion (G, O), iruzur egin zioten (= 3 lagunek bati: jokoan, pilotan...) (G), elgarrekin hitzartiak dira (KA).

AZPIJOKOA desegin zion: galerazi zion (G, O), debekatu zakon ohointza ar(it)zea (KA).

intxaurrondoaren AZPIKO aulkian: intxaurpeko aulkian (G, O), intxaur azpiko kederan (KA), haritzaren azpian (KA), arbolan azpian (S), arbolpean dago (AM), zor handien pian sarthū da (AL).

AZPIKOZ gora ezarri zuen / aldapaz.

AZPITAKO bi oheak hobeak ziren: azpiko bi oheak hobeak ziren (KA), azpiko oe biek (IN), azpiko goatzea (AM, S), beko goatzea (U), belar hori azpita(r)ako (O), (azpi)garri: IN, ID).

ez da zaurian behin eta berriz AZTERKATU behar: ez adi jardun beti orri beazka (O), ez ukitu (AM), ez pitzikatu azazkalekin (S), ez larrutu (G), ez zirikatatu (G), ez kitzika! (KA).

kafea AZUKRAREKIN nahi al duzu? ~ / kafe: gozauta (O), gozatute (IP), kafea azukrarekin edo samiña (G), ongi gozatuta artzen du orrek (G, O, S), azukeratsu (IN), kafea sukratia da (KA).

B

BA

*aretoan sartu zenean, laguna bazegoen han: laguna an zegon (IP, IN, ID), laguna an zeukan (ID, O), han zen (KA).

*Nafarroan badira neskatxa ederrak (G, O, IB, EL, ID) ~ / mugagabe. bada Xiberon neskatxa eijerrik (AL), tiro zalaparta ederrik bazen (G), bada zakurrik herri huntan (LAN, AL, KA).

*ez dakit ondo ala gaizki badago / zalantzazko (perpauasak).

*Pello da. Dator gure etxera: badator gure etxera (ID, G) ~ gure etxera dator (ID, G), (Haseran aditz sintetikorik bada, ba ezar).

*1. Pello dator / 2. Pello badator (galdegaia ezberdin da).

1. Nor dator? Pello dator (S, O, G). 2. Zer dago Pellok? Badator (S, O, G).

*berak esango du etorri al badu ala ez / zalantzazko (perpauasak).

*beraren andregai izan gura badau galde egin dio / zalantzazko (perpauasak).

*iñork ez daki hil bada / zalantzazko (perpauasak).

*ba al dakizu azken ardia hori izan bazen? / zalantzazko (perpauasak).

*zerezozer jaten badu, txakurrak arroza jango du / -tektan. ezer janean ~ jatekotan (O, S, AM), deus jatekotan (G), zerbait jan behar eta bildoskia jan nezake (KA).

*Behar bada, ez zegoen! Bai, zegoen!: Bai, bazegoen! (AZ, MO, ID), bazen! (KA).

*Ba al daki? Bai, daki: Ba al daki? Bai, badaki (U, O, AZ, ID, MO, KA).

*ea etortzen bazara: ia etortzen zaren (AM, G, O, IP), hea ikusi jinen zirenez! (KA).

*Zer, goaz? / orainaldia. Zer, bagoaz?

(IN), ba al goz? (G, O), ze, gain gera? (AM), ze, bazoaz? (U), ze, joan girea, ba ala ez? (KA).

*Bereiz a. ordu beteko lana dute (O, ID, G), oren baten lana dute (KA). b. badute ordu beteko lana (O, ID, G), badute oren baten lana, segurik (KA).

a. = 60 minutu. b. = behar bada luzeagorako ere.

*Bereiz: a. neuk dakit hori / b. nik badakit hori.

a. nork daki hori? Neuk (EL, IB, IN). b. nik jakin, badakit, egiten ezpadot ere (IN). zenbat BABARRUN zaku jan genuen! / (zaku) tomate.

BA esan: esan ba! (O, G, EL) (= bada). puede ser que si ■ baliteke BAI! / posible / ahal. baliteke! (U, ID, O, G), behar ba, izana da! Ba(d)itake! (KA).

BAI euskarari!: Euskarari bai! (G, O, EL), Gorrotoari ez! (U, ID, AM).

BAI ETA

*Eskarne etorri da. Bai (e)ta ere Miren (ARUA: ipini ere galdegaiaren ondoren) / ere (bai eta).

*Idoiak ez dizu nahi, eta bai Idurrek: Idoiak ez zaitu maite; Idurrek bai (G, KA), ... Idurrek bai, ordea (O), Idurrek bai, ostera (EL), ...Mirenek, aldiz, bai (KA).

*aita etorri da; ama baita / ere. aita etorri da; ama ere bai (IB, EL, O), aita etorri da; baita ama ere (EL, G, O), ama be ~ ama be bai (IN), ama heldu dea? Bai, aita ere (KA).

*bai eta ere ekintza on da / ere. ekintza ere ona da (O, G), ama ona da, baña alabea be bai (IN), teoria ona da; ekintza ere bai

(O, IP), teoria ona da; bai eta ekintza ere (G).

*errefrau batzuk daude **baita** / **ere**. errefrauk ere ba dira (ITS), sagarrik ere bada (AL), sagarrape badaoz (IN), badirena madiak? Bai sagarrak ere (KA).

***baita** ere bizitza adierazterakoan / **ere**. bai eta bizitza adierazterakoan ere (O, G), bai mendira joaitean ere (KA).

*batzutan pertsonaiei buruzko zehaztasunak ematen dira **baita** / **ere**: batzutan pertsonaiei buruzko zehaztasunak ere ematen dira (GR).

Bereiz: 1. horrek **BAI** jan! / 2. horrek jan bai! / (besterik) ez.

1. orrek bai jan! Olako jatuniki ez dut ikusi (G, O, EL). 2. orrek jan bai; lanik egin ez, baña! (EL, O), jan bai orrek, lanik egiñen ezpadu ere (G), orrek jan bai, baie bearrik ez! (IN).

elgarrekin bizitzeko **BAIA** eman dute (ITS, KA).

BAIETZ (azkenean hobekixeko, desafioka ari garenean), ori egin baietz! (G, O), baietz ori orrela egin (S), ori bai in aise (AM), baietz joan ara! (IN).

BAIETZ dirudi (O, EL), antza bai (IN), ba dirudi (O), baietz ematen du (O), hala dela irudi du (KA).

le *dieron una respuesta positiva* ■ **erantzun** **BAIEZKOA** eman zioten: **a.** baietz erantzun zioten (IP, IN), baietz erran dakoten (KA), baiezkoko erantzuna eman zioten (O), baiezkoko eman zidan (ID, AZ), baietz esan zidan (ID, EL, O, AM, G, IP, IN), baietza artu oan (IN), baietza eman zidan (O), bere baia eman zion (LAN), baietzean (O), ezeztean (O), baiezkokoan (O), ezezkokoan (O). **b.** ezetz esan (O, ID, EL, AM), ezezkoko eman zidan (O, ID), ezetza eman zioten (O, IN, IP, EL, G), eza eman (AL, AX), ezetz erran dakoten (KA).

BAINA. **OHARRA**: *Euskaldun zaharrek —geure gurasoek, adibidez— guk baino askoz sarriago ezartzen dute baina perpausaren azkenaldian. Euskarak, gehienetan, konjuntzioak azkenean ipintzea eskatzen du: «nahiz esan nion», eta batez ere «es que esan nion», «zergatik esan nion»... eta horien antzeko perpausak erdal usaina dute.*

Erosiko neban; txarra zan baña (EL, IN, IB), Neuk esan diot barren! = *pero si yo mismo le he dicho* (EL, AZ), nola, ba(da)? (O, EL), nola, ordea? (O), Badakitx ori egin debala. Zergatik baña? (EL), esatekoak esan nizkion, baña! (EL) = *pero le canté las cuarenta*. zer dala baña? (EL), orrek ez deu sinisten, baña = *pero ese...* (EL), beste patxara batean bizi gaituk emen, dirurik ez degu baña = *aunque...* (O, EL), etzaitut ikus bata! (IN), Neuk esa neuntsen, bata (IN), etzaitut ikus barrez! (IN).

BAINO: esaldi bikainak osatzen dira «baino» z: ai baño ai zegoen ~ ai batean zegoen (O), egunean baino egunean jatorrago (O) / **bakoitza**. erregutu dio ba arixe, arren baino arren (O).

BAINO ~ **BAÑO** / **baizik**.

atacan a la bayoneta ■ **BAIONETARA** ari dira: baionetakin (G, O), makilaz eraso zion (GR), makilarekin oldartu dako (KA), makila kaldu bat eman deio (LAR).

Jainkoa **BAITAN** ~ Jainkoaren baitan; ni baitan ~ nire baitan: geurok baitan (LEIZ. Oth), hori pentsatzen genuen gu ~ gure baitan (KA), sinhets eraziten baitrauku Iainko Aita baithan (LEIZ. Has, AX), erraiten dudala neure baitan (AX 50), Ilki adi... eta... sar hori baithan (LEIZ. Marc 9,79), lagunak beren baithan harriturik zeuden (ITS), gure beitan (AL, LAR).

erantzun hark haien **BAITATIK** atera zituen / **kasilletatik**.

BAIZIK: baino, baizik, bakarrik, bera, bere-re, bestalde, besterik, ez bada, ez beste, ez eze ~ ez ezik, ezean, ezik, ez gainerakoak ~ ez gainontzekoak, huts, salbu / **aparte** / **ezik**.

***OHARRAK**: 1. *ezik: aurreko edo atzeko perpausa ukatu egiten du. Ezezko perpausa ere uka lezake, zerbait baieztuz = fuera de.* 2. *ez ezik (= ez eze): hau bakarrik ez, beste(a) ere bai = no sólo este, sino...* 3. *baizik: bestea ez, hau bai.* 4. *zenbait tokitan, ezik = ez ezik.* 5. *bizkaieraz baño bakarrik erabiltzen dute, gehiago erantsi gabe: OSO ONGI.* 6. *Mugaz bestaldean homuzkaldean baino maizago erabiltzen dute baizik. Guk*

besterik eta bakarrik haiek baino usuago. 7. *bakarrik: batzutan ez du esanahia zehazten. lana bakarrik egin behar duzu: a. zeuk bakarrik. b. lana, besterik ez.*

BAIZIK

*1. **BAINO**: ori baño ezpada (IN, EL), al-kandaria baño ezteuko (IN, EL), ori baño nai ezpadu (Peru Abarka), zuk ez dozu in, orrek baño (IN), ez dekot beste familirik arreba bat baiño (IN).

*2. ez da gehiago zakurrik, arras guti **baizik** (LAN), gazteriak eztü ükhenen laidorio baizik (AL), hartaz baizik etzen solasik (ITS), oraino ez dut dupina baizik suan (ITS, KA), eztitu erraiten, laguneri gogoratu gauzak baizik (ITS), horietarik bat baizik ezta agertu (ITS, KA), bazter orotan zützaz baizik eztüzü aiphü (AL), hori baizik ez badu! Badu bertzerik ere! (ITS), horrek bazter nahasten baizik onik eztu (ITS), ogi xerra bat baizik ez zuen ukan (ITS), ez dute ardura beren abantaila beizik bilatzen (ITS), zunbait denboraren bü-rian ez dateke bi edo hiru apez baizik (AL), etxe batetan beizik ez da egiten (ITS), ez du utzi orhoitzapen onik baizik (ITS), hildakoen alde otoitza baizik ez da onik (ITS), badira bi belar klase; leheno etzen baño beizik (LAN), ene aitamek etzizien ni beizik beste haurrik (LAN), gütik baizik ez düte huts egin (AL), ez ihuri erran, herriko apezari baizik (AL), aita bizi zen bere bi alabekin baizik (AL), gauez baizik ez nintzen jalkitzen (ITS), ez dut ikustez baizik ezagutzen (KA), ez dut inor maite, ama baizik (ITS), ez dütt arreba bat baizik (AL, KA), inork eztaiki Pedrok baizik (AM), ez zen Maria baizik (AL).

*3. **BAKAR** / **bakarrik** / huts / **baino** (7. oharra), arreba bakarra dugu (S, G, AM, O, U, ID), ume bat bakarra dute (AM, S), bat bakarra etorri da (S), arreba bat bakarrik dekot, baina bi anai (IN, IP, O), zer zarete, biok bakarrik? (AM), Zer zaute, biek bakarrik? (G, O), aita eta bi alaba bakarrik bizi dira (AM), gauez bakarrik irteten nitzan (O), erriko apezari bakar bakarrik erran zion (AM, O), ama bakarrik maite dut (EL, G).

*4. **BERA**: etxen tanta bat bera bizi zen (AL), aita eta bi alabak berak bizi ziren (AL, KA), etxen urte bat bera iragan zian (AL, KA).

*5. **BERERE**: berere hil, besteak ere bai (AL) / **aparte**. berere hil, besteak ere halaber (AL).

*6. **BESTALDE**: amaz bertzalde ez dut inor maite (ITS) / **aparte**.

*7. **BESTERIK**: arreba besterik ez det (O, IP, ID), arrebaz besterik ez dut nehor maite (KA), ez du inor maite, ama besterik (G), ez inori esan, apezari besteri (G), dirua besterik ez zeukan (O, S, G), dirua baino besterik ez deuko (IN), orrek dirua bertzerik ez dauke (AM), ez dut ogia besterik jaten (S), ez du ogiaz bertzerik jaten (ITS), ez dut ikustez besterik ezagutzen (ITS, KA), lo-reaz bertzerik ez du entzun nahi (ITS), ez dut amaz besterik maite (ITS), jan besterik ez degu egiten (O), ez du inor maite, ama besterik (G), etxean izeba besterik ez da inor bizi (G, O, IP, ID), etxean izikoa baño besterik ezta bizi ~ beste inor ezta bizi (IN), ama besterik ez dut inor maite (O), errege bat besterik ez dauka (O, EL), ildakoen alde otoitza besterik ez dago egiterik (O).

*8. **EZ BADA** (erdal kutsuzkoa): ez du orrek egin, ezpada ze zuk (IP), zuk ez dozu egin, ezpada ze orrek (IP).

*9. **EZ BESTE**: ura ez beste guztiak etorri ziren (G, O, ID), haxe ez beste danak etorri ziran (IP), Pierraz ~ Petiriz bestiak ito ziren (AL), Jon ez beste danak etorri ziran (O), Jon ez beste gañontzeko danak... (O), hartaz bertze guztiak (AX 21), Mariaz beste gañontzeko guztiak dakite hori (O), Mariak ez bertze guztiak ongi dakite ori (AM, O, S), zortzi presunaz bertze guztiak (AX 93), oro jin dira, Mariaz beste (AL), lehenez bertze gogoeta molde batzuk (AX 38), inork eztaiki, Mirenek bestek (G, O), inguru honetan gurean bestetan ez da urik (O), María ez bertzeak danak etorri ziren (AM, IP, G, O).

*10. **EZ EZE** ~ **EZ EZIK**: 1. ori ez eze, geao be ioan (IN), alaba ez eze, ama be etorten da (IN), ama ez ezik, alaba ere eto-

ri zan (O), ori ezi ze, beste danak be fuen-
go dia (IP).

*11. EZIK = 1. ez ezik. 2. baizik.

1. alaba ezik, ama ere etorriko da (ID),
ama ezikan, alaba ere etortzen (G). 2. inork
ez daki, Xaturrek ezik (ID), Jontxo izin
ezik, danak ito zirean (IN, IP), inok ezta-
ki, Mirenek izin ezik (IN), haxe izin izik, beste
danak (IN), ez dut inor maite, ama izan
ezik (EL), sosa urthekal ezik ere bi urtheta-
tik bederen bidaltzen dü (AL), oroek ezik
ere, gehixenek egin dute (AL).

*12. EZEAN ↗ ezean.

*13. EZ GAINERAKOAK ~ EZ GAI-
NONTZEKOAK: bat ez, gañontzeko guz-
tiak etorri ziran (O), Maria ez gañekok de-
nak bildu gara (G), Mariatz gañontzeko
guztiak dakite ori (O).

*14. HUTS ↗ **bakarrik** / huts: ez inori
errateko, uts utsik erriko apezari errateko
(S), apezari hutsa erran zion (S), zer zarete,
biok utsak? (S), bat utsa etorri da (S), erre-
ge utsa zuen (AM, AZ, G), 4 amarreko
utsak ditugu (S), errege utsa deuko (IN),
ardo utsa edaten du (S), aita eta bi alaba
uts utsak bizi dira (S).

*15. guziak jin dira, Maria SALBU (KA).

ez da hori, **BAIZIK** bestea ↗ **baina**. ezta hori,
bestea baizik (IP, O).

ez dugu gauza handirik irabaziko, lan eginez
BAIZIK (KA) ~ bakarrik ↗ **gerundio**. lan
eginda baizik (G, S), lanik egin ezean (O,
ID), iraztekotan, lan egin bear (S), lan egi-
tez baizik (AL).

harentzat ez naiz saltzaile soila, adiskide ere
BAIZIK: arentzat ez naiz saltzalea baka-
rrik, adiskide ere bai (ID, G, O), arentzat
saltzale ez ezik, laguna ere ba naiz (O).

hemen lan egiteko, han **BAJA** eman behar
duzu: hango lana utzi, hemen lan egiteko
(O, ID, KA).

majestuosamente **BAJO** las escaleras ■ han-
dikiro bajatu zituen eskilarak ↗ **jaitsi**.

jornalak **BAJATU** dituzte: jornalak beitu-
dituzte (AM), gutxitu (O, IP, ID), jornalak
jetsi (G), ttikitu (S), ttipitu (KA), beheitu
(KA), apürtu (AL), güttitü (AL), ttipitü
(AL), soldata apaldu dute (KA).

urak **BAJATU** egin dira: ↗ **jaitsi**.

politikari horrek **BAJETZAT** dauka euska-
raz idaztea ↗ **ondo** (hartzen).

BAJOAGO hitz egin! ↗ **alto** (mintzatu). 1.
ixillik ein itza! (U), ixillik egiten zeben ber-
betan (EL), ixilago mintza! (AM, G, O,
IN), ixillaorik berba ~ berbetan egin (IP),
ixilegoik! (IN), Izu berba ixilago (IN, S),
ixilikao! (IN), zaude xilo (AM), solastu ixil-
xego (S), ixilxio itz egin (G, O), ixilxo(r)ik
itz egin (O), isil xamar itz egiten du (G, O),
ixil mintzaten da (S). 2. apalxko dago ra-
dio ori (AR, AL), apalik mintzo da (KA),
apalxago (LAR), apalago (KA, S, LAR),
apalikagotik mintza zite (AL), boza apaltü
(AL), biziki apal mintzo da (KA). 3. boza
tikitu (S).

BAJOAREN ahotsa zuen: nolako mintzo lo-
dia duzun, aitaxi (LAN, G, IN, KA), boz
sendoa (IP, ID).

zurekin **BAKARKA** hitz egin nahi dut ↗ **per-**
sonalki (hitz egin).

bertsolariek **BAKARKA** kantatu zuten (KA)
↗ **banan**. banaka (O, G), bakarka eta mul-
tzo ttipitan joan ziren (ITS), hastean bede-
raxka ~ aldian bat eta gero moltxoka
(KA).

BAKARRIK ↗ **baizik**.

BAKARRIK / hutsa ↗ **kafesnea**. Bereiz: 1.
kafe hutsa ala esnearekin. 2. kafea bakarrik
ala koñak ere bai. 3. kafea bakarrik hartu-
ko duzu ala lagunekin? ↗ **bakarrik**.

*kafe utsa edaten du (O, AM, G, IN), ka-
fea ala kafesnea? (O), kafea utsik ala esnea-
rekin? (O, KA), kafe utsa ala esneagaz?
(IN), kafesnea (ed)jo kafe utsa? (G, AM,
O), kafe hutsa nahi düzü ala ezniareki?
(AL), ala ezniareki botian ~ nahas (AL).

horrek arreba bat **BAKARRIK** deuka ↗ **bai-**
zik.

BAKARRIK hizketan.

*1. bera bakarrik ari da hizketan (O). 2. ber-
bera eleketan ari da (ITS). 3. berekiko hiz-
ketan ari da (O). 4. bere buruarekin beti
hizketan egoten da (U, AM, G, O), bere
büriarekin elestan ari da (AL), ...eleketa ari
da (KA), bere buru(ar)ekin solasean aitzen
da (AM). 5. beti bere burutik ari da sola-
sean (S, AM, G), bere burutik marmarin
ari da (S), bere burutik armonin ari da za-

kurra (G), haurra bere burutik ai da izke-
tan (S, G), bere burutikan hasi zen kanta-
tzen elizan (G). 6. solasean ari da bere bu-
ruz (AM). 7. bere gisa ari da hizketan (ID,
O). 8. bere kasa hitz egiten du (O), marma-
rrean bere kasa ari da (O), bere kasa berbe-
tan jarduten deutso (IP). 9. bere kauten
berbetan ibiltzen da (IP). 10. beti marma-
ri(a)n (S). 11. bere baitatik utzi du tabakoa
(AM).

BAKARRIK haseran ematen zaigu azalpena:
hasieran bakarrik ematen zaigu azalpena
(G, O, KA).

lanarekin **BAKARRIK** aberastu da ↗ **baizik**.
lan egin utsetik aberastu da (O), bere lan-
etikan (S, AM, KA), lanean ariz (KA), bere
izerdiakin lan eginda (G).

ez **BAKARRIK** orduan, ze baizik **bihar** ere:
egun artan bakarrik ez, biamonen e(re) bai
(G, O), ez bakarrik egun hartan, bainan bi-
haramunean ere (KA).

BAKARRIK: a. *solamente*. b. *lagunik gabe*.

a. urte bete bakarrik iraun ~ egin zuen (O)
↗ **baino** (OHARRAK), urte bat bakarrik
ira(g)ozun (G, KA), urte bat bakarrik
aitzen zen (AM), urte bat bakarra aritu zen
(S, O, G), etxen urte bat baizik iragan zien
(AL), etxen urte bat bera iragan zien (AL).
b. urte batean bakarrik egon zan (O), baka-
rrik urte bat iraun zuen (G), urte batean
bera bakarrik egon zan (IN), urte batez baka-
rrik egon zen (KA).

mahai **BAKARTI** batetan eseri zen: maai ba-
kar batean eseri zen (O), utsik zegoen
maaian (O), bazterrean zegoen maaian ese-
ri zen (O, EL), bakarrik zegoen maia baten
(G, KA).

toki **BAKARTIAGORIK** ezin baterantz joan
zen: ezin da geiago baztarra dan toki bate-
ra joan zan (O), alajana, toki ederrera joan
da bizitzera, bakar bakarrik (S), bakarda-
dean bizi zen (AM), bakarrik bizi da (KA),
au bakardadea! (G).

utzi ni **BAKEAN** ~ 1. bakea emak (LAN),
zoazte emendik, emazue bakea (S, G),
emak bakia (AL, KA), eman niri bakea
(ITS), bakea emantzak (AM, O), ez digu
bakerik ematen (O, S, G), eman zaze bakea
(AM), emaiazu pakea, ume (ID). 3. bakea

euki alkarrekin (O), bake auze elkarren ar-
tean (LEIZ. Mark 9,50). 3. pakian ibilli zai-
(te)zte, beti alkarrekin txaplaka jardun
gabe (O). 4. itxi niri bakian (IP), neri ez tut
ezten fakean (U), ez gaituzte bakean uzten
(AM), utziazu pakean (ID), utzi zidazu pa-
ken (O).

BAKOITZA ~ bana (Gazteek zaharrek bai-
no askoz bakanago erabiltzen dute *bana*)
↗ **bana**.

Tiene cada salida! ■ **ateraldi** **BAKOITZA**
izaten du!: orrek egiten ditu(e)n ateraldiak!
(O, EL, G, S, ITS, KA), zu atxemateko ate-
raldia da (ITS), orrek egiten dituen irteerak
(O).

gauza **BAKOITZA** gertatzen da!: harritzeko
gauzak gertatzen dira (O, KA), arritzeko
moduko gauzak gertatzen dira (O, ID, G,
S), gauza arrigarriak (ID), ikaraketako
gauzak (IP), ikeratuteko modukoak (IN).

idazleak **BAKOITZA** bestea baino **gehiago**
jarri ziren haren alde: idazleak, zein baño
zein, aren alde jarri ziren (O), zein baño
zein, dotoreago dabilta biak (O), nor baño
nor obiek dira (IP), bat bestea baino hobea
dira horiek (KA), zein baino zein hobea
dire (S), bata bestea baino hobea da (IN).

egun **BAKOITZEAN** joaten zen mendira:
egunero (IB, ID, MO, IN), egun oroz
(LAN), egun guziez (ITS).

autobusa hamar minutu **BAKOITZEAN** irte-
ten da ↗ **bina**. 1. hamar minututik hamar
minutura (G, S, O, IP, IN, ID). 2. amar mi-
nutorik urtetan dau (IN), iru ilebeterik
etorten da (IN), hiru hilabetetarik izanen
dira bilkhurak (ITS, KA), zazpi urthetarik
ongarritu (LAN), zazpi urterik (IN). 3.
amar minututik bein (IP), egunean bein
(O), bost egunez bein etortzen da (ID). 4.
zortzian zortzian etortzen da (IN), astean
astean (IN). 5. zeinbeterik etorten da? (IN),
noizetik noizera heldu da? (KA).

egun **BAKOITZEAN** jatorrago zen: egunean
baño egunean jatorrago zan (IN, AM, O,
U, IP, ID), egunean baño egunean okerra-
go (G, O, ID), egunetik egunera okerra-
go (EL, G, O, ID, KA), illebeteen baño illebe-
teago ohea zen (AM), illean baño illean
(IN, O), illean illean (IN), urtean baño ur-

tean (IN, O, ID, G, IP, U), urtean urtean jatorrago (IN), urtetik urtera (MO, IB), illautetik illautera (S), egun batetik bertzera (S), egunean baño ondoko egunean ohea (AM), gerokoa baino gerokoa aundiago, gaitzago ematen dio (O).

mementu BAKOITZEAN berri txarren bat entzuteko beldurrez \nearrow **beldur**. noiz baño noiz berri txarren bat a(d)ituko ote dugun bildurak (O), noizbaiten... (IP), noznahi berri txarraren entzun beldur niz (KA).

ur BALDE bat bota zion \nearrow **lur** (palakada): baldekada bat ur bota zion (MO, IB), burutik betti baldekada ur bota zion (G), ontzi bat ur (KA), pertza bat utz bota zion (utz = ur) (U).

utziko dizut otoa; bihar atzera **ekartzeko BALDINTZAN**, baina \nearrow **-tekotan**.

BALDINTZAZKO ESALDIAK. ADIBIDE

ZENBAIT. 1.1. hori egin, baleza, kontent nindukezün (LAR), hori egin baleza, kontent ninteke (KA), hori egin baleza ene adixkidea litake (KA), hori egin baleza, ene adixkidia lizate (AL, LAR), hori egin baleza, sosa egin ~ irabaz lezake (KA), Baldin bertzela eragin albaleza bekhatua, ezlema-ke munduan den plazerik ttipiena ere (AX 329). **1.2.** hil baladi, enezake lanik (KA), eror baladi, enuke lanik izanen (KA), eror baladi, enuke lanik (KA), hori jin baladi, belar horiek egin ginitzazke (KA), egun jin baladi, kontent nintake (KA), egün jin baladi, boztaria nintake (AL, LAR), orain jin baladi, aberats litake (KA), orai jin baladi, lan hori eginen nuke (KA), «üdan jin bale-
di, kontsola neinte ni» (Kanta), gertha bale-
ledi ere munduan zenbait presuna hain saindurik... non ezledin nehor ausart haren baithan mihirik ibentzera, ...egia izanen da... (AX 309). **2.1.** hori egiten balu, ene adixkidea litake (ITS, KA). **2.2.** bihar jiten balitz, egin genizake lan hori (KA), hori hiltzen balitz, ni ere hil nintake (KA), hiltzen balitz, enuke lanik (KA). **3.** hori egingo balu, nere laguna izango litzake (O, EL, MO, IB, IP, S), hori egingo balau, nire laguna izingo litike (IN), hori egingo balu, nere laguna izango zen. **4.1.** egun jin balitz, kontent izanen nintzen (KA), ...ningüke-

zün (LAR), egün jin balitz, boztariatuko nintzen (AL), ene adixkidea izan balitz, hori egingo zükian (AL, KA), nere laguna izan balitz, hori egingo zun (O, G), nira lagune izin balitz, ori ingoan (IN). **4.2.** hori egin balü, untsa zükezün (LAR). **5.1.** nere laguna izan bazen, ori eginen zun (S), nire lagune izin bazan, ori ingoan (IN). **5.2.** orduen ori in baoan, uin nire lagune izingo zan (IN), orduan ori egin bazun, orain nere laguna izango zan (O), ori egin bazun, orain lagunak izango giñake (O).

las condiciones del tiempo eran malas ■ **eguraldiaren BALDINTZAK** txarrak ziren: egualdi txarra zen (O, ID, EL).

BALIATU: 1. baliatu naiz horretaz. **2.** baliatu naiz horrekin. **3.** baliatu hori. **4.** baliatu zait hori (= lagundu dit).

1. liburu hortaz baliatzen gira (ITS), orretaz ez gera asko balio (O), goizeko freskoaz baliatu (LAN), zure ongi ez naiz gaizki baliatuko (ITS), hetaz gaizki baliatu da (ITS), hartaz baliatu dira laborariak (ITS), bere jakituriagaz baliau zen (IN), geure indarrez baliatzen gera (O), gorpuz-taz balia ahal zitekeienik (AX 19) (erabili), (ITS), orretzaz ondo baliatu naiz (O, G), okasioneaz balia (LAN) borondate onaz balia (LAN). **2.** amakin ederki baliatzen da ori, berak nai duena egiteko (S), orrekin ongi baliatu naiz (S, O), arekin ez gera balio (O), lagunikin baliatu gara gauza ori egiteko (S). **3.** ez dugu hitz hori baliatzen (KA) ~ erabiltzen (KA), zütian indar undarrak baliatüz (AL), besteren hontarzunak zütien behar baliaz (AL), baliatzen dügü egür hori (AL), gure indar guzia baliatzen dügü (AL), nork du baliatzen gehienik bide hori? (ITS), gauzak gaizki baliatzen ditu horrek (ITS), untsa balia ezazie zien denbora (AL, ITS), horrek bere indarrak untsa baliatzen ditu (KA). **4.** hura baliatu izan zait (LEIZ.) (= lagundu), untsa baliatu zazkiat (LAN) (= vous m'avez bien aidé), Nor baliatuko zaiku? (AX 218) (= lagundu), zeren ondotik ere, zure, pres-tutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza (AX 2) (= lagundu), untsa balia-

tu zitzaite! (AL) ~ zitadazüt (AL) (= lagundu).

horretarako teknika bazuetaz **BALIATZEN DA:** batzuez (KA) \nearrow **-taž**.

noraeezan geratu **zirelaz BALIATUZ**, alde egin zuen: noraeezan geratu zirela eta, alde egin zuen (GR), nora gan etzakiala (i)kusita... (AM), nora jon etzekiela ikusita... (G), ezmezean da (KA), nora ez jakinian dabil (IP), noraeezan dabil (IP), zer nahi duen ez daki (S), hor dabil, nora eztakiela dabil (O).

BALIO. Horrek ez du **BALIO** ~ \nearrow **abila** \nearrow **kosta**. **A.1.** orretarako **aña** ezta (O), ori mendirako joateko **aña** ba da (O), ori ere ba duk ortako **aña** ~ ainbeste (G), orretarako ez zala **laña** (O). **2.** orrek ba du aurrak engañatzeko **adurra** (O), **3.** gauza askotarako **balio** dau (IN), ortako besteta(r)ako ez debe balio (O), danerako (O, IN), beste deusentako ez dü balio (AL), beste deustako ez du **balio** (G, KA, S), bertzetako deustako ez düte balio (AM), edozein gauzatarako balio dau orrek (IN), edozertarako (O), eztau balio beste(r)ik ezetako be (IP), beste ezetarako (IN), orrek jateko besterik ez du balio (U), orrek balio du ori egiteko (O), leher balio du laneko (S), ortarakoxe bakarrik balio dabe (O), ortako balio du orrek (O, G), zernahitako balio du (KA, LAR), zertako edo hartako balio du (AM, G, O). **4.** hortako **doia** izanen ote zira? (ITS, KA). **5.** nahi dütianak oro **egiten** dütüzü (AL), zernahi tzarkeria egin lirazü (AL). **6.** ezta konseillu hartzeko **gai** (AX 201), horren egiteko **gai** da (LAN), zerbaitetako **gai** da (AX 265), hartako **gai** (AX 396), hunetako **gai**agorik (AX 7). **7.** ori lane egiteko **gauza** da (O, ID, G, IB). **8.** **ezertarako balio** ezteuela gelditu da (IN), iausteko balio ez dun bezala gelditu da (S), ezertarako ez dala gelditu da (O), deuseta-ko gauza ezteza geldidu da (G, AM). **9.** zerbaitetako **on** da (ITS, KA), hartako baizik ez dira on (ITS, KA), ezta on deusetako (ITS, KA, G, AM), zerbaitetako hun dira (LAN), ez dira ifernuko on (KA), horren egiteko on da Teexa (ITS), zernahi gaizetako ~ lanetako hun da (AL), orotako on

dira (LAN), eniz ebilteko hun (LAR), ezta zeruko erresumaren erdiesteko **gai** eta ez on (AX 303). **10.** oso **saltakorra** da (O). **11.** ez dü beste **zerbütürrik** (AL). **12.** zertako **dezu** hori? (ID, O, G), zertako da hori? (ID, O, G), zertarako da hori? (KA) / zendako egin duzu hori? (KA). **13.** hori egiteko **barrenik** ez du orrek (G, S), ori egiteko ez dio barruak egintzen (O), ori egiteko ezteu-ko barrurik (IN), ...adorerik (IN). **14.** Petra deusetako **ez da** (G, AM), jakin daien guztiak, guztirakoa dala euskerea (Peru Abar-ka), ezertako ez dala gelditu da (O), nora-naikoa da (EL, U). **B.** on izateak **balio** du (ITS, AL), merezi du ona izatea (O) \nearrow **mezezi**. on izatek merezi du (G), ona izateak balio du (KA), **D.** etxeak asko balio du \nearrow **kosta**. etxea oso garesti da (AM, O, G).

bidaiak 3.000 pezeta **BALIO** ditu ~ **biajesa-ria** 3.000 pezeta da (AM), mezasaria Nafarroan 300 pezeta da (AM), egon saririk ez balin badu, urririk uzten diote (ITS), kotxearen ibil-saria (S), piariaren sariak 300 libera balio du (KA), etorri saria eman beharko diogu (S), onak dira etxe saria artzeko (*Kresala*), ategin sari (AX), lan horiek egin sari 10 libera eman daut (KA), saldu saria ematen diete (S), apezari konju-ro saria eman diote (AM), egunsaria burko azpainen utzi zuten (S).

Gol honek ez du **BALIORIK** = *no tiene precio*. gol honek ez du balio (KA, G, IN).

BALIO / balore a. balio: prezioari dagokio. **b. balore:** ausartziari dagokio.

**Que valor tiene ese soldado* ■ zer balio duen soldadu horrek!: orrek daukan balorea (EL, G, AM, O, IP) (balorra) (IN).

*lapurrak balorezko gauzak ebatsi zituen: baliozko gauzak (G, EL, O, IB, KA), balio haundiko etxea da (KA), lan baliusa egin dü (AL), gaizarik baliusenak (AL), oroek badie beren baliua (AL).

*ez ditu begiesten balore klasikoak: balio klasikoak (ID, AZ, KA).

se valorará el conocimiento del inglés ■ ingeles hizkuntza **BALIOZTATUKO** da: ingelesez jakitea kontutan edukiko da (EL), inlesa jakiteak balio du (KA), ingelesez jakitea kontuan izango degu (O, IN), ontzat artu-

ko da (O, ID), aintzakotzat artuko da (ID, G).

BALITZ bezala ~ alegia ↗ **alegia** ↗ **ezean**. ez **BALITZ** ~ **ezean** ↗ **ezean**.

BANA ↗ **-na**. bakoitza-bana-banan-banaka ~ bederazka — bakarka — txandan ~ txandaka — aldizka (aldika). **1. BAKOITZA** zamari bederetan abiatu ziren (AL), talde bakoitzean irauztaile bat zegoen (irakasle) (S, O), grupo bakoitzak erakusle bana zuten (G, O), bakoitza bere sagarrareki jin da (AL), bakoitzak zortziña milla pezeta pagau zuen (O), bakoitzak berrogeina pezeta inguru (O), bakoitza bere etxen bizi izan zen (AL), ziren (KA). **2. egun bana** pezeta irabazten zuten (O, S, G, AM), «Lenbiziko agurra egingo genuan, bertso bana edo binan, eta gero, gaia jarrita, bi bitara eta banaka ere bai, bina edo iruna bertso bakoitzak» (Uzt.), irurak pisu banatan bizi dira (U, G, O), irurak mundu berezi banatan bizi dira (G, O), denak alde banatitikan etortzen dira (G, O), lau artzai bosna ardikin etorri ziren (U, O, G), denak sagar banakin etorri ziren (AM, G, O), denak sagar banarekin (O), talde bakoitzean eun bana lagun eseri ziran (O), aga luze bana eskuetan zutela etorri ziren (G, O), mando banatan joan ziren (AM, IN, G, O) (mando gainean) / mando banakin etorri ziran (bakoitzak berea zuela) (O, G), lagun bakoitza mando banatan joan ziren (S), biak enbor banatan jarri ziren (G, O). **3. banan banan** eskua eman didate (IN, G, O), banan banan etorri dira (IP, O, IN, IN) ~ banaka banaka (ID, G), banaz banazezan (IN). **4. banaka** banaka eskua (e)man zidaten (AM, S), ardiak banaka banaka sartu ditugu eskortan (O), banakako lau sagar (O), espetxeko patioan jendea banaka dabil (O). **5. musean bederazka** emaiten dira kartak (LAN), aldian bat (KA), bederazka eskia hunki ziezina (AL), launazka hurbiltzen ziren (LAN). **6. beti bakarka** dabil (G), bakartzalia da (O, ID), beti bakarrik dabil (O, ID, G), bertsolariei bakarkako gaia eman die; banaka kantatu dute (O), bakarka geratu giñan espetxeko kuartotan (O). **7. herri guzia** pasatzen zen **aldizka** (LAN, KA),

orrek aldizka egingo dizu kaso (O), ori aldizkakoa da kaso egiten (O), aldizka etortzen da (G) ~ noize(a)n bein (G), aldizke etortzen dire (egun bat, urrengoan bestea...) (IN), aldika egiten zaio liluria (S). **8. biak txandazka** juten dira (O), orrek txandaka etortzen dira (IP, G).

zortzi BANA mila pezeta eman nizkien: zortziña milla pezeta (O, G, S), duro bana eman nien (O, G, S), bosna pezeta (S, G, O), amabosna pezeta (G, O), bina duro, iruna duro, launa duro, bosna duro, ha maikana duro (O, G).

katilukada txokolate **BANA** hartu genuen: katilukada bana txokolate (O, IN).

pitxar ardo **BANA** edan zuten ↗ **botila**. pitxar bana ardo edan zuten (O), baso bana ardo (S, O, G), bi eskukin ~ bi eskutan botilla bana artu zun (G), duro bana eman zien (O), biña duro (O).

mila pezeta **BANA** eman zien: milla bana pezeta eman nien (O, ID, G, IN), emon eutsen (IP, IN), eun bana duro ordaindu genun osatu gabe (O, G), bakoitxari hamar libera (KA, LAR).

nork **BANANDU** ditu kartak? ↗ **kartak**.

horrek esan duen **BARBARIDADEA!**: orrek esan duen astokeria (S, AL, KA), astakeria (G, O).

BARKATU mahaian ez gelditzea: barkatu, ezin naiz gelditu (G, IP, KA), ezin ninyeke gelditu (IP), barkatu, eztaukat gelditzerik (O, EL), barkatu, ez tut gelditzerikan (G), barkatu, ezin dut gaur gelditu (S).

elkarri ez dute **BARKATZEN**: **1.** elgar barkatzen dute (ITS, S), algar parka ezazie (AL). **2.** oiek ez diote alkarri barkatzen (G, O, KA).

BARNA: **ADIBIDEAK** ↗ **gaindi**. **1.** mendian barna. **2.** mendia barna. **3.** menditik barna. **4. mendiaren** barna.

1. mendian barna joan zen (AM, G), mendi oietan barna (S). **2.** mendi gain oiek barna lekutu da (G), mendi aiek barna joan zen (G), an barna joan zen (G, AM, S), mendia barna fan giñan (U). **3.** menditik barna joan da (AM, G, S), andik barna joanen naiz (S, G, AM). **4.** mendi gainen barna gan zen (AM), mendien barna gan zen (AM).

astakeriak egitea gustatzen zitzaion, sarras-

kiak egite **BARNE**: hilketak ere bai (G, O), hiltzeak ere bai (KA), hilak ere bai (KA). edozein gizon **BARNE** bi indar dira: gizonaren barnian bi indar bada (AL), gizonen barruan (O), gizonen baitan bada bi eskualde (KA).

hirigunean **BARNETZEN** zara: hirigunean sartzen ari zara (GR), hirigunean barrena sartzen ari zara (GR), etxean barrena sartuta dago (G), etxe barruan dago (O), etxean barnean sartu da (KA), etxe barrura sartu da (IP).

BARRE eragin ↗ **egin**.

¡*Cómo nos reímos!* ■ nola **BARRE** egin genuen! **1.** ai(e)k parrak! (G), aiek gure parrak (G), an zien gure barriak! (IP), guk egiñ giñuzen parriak! (O), ezin noan euki neure barruen (IN), aiek ziran parriak egin giñuzena (O), ek irrik egin gintun (S), untsa erri eginarazi deiküzü (AL), parrerrak iñttu (G), irri ederrak egin genituen, beinpen (S, AM, KA), aik parrak egin genitun (G, O), ek irriek an gintuenak (AM), ek irrik egin genitun (S), barre onik egin dogu (IN), barre gure dana in gindun (IN), berealdiko parrak egin dituzte (G, ID), berebiziko parrak (G). **2.** ze nolako parrak egin ditugun (Arruazu), a zelango barreak in ginduzan (IN), zelako barre ederrak (Ondarroa), nolako barreak egin ditugun (O). **3.** a ze irrik egin ditugun (S), ze erriak egin ditügün (AL), zer karkazak egin gentüan (AL), ze parrak egin ditugun (G), ze barriek in gituen (IP), ze irri aseak egin ditugun (KA), ze irri aldea egin dugun (KA). **4.** badugu zonzabait irri eginik harekin (KA), zenbat barre egin dogun (EL, Ondarroa, O, Arruazu, Maruri). **5.** barrez ito (G, O), barrez leheritu (G, O), leher iteko irriz ari da (KA), harekin parrez lerrak egin genituen (O).

BARREA ezin aguantatu ↗ **aguantatu**.

BARREGARRIA emango dio: parregura emango dio (O, I, B, IP), parreguriek emoutso (IP), irriz hasi da (KA).

autobusaren **BARRENGO** batek oihu egin zidan: kotxe barrutik otsein zidan (O), otoaren barnetik oihu egin zeitan (AL, KA), kotxearen barrenetik (S, AM, G), kotxe barrutik deituzten (IP).

artean, barne, barnean, barrenean, **BARRU**, barruan, barrua, beranduago, buruan, buruko, burura, gabe, garrenean, geroago, mugan, -ra. **1.** egüen artean jin zen (AL). **2.** urte baten barne arat gain naiz (AM), zonzabait urte barne hil zen (LAN), urtea barne zendu zen (ITS). **3.** urte laburrik barnean ikusiko dugu (ITS), hamar urtheren barnian hil zen (LAN). **4.** zortzi egun barren etorriko da (G). **5.** ordu erdi baten barne(a)n luzeenaz etorriko naiz (G), ordu gutxi barrenen il zen Peru ere (G), lau egun barrenean (G). **6.** bi urtez barrendik il ziren (G). **7. barru** ↗ (baino) lehen: urte bate barru ara joango naiz (IN, O, IP, EL, ID), ordu laurden barru etorriko da (O), gaixotu eta egun bi barru il zen (IN, ID, O), bi illabete barru, gauza asko aldatuko dira (O), aste bete barru etorriko da (IN, O, IP), Ameriketara joan eta iru urte barru etorri zen (IN, IP, ID, O), ordu erdi bat barru etorriko da (O, IN), ordu erdi barru (IN, IP). **8.** aste barruan etorriko da (= aste honen barruan) (IN, O), urte bete barruan bukatu zen (IP, IN), bi urten barruan (O), ordu gutxiren barruan biak il ziran (O), ordu lauren barruan (IP). **9.** urte bete barrura joango naiz (O), gu etorri eta ordu laurden barrura etorri zan (O). **10.** ordu laurden beranduago (O, EL), ordu laurden bat beranduago (G, IN, O), ordu lauren beranduego (IN, IP), ordu kuarto bat beranduago (AM, S), ordu laurden batez beranduago (G). **11.** Hanbat urtheren buruan (AX 92), urtearen buruan (ITS), urte buruan etorri zen (AR, S), urte bat unburuen ~ urte unburuen (AM), urte baten burian jin zen (AL, S), urte batez jin zen (AL), urte baten burun akitu zen (S, AM, KA), eritu ta bi urteren buruan hil zen (ITS), hantik lau-bost urten burian nonbait (AL), lauzpabost (LAR), bi ilebete buruen (AM), bi ilauten burun etorriko naiz (S), lau asteren burun (U), egün zonzabaiten burian (AL), eritu eta bi egunen buruen gantzen (AM, ITS, S, KA), Badakizue bi egunen buruan Bazko egiten dela (LEIZ. Mat 26,2), eritu eta egüean burian hil zen (AL, ITS), egunaren buruan zer gertatzen den ikusiko

dugu (O), hiru ordu buruan mendi xuriak agertu ziren (ITS, S), oren erdi baten būrian jinen da (AL, AM, S), gū joan eta oren laurden baten būrian jin zen (AL), bi orenen burian kallatatu delarik... (LAN), hantik oren laurden baten būrian (AL, S), denbora puska baten burian (LAN), hantik bulta baten burian (LAN, KA), handik oren laurden buruan (KA), denbora poxi baten burian (LAN). **12.** aroa gozatu zen bi egunen buruko (ITS), hiru ilhabetaren buruko akhituak izanen dira (ITS), ehün bat urtheren buruko (AL), hemendik urte baten buruko (KA). **13.** urte baten burura etorri zen (G), urte beten burura etorri zen (G), iru urte(re)n burura etorri zen (G), lau aste(re)n burura etorri zen (G), gaizkitu ta bi egunen burura iltzen (G). **14.** bi urte gabetan irurak il ziren (G), denbora gabe sortu zen (AM), egin ezazu hori bihar gabe (ITS, S), gauerdia gabe jin zen (ITS), bost urte gabe jin zen (AL), bi hilabete joaiten zen edaten hasi gabe (LAN), batzarri egin deioe herrialdea heldü gabe (AL), biziki denbora joaiten zen sagarranoa edateko hun izan gabe (LAN), hamabost egün gabe jin zen (AL, S, AM). **15.** ordu betegarrenean etorri zen (IN), il de urteagarrenean (IN, O), urtebetegarrenean (O), aste betegarrenean (IN), zortzigarren egunean (IB, IN, O), bederaturrunean jinen da (LAN), ona etorri zan eta ordu betegarrengo aspertu zan (O). **16.** amabost egun geroago etorri zan (IP, IN, ID, O, G), urte bete geroago joan zen (IN, O), ordu laurden geroago (IN). **17.** bi urte baino lehen (IP, IN, IB). **18.** il zen urte mugen (AM, S), hil urte burua da (KA), ama hil zenetik urte mugan jin zen (KA). **19.** a. il zenetik urte betera etorri zen (G, O), andik lau urtera gutxi goitibeiti (S), handik lau urteren buruan jin zen (KA), emendik lau bat urtera (S, IN, G, AM, O), emendik bi illabetera gauza asko aldatuko dira (G), andik ordu laurden batera (O). b. ze ordutarako etorriko dala uste dezu? Iruretarako (O), ordu erdi batera edo inguru ortan etorriko da (G). d. gaixotu ta bi egunera il zan (O, ID, G).

*il eta urte beten mezak atera zituzten (G),

urtebeteko meza (O), urtebürü meza (AL), urteburuko meza (KA).

astebete **BARRU** etorri da: orain aste bete bat etorri zan (IP), orain zortzi egun etorri zan (O), orain aste bete etorri zen (IN, ID), die-la aste bat jina da (KA), orain dela lau aste etortzen (S).

*a. Ameriketara joan eta urte bi barru etorri zen (IN). b. urte bi geroago (IN, EL), bi urte geroago (ID, O, G). d. andik urte bire (IN, EL), andik bi urtera (ID, O, G). e. ...eta urtegarrenean, bigarren urtean etorri zen (IN). f. bi urteren buruan itzuli zen (KA).

berebil **BARRUAN** sartu gara ~ barrura (IN), automobillean (O), automobil barrura sartu gera (O), sartu kotxe barrenen (S), kotxe barnera sartu gara (AM), otoan barnean sartu gira (KA), automobillan barrenera (G), otoan barnen sartü gira (AL), kotxen barrenera sartu (O), zoaze oto barnialat (AL).

gaur etxe **BARRUAN** egoteko giroa da ~ ↗ giro ↗ (lan) eguraldi. **1.** barreneko giroa da (G), barruan egoteko sasoi da (IN), barru giro da (O), barrenean egoteko aro ederra dago (S), barrendik begira egoteko giroa (G), ez da aro kanpoko (LAN), etxen egoiteko aro hobea dugu egun (KA) / kanpoan ibiltzeko (S), sutondorako moduko denbora (IN), su ondun egoteko modoko denbora (S), sukalde giro da gaur (O), lan giro txarra dago (O), etxegune dao gaur (IN), etxegiro da gaur (O), sukalderako giro ohea da gaur (G), etxen egoteko denbora ederra (S), etxeko aro hobea da kanpoko baina (KA), etxean egoteko aro ederra dago (S), etxeko aro hobea da (KA). **2.** gaur kale giro da (O), mendi giro da (O), mendirako sasoi ona dago (IN), bide giro da (S).

bilera hau ordena baten **BARRUAN** eraman behar dugu: bilera au bere modun egin bear degu (O, ID), billera au ordenian egin bear degu (EL), billera au bere ordenan egin bear degu (O), zuzentasunean (IP), biltzarre hau ordrean egin behar dugu (KA), patxaraz (IN, EL), gauzak zuzen egin (G).

bere **BARRUETARAKO** esan zuen *para sus*

adentros: **1.** neure artean esan noan (IP, O, EL, ID), bere artean (G, IN, ID, U, EL), neure artean iten noan (IN). **2.** nere baitan pentsatu nuen (AM, G), egin nuen ene baitan (ITS, LAN, KAS), bere baiten erran zuen (S, AM), zion bere beithan (AL, LAN, ITS, G), onena nork bere baitan galdetza (G). **3.** neure barruen (IN). **4.** Laidak onela zion berekiko (O), nerekiko esan nuen (O). **5.** jartzen da bere buruarekin go-goetan (AX), Maulerat joan behar niala ene būriareki igaraiten nian (AL), onela zion bere burua(re)kiko (O), neure buruen pentsatu nuen (IP), egin nuen ene buruan (KA), nere burutik pentsatu nun (S), bere buruarekin erraiten du (S), kasu hortan hoberena da bakoitzak bere buruari galdetza (KA), bere buruarekin egin zuen (KA), nere burutik egin nun (S), nire buruari egin nion (AM), nire buruarekin egin nuen (AM), bere buruari eman zion behar zituela galarazi (KA). **6.** neure kauten (IP), bere kauten pentzau oan (IN). **7.** zerbait gerthattü dela nihaurtan igaraiten düt (AL), nitan ~ nihaurtan pentsatü nian (AL).

kaxoia zabaldu eta **BARRUKOA** aztertu zuen: kaxoia zabaldu eta barrungoa aztertu zuen (G), nik falta nuena kajonean barrendik zegoen (U), ...kajoiaren ondoan zegoen (G), kajona(re)n zol-zoli(a)n zagon (S), kajoi ireki eta barruan zegoena miatu nun (O, EL), tiruarraren zolan kafar (= labexomorroa) ikusi zuen (KA).

aireportuaren **BARRUKOA** ez zaio gustatzen: etxe barrena ez zio gustatzen (G), barnea ez... (KA), etxe barrua ez zaio gustatzen (O), aeroportu barrua (O), kanpotik bai eta barnetik ez (KA).

etxe hori **BARRUTIK** ederra da ~ etxe orrek barrenak ederrak dauzki (G), etxe orrek barrunbe ederra du (O), ...barnea ederra du (AM), barrenetik zeinen ederra den (S), barnetik ederra da (KA), etxe ori barrendi oso ederki preparatua dago (U).

BART ongi lo egin nuen: bart ongi lo egin dut (G, O).

BARTEKO edanak kalte egin zion ↗ **aditza** dia. **1.** bezperako gauan edandakoak kalte egin zion (O, G, ID). **2.** barteko afariak

kalte egin dit (O, ID, G), bartekoa oroitzekoan barre egin det (O, ID, G), bardako auhariak kalte egin daut (KA).

BARURTU dugu ~ gara: baru egin dugu (AM, S, G), barau egin dugu (O), baldin barurtu bagara (AX 109, LAN), barur egin dugu (KA, LAR).

Aitxola Zarreko **BASERRIAN** egon nintzen ↗ **herri**. Aitxola Zarra basarrian egon nintzen (AZ).

Bereiz: **1.** ardo **BASO** bat: ardorik gabe, ontzia. **2.** baso bat ardo: basoan ardo da.

*sintagma zuzena: ardo edan. Zenbat edan den ezarri aurrean.

***UR BASO BAT EDAN ZUEN** (gaizki): baso bat arno (ITS, G, O, U, KA), baso bat bete ardo (O), baso bana ardo edatera joan ziren (O, G), amar arroa ardo edan ziren gurean (G, O), amar litro ardo edan dute (IN, G, O), prefosta butilla ardu xuri edan zien (AL), phitxer bat ardu (AL), ekarraztu pinta bat arno xuri (ITS), baso bat ur edan zuen (AZ, ID, EL, MO, IP, U), beira bat ur (AX 264), baso bat ardo edan zuen (AM, MO, AR, IP), baso bat patxaran edan zuen (S).

***erdi basoa** edana dago: baso-erdi edanda dago (G, S, U), baso erdi bat edanda dago (O), baso erdi bat ur edan zuen (AM, KA), baso erditxo bat ardo edan du (O).

***whisky basoaren** erdi edan du: baso erdi bat whisky edan du (G, O, IP, KA).

*baso bat **uretik kolakao** edan zuen: udan basoan kolakao eman zion (O, ID, G), uren basoan kolakao emon eutson (IP, IN), ureko basoan kamomila eman zakon (KA).

***ur basokada** batetik pixkat eman zion haurrari: basokada bat uretik pixkat eman zion (O, EL, G), bere basotik ur txorta eman zakon (KA).

se ahoga en un vaso de agua ■ ur **BASO** batean itotzen da ↗ **titarakada**.

siete de bastos ■ **BASTO** zazpia ↗ **kartak**.

BAT = inguru:

*hamabost bat euskaldunak baziren han hilak: amabost bat euskaldun baziran an ila (O, ID, G).

*hamar lagun bat baziren han: bizpahiru

lagun (KA, S), bi-iru lagun (IN), bizpalau (LAR), hiruzpalau lagun (GR), hiru-lau lagun (IN), lauzpahiru (LAR), lauzpabost adixkide (LAR), lau-bost lagun (IN), bospasei lagun (KA), bost-sei lagun (IN), seizazpi lagun (IN), zortzi bat lagun (O, IP, IN), amar bat lagun bazauden, emakume ta gizon (S, O, AM, G, ITS, ID), emakume ta gizaseme, amar bat inguru etorri ziren (G), amarren bat lagun izango ziran (O, ID, IP), hoge lagun inguru (O, ID, IN), 60 bat urte (ITS, IN, ID, O), milla bat lagun (G, IP, IN, O, AL), milla bat pare praka dauzka (O) milla pare bat praka (O, ID), milla bat lagun inguru (O, KA), milla inguru lagun (IP), bi milla lagun inguru (O), bi milla bat lagun (IP, IN, KA), hiru bat milla lagun (ID, O), bi milla inguru lagun (IP), hiru milla bat lagun (IP, IN), sei bat milla lagun (ID, O, KA, S, IN), bost bat milla jende bazen (S), 25 bat milla lagun (IP, IN, O, ID), 25.000 inguru lagun (IP, G), 25.000 lagun inguru (IN, O), bost milla lagun inguruk lan egin zuten (O, IN).

BAT, BATZUK: euskaraz sarrien egiten den hutsa. Gazteleraz *un, uno, una*: a. zenbakia. b. artikulu mugatugabea. Euskaraz *bat* ia beti zenbaki da.

*Aholkuak: 1. ken *bat*, eta esaldia goxo gelditu dela baderitzozu, ez ezar. 2. *Bat*-en orde *bakar* ipini ba daiteke, ez ken. 3. Galderetan partitiboa erabili. 4. Ezezko perpausetan partitiboa erabili.

*ADIBIDEAK: ardia erostera noa (O), beia erostera noa (O), iru ardi galdu eta oraintxe bat aurkitu det (O), arrigarria emen ardia ibiltzea, inguru auetan zerriak bakarrik ibiltzen bait dira (G), arrigarria ardi bat emen egotea (bakarra), ia beti asko izaten bait dira (G), ardirik ikusi al dezu? (O), emen ez da ardirik (G), ardi bat erotekotan nago; gehiagorik ez (O).

A: BAT

***adats beltz bat** du: ille beltza du (EG, G, O), biloa beltza du (KA).

***zergatik horrelako adierazpen bat** eskatu ez?: zergatik orrelako adierazpenik eskatu ez? (EG, AZ).

***zer nahi duzu? Ardo bat:** ardoa (EG, ID),

ardo xorta bat (AM, ITS, KA), baso bat ardo (O), baso erdi bat ardo atera (G).

***astinalde gogor bat** eman nahi dio: astinaldi gogorra eman diote (EG, ID), zafraldi (KA).

***atsegin handi bat** hartu dut: atsegin aundia artu dot (IB, G, ID), plazer haundia ukan dut zure ikusteaz (KA).

***euskal giro bat** gordetzeko aukera bat da hori: euskal giroa gordetzeko aukera da ori (AZ, ID).

***harengan babes bat** bilatu nahi balu bezala: babes bat bilatu nai luke (EG), babes billa dabil (O), ardi horiek aterbeketa ari dira (KA).

***bazkari** hobeago bat ipini zuen: bazkari ohea jarri zuen (O), bazkari obexia paratu zuen (S, KA), bazkari ohea ifini oan (IN), bazkari ohea prestatu zuen (AM).

***zu bigun bat** zara: zu bigunegia zera (U, O, EG), aita honek sobera legunkeria du bere haurrekin (KA).

***bizitze metodiko bat** eramatera ohitua: b. metodikoa eramaten oituta (EG), bizi ordenatia du horrek (KA).

***ez darama bizitza on bat:** ez darama bizitza onik (G), ez damaki bizitza onik (O), bizimodu ona daroa orrek (IN), eztaoa bizitze ona (IN), ezta bizi onik eramaten (S), ezta bizi onik joan (KA).

***agintariei euskararen aldeko borondate politiko bat** eskatu: borondate ona dauka orrek (IB, EL) (badu) (KA).

***demokrazia batean** bizi gara: demokrazian bizi gara (ID, AM, KA).

***denbora pasa bat** izan da: denbora pasa dabilla (G, O), denbora pasa joan da (O, G, KA).

***hori ez da edozein bat:** ori ez da edozein (IN, G, O), ez pentsa hori gizon ezdeus bat dela (= denik) (KA).

***eguraldi on bat** egiten du: eguraldi ona da (G, O, IB), aro ona dugu (KA).

***entzulego tinko bat** dauka Loiolako irratia \nearrow **audientzia**. betiko entzuleak (O, G, ID), entzulego tinkoa (GR), entzule berak ditu (KA).

***erantzun zehatz bat** eman gabe: erantzun zehatzik eman gabe (GR), erantzun segu-

rurik eman gabe (O, G), ez zuen arrapostu xuxenik eman (KA), ez du arrazoi garbiri-kan eman (S).

***ez dago estilo garai bat:** ez dago estilo garairik (GR), ez dago txakur txarrik (AZ, MO, IB, KA).

***gezurti bat** zara: gezurtia zara (O, IN), gezurtaria zira (KA).

***Gipuzkoa ederrago baten** alde: Gipuzkoa edertzearen alde ari dira (O, KA), Gipuzkoa ederragoa egitearen alde (O), Gipuzkoa ederragoaren alde (O), Gipuzkoa edertu nai genuke (O, G).

***gogo izugarri bat** sumatu nuen: gogo aundia daukat (MO, IB, ID, O), emeia handia dut (KA).

***haize zakar bat** dabil \nearrow **haize**.

***hasiera batetan** denak ziren onak: asieran denak ziren onak (G), (asieran) (ID, Errezil), hastapenean (KA), asmentan (S), has-tean (AX), lehenbizian (AX).

***Itsasne, haur bat** zela, zein polit zen!: umia zala (IB, MO, EL), aurtzarroan (G), haur-rean (KA), umetan (O, ID), hori haurtan mutiko ona zen (S).

***aberri eguna herri oso baten** jaia da: ...he-rri osoaren jaia da (O, ID, G)

***hotz handi bat** da: hotz handia da (AM, KA), otz aundia do (G, O, ID).

***umiltasun handi batekin** esan zuen: umiltasun aundiz (GR), umiltasun aundikin (O, ID). haundirekin aitortu zuen (KA).

***idazle izatea beti hobby bat** izan da: idaztea beti hobby izan da (GR), horrentzat idaztea denbora pasagarria da (O), ...idaztea jolasa da (O), denbora pasatzea da (KA).

***eguzki eder bat** agertu da: eguzki ederra azaldu da (G, O), (agertu) (KA).

***ez diogu inoiz irribarre bat** aurpegian ikusi: ez diogu irribarrerik ikusi (GR), ez du parrerik egiten (O), ez zaio parra murriztik ateratzen, ikusten (G), gizon horrek irria kario du (KA).

***Pelloc gaur jertsei bat** jantzi du; atzo bi / Pelloc jertsia jantzi du (G, O).

***kafe bat** nahi al duzu?: kaferik nai al duzu? (AM, S), kafia nai al dezu? (O, KA), gustu duzu kafe pitta, xorta bat? (KA).

***kafesne bat** ez zuen nahi: ez dute kafesne-rikan nai (G, O, KA).

***tipo hark nabala bat** zeukan eskuan: morroi hark nabala zeukan eskuan (GR), ganibetia zeukan eskuan (O), ganita du eskuan (KA).

***min izugarri bat** sumatu nuen neure buruan: min izugarria sumatu nuen buruan (G), min aundia daukat buruan (EG, EL, O), min handia senditzen dut buruan (KA).

***Ablitasen egun oso bat** eman zuen: Ablitasen egun osoa irago zuen (G, O, KA), egun osoa eman (IP).

***lehen partida irabazi ondoren, bigarren batean** zer gertatuko ote da?: ... bigarre-nean zer gertatuko ote da? (O, KA), lenbi-zikoa irabazi dugu; bigarre(a)n zer inen dugun ezta kigu (G, O).

***pena bat** izan da \nearrow **pena**. penea izan de (IN), pena aundia da! (G, O), damu izan da (KA).

***ez du inoiz poz bat:** ez du pozik inoiz (EL, G), gaizo gizona, sekulan ez du bozkariorik ukan (KA).

***egun eman duen prentsaurreko batetan...** (bat baino gehiago eman badu): prentsaurrean (GR).

***salda bero bat** hartu zuten: salda beroa hartu (AL, G, AM, O, KA), salda bero hartu (AL), salda bana artu zuten (G), saldea artu (IN), salda beroa ingotzut (IN).

***seriotasun komiko batekin** begiratu dio: seriotasun komikoz (GR), seriotasun komikorekin (GR).

***orain, entzuleok, trikitixa bat** jarriko dugu: ...trikitixa ipiniko dugu (EL, O, IN).

B. BATZUK:

***badira gauza batzuk** begirunez ez ezik, beldurrez ere erabili behar direnak: badira begirunez ez ezik, beldurrez ere erabili behar diren gauzak (O), errespetoz ez eze... (IN), errespetu ezik, maitasuna ere bai (G), ez du bakarrik errespetua, bainan maitasuna ere badu (KA).

***alper batzuk** dira: alperrak dira (EG, MO), auherrak dira (KA), alper galantak dira (IB, EL, G, O).

***erosketa batzuk** egitera doa: zerbait erostera goaz (O, G, KA), gauza batzuk erosten noa (IN).

*euskaldunok ez ete daroagu, gero, **bihotz** bigun samur **bat** eta ez ete gara erromantiku **negarti batzuk?**: bioz onekoa da (G, O, KA), biotz ona du (G), ez ote dira lapur galantak? (O).

***ezpain** ubel **batzuekin** agertu ziren: otzakin, ezpainak uel uel eginak zeuzkaten (G, O), (uelduak ditu) (KA), kolore uel uelak zeuzkan (O).

*nagusiak **petral batzuk** ziren: nagusiak petralak ziren (O), nagusia bortitza da (KA), nagusiak petral utsak ziren (G, O).

*batzuen izenak bakarrik aipatu zituen (IN) ~ izen batzuk bakarrik aitatu zituen (O, G), olako ta olako aitatu zitun, danak ez aitatzeari (ga)tik (O), bakarrik izen zontzei aipatu ditu (KA), batzuk bakarrik (S).

*ezin gaitezke ijito **batzuen** eran sar: ezin gera ijituen modura sartu (G), ijituen antzera sartu ziren (F), motxallak bezela sartu ziran (EL), buhameak bezala ibiltzen da (KA).

txakur **BAT** edo besterekin etorriko da (KA), zakur batekin edo bestekin (G), batekin da bestiakin ibiltzen da (O).

BAT batean hartu nauzu ~ uste gabean (e)-torri zen (AM, KA), uste gabetarik ~ gabe hartu nauzu (AL), ustekabea (G, O, U), au ustekabea! (S, G), tipis tapastea partitu da (KA), bape uste barik etorri da (IP), ustegabeko gauza gertatu da (O, AL, G), ustekabezko gauza (S), ustebako erabakia (IP).

Viva el primero de mayo ■ Gora Maiatzak **BATA** / **lehenbiziko**. Gora maiatzaren aurreneko eguna (G), lehen eguna (KA), maiatz lehenean jin nintzan (LAR), lenengo eguna (O, IN), maiatzan lehenbiziko eguna (S).

inmediatamente dieron batalla ■ berehala **BATAILA eman** zuten: borrokari ekin zioten (O), borrokan asi ziren (G, O, KA), joka ~ jokan hasi ziren (KA).

nos veremos en el campo de batalla ■ **BATAILA zelaian** ikusiko dugu elkar: borroka lekuan (borroka maiz egiten den tokia) (IN, O, IP), borroka egin zuten tokia ~ lekua (O, KA).

a. ordu **BATEAN** b. ordu batez / ordu.

handik ordu laurden **BATEZ** etorri zen, ...ordu laurden bat / ordu (barru). izurde **BATENBAT** izango zen: izurderen bat izango zen (G, O).

-**AREKIN BATERA** ~ -**AREKIN BATEAN** / **ELKARREKIN** / **elkarrekin**. amaikin batean (e)-torri zen (AM, KA, S), amareki batera fan nitzen (U, O), amarekin batera fuen zan (IP), amagaz batera joan zan (IN).

teoriaz **BATERA** ekintza ere behar da: teoriarekin batera ekintza ere behar da (O, ID), ogiarekin batean erreximeta jan zuen (KA), amagaz batera etorri zen alabea (IN).

Ez dugu euskaldun herririk nahi, **BATERA** askatua ere izaten ez bada: askatua ez den Euskalerririk ez dugu nahi (O, ID), libro ez den Euskal Herririk ez dugu nahi (KA).

a. **BATETAN** ~ baten / b. batean.

a. etxe batetan bizi zen (AL), etxe baten bizi zen (IN), etxe baten bizi zan (IP), baten etorri zen gizon bat eta... (IN), bein baten (IN). b. etxe batean ama bizi da; bestean alaba (IN), kaleko etzean bizi da (IN).

BAZKALDU dugu ~ gara / **gosaldu**.

BAZKARI aurretik otoitz egiten dugu geure etxean: 1. bazkal aintzinean (AM, S), bazkaldu aitzin (KA), bazkal aitzinetik (AL), bazkal aurretik (AZ, U, EG, IN, G, I, IP). 2. bazkal erdian (O, G), bazkaldu erdian (IN), bazkaltzen ari ginelarik etortzen (S, AM), bazkariaren erdian heldu nüzü (AL), bazkaritan ari ginela... (AL). 3. bazkal ostean (IN, EL, IP), bazkaldu eta otoitza... (KA), bazkal ondoan (O, AL, S), bazkal ondoren (G), bazkal ondorian (U), bazkal ürhentzian (AL), bazkaritik landa (AL).

ya está la comida ■ **badago BAZKARIA** / **gertu**. bazkaria preparatua dago (O), pronto dago (G, O), prest dago (IN, S), prest da (KA), eginda dao (EL).

BAZKARIAN hitzegingo dugu / **gosarian**. *los hombres se alimentarán de frutas* ■ **fruituetatik BAZKATUKO** dira gizonak: frutekin biziko dira gizonak (O), zakurrak ezurrekin bazkatzen ditugu (S, G), ezurrak ematen tiogu zakurrari (S, G), egunero bazkatzen dugu zakurra (AM), egunero ematen diogu bazka (AM), bota ezurrek

zakurrei (AM), fruitarekin bakarrik bizi da (KA), esniekin bakarrik bizi da (IP), (esneagaz) (IN, ID), fruta utsarekin bizi da (O), ori fruitia besterik jan gabe bizi da (O), ez du fruita baizik jaten (KA).

Baztan-eko baserritarrak erreka **BAZTERREAN** barrena zihoazen: Baztango baserritarrak erreka bazterrez bazter gan ziren (AM), ubelde baztarretik fan giñen (U), erreka bazterretik (KA), erreka bazter erreka bazter (G), erreka baztarrik erreka baztar (O, ID), erreka ondolik (G, O), an joan ziran erreka baztarretik erreka baztar (O, ID), erreka bazterraz zoaien (S), uhalde bazter bazter(re)tik doazi (S), erreka bazterrez (G), erreka bazterraz bazter joan ziren (S), errekan barna (G), errekan bazterrik bazter joan zen (IN), erreka erreka (G), erreka zuloz joan ginen (G), erreka bazterretik (G, O), errekan erdi erdi zoaien (S).

BEGI ireki-itxi batean egin zuen: nik begiak etsi ta ireki, tartean (S, AM), begi herts-ideki baten bitartean (AX 132), begi itxi-iriki bat (O, G), begi erts-ireki (LEIZ.).

Aintzane **BEGI** onetik sartu zitzaion irakasleari / (ongi) **begiratua**.

Amelia **BEGI** txarrekin ikusten zuten / **pakete** (diote).

¡No le pierdas ojo! ■ ez galdu horri **BEGIA!** / **kontua** (horrekin).

BEGIETSI: **ADIBIDEAK** / **etsi**. gauza itsusien... begi-esteaz (AX 377), nor ere begi-esten baitu emazterik, hura guthizia dezentzat (LEIZ. Math 5,28), nausia menekoen begi-esten dabila (LAN).

BEGIRA: *huts asko egiten dira aditz honekin*.

a. 1. **Olatzi** begiratu = so egin. 2. entzun. b. **Olatz** begiratu = babestu, zaindu, gorde (aktibo eta erreflexibo). d. **-ra** begiratu = zerura begiratu zuen = so egin. e. Zeren begira zaude? (AX 130) = zeren zain, zeren esperon zaude?

a. 1. Nekaneri begiratu nion eta oso zurbil zegoen (G), Aitorrek begiratu egin zion Amaiari (ID), amari begitu neutsen (IN). 2. jende guzia ertzotzen da Xiberoko Botzari begira (LAR) / **beha**. Xiberoko Botzak badu behazale hanitx (LAR). b. Zelietako

erregiña, begira gitzatzü ehaileen esküpetik (AL), begira dezagün amodiua (AL). euskarak begiraturen du Euskal Herria (LAN), bere izena ongi beirutzen du (ITS), ona usteletik begiraten du (ITS), amak doi doia begiraten dü herria (AL), begiratü aitamek ützi deiküien mintzajia (AL), mintzaira behar da begiratu (LAN), lehenagoko dantza zaharra begira bei (AL), eritasunetik begiratu (AX 44), bekhatu egitetik begiratu (AX 328), haren egitetik behar duzu begiratu (AX 83), igandea begiraten nuen untsa (LAN, AL), Jainko ona, begira nezazu (ITS), Jainkoak begira gitzala, holakorik egitetik (AL, ITS), begira gaitzazu, Jauna, gaitz guziatarik (LAN), Horiak guziak begiratu zitiat neure gaztetasunetik (LEIZ. Mat 19,20), Bere bizia begiraturen duenak, galduren du hura (LEIZ. Mat 10,39), begira zaitezte abariziatik (LEIZ. Luk 12,15), alferkeriatik begira zaitez (AX 250), begira zaitezte Phariseuen altxagarritik (LEIZ. Luk 12,1), erortzetik begira zaitza (AX 211), begirauzeu nehork eztakian (LEIZ. Mat 9,30). d. arpegira begiratu nion gizon hari (O), zerura begiratu noan (IN), «Ama, begira zazu, leihotik plazara». e. denbora onaren begira gaude (ITS, LAN, AL, LAR), promettatu izan zaien delibrantzaren begira (LEIZ.), bizitze eternalaren eta sekulakoaren begira (LEIZ.), resuma-ren begira zegoena (LEIZ. Mark 15,43), Zeren begira zaude? Zahartzearen? (AX 130), redepzionearen begira Ierusalemen zeuden guziei (LEIZ. Luk 2,38).

elkar BEGIRA daude: elkarri begira daude (AM, G, EL, IB, AZ), alkarri begiraten zioten (U).

BEGIRADA bat bota zion Itziarri / (begirada) **bota**.

zerua BEGIRATU dut: zerura (U, EL, IB, EG), zeruruntz (EL), zeru aldera begiratu (O, S), zeruari buruz begiratu (LAN).

Matxalen herrian ongi **BEGIRATUTA** dago / **pakete** (diote): errian ondo ikusita dago (O, U, IP), ondo ikusie da (IN, S, G), untsa ikusirik da (AL), ongi ikusia (G), jende guziek ongi ikusten zuten (AM, O), ongi ikusia dago (S, G, O), gizon ori danak ondo

ikusita dago (O), irakasleak begi onetik ikusten du (O), begi onez ikusten du (O, AZ, AM), begi onekin ikusten du (G), oso kutun du irakasleak (ID).

ese mira por su padre ■ horrek bere aitagatik **BEGIRATZEN** du / -taz (arduratu).

ordularia **BEGIRATZEN** zuen: relojuari begitu diot (S, G, U).

BEHA(TU): 1. zerbaiten beha egon = zain egon, haiduru egon, itxoiten egon. 2. zerbaiti behatu = a. zerbaiti begiratu. b. entzun, obeditu. 3. zerbait behatu = arretaz entzun (= écouter) / entzun (= entendre). 4. zerbaitera behatu; -ra begiratu.

1. zure beha nindagon (ITS), egonen gira beha heian kopa bat edo bertzen ekarriko dakutenetz (ITS), gure beha daude xaharrrak (ITS), abisatu lehen bai lehen azken astearen beha egon gabe (ITS), otoaren beha gira (KA), hemen egonen gira beha (ITS), gure penitentziaren eta konbertitzearen beha baitaude (AX 356), hemen nago haren beha (ITS), kotxera haren beha zen (LAN). 2. a. partida bat edo besteri beha egon gira (ITS), amak semari behatu zion (ITS, KA), amak behatu zautan (ITS), irabazari behatzen dioenarentzat (AX 318), Misericordiaren eztitasunari behatzen diozun bezala, behatu behar diozu iustiziaren garratzasunari ere (AX 90), harritua behatu zion lagunari (ITS), beha niri! (ITS). b. zaharren arteko solazer behatu (AL), haien botz ederrari behatzera joan gira (AL, KA), loria da horri beha egoitea ihiziaz solas duelarik (LAN), beha ziteie haren erranari (AL) / mesfida haren erranari (AL), lankoa ezagutzen duena, guri behatzen zaiku (= Qui novit Deum, audit nos) (LEIZ. Ioan Ep 4,6), mundua haie behatzen zaie = mundus eos audit (LEIZ. Ioan I,4,5), bortxatzen gütü bata bestiarri behatzerat (AL). 3. beha! (entzun arretaz) (LAN, KA), beharriak ernaturik beha (AX 27), jentia behatzez (AL), behatüko ditügü Ziberoako berriak (AL), mintzaldia oroek behatü die amiatürrik (AL), beha ezak! (entzun arretaz!) (AL), Jauna, beha ezazü one otoitzia (AL), oro jin zeitzo behatzera (AL), Xiberoko Botzak badu behazale ha-

nitx (LAR). 4. behatzen du hartako borondata (AX 106), beha hunat! (ITS), zerura beha dago (ITS, KA).

BEHAR: *aditz iragangaitzekin bera ere iragangaitz liteke. Badira horren antzeko kasuak*: etorri egin naiz (G, O, IN, EL, AZ, ID), sartzen ahal naiz (AL, LAN, ITS, AM, S), ezin gara joan (AL, IN O, EL), joan nahi naiz (AL, ITS, LAN), joan behar naiz (EL).

BEHAR: joan behar naiz ~ joan behar dut: etxe orretan sartu bear naiz (EL), joan behar naiz (ITS), etxe orretan sartu bear dut kotxea (EL), etxean sartu biot ~ sartu behar naiz (IN), sartu bear dut (G, AM), Etxarrira fan biot (U), baratzera fan bear naiz (U), joan bear dut (S, G, KA), joan bearra naiz (S), freskatu behar naiz (ITS), bertze moldez ari behar gare (ITS), berriz joan behar dügü (AL), joan biot (IN), etorri beozu (IN), nekhatua behar zare izan (ITS), lekhu guzietan ongi bizi behar naiz (ITS), penatu behar zara eta anhitzetan ere deus ezin eginez gelditu behar zara (AX 220), penatu behar baikara (AX 360), adiskidetu behar zarete (AX 214), ezkara heken kontra haserretu behar (AX 202), ez düzü zure büriari kontra kexatu behar (AL), ez düzü gaiztü behar (AL), zure buruaren kontra haserretu behar zara (AX), bethiere fedean probetxatu eta abantzatu behar gara (LEIZ. Hamar Mar), Orhe berri egin behar gara (LEIZ. Hitz eta Mintzatz), dioskunean ezen berriz sorthu behar garela (LEIZ. Otho), Othoizten zaituztegu... nola ebili behar zareten (LEIZ. Kol 4,1), ezagut erazi iezaguk ebili behar garen bidea (LEIZ. Heus Her).

gizon batzuk izan **BEHAR** dute (O), (zalan-tzan) / **probablemente**: gizon batzuk dira (seguru) (O, G, S), gizon zombait lütükezü (AL), ~ litake (zalan-tzan) (AL), adixkidia dükezü = *puede que sea* (LAR), poliziak dira, nonbait (ID, IB), behar bada gure lagunak dira (KA), ama ditake berdin (KA), ama izan litake (KA), jendarmak ditazke (KA).

hori adierazteko ez duzu hitz asko esan **BEHAR** ~ gauza ori adizitzeko ez duzu itz

asko in bearrik (G, O), ez duzu solas aunitz egin bearrik (AM, S), hori erraiteko ez duzu ele ainitz erraite beharrik (KA).

BEHARBADA, egon daiteke han / orainez gero.

banekien hau gertatu **BEHARKO zela**: / (nork) **pentsa**: banakian au suer(ta)tu bear zuela (S), gertatu bear zuela (AM, G, O), au gertatuko zela (O), banekixen au pasauko zana (IP, IN), jakiña zegoen zer gertatuko zen (O), jakine zan zer pasauko zen (IN), jakiña zeuan ori gertauro zala (O, ID), banakien ~ pentsu nuen hori bera gertatuko zela (KA), ikusia zegoen zer gertatu behar zuen (O), banakion zer tokatu bear zun (G), bistan zon zer gertatu bear zun (G), hori ikusia zagon zertso izain zen (S), ori jakiñekoa zan zer gertauro zan hor (O), bistan zagon zer pasatuko zen (S, IN), ...zer pasatu zitaken oiken artakan (S).

ez zait ategin lau ormen artean ordu luzeak **igaro BEHARRA**: igarotzea (G, O, EL, ID), ez zait gustatzen etxean barnean egoitea (KA).

hemendik joan **BEHARREAN**, hortik joango zara ~ emendik barik, hortik joango zara (IP), hortik joaiteko orde, beste bidetik joanen gira (KA).

BEHARRIK / **esker**, eskerrak: A. beharrik ama! (AR), amari eskerrak! (IN). B. 1. beharrik ama etorri **da** = *gracias a que ha venido la madre* (S, AM), beharrik ama jin düzü (AL), beharrik etorri zara (AM), beharrik egin dizkiat lehenago lanak (AR), beharrik ez gira atzerrian (LAN), beharrik ez dugu egin (S, AM), beharrik ez da emen ama (KA), beharrik bonbarik etzen (ITS), beharrik izialdura haboro izan da makhur baino (LAN). B. 2. beharrik ama **jin baita** (LAN), beharrik ez baita lan handia (ITS), beharrik ama egiten baititu lanak (LAN), beharrik ez baita ainitz behar, lan onaren egiteko (ITS), beharrik ene hortan tinki egon bainiz (ITS), beharrik anderea oroitu baita (ITS). D. beharrik Don Basilio, bakean gaude errian (S, AL), ama beharrik, semea etor da (S), beharrik ama, semea ez da erori (S). E. beharrik ama urbillin zen,

ezta erori (S), beharrik ama han zen, bertzela semea eroriko zen (KA).

BEHATU / **beha**.

las casas eran bajas ■ egoitzak **BEHE** ziren: ttikiak ziren (AM, IN, AZ), etxeak apalak dira (LAN KA).

Munia era gruesa, pero baja ■ Munia lodia zen, baina **BEHEA**: baina motxa (G), mozkote (O, IP), moztaka (ID, G), motza da baña lodia (U, AM), laburra ~ motza (S), lodikotea zen (O), potzolo (KA), zeporrore (motza ta zabala) (O), marimortzil (emakumea) (O).

gonaren BEHEALDEA zikina zeukan: gona barrena (IN, O), gonan barreneko alde (G), kota hegala (AL), gonegala (S, G, AM), gonaren beitiko eskina (AM), pantalon barnak (U), gona barnak (U), galtza zola (KA), gona ahoa (LEIZ).

aurpegiko BEHEALDEA oso polita zeukan: sudurrez bekoa (G), sudur azpia (S, AM, O, ID, KA), musutik beherakoa (O), surretik berakoa (IP, IN, O), sudurpea (G), sudur ondoan (O), sudurraz bekoa dena puskatua zun (G, O).

etxeko BEHEALDEAN sukaldea zegoen (O) ~ etxeak behean deuko suetea (IN), (sukaldea) (O), beitin du sukaldea (S), sukaldea beitin dago (AM), bean dago (G, O, IN, ID), behean da (KA), kozina pian da (AL), zolan da (AL), beian dao sukaldea (IP).

eskaileretako **BEHEALDEAN** zegoen / **eskaileretako** (goian).

bolantearen **BEHEALDEAN** (O) ~ bolantearen azpian (O, S, G, KA).

atearen **BEHE ALDETIK** argia igarotzen zen / (leiho) **azpia**: ate azpitik argia ageri da (AM), (bortaren) (KA), aten zirrittutik (G), argia ate azpitik pasatzen zan (O), azaltzen zan (O), zirrikitutik argia agertzen da (O), argia ongi nabari zen atin artatik (S) atin azpitik (S) makurtuta pasau naiz bentana petik (IN), ...irago naiz leon azpitik ~ leopetik (G), leiopetik (O).

sudurraren **BEHEAN** bibotea zeukan: sudur azpian (S, KA), sudurpean (G).

euskak buruaren **BEHEAN** zeuzkan gurutzaturik: bi eskuk burun atzen paratuta (G),

jarrita (O), bi eskuek paratu tut buru gilean (AM), eskuk bigela dauzki (S), kokotean (IN), lepoan atzen (G), eskuak kokotean jarrita (O, ID), buru gibelean (KA).

hotzezko dutxa baten **BEHEAN** bezala erreazionatu dut: dutxan barrene(a)n bezela (G), duxan barnean (KA), dutxa otza artzean bezela (O).

harri handi batek **BEHEAN** hartu zuen: azpian hartu zuen (AM, O), azpian atxeman du (KA), gixajoa arri aundi baten azpian zegoen (G), tronko batek azpian artu zuen (AM).

ilea lepoan **BEHERA** zeukan \nearrow ilea.

BEHERA ~ **BEHEITI**: erdarazko perpausetan ez agertu arren, euskaraz maiz erabili ohi dira *bota, erori, jautsi...* aditzekin.

komuneko **zulotik bota** dut: 1. komuneko **zulotik behera** bota du (O), arraskako zulotik beiti (G, S, AM), zulotik bera jausi da (IP), zubitik beiti bota zuten (G, KA), baxerategiko zilotik beheiti joan da (KA), txakurra zubitik bera bota dau (IP, O, ID). 2. komuneko zuloan behera joan da (O), komunean bera bota zun paper ura (O), kati sorbalder behera jautsi da (LAN), zakurra erreka behera aurdiki dute (ITS). 3. burutik behera jo zuen (O, U), burutik beiti jo du (G, S, AM), loreontzia erori eta burutik bera jo zun (O), burutik behiti (LAN), usoak zirina burutik bera egin zidan (O), burutik bera kaka in (IN), malluz burutik beiti jo du (AM), botoilaz burutik behera eman zuen (ITS), aurthiki zioten zenbait ur burutik behera (AX 208, EG, ID, IB), mailuakin burutik behera eman zakon (KA), otsoari eman zeion kaska gaitz bat bizkarretik behera (AL). 4. goitik bera jo oan (IN), goitik beiti etorri eta jo (egin) nau buruan (S), goitik bera ura bota (IN, O), goitik beiti (G, S), oldar zedin garaitik behera itsasora (LEIZ. Mat 8,23), leihotik gain behera ur ixuri zakoten (LAN), leihotik behiti ura bota zakoten (KA). 5. asko gañetik erori zen (S, G, O, ID), asto ganetik jausi zan (IN, IP), astoaren gainetik (KA), asto gañetik bota zen (AM, U), zaldia gainetik erori niz (LAN, ITS), arbola gañetik bota da (AM), arbolatik erori da (O), arbo-

lan gañetik erori zen (S, G, O), astun gañetik erori zen (S, G), zaldin gañetik erori (S, G), ezin jauts arbolaren gainetik (ITS, KA), teillatu gañetik erori zen (O, KA), teillatutik erori zan (O), leiotik bera erori zan (O), teillatutik beheiti erori da (KA).

desde el balcón contemplaba a la gente de abajo ■ balkoitik jendea **goitik BEHERA** ikusten zuen (= jendea goitik behera zebilela): beko jende guztia ikusten zuen (G), balkoitik beian zebilen jende guztia ikusten zan (O), beko jentea ikusteoa (IN), behean ziren jendea (KA).

eskilletan **BEHERA** dator (ID, O) \nearrow jaitsi.

aldapan **BEHERA** joan gara ~ aldapaz.

qué bajón ha dado esta botella ■ **BEHERA-KADA** ederra eman du botila honek: beiti-ko ederra egin du (G, KA), erdi erdia aitu da (G), beiti-ko joan da garrafoi au (S), ustualdi ederra eman diozute botella horri (O).

BEHERAPENAK daude Corte Inglesean \nearrow **errebajak**.

ha bajado el precio del tomate ■ tomatearen prezioa **BEHERATU** da \nearrow **errebajak**.

kotxeko **leihatila BEHERATU** zuen: kotxeko leioa ireki zuen (O), zabaldu (IP), zabaldu zuen (U), kotxeko kristala beiti (G), kotxeain leioa beiti (AM), otoko berina behitu du (KA), kotxiari leio ori ideki iou-zue (S).

mesedez, abotsa **BEHERATU!** \nearrow **bajoago** (hitz egin).

boz **BEHERAZ** hitzegiten zuen \nearrow **bajoago** (hitz egin).

lagunak **BEHETIK** jo du atea: bean atea jo dute (G, O, IP), behean borta jo dute (KA).

nagusiari **BEHETIK** gora begiratzen zion \nearrow **goitik** (behera): begirasunez beitzen zion (O), nagusia errespetatzen dute (S), nagusiari errespetoz begiratzen zion (G), errespetuarekin mintzo da (KA).

estamos en las vacas flacas ■ **BEHI** argaletan gaude: urte urriak dira auek (O, G), aurten ezurtia da, ez dago sagarrik ez ezer (O), ezune omen zan orduan (O), aurten urtabe ona / txarra da (G, O), aurten urtabe ona joan da (S), aurten urtabe ona dugu (G),

urtabe txarra oso (O), urte utsaina eman (O), sagarrak urte utsaina eman debe (O), ezurtea du sagarrak (O), sagarrarentzat urtabe ona da hau (G), sagar urte ona da (O), sagar urte txarra da (O, S, G, KA), aurten gerezientzako urtabe ona eldu da (G), aurten sagar urte urria da (O), arto, gaztain urte txarra izan da (G), sagarrak urtabe ona du (O), aurten sagarrak murrizte (= dute) (S), aurten ez da sagar urte (IN, KA), aurten sagar urri da (O), aurten sagar urte eskaxa da (O), sagar urte murrizta da (S).

BEHIN, egundaino, inoiz, sekula: 1. behin ere izandu al zara Parisen? (G, O), etzara Parisen behin ere izandu? (S), behin ikusi dut Paris (KA), Behin edo behin izan da emen (O), aldi bat izan niz (KA), baten egon naiz (IN), behin izandu naiz (G, O, S), behin ere ez (O, EL, G). 2. inoiz ikusi al duzu Paris? (IN), inoiz joan zara Parisera? (IN), inoiz izan zara Parisen? (IN), inoiz ez (O, EL, G), inoiz izan da (O, G), Bai, inoiz izan izan da (O). 3. izan zirea egundaino Parisen? (LAR, KA), egundaino ez (KA). 4. sekula izan zirea Parisen? (LAR), Sekula ez (LAR).

BEHIN eman diet behie ~ emanaldi bat eginda daude beiak (O), bazka emanaldi bat egin diet beiei (S), janaldi bat eman diet (G), jatekoa ukan dute aldi bat (KA).

una vez más le fallaron las cosas ■ **BEHIN** bat gehiago huts egin zuen: berriz ere gauzak gaizki atera zitzaizkion (O, ID), berriz ere huts egin zuen (O, G, KA), lenago uts eta berriz ere uts (G).

BEHIN gauero hor kantatzen zuen: garai batean (G, O), sasoi batean (IP), lehenago (KA).

gaixotu zen **BEHIN** medikua ekarri zuten: gaixotu zen batean (O, G), eritu zelarik (KA), gaixotu zan baten (IP).

ur **BEIRA** bat eman zion \nearrow **baso**.

BELAR eskukada bat eman zion behiari \nearrow (belar) lepakada.

BELARRIRAKO hitz goxoak dira horiek: belarritarako itz goxoak (O, ID), belarrirako (G), belarrixetako berba goxoak dia (IP), belarrireko (IN), beharriendako arras hitz goxoak dira (KA).

BELDUR ~ izitu / lotsa ~ uzkur / ahatge.

BELDUR \nearrow **gose**: **BELDUR** naiz hori egite-
ra (ITS), beldurrak nago ori egiteko (G, O), beldur niz horren egiteko (KA), billur-
rez nao ori egiteko (IP, IN), ama jin bel-
dur zen (LAN), lotsa niz horren egiteko
(LAR), amak ikusi bildur zan (O), ondo
ikusi bildur zan (O).

BELDUR naiz: **a.** zerbait txarra gertatuko zaidalako = ez dut nahi. **b.** zerbait onik gertatuko ez zaidalako = nahi nuke.

a. bildurrek nao, etorriko dala ta (U), bel-
durak nago, etorriko ote dan (O), beldur
naiz (e)torriko den (AM, G), beldur niz jin-
nen dela (AL, LAN, KA), lotsa niz jinen
den (ITS), etorriko ete dan bildur nez (IN),
beldur ~ lotsa niz jinen ote denez (AL),
beldurrez nago, etorriko ote den (G), zer-
bait gertatu ote zaion beldur gara (AM, G),
...bildurrak gaude (O), ...beldurrez gaude
(ID), beldur niz Mariri zerbait gertatu za-
kola (KA), **b.** beldurrez nago ez ote den
etorriko (G), beldurrik gaude mutiko ori ez
ete den batere etorriko (S), ama ez dala eto-
rriko ta bildurrek nao (U), beldurrez nao
iñen ez tedun (G), bildurrak nago ez ote
dun ingo (O), Beldur naiz utz eztezan (AX
63), beldur naiz, fedea ez dadin zaurtua
(LAN), beldur niz, ez dela jiten ahalko
(KA), ...ez dela jinen (KA), beldur naiz utz
eztezan (AX 63).

temia que podría caerse ■ jausi zitekeenaren **BELDUR** zen: jausteko beldurrez zeuan (EL, IB), erortzeko beldur zan (O), botat-
zeko beldur zen (AM), erortzeko beldur-
rrak zegoen (O), erortzeko beldur baita (S,
G), erortzeko beldur da (KA), botatzeko
bildurrek nao (U), lotsa züzün erortera
(AL), ez gara eror beldur (ITS), norbait
ahantzi beldurrez ez ditut izandaten
(LAN), ez zuen jauzi egin, beldurrez eror
(LAN).

ama konturaruko zela **BELDUR** nintzen ~
ama konturaruko ote zen bildur zen (IN,
G, AM, O, ID), ama ez dala etorriko ta bil-
durrek nao (U), haurra beldur da, ama
ohartuko dela (KA).

sugea **dagoenaren BELDUR** naiz: sugea da-
go(e)n beldurrak nago (O), sugea or ote

den beldur naiz (S), subie egongo dan billurrez nao (IP, IN), haurra beldur da sugeak izenen direla (KA).

BELDUR naiz errealitatea ahazten ez duzun: egia aazten ez ote dezun bildurrak nago (O), beldur niz ez ote duzun ahantzi (KA). zu arriskutan **jartzeaz BELDUR** gara: jartze-ko (O, G, AM), beldur gira zure lanjerrean ezartzeko (KA), bildurra emoten deuste gugez basora eroateak (IN, O), izia ematen dit oianera eramateak (S).

BELDUR ziren haren erreakzioa **zela**: berri hura nola hartuko zuen beldur ziren (O), haren erreakzioa zela eta, beldur ziren (GR), haren erreakzioaren beldur ziren (GR), kontrarioarren bildur dira (O), kontrario(a)ri bildur diot (G), beldur zen ez zenez ilhunbetarik jaliko (ITS), beldur niz nola hartuko duen berri hori (KA).

gezurti bezala aurkitu **izatearen BELDURRA** sentitu zuen: gezurretan harrapatuko zuten beldurrak zegoen (O, ID, G), guzurretan arrapauko ete uen billurrez euen (IP), gezur-rean atxeman beldurrez da (KA), gezurretan arrapatuko ote duten beldur da (S).

lapurren **BELDURRAK** jendea ez bidaiatzera **eraman** du: lapurren bildurrak jendea bi-jatztetik atzeratu du (O), lapurren bildurrez jendea ez da biatzen (O, G), lapurren bildurrez jendeak eztau biatzen (IP), (bildurregaitik) (IN), lapur bildurrekin jendea ezta ibiltzen (ID), ohoinen beldurrez jendea etxean sartzen da (KA).

mementu bakoitzean berri txarren bat entzuteko **BELDURREZ** / **bakoitza**.

eroriko **zelakoan BELDURREZ** zegoen: eroriko ote zan beldurrez zegoen (O), jausiko ote naizen bildurrez nao (EL), beldur niz eroriko dela (KA).

berriro etorriko **direnaren BELDURREZ** daude: atzera etorriko diren bildurrez (IN), beldurra ematen dit berriz noiz etorriko diren (S), berriz noiz etorriko ote dian beldurrez (G), ...bildurrak daude (O), lotsa dira jin daitezen (ITS), beldur niz hortik joanen diren (KA).

hilgo **ninduelaren BELDURREZ**: arek ilko niñula beldurtu nintzen (S), ilko ote niñun beldurrez (G), beldur nintzen hilen nuela

(KA), ilgo ninduen beldurrez (IN, O), ilko ote nauben bildur naiz (O), ilgo ete nauen billurrez nao (IP), ilgo ete nauten beldur deukot (IN).

etsaiak izango **zirenaren BELDURREZ**: etsaiak an egongo ziren beldurrez (G, AM, O), ...ete zirean b. (IN), etsaiak lekuan izanen ote diren beldur niz (KA).

ez duzu zer **BELDURTURIK** (ITS) ~ / zer (beldurtu).

me doy por vencido ■ **BENTZITUAGATIK** ematen naiz / **itxaropena** (galdu).

BER egünian (= egun berean) (AL, LAR), egun hartan berean (KA).

BER / **orduko**.

BER = -lako: erosiren düt, hun den ber (AL, KA), denbora eder zen ber, mendira joan zen (LAN, KA), jiten den ber, ez du inportata (LAR).

BERA. Bereiz: **1.** alkate berak esan zuen (lehen aipatu duguna). **2.** alkateak berak esan zuen *personalmente*: ama beraren beste alaba hil zen (= lehen aipatzen genuen amarena) (G, O, ID), amaren beraren mina handia izan zen (= amari berari dagokiona) (G, O, ID), ama berari egin zion kalte (= lehen aipaturiko amari) (G, O, ID), amari berari egin zion kalte (= *en persona*, zuzen, artez) (G, O, ID), gizon berarekin mintzatu nintzen (= lehenagokoarekin) (G, O, ID), gizonarekin berarekin mintzatu nintzen (= buruz buru, *en persona*) (G, O, ID).

tarde o temprano vendrá ■ **BERANDU** edo goiz etorri egingo da: lentxeago edo geroxeago etorri egingo da (G, O), goiz edo berant jinen da (AL, LAN, ITS, KA), goixea-go-beranxeago (e)torriko da (AM), atzexago edo aurrexago etorkoa (U), lentxio edo geroxiago (S), lehen edo gero (AX 241, S), bixar edo etzi damutu eztakizun (IP).

hiruak, pixkat **BERANDUAGO** dira / **pixkat** (beranduago).

BERATAZ ez galdetzeko esan zuen / **-taz** / **galdetu**.

semaforoa **BERDEA** jarri da / **semaforoa**. ilea **BERDEZ** tintatu du / **pintatu**.

Egun on! **BERDIN!**: Bai zuri ere! (AM, AZ,

EG, O, G, ITS, KA), Egün hun! Bai zuri ere, pharte hun! (AL), baita zuri ere (MO, IN, EL, O).

ondo ibili! **BERDIN!**: zu ere bai! (O, ID), zu be bai! (IP, IN), gauza bera zuer ere (KA).

BERDIN da / **inporta**.

BERDIN da bat edo beste eginik ere ~ eginez ~ egitea (KA), / **hobe**: igual da hori egin edo hau egin (S), berdin da hau egin edo hori egin (O), bardin de ori ein au ein (IN).

BERDIN / **BERA**

por lo que dice el mismo periódico* ■ egunkari **berdinak dioenez: egunkari berak dioenez... (EG, G), Ori al zen falta zenuen ardia? Ez, berdintsua da baiña ezta bera (G), miseriakordia eta justizia berdina dira pisuan (AX).

*lapur **berdinak** ebatsi du hiru toki horietan: lapur berak (EG, IB, MO), ohin berek (KA).

*nik beti saltzaile **berdinari** erosten diot: saltzaile berari (IB, MO, EG, ITS, LAN), erosdun berari (KA).

orain harro zudete, baina ez zen **BERDIN** ni agintzen nengoenean: agintzen nengon garain umillago egon zinaten (O), lenago ez baña orain pozik nago (G, O, IP, IN, ID, KA, S), orain arro bazerate ere, bestera ibilitakoak zerate ni... (O), oin arro zaozie baña ni agintan egon nintzen denporan apalago ibili zintzen (IN).

Osasunak galdu egin du; **BERDIN** gertatu zaio Bilbori: ...gauza bera gertatu zaio... (O, ID, EG, KA), Bilbok ere bai (EL, G, S, AM, IP).

Miren eta Pilare itxura **BERDIN** antzekoak ziren / **antz** (handia).

alkondara zuria, galtzak zuriak eta txapela ere **BERDIN**: txapela be bai (IP, IN, ID).

igualmente podemos decir ■ **BERDIN** esan genezake ~ orobat semea ere Ameriketarat joan zen (KA), guk ere horixe esan genezake (O, G, KA).

txalei 10.000 pezetako saria emango zaie; **BERDIN** ardiei: ardiei ere bai (G, O, KA).

hitzaldietan ibiltzen den **jendea** beti **BERDINA** da: geixen baten betikue izaten da (IP), (geien bat) (IN), hitzaldietan betiko jentea ibiltzen da (O, ID, G), beti jende be-

rak dira (KA), or betikoak dira dabilzina (S).

frantsesek eta espainolek ez dituzte ohitura **BERDINAK** (O), ohitura berak (O), ez dituzte ohitura berdina, oso diferenteak (O), Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat (AX 8), usai berak (KA).

ez **BERDINDU** Juan eta Pedro / **konparatu**. aktoreak sexu **BERDINEKOAK** ziren / **sexu** (berekoak).

«Osasuna»k **BERDINKETA** lortu nahi du: berdindu egin nahi du (KA, O).

holakoekin zenbat gauza **BERDINTSU** / (jarrera) **ematen**: zenbat olako orientean (G, O), holako ainitz gertatzen da horien artean (KA).

BERE... / HAREN...

A. ERREFLEXIBOA: **1.** bat: **bere**. **2.** zenbait: **beren** ~ **euren** ~ **auren**. **B. ERREFLEXIBOA** ez: **1.** bat: **beronen**, **berorren**, **haren**, **beraren**. **2.** zenbait: **berauen**, **berorien**, **beraien**, **haien**, **heken**, **euren**, **auron**.

A.1. amak **bere** umea maite du (O, EL, KA, S, IN), haurra bere aitarengana igorri du (haurraren edo igorlearen aitarengana) (Lafitte, KA, S), gizonari bere liburua igorri dako (Lafitte) (KA, S), aita-amei beren haurra igorri dakotet (Lafitte) (KA, S).

A.2. amek **beren** haurrak maite dituzte (KA, LAR), gizonari beren liburua igorri dazkote (KA, S), haurrak beren burasoetar igorri ditut (KA, S), haurrak bere burasoetar igorri zituzten (haurren edo igorleen gurasoengana) (Lafitte, KA, S), Mirenek eta Irunek auren aizta maite daure (IN), amak euren umeak maite dituzte (EL, IB), amak auren umeak maite daurez (IN), gizonari euren liburua bialdu dizkiot (EL, IB), gizonari euren liburua bialdu zizkien (EL, IB).

B.1. amak **bere** semea maite du. Bainan **haren** (semearen) laguna ez du maite (KA, S), ...baina honen (semearen) ~ horren ~ beronen ~ berorren laguna ez du maite (GR), ...bera(re)n laguna, baña, ez du maite (EL), ...beren (IN).

B.2. amek beren haurrak maite dituzte. Bainan **heien** lagunak ez dituzte maite (KA), heken lagunak (S), ...berauen, berorien, beraien laguna ez dute maite (GR), ...baña euren lagu-

na gaixorik dago (EL), amak auren umeak maite daurez. Baña auron (auren) lagunak eztaurez maite (IN).

BERE / BEREN ~ EUREN. OHARRA: Axularrek ez du **beren** erabiltzen. *Beti bere. Leizarragak ere ez.*

BERE: euskaraz erdaraz biano bakanago erabiltzen da. «Bere/bestearena» jazargoa adierazteko ezartzen da eskuarki. **ADIBIDEA:** Maitek **bere** zigarroa erre zuen; gero lagunarena. **JOKABIDEA:** zalantzan bazau, hasi esaldia «bere»kin. Gaizki dagoenentz berehala igerriko diozu. Ingelesa batez ere euskaraz beste muturrean dago: *he put his elbows on his knees* □ *she forced his hands away from her head* □ *he likes his coffee very sweet* □ *I am learning my lesson* □ *they drink water with their meals* □ *How will you spend your afternoon?*

*berebilak **bere** abiadura gutxitu egin du ↗ **murriztu**.

*mutila **bere** aitarekin zegoen: aitakin zegoen haurra (G), haurra aitakin zegoen (G), aitasemeak zeuden (G, O).

*ez dio **bere** aldarte txarrari utzi nahi ↗ **umore**.

*Lope de Vegak **bere** arerioa Cervantes izan zuen: Lope de Vegak Cervantes izan zuen arerio (GR), Lope de Vegasen etsaia Cervantes izan zan (O, IP, IN, G).

*horrek **bere** arriskuak ditu: horrek badu arriskurik (GR), badu lanjera (KA), orrek arrisku aundiak ditxu (EL), orrek badu arriskua (IP, IN), orrek badu naiko arriskua (O), lan hartan lanjer handia da (KA, LAR), ori arriskitzea gauza aundia da (S).

*neskatxarengan zeuzkan ezarriak **bere** begiak: begiak neskatxarengan zeuzkan ezarriak (GR), neskatxari begira begira egondu zen (G, O), neskatxari beha beha plantatu zen (KA), ...armaturik egon zen (KA).

*nahigabe handia agertzen zuen **bere** begitartean ↗ **notatzen**: begitartean nahigabe handia agertzen zuen (GR), arpein e(re) nabai zun ongi etzegola (G), begitarte hitsa zuen (KA), arpegian ere ezagun zuen... (O), ...antzematen zitzaion (O).

***bere** behatzean erastuna zeraman: beha-

tze(a)n bazun erastuna (G), erhian erastuna du (KA), beatzean erastuna zeukan (O). *lebitarrek **beren** bizkarrean zeramaten kuxa: artzaiak bizkarre(a)n dama ardia (G, O), artzainak bizkarrean joaiten du ardia (KA).

*senarrak guztiz maite zuen **bere** emaztea: arrunt matte zun emaztea (G), biziki maite du emaztea (KA), oso andre maitea zan (O, EL).

*Malentxok **bere** erabakia hartu zuen: orrek erabakia artu du (O, IP), delibramendu bat hartu du (KA).

*arazo horrek ba ditu **bere** eragozpenak: or badira trabak (G, IP, KA), horrek badu eragozpenik (GR).

*bakoitzak **bere** eskubidea du nahi duena esateko: bakoitzak nai duna esateko eskubidea du (G, O), bakotxak bera nahi duena erraiterat haizu da (KA), bakoitzak gure dauena esateko eskubidea dauko (IP).

*Aitorrek min zeukan **bere** eztarrian ↗ (eztarria) itxi.

*horrek badauka **bere** garrantzia: badauka garrantzia, garrantzirik (GR), badauka inportantzia (G, O), badu baliorik (KA).

*ipuinek Mendaron dute **beren** gertatokia: ipuñok Mendaron gertatu dia (EL), (ixtorio horiek) (KA) gauzok Aramaixon pasau dira (IP).

*elaberraren gaiak badu **bere** giarra: badu giarrik (AL) badu indarra (AZ) indar haundikoa da (KA).

*edozein hurrek baditu **bere** gurasoak: haur guztiek badituzte gurasoak (G, KA), ume danak daukiez gurasoak (IN, IP), ume danak dituzte gurasoak (O, ID).

*Aitorrek alde egin zuen **bere** gurasoen babesetik: alde egin zuen etxetik (G, O), gurasotatik (G), semea etxetik joan zen (KA).

*berandu hasi zituen **bere** apaiz ikasketak: zartauta asi zen apez ikasten (G, O).

*hori hartu zuen **bere** helburutzat: ori artu zuen elburutzat (O), elburu ori artu zuen (O), asmo ori artu zun (G).

*aitak **bere** indarra gutxitzen sentitu zuen: aitari indarra attu (= aitu) zio (G), aitari indarrak alde egin diue (O).

*Xaturrek han utzi zuen **bere** kotxea: an

laga zeban kotxia (EL, IB, MO) ...bere kotxea; lagunarena enparantzan (O, IB, EG). *Txanton kalean **bere** lagunekin zegoen: lagunekin (O, IB, ID).

*amonak **bere** semea banindu bezala maite nau: semia bezala maite nau (O, ID, G).

*morroia laguntza eske **bere** nagusiarengana joan zen: morroia laguntzan billa nagusiarenaga joan zen (G), ...laguntza billa (O), ...lehenik **bere** nagusiarengana; gero lagunaren nagusiarengana.

*auziak **bere** ondorio ona izan du: auziak ondorio ona izan du (O), horrek ondorio huna ukhen dü (AL), finament ona ukan du (KA).

*Mirenek sagarrak ekarri dizkio **bere** senarrari: Mirenek sagarrak ekarri dizkio gizonari (O), senarrari (G).

*Jonek **bere** urratsak azkartu egin zituen: Arantzazuk pausua azkartu zuan ederki (O), fiteago ibiltzen hasi zen (KA), ernatzen hasi zen (KA).

tenia sus dudas* ■ **bere zalantzak bazituen: dudetan z(egon) (G), dudan (O, IN, KA, LAR), dudatan dago onela eginen ote dun ala bertzaldera eginen ote dun (S).

*sua atera erazi dio **bere** zigarroari: zigarroa piztu zun (G, O), (zigarreta) (KA), zigarroa ixein du (U).

*Anjek **bere** azken zigarroa erre zuen: Anjek azkeneko zigarroa erre zun (O, G). Anjek **bere** azkeneko zigarroa erre zuen; gero lagun bati kendu zion (O), azken zigarreta pipatu du (KA).

maitasunezko **BERE** eskeintzak egin zizkion (O), betiko **beren** jantziekin dabilz (O), beti arropa berak ditu soinean (KA), nere an egondako aztarrenak kendu zituzten (O), betiko **bere** lagune (IN, G, O), **bere** betiko laguna (EL), nere Donostiko laguna (S), **bere** bizi guziko laguna (S).

bakoitza **BERE** autoan joan gara ↗ **bakoitza**: kotxe banatan etorri ga (G, O), bakoitza gure otoan joan gira (AL, I), bakoitza gure otoetan (KA), bakoitza geren kotxetan ~ kotxeekin joan gera (G, S).

zoazte bakoitza **BERE** tokira: zoazte bakoitza zeuen tokira (EL), zoazte bakoitza zeuen lekura (IN), zoazte bakoitza zuen le-

kurat (KA), artzazue zuen lekuak (KA), segi bakoitzak zuen tokitara (O), zoazte bakoitza zeren tokietara (S).

egun **BEREAN** ~ ber egünian (AL), egun artan bertan joan zen (IB), egun hartan berean joan zen (KA), egun atan (IN).

*Altzain **berean** bizi da ~ ↗ **bertan**.

*otsaila **berean** etorri zen ~ ↗ **bertan**.

*hamabietan **berean** etorri zen ↗ **puntu**an. bidaia zuen kotxe **BEREAN** egin dut: bidaia zuen kotxean egin dut (G, O).

cuando vieron que se les venia el enemigo ■ etsaia **BEREGANATZEN** ikusi zutenean: etsaia beraiengana zetorrela ikusi zutenean (O, ID), (berengana) (G), etsaia berenganat heldu zela ikusi zuten (KA, S, G), arerioa eurenka doa (IN), kontrarioa ebengana eldu zaiote (S).

ez du **BEREIZTEN** marxismoaren eta kapitalismoaren artean: ezttu berexen katua eta zakurra (G), katua eta zakurra ez dira aixa bereizten (S), ez da errex gatiaren eta tzakurraren bereiztia (AL), erra edo emea dan eztu antza ematen (ID), ezttio antzik ematen (O), ez da aije bi gatu horien berextea (KA).

ez zeukan dirurik **BEREKIN** (S, O) ~ ez deukot dirurik aldean (IN), ez dut sosik (KA). ikaragarritzko indarrak zituen **BEREKIN** (**berekin** sobran dago): indar aundia zeukan (EL), (eukan) (IP, O, G, KA, S), ikaragarritzko indarrak battu (G), izugarritzko indarra dauka (O, ID).

hor konpon, **bakoitza BERERA** ↗ **konpondu**: bakoitza berea(re)kin (O, S), nork **bere** egitekoak egin ditzala (AX), akoma ditela **beren** aferretan (KA), akoma ditela **beren** artean (KA), bakoitza **bere** beharrera (IN), zu segi zere lanera; ez ibilli inguruka (S), zoazi zere lanera (S), zoaz zeure beharrera (IN), arrainja bitze **beren** egitekoak **beren** artean (LAR), ik ere etxeko lanak itzik (G), zu zeure beharrera (IN), konpondu ditezela **beren** tartean (G, O, S), konpondu ditezela elkarrekin (S), konpondu ditezela berak! (O), aitu diatezela auren artean! (IN), ez zitela saltsa hortan sar (KA), ez zitela saltsa hortan sartzea (KA), zure onetan hobe duzu ez saltsa hortan sartzea (KA), zu zaude zeren

tokian! (S), iñoren gauzetan ez sartu (IN), utzi, utzi, saltsa hortan ez sartu (G, O, KA, S), zu zure lekuan egon! (G, O, KA), oien artakan makilla autsikin ez sartu (S).

Azpeitia **BERETIK** etorri zen \nearrow **bertako**.

Al oír eso, salió de sí ■ hori entzun eta **BERETIK** irten zen \nearrow **kasilletatik**.

BERO eginen du bihar (ITS, O) \sim \nearrow **eguraldia** \nearrow **gehiago** (bero): biar ere beroa izango da (O, EL), bihar berotuko du (KA, S, IN), bero ederra botako du biar (G), ederra botako du biar (O) (= bero izanen dela), ortxinga ederrak egin ditu (bero kolpeak) (G).

BERO gehiegi da han \nearrow **gehiagi**.

katuak **BEROTASUNERA** datoz \nearrow **eguzkiaren** (berora): katuak epelera datoz (O, IN, G), katuak berokira eldu dire (S, AM), leku berorat (KA), berotzerat (KA).

ura **BEROTZEN** ari naiz (O, S, ID) / su ondoan berotzen **nago** (O, AM, ID).

BERRI: euskaraz «zaharra» ez dena adierazten du:

un nuevo tanto para Wilander* ■ Wilanderrentzat tanto **berri bat: pilotan beste tanto bat atera du (G) \nearrow **tenis**, tantobat gehiago (G, O, EL, KA, S, IN).

*istripu **berri** batek lau langile hil ditu: istripuz beste lau langile hil dira (KA), lau langile gehiago hil dira (O), beste istripu batean lau langile hil dira (KA), beste ezbehar batean lau langile hil dira (S, O, IN).

Jon Ameriketatik etorri **denaren BERRI** badakigu \nearrow **-aren-**

BERRI / **ZAHAR** \nearrow **orain** (dela gutxi).

denbora galdu gabe **BERRIKETA** handiekin \nearrow **adarretatik**.

BERRIKI (AL, AM, ID) \sim berriro (G, S) / aristian \sim aixtion (AM) \nearrow **orain** (dela gutxi).

***berriro** = **a. berriki** (G, S). **b. berriz** (EL, IP) \nearrow **orain** (dela gutxi).

katua **BERRIZ** ere etxean dago \sim katuak etxealdia du (O), katuak etxealdetik daude (S) \sim dabiltsi (S), egun gure gatiak etxeko aldi du (KA).

ése ya ha pasado los cuarenta ■ orrek igaro ditu **BERROGEIAK** \nearrow **hogetaka**.

BERTAKO \nearrow berean, beretik.

*Sunbillan bertakoa da (S, AM), Aiherra berekoa da (KA), Zeaniko bertakoa da (IN), Goizuetan errikoa da, baserrikoa ez (G), Azpeitin bertakoa da (O), Azpeitiko kalean jaioa da (O), Atarratze bereko da (AL) hanko bereko da (AL), Bilboko bertakoa da (IN), Landibarre berekoa da (LAN), errikoa bertakoa (O), Eibarkoa bertakoa (EL), Unanukoa bertakoa da (U), han bertakoa Asteasukoa da (O).

*Azpeitian **bertan** bizi da (EG, O) \sim 1. Altzain berian bizi da (AL), Aiherran berean bizi da (KA), Sunbillan bertan bizi da (S, O), Goizuetan errin bizi da (G), herrian berean bizi da (AL), errin bertan bizi da (S).

2. Azpeititik bertatik etorri zen (O), Goizuetan erri **bertatik** etorri zen (G), Altzairik beretik (AL), Aiherratik beretik (KA). 3. otsailin berin etorri zen (S), barrantallan berean (AL), otsailin bertan (S), zezeillan bertan (IN), jo(a)n eta il bere(a)n etorri zen (G), jundako illian etorri zan (O).

*berton / bertan \nearrow **erakuslea**.

***aldizkari bertan** argitaratua izan zen: aldizkari artan bertan (O, G, IN), ber jurnalian iskibatu du (LAR), aldizkari berean (S), kaseta berean (KA).

*kalean **bertan** ez naiz bizi: karrikan berian bizi nüzü (AL, KA), kale kalean ez naiz bizi (O), errien bertan (S, G), plazan berean bizi da (KA), kallez nüzü Santa Engrazian (AL), plazako etxean bizi da (IN) plaza plazan bizi da (IN), herrian berean bizi da (S), plazan bertan bizi zan (IN).

garaierak **BERTIGOA** ematen dit \nearrow **mareo**: egatzetikan begitu dutelikan, liluri pixkot egin zit (S).

hori da **BERTSIO** ofiziala: hori esan dute agintariak (EG, ID), hori da gobernuak eman duen berria (EG, ID, G), hori da agiri ofiziala (GR), hori erran dute ofizialki (KA), hori da txosten ofiziala (GR).

BERTSOKA ari ziren: bertsotan ari ziren (AM, S, O, G, KA).

hemen **BERUNEZKO** hankekin ibili behar da \nearrow **kontua**.

me he abrazado con la almohada ■ burukoarekin **BESARKATU** naiz: bur(u)koa besarkatu det (O, IN, ID), eumeria besoetan

artu dot (IP), lo egiten du burkita besarkatuz (KA), almuda besarkan artu ta egiten du lo (S), burkoa besarkan artuta lo egiten du (G, S), besartean artuta (IN), besartean estutu (O).

gerritik **BESARKATU** zuen: gerritik eldu zion (O, ID), gerritik ebatu eutsen (IP), gerritik artu zun (G, KA), garririk gatute (IN), besarkan artu zun (S).

BESOAK guruztatuak zeuzkan: besoak uztertuak (AM), besoak gurutze dago (KA), besoak gurutzetuek (AM), eskuek gurutzetuek (AM), besoak gurutzuta (S, G), eskuak gurutzuta (S), zangoak gurutzuta (S), besoak antxumatuak (O), eskuek uztertuak (AM), besoak gurutzen ifinita dago (IN).

BESOTIK lagun eginez, etxera eraman zuen \nearrow **eskua**: besotik artuta lagundu zion (S, G, O), besotik elduta (O), besotik \sim besarkan hartuta joan dire (S), besotik harturik joan zuen (= eraman) (KA), besoz beso joan dira (KA), besapez jun dira (LAR).

har nire **BESOA** \nearrow **eskua**: eldu neri besotik (O, ID), ebatu neuri besotik (IP), besotikan artu zun (G), goatu neuri besotik (IN), har nezazu eskutik (KA).

¿*Qué tal ha estado la fiesta?* ■ **nola** egon da **BESTA?**: zer pestamodu izan dezue? (O), zer fiestamodu izan da (IN), zer fiestamodu euki dozue? (IN), zer gisako afaria izan da? (AM, S), pestak ongi irago dia? (G), ze moduteko jaixek izen dituzue? (IP), nolako pestak joan dira? (KA), nola bestak igan dia? (LAR).

ibaiaren \sim ibaiaz **BESTALDETIK** \nearrow **mugaz**. **BEREIZ**: **a. lehengo...** (iragana). **b. BESTE** (etorkizuna).

*beste egunean han egon nintzen: **a. le(he)**-nakoan-emen egon zan (EL), lengo egunean (O, AM, IN, G, U), lengoko batean (O, ID), lengo egun batin (S), lengo batean (EL), lengo baten (IN), aurreko egun bate(a)n (G), aurreko batean (O, I, D), oaiñ aurretik izanduenegun (G), aitzine egün batez (LAR), joan den egunean Hasparnen izan nintzen (KA), aitzineko egünean (LAR). **b. beste** egun batean ara joango gera (O, EL), beste egun baten join ga (G), beste egun batez \sim beste aldi batez joanen gira (KA).

*beste ilean, beste urtean han egon nintzen \nearrow **beste** egunean.

zu ez zara **BESTE** egunetakoa **bera**: zu etza lengo modukoa (G), len bezelakoa (G, KA), ezin leike esan zu lengoa zeranik (O), zu beste egunetakoa zarella esatea ere! (O), zuk ez dezu ematen beste egunetakoa zeranik (O), zu ez zara beste egunetakoa modukoa (IN), hi ez aiz aurreko egunetakoa Joxe (O), zu etzara lengo Joxe; nola kanbiatu zara! (S), ezkara behin ere lehenak (AX 40), lehena eztidurudiela iartzen (da) (AX 40).

gudariak inoiz ez **BESTE** sartu ziren: bein ere biño soldadu geiago sartu da (G, O), sekula baño gudari geiago etorri dia (IP, KA), iñoz baño... (IN),

etxean izebaz **BESTE** inor ez zen bizi \nearrow **baizik**.

ez dute **BESTE** gauzarako balio \nearrow **balio** \nearrow **baizik**.

hau da kotxea. Guk ere **BESTE** honelako bat erosiko dugu: au kotxe e(de)rra. Guk e erosi bear du olatxeko bat (G, O), horren üdüriko bat (AL, KA), hori bezalako bat (AL, KA), gupe olango bat erosi biogu (IN), beste bi alki orrelakoak erosiko ditut (G, O, IP), bear ttut bertze bi olako katadera (AM), beste olango silla bi (IN), olako beste bi silla (ID).

gaiztoa da, baina ez hori egiteko **BESTE** \nearrow **balio**: ez hori egiteko a(d)jina (O), baina ez ainbeste (O), baño ori egiteko balorerik ez dik izin (G), orrenbestekoñokun ez (S), gaxto düzü, bena ez aski hortako (AL, KA), okerra da baina ez ainbestekoa (IN), ez du horren egiteko kalipurik (KA).

bata **BESTEAREN** bizilegea elkarri esan zioten \nearrow **elkar**: batak besteari beren bizimodua esan zioten (S, O), batak bestiari bere bizitzia kontatu zeion (AL, KA), be(r)en bizimodua alkarri kontatzen aitu dia (G).

bata bestearengandiko harremanak ebaki zituzten \nearrow **-kiko**.

hori zu **BESTEKO** azkarra da \sim zu bezin azkarra da (O, U, ID, EL), zu besteko listoa da (IN), zu bizin listo da (IN, S, G), zu bezin abile da (AM), hori zu bezain zalhe da (AL), (zalhu) (KA), zu bestelako buru argia da (IP).

bere izaera oso **BESTELAKOA** zen / (Miren...) **diferenteak**.

BESTEREN batean ikusiko dugu elkar: beste batean (O, G), beste baten (IN), bertzen al-dian elkar ikusiko dugu (AM), urrengo batean (O), bertze aldi batin ikusiko dugu elkar (S), beste aldi batez algar ikusiko dugu v(AL, KA).

gauetz ez **BESTERIK** irtetzen nintzen / **baizik**.

zer **BESTERIK** behar duzu zoriontsu izateko?: zer behar düzü besterik ~ haboro zoriontsu izateko (AL), zer geiago (G, AM, O, KA).

zer **BESTERIK** egin genezake?: zer gehiago egin genezake (G, O), zer egin genezake gehiago (KA), in geinke (IN), zer egin güneke haboro (AL).

Hura zen. Zein **BESTERIK** izan zitekeen? / **ezean**.

susmoak eta ez **BESTERIK** dira soilik / **baizik**.

horregatik esan diot, ez **BESTERIK** / **baizik**: horregatik erran diot eta ez bestegatik (AL), orrexegaitik esan dot, ez besteagaitik (IN), ez beste(r)engatik (O), orrengatik ez bertzingatik (S), orregatik ez besteengatik (G), orretxeagatik esan dot, ez besteagatik (IP), hortako erran dakot, ez bestenaz (KA).

jakinmina zeukan, hori ez **BESTERIK**, laguna ezagutzeko / **baizik**: laguna ezagutzeko jakinmina ~ gogoia zeukan, besterik ez (IP, IN, O, ID), horixen nai nun jakin, deus ez bertzerikan (S).

bat **BESTERIK** ez, aukeratu beharko dute, besteak utzirik / **baizik**: bat bakarrik aukeratu bearko dute, besteak utzirik (GR), bat aukeratu biako daue, besteak utzita (IP, IN, O, ID), hau hautatu, besteak utzi (KA), bat artu naizuna eta bertzeak utzi (S).

Pello denek maite badute ere, **BESTERIK** gertatzen da Katalinaz: ...badute ere, Katalina ez (O), ...Katalina inork ez (O), Pello denek maite dute, Katalin ez (KA), bertzik denek maite dituzte, baina Katalina ezteute inork ere ikusi nai (S).

ez **BESTERIK** / besterik ez / **ez**.

Manu **BESUTSIK** zegoen ~ / **arremangatuta** / **alkandoraren** (mangetan).

sabela **BETE** bete egin dugu ~ ase gogorra in dugu (AM), untsa ase gira (KA), nolako jattia egin dugun gaur (S), bapo aseta gelditu gera (O), betekada ederra in dugu (G), tripakada ederra in dau (IP, IN, ID), batere berdindu al zarete, ba? (O), lepo jan genduen (O), lepo egin arte jan genduen (O), lepo egin arte eman ziguten (O), lepo eman ziguten (O).

nabari da **oinazez BETEA** dagoela / **notatzen**: oñaze aundiak dauzkila señale du (G, ID), oñazetan dagola antzematen zaio (O), (oñazez) (ID), nabari du min gogorrak batuela (S), ezagun dau min aundixak daukana (IP), oñaze gogorretan dago (S), oñaze aundiak ditu (AM), min handia duela ezagun du (KA).

eliza toperaino **BETERIK** zegoen / **topera**. Ameriketatik **BETIKO** etorri da ~ alde bat etorri da (AM, S), erabat etorri da (O, ID), alde (b)at jin da (LAN, KA), betiko ~ sekulako etorri da (AM, O, ID).

BETIRAKO da etxe hori: betiko (G, S, IN, O, IP, ID, EL) / **-rako**, betikotz (KA).

BEZAIN azkar ~ (bezain) laster / **orduko**.

BEZALA: Erdararen eraginez sarriegi erabiltzen da. *Bezala*-k aditza eskatzen du, agerian edo izkutan. «Nik zuk (egiten duzun) bezala egiten dut / **gisa**. Konparatzeko ez denean, «balitz bezala» adierazten du, gehienetan.

***AHOLKUAK**: 1. *Bezala*-ren aurretik *balitz* edo beste aditzen bat ongi gelditzen bada, orduan bakarrik ezar *bezala*. Pailasua (balitz) bezala erabili zuten (ez zen pailasu). 2. Zenbait kasutan *bezala*-ren ordeztzat erabiltzen da: seme bezala hartu zuten: semetzat. 3. *bezalakoa* bi sustantibo berdintzen direnean erabili. Ines zu bezala da: zu bezalakoa da.

***abade bezala** segitzen du (= balitz bezala): abade segiten deu (IN), beti apezgoa segitzen du (KA), apez seitzen do (G, O).

***abertzale bezala** katalogatuak daude (= balitz bezala): abertzaletzat artu dituzte (G, O), gaiztotzat jotzen dute lapurra (G, O, KA), barberak... etsai bat bezala (= ez du etsai, baina) erabiltzen du (AX 145).

***Peru du aitaponteko bezala** (= balitz bezala): Pedro du atautsia (G), (aitatxi) (KA), orrek Pedro du aitapontekoa (O).

***hori jarri du aitakia bezala**: / **atxakia**.

***segitzen al du andereño bezala**?: segitzen al dio andereño? (O), segiduten ete deu andereño? (IN, KA), oraindik ere andereño al da? (G), seitzen te du andereño? (G), seitzen al du andereño? (G).

***Apaiz bezala Lekuonak** 65 urte egin ditu: 65 urte damazki apaiz (O), 65 urte apez intzu (G), hantik harat bere denbora eman zizint faktore (LAN), mera ez daukate elizako gizon (ITS), han egon zen bikario lau urtez (ITS, KA).

***lehen bezala** apetito ona dauka: len bezalako apetitoa etorri zio G, (du) (KA), orain bi urte bezelako apetitoa dauka (O, G), bi urte lehenago jaten zuen apetito berarekin jaten zuen gero ere (O), len bezala orain ere apetito ona dauka (O, ID, EL), lengo moduko apetitoa deuko oin be (IN), len ezik orain ere apetito ederra dauka (ID), len bezalako apetitua badauka orai re (S).

***apupilo bezala** dago: gurean dago apupilo (O, G).

***artzain bezala** joan zen (= balitz bezala): artzain joan zen (AZ, G, EG, ID, KA).

***liburu hori autobiografia bezala** kontsideratu behar da: liburu hori autobiografia kontsideratu behar da (GR), gertakizun ori egitatz artu bear da (IP, IN, O, ID, KA), nik egitoko artu nun, baña gezurra izaki gero (S).

***gauzak bereak balitu bezala** tratatzen ditu (G, O), (erabiltzen) (KA).

***Horrek bere burua onena bezala** deuka / **eduki**: orrek bere burua obenatakoa jotzen du (G), orrek bere burua besteak baño obeagotzat dauka (O), orrek ez du bere burua besterik (O), bere burua aunditu egiten du orrek (G), bere burua onentzat zeukan (O, IP, IN), bere burua besteen gañetik zeukek orrek (ID), orrek bere burua besterik baino ohea jotzen dik (ID), horrek bere burua hoberena dauka (KA), bere burua agitz ontoko du (S).

***ez har deskortesia bezala**: lotsagabekeri(a)tzat ez hartu (GR), ahalgabekeria-

tzat (KA), ez pentsa lotsagabekeri(a)z ein detanik (O), ez pentsau lotsabakokerixia danik (IP, IN, G), ez det asmo txarrakin egin (ID), nik errana ez gaizki artu (S). lotsa da erratea, baña nik erraten dizut (S).

***ekonomilari dextente bezala** azaldu da: ekonomilari dextente azaldu zen (GR), ekonomista ona agertu da (KA, S, G).

***mediku bezala** egon zen Otxagin (= mediku balitz bezala, mediku ez izan arren): Otxagabin lau urtez egondu zen mediku (G, KA), praktikante izan arren, mediku(a-re)n lana egiten zun (G, O).

***Euskara aldetik kontuan hartzekoa da eredu bezala**: aren euskara ejenplotzat artu liteke (O, KA, G, S).

***errege bezala** onartu zuten: 1. erregetzat artu zuten Juan Carlos (G, O), errege egin dute Juan Carlos (ID, G, O, KA). 2. senharraren errege bezala bizi zen (= balitz bezala) (AL, G, ID).

***espioi bezala** joan zen: ispioi joan zan (O, KA).

***etxe hartakoa bezala** daukat neure burua (= banitz bezala): angotzat daukat nere burua (O), hemengo daukat ene burua (KA), angotzat dauket neure burua (IP, IN).

***neure bizitzea frakasu bat bezala** kontsideratzen dut: nere bizitza frakasu izan dala iruditzen zait (O, ID), nire bizitza frakasu izan dala pentseta jat (IP), ene bizia debaldetan izan da (KA), esdeusa izan da (KA).

***froga bezala** hor dugu Txiki Benegas: froga hor dugu, Txiki Benegas (GR), orren ejenplu Txiki Benegas da (O, ID, KA), frogatzat hor duzu hori (ITS, KA).

***euskara gai bezala** hartu zuten: euskara gai hartu zuten, gaitzat hartu zuten (GR), bertsotako gaia euskara eman zien (O), geitizat (KA).

***hori egin genuen azken galdera bezala**: ori in genun azken galdera (G), ori ein genun azkeneko galdera (O), azken galdea hori egin genuen (KA).

***Uztapiderekin bertsotan egitea gauza handi bat bezala** iruditzen zitzaion: gauza aundia iruditzen zi(tzai)on (G, O, KA).

- *harreman hauek gauza (balira) bezala azaltzen dira (GR).
- *ospakizunen **hasikin bezala**, hementxe dugu aldizkaria: ospakizunen hasikin, hementxe dugu aldizkaria (GR), erregalotzat, liburua ekarri digu (O, IP, IN, ID), ementxe degu aldizkaria, billera orren emaitza (O), liburu au erregalo eman digu (O, ID), liburu au erregalo eman didate (S), liburu hau present ekarri dautzut (KA).
- *ez dugu **helburu bezala** literatura polita egitea: literatura ederra egitea zen aien asmoa (O), hemen xedea poesia egiten da (KA).
- *desagerturik gehienak ere **hildako bezala** eman behar ziren: iltzat utzi zituzten (O, KA), ill ustez utziztuzten (G).
- *Iruña **hiriburu bezala** aukeratuko nuke nik: Iruñea Euskalerriko burua egin bear degu (IP, IN, O, ID), ...hiriburu egin behar genuke (KA), Gasteiz Euskalerriko iriburua egin dute (IP, IN, O, ID, KA).
- *euskara batua hartu behar dugu hizkuntza **standard bezala**: euskara batua standartzat hartu beharra dago (GR), euskara batua ontzat artu bearra dago (ID, O, KA).
- *uko egin dio marxismoari, **ideario politikoa bezala**: ideario politikoa den aldetik (O, ID), ideario politikoa denaz bezanbatean (GR), hori politika denaz geroz, ez naiz sartzen (KA).
- *iraindua **bezala** sentitu zen: \nearrow **sentitu**.
- *haren aitortpena zerbait **irrigarri bezala** hartu zuten: oso parregarriztat artu zuten aren esan (O). etzuten aintzat artu (G), harek erranak ez ditu onartu (KA).
- ***itzultzaile bezala** lan egiten du: itzultzaile da (EG, U, ID), merian itzultzaile da (KA).
- *gai **jartzaile bezala** ibiltzen da: gai jartzaile ura ibiltzen da Bizkaian (O), hori ar(it)zen da gei emaile (KA), gaia paratzen (G), gaia paratzen (G), gaia ifinten (IN).
- *Larreat gaskoina ere inoiz jarri dute **kideko bezala**: kidekotzat artu izan dute (GR), Miren Aingeru lagun artu dut eta mendira joan naiz (ID), adiskidetzat daukat ori (O), laguntzat hartu dut hori (KA), mendira joateko Pedro artu du laguntuko (S).

- ***jefe bezala** hura zegoen (= jefe balitz bezala, jefe ez izan arren): jefe ura zegoen (O, ID), jefe bera zan (IN), jefe ura zen (IP, G), jefe arek egiten zuen (O, S, ID), hori da buru (KA).
- ***Kritikari bezala** kontsideratzen ditugu: kritikalaritzat artu bear ditugu (O), erakasetzat hartu dugu (KA), maixotoko artu zaitut (S).
- ***laguntzaile bezala** hartu zuen: lan ura egiteko laguntzalle ura artu euen (IP, IN, ID, G, O, KA).
- *ez dut nik hau **lana bezala** kontsideratzen: ez dut nik hau lantzat artzen (O), ez dut nik au lanaz jotzen (G), hau enetako ez da lana (KA), hau zer da guretako? Ezta lana S.
- *hura **lehendakari bezala** aukeratu zuten: le(he)ndakari aukeratu zuten (O, ID, IP), buruzagi hautatu dute (KA). Joxeba izendatu zuten leendakari (O, IP), lehendakari ezarri dute (KA), Arkaitz egin zuten lehendakari (IN, ID, G, O, IP, S).
- ***lepokate bezala** oso polita zen \nearrow **bezala**: lepoko katerako oso polita (O), lepoan ezartzeko on da (KA), lepoko katetako oso ederra (AM, S, G).
- *hamar urte igaro zituen **maisua bezala**: amar ute egin zituen maisu (G), (pasatu) (S), amar urtez egondu zen maisu (G), errient (KA), amar urte egonda dago maisu (G), amar urtian eon zan maisu (O).
- ***misiolari bezala** egon da Afrikan (= balitz bezala): misiolari egon da Afrikan (AM, S, O, IP), misionest (KA).
- *urte hori **mugarri bezala** har genezake (= balitz bezala): mugarriztat ar genezake (O, ID), harri hau zedarritzat ezarriko dogu (KA).
- *gauza hauek **gauza normalena bezala** hartzen ditu: gauza oiek normalizat artzen ditu (O, ID, G, KA), ...ondoko ~ ongi artu (S).
- *lurra zuten ohe bezala: \nearrow **lurrean**.
- *«L'art pour l'art» dute **oinarri bezala**: oñarri artu dute (O, ID), oñarritzat artu dute (O, ID).
- *hotzaren **ondorio bezala** burutik beheitikoa izan zuen \nearrow (eztarria) **itxi**: otzagatik burutik berako edarra arrapatu nun (O,

- ID), (burutik betikoa) (G), hotzarengatik ~ hozturik marranta bildu dut (KA), oztu naiz pixkot eta marrantu naiz (S), hoztu nüzü eta marrantatu nüzü (LAR).
- *zapela hartu zuen, soldaduzko **oroipen bezala** gordetzeko: zapel ura soldaduxkako oroigarritako artu zun (G, O, ID), oroitzapentzat erosi dut hori (KA), oroitzoko (S).
- ***poeta bezala** zeukaten: poetatzat zeukaten (O), poetatzat hartzen dute (KA), bertsolaritoko daukete (S).
- ***poliziak bezala** aurkeztu zituzten beren buruak: poliziak zirala esan zuten (ID, G, MO), polizia itxuran agertu ziran (O).
- ***postrea bezala** turroia jan zuten: postre(a)n ~ postrea turroia jan zuten (O, G), desertako liraina ukan dugu (KA).
- *gizon horiek geure **salbatzaile bezala** ezagutzen ditugu: Liburu hau ezagutzen ditugu Canonico (LEIZ. Regeri Defen), gizon oiek gure salbatzalleak dirala badakigu (O), gizonok gure lagunak direzela badakigu (IN).
- ***seme bezala** hartu zuten: ume ordeko ekarri dute (U), semetako artu zuten (G), semetzako (O), eben umetoko artu dute (S), ondoko egin du (KA).
- ***pertsona susmagarri bezala** identifikatu zuten: errezelo txarra artu zioten (O, ID), errezelo txarra in nion (G), antz txarra artu neutson (IP), itxure txarra asmau neutsen (IN), mesfidatü nintzan (LAR), mesfida hori! (LAR).
- ***txofer bezala** hartu zuen: txofertako hartu zuen (G, KA), txofer artu zuan (U, O), ua zeukan txofer (O), txofer zebillan (O), urthe bat gehiago eduki baitzuen etxean konseillaria (AX 199).
- ***unide bezala**, izeba aritu zen: unide, izeba ibili zen (O, ID).
- ***zerbitzari bezala** lan egiten zuen: zerbitzari zen (G, O, KA), aren lana zerbitzea zan (O), zerbitzen ibiltzen zan (O), guztiek Kristoren zerbitzari ikus gaitzabela (KA). Kristoren zerbitzariak garela ikusi dezabela (O), hori ostatuetan zerbitzari erabiltzen da (KA, S).
- *zoro bat bezala erabili zuten: erotzat artu zuten (U, G, O), zozotzat (KA).

- *hiri berdineko bi emisora desberdinen **zuzendari bezala** aukeratu dute: hiriko bi emisoren zuzendari aukeratu debe (O), ...egin dute (G, O), hiriko bi irratien buruzagi izendatu dute (KA).

BEZALA / BEZALAKOA

- *Manu zen **bezala** azaltzen zen: zen bezalako azaltzen zen (G, O, U), (agertu) (KA).
- *atzo bezala egualdia da gaur: atzo bezalako egualdia da gaur (G, O, U), atzoko bezelako egualdia (G), atzokoa bezelako egualdia egingo balu, obe (O), negia bezalakorik ezta gozoki lo egiteko (LAN, AL), atzo iduriko ~ bezalako aroa da egun (KA).
- *Euskal herria ez da **Catalunya bezala**: bezalako (G, O), Manu ezta ni bezalako (U, AM, KA), ez dut ene denboran hori bezalako gazterik ikusi (ITS).
- *liburu hori **ikasteko bezala** da: liburu ori ikasteko modukoa da (G, O, IP), (ikisteko) (IN).
- *goxoki horiek niri gustatzen zaizkidaten **bezala** dira: bezalakoak dira (S, G, AM, O), nehun ez bezalako azturak (LAN).
- *baserria ez da **kalea bezala**: bezalako (G, O, ID, IN, KA).
- *zergatik aukeratu du **Urgain bezala** leku bat?: zergatik aukeratu du Urgain bezalako lekua? (O, ID), zendako hautatu du Aiherra bezalako herri bat? (KA), zertaz joan ote da Sunbilla bezalako erri batetik? (S).
- *ene haur ezpaita zurea **bezala** (AX 10) (= den bezala), zurea bezalako (O, G, IB, KA), neria ezta zuria bezalako (S), nire semea ez da zuria langoa ~ modukoa (IN).
- *hartan da ageri etzarella hek bezala (AX 291) (= hek diren bezala): zu ez zera aiek bezalako (U, O, IP, ID, KA, S), aien modukoa (IN, ID).
- como éste es tu deseo, lo haré ■ zure gogoa den **BEZALA**, egingo dut: zure gogoa denezkero, egingo dut (IP, O, ID), zure gogoa dalako... (IN, ID), zure nahikaria baita, hola eginen dogu (KA), zure gogoa ola baldinbada, egiten dut (S).
- lehenago **ikus** dugun **BEZALA**, oso jatorrak dira (G) ~ lenago ikusi dugun bezala ikusten dugu orain ere (IP), moduen (IN), lena-

go ere ikusi dugu oso jatorrak dirala (O, ID), lenago ikusi dugunez, oso jatorrak dira (O, ID), lenago ikusi dogun moduan eztozu oin ikusiko (IN), ikusten dudanez, oso jatora zara (IN), ikusten detanez, oso jatorra zara (O, ID), ikusi dutanen arabera, pentsatzen dut gauza ona dela (KA).

Santi Onaindiak esaten digun **BEZALA**, idazle ona zen: orrek esan duen bezelaxe egingo dot (U), moduen (IN), Onaindiak esaten digunez, idazle ona zan (O, ID), orrek esan dun bezela egingo dot neuk ere (ID), idazle ona zela Onaindiak ere esaten digu (G, ID), (horrek erran bezala) (KA).

orain nik ez **BEZALA**, gizon ona jarraitzen du hark: ura oraindik ere zintzoa da; ni ez (IP, IN), (orai ere) (KA), ona da ua, ni ez bezalakoa (O, ID).

BEREIZ: hori **BEZALAKOA** / horrek **bezala** / **era**: 1. zuk ere hori bezalakoa egin duzu (= horren antzeko zerbaite) (O, ID, KA), horren modukoa (IN), holakoa (G, S). 2. zuk ere horrek bezala egin duzu (G, S), horren moduen in dozu (IN).

BEREIZ: a. egiten zuten **BEZALA** saltzen zuten / (= ezertxo ere aldatu gabe). b. egin **ala** saltzen zuten (IP, IN, ID, O, S) / **arau**, egin arau saltzen zuten (ITS, KA) / egin ahal bezenbat saltzen dugu (KA).

baserritarren **BEZALAKO** euskalduna: baserritarrek bezalako euskalduna (G, O, ID, KA).

gurea ohitura **BEZALAKOA** da: gurea oitura bezala da (= ohitura balitz bezala) (G, O), hori ere usaia bat da (KA).

ez ditu sagarrak **BEZANBAT** udariak / (sagarrak) **hainbeste**.

BIDAIA on! (AL), ongi ibilli! (AM, IN, U, O), piari on! (KA), ongi pasatu! (AM), izan untsa. Bidaia hun! (LAR).

begirada maliziatu bat **BIDALI** zion / (begirada) **bota**.

lan bat **BIDALI** digu maisuak biharko: lan bat egiteko eginu digu (O, ID), (duzku) (IP, IN, G), lana eman digu (O, ID), mandatu ori eman dakit (U), ori egiteko enkaru eman dio (AM, G), lan ori egiteko banatu dio (S), errientak erran dauku lan hori egiteko (KA).

jo eta **lurrera BIDALI** zuen: jo eta lurrera bota zuen (O, G, S, IN, EL).

lana argitaratzera **BIDALI** nuen (U, EL) ~ / **agindu** / **ahaztu** / **saiatu** / **utzi**: argitaratzeko (G, O, IP), lan hori egiaterat igorri zuen (KA), argitaratzen (IN), Zu bialdu biar cenduqueez basuen azterrenak ateraten (PA).

eskutitza BIDALI zion Rakeli: karta egin zion (O, G, IB), eskutitza idatzi zion (GR), letra bat iskiriatu dakot (KA), letra bat igorri dakot (KA).

BIDEA itxi = *cerrar el camino* / bidea ebaki = *abrir camino* / **itxi** / **ebaki**. 1. bidea hetsia da (KA). 2. bidea egin (KA).

A medio camino, sin llegar al final ■ **erdi BIDEAN** (O), nekatu eta bide erditik buelta egin zuen (S), nekatu eta erdi bidetik bueltatu zan (O), bide erdi(ra)ño joan eta atzera etorri zen (G, IN), erdi bideraño joan eta atzera egin zuen (O), bideain erditsutik itzuli zen (AM), einherik beitzen, biderditik ützüli zen (AL), Hernioara abiatu eta erdi bidean gelditu zen (O), bide erdian gelditu zen (S, G), biderdien buelta ioan (IN), bide erdian gizona atera zitzaion (ID, G), bidain erditsuan (AM), biderdien urten (IN), biderditan otoa eküratü zen (AL), biderditan otoa gelditu zen (ITS, KA), biderdian gelditu zen (Bilbora iritsi gabe) (IN, S, G, AM, O), bidatz erditan gelditzen direla (azkenera iritsi gabe) (AX 76).

en mitad del camino, en medio de la carretera: **BIDEAREN** erdi **erdian** (O, G), bide erdian gelditu zen (ITS, S, G, O, IP), bidez erditan utzi zuten (AM), bideain erdi erdian gelditu zen (AM, O, G), bide erdi erdian gelditu zen (IN, U, IP), bidearen erditan (AL), bidearen erdi erdian gelditu da (KA).

etxeko **BIDEAN**, etxera bidean, etxerako bidean / **-rako**.

Nafarroa Gipuzkoa baino bost **BIDER** handiago da / **doblea**.

por medio de pequeñas expediciones deshicion al enemigo ■ ezpedizio txikien **BIDEZ**, etsaia erabat desegin zuten ~ erasoaldi ttiekiez (GR), eraso txikiakin (O), borroka tipi zonbeit eginez, etsaia garaitu zuen (KA).

BIGARREN alkatea = lehen beste bat izan

da / alkate bigarrena = *teniente alcalde*: alkate bigarrena (G, O), erretorea(re)n urrengo eiten duna (O) ~ erretore bigarrena (O), Intxaurbeko bigarren neskea Irune da (IN), Kortazubiko bigarren mutilla (G), etxe ortako bigarren anaia (AM), eguarrin bigarrenez il zan (O), eguerri bigarrenin il zen (S, G), eguerri biaramunin il zen (S, G, AM), ezta bigarrenean alde egin zuten (O). anaietan Mattin **BIGARRENGOA** da: bigarrena da (O, G, S, AL, AM, IP, EL, KA).

BIHAR hori egingo zuela pentsatu zuen: biharamunean (O, G, S), bihar egingen dut (LAN, KA).

BIHAR pasatuta, etorri: biarko pas(a)tuta etorri gilat (= gibelerat) (AM), biarkoa pasatuta eta igandean etorriko da (S), etzidamu jinen da (KA).

BIHARAMUNEAN, igandean, Amezkoara joan zen: biharamunean, igandea zen eta Amezkoara joan zen (O, ID, G), hurrengo eguna ~ egunean, igandea zan eta Itziarreara joan zan (O, G, ID), datorren igandean, illak 28, billera izango da (O), illak 28 (ogei ta zortzi), igandea, bilera izango da (O), biharamunean, igandearrekin, mendira joan zen (KA, S).

el día siguiente al que visitó a su amigo... ■ laguna bisitatu zuen egunaren **BIHARAMUNEAN**...: lagunari bisita egin eta bi(h)aramunean... (O, ID, KA, S).

bero(tu), Jauna, gure **BIHOTZA!** / **buruak**, buruok: berotzazu, Jauna, gure bihotzak (KA), gure bihotzak hire egiazki bilhatzera dispausatuta (LEIZ. Heus Her.), alaitu, Jauna, gure biotzak (IP, O, ID).

BIHUR gaitezen lehen **galderari**: bueltatu gitezen le(he)ngo galderara (G), berriz ere asi gaitezen lenengo galderatik (O), itzul gaitezen ostiko galderarat (KA).

katua **tzakurrean BIHURTU** zen: katua zakur bi(h)urtu zen (G, O), ura arno bilakatu zen (KA), Jesukristok ura arno bilakarazi zien (LAN), Jesusek ura ardo biurtu euen (IP, IN, ID), etxea khe eta erhauts bilhatü zen (AL), Jaungoikoa gizon egin zen (S), burregoi bilhakatu zen (ITS).

horri esker olerki eder **batean BIHURTU** zen:

olerki ederra biurtu zen (G, ID), gure alhorrak khaparstoi bilhatü dira (AL).

gizon dirudun **batetan BIHURTU** da: aberastu egin da (IN, O, ID, KA, S), gizon aberastu egin (IP, O), aberats bilakatu da (KA), lehenagoko oihan eder batzü, egün soho bilhatü dira (AL), haren khorpitzu erhauts bilhatü zen (AL).

se han convertido en famosos ■ ezagunak **BIHURTU** dira: oso ezagunak ein dira (O, G, S, KA).

ideiak ekintzetan **BIHURTZEKO** garaia da / **praktikara**: ideak utzi eta egintzetara biurtzeko garaia da (O), ideetatik egintzetara aldatzeko garaia da (O), eleak utzirik burura dezagun lana (KA).

compras que se vuelven gratis ■ **dohan BIHURTZEN** diren erosketak: eros ezazu bainan dohan (EL), dohainik egiten diren erosketak (GR), dohan egiten diren erosketak (EL), erosi ezazu dohan (EL).

gero eta ederrago **BIHURTU** zen: egin zen (G, S), gero baino gero ederrago egiten ari da (O), gero ta ederrago dohaie (S), joanago eta ederrago (KA), geroago eta ederrago (IN).

horrek ez du inor **BIJILATZEN** / (ardura)-**pean**: ez dio inori kargurik artzen (O), ez da zelatan egoten (O), orrekin kontuz ibili (S), orreri begitu (egin) bear zaio (S), barrandan egoiten da (KA), barrandan eman zen (LAN), goaitan nago (= zelatan) (LAN), bortatik kukuzkatü zian (AL), ate müstatü (AL).

han agertu zen **BIKO** gaztea: bikote gazte bat agertu zen (O), bi gazte agertu ziran (O, G, KA).

éste es mi pareja ■ hau da nire **BIKOTEA**: au da nire pilotako laguna (S, G, O), pilotari laguna (KA).

zakurraren **BILA** joan ziren ~ txakur billa (O, ID), lan billa dabil (G, O), zakur billa (G), zakur erostera (G), ardi eske gan da (AM), onddon xerka joan dira (AL), (xeka) (KA, LAN, LAR), perretxikun billa (G), txakurran topetan jua da (IP), txakur topetan (IN), pusken txerka joaiten ginen (LAN).

zure **BILA** ari da / **ari** (andregaiaren).

*senar lapurtua amorantea **BILAKATU** zuen: egin zuen (AL, ITS, LAN, KA).

lagunak lasaiago **BILAKATU** zuen neskatxa / **bihurtu**: lagunak lasaitu egin zuen neskatxa (O, ID), lagunak trankildu euen (IP, S), amak semea kalmearazi zuen (KA).

BILATU (bilhatu) / **bihurtu**.

diru horren **BILATZEAN** ez dut etsiko: diru orri billatu arte ez dut etsiko (G, O), diru ori topetan (IN), sos hori atxeman, bildu arte ez dut etsituko (KA).

gera **BILATZEN** ari dira / **ari** (bila) / **probokatzaille**.

ahaideekin **BILDU** zen ~ ahaideetara bildu zen (ITS, KA), senidetara, bere familiara bildu zen (G, O, S), untzi batera biltzen da (LAN), igandetan elkarrengana biltzen dira (LAN).

alli se reunieron ■ han **BILDU** ziren ~ an bildu ziren alkarrekin (O), ardiak eta arik alkargana bildu zitun (G, O, S), an bildu ziran alkarrengana (ID), oro algarretarat biltzen ziren (AL), hamabi iaun elgarretara bildu ziren (ITS), auzo guziak elkarretarat bildurik artho xuritzen (ITS, KA).

eliza politikari **BILDU** nahi diote: eliza politikari lotu nai diote (O), (estekatu) (KA).

egun **BINA** joaten da etxera / **bakoitzean**: egun biz bat (O), bi egunetik behin (G, S), egun birik bat (IN), egun betetik bertzean (AM), bi egunetik etortzen da etxera (U), egun biripein bat (IP), egun bat arte pasatzen niz (KA).

eskallera **BINAKA** jetsi zitun (G) ~ / **jaitsi** (eskallera): binen binen bajau zituen (IN), binaka igo zituen (G), eskillarak biñaka pasau zitun (O, U), biraka biraka, iruka, pasatzen ditut (S), eskallera bidenazka pas(a)ten ttu (AM) irunazka (AM), lauak batean (AM), zurbiaren mailak biranazka pasatzen ditut (KA).

zatoz niri **BISITA** egitera ~ ni ikustera (G, O, ID), doi doa eriari agerraldi bat egin dako (KA).

BISTA ona eduki behar da merke erosteko: ezauegia bear da (AM), begi ona (S, G, O, KA).

BISTA handikoa da hori: ezaupen aundikoa da (S), (e)zauegi aundikoa da (AM).

BISTAKOA dago (O), ~ / **jakiten** zen.

ez zaitut **BISTAN** ikusi nahi: etzaitut ikusi nai (O), etzaitut begien aurrean ikusi nahi (O), zoazte begien bixtatik (ITS, KA), habil hemendik, ohakit bixtatik (ITS), onera ez azaldu berriz gero (O, G), onera ez gero berriz azaldu (G), ez zaiela sekulan geiago agertu (AM).

BISTAZ bakarrik ezagutzen nuen / **fisikoki** (ezagutzen).

horrenbeste eginkizunen **BITARTEAN**, otoitz egiteko astirik ateratzen zuen: horrenbeste eginkizunen artean... (O, ID), ainbeste eginkizun dauko eta ortik ziar doia (IP, IN), lan anitz izan(a)gatik, leitzeko denbora hartzen du (KA, S).

mientras que yo era gorda, ella era delgada ■

ni lodi nintzen **BITARTEAN**, bera argal zen: ni lodia naiz; bera, ordea, argala (O), (gizena) (ID), ni gizena nago; aura, oster, argala (EL), ni gizen niz; hura aldiz mehe (KA, AL), ni gizena naiz; bestia, oster, meia (IP), makala (IN), aren aldean lodia naiz ni (S).

Burgos **BITARTEAN** ez nintzen egarri izan (S, G) ~ Burgosa bitartean (O), Burgos artean (ID), Burgosera bitartean (S), Elizondo artean ongi zaien kotxea (AM), Hasparnerat arte (KA), Elgoibartik Eibarrera bitartean (O), Goizuetatik Leitza bitartean (G), Unanuara bitartean negarrez fan zan (U, O), Ibarrik Arrasatera bidean galdu jakon karteria (IP, IN).

eguerdi arte ~ eguerdira arte ~ eguerdira **BITARTEAN** / **arte**.

trabajaba de las cuatro a las ocho ■ lauetatik zortzitarra **BITARTEAN** lan egiten ~ / **arte**.

mutil **BIZAR** aundia (G, O) ~ / **dun**.

faire la barbe, afeitarse ■ **BIZARRA** egin: bizarra kendu (G, AM, U).

lau urtez **BIZI** zen Parisen / **urte**.

BIZI da ~ bizitzen da / **maite**: orain Bilbon bizi da (IP, IN, O, ID, EL, KA, S), orain Bilbaon bizitzen da (G, S), non da... giristino bezala bizitzen denik? (AX 93), bizitzen ez diren jentilak (AX).

BIZI da / bizia da / bizirik da / **gaixorik**. horren ama Arantzan **BIZI** da (ITS) ~ / **falta**, iduritu: ama Arantzan bizi du (O, G), eztut bizi ez aitari ez amarik (O, G), eztut bizi aita eta amaik (AM).

BIZIDUNAK / BIZIGABEAK: Bizidunak taldean daudenean, bizigabeak bezala deklinatu ohi dira sarri. Leizarragak eta Axularrek singularrean ere maiztxo. **1.** alabetera joan da bizitzera (O, G), alabetan ori da gazteena (EG, IB), alabetarik bat (IB, IN), arditara noa (G, S, ID, O, AL), ardiatarat noa (LAN, KA, IN), ardiketa (bila) (KA), kabaletan anitz irabazten dugu (AL), lagunatarat behar dut itzuli (ITS, AL, LAR), igandeetan neskatxetara joaten gara (G), neskatara joan da (O), nesxatara (S), aita satoretan ari da (AM), ene lau semetarik hiru Ameriketarat joan ziren (LAN), bere xaharretarat itzuli ziren (ITS, KA), erreteretan aiphatuena (LAN), emaztetan, probetan, ainguruetan (AX), bekatoretara (AX), amonantetara edo emaztetara (AX 232), kofesoretara (AX) zuetan, zuetara (LEIZ). **2.** Ezta malzarik eta ez pensu gaiztorik, **presuna alferrean** ediren eztekeienik (AX 25), benedikatuak izanen dituk hitan gende guziak (LEIZ. Gal 3,8), Alegera zaitzte Jaunean (LEIZ. Phil 4,4), medikurat noa (LAN). **3.** alabakana joan da biziten (IP, IN).

BIZI / BIZITZE

HERIO / HERIOTZE

BIZI / BIZITZE: biok nahasi egiten dira, *herio* eta *heriotze* bezala.

Bizi: *bizitzeari* jarkitzen zaio, *herioa heriotzeari* bezala. *Bizi*: bizirik egoteari loturik dago, bizidun izateari. Kontrarioa *herio* du.

Bizitze: bizi-aldia, bizi-modua, nolakotasuna adierazten du. Kontrario *heriotze* du. Izenlagun ondotik eskuarki *bizitze* hobekixe letorke. Sunbillatik Nafarroa Beheraino *bizitze* bakantxeago erabiltzen dute.

***1.** resusztatutua baikara bizitze berritara (LEIZ. Hamar Man), bizimodu berria asi

dau (IP, IN, O, ID), bizimodu berriari ekin dio (ID). **2.** bizi berria hasi du (S, KA).

***1.** bizitza txarra utzi ta onari ekin zion (O), bizitza txarra utzi ta onera aldatu zen (G), anartino bizitza arrunxka eramanzian (AL, LAR), bizitze gaixto iragana (AX 113), beste bizimodu barri bateri gatu-tso (IN), bizimodu berri bat hasi du (G). **2.** bizi txarra utzi eta bizi onarekin hasi (S, KA), bizi berria asi bear dugu (S).

***bizia** garratza da: **1.** bizitza gogorra da (IN, O, ID), orren bizimodua gogorra da (O), bizimodu ona du (AM, G, U, IP). **2.** gure bizia bortitza da (KA), bizi gogorra ~ latza darame (S).

*horrek bere **bizimodua** egiten du / **airera** (bizi da).

***bizitza** maila hobea lortzeko: **1.** bizimodu erosoago izateko (O), bizimodu arraxagoa izateko (G), bizimodu ohea deuku (IN), orren bizimodua eztakit gustatzen (U), **2.** bizi hobea du orain (KA).

*egunero **sainduen biziak** irakurtzen zituzten: sainduen bizitza (IN, O, ID, G), bizitzeari darraika heriotzea (AX 143), ixtorio hori sainduen bizitzetarik atheratua omen da (ITS).

*zeure **biziaz** kanpo ez duzu deusetan pentsatzen / **aparte**: zeure bizitzaz kanpo (ID), zure bizitzatik kanpora (O), jokoa beste ametsik ez du orrek (G), jokoa besterik ez du pentsatzen (G).

*ez dago nigar gabeko bizirik (KA, S), ez da nigar gabeko bizitzerik (bizimodurik) (G, O), eztao negar bako bizitzarik (IN).

*borreroak ezpataz **bizitza kendu** zion: **a.** bizia kendu zion (G, IN, O, ID, KA), hori eginez gero, bizia salbu duzu (ITS). **b.** nik zertako dut bizia bizipidea kentzen badidate (G, O).

*Jesuskek esan zuen: ni naiz **bizitza** eta egia: ni naiz bizia eta egia (KA, G, O, IN).

*Jesuskristok bere **bizitza** gure alde eman zuen: bere bizia (O, G, U), guregatik bizia eman zuen (AX 88), (guretzat) (KA).

***bizitza galtzea** kondenatu zuten / **herio**: bizia galtzera (IP, IN, ID, S), kondenatu dela biziaren galtzera (AX 38), bere bizia gorde nai duanak, galdu egingo du (O),

zertarako nai det bizia bizipidea kentzen badidate (O, G), bizia kendu zioten (O, IN, G), heriotara eman (LEIZ), hiltzerat kondenuatu zuten (KA).

*milioi bat **gizonen bizitzek** ez dute garrantzirik: biziak (IN, O, ID, G, KA), horren biziak ez du deus balio (KA, S).

Partidoa **BIZITZEN** ari den egoera txarra da / **egoera**: egoera larrian dago (G, O), kinka txarrean da (KA), larri samar dago (O, S), gaizki dago (O, S).

BEREIZ: 1. **BIZKAIAREN** nortasuna handia da Euskal Herri osoan / 2. Bizkai-ko jendea oso ondo egiten du euskaraz / -ko.

jaka **BIZKARREAN** ipinita joan zen: 1. bizkarrean artuta (O, U, AM), txamarra bizkartik artuta (S), bizkarretik zintzilika (O), bizkarretik artuta (O), bizkarrean zintzilika (O), jakea lepotik dauela (IN), jakia sorbal-dara botata dioa (G), paltoa bizkarrean joan da (KA), egurra bizkarka atera du (G), lepoan (IN). 2. gure bizkar bizi da (KA), gure lepotik bizi da (O, G).

egurra **BIZKARREZ** eraman zuten: egur oiek danak lepaka atereak dira (O). lepaka bat egur eraman zuen (O), burusaria bizkarrean gan (AM), lepaka zebiltzan egurretan (O), otarra bizkarrean eraman zuen (O, U, IP), bizkarrean karga artuta joan da (O), bizkarka karga eraman (O), egurrak bizkarka bilduak dira (O, S, G), soinka (S), lepasaskia bizkarrean artuta (ID), bizkarka eraman zian olnalat (AL, KA), mokorrean karga hartuta zijean (O), soinburuan zama eraman (AM), egurra soinka eraman (AM, S), soinean gauzak ekarri (AM), egurra bizkarka atera du (G), lepoan (IN), zaku patata lepagañean artuta zihoan (O), karga lepagañean zuela zihoan (O), zaku patata sorbaldean artuta eraman zuen (O), zaku papata bizkarrean gan zuen (AM, G, S), bizkarrean jun (LAR).

irratia **BOLUMENA** galduz doa: gero eta gutxiago entzuten da irratia (O, KA), joanago eta gutxiago (KA), soinuua gero ta gutxiago aitzen da (G, O, S).

BORONDATE onez egin nion ~ / **onetan** (hitz egingo).

BORONDATE txarrez esan nion (O), ~ / **txarretan**.

BORROKA batzuk egin zituzten ~ noiz edo noiz borrokarik egin ere bai (O), noizpeite borrokaren bat egin zuten (G, O), mutilak itsatsi egin dira (G), elkar itsatsiak ibili dituk (G), borrokan ibilli dira (G).

bere buruarekin **BORROKATZEN** zen: bere buruarekin borrokan ari zen (KA), bere buruarekin karrakillaka dabil (S), buruarekin aserretu egiten zen (G, O), bere buruarekin aserretuta ibiltzen da (O), bere buruarekin kekatzen da (KA), bere baitan kekatzen da (KA), bere burundako aserre da (S), bere burueguz asarratuta dago (IN).

BORTXARIK ezaren alde gaude: bortxaren kontra (GR), bortizkeriaren kontra (KA), paken alde gaude (G, O).

BOTA: mugaz haruzkaldean honuzkaldean baino bakanago erabiltzen dute hitz hau. Maiztxo gure *bota*-ren ordez *egotzi* erabiltzen dute: madarikazioak botatzen (O, G, ID, KA), madarikazio egozten (AX), a ze mingain zikiña ~ itsusia dun; maldizioak botatzen ditu (S), horrek madizone egiten du (LAR).

BOTA: Nafarroako zenbait eskualdetan eta mugaz bestaldean *bota* eta intransitiboa = erori. *Jautsi*, berriz = jautsi, jetsi. Bizkaieraz *jautsi* = erori: kontuz, botako zara! (AM, S, U, ITS, LAN, AL), Xabierto, jautsi ortikan! (S, AM, ITS), Xabierto jautsi egin da eta min artu deu (IB, EL).

BOTA / jaurti / **jaurti**.

BOTA: huts asko egiten da aditz honekin.

vota a los abertzales* ■ **bota abertzaleei: botoa abertzalei eman (O, ID), eman boza abertzaler (KA).

*behiak **adarkada** bat **bota** zion: beiak adarka egin zion (G, ID), adarkada bat eman zion (O), ardar ukaldi bat eman dako (KA, LAN), topeka in eutson (IN), adarkaldi bat eman zeion (AL), beiak adarka eman zidan (S), behia jokatu zaio (AM), kasu, bei oi jokatzeko da (AM), kasu behi horri; jokatzeko da (AM), dalka ein dit (U).

se ha echado una novia muy bonita* ■ **andregaia oso polita **bota** du: 1. andregai

egin ~ billatu du (O, G), emaztegia badu (KA). 2. oso andre polita artu du (G, O) / **emazte**.

***artilariari botatzen** hasteko egindu zion: tiroka asteko agindu zion (O, G), artilleriakin, kañoiakin ti(ra)tzen asteko agindu zun (G), tiroa tira zezan erran zakon (KA).

se echó atrás en el asiento* ■ eserlekuan atzera **bota zen: a. gorputza atzera bota zuen (G, O), gorputza gibelka eman zuen (KA). b. kaderan gileko aldera bota zen (AM) = *se cayó hacia atrás*, gilen gañera bota zen (AM).

le eché el ojo a aquel perro* ■ **begia **bota** nion zakur hari: begiz jo nun zakur ura (G, O), nik segidun eman nion begi bei areri (S), begiztaun in noan (IN), begiztaute deukot (IN), begiztatua dut behi hori (KA).

***begirada** bat **bota** zion Itziarri: so laster bat egin zeion (AL), behako bat egin nakon (KA), begitu bat egin nin (G), begiratu bat egin nion (O, U), begitza bat eman nion (S), begirátze bat egin nion (AM), begiraldi bat in zion (AM), begiratze bat egin zion (U), begitu faltsoa egin zion (G), begitu itsusia egin zion (G), azpibegiratu ~ begiratu faltsoa ein zion (O), bere azpibegiratu orrekin, merrajo marrajo jarrita (O), begi-kolpe bat in zion (AM), begira tua ~ begirasun gogorra egin zion (O), begitu txarra egin zion (G), egin zidan begitze bat, txarrragoa! (S), begirikunea i eutson (IN).

***erregek dei** bat **bota** zuen: erregek dei egin zuen (IP, O, ID), geitu iutsien (IN).

***ersturatan dogoenari eskua bota**: estutasunean dagonari lagun in bear jako (IN), bearren daonari lagundi (G), larrialdian dagoenari eskua luzatu (O, IP, ID, G), lagünt nezazü (AL), heda iazozu zeure eskua probeari (AX 159), kinka txarrean dagoena behar da lagundu (KA).

***eztenkada** ederra **bota** zion: eztenkada ederra eman zion (G, O), ongi eztendu zuen (S), behiari akulu xixta eman dakot (KA).

echaba en falta a los hijos* ■ semeak **faltan **botatzen** zituen / **faltan** (botatzen).

***bota** al diozu gatza? ~ gatza emanda dago (O, IN, S, KA), gatza inda dago (IN),

katza emana do; mane(a)tua do (G), azukra emana dago (AM, S, G).

***gogorrek bota** zizkion: gogorrek esan zozkon (U, O), izugarriak erran zizkion (S), andiak esan (IN), ederrak esan (G), ele bortitzak erran zazkon (KA), zernai erran zion (AM), gogorrek erran zition (AM).

***harria bota** zuen / **jaurti**.

***Peruk hasperen** bat **bota** zuen: hasperen egin zuen (AL), antsia in zun (G, O), antsi-ka zion (G, O), antsi-ka ai da (G), badu non-bait ere ezbeharra; atsankaka ari da (S), hats-beherapen handi bat eginik (AX 218), hats beherapen egiten (AX 38), hats handia egin zuen (KA), ein ditu antsi ederrak (O), arkumaka ari da (S, AM).

***zeintzu hitz bota** dizkio?: ze itz esan dio (G, AM, ID), ze erran dakozu? (KA, S), bertsoa bota (O, G, IP), ze berba esan dau? IP.

***irribarre** bat **bota** zion: irribarre egin eutson (IN), parra murrizta in zion (G), erdiparrez dago (O), irri egin (AM, KA).

***izerdia botatzen** zuen / **izerdi** (patsetan): izerditu (egin) da (AM), izerdia ateratzen zitzaion (O), izerdi lapa niz (AL), izerditü (AL), izerditan da (KA), onek ateratzen du izerdia (G, O), izerdi egotxi (AL).

***kakamokordo** ederrak **bota** zituen: ...egin zituen (O, ID), kaka egin (IB, EG, KA).

***Xalbadorri** hogeit **kilo botatzen** dizkiot: ogei bat kilo jotzen deutset (IN), egei kilo ematen dizkiot begira (G), zenbat kilo iten diozu? (AM), 50 kilo inguru jotzen dizkiot (O), eman nezazke 60 kilo (KA), nik begia ematen diot orreri, mundun goien ogei kilo (S).

***kolpe** bat **bota** zion / **kolpe**.

***oilarrak kukurruku bota** du / **kantatzen**.

***pronto se echaron al suelo** ■ laster **bota** **ziren** lurrera = *se cayeron* (S, ITS): tiroka asi eta laster bota zituzten beren buruak lurrera (O), laster lurreratu ziran (O), lurrera etzan zian (G), oean, oatzean etzan (G, AM, O), oean itxun zen (IN), lurrera bota zen (U), lurrera bota zuen bere burua (KA), lurreri bota zion bere burua (S), lurrin etzan zun bere burua (S).

***oihu** handia **bota** zen / **oihu**.

*ostikoa bota zion: ostikoa tiratu zion (G), ostikoa eman dako (KA), ostikada bat tira zion (= jo ez badu) (O), ostikada eman zion (jo egin zuen) (O), behiak ostiko eman dio (S), ostikoa tiratu zion (= animaliak) (ID) / ostikoa eman zion (= kristauak) (ID).

*partido bat bota behar dugu: pelota partida bat gaitza egin dugu (AL, KA, S), pelota partido ederra jokatu dugu (O, G, KA),

*prezioak bota egiten zituen: prezioak asko eratsi dituzte (O), prezioak asko merkau dira (O, AM, G, KA), gauzia merkatu egin da (IN).

*senargaia bota / andregai bota.

*oso sermoi ona bota zuen: oso sermoi ona egin zuen (O, IN, G, U, S, IP, ID), prediku arront ona egin du (AM, ITS), peredikia egin (AL), prediku ona egin du (KA), peredikatu (AL), apezak mintzaldi hunkigarria egin deie (AL).

*siesta bota du: egunero egiten zuen siesta (S, G, O, ID), bazkalondokoa egingo dut (AM, O), lo kuluxka egin dut (AM), lo kuxka bat egin (AL), pausa egin bear dut (LAN), etzanaldia egin behar zien (LAN), bazkalondoan lokumu bat egin dot (IP), bixae in biot (IP), lokustea egin du (ID), egun guziz loaldia egiten du (KA), bere pausaldia egin du (KA).

*tiroa bota zuen / tiroa.

*trago bat bota zuen / trago.

BOTAKA ~ goiti ~ gonbitxoka: 1. botaka egin det (O, ID), botaka jardun naiz (/ ihardun) (O), botaka ibili naiz (IN, O), botatzen aritu da (U). 2. gonbitxoka jardun du (EL), gonbitxoka ibilli da (IP), (gonbitoka) (ID). 3. goitikeka ai naiz (AM, S), goiti egin du (KA), gaba geiena goitika irago dut (G), goitika ari izan da (KA), bart gaben goitika aritu da (G, S), goitikaka botatzen ari da (AM), goitik bota du (AM), goitikan bota nituen barranean nituen guztiak (S), goiti bota du dena. 4. txala egin du (ID, O). 5. mandoa egiteko gogoa ematen du (goitik botatzeko) (G), mandoa egiten ari du: botaka (G).

BOTE txarra egin du / tenis.

BEREIZ 1. ardo botila (hutsik) = *une boutei-*

lle à vin; a wine bottle. 2. botila (bat) ardo (ardo duena) = *une bouteille de vin; a bottle of wine*.

pattar BOTILA hustu zuten (*Pattar botila* beti dago hutsik): botella bat koñak ustuzuten (G, O, U, S, KA), botella bat koñak eduan (IN), botila bat koñak üstü zian (AL), whisky botilak geratu ziren (G, AL, EL, AZ, ID) (hutsik), botillakada bat alkohol ustuzuen (O, G), botilla bat alkool ustuzuen (AM).

txanpan BOTILA bat erregalatu zion (= hutsik): botila bat xanpaña kado egin zeion (AL), botella bat txanpan erregalatu zion (G), txanpan botella bat patxaranez betea erregalatu zion (G), botella bat esne emaitera etortzen nindizin (LAN), botella bat esne edan zuen (O, ID, IB, EG), botillakada bat esne (IP), botilla bat pattar eran euen (IP, O, ID, G).

BOTILA bat xanpan urez bete zuten (*botila bat xanpan*: betea dago): Iru txanpan botilla urez bete zittun (G, O, KA), xanpaña botila bat urez beterik kado egin zeion (AL), iru txanpan botille urez bete zituezan (IN), txanpan botella bat patxaranez betea erregalatu zion (G, O, EG, IB).

le regaló una caja de botellas de coñac ■ **BOTILA koñak** kaja bat ekarri zuen / **tomate** (lata): kaja bat koñak eman zion (O, ID, G), (kesa) (KA, S), kajakada bat koñak ekarri euen (IP, IN).

ardo BOTILA erdi hustuta dago / **erdi** (hustuta).

ardo BOTILA bat edan zuen: bi botila ardo edan zituen (G, AL, KA), botella bat esneian (edan) du (U), bi botila txanpaña edan zituen (AL, G, LAN), botella bi txanpan edan zituen (G, O, IN), botella bat uiski edan zuten (G, U), botila bat whisky eman zeion (AL, G) (= beterik), zenbat botilla ardo edan ote zuten (O, G), botilla bat ardo goxo edan zuten (ID, EG), botella batzuk ardo goxo edan zituzten (EG, G), boeita bat ungentu (LEIZ. Luk 7,37), usain gozodun txapuneekin garbitu zuten (O, ID, G), botella bat kolonia bi egunetan gastatu zuten (G).

litroko **ardo BOTILA** edan zuen: litroko botilla ardo edan zun (G), litro bat ardo edan

zun (G), litroko botella bat bete ardo edan zun (O), botella sagardoa ekartzazu (O), pitxar bana ardo edan zuten (O), barrika bat ardo(re)n truke erosi zion zakurra (G).

ardo goxozko BOTILAK edan zituzten: botilla batzuk ardo goxo edan zituzten (EG, G, O, KA).

ireki **txanpaña BOTILAK** eta edan lasai!: botilla txanpañak edeki tuzte (AM, G, O, KA), botella txanpañak zabaldu dituzte (U).

ordia izkutuan sartu da **ardo BOTILAREKIN**: botilla ardaugaz sartu da (IN, IB, MO, EL), botilla ardoarekin (G, EG, ID, O, KA).

BOZA bajatu! / **bajoago!**

eztuzu... zer **BOZTURIK** (AX 95) ~ / **zer-gatik** (beldurtu).

hau **BRINDATU** egin behar dugu!: txintxin egin bear dugu (AR, S, G, KA), trinkatü (AL, KA).

BUELTA bat **emango** dugu: denek Baionako itzulia egin behar dute (LAN, KA), itzulia egin al duzu? (AM), ziberotarrek maite die harat üngürü baten egitia (AL), buelta bat egingo dugu, ia beiak nola dauden ikusteko (O).

Etorriko da. (Erantzuna) (A), **BUENO**: alere! (O).

BUENO, nozpait ere etorriko da!: noizbaitan orregatik etorriko da ori (O), noizbait, orregatik, etorriko da (IP), noznoz etorriko da (IN).

¿acabas de comer y pides comida?: **¡jaketik BUKATU** duzu eta jana eskatzen? / **-tetik** / **orain** (dela gutxi).

ezkontzekotan zeuden baina **BUKATU** dute / **-kiko**.

Vas por mal camino. ¡Esto tiene que acabar! ■ gaizki zoaz. Honek **BUKATU** behar du!: Gaizki zabilta! Nahikoa da (G, IN), aski da (G), au sobera da! gehiago olakorik ez (G), gaizki ari zira! Geldi zite! (KA), Bide txarretik zoaz. Au amaitxu ein bear da (EL, IB), geldizte mutikoa! Bide txarren zoazi! (S).

gaizto bazarete, **gaizki BUKATUKO** zarete: gaizki bazabiltzate, gaizki bukatuko duzute (G, U), orrela ez dezute ondo bukatuko (O), dabillen bideak arrapatuko du (O), okerrak bazarie, txarto akabauko zuen

(IN), gaizki akituko duzue (AM), hola segitzen balin baduzu, gaizki finituko zara (KA).

droga bi **BULARREN** arteko **zirituan** izkutatu zuen: bular erretenean (IN), petxu erretena (O), ipurdi erretena (IN, O), ipurdiko erreka (S, G), petxuko erreka (G), ipurdiko hozka (KA) bularreko hozka (KA).

elkar BULTZ egiten ari dira: alkarri bultzaka ari dira (G, O, ID), alkar bulketu (U), batek bertzea bulkatu zuten (S), alkarri bultzaka egin (G), alkarri bultzaka dabiz (IP), arkal indarka dabiz (IN).

atzean, Irantzu, mutilari **BULTZAKA** ari zaio: atzetik mutilari bultzaka ari ziztaion (O), gibeletik bulkaka ari de (AM), atzetik bultzaka ai zit (G), bultzakada bat egiña izan behar dio (= laguntza edo) (O).

BULTZATU ~ bulkatu eta bota niñun (S, A, M), bulkatu egin gaitu (U, AM), bultzatu (G), euskerari bultzaka ein (O), euskerari inder egin bear jako (IN), euskerari lagundu in bea jako (IN), bultzaka egin zidan (O, G), bultzaka al zizun? (O), ezidan bultzaka (O), aurra bulkatu du ta bota da (AM), Onekari bultzada bat egin erabakia artu dezan (O), bulkatzen gaitu ongi egitera (AX 272), bultzakaren bat egin omen dio (O), tunkako bat eman zion (LAN), bultzakatu alkarrena (O).

haitzur BURDINEZKOA zeukan ~ burdinezko aitzurra deuka (AM, O, KA), burriñezko atxurre (IN), burnizko anakak deuzka mahai horrek (G, S), bürdiñazko haitzürra (LAR).

BURLA egiten dio: maixiatzen ari zaio (O), gureatik maixiatzen ari da (O), guri maixiatzen ari da (O), maxia egiten dio (G), ez da maxirik egiten (G), irri zuri bat egin daut (KA), Zer, zare, nitaz trufatu nahia? (ITS, KA), irriz jokatzeko ditu (AX 358), irri zurietan ari da (ironie) (KA), gure bizkar barre egin dute (O, S), gure lepotik barre egin dute (IN), gure kontura barre egin dute (G), deabruak musikatzenteu, eskarniatzenteu (AX 358), ez dakit barre eiteouzkun ala ez (IP), ez dakit gutzaz parrez ari dan edo errukituta dagoan (O), eztakit ez ote dabillen guri parre egin nai (G), guri irri iten dakute (AM, S), eztakit ez ote zaigun

parrez ari (O, ID), ez dakit ez ote denez gutaz trufatzen gizon hori (KA).

se han dado luchas duras en Viet Nam □ **BURRUKALDI** gogorrik eman dira: Viet Namen \nearrow eman (kasurik).

BURU: aldia adierazteko \nearrow **barru**.

BURUA / **BURUAK**, **BURUOK**: Perpausa erreflexiboetan sujetoa plurala bada, ba dirudi *buruak*, *buruok* erabili behar litzatekeela.

*guk **geure burua** hondatzen dugu: guk **geure buruok** ondutzen ditugu (IP, EL), guk **gure buruak** ondutzen ditugu (AM, G, U), geauen buruk defenditu bear ditugu (U), euskaldunok **geure buruek** defenditu beoguz (IN), soldadudek beren buriak behar dituzte defendatu (LAN), gorde ditza-gun **geure buruok** (*Felix Bilbao: Ipuin barrera*), ene alderakotzat zordun edireiten badituzue zeuen buruok (AX 219), beraz, baldin **geure buruoz** kontu onik eman nahi badugu (AX 38), den sailduenak baino buruak gogorrigo dituztela (AX 213), mada-rikatzen dutela bere buruez (AX 378), ik-hus zitzatela bere buruak (AX 188), zeuen buruon etsaiak (AX 182), zeuron buruak enganutzen dituzuela (LEIZ. Jacq 1,22), zeuron buruen gainean egizue nigar (LEIZ. Luk 23,28), Zeuen buruon etsaiak, Iainkoagatik egin nahi ezpaduzue ere (AX 82), erakusten ditugularik gure buruak (LEIZ. Kor II, 6,4), Ezen ezgara benturatzen gure buruen bardin ezartera edo konparatzera bere buruak laudatzen dituzten batzuekin: baina ezte aditzen hek bere buruak bere buruekin neurtzen dituztela, eta bere buruak bere buruekin konparatzen dituztela (LEIZ. Kor II, 9,12), zaintzale deitzen tuzie zihauren büriak! (AL).

gizonari **BURUA** ebaki zioten \nearrow **ebaki**.

BEREIZ: **BURUA** garbitu dut (gorputzaren atala) / **neure** burua garbitu dut (xuritu). **a.** burua / **b.** bere burua (erreflexiboa).

a. orrek ez du burua asko nekatzen; dena eskuz egiten du (G, IP), pentsatzen ez du bururik asko nekatu (O, ID, G), pentsaketan ez du bururik hautsi (KA), «Besoak baino lehen, burua nekatu behar» (esaera), bururik ez tunak zagokin ibilli behar du (S), buruaren faltak ankak pagatu (O), besoak

baino lehenago buria ar(i)razi behar dugu (KA). **b.** ez du bere burua asko nekatzen (= alfer, lasai... da) (O, EL, G), ez du bere burua agitz nekatzen; lanari bueltak artzen dizkio (S), tankera artuko dio lanari (S), ez du bere burua estutuko (S), ez du bere buruaz arta hartzen (KA), orrek bere burua eztau asko estutuko (IN), agitz beartzen (S), bere buruari lan ederrak ematen dizkio (G).

BURUAK bueltak ematen dizkit \nearrow **mareo**.

koadroa libratu eta **BURUAN** jo zuen \nearrow **behera** (komuneko zulotik bota).

ez zait hori **BURUAN** sartzen \nearrow **burutik** (pasatu).

halaxe mantendu zuen astoa hiru egunen **BURUAN** \nearrow **mantendu**: hiru egunian (IN, O, U), iru egunez etzioten jatera eman (S), iru egune(a)n jaten eman gabe eduki zun (G), hiru egunez jatera eman gabe atxiki zuen astoa (KA).

bere **BURUAREKIN** hitz egiten du \nearrow **bakarrrik**.

BURUARI bueltak ematen ari naiz: gauzak ausnartzen ari naiz (O, ID), gauzak pentsatzen ari naiz (O, ID, G, S), gogoeta egiten ari naiz (AX), gogoetan ari naiz (KA), gauza bati buelta ta buelta nabil (IP), gauza batekin buelta ta buelta nabilla (G), pentsetan nao (IN).

zure BURUARI kalte egingo diozu: Axularrek, Leizarragak... eta egungo bizkaitarrek ere oso ongi erabiltzen dute erreflexiboa \nearrow **Altube: Erderismos** \nearrow **erreflexiboa**.

hori beti bere **BURUAZ** mintzo da: beti bere burua famatzen ari da (G, O), ori artobero usaia (O), ori beti bere(a)k aundi (G), aldetik ditu famak (G), bere buruz hartia (hartua) da (KA), orrek bere burua aundi egiten du (S).

bere **BURUESTIMA** handia zeukan \nearrow **ondo** (hartu).

Endika lanzó un buen cabezazo ■ **BURUKADA** ederra **jaurti** zuen: buruz oso ederki jo du (O, KA), burukin jo du (S), burukaldi bat eman du (AM), buruegaz jo dau (IN). zaratak **BURUKOMINA** sortu zidan \nearrow (buruko mina) **sortu**.

BURUKOMINAREKIN nago: burukominak nago (G, AM, S), burukominez nago (O, G, U), burukomin düt (AL, KA), buruko-

mina dauko (IN), burukominegaz nago (IN).

ura bota zioten **BURURA** \nearrow **behera** (komuneko zulotik).

ez dauka ez **hankarik** eta ez **BURURIK** \nearrow **sentidurik** (ez).

no se me ha pasado por la cabeza ■ ez zait **BURUTIK pasatu** \nearrow **buruan** (sartzen): nik ez dut burutan pasatu ere (S, G), neure burutik sekula etzat pasatu (IP), etzit gogoratu ere ori (G, KA), burutan neukan ori (O, EL), niri ori ez zait burutan sartzen (S), nik ere badaukat alako bat burutan (G), burutan ezin eman hari (LEIZ. Ap Ak 21,14).

BURUTIK dago (IN, S, U) ~ **bürütik** joanik da (AL), (joanda) (ID), (gaua) (AM, ITS), **bürütik** ments da (AL), **burutik** joana da (KA), **burutik** jarri da (U), **burutik** egiña dago (G, O, ID, EL), ezpada bere orrien ibiltzen, buruen badu falta (AM), adimendutik iauzia (AX), burua galdu (O), ardoak burua artu dio (O), **burutik** geratu zan (IP), **burutik** egin euen (IP), **burutik** egin zitzaion (O, G), **burutik** badu (AM), arrun erotu zen (G), adimendutik kanpoan izan (AX), **burutik** naasi zen (G, O, S), adimentutik erauzia izan (AX), **burutik** nagasi zen (AM).

hogeitamar gizonen **BURUTZAT nago**: ogetamar gizonen buru nago (O), zazpi gizonen buruzagi niz (KA).

Martinen **BURUZ** egin dute (S) = *influenciados por Martin* \nearrow **monagilo**.

-RI BURUZ: **ADIBIDEAK**: bihotz gehiago ukanen dute geroari buruz (ITS), meza saildua jender buruz emaiten da (LAN), neguari buruz hasi dira lanean (LAN), herriari buruz joanen gira (LAN, KA), etxeari buruz joanen gira (LAN, ITS, KA), etxerat buruz abaitu zen (ITS, AL), eguerdiari buruz joan ginen (LAN), mendiari buruz noa (LAN, AL), Maulerat **bürüz** joan ginen (AL), Altzaiarat **bürüz** goaz (AL), artzainek beren artaldeak Itsasuko alagietarat buruz laguntzen dituzte (ITS), bazkori buruz aurten ere kantaldi bat gaitza muntatu dute (ITS), hunarat buruz jin da (ITS), zuri buruz jin da (ITS), bizitze berri horri **bürüz** abiatzen dira (AL), Jinkuak daki zer lanak **tügün** ihautiari **bürüz** (AL), haurren

geroko segidari buruz ez dute deus antolamendurik egin (LAN), artha handirekin ari ziren bere lanari buruz gure gizonak (), ihautiari **bürüz** lan handiak **tügü** (AL).

BURUZ: hablaremos sobre el libro: \nearrow **-taz**: **liburuari buruz** hitzegingo dugu (mintzamolde hau berria da) (GR), Xalbador Garmendiaren liburuaz hitzegingo dugu (LEIZ. AX. eta zaharrak), hala erraiten da gaiztoez (AX).

-RI BURUZ ~ -tan gañen (AL) ~ -ren gañean (O, ID, KA) \nearrow **-taz**.

kritika, Peru Abarkari **BURUZ**, oso ona zen: Peru Abarkari buruzkoa (), Peru Abarkari buruzko kritika oso ona da ().

preguntó por su amigo □ lagunari **BURUZ** galdetu zuen \nearrow **galdetu**.

buruz behera \nearrow **aldapaz**.

zuri **BURUZKO** maitasuna handia da: zurekiko maitasuna (ID), zuri dizudan maitasuna aundia da (O, ID, G, S), zuretzat dutan maitasuna (KA).

arazo honetan erabat **BUSTI** da: nabarmendu da (U), ori danen artean nabarmentzen dena da (O), danen artean nabarmen geratu da (EL), erabat sartuta dabilla (G), mutil ori denan gaindik sartzen da (S), afera hortan arrunt sartua da (KA).

BUSTIDUR legeak \nearrow **kultur** \nearrow **fisik** \nearrow **itxitur**: bustidura legeak.

Nafarroan eta ekialdean mendebaleko eskualdetan baino sarriago **BUSTITZEN** dituzte hitzak.

ADIBIDEAK (bigarrena ttipientzat edo haurrei esana): aketz / aketx (S), apez / apex (G), aretxe / aretxe (S), beratz / beratx (S), beltz / beltx (G, S), biotz / biotx (G), jantzi / jantzi (G), neska / nixka (G), potzolo / potxolo (G, KA), zabal / txabal (G), zakur / txakur (G, KA), xakur (S), zamorro / xamorro (O), zapel / txapel (ID), zaraka / txaraka (S), xaraka (S), zezen / xexen (toriatzekoa) (G), zintzo / txintxo (EG, G), ziri / xiri (LAN, KA), ziroldu / xiroldu (G), zirriketan / xirriketan (zerrendatan) (S), zokor / txokor (G), zorroka (petxuko zarata) / xorroka (S, G), zorrotz / txorrotx (G), zozo (egaztia) / xoxo (kristaua) (LAN, KA), zuri / txuri (AM), zutik / txutik (G).

galduek zituen DAGOENeko etxeko diruak
 / orainez gero: galduek zituen ordurako
 (O).

DAMUTZEN naiz / pena.
 neskatala horrek ongi **DANTZATZEN** du:
 dantzan ongi egiten du (G, O), ondo jan-
 tzan ioan (IN), dantzari ederra da (O), ori
 ongi dantzatzen da (G, S, U, AM), neskatila
 hori ontsa dantzatzen düzü (AL), ba
 daki dantzatzen (AM), dantzan ibiltzen da
 (O, G, AM, S), dantzan dabile (S, U), dan-
 tzan ari da (ITS, AL, AM, AX, S, KA),
 etzarete dantzatu (LEIZ. Mat 11,17), hare-
 kilan ari izan zen dantzan (LAN).

bonbak zimentarriak DARDARA erazten di-
 tuzte ~, trumoiak etxeari dardara egin
 zion (O), bonbak itxeari dardara eman zin
 (G), bonbak etxea dardara baten itxi euen
 (IP), bonbak ereikerea in eutsen etzeari
 (IN), lur ikarak etxea ikarazi ~ dardarika-
 tu du (KA), etxe guzia dardaritu zun (S).

DATIBO: modu askotara egiten da datibo
 plurala Euskal Herrian. 1. SING. olloári
 (singular) (IN), polizieri (singular) (IN),
 txakurréri (singular) (IN), zakurrari (sin-
 gular) (G), andrrei (IP). 2. PLUR. ollóari
 (plural) (IN), polizieri (plural) (IN), txa-
 kurreri (plural) (IN), zakurrári (plural)
 (G), zakurreri (LAN, ITS, EL), zakurrei
 (AM, ID), zakurrai (O), zakurrer (ITS,
 LAN, AL, LAR), agur zier (AL), guzier
 (AL), txakhürrer orori (AL, LAN), andrai
 (IP).

DATIBO: mugaz bestaldean *nor-nori*, *nork-
 nori* maiz gaizki jokatzen da.

*aitak **amari** erranen **du:** aitak emari erra-
 nen dio.

*aita **amari** hurbilduko **da:** aita amari hur-
 bilduko zaio.

errege DABID ona zen: Dabid errege ona zen
 (GR), David patriarkaz (LEIZ. Ap 2,29).
ha venido el bandido DE tu amigo ■ zure **la-
 gunaren** lapur hori etorri da: zure lagun la-
 pur ori etorri da (IN, G, O), zure lagun
 ohoin hori jin da (KA).

arrantzua **DEBEKATUA** / **prohibitu.**
 irakaskintzara **DEDIKATUAK:** ikasteari
 emanak (ITS, KA), ikaskuntzari emanak
 dira (KA), erakusten jarduten dute (EL,
 O).

euskaraz DEFENDITZEKO adina ba dakigu
 / **menperatzen:** erderaz lardaskatzeko aña
 ba dakigu (O), saltsatzeko ainbeste (G),
 hitz bat edo beste badaki euskeraz (G),
 naasteko ainbeste ba dakigu (G), kiskun
 kaskun ari da erdaraz (KA), españula ere
 amiñi bat mastekatzen zian (LAN), erderaz
 ere lardaskatzen du pixkat (O), erderaz
 barballaka ari da (O), frantsesez ere al-une-
 la aritzen da (S), kiskillun maskillun fran-
 tsesez ere ari da (S), zapo erdera egiten du
 (O), kiskun kaskun ari da eleketa hori (S,
 KA), neketan ari da erdaraz (S), erdera la-
 prats pixkat badaki (O).

DEFENTSIBAN jarri ziren: asieran bai arro-
 keria ugari; gero ondo otsandu ziran (O),
 bere burua xuritzen hasi zen (KA), bere bu-
 rua garbitu nairik dabile (S).

DEFINITIBOKI hori egiten du: behin ta beti-
 ko (O, KA), alde bateko (KA).

birbiztutako **DEFUNTU** bat ematen zuen:
 badirudi ildakon bat azaldu zaizula (O),
 iduri du eta hil bat agertu dautzula (KA).

erregek **DEI** bat **bota** zuen / **bota** (dei).

D

galduek zituen DAGOENeko etxeko diruak
 / orainez gero: galduek zituen ordurako
 (O).

DAMUTZEN naiz / pena.
 neskatala horrek ongi **DANTZATZEN** du:
 dantzan ongi egiten du (G, O), ondo jan-
 tzan ioan (IN), dantzari ederra da (O), ori
 ongi dantzatzen da (G, S, U, AM), neskatila
 hori ontsa dantzatzen düzü (AL), ba
 daki dantzatzen (AM), dantzan ibiltzen da
 (O, G, AM, S), dantzan dabile (S, U), dan-
 tzan ari da (ITS, AL, AM, AX, S, KA),
 etzarete dantzatu (LEIZ. Mat 11,17), hare-
 kilan ari izan zen dantzan (LAN).

bonbak zimentarriak DARDARA erazten di-
 tuzte ~, trumoiak etxeari dardara egin
 zion (O), bonbak itxeari dardara eman zin
 (G), bonbak etxea dardara baten itxi euen
 (IP), bonbak ereikerea in eutsen etzeari
 (IN), lur ikarak etxea ikarazi ~ dardarika-
 tu du (KA), etxe guzia dardaritu zun (S).

DATIBO: modu askotara egiten da datibo
 plurala Euskal Herrian. 1. SING. olloári
 (singular) (IN), polizieri (singular) (IN),
 txakurréri (singular) (IN), zakurrari (sin-
 gular) (G), andrrei (IP). 2. PLUR. ollóari
 (plural) (IN), polizieri (plural) (IN), txa-
 kurreri (plural) (IN), zakurrári (plural)
 (G), zakurreri (LAN, ITS, EL), zakurrei
 (AM, ID), zakurrai (O), zakurrer (ITS,
 LAN, AL, LAR), agur zier (AL), guzier
 (AL), txakhürrer orori (AL, LAN), andrai
 (IP).

DATIBO: mugaz bestaldean *nor-nori*, *nork-
 nori* maiz gaizki jokatzen da.

*aitak **amari** erranen **du:** aitak emari erra-
 nen dio.

medikua **DEITU** ~ medikuari deitu ↗ **abisa-tu** ↗ **ikutu** ↗ **utzi**: **1.** medikua deitu ezazue (S, AL, KA), Goikoak Beñat bereganat deitu du (ITS), Jesusek bada hek beregana deiturik (LEIZ. Mat 21,25), Deitu zituen guztiak beregana (AX 16), midikurik hobere-na deitzen duzu (AX 350), amak haurra deitu du (ITS), Jinkoak deithü dü ohian lo zelarik (AL). **2.** medikuari deitu (AM, O), Lino jaubia dator guri deitutera (PA), Gu-rasotzat artuten dirianai, edo aitatuteco, deituten jaquee apua (PA), Mireneri geitu (IN), Mariri deitu (G).

DEITU *llamarse*: belar orri lapatina deitzen diote (AM), nola deitzen dizte (= dizute)? (AXUN. G), nola deitzen zio? (G), izena nola duzu? (O), ze izen du ~ nola du izena? (G, AM), belar horrek zer du izena? (KA), Mirentxu deuko izena (IN), berant meza deitzen beigindien (LAN), Mirentxu du ize-na (O, AM), laminak deitzen zien (LAN), klokkak deitzen genitien, espalakoin gisa ziren (LAN), Eztun nehor hire ahaidetan izen horrez deitzen denik (LEIZ. Luk 1,61), gaixto dei zaitzaten (AX 332).

neskahorrek **atentzioa** **DEITZEN** dit: aten-tzioa ematen dit (O, G, U), atentzioa artzen dit (= diot) (G), horrek beregana soak bil-tzen dütü (AL), horrek guzier ohartarazten dauku (KA).

ordeñar las vacas ■ behi **DEIZTEN** ari da (LAR, LAN, KA), beieri esnea batu (IN, IP), beiak bitu (O), beiak jetzi (ID, G, AL), bei izten ari da (S), behi jeizten ari da (ITS).

DELA... dela... ↗ zela... zela.

DELA KAUSA, dela medio, dela eta: Egungo egunean *dela kausa* eta *dela medio* oso na-hasirik daude, gero eta sarriago *dela medio* erabiltzen delarik. Hona hiru esamolde hauen agitura: **a.** dela kausa ~ kariaz ~ -gatik *a causa de*. **b.** dela medio ~ bidez ~ bitartez ~ dela bide. **d.** dela eta {dela kausa, dela medio.

a. hori dela kausa dago gartzelan (KA), hori dela kausa, ez dut behar denik irabazi (KA), Piarres dela kausa gertatu da hori (KA), zer kausaz bota zuten herritik? (AM), Bekatu hura dela kausa, haren ka-riaz zarete eta gara egitekotan (AX 286),

dolore handiak direla kausa... beti daude arneguz (AX), Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, haren kariaz, guztiok gaude preso (AX 36), Edo egurra dela kau-sa... edo lekhuia dela kausa (AX 377), hura dela kausa ni ez niz juan (LAR), pekatu arengatik iltzen gera danok (EG, IB), egu-rragatik edo lekuagatik, nik eztakitx zer-gaitxik, ezin gendun surik ein (EL), zimiz-taren kausaz erra da etxea (LAN), denbora hitsa dela kausa, ainitz eri badira (LAN), jendetzearen boaldaren kausaz (LEIZ. Ap Ak 21,35), oto ixtripu bat ukan du denbora txarra dela kausa (ITS), zerbait dela kau-sa (S), haren kariaz guztiok gaude preso (AX 36), hango dolore handiak direla kau-sa (AX 173), kontrabanda zela karia atxe-man zuten (LAN), Maiteren urte betetzea-ren karietarat hori egin nuen (KA). **b.** Pedro dela medio ein da bidea (O), Pedro-ren bitartez ein da bidea (O), morroia zela medio, erregerekin adiskidetu zen (O, G), adiskidearen bitartez erregerekin adiskide-tu zen (O, G), alkatea dela bide, telefonoa ipini digute (ID), ori dela medio, kartzelara jun bear izan nun (O), alkate(a)ri eskerrak egin dugu bidia (S). **d.** ama dela, aita dela... ezta etorri (G), atta(re)n aitzakin ez da eto-rrri (G), minbizia zela eta, hil egin zen (O), morroia zela eta, erregerekin adiskidetu zen (O), amaren edo aitaren kasuz ez da jin (KA).

*arazo teknikoak **direla medio**, ezin du film hori erakutsi: teknikaren hutsengatik... (S, G), teknikaren hutsak direla kausa... (GR), teknikaren gorabeherak izan ditugulako... (O, G).

*Ez naiz damu Benidorrerako bidaia hau **dela eta** ↗ **pena**: eno urrikitan ~ enaiz urrikitu biaje au iña (G), etzat damutu bia-je ori eña (O), ez dut dolurik piaia hori egi-nik (KA).

DELA bi urte hemen izan zen ↗ **orain**.

buru oso **DELIKATUA** du horrek: buru min-bera da ori (G, AM), burua minbera du (KA).

DENA, GUZTIA, OSO, ORO ↗ **oro**. **1.** Egungo egunean *guztia* eta *dena* (*dana*) deklinabidearen kasurik gehienetan sinoni-

motzat jo daitezke. *Dena* erabiltzen den ka-suetan *guzia* erabil daiteke. Alderantziz ez. **ADIBIDEZ**: bihotz guztiaz maite zaitut *Dena* eta *osoa* bakanago erabiltzen dute mugaz bestaldean. **2.** *dena* eta *denak* (nominatiboa), *guzia* eta *guztiak* baino sarriago erabiltzen dira. **3.** *etxe guztian*, *guztirako...* (singularrean, nominatiboa ezik), *etxe de-nean*, *denerako* baino sarriago erabiltzen da. **4.** *Guztia* singularrean berdindu egin daiteke *osoa*-rekin. **5.** *Osoa* gehienetan singularrean erabiltzen da. *Osotasunari* lotu-rik dago, nolabait ere; zatiari jazartzen zaio. **6.** Zenbakien aurrean, zerbait ezartze-kotan, *osoa* ezarri ohi da. **7.** *Oro*: Lapurdin eta batez ere Nafarroa Beherean eta Zube-roan erabiltzen dute. Aurretik izena plura-lean dagoenean, *oro* singularrean (deklina-bidean) joan ohi da. **a.** gizon **danak** datoz (IN, AM, O), olloak danak daoz? (IN), danak etorri dira (IN), gizonak denak etorri dira (G), an etzean dana zan ona (IN, G, O, AM, U), dana ondo ite deu (IN), danak ondo in dauz (IN, G, O), dana in dau (IN, AM, G, O, U), etzeko bearrak danak in dauz (IN, G, O), etze dana apurtu de (IN, G, AM, O, U), etxe denetako on da (KA), dana arpelik galtzen da (IN, G, O), or etzean danak daoz sobrea (IN, G, O), au zuentzat denentzat (S), hau zuen denenda-ko (U), dena ondatuta etorri da (G, AM, O), denen aurrean egin zuen (G, O), dane-tik jaten oan (AX), danera zenbat etorri dira? (O). **b.** gauza **guztiak** onak dira (O, G, IN, AM, AL, KA), gauza guzi(a)k ongi in-tenttu (G, O), (untsa) (KA), gizon guzi(a)k emen eldu dia (G, AM, U), (honarat) (KA), egün güzia бүрүкө minez iragan dü (AL, G, O, U, KA), etxe guzia alperrik gal-du da (G, O, IN), etxe guzietako on da (KA), hau zien guzientako (AL), bihotz gü-ziaz maite zütüt (AL), (guziz) (KA), guz-tiek (e)torri dire (AM, IN), egun guztian la-nean ari da (U, G, O, IN, AX 142, KA, S), egur guztia sartu al duzue? (G, O), bihotz güziaz maite zütüt (AL), igante güziez jiten da (AL), (guziz) (KA), Frantzia guzian he-datu da (ITS, KA), behar du gatza ezarri egun guziez ingurian (LAN, KA), gau gu-

zia pasatu dut pentsatzen (S, AM), (pentsa-ketan) (KA), gau guzia pentsamendutan irago dut (G), gau guzia pentsamendu ba-ten irago dut (G). **d.** egun **osoa** lanean ari da (AM, AL, O, G), egun osoa lanean eman zuen (O), urte osoan gaixorik egon zan (IP, IN, O), perretxikoak osoak jaten zituen (IP), perretxikoak osorik jagen zi-tuen (IN, O, EL, G), bi perretxiko osorik jan zituen (O), bi perretxiko osoak jan zi-txun (IP), hatsak diraueno ezta osoki etsi behar (ITS), mündü huntan ezta zorion osorik (AL), aran bat oso osorikan irestzun (S), gau osoa pentsatzen egon zen (AM), gai osoa igaran nian pentsamentükan (AL), gau osoan pentsatzen (O, G), aste bat osorik hartzen genin gaztaina biltzen (LAN), urtia osorik jendea ikusi gabe (LAN), aste bat osorik Atharratzen iragan dü (AL). **e.** gaia **oro** igan nian pentsamen-tükan (AL), ur beroa eta oro battuzu (LAN), oro ezkondukit dituzu (LAN), oro sartzen dira (LAN), ori hiltzen zitien (LAN), horrekin untsa jiten niz, oro bihotz da (AL), mahaiak oro hor ezarri (ITS), oro gauzak masifikazio batetara doaz (LAN), haurrak oro jin dira (AL), horiek jaten di-tuzte oiloak oro (ITS), gizon oroek hori egin die (AL), oroena behar da entzun (ITS), plazer dü oroen ezagutzia eta oroek-in solaztatzia (AL), baziren oroendako etxangiak (LAN), hau zien oroentako (AL), gizon oroer erran diet (AL), lagunek oro egin dute (LAN), gizon orok egiten du hori (AL), hau da gazten orooren ametsa (LAN), orooren aintzinean joan behar zizin (LAN), hori dügü orooren бүрү (AL), ama orooren bizia da (AL), gure orooren otoi-tziak (AL), orooren gain maite zütüt (AL), eske-rrak orori! (LAN), gizon orori erran diot (AL), gizoner orori erran = *a todos los hombres* (AL), egün orotan бүрүкө minez niz (= egun guzian) (AL) / egün oroz (gu-zietan) (AL), etsaiak alde orotan agertu zi-ren (ITS), urte orotan (= osoan) (AL) / urte oroetan (= guzietan) (AL), haizea ohol arte orotarik hüxtülotsez ari da (LAR), badugu orotarik (AL), bihotz oroz maite zütüt (AL), egun oroz jiten da (AL),

igantoz (AL), urte oroz egiten da arbia (LAN), aldi oroz eta lekhü orotan üskera-
ren althe izan (AL).

DEN: ez da erabiltzen erlatiboazko perpausetan.

*etorri **diren denak** aberatsak dira: **a.** denak heldu dira / **b.** heldu diren guziak onak heldu dire (S).

a. denak jin dira / **b.** jin diren guziak hil dira (KA).

a. danak etorri dira / **b.** etorri diran guziak onak dira (O, IB).

DENBORA / EGURALDI ↗ **eguraldi.**

DENBORA pila hor egon da: ↗ **pila.** A.1. biziki denbora joaiten da sagarrarinoa edateko hun iza gabe (LAN), biziki denbora joaiten da lan hortan (LAN). **2.** ezta denbora aundia (S, G, AX), denbora aundirik eztut izan (O, G), denboraldi aundixa in geben (IP), denbora handiaren buruan (LEIZ. Mat 24,19). **3.** denbora luzean or egon da (AM, U, IP, IN, O, ID, G). **4.** denbora puska egin genuin (G). **5.** luzaro (O), luzaroan (O), luzaz egon zen eri (AL, ITS, LAR, KA), luze (AM, S), artho xuritzia lüze da (AL, KA), lan luzea da hori (O), luzero egon zan geixoik (IP, IN), luzeroan egon zen etxoten (IN). **B.** denbora laburrez (LAN, KA).

DENBORA gutxi dut irakurtzeko ~ denbora apür düť irakurteko (AL, IN, LEIZ), denbora inkaü bat (AL), denbora poxiño bat (KA), denbora ttikia (S).

handik **DENBORA batetara** ↗ **buruan:** handik puska batera (O, ID, G), denbora puska baten buruan jin zen (KA), andik apur batera (EL), andik luzera gabe (GR), andik puskaten burun etortzen (S), aldia igaro eta gero (AM), andik denbora apur batera (IP), andik laster etorri zen (IN, O), andik laster etorri zen (IN, O), andikan agudo etortzen (S), hango aldiak agudo egin zituen (S).

hori egiteak **DENBORA hartu** dit ↗ **kendu** (denbora).

DENBORA asko egon zara etorri gabe ↗ (denbora) **pilla** ↗ **tardatu:** oraingoan luzatu duzu; etzera bela etorri (G, O), denboraldi aundixa in dozu etorri barik (IP), tar-
te aundia egin duzu etorri gabe (O), denbora handia eman duzu jin gabe (KA).

DENBORA kentzen dit lan horrek ↗ **kendu** (denbora).

agindua betetzeko **DENBORA** bat **ezarri** zuten: eguna señalatu zuten (O, U), hura egiteko denbora berexi zuten (G, S), epea par(a)tu zuten (AM), mendira joaiteko egun bat hautatu dute (KA), xedea ibeñia daduka (AX 75), ara joiteko eguna berexia zuten (S), eman nahi derauet asti, ephe... penitentzia egiteko (AX 80), egun bat izentau euen (IP), meritu erdiesteko denbora iragan baitzaie (AX 387).

hemos tenido mala temporada en football ■

DENBORALDI txarra izan dugu foolean aurten: suerte txarra euki dogu aurten fuolian (IP, IN, O, ID), (izan) (S), xantza makurra ~ zorte txarra ukan dugu aurten futboleko (KA).

ez dugu arratsalde guzia zurekin **galtzeko DENBORARIK** ↗ **astirik** (galtzeko): ez gaude nolanañ arratsaldea galtzekotan (G, O), ez gaude zurekin arratsaldea galtzekotan (O), ezin dogu zurekin arratsaldea galdu (IB), ez gira arratsaldean alferretan ar(i)tzekoak (KA), ez dugu arratsaldea alferretan galtzekoa (KA).

ume horiek zenbat **DENBORAREN aldea** daukate? ↗ **adin** (berekoa): **1.** urte barrukoak dira (O, IN), **2.** bost egunen barrukoak dira (O), bost egun barne sortuak dira (KA), bost egunen barreneko(a)k dia (G), gu ilabete bat barne gara (AM), zenbait egunen barrukoak dira (S, G), zenbat egunen barrukoak gera? (O), zenbat egunen barreneko(a)k dia? (G). **3.** orrek umiak zeinbet urten aldea deukie? (IN), Urte baten aldea (IN), urte bien aldea deukie (IN), bi urtena (O), emezortzi illabetea (O), urte beten aldia (IP, O), bi urteren aldea (O), urteen aldea zegoen ~ ikusten zen (O, G). **4.** batetik bestera ze bentaja dute adinean (AM),. **5.** umiok ze diferentzi ote dute adinin? (S, KA), adinin badute diferentzi puskot (S), urte aunitzen diferentzia dute (AM), ze diferentzi dute urtetan? (G), bi urten diferentzia batetik bestera (O).

Osasunak **DENBORAZ kanpo** irabazi zuen: denbora pasauta (O, ID, G). denboria pasauta gero (IB, EL), denboratik landa (KA).

DENUNTZIATU egin dute ~ salatu egin dute (O, G, KA), denuntzia eman dute (O, G, AM), muntatu omen dute (S), Bertizko baserri ortakoeri zerriak muntatu omen dizkiote (S).

armetatik **DEPENDITZEN** da gure salbazioa: gure salbazioa otoitzean do (G, O), horren salbazioa zuen eskuetan da (O), guzia borondatean do (G), gure salbamendua otoitzean dago (KA), otoitzetik doa gure arimaren salbamendua (ITS), zure laguntzan dago gure etorkizuna (O), guztia dago gogoan (AX) huntan da haren biziaren harat-hunata (ITS), or dago herriaren gorabehera guztia (O), hor dago munduaren gotibeitia (S).

denek nigandik **DEPENDITZEN** dute ↗ **mende:** nitarik doaz denak (ITS), orren mende eon bearco du (= dugu) (G), denak mende ditu (G), denok orren mendean bizi gera (U), horien biziene eskutan da (KA).
depende ■ **DEPENDITZEN** da! ↗ **segün:** ez dago esaterik! (O, G), noiznola (G), nola datorren! (G, O), nor den! (G, O), nor datorren! (O, G), ikusiko! (KA).

DESAFIOA: **1.** aizkorako desafioa eman omen dio (O). **2.** hiltzeko desafioa egin omen dio (O).

DESAFIO eran **plantatu** zen: oso errenkosua etorri zaigu (O), erronka bai orrek azkarki (S), erronkaz etorri da (G), hori beti desafioa (KA).

Maite mendian **DESAGERTU** zen (KA) ~ etzan geiago onarat bildu (S), mendira joan zen eta ezeztatu zen (KA), izkutatu (O, ID, EL), galdu egin da (G, KA, LA, S, O), hemendik lekutu da (KA), «Maitea, nun zira... nurat galdü zira?» (kanta), lamina mendiziloan suntsitu zen (LAN, KA), inork eztaki nola baña mendian galdu zen betiko (G, LAR), ze aneia itzali dautzia? (hil) (KA), mendira joan eta etzan geiago agertu (KA).

diru guztia **DESAGERTU** zait: aitu zaizkit bada diruak! (O, G, U, ID), gastau jat diru dana (IP, IN), sos guziak xahutu ditut (KA).

lainoa **DESAGERTU** da ↗ (zerua) **estalia.**

Milarekin **DESAHOGATUKO** naiz: **1.** ba-

rruan badeukot gauza bat eta eztakit nori asaskauko deutesedan (IN, MO), plater bete bada jan eta asaskauta parau nintzen (IN), gure Andoni asaskau eginda etorri da kanpotik, kotxean ibili ondoren (MO, IN), asaskauta etorri da (IN), aita mendira joaten danean asaskauta etortzen da (MO, IN), aregaz asaskau naz (IN), Arraban asaskaldie artuko dogu (IN). **2.** barruko kezkek bateonbatekin ustu bear ditut (O). **3.** arindu bear ditut (O), ene barnea arindu behar dut norbaitekin (KA). **4.** bateonbati esan (O). **5.** atsedernaldi bat artu (O). **6.** nulapait bere kexia egorotxi dü (AL). **7.** norbaitekin solastu (S).

gaixoa **DESAHUZIATU** egin zuten ↗ **itxaropena** (gaixoarekin).

okasioa **DESAPROBATXATU** egin du ↗ **baliatu:** alperrik galdu egin du (IP, O), ez du ongi aprobetxatu (G, O), ez da aukera ortaz baliatu (GR), ez du okasione hori baliatu (KA).

zerbait **DESBIDERATU** zuen kotxearen ibilaldia: geiegi baztatu zan eta bidetik pixkat erden zuan (O, AM), bidetik pixkat atera zen (G), bidetik pixkat aldaratu ~ jali da (KA), aldatu zen (KA).

adiskideaz **DESEGIN** (AX) ↗ **-kiko.**

ez badira praktikatzen, **hizkuntzak** **DESEGIN** egiten dira: mintzaiera, ezpaldin bazara aritzen, egiten da ezeztu (S), lengoia... atzentzen da (AM), lengoajeak, itzegiten ezpadira, aztu egin dira (G, O, IN), ezpadira erabiltzen, ahazten dira (KA).

DESESPERAUTA nago ↗ **itxaropena** (galdu).

con ése hemos llevado una gran desilusión ■

orrek **desilusio** handia eraman dugu: **1.** etsipena izan dugu orrek (O), etsipena artu degu orrek (ID). **2.** ipurdiko ederra eman du orrek (O, G), ipurdiko ederra artu zuen (S), orrek ipurdikoa eman dau (IP, ID, KA). **3.** izorratu nu horrek (KA), izurramendu ederra eman du orrek (G). **4.** tirit egin du (KA). **5.** kamusada andana bat jasan du (LAN). **6.** ustegabekoa gertatu zait orrek (O), uste genduen bezelakoa ezta atera (ID), uste ezkendun bezelakoa ~ modukoa erden digu orrek (O).

hori egiteko **DESIO** handia nuen: ori egiteko ai(h)er ederra daukat (G), ...gogoia daukat (G), edozein gauzetako aierria daukat (G), mendira joateko aierria daukat (G), ori egiteko gogoia aundia daukat (O, IB, MO), horren egiteko emeia handia nuen (KA).

se ve la desconfianza de los unos por los otros

■ batzuen **besteengandik DESKONFIANTZA** ikusten da: elkarren arteko deskonfiantza ikusten da (GR), elkarren arteko deskonfiantza ageri da (GR), argi dago, oriek ez dute alkarrekin konfiantzarikan (G, O, ID), oriek ez dute elkarren artean konfiantzarik (AM), orrek ezteukie alkarrekin konfiantzarik (IP), zerbeitez errezelatu da (ITS), ageri da, ez dutela elagarren konfindantza (KA), ...konfiantza pizarrikan ere ez (S).

gela DESORDEN handia zegoen: naasteri aundia zegoan (O), kuarto guztie saskil saskil dao (IN), naaste berraste aundia (O, IN), an zegoen naastea! (G), kuarto dena nahasi dago (S), gauza guziak zangoz gora ziren (KA), ganbaran gauzak nolanhika ziren (KA).

DESPISTAUTA nonbaiten utzi du / **nonbaiten**.

zakur orrek ez du bere umea **DESPREZIATZEN** / **estimatu**: ez du bertanberako bere umea (O), agitz maite du (S), eztauka utzitzeko (G), ez da uztekotan bere umea (KA), ez zaio nehoi egin dizun faborea mendratu behar (despreziatu) (S).

DESTAJOAN hartu dute: alde batera artu dute (AM), alde batera eman diote (AM, G, S), basoa botatzeko alde batera artu dute (O), tantoan artu dute (IN), alde bat ~ batetako hartu dute (KA), piñua botatzeko alde batera artu dute (S, G), alde batera lanean ari dira (G, S, AM), lanean alde batera ari dira (G, O), dena ordun kontra egiten dute (O), piñudia botatzeko alde batera artu dute (O), estakistukoan ari dira (S), estakistakoa egiteko artu omen dute (S), estakistakoa artu dute (S), lantegi bat atera behar dute (S).

DESTERRATU egin zuten: erritik lekuazi zuten (AM, KA), lekuak egin behar ukan zituen (KA), erritik bota zuten (O, S), bida-

li zuten (G, S), lekutu behar ukan zuen (KA), lekuak hustu behar ukan zituen (KA).

DETAILE guziekin azalduko dizut / **sakonean** (ezagutu).

DETERMINATZAILE-DETERMINA-

TUA: Euskaraz zehatzailea eta zehatzua erdaraz bertzaldera ipintzen dira kasu askotan. Ikus Altuberen eta Arejitaren lanak. *etorri zaizu **ordua** hori egiteko: hori egiteko ordua etorri zaizu (O, G, ID), ordua jateko: jateko ordua → jatordua (EL), esku-bide osoa du epaitzeko: epaitzeko eskubide osoa du (O, G, ID), jateko ganurekin (Mendigatxa).

greba **DEUSEZTATUA** izan da. Trenak betiko **serbitzua** emango dute: ez da huelgarik (grabarik) izango. Trenak beti bezala ibiliko dira (G, S, O), huelgan atzera egin dute (O, ID).

DEZEPZIO handia eman dit / **desilusio**.

se decidió por uno ■ **bategatik DEZIDITU** zen: batekin etsipena artu du (O), danen artetik bat aukeratu du (O, ID), denetarik bat hautatu zuen (KA), erabakia artu zuen (G, O, IP, IN), denen tartetik bat artu du (S), ezin erabakirik artu (O), batekin etsia artu; artu edo utzi! (G), pillo aunditik bat apartau dau (IP), baten hartzerat deliberatu zuen (KA).

DIABETIS dauka: txisako azukra dauka (O, G), azukra gexoa deuko (IN), pixako azukrea toperaño igoa du (G), ziero goian omen dauka txisako azukra (O), goraño io omen dio txisako azukriak (O).

DIFERENTE dira / (gauetik) **goizerainoko**:

1. eztago alde aundirik batandik bestiena (O), eztago alde aundirik batetik bestera (IP, KA). 2. ez dute elkarren antzik (IB, EG) / **antza** aitaren antzik ez du (G), etzen aitan antzekoa (G), ez da aitaren idurikoa (KA). 3. Mariano ta Marino bana al dira? (O), oso bana dira oiek (O). 4. garenaz beste zerbait nahi dugu izan (Xalbador), artu ditu lehenez bertze gogoeta batzuk (AX), Miren Irenez arras bertzelakoa da (ITS), gurasoak bestealdekoak dira (G), gurasoak oso besterakoak ditu (O). 5. izatez Petiri ez düzü bat ere bestea bezalakoa

(AL), Patrizia ez da Onintze bezalakoa (KA). 6. aitaren aldean diferentea da (S, O, AM), aitan alderen diferentea da (G), bata bertzeaganik diferentak dira (ITS), bere egitik agitz diferenteak dituk (S), izatez oso diferentea zen (G, O, IP), gutarik liferente dira (AL), gureatikan diferenteak dira (G, S), zuregandik arront diferentea da (AM, UN, O, IN), karantzaz arront diferenteak dire (AM), oso gure ezberdiñak dira (O). 7. biak ez ditüzü bat ere algar üdüri (AL).

han gauzak **DIFERENTE** dira ~ an eztago emengo antzik (G, O), orduan ez zegoen gaur bezelako aukerarik (O), han ez dago holako konturik (S), han gauzak ez dire berdin (KA), han gauzak ez dira hemen bezala (KA), hango giroa diferentea zen (G). orduan gauzak **DIFERENTE** ziren ~ orduan ez zen gaurko konturik (O, G, S), orduan gauzak ez zieren berdin (KA), orduan ez egoan gaurkorik (IN), orain ez daude lengo kontu(a)k (G, U), orain ez dago lengo konturik (O), orain ez do orduko konturikan (G), lehen ez ziren gauzak oai bezala (KA).

haur horiek bost **egunen DIFERENTZIA** daukate / **denboraren** (alde).

kargutik DIMITITU zuen: kargua utzi zuen (KA, S), itxi deu (IN), kargua laga zuen (EL), karguari uko egin zion.

DIOTE / **hotsa**.

DIRUTIK oso urri dabil: A. 1. diru aldetik (O). 2. sos apür düzü (AL, KA). 3. Baldin doiez bazara, guti baduzu, emozu guti: eta baldin aberats bazara, gainez egin bazau, emozu anhitz (AX 152). 4. estutu dabilte (AM). 5. diruz ongi dago (S, O). 6. nola ote dabilte diruz? (S, G, AM, IN, O), diruz gaizki dabilte (U, O, ID), diruagaz ondo dabil (IN), diruegaz txarto dabil (IN, IP), diruz aski gaizki dabilte (AM), diruz ondo dabil (O, IP). 7. diru kondu nola othe dira? (KA). 8. diruz agitz murriz gabiltza (S). 9. diruz urri dabil (O, G, S), aurten diruagaz urri gabiz (IN), bedarra urri dago (IN). 10. xugur dabilte (AM), sosez xuhur da / sosez itoa da (KA). B. poltsoondo beroa deuko (IP), poltsoondo beroaz dabil (IP).

DISIMULATU arren, ez zuten inor engania-

tu: itxurak egin arren (IP), itxurak egiñagatik (G, O, U, S), itxura asko; ez diogu sinisten baña (EL), ipuñ asko, berriketa asko... (EL), hiltzaleak gordea ukanagatik ere ~ gorderik ukanik ere, atxeman dute (KA).

aberats horrek **DISTANTZIAK** zaintzen ditu: aberatsak oso goitik begiraten zigun (O), aberatsak goitik bera begiraten zigun (U), aberats orrek ez digu beitzen e(re) (G, O), bere burua aundi nai du orrek (S), aberatsa ezta edozeinekin ibiltzen (O), gainetik behera behatzen dako (KA), pobreak petik goiti behatzen dako (KA).

horrek **DOBLEA** ere **jango** luke: orrek bi olako ere jango lituke (O, S, U, KA), olako bi ere jango leukez (IN), guk bekelako bi jaten ditu (U).

luzeroan zabalean **baino DOBLEA** da: 1. zabalean alako bi bada ura luzean (O, G), eliza ura zabalean alako bi bada luzean (O, G), luzean Elgoibarko eliza alako iru bada Loiolako basilika (O, G), ura alako bi da au (ID, G, O), emakumeak ezkontza kon-tuetan, gizonak alako amar badaki (G, O, ID), Unanua alako iru bai bada Etxarri (U), alako bi baditu orrek (S, G), alango bi badeukoz orrek (IN), Nafarroa Gipuzkoa alako bost bada (O, G). 2. Argentina Frantzia baño bost aldiz handiagoa da (S). 3. ura bezelako zazpi bada au (ID), eliza ori luzean zabalean bezalakoa bi bada (O, ID). 4. eliza ori luze bezin zabal duk (U). 5. zabala baino bietan gehiago zabala da (KA), zuk borts libera dituzu. Horrek baditu hamarretan gehiago (LAN), Baionako eliza hamarretan handiago da Itsasukoa baino (ITS). 6. orain Lezo orduko amar bada (G, O).

ardoak DOMINATUA dauka gizon hori: gizona ardoaren mende (IP), ardoak mendu ~ billu du (S), edan mende dago (O), edanak menderauta dauka ziero (O), alkohola-ren menian ~ pian da (AL, KA), ardo sobrantean bizi da (S), ardogizona da (O), ardoan mende bizi da (O), eranak bendeatute dauko (IP).

te gusta lo que dominas ■ **DOMINATZEN** duzuna gustatzen zaizu: ongi dakizulako gustetan jatzu (IN, IP), ondo dakizuna, ho-

rixte gustatzen zaizu (O), nik ongi dakian gauza, ura gustatzen zit (G), nik dakitenak gustatzen zaizkit (AM), dakizkidanak gustatzen zaizki (AM), untsa dakitan gauza gustatzen zaut (KA).

elizako **DORRE ezpata** ikusten zen / elizako **ezpata dorrea** ikusten zen.

arraultza DOZENA bat salduko al didazu?

↗ **pare:** dozena bat arraultza (O), dozena bat ollasko jan zituzten (O, IP, ID), dozena bat sardina (G, KA), dozena erdi bat arraultza (G, AM, O, U, S, IP), dozena erdi arraultze salduko dot (IN), docena erdi bocador (Mikoleta), dozena erdi bat pare prakka (EL), dozena erdi bat galtza pare (G), dozena erdi bat galtza (G), dotzena xardina (ITS), dozena bat xardina (AL), dozena bat arraultze (AL), dotzena bat presuna beizik ez dira hor kausitu (ITS), dozena erdi bat mutil (O, G), sei-zazpi bat mutil (S), sei edo zazpi mutil (G).

DOZENA bat ehun jende bildu zen: eun bat dozena lagun bildu ziren (O), milla bat lagun pasa bildu giñan (O), bagiñan (S), hiru dozena bat urthe, hamar dozena bat urthe (ITS, KA).

DOZENA erdi pertsona ikusten zen: sei lagun ikusi nitun (G), bost sei bat lagun (S), dozena erdi bat lagun ikusten ziren (O, IN), diala dozen' erdi bat urthe (AL, KA).

DOZENATIK gora sagar hartu zituen: ama-bi sagar baño geiago artu zitun (G, O, ID). autor **DRAMATICO** ■ dramatiko egilea: dramaegile (GR), kaikugile (G), kotxiiegile (KA), otarregille (O), saskigille (ID, G), saiskizale (ID).

DRIBLE egin eta alde egin zuen: erbiak zirku eginda alde egin zion (O, IP), zirkuka doie bidea (IP), sigi saga (= zig zag) egin du (KA), marro egin eta eskapatu zen (S), bidea marroka dago, doaie (S), mandoa marroka doaie (S), erbiak txakana egin dio zakurrari (S), fubolistak txakana egin dio porteroari (S).

ez **dut DUDARIK** ~ nik ez dut dudik egiten (G, AM, S), ortan dudarik ez egin (O), ez dudikan ere egin (S), etzakela dudik ion

(U), ez dut dudarik jartzen (O), orrekin ez dut dudarik jartzen (O), dudatu naiz (G, KA), orrekin dudatu egiten naiz (G), dudatzen naiz (G, AL, AM), duda egiten dut orrekin (O), ez düt dudarik (AL), duda badu (KA) / dudatzen niz (KA), nik duda egiten dut (AX 121), ez da dudatuko (ITS), durduzatia (= durduzatua) niz (= *je suis troublé*) (KA).

dudarik gabe ↗ **klaro.**

erosteko **DUDATAN** egon naiz: erosteko ez-baian egon naz (IN), erostekotan egon naiz (IB, ID, AM, EL, KA) ~ izan (KA), erosi ez erosi egon naiz (O, S, G), ez josi edo josi ibildu naiz (U), Noizdrano gure arima dukak dudatan? (LEIZ. Ioan 10,34).

DUDATAN baina badator: kotxea ezbaian ez-bainan dator (O), ezbaian dao (IN, S), ezbaian ezbaian eldu zan (O), ezbaian utzi nuen (S), ezbaixa atara dau (= eztabaida) (IP).

-**DUN:**

*neskatxa buru argidun zen: oso buru argikoa zan (O, IN), zurre da (IN), gizon zentzuduna zara (O, IN), zentzun gizona zara (IN).

*bizardun gazte bat ~ gazte bizardun bat: 1. bizardun mutil andia (IN), bizardun kaputxinoa (ID, IN), bizardun mutil bat (S), bizardun gazte bat (IP), dirudun gizon bat (ITS), erdaldun jentia (IP), üxkaldün laborariak (KA, AL), kiderdun kazuela ori (S). 2. kaputxino pizarduna (G, O), gazte bizardun bat (O, G, U, IN, S, LAN, AL, LAN), mutil bizardun andia (IN), gizon bihotzdu-na (ITS), gizon diruduna (G, AM, O, U, KA), jende erdalduna, jende euskalduna (O, G, AM, ID, S), laborari üxkaldünak (AL), kazuela kiderdun hori (S). 3. gizon bizar aundi ori (S, G), bizarrakiko kaputxinoa (O), gizon pizartsua (G).

*45 **URTEDUN** andre bat ↗ **aldia:** 45 urteko andrea (G, O, KA).

*euskaldun ↗ **-tar.**

milla DUROTAN saldu zuten ~ ↗ **aldia:** milla duroan saldu zuten (O, ID, G), milla liberetan (KA).

ardo **DZANGADA** bat **edan** zuen ↗ **trago.**

E

galdetu egin zuen **EA** han ote zen (O, ID, IN)

↗ **ba:** enplegatiek galde egin zuten besterik etzenez (LAN), ez egin deus erreusitia denez jakin artian (LAN), hasi zen zer ziren oiuhu hek (LAN), galde egin dakozu egia denez (LAN, KA), gelditu euen an ete euen (IP, G), ...ia an ote zen (S), ia an zuean (EL).

burua EBAKI zioten: burua kendu (IN, KA), lepoa moztu zioten (G, S, U, O, AM, IP, KA), lepoa kendu (G), büria moztu (AL, KA), orrek lepoa moztia merezi luke (O, ITS), ganibeta handi batekilan lepoak mozten deztetzu bere zazpi alaber (LAN, O, G).

cortar el camino: ■ **bidea EBAKI** = *abrir camino* (O, G, IP, ID, AM). **A. bidea itxi** (G, O, IP, U), bidea etsi digute (S, AM, KA), bidea hertsu (LAR), bidea zerratu (IN). **B. 1. pista ideki** (S). 2. Errero Bordaraño **pista ebaki** dute (G, IN), elur aundia dago eta bateonbat balego **bidea ebakitze**ko! (O). 3. **bide** ederra **urratu** dute Landibarren (LAN), bideko elurrak ebakitzen ari dira (O). 4. **bidea egin** dute (KA, IB, LAR).

mendira egurra EBAKITZERA goaz: basora egur egitera fan gera (U, S, AL, G, KA), mendire bagazi egur itera (AM), egur iñaustera goaz (O), zühaintziak muztü ~ ebaki ~ egotxi (AL), egur bota (G), eur iten ai da bason (G), eur txikitzen (G), egurginen joan dire (etzerakoa) (IN), egürka jun düzü (LAR, LAN), egurketa, urketa joan da (KA), lanketa joan dira (KA), egurketara joan da (G), egur egiñera goaz (O).

ilea **EBAKI**, **bizarra ebaki**, **bizarra egin:** ilea

muztü kalaber (AL, O, U), bilhoa moztü gizoner (AL, LAN, KA), ilea moztu (G, AM, O, S), ardi moztuten ~ moztzean dabil (IN), alhan arresen muxtia hobe da (AL), bizarra kendu (O, S, IN), illea ebagi (IN).

nos han cortado el agua ■ **ura EBAKI** digute: kendu digute (O, EL, G, IN).

hitzegiten dagoenari ez **EBAKI:** 1. utzi solasean (AM), utzazu eleketa hartzerat (KA), utzizu mintzatzen (AM), utzi solasean ari den bitartean (S), itxiozu berba iten (IN), üt ezazü elestatzera (AL), utzi zik paken itzegiten! (G, O), itxiozu berba egiten (IP), ume petralok eztuzkue ixten berbetan (IP), itz egiten ez digu utzitzen (G). 2. itz egiten galerazi dio (O, ID, G), izketan egitea galazten zion (O, ID), izketan galazi egiten du orrek (G, O), solasa galazi didate (AM, S). 3. nahasi dauku solasa (AM). 4. haurrak elhia muzten deio (AL), elea moztu dako (KA), itza moztu zioten (S).

EBITATU murmurazioak: zer esana kendu (O, ID), esanbesana kendu (G), ibilli zaitez iñun zer esanik ipiñi gabe (O, ID), errankizunik gabe ebil zaitezte (KA), iñori arrazoi txarrik ez eman (G, O, S, KA), izbidea jarri du (O), orrekin izbide aundia jarri da (G, O), berbakizune ekarri dau orrek (IP), berak xekatu du (KA).

emakumeak EBITATU egiten zituen: arriskutik begiratzen da (ITS), hala emazteetarik begiratu (AX), ardotik begiratu zen (AX), lanjerratik aldaratzen da (KA).

Alfredoren **EDADEA** du ~ ↗ **adin** (berekoa).

EDADE asko du horrek ↗ **urtetan** (sartua).

EDADE oneko emakumea zen ↗ **adin**. horrek, **EDAN** eta genio **txarra** izaten du: ↗ **letxekoa**: edantzarrekoa da ori (S, O, IN, G, U), edan gaiztoa du (G), edale txarra da (KA), edate kontu ori du txarra (O), eran kontu ori du txarra (G).

kafesnetik **zurrutada** bat **EDAN** dut ↗ **trago**. **EDATEARI** utzi dio ↗ (bizioa) **gainditu**. euskara **EDERREZ** hitz egiten zuen ↗ (euskara) **menderatu**.

begiak zituen **EIJERRENİK** (LAR), begiak zituen ederrenak (O, G, AM, KA), begiak deukoz ederrenak (IN).

EDIFIZIO berean bizi dira ↗ **etxe** (berean). **ikastaroaren** bigarren **EDIZIOAK** hiru hila-bete izango ditu: hau da ikastaroaren bigarren aldia; hiru hilabeteko izango da (GR), bigarren aldiz egiten da ikastaro hau; hiru hilabetekoa izango da (G, O), hau da bigarren ikastaldia; hiru hilabetez izanen da (KA), ikastaro au bigarrenez egiten da; iru illebetekoa izingo da (IN), bigarren txandan (G).

lo **habrá dejado en cualquier sitio** ■ **EDONON** **utziko** zuen: eztokiren batian utzia izango du (O, ID), nonai utziko zuen (G, AM), jakinean eztan tokian itxi dau (IP), bear eztan lekuan itxi dau (IN, KA), nonbait ere eskiñan baten utzi izanen zun (S), nik ikusi dit nun edo nun (O), billauko du orrek nun edo an (O, G).

se **habrá detenido en cualquier sitio** ■ **EDONON** **geldituko** zen: nonbaiten gelditu izain da (G), nunbait e(re) gelditua izango da (O), ainbaten geldituko zan (IN), nonbait gelditia ditake, segurraz ere (KA).

hura ikusgarri zen **EDONOR** **begidunentzat**: begirik duen edozeinentzat ikusgarria da ori (G, O), bat ere bistarik duanantzat ikusgarria da (O), begidunentzat hori agerian da (KA).

a. EDOZEIN / b. EDOZER: **a.** edozein gauza egingo luke orrek (IN, KA). **b.** zer egingo zenuke? Edozer (IN), edozer gauza (G, O), edozer egiten du orrek (IN).

beste **EDOZEIN** **lekutara** ez da joan: beste ñora ez da jun (IB), Azpeitira jun da, beste ñora ez (O), beste nehorat ez (KA), zoaz etxera, bertzetara joan gabe (AM), zoaz

Goizuetara, bestetara ñora ez jon (G), edozein tokitara ~ lekutara ez joan (O), ara bakarrik joan da; ez da bertzetara joan (S).

no andes con un desgraciado cualquiera ■

EDOZEIN gixajo **batekin** ez ibili, gero: edozein gixajorekin (O, G), edozein gixajogaz (IN), ez era(b)il edozein gizonekin (KA), ez ibili edozeñekin ~ nornaikin (S).

EDOZEIN munduko tokitan: edozein tokitan billau leike ori (O, IN, ID, G), munduko edozein baztarretan (IP), munduko edozein tokitan (KA, S), toki guzietan (S), Sunbillan edozein tokitan ikusiko duzu ori (S).

EDOZER gauzen gainean hitzegiten du horrek (O) ~ ↗ **-taz**: edozein gauzen gainean ifiniko luke liburua (IN), edozein gauzegatik barre egiten deu (IN, IP), edozein gauzan gainean (G), edozein gauzetaz (IN), edozein gauzez mintzo da hori (KA), edozein gauzaz solastatzen da (S).

EDUKI: espainolaren aldean, euskaraz kopula sarriago erabiltzen da «*tener*» adierazteko: *tener hambre, vergüenza...* lotsa, ikara, izerdi, beldur, gose, egarri, ahalke... **naiz** ↗ **gose**.

EDUKI: *tener por*. 1. Ø 2. -tzat.

1. lagunak zer dauzkak? (ITS), ni hobendun naukak? (ITS), Parise orain arte hiri arin nerlukan (ITS), Iainko eduki dezagun (LEIZ. Hamar Man.), geure buruak zordun dadutzagu (AX), handi dauzkate beren buruak (LAN), bere burua ez dauka zaharra (LAN), Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu Iainkoa handi, zabal (AX 97), geure buruak zordun dadutzagu (AX), horrek bere burua hoberena dauka (KA). 2. noretzat hartzen nauzu? (KA), gizon ori ontzat daukat (S, O, EL), presuna alferra edukazu galdutzat (AX 26).

EDUKI, ukan ↗ **bezala**.

EDUKI-EDUN: Bizkaian eta Gipuzkoan askoz sarriago erabilzen da, mugaz bestaldan baino. Ekialdean edun erabiliago da. 1. nun **daukazu** etxea? (O, IN, EL, IB). 2. nontzute zuek itxea? (G), non **duzue** etxea? (ITS, LAN, AL, KA).

gorputz guztian **DAUKA** **artrosisa** ~ gorputz

guztia artrisisak artuta dauka (O, S, G), gaitute deuko (IN), artrosak harturik du (KA).

ardoak **EFEKTO** handia **egin** dit ↗ **eragin**: ardoak ederra erantsi dit (ID, O), ardoak agudo nahasten nau (S, G), eranak nahasi egin nau (G), ardoak ongi eragin dio (G), ardoak bioztarra egin dit (S), a ze nolakoa eman diten ardo orrek! (O), burura eragin dit (G), arduak burura in dust (IN), arduak erain dautso (IN), eragin dio (G).

«**EGA**»**RAKO** ikastaldia egin du ↗ **herri**: «**EGA**» titulua lortzeko ikastaroa (O, G, IN).

EGARRI naiz ↗ **gose**.

EGIN ↗ **galdegaia**.

EGIN, ERAGIN ↗ **eragin**.

me he caído: ■ erori **EGIN** dut ↗ (joan) **behar**: erori egin naiz (O), jausi egin de (IN, EL, IB, MO), bota (egin) da (ITS). arraultza **EGIN** berriak (O, ID) ~ ↗ **arraultza**.

ekaitza **EGIN** da mendi aldera: eldu da ekaitza mendi aldetik (G), mendi aldetik da ekaitza (O), denbora gaiztoa heldu da mendi aldetik (KA).

ni jaio nintzeneko **harenak** **EGIN** zuen: ni jaio nintzaneko ila zen ura (G), ni jaiotorduko (IN, S), ni jaio ordurako aura ilda zan (EL), orrenak egin du (O, G), ni sortu gabe hura hila zen (KA).

ez zaio **gaua** motza **EGINGO**: ez zaio gaua motza joango (O, G, ID), gaua luze joan zitzaion (O), gaua luze asko jon zit (G), iru aste luze jartzen da (O), iru aste luze etortzen da (G), iru aste luze da (G), gaua luze atxeman du (KA), Madrileko hori aundia izan da (O), Madrilleko ori ikaragarria gertatu da (O), ...aundia joan da (O), horiek dira hilketak dijoazenak (O), ...ederra joan da (G), ilebete oso ona gan zen (AM, G), otsaila dena orma joan zan (S), tranpa garbi garbia joan da (G, O), auzia bukatu arte denbora luzea joanen da (G).

etxe **EGITEN** ari dira ~ etxe egiñean ari dira (O), txixa egiñean ari da (O), espartiña egingian ari da (AL), lanak ezin egiñean nabil (O, G).

takoi haiek **EGITEN** **zioten** hain luze: egiten

zuten (GR), takoi aiekin luzeago ematen zun (O, G), oinetako aztal luzeekin den baino handiago emaiten du (KA, S).

etxean **EGITEN** genuen **ogia** ~ etxean erretzen genuen ogia (O, S, G, AM, U, KA).

Maritxu, zoaz **ohea** **EGITERA** (LAR) ~ ...aldatzera (G), zoaz ohea jantzera (G), zurginak ohea egin du (AM), harotzak ohea egin du (O, ID), ohea beztitu du (KA, S), ohea egin (egunero) (G, O).

on **EGIN** ↗ **on**.

pista **EGIN** ~ ↗ **ebaki**.

EGITUR klasikoa dauka ↗ **kultur**: egitura klasikoa dauka.

EGITUR azterketak egingo ditugu orain ↗ **kultur**: egitura azterketak.

Nerearen osasun **EGOERA** hobetuz doa ↗ **mejoratu**.

osasun **EGOERA** larrian dago: eri handi da (ITS, LAN, AL, KA), oso gaizki dago (G), agitz gaizki dago ori (S), oso gaixorik dago (O).

EGOERA honen **aurrean** zer egingo dugu: gauzak orrela daude ta zer egin? (ID), ...ta ze ingo da ba! (O), gauzak ola dia ta, ze iñen d(ug)u ba! (G), gauzak hola dira; zer egin besterik? (KA), zer egin! Eldu dena artu (S).

gure arazoa **EGOERA** oso **larrian** dago ↗ **situazio** (txarra).

nire **EGOERA** **berrian** pentsatu nuen: nere bidez modu berrian pentsatzen nago (O, ID) (berriz) (G), bizitza barrien (IN).

nolakoa zen Bitoriren **EGOERA** **ekonomikoa**? ↗ **dirutan** (oso urri).

eguraldiaren **EGOERA** txarra da ↗ **situazioa**: egualdia txarra da (O), arras aro txarra dugu (KA).

inmediatamente nos hicimos cargo de cual era la situación ■ hango **EGOERAZ** berehala **jabetu** ginen: bereala antzeman genion angio giroa nolakoa zen (O), laster igarri nion ona zala (EL, G), fite ohartu nintzen ona zela (KA), agudo autesnun gaizki zagola (S), zakur onek agudo autesten du norbait eldu den (S).

EGOISTA hutsa da: bere burua besterik ez du orrek (G, AM), orrek bere burua bakarrik du (O, KA), bere burua baizik ez du

horrek (KA), hartu eskua bakarrik du horrek (O, S).

Anbrox bere **bizitzara EGOKITUTA** zegoen: bizimodu berrira jarri da (S, G, O, U, AM), bizimodu berri(a)n jarri da (S), bizimodu berrira jausi da (IN) = *se ha decidido por la nueva vida*, bere bizi berrian laketu da (KA).

*hura **benetan zegokidan**: ongi zegokidan (GR), ongi zetorkidan (O), ongi eldu zian (= zitzaidan) (G).

*erosleari **dagokio** behia **ikustea**: eroslearena da behia ikustea (ITS), erosdunari da behia miatzea (KA), eroslearen egitekoa da (O), eroslearen kontua da (ID), erostunaren kontua da (G).

EGON / IZAN: Bizkaieraz beste euskalkietan baino usuago erabiltzen da *egon*. Mugaz bestaldean bakantxoago. Gogoan izan frantsesez ez dela *egon / izan* bereizketarik, espainolez *estar / ser-en* arauera.

non dago aita? (IN, EL), non da aita? (AM, S, ITS, AL, LAN), gaur Bilbon egon naz (IN, MO, IB), gaur Bilbaon izan naiz (AM, S, ITS, AL, LAN).

batzutan esanahia alda liteke, **IZAN / EGON** ezarri gero **gaixo**.

greba EGON da gaur ~ huelgak erten du gaur (O), huelga egin dute gaur (G), egun greba izan da (KA).

EGONEZINIK dago (ID) ~ **ezin**.

¿Te has fijado? Esa chica está muy bien ■ Iku-si? Neska hori oso **ongi DAGO** (= *está muy bien colocada* ■ ongi eserita...): neska ori oso polita da (G), pollita da (KA), neska ori oso ederra da (G, KA), neska ori oso bikaina da (G), bai neska mardula! (O).

*janariak **ongi daude**: janaria ona da (G), jana ona izan da (O), egun jatekoa ona zen (KA).

*filma oso **ongi egon** zen: filma ederra izan zen (KA), pelikula polita izandu zen (G).

*hizlaria oso **ondo egon** zen: hizlaria oso ongi mintzatu zen (G), hizlariak oso ondo itzegin zun (O), hizlaria biziki untsa mintzatu da (KA), ondo jardun du (EL), biziki ederki mintzatu zen (KA, S), oso ongi itzegin du (G, O), izlari ederra zan! (O), bai itzaldi ederra izan dala! (O).

*Miren polita da eta zu ere ez **zaude gaizki**, Aines: ...eta zu ere bai, Aines (O, G), eta zu etza itsusia, Aines, (O, G, KA).

BEREIZ a. nola DAUDE? (gaixorik) / **b. zenbana daude?** (partidoan) (O, IN).

ondo **EGOSI gabe** dago ~ A. egosi ariña dago baba gorria (O), ez dira ongi egosi (S), erdi gordiña dago babarruna (G), gordain aire (KA), ez da arras egosia (KA), erre arina da xerra hori (O, G, IP), haragia erre eskas da (LAR), erdi gordina da bildoskia (KA), gordinexko dago bildoskia (S), haragi hori pixkat berdoztuta ekarri ezazue (=erre arina) (O). **B.** erre samar dago (O).

EGOTZI: **botata**.

EGUERDI aldera etorriko da **eguerdia** aldera.

EGUN / GAUR: Nafarroa Beherean eta Zuberoan **gaur** = gau haur *esta noche*. *Hoy esateko egun, egin* erabiltzen dute.

a. egun ilundu artio duxu (LAN, AL, KA), egun jinen da (LAN). **b.** gaur zerua izaŕgi ~ garbi da (LAN), gaur zelia zoharbi da (AL), zoharbi thipil da gaur (AL), zoharbi ederra da (LAR), gaur jinen da (gau hone-tan) (LAN).

EGUN on, jaun andreak! **erakusleak**.

«Buenos días», *al menos si es de día* ■ «EGUN on», **egunez** bada, behintzat: «egun on» goiza baldin bada beintzat (O, G).

EGUN iluna da ~ **eguraldi**: eguraldi ilune eldu de (AM), egualdi illuna (G, O, AM, IP), gaur denbora illuna eldu da (S, KA).

en dos días se murió el jefe ■ **EGUN bitan** hil zen zuzendaria **barru**.

aspaldiko **EGUN hauetan** ez nabil ain ondo (O) ~ aspaldixko egunotan ez nabille bate-re ongi (S, AM), aspaldian enabil ondo (IN), aspaldiko egun oitan ez nabil ongi (G), aspaldian eniz untsa (KA).

ze **EGUN** da gaur? **Hamabia** **hil**.

uztaileko azken **EGUNAK**: uztaillaren azken egunak (AL, KA), uztaillaren azkenaldia (O), uztailla(re)n leenbiziko eguna (G), uztaillak azkeneko egunak ditu (G), zezeillaren atzeneko egunetan (IN), urriaren azken ~ ondar egunak (AM).

gaurko EGUNEAN gertatu zen **ostegunean** **erortzen**: gaurko egunez gertatu zen (S, IN, O, G), gaurko egunekin tokatu zen (G), egungo egunarekin gertatu zen (KA).

bi EGUNERAKO etorri zen (O) **urte**: bi egunetako (O), bi eguntoko (S), bi egunentzat jina da (ITS), bi egunendako jin da (KA).

bost EGUNETAN egon zen gaixorik: bost egunean egon zen gaizki (G), bost egunean egon zan gaixorik (IB, EL, EG, IP), bost egun ontan ez da etorri (G, AM, O), bost egun huntan ez da jin (ITS, KA), bost egunez izan zen eri (ITS, AL, LAN, S), egun guziez otoitz eginen dut (ITS), egun batzuz eri izan zen (ITS), elurra egunetan egon zen, kendu gabe (O, IN, IB, EL, LAN).

zenbat EGUNETAN egin zuen hori (O, G) **urte**: zenbat egunean in oan? (IN, O), zenbat egunez egin zuen? (KA, S).

hainbeste EGUNETAN ez du ezer ikasi: ainbeste egunean (IP, IN, O, ID), ainbeste egunez ez du deus ikasi (KA).

bi EGUNETIK behin etortzen da (G) **ba-koitza**.

bi EGUNEZ falta da etxetik **urte**: egun bien falta da etxetik (IN), bi egunian omen zeuen arrastorik gabe (O), bi egun emen dia etxetik falta dala (O), bost egun huntan ez da jin (ITS, LAN, AL, KA), ez da agertu (KA), bost egun ontan ez da etorri (G, AM, O, IP, IN).

	a	b	d	e
1. EGUNEZ	gauetz	goizez	igandez	
2. egunean	gauean	goizean	igandean	
3. egunetan	gauetan	goizetan	igandeetan	
4. egunetik	gaueetik	goizetik	igandetik	
5. egunik	gaurik	goizik	iganderik	
6.			igandearik	

1. **a.** egunez ibiltzen da (O, IN, S), egunez egun ari da luzatzen eguna (KA), hiru egunez atxikitzen da eskumenean (LAN). **b.** gauetz ibiltzen da (IN, I, S). **d.** pilotan goizez jokatu zuten (KA). **e.** igandez jin da (KA).
2. **a.** egunetan bitan jaten zuen (O), (birri-

tan) (IN), zortzi egunean gaixorik egon zen (IN, O), egunean baino egunean zintzoago (IN). **b.** atzo gauean heldu zen (G, S). **d.** goizean etorriko da (IB), (goiz partean) (IN, O, AM). **e.** igandean etorri zen (G, S), domekan (IN, EL). 3. **a.** elurra egunetan egoten da kalean (EL, IB). **b.** abenduko gauetan gaztañak jaten ditugu (O, IN), jai gauetan ateratzen da (O). **d.** goizetan joaten da mendira (S). **e.** igandeetan etortzen da (O, G, KA, S). 4. **a.** egunetik egunera gizontzen ari da (O, G, EL). **b.** gaueetik gaue-ra lana izaten dute (S). **d.** goizetik etorri gara (= goiz, temprano) (IN), goiz goiztik zure esperon dago emen (S), goizetik oinez dijoaz Tolosara (= goiz partean) (O, G), goizetik heldu da (= goiz partean) (KA), goizetik goizera lan izaten dute (S). **e.** igandetik igandera joaten dira lanera. 5. **a.** egunik egun aberatsago da (GR). **b.** gaurik gau etortzen da (GR), **d.** bihamen goizean goizik joan zen (AL, KA), goizik iratzarri da (AL), emaztekiak goizik hasten ziren ogiaren egiteko prepariotan (LAN). **e.** igandetik joaten da (domekarik) (IN). 6. **e.** besta igandearik da (KA), igandekin (S).

hari beldur izugarria **zion EGUNGO** gizonak: orduko gizonak (G, AM, KA).

«Le Monde» **EGUNKARIAREN ale** bat erosi zuen: «Deia» eta «Egin» erosiko ditugu (O, G, S, IP).

EGURALDIA: huts asko egiten da eguraldiaz mintzatzean **eurri**, laino...

EGURALDI / DENBORA: euskaraz bereizi egiten dira, ingelesez, alemanieraz, errusieraz... bezala (*time / weather; Zeit / Wetter; vremeja / pogoda*). Eguraldia: Bizkaiko, Nafarroako, Lapurdiko eta Zuberoako zenbait eskualdetan ez da erabiltzen. Horren ordez *denbora, sasoi* edo *aro* erabiltzen dituzte.

A. 1. au **egualdin** azala (ona) (G), egualdi(a)k azal ederra dauka (G), egualdi berdotsa da (txarra) (G), egualdi bihurria da (G), denbora egosia da (sargori) (EL), dudamudako egualdia (O), bai egualdi ederra (IP, O, G, U, AM), atzoko aldiaren giroa dago gaur (O), egualdi goiarrea dago (goialdea zikina dagoenean) (G), egualdi

hozkillia (muziña) (O), egualdia ozki samarra da (O), egualdia otzetik dago (O), egualdi oztaka samarra da (O), egualdi lasaia dago (G), egualdi lardatsa da gaur (ID, S, G, O), egualdi latratsa epeltxo ere izan liteke (O), maiatzerako moduko egualdia da (O), maiatza alderako egualdia da (O), egualdi muxiña (hotza, euririk gabea) (O), egualdi muxinkia dago (O), egualdi narratsa (O, ID, EL), egualdi narraxkea da gaur (ID), egualdi ona da (S, AM), egualdi oreata da ~ dago (ID), egualdi ostraka (O), egualdi polita atera du (G), sargori da (lainopeko bero handia), (O, IB), egualdi txarra (S, EG, AM), egualdi ustela dago (O), egualdi ximua (lainopekoa, hotza) da (O), ximukia (O), hauxe egualdi zergela (beroa, garbi dagoela, hego haize antxakin) (O). **2. denbora** argitia ekarri duzue (KA), denbora bortitza da (AM), au duk denbora egosia (S), biziki denbora eroria (KA, AM), denbora fizua (ona) (AM), denbora haizekara doazi (S), ozkara dago denbora (AM), gaur egun kaskabar-kara dago (S), denbora kaxkarra da (S, O, EL), denbora kuku da (lainotsu, ilun, goibel, baina euririk gabea) (AM), denbora latsa (hozakara) (S), denbora lazoa (ona) (KA), denbora lasoa (hotzik gabea) (S), denbora mendebal da ~ ustela (S), denbora mutua, kukua, motela (iluna) da (S, KA), denbora latza da (O, S, G), denbora mendebal dago (paretak eta izerditan daudelarik) (AM), denbora mukua (lainotsu, eguzkirik gabea) (KA, AM), denbora muzkiña dago (S), denbora ona ~ ederra dago (IN, G), ze denbora egiten du? Denbora ona da (LAN, AL, S, KA, ITS), bihar denbora ona ukanen dugu (LAN), denbora piztia (ona) (LAN), denbora tutula (KA), izi-garriko denbora txarrak aritzu (LAN, G), denbora xirxila da (lanbrotsu) (LAN), denbora zaputza (txarra) (S). **3. aro** ona da (LAN, AL), agian aro ezta ukanen dugu (LAN), negüko aro gaxtua (AL), aro hitza zen (LAN), aro gaitz da (LAN, AL), aro xarra zen (LAN), ez da aro kanpoko (LAN). **4. sasoi** txarra dao (IN). **B. 1. egualdia** txoil **aldatu** da (erabat) (G), atzo

itxura polita artu zuen baña bereala berriz erori (ID), kanbiatu du denbora (KA, S), egualdiak diferentzia aundia artu du (G), gaur goizean goiztiri ederra zen (garbi garbi) (AM), zeru zulatu batzuk badira (G), zeru zulatu du; denbora aldatuko du (G). **2. egualdia altxatzera** dioa (G), egualdia argitu du (O), denbora arintzen ari du (hobeagotzen) (AM), egualdia beratu egin da (ID), egualdiak epeltzera dijoala ematen du (O), sobera eztitu du (KA), goititzen ari du (S), goxatu du denbora (AM), egualdia hautsi du (G), behin San Josez gero asko hausten du negua (O), hotza asko hautsi du (O), egualdia obeagotzera doa (ID), aroa hobetzerat da (KA), egualdia jaso egin du (O), hau egualdi ona jarri duena (O), denporea onduten doa (IN), egualdia onera doa (G, O), denbora onetara doae (AM), egualdixa ongetan doia (IP), egualdia ontzen ari du (U, KA). **3. bare bare** jarri da denbora (euria egiteko moduan) (AM), ekaizti pixkot egin behar du (S), egualdi honek eraso egingo dio (txarrera joko du) (O), hoztu egin du egualdia (O), denbora hoztu du (KA, S, IN), ilundu egin du (O, G), denbora kukutu du (lainotu, goibeldu) (AM), aro kukia (KA), zein lantzurdia bota duen (AM), egualdia mindu du (hoztu) (ID), mukuts ~ lantzurde egin du (AM), pixutzen ari du (iluntzen); erasan behar du (AM), trumoitzen egin du egualdia (O), trumonada ederra bota du (O), gaur denbora tutu egingo du (muku, lainotsu) (S), egualdia txartzen ari du (U, ID, O), egualdixa txarketan doia (IP), aroa txartzen ari da (KA), denporea txartuten doa (IN), egualdia txartzera dioa (O, ID, EL, G), egualdia txartu egin du (O, ID, S).

lan egiteko **EGURALDI** ona da / (etxe) **barruan**: langiro da (AM, O, G), bearregun ona dao (IN), laneko aro ona ~ gaitza da (KA).

oiloak gauaz **EGURREN** gainetan zeuden: oloak otan egiten debe lo (IN), kotan (O, G).

BEREIZ: **1.** etxea **EGUZKI** begian dago (AM, IN, LAN), etxea eguteraan dago (O, G), etxea eguzki aldean dago (S). **2.** etxea

laiotzean dago (O), etxe laiotza da (O), etxea ospelean dago (G), baso ospela (O), etxea itzal aldean dago (S), añubean bizi dira (EL, AZ), toki elutsa da (G).

oraintxe agertu da **EGUZKI jauna**: eguzki andrea (O), Ama Birjinaren begia (G).

EGUZKIA ez zaio ongi **erortzen** / **erortzen** (itsas haizea).

EGUZKIAK aurpegiaren ematen zion / **eman**.

EGUZKI ederra dago (O) / **euria**, laino, eguraldi: eguzkiak erten du (O), eguzkia egiten du (ITS), euzki ederra atera du ~ da (O), egün ekhi da (AL), egun iguzki da (KA), iruzkia dao, egualdi ona eldu da (U), hauxe eguzki errea! (O), eguzki gexia, txepela dago / indartsua (O), eguzki gaixua (O), eguzki goxoa (O), eguzki zuri (euri izateko itxura duela) (O), eguzkia gaixotzen ~ txepeltzen ari da (O), iduzki apala dago (AM), ze iguzkialde ederra dagoen (AM), kalma ederra bota dik gaur eguzkiak (S), eguzkiak begia zorrotza dakarki gaur (bero handi izango dela) (O), gaur goibel tartetik eguzkiak bortxingatzen du (S), bortxinga aundiak egiten ditu (S), ortxinga ederra dago orain (O), bero ortxinga ederrak egin ditu gaur (G), eguzki onek lamada ederrak botatzen dizkik (G), goibel artetik eguzkia bortxinga dago (S), ...ortxinga (G), eguzkiak bortxingaka ari du laino tartetik (AM), eguzkia kirika, sar-atraka ari da (AM), eguzkia begia azaldu nahian dabil (O), eguzkia lañoepan altxatu da (AM), iduzkia fite lekutuko da (AM).

IDUZKITAN dago (AM, O), iguzkitan egokida (= dago) (KA), eguzki epeletan (O), eguzki epela artzen dago (G, O).

EHUNDAKA gazte etorri ziren (IN), eunka gazte etorri ziren (O, ITS, AL, LAN, KA, G), eunka etorri ziren gazteek (S), berreundaka behi daukoz (IN), ehundaka (IN).

EHÜNKA ba zütian ardiak (AL) ~ / **milaka**. elur **EKAITZ** ikaragarria sortu zen: / **sortu**: elur erauntsia hasi zen (KA, S, O), au elur erauntsia hasi du (S), elur erasoaldia (G), elur zaparrada da ~ bota dau (IN), elur eraso heldu da (G), elur eraso bota du (G), a ze elur eraso datorren (O), a ze elur erauntsia heldu den (S).

EKAR ERAZI ~ / **arazi**: erakarri (GR), egurra menditik ekarratzen zen (LAN), ekarriazi (O, G, LAR), ekarrarazi (KA), ekarriazo (IN), ekarri eragin (IP, EL), ienden engantzeko, beregana erakartzeko (AX 269).

Paulo le insistia ■ Paulo **EKIN** eta ekin ari **zian**: Paulo esan eta esan ari zitzaion (O, KA), ekin ta ekin in deusat (IN).

borrokan EKIN zioten: burrukari ekin zioten (O), burrukan asi ziran (ID, EL, KA, S), borrokan ekin zuten bata besteekin (G), ukamiloka hasi ziren (KA).

behar ez diren **EKINTZAK** egin zituen: bear ez direnak egin zitun (O), bear ez diren gauzak egin (O), egin bear etzena egin du (G, KA), bear ez tana in eta bear dana in ez (IN).

haren **bizitzako EKINTZA** ezagutzen zuten: aren bizitzako gorabeherak ezagutzen zizuten (IN, G, O), haren biziaren berri badaki (KA).

laguntza EKONOMIKO bat edukitzea **zerbait ona** da: diru laguntza ona da (O, G, AM, IB), diru laguntza gauza ona da (O, IB), gobernamentutik laguntza ukan du (KA).

Maite **EKONOMIKOKI** gaizki dago / **dirutan** (oso urri)..

-(E)LA / (e)nik / -nik.

ELEKTRIZIDADE gabeko etxea ~ argirik gabeko etxia (S, G), an etxean argia ifini deurie (IN), indarra sartu gabeko etxea (O, AM).

San Bertolomeko **ELIZAN** bataiatu zen / **-ko** / **herri**: Elgoibarko San Bartolome parrokian bataiatu zan (EL).

ELIZDORRETIK hamabiak **jotzen** dute: kanpantorrean amabiak jo ditube (O, IN), elizan amabik jo dute (S, IN), erriko erlojuak amabiak jo ditu (G), elizako ezkillak amabiek jo dute (AM), erriko erlojuan amabiak jo due (U), Etxango eleixan amabixak jo debe (IP), elizako zeinuek eguerdi jo dute (KA).

ELKARREKIN / BATERA / **batean** / **batera**: **1.** *elkarrekin*: gehienetan «el uno con el otro» adierazten du. **2.** *batera*: «a la vez». **3.** *elkarrekin* esan beharrean maiz «bata bestearekin» esan liteke (hirugarren pertsonaz

denaz bezanbatean). 4. *elkarrekin* beti da *batera*.

1. *alkarrekin* ibiltzen dira, oso lagunak dira ta (IB, EG, AZ, KA), alkarrekin ikasi genun euskeraz (biok elkarrekin mintzatuz...) (G, O, ID), elkarrekin ari ziren mintzatzen (AM, G, O), domekero alkarregaz joaten dira mendira (IB, EL, AZ). 2. *batera* etorri ziren autobusean baina elkar ikusi gabe (G, O), batera eldu ziren etxera, zazpietan, baina nor bere bidetik (AM, S), denak batera itz egiten zuten; ezin deus entenditu (G), denak bate(a)n itz egiten zuten (G), denak batean mintzo ziren (AM), batera sartu ziren Unibertsitatean, bata Indautxutik; bestea ikastolatik (O), Loiolako eta Euskadi Irratiak batera emango dute itzaldia (O), batera ikasi genun euskeraz (= ikasgela berean...) (ID, O, G). 3. *bata bestearekin* ari ziren mintzatzen (AM, G, O), batak bestearekin konfiantza handia daukate (AZ, EG, IB), bat bestearekin ari ziren elekteta (KA).

ez dute *ELKAR beharrik* (Oroit: elkar deklinatu egiten da): ez dute elkarren beharrik (G, O, KA), ez debe alkarren bearrizantik (IN), aserretu dira baña ezpaitire elkarren bear... (AM), ez dute batak bestearen bearririk (O), orrik arkalen bearrizenean daoz (IN), orrik arkalen bearrizena deukie (IN). *ELKAR bizi* dira: elkarrekin bizi dira (AM, G, O, U, KA), iruek baten bizi dira (G). *ELKAR lehiari* daude: elkarren lehiari ari dira (GR), elkarren teman dabiliz (O, G), zein geixao dabiz (IP), zein gehiagoka ari dira (KA), elkarren kimeran ari dira oiek; i baiaiz ta ni banauk (S).

ideologia marxista freudianismoarekin *ELKARGANATU* zuten: ideologia marxista eta freudinismoa elkarganatan saiatu zen (GR), ideologia marxista eta freudianismoa elkargana biltzen saiatu zen (GR), ardiak ta arik alkargana bildu zitun (G, O, ID), bat egin ditu (O), ardiak eta ariak bateratu ein zitun (O), alkartu egin zittuen (IP), batu (IN), ...elkarrena bildu dira (S), etsaiak alkarrenatzen ditu (O), biribildu (IN), komunismoa eta kapitalismoa elgarretaratu nahi ditu (KA).

ez *etorri* denok *ELKARREKIN*: ez etorri denok batera, banan banan baizik (GR), ez etorri danok batera, banan banan (O, IN), banaz banazezan (IN), ez gin denak batean, aldian bat (KA).

ezin haiei ulertu, denak *ELKARREKIN hitzegiten* zuten *elkarrekin / batera*.

ELKARREKIN bizitza *kontatzen* dute: elkarri (O, G), alkarren bizitza kontatzen ari ziran (O, G), an ari ziran alkarri beren goraberak kontatzen (O, G), alkarrekin egongo gara arratsaldean (O), gauzen erraiten ari ziren elgarri (KA).

ez dute *ELKARREKIN* zer ikusirik ~ *elkarrekin* (ze) *ikustekorik*.

ELKARREKIN agertu dira alegi batetan: batera (IN, O), liburuan alkarrekin itz egiten agertzen dira (O), elgarrekin jin dira autobusean (LAN).

horiek *ELKARREN gorrotoa* dute ~ alkarrekin gorrotoa diote (G, O), elgarren herra badute (KA), aiek daukate alkarrentzako gorrotoa (O), oiek elkarrentzako enkorroa daukate (O), elkarri gorroto badiote (S), malezia diote horiek algarri (LAR).

ELKARREN oso ezagunak ginen ~ oiek ezagunak dira (O, G, IN), alkarren oso ezagunak dira (O, IP, KA), arkalen ezagun aundiak zirean (IN), gure ezaunek dira (IN), algarren adixkidiak dira (LAR).

horiek *independiente* dira *ELKARRENGANDIK*: elkarren artean (O), oiek eztaude alkarri lotuta (O), ...lotuak (S, KA), oiek bana dira (O), oiek eztute deus ere elkarrekin ikustekorik (S), ezteukie zer ikusirik alkarregaz (IN) ...batak besteagaz (IN), ez dute elkarrekin deusen ikusirikan (G).

ELKARREZ berba egin zuten: arkalegaz berbaz daoz (IN), alkarrekin itzegiten zuten (U, G, O), elgarrekin mintzatu ziren (KA).

Greziako eta Italiako poetak *ELKARRIZ aztertu* ditugu: batera (ID, IB), orrek anai biek batera bizi dire (IN), orrek anai bixok batera bizi dia (IP), gauza horiek biak batean miatuko ditugu (KA), bi semeak batean agertu dira (S).

ELKARRIZKETA bizia *daramate*: elkarrizketa bizian ari dira (O), alkarriketan berrituta dabiz (IP), bixi bixia ari dira mintza-

tzen (KA), ...bizi bizi (S), biziki ari ziren elestan (LAR).

Gipuzkoa *Nafarroari ELKARTU* nahi diote: Gipuzkoa eta Nafarroa batu nahi dute (O), Gipuzkoa Nafarroari itxeki bear zaio (S), iratsi bear zio (G), Baxe Nafarra eta Nafarra elgarretartu nahi lukete (KA).

bi burni horiek *sutan ELKARTU* ~ galgan elkarri erantsi (O), bi burni alkarreri iratsi (G), elkartxiki (AM).

ELUR ekaitza *sortu* zen *elkarrekin*.

ELURRA egiten du *elkarrekin* (egiten du).

ELURRA hasi da *erortzen* *elkarrekin* (egiten): elurra asi du (S, G, AM, O, U), bihar ere elurra litake (KA, O), elurra ari düzü (AL, KA), elurra ari du (AM, O, G, ID, S), ari da (KA), elurra egin du (ITS, LAN, AM, IP, EL), egin lezake (O), elur lasoa ari du (S), edurrari dereutso (IP), edurra da (IP, IN), oin be edurre ekine da (IN), edurre dakar (IN), elurra heldu da (S), ekineri garagoio (= elurrari) (IN), elgarri elur botaka ari dira (KA), elur puska bota du (S), ori da elurra botatzea (O, S), elur puska ederra bota du (elur handia) (G), edurre bota iten dau (IN), elur handia egin du (KA, O, G, U), elur guti egiten du zenbait urte huntan (LAN), Landibarren etzuzun aspaldian izan aurten bezanbat elur (LAN), edurre ubiri dao (IN), erruz ari du (G), ugari ari du (G).

mendiei *ELURRA* joan zaie: mendiak lurmendu egin dira (ID, O, ID), lurmentzen ari du (O), lurra beztu du (U), mendiak lurmentzen ari dira (O), elurrak asko urtu dira (G, AM), elurrak meatu egin dira (G, AM, ID, S), elurra mehetu egin da (O), lurmendu dau (IN), lurbendu dau (IP), mendia lurmenduta dao (oraindik elur zaplastoak ba dira) (IN), karroia gesaldu da (LAN), elurra urtu da (LAN, KA).

habia nieve en polvo ■ *auts-ELURRA* zen eskiatzeko: elur xea zen (O), elur txea (G), elur xehea (KA).

sei *zentimetroko ELURREZ* bete ziren bideak: ogei zentimetro elur ba zen bideetan (G), (zentimetro) (KA), ogei zentimetroko elurra ba zegon (O, IP).

bost orduan *ELURTE* asko egin zuten *elkarrekin*

asko: bost orduan elur aundia egin zuten (O), elurteak luzaz iraun zuten (S, AM), bost orenez elur ainitz egin zuten (KA).

mendia *ELURTZAPEAN* zegoen ~ *elkarrekin*: mendia elurretan dago (O, KA), mendian edurtze andia dao (IN, ID), mendian edurtza itzala euen (IP), gizona elurpean dago (elurrak azpian hartua) (O), elurretan dabil gizona (O), mendia elurpean da (KA), mendia elurgin dago (S), elurketa handi da (LAN), edurtze handie dago (IN), elurte haundia da (S), elurte haundia bota du (S).

EMAIOZU argiari *elkarrekin* eman: piztu ezazu argia (S, G, AM, O), ixotu argixa (IP, EL), ixitu (IN), argia pitz / argia hil (KA).

asko *EMATEN* da hori egungo egunean *elkarrekin* (jarrera) *ematen*.

asteburu ona *EMAN* dezazula ~ 1. egun oso onak eman zituen Donostian (IP), hiru urte eman zituen Afrikan (KA), ordu bete bat emon euen etxian (IP), an illebe bat emon euen (IP), denporea emon ezinde dao (IN), arkoloka emon dau egun guztia (= geldirik) (IN). 2. asteazkenta ~ asteürhentze hun bat igaran ezazie (AL), asteburu ona igaro (O), (irago) (G). 3. ordu bete bat egin zuten etxean (O). 4. egon zen (KA), 5. asteondar ona pasa ezazue (KA), asteburu ona pasa (O).

eguzkiak aurpegian *EMATEN* dio: 1. arpegia bete batean arrapatzen dio eguzkiak (O), eguzkiak bete batean arrapatzen zuten (O). 2. eguzkiak erantsi dio (gorritu edo beztu) (O), eguzkiak ez dizu erantsi (O). 3. eguzkiak aurpegia erre dio (U). 4. eguzkiak aurpegian jotzen zuten (G), iguzkiak begietan joiten zuten (KA), iguzkiak ongi ioiten du (ITS, AM), ekiak buruan jo du (LAR). 5. eguzkiak aurpegira eman dizu (gorritu edo beztu) (G), ekiak begitardean eman deio (AL). 6. eguzki kolpe bat ukan du (KA). 7. eguzkiek pasau dau (IN).

no se dará ningún cambio ■ ez da *aldaketarik EMANGO*: ez da kanbiamendurik izanen (KA), izango (G, O), egiñen (G), egingo (O), egongo (IN).

argitara EMAN zuten: argitara zuten (GR).

es difícil en la vida dar marcha atrás ■ zail da bizitzean **atzera EMATEA**: altzera egitea (G), bide ori uztea (G), ez da errex gibelerat egitea, berrigitea (KA).

azeriari harria tiratu nion eta **EMAN** egin nion: ...eta jo egin nuen (O, ID, S, AM, KA).

borrokari **EMAN** zion: borrokan hasi zen (O, EL, G, KA, S), borrokari ekin zion (GR), Arnora emanak (AX 265) emaztetara emana (AX 325).

bote txarra **EMAN** du / **tenis**.

mailuz buruan **EMAN** zioten / **behera**.

asko **gaixorik** jarri dira, gehiengo Nafarroan **EMAN** delarik: anitz eritu dira, gehienik Nafarroan (KA), asko gaixotu dira, geienak Nafarroan (O, EL) (gaizkitu) (G).

allí dio una de las granadas ■ han **EMAN** zuen **granadetako** batek: granada batek an jo zun (O), bonba bat erri artara bota zuten (G), bonba bat han zartatu zen ~ zapartatu (KA).

grifoari **EMAN** zion / (argiari) **eman**: iturria ireki zun (G, EL), robineta ideki zuen (KA), txorroa ireki zun (O), grifoa ideki (S), grifoa ereki (AM).

me han dado la palabra y hablaré ■ **hitza** **EMAN** didate eta hitz egingo dut: orain nere txanda da eta hitz egingo det (O), hitz egiteko esan didate eta hitz egingo dut (G), enealdi da (KA).

jantzi horrek **ongi EMATEN** dio: jantzi hori ondo dauka (O), soineko horiek untsa ditu (KA), soineko horiekin untsa da (KA), jauntziera orrekin izugarri ederki dago (S).

se está dando mucho esa postura ■ **jarrera** hau asko **EMATEN** ari da: anitz hunela ari da (AL), ainitz hola ari dira (KA), anitz hola ari dira (AL), anitzek jokabide au artu dute (S), aunitzek ola egiten dute (S), olako asko gertatzen da (O, ID, G), askok ala itten daue (IP), askok jokabide ortatik segitzeie (O), askok jokabide ori dabilkie (O), asko jokabide ortatik dabilta (O), gure egunotan maiz gertatzen dira holakoak (GR), ...egun okaz (IN), egun auetan askotan gertatu dira olakoak (O, EL, G), egun hotan ardura gertatzen dira holako gauzak (KA), orai olako franko pasatzen da (S), oingo den-

poretan olako kasu asko pasetan da (IN), maiz olako gauzak gertatzen dira (G, O, ID, KA), pasatzen dira (G, O, ID, EL), sarri olako gauzak gertatzen ~ jazoten dira (IP).

a. EMAIOZU jaten (IB, O, ID), **b. gose bada, emozu jatera** (AL, LAN), (emakozu) (KA, LAR).

ez dut uste horrelako beste **kasurik** **EMAN** denik / (jarrera) **ematen**: ...izan denik, gertatu denik (G, O, EL), ez det uste orrelakorik len gertatu zanik (O), burruka gogorak izan dira (IP, O, ID, G), ez zaut iruditzen lehenago holakorik izan den (KA).

le han dado el grado de teniente ■ **teniente maila** **EMAN** diote: teniente egin dute (G, O, IP, IN, ID), letientan egin dute (KA), letientan gradura iragan da (KA).

gizon **horiek** nekaturik daudela **EMATEN** du / **irudi**.

acaba de dar la hora ■ orain **EMAN** du **ordua**: orain, oraintxe jo du ordua (O, G).

nigarrari **EMAN** **zaio**: nigarrari eman dio (AM, O, U, S, G, ID), negarrari eman deuto (IN, IP), negarrez asi da (U), hasi da nigarrez (AL, AM, KA), lanari lotu (AL).

lehenago ohiturei **EMANA** da ~ / **etxeki**: ohidürer etxekirik da (AL), usai horri atxikiak gira (KA), ohidürer loturik (AL), oitura zar zalea da (O), azturer jarraikia da (ITS), ori kostumbre zaarrera doae (S), ohitura zaharren zalea (G), usai txaharrei atxikia da (KA), onera emana (AX 273).

ordu bete bat **EMAN** zuen etxean / (asteburu) **eman**.

aurrean zeukan **palankatxoari** **EMAN** zion / (grifoari) **eman**: eragin zion (O, IP, G).

pentsatzeari **EMATE** horri **utzi**: pentzeteari itxi (IN, G), utziozu gauza ori pentsatzeari (O), geldi zite pentsaketan arizetik (KA).

soldaduak **sakeiuari** **EMATEN** ziren: soldaduak lapurretari eman zioten (G, O), lapurretan asi ziren (G, O), ohointzan ari ziren (KA).

ur **tantek** buru gainean **EMATEN** zioten: teillatutik beti ur tantak etorri zizkit (G), buru gainean jotzen zuten (G), ...euri xortak jausten dira (KA), buruan jotzen zuten (O), ur tantak burura erortzen zitzaizkion (O).

darán en la televisión ■ **telebisioan** **EMANGO** dute ~ **telebisioan** erakutsiko dute (KA).

arbolak topea **EMAN** du / **topea**.

no quisiera parecer agarrado ■ ez nuke **zekena** **EMAN** nahi: ez pentsau zekena naizenik (O, EL), ezazula pentsa zuhurra nizela (KA), ez pentsau dollorra nazenik (O), ez uste zekena naizenik (O), ez pentzau lukurrerue nazenik (IN), ez pentsa xurra naizenik (G), ez uste ukan zuhurra nizea (KA).

haren alaba **hartu** zuen **EMAZTE**: 1. Josepa artu du andra (legezkoa) / andratzat (amortantea) (O), Jon artu du gizontzat (ezkondu barik) / Pedrogaz ezkondu da (IP). 2. eztu nehork emazterik harturen (LEIZ. Mark 12,25), bere alaba bastarda... hartu zuen emazte (AX 233), hartu zun andrea (G), eztu inork andrerik artuko (O). 3. nekato ori artu zuen andretako (U, G, S), andratzako artu dau (IP), Edurne artu oan andratzat (IN), andretzat (AM, O). 5. nekattilla hoji hartu zian emaztetako (AL), Mari hartu zian emaztetako (AL), Teexa ukhen du emaztetako (AL). 6. oroz gaineatik eskualdun alaba nahi nuke emaztetzat (ITS, KA), emaztetzat Olarieregi andrea hartu du (ITS), emaztetzat hartu zuen nekatoñoa (LAN), hura galde egin zizin emaztetzat (LAN). 7. iritatiko alhabak Labastie haitatu du laguntako (LAN, AL). 8. Jon hartu du senartzat (ITS), etzuen senartzat nahi (ITS, KA), senarretako (AL).

EME / **ar**.

-ENA / **-la**.

-ENAREN / **aurpegia** / **beldur izan** / (etorri denaren) **berri** / **itxaropena** / **itxura** / **izena** / **seinale** / **suposatu** / **zelatan** / **ziurtasuna**.

ENBENENATU egin zuten / **aparkaleku**: benenauta il zen (G, AM, O), pozoinatu dute (KA), tontatua (S), pozuatü (AL), (LAR), pozuatürrik hil zen (AL).

ENE denboran holako gauza asko ikusi **ditut** (Erreflexiboa Bizkaian egiten dute ongi) / **erreflexiboa**.

ENE lagunaz oroitzen **nintzen** / **erreflexiboa**: neure lagunaz akordeta naz (IP, IN, EL).

jokoan **ENGANIATU** egin zuten: tratuan eta jokoan iruzur egin zioten (G), ziri ederra sartu zioten (O, IP, G).

ENGOITIK etorri zen / **orainez** gero.

-(E)NIK / -(e)la / **-nik**.

sorginak **ENKANTATU** egin zuen: norbaitek xarmatua nu (ITS, KA).

ama izaten zen ilea **mozteko** **ENKARGATUA** / (nire) **kontu**.

bera **ENKARGATUKO** zela esan zuen / (nire) **kontu**.

ENKARGUZ **egina** bezala da: propio asita ere etzuten orren okerra eñen (G, O), etxeak bear eta bideak ekarria da (S).

ENKAS hor baziren (ITS, LAN), an beuen be joan zan (IP), bazpada ere, joan egin zen, an ote zeuden (O).

kristalak hotzez **ENPAINATUAK** daude: otzez gandututa (O), lañotu(a)k daude (S, ITS), kristalei intza etortzen zaie (AM), leñua jarri zaie kristalari (U), leihoko bi-triak lanhatürrik dira (AL), lanbroak artuak daude (G), kristalak lanbroa daukate (G), berinak lanoturik dira (KA, LAN), kristalak kandoa jarrita daukate (G), kristalak kandoa daukate (G), ze lanbroa daukate kotxin kristalak (S).

ENPATXOA daukat: jana astun geratu zait (O, IP), estomakian phezü bat badüt (AL), pizu (KA), estomaka phezü sentitzen düt (AL), jana astunago gelditu jata (IN), jan duana pisu gelditu zit (G), estomaka pisu dut (AM), barruko zikinarekin dago (AZ), jana estomakan gainean gelditzait (S).

oso **ENPOLLON** da: oso saiatua da (ID, O, G), saiatzen da lanean (S), biziki entseatia da (KA), eskolan hanitx iseatzen düzü (LAR), eskolan aria da (LAN), egin ahala egiten düzü (LAR), ze jende saiatua den (S), bere lanean jarraikia da (KA).

olak **ENSANBLATZEN** ari zen: olak ixpitan sartzen ari da (O, U, IP), olak matxunberatzen ari da (G, S), ezpainetan sartu (KA), mihitan sartu.

gauza horietan ere **ENTENDITZEN** du ~ gauza orietan ere entenditzen zaio (O, G), gauza orietan niri ez zait konprenitzen (AM), gauza orietan neri etzit entenditzen (G, O), gauza orietan ez zaizu entenditzen

(O), gauza horietan gutxi entenditzen z(a)io (G).

nik asko **ENTRENATZEN dut**: / asko: ni maiz entrenatzen naiz (G), ni sarri entrenatzen naz (IP, O), entrenamendu frango badut (KA), ainitz aldiz entrenatzen naiz (KA).

zenbat ordu **ENTRENATZEN dituzu?** = *¿a cuántas horas entrenas?*: zenbat ordutako entrenamendua eiten dezu? (O), zenbat oren ~ zenbat denbora pasatzen duzu entrenamenduan? (KA), zenbat ordu entrenatzen zara? (G, IN), zenbat oren entrenatzen zira (KA).

BEREIZ: a berriak **ENTZUN** (AL, LAR).

b. berriak **behatu** (arretaz entzun) (AL, LAR), beha da (AL, LAR) / **beha**.

inor baletor, **ENTZUN** egingo **genioke** etortzen: ...entzun egingo genuke etortzen (ID, G, IB, EG), entzun duzia jiten? (KA).

Ez **didazu ENTZUTEN**, Jauna? (telefonoz edo) ~ ez nauzu entzuten, Jauna (ITS, KA), Zeren beldur zen, entzun zezan berehala Jainkoak (AX 34), Zuek entzuten zaituztenak, ni entzuten nau (LEIZ. Luk 10,16), Enzun neutsan egun batean esaten (Peru Abarka), Guk entzun dugu hori erraiten... (LEIZ. Mark 14,18), zer esaten zuen entzun nion (O, AM, ITS, ID).

gure itzak **ENTZUTEN** ari da ~ gure hitzak entzuten dago (O), gure itzak aitzen ari da (U), gure entzuten ari da (KA), guk zer erraten ari garen entzuten ari da; zelatan dago (S), guk zer esaten dugun aitzen dago (G), guri zelatan dago (G), gure zelatan dago (S), goaiten nago (LAR, LAN), goaitari (LAN), goitatu dut erbia (LAN), elkarren zelatan daude (ID, S), bata bestian zelatan daude (O), algarren goaitan dira (LAR), alkarri zelataka daude (G), egonki dira elgarren goaiten (KA, LAR).

ez dut **ENTZUTERIK izan** / **ezin**: ezin izan det entzun (IP, IN, O, S, IN), ez dut entzun ahal izan (KA), ezin nun aitu (G).

Agiri Akademikoa 4 urte baino **gutxiagotako EPE** batetan behar da: luzeenaz, orain lau urte lortutako titulua behar da (GR), zaarrena orain lau urte ateratako titulua behar da; lenaokok ez du balio (G, O), gorenaz

duela lau urte ukan diploma behar da (KA), luzeenaz lau orduko bidea duzu (S).

lau **urteko EPEAZ** egingo dute lan hori: lau urtez egingo dute lan hori (ITS, AM, S), lau urtean egingo dute (O), lau urteko plazoa (epea) dute lan-ori egiteko (G, O), lau urte garneko egingo dute (U), lau urteren epea eman dakote (KA), lau urteko epea eman zioten hura egiteko (ITS, KA), gauzak erosteko epea heldu zen (ITS), lau urteren buruan egin zuen (KA).

hizo de la misma forma que su amigo ■ **lagunaren ERA** berean egin zuen: lagunak bezala egin zuen (O, G, EL, ID, KA) / **bezalako**: ama(re)n moduen in dau (IN).

Retegi ha sido campeón durante cinco años sin interrupción ■ Erretegi bost **urtean ERABAT** txapeldun izan da (O) ~ bost urte erabatekotan (O) / **jarraian**: bost urteotan (U), bost urte huntan (KA), joan den bost urte untan (S), bost urtean segidan (O, ID), bost urtean segidun (G, AM).

ERABILI / IBILI: *Erabili-en orde, ibili entzuten da maiz egungo egunean*. Konplemento zuzenarekin, ordea, **erabili** hobeki legoke: **ebalizu** ori umi oi (IP), ezaizu erabili ori olan (IN, ID), ez ditazke erabili (ITS), makila ukaldika derabila (ITS), goguan erabil ezak (AL), amets hanitx kaskuan erabilten (AL), ez du burua erabiltzen (KA), soinean darabiltzatu arropa horiek (AX 270), orai darabillagun bizitzea (AX 36), erabiltzeintuzu zeure gogoan... gauza batzuk (AX 108).

hitz hori **usu ERABILTZEN** dute (KA) ~ hitz ori oso artua dute (O, AM), itz ori ongi artua ~ sartua dago emen (G).

txapela ERABILZEN du horrek: txapelakin ibiltzen da (O, G, AM), egunero oinetakoe-kin ibiltzen naiz (O), trajearekin ibiltzen da (O, S, G), txapelagaz ibiltzen da (IN), xapelarekin era(b)iltzen da (KA, S), trajez beztitua joan zen bodara (S, AM), gizon hori beti bonetarekin erabiltzen da (KA), bonetarekin ibiltzen da (KA), beti boneta burian ibiltzen da (KA), lanerako zapela (era)ibiltzen zuen (G), lanerako boneta paatzen du (AM, S), laneko xapela erabiltzen du (KA).

ERAGIN / EGIN: Badirudi, *egin-en* faktitiborik jatorrena **eragin** dela. Beste aditzik ere erabilia da, halere: eraginazi, egin arazi, egin erazo / **arazi**: A. barre **eragin** nion (EL), barre eraingutzen (IP), parrea eragin nion (ID), ze parrak eragiten dizkie jenderi (G). **B. 1.** ark eraginazi zizkigun parriak (O), barre ereinazo (IN), parre egin azitze-ko (O), biziki irri egin arazten dauku (KA, LAN, ITS), horri hanitx irri egin erazi deiot (AL), adixkider karkazak egin arazten (AL, ITS), makilari lau üngürü egin erazi (AL), oroitzen zira Manezek egin arazten zauzkigun hirriez! (ITS). **2.** irri arazten nute (KA). **3.** irria aterazten dugu (= digu) (U).

ERAGIN: ongi bereizi aditz honen alderdiok.

1. konplementorik gabe: erain da erain, besue lokartu egin bi jata (IB, IP). **2. datiborekin**. seaskari eragin (O, IP), eskuei eragin, «eragiok mutil aurreko danbolin horri». Karmen, eraixozu aurreko lapikuai erre ez taitzen (IB), Agur esan! Eskutxuei erain! (IB). Egur hezeari... su handiak ere nekez eragiten dio (AX 191). **3. barre egin, nigar egin... faktitiboan datibo eskatzen dute**: Mertxeri nigar eragin nion, Itsasneri barre eragin nion, amak semeari hitz eragin dio, etsaiari ihes eragin zion, alferrari lan eragin zion. Ezta oneri barre eraitxeko eraik (IB), Beti umiai negar eraitxen ibiltxie be ondo tristie da ba! (IB), irri eginarazten dautazu (ITS). **4. bestetan ere datibo eta akusatibo eduki litzake**: beharrak anhitx gauza eragin dezake (AX 128), beharrak gauza asko eragiten du (G), beharrak gauza asko eragin dizkio (O), beharrizanak gauza asko erainazo dautso (IN), Arropa berriak bazkotzat eragin nahi dituenak (AX 134), arropa barria eragin nion jostunari (GR), eginazi nion (O), niri haur eragin draudaten (LEIZ. Sarrera), emaiten du okhasino bekhatu eragiteko (AX 262), ler gaizto eragin zigun (ID), pekatu eragin dio (O), zein (piramideak) eragin baitzituen errege Faraonek (AX 15), Faraonek israeldarrei piramideak eragin zizkien (GR), kalte aundiak eragin dizkigu (O), umeari lo eragin (O), Jainkoaz orhoitze hek, bortxak,

heriotzearen beldurak eragiten baitzerautzan (AX 139), penitentzia eraginez gero (AX 395), jendeari leku eragin die (O), go-goeta eragin (AX), gaizki egiteko bidea paratu dio (G), ...bidea eman dio (S). **5. eragin eta aditza**: «txanponari mundik iraun eragingo» (Kresala), ulertu eragidazu zer egin (Añibarro), hori emazteari sinhes-eragiteko (AL), maisuak ikasleari liburua agertu eragin dio (O), Maisuak ikasleari liburua erakutsiazto deutso (IN), ori aitzen eraitxie kostako jatzu (IB), atzo, astututa gero, pasauteko guztixe kontau erai osten (IB), gosiek lapurretan egitie erain leike (IB), gosiek lapurretan egitxai erain leikixo (IB). **6. eragin eta bizidunak datiboan** = kalte egin, «afectar» / **efekto**: kalenturak ez dit eragiten (G), otzak, beroak eragin dio (O, EL), otzak pasatua dago (G), otzak eraginda dao (O), beroak ikaragarri eragiten dit (G), ume abek dana otzak erainda etorri dia eskolatik (O).

caelum terraque regit* □ zeru lurra **eragiten ditu = *hace hacer el cielo y la tierra*: zeru-lurrei eragiten die (GR), eskuei eragietzu (AX 115).

***1. seaskari eragin / 2. seaska eragin**.

1. amak seaskari eragiten dio (= seaska higarazi) (G). **2.** amak zurginari seaska eragin dio (= seaska egin erazi) (GR), amak arotzari seaska berria eraginazi dio (G).

estaban manipulados por su tío* ■ oso **eraginak zeuden bere osabagatik: / por / **monagillo**.

***curiaren eraginarengatik** busti egin ziren / **busti**: euria(re)kin busti egin ziran (O), (uriakin) (S, KA, G), euriegaz (IN), ebiarekian busti niz (LAR), denbora txarrakin busti dira (S), au txipaldia artu dut (blai eginda) (S), euriegaz busti busti einda dago (IN).

*sagarrak, **arbolak eraginez** botatzen dituzte: arbolai / arbolak eraginez (U), arbola ifarrosita (AM), sagarrak, arbola astinduta bota (O), sagarrak biltzeko, behar da arbola inharrosi (KA).

***mendirira eramango** dugu **ganaua**, **eraginez** (O) ~ ziztetuz (AM), akuluarekin xiztatuz (KA), akulatuz (KA), ganauai, mendira juteko, eragin egingo diegu (O).

***euria**ren eraginez ez da eskolarik izan / **izerdi**: euriagatik ez da eskolarik izan (KA, IP, ID), egualdi txarra(g)atik (U, IP, KA), euri aundiak ziralako (O), denbora txarra delakoan ez da eskolarik izan (KA), uria ari dula ta eztira eskolara joan (S), egualdi txarra dagola ta eztira eskolara joan (S), aurie dalako... loi eginda daude (bustiak) (S) / loitu(a)k daude (= zikin) (S), zipa egi-na etor da; goitik sartu ta beitik ate(ra) (S).

ERAGINEZ / **ondorioz**.

***argal** zegoen, **gaitzaren eraginez**: gaixotasunagatik (O), eritasunagatik mehe egon da (KA), eritasun orrekin aragiak utzitu (S), gexoagaitik makal (= argal) dago (IN), gaizki egondu zen ta orduan flakatu zen (G), gaixorik egon ta makaldu in zen (IN).

***gosearen eraginez**, hil egin ziren: gozian (gosearen) gosez hil egin ziran (O, KA), gosez il zen (IN), goseak ilik dago (IN), beiak goseak il zien (G, S).

***hotzaren eraginez** hil ziren: otza(re)n otzez iltzen (O, ID), hotzez (KA, LAR), otz egin zun eta... (O, IB, IN), otzak il zuan (O, G, S), otzak ilik dago (IN).

***izotzaren eraginez** berebil asko irristatu ziren: izotzagatik (O), ormakin irristu dira (G), bideak izotzuta zeuden eta (O), bideak hormatuak zirelakoan, otoak lerratzen ziren (KA), leixa aundia euen eta kotxe asko labandu dia (IP), izotzakin arbola asko igartu dira (ID), hormarengatik otoa lerratu da (KA), ormarekin kotxea irristu egin zaio (S).

***kolpearen eraginez** gelditu egin da ordularia: kolpea artuta (O, IP, ID, G), kolpe bat eman eta... (S), erloia, ukaldi bat ukanik, gelditu da (KA), golpea artu ta parau egin da (IN).

***lanaren eraginez** aberastu da: lan eginez aberastuta dago (O, S), lanakin aberastu da (O), lana eginda aberastu da (G), lanetik aberastu da (O, KA), bearretik ezta inor aberasten (IN).

***lanaren eraginez** eskuak maskurtuak zitu- en: lanaren lanez eskuak lastuta dauzka (O), lana(re)n lana(re)kin (O), lanean ari

delako eskuak lastuk dauzki (G), bearran bearragaz eskuak lastitute deuko (IN), lanean lanean ari izanik, eskuak lastu zaizkit (KA), lan egin pasionez esku guziek lastuek, ondatuek dauzki (S), bearragaz eskuak lastitu ein jakoz (IN), lanaren lanean eskuak lastatuak ditu (S).

no le apartó de su lado ■ ez zuen bere **albotik ERAGOTZI**: ez zuen bere ondolik utzi (AM, G, O), ez zuen bere ondolik igorri (KA), ez du bere ondolik uzitzen (S), ez dut igorten ahal (LAR).

barka ERAGOZPENAGATIK ~ traba ein dizut eta, barkau (O, S), barkatu, egin dizudan trabagatik (G), barkatu, jenatzen nuzu (KA), barkatu, traban nago (S).

ERAHIL, ERAHILKETA: gaizki. *erhaile*-tik *erahil* aditza sortu da berriki. Gaizki. *email*-tik ezin *email* aditza atera. *Hil*-aren fak- titiboa ez da *e-ra-hil*. Faktitiboa egiteko *-ra-* itsasten da, *era-* ez: ekarri → e-ra-karri. *erhaile* (AX 234), nor da ehaile? (AL), eho- ko zütüt (hilgo zaitut) (AL), makilaz he- bentxe eho behar hait (AL), ehoren zütüt (AL), ehaiteko (AL), ehoka (= sarraski) (AL), agaramontek Baionan jinak oro er- haiten dik (Textu zaharra), frantsesak ehaiten dü eüskara (AL), argia eho zazü (AL), argia ehaiten dü (itzali) (AL), arima hiltzen eta erhaiten dutenak (AX 348), giza-erhai- tekak (LEIZ. Gal 5,21), gizehaite (AL), ehaite handi izan da Atarratzen (AL), ilke- ta (O), gizerhaitekaz (LEIZ. Rom. 1,29).

ERAIKI / **jaiki**.

ERAITXI / **jaitsi**.

familia ederra **ERAIKI** zuen: hazi zuen (EL, G, O, KA, S, IN).

ERAKUSLEEN BEREKKETA (Deixi): Biz- kaieraz egiten da ongien eta lehengo idazle zaharrek ere ongi bereizten zuten / **orai- naldia**: **A. 1.** egun on, jaunak!: egun on, jau- nok! (EL, IN, IP), Agur, jaunak: Agur, jau- nok! (EL, IN, IP). **2.** euskaldunok onak gara! (IN) (-ok eta -ak elkarri horren ongi lotzen ez direla dirudite) euskaldunok on gara (GR). **B. 1.** egunon, jaunok! (IB, EL, IP), anaia maiteok! (IB, EL, IP), «Egun on Jaungoikoak dizuela guztioi!» (gure aita zenak egunero esan erazten zigun haurroi

(EL), orai lege berrion (AX 169,339), orain arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akabatzeon (hau bai euskara jatorra!) (AX 114), orai, arratseon, atrapatu zareneon (AX 142), obra on horion guztion... zeo- rrek zeure eskuz egitea (AX 157), arrazoin hautzaz guztioz emaiten da aditzera (AX 65), gauza hauen guzion beharra baduzuela (LEIZ. Mat 6,32), ari garenon / ari direnen (AX). **2.** nik goizean egin nuen / nik goi- zeon egin dut (Ibarrangelua). **3.** hemen, hortxe bertan / han bertan (Ipizar, Ibarr.), bereunten (AM). **4.** orain bertan / orduan betan (Ipiz. Ibar.), orai bereon, presentean (AX 34) / orduan zeure ondokoeti eta han presentean (AX 159) bertoraño etorri / ber- taraño joan (Ibar. Ipiz.), gaur bertan / atzo bertan (IP, Ibarr.), orai lege berrion (AX 339), aurten bertan / igaz bertan (Ipiz. Ibar.), zuek oraingo gazteok (IP, EL) / hango gazteak (IP, EL). **5.** orrek txakurrok (IP) / areik txakurak (IP), arek bixek / onek bixok (IP), arek bixak / onek bixok (EL), euskaldun geienon biotzetan (IP, IB, EL).

***entzun**, Jauna, pekatariön (= gure) niga- rra (IP, IN, EL), entzun, Jauna, pekatarien (= haien) nigarra (IP, IN, EL).

hara **ERAMAN zion** eginkizuna egin zue- nean...: hara eramane zuen eginkizuna... (GR), hango eginbeharra bukatu zuenean (G), han egin behar zuena egin du (KA), ango eginbeharra egin zituen (S).

Silberio se lleva bien con Anabel ■ Silberio ongi **ERAMATEN** da anabelekin / **kon- pondu**.

traidoreen **bidea DARAMA**: txarrerako bidea artu du (O), txarreko bidea artu du (G), bide txarretatik daile (AM), traidorea erten du (O), bide txarra hartu du (KA).

elkarrizketa **frantsesez DARAMATE**: **1.** orain frantsesez ari dira izketan (O, G), euskaraz eleketa ari dira (KA). **2.** egunero frantsesez itzegiten dute (O, G), frantsesez berbetan etxen debe (EL).

han llevado muy bien la campaña ■ oso ongi **ERAMAN** dute **kanpaina**: oso ondo egin dute kanpaina hori (O), arront ongi egin dute lan hori (G, S).

bost **minutu ERAMATEN** dizkio bigarrenari / **abantaila**.

ez du **konbertsazioa** ongi **ERAMATEN** ~ / **adarretatik**.

bi **ordu DARAMATZAGU** lanean: bi ordu ari gera lanean (O, G).

ordulari ederra **DARAMA** (?) ~ dauka: erlo- jua badauka baña ez da(ra)ma (G, O), ba- zuen erlojua (S), bazamen (zeraman) (S), erlojue deuko (IN), ükaien dü muntra (AL), orrek badu eskumuturrean erlojue (AM), muntra badu ukarean (KA).

ate batek «**Zuzendaria**» **DARAMA** idatzita: ate batean «zuzendari» dago idatzita (O).

hamar **minutu ERAMAN** digu hara joateak

~ **1.** amar minutu bear izan degu ara joa- ten (O), joateko (O, KA), denbora luze be- har dü horren egiteko (AL), ori egiten ~ ori egitezkeroz, denbora asko bearko nuke (O), ori eiteko denbora aundia bear da (O, IP, ID, G), amar minutu bear izen douz ara joaten (IN), oin dijoazen pausuan, ordu bete bearko debe ara iristeko (O), amar mi- nuto bearko ditugu lan ori egiteko (AM, IP, O, G, AM, S). **2.** ai diren aballan, ordu erdi baten bukatuko dute (G). **3.** hamar minuta eman ditugu hara joateko (KA). **4.** amar minutoz in dugu lan ori (AM), amar minutu in dut (G, U, O), bear orre- tan denbora asko in dot (IN). **5.** ori egiten denbora aldia joan zait (S), lan ori luze joango zaigu (O), esamiñak prestatzen ordu aunitz joaten zaizka (S, G, O), (ger- tetan) (IP). **6.** denbora asko irago dut (G), lan ori egiten amar minutu pasau ditu (O, G), orren iten denbora aunitz pasatu dut (AM, O). **7.** ori egiteak denbora asko era- mango likit (O, G). **8.** amar bat minutuko lana badaukat (O, EL), hamar minutaren lana dut (KA), ori egiteko amar minutu aski dugu (S, U), hamar bat minutuko lana dut (S, G), ...beharra deuko (IN), hamar bat minutu lana dut (KA).

ERANEGUN, astelehena, gauean bilera izan genuen: eranegun gauean, astelena zen, bi- lera izan genuen (O), erenogo arratsin (AL), erenu arratsin (G), erenegun gauean, astelenarekin, ukan dugu bilkura bat (KA).

ERANTZI (jantziak kendu) / **erantsi** (iratsi, etxeki).

nabala beltzez **ERASO zun**: ari erasotzeko zai zegon (O), euriari, elurrari erasoko dio (O), erasan du (= eraso dio, euria hasi da) (AM), erasana egin dau = *rotura de ligamentos* (IP), ganitarekin oldartu dako (KA), eraso ederra bota du (G, S), eraso ederra ari du (G, S).

haren **aurka ERASO** zuten: ari eraso zioten (O), arrot erasen dio (= zaparrada, erauntsia egin) (S).

indiarak **ERASOKA** eta erasoka ari dira: indioak bein eta berriz eraso zien (O, ID), eraso aundia eldu da (= zaparrada) (G, S), eraso aundia ari du (G, S).

BEREIZ: **a. ERAUNTSI**. **b. erausi** (hizketa). **d. erasi**(atu). **e. erauzi**.

a. harri erauntsi gaitza egin du (KA), Kas-karabar erauntsia ari du (S), ze kaskabar erauntsia bota du! (S), erauntsi gaiztoa eldu da (U), erauntsi ederra egin ~ bota du (S), euri erauntsia ari du (AM, S), euri uharra ari du (KA), erauntsi polita ari du (S), elur erauntsia ari du (KA). **b.** ze erausia dute oiek (AM), ez dik erausi bertzerikan (S), Markel eta Miren erausian ari ziren (S, AM), erausia askarki horrek! (S), erausian gaude (S), etxe hortan bada erausia! (S), beingun gelditu da solastetik; orren erausia (S). **d.** amak haurra erasiatu du (KA, LAN), zer derasa? (KA). **e.** artoa irauzten ari da (kirkiltzen, aletzen) (S), artoa erauzten (AM), illarrak, ogia, maizak irautzi (S), ilargi zuritan ez da ogia erauzten (AM).

ERAUNTSI ~ **eraitsi**, **eratsi** (= jaitsi erazi) (O) / **jaitsi**: ez jun kalera oñez, nik eratsiko zaitut (O), belak erautsirik (LEIZ. Ap Ak 27,17).

ERAZI / **arazi**.

Pedrori hil **ERAZI** zion / **arazi**.

ERDI: *...parens... regem qui caelum terramque regit*: Zuk **erdi duzu**, betidanik zeru-lurrak eragiten **dituen** Erregea: Zu erdi zara, zeru-lurrei eragiten dien Errege(a)z (GR).

erdiren duk seme batez (LEIZ. Mat 1,21), obra on hetzaz, nekezago erditzen da (AX 53), Gero guthizia, kontzibitu duenean, er-tzen da bekatuz (LEIZ. Iacq 1,15), *persecutus est mulierem quae peperit masculum*: persekuta zezan arraz erdi izan zen emaztea

(LEIZ. Apok 12,13), zeinez... ertzeko penatan bainaiz (LEIZ. Gal 4,19), beia erditzen ari da (AR), beia erkin da (= erdi hurran) (AM, S, O), erdi minetan da (KA), zerria erditzen ari da (S), beia erdin da (= erditzen) (LAR), zerrama erdi da eta lau ume egin ditu (KA).

gauzak **ERDI eginda** alde egin dute: gauzak erdi egiñak utzi ditu (G), erdi eginda (IP), gauzak erdipurdi egin eta alde egin zuen (U), gauzak erdi eginean utzi (O), erdi eginik (KA), erdi inean itxi deuz (IN), gauzak erdibana egin eta utzi (egin) ditu (S), gauzak erdi in gabe utzi ditu (AM).

giltza **ERDI sartua** gelditu da (G, U), giltza erdiz erdi gelditu zait (= atera ezinik) (O), erdi sartuan gelditu da giltza (IN, AM, O, S), giltza erdi sartu(a)n gelditu zait, ez aintzina ta ez gibela (S), erdi sartu (IP), gako erditsutan gelditu da (KA).

orrek ez ditu **ERDI gauzak** ezagutzen: orrek ez ditu gauzen erdiak ezagutzen (O, ID), gauza erdixak (IP), debekatzen derautza erdi gauzak (AX 204), erdi gauzak eztaizki (O), gauzen erdiak (S, LAR), medikuak gauzen erdik baño geiago kendu dit (G), (dizkit) (O), janen erdiak galazi dizkio (O), gauzen erdirik be ez dauz ezaututen (IN).

ardo **botila ERDI** bat gelditu da / **ardo** / **botila**: botila erdi bat arno gelditu da (LAN, S, AM, G, O, U, IP, KA), botella erdi bat ardu egoiten da (AL) ~ baratzen da (AL), botella erdi ardao gelditu de (IN), botilla bat ardo erdi ustuta dago (S, G, U, IP, O), erdi beteta (IP), botilla ardo erdi utsa gelditu da (G, AM), botilla bat ardo erdi ustun (O), botilla ardoz erdi beterik (AL), ontzia erditara urez beterik da (AL), ontzia erdikala urez beterik da (LAN), ontzia urakin erdi betian da (O), marmita ori erdi betean dago (O, IN), ontzi ori erdi utsa dago (G), ekarrak ontzi hori erdikala urez (LAN, KA), marmita erditsuta da betean (S), ura erdikalatu da (KA, LAN), eltzia erditaraino betea dago (AM), ogia erditik egin da (LAN, KA), erdi beteta (U), ogia erdizka eginen dugu (LAN).

emaidazu ardo botilla bat **ERDI** hustuta / **erdi** (bat gelditu).

ondasun ERDIA eman zion: ondasunen erdiak eman zizkion (AM, G, O, ID), neure onen erdiak emaiten derautzet probei (AX 166), neure onen erdiak, Iauna, emaiten dirazteat paubrei (LEIZ. Luk 19,8), aberastasunen erdiak (KA), jendeen erdiak etorri dira (G, S), liburuen erdiak irakurri ditut (O, G, KA, S), neuzkan liburuetatik erdiak irakurri ditut (O, G), liburuak erdiak irakurri ditut (IP), liburu erdiek (plural) (IN) / liburuen erdie (sing.) (IN).

Espainiako **jende ERDIA** bakearen alde daude: Espainiako jendeen erdiak bakearen alde dira (KA), jente erdixak (IP), jendien erdiak (O, ID, S), Erromako andre prestuen erdiak desohoratuz gero (AX 232), hitzen erdiak eskibribatzen baitituzu (AX 61), gauzen erdiak galerazi zizkien (AX 188), hitzen erdiak jaten ditu (KA), solasean erdia atzera jaten du mingañekin (S).

etxe honetan **gauza ERDIAK** geureak dira (IP), gauzen erdiak (O, G, KA, LAR).

ia umerik **ERDIAK** eskolara joaten dira: ume erdixak (IP), umeen erdiak jun dira eskolara (O, ID, G, KA).

la mitad de las gallinas están enfermas ■ **oilo ERDIAK** eri daude: olloen erdiak gaixorik daude (O, ID), olloen erdiak gaizki daude (G), olloen erdiek eri daude (AM), olloen erdiak beno haboro eri dira (AL, KA).

ERDIAK ustel / erdi ustel.

*sagarren **erdiak ustelak** daude (AM, G) / sagarrak **erdi ustelak** daude (AM, G), sagarren erdiak usteldu dira (hamarretik bost) (G, O, IN, S), sagar erdiek emongo deusudaz (IN), sagarren erdiak ustelduta daude (O), otzaran daozen erdiek ustelak dira (IN), sagarrak erdi ustelak daude (G, AM, O), sagar oien erdiak ustelak dira (AM, G, KA), sagar oiek erdi ustelak dira (G), sagarrain erdiak ustelak txu (LAN), hagin erdiak hirotürrik dütüt (AL), hagin erdi hirotürrik (AL), aginen erdiak ustelduta dauzkat (O), agiñak erdi ustelduta ~ erdi ustelak dauzkat (O), agiñen erdiak ustel duzkit (G), aginak erdi ustelak dauzkit (G, KA), aginen erdiek ustelduek (AM), aginak erdi ustelduek (AM).

vino hacia media tarde: **ADIBIDEAK**. / (eguerdia) **aldera**: arrastiri **ERDITSUTAN** jin zen (AL), arratsalde erdialdera etorri zen (O), arratsalde erdian etorri zen (U), atsaldede erdialdera (e)torri zen (AM, S, IP), arratsalden erdialdera (G), apirilaren erditsutan jin zen (AL), arratsalde erditsutan (KA), apirilaren erdialdera etorriko da (G, O, U, S), apirilaren erdialdean etorri zan (O), apirillaren erdialdera etorriko da (O), aprillan erdirantza etorriko da (IN).

Frantziako ERDIALDERA dago herrixka hori: / **gutxigorabehera**: Frantziako erdialdean (O, IP), Frantziako erditsutan dago (LAN, AL, KA).

hiriko ERDIALDERA heldu ziren: / **gutxigorabehera**: iriaren erdira eldu ziranean, antxe gelditu ziran (O, IN, IP), ibilliaz ibilliaz, zebiltzala zebiltzala, herrian erdiraño iritsi ziran (O), errin erdira eldu zira (G), herriaren erditsutara heldu ziren (KA).

BIDE ERDIAN / **bide**.

lagunarekin **logela ERDIBANATZEN** zuen: bi lagunak kuartoa erdibana artuta euen (IP, IN, O, G, S), ganbara erdizka hartu zuten (KA).

auzo ERDIETAN su piztu zuten: plaza erdi erdien su egin euen (IP, IN, O, G), plazaren erdian su eman zuten (KA), errian erdira sartu zen (S), hiri erdirat sartu da (KA).

ERDIFINALA jokatu dute: azkenaurrekoa jokatu dute (O), azkenaurreko partidoa (G, O, IN), azken aintzinekoa (S), azkenaren aintzinekoa (KA).

ERE: huts asko egiten dira adberbio honekin. Ikus sintagmaren zein termino markatzen duen eta haren ondoan ezar / **galdegaia** / **bai** eta ere.

***BEREIZ**: **a.** lehenago ere Muñuberekin ezkontzekotan ibili zen Miren. **b.** lehenago Muñuberekin ere ezkontzekotan ibili zen Miren. **d.** lehenago Muñuberekin ezkontzekotan ere ibili zen Miren. **e.** lehenago Muñuberekin ezkontzekotan ibili ere zen Miren. **f.** lehenago Muñuberekin ezkontzekotan ibili zen Miren ere.

***BEREIZ**: **a.** orduan ere esan zuen. **b.** orduan esan ere zuen ~ orduan esan zuen, esan ere.

*Ongi bereizi: *a.* Begoñari ere musu bat eman zion. *b.* Begoñari musu bat ere eman zion. *d.* Begoñari musu bat eman ere zion ~ musu bat eman zion, eman ere.

*orduan esan ere zuen (AX), erraiten ere du Espiritu Sainduak (AX), ogia eman zion, merezi ere zuen bezala (LAN, KA), maite eta laguntzen ere zuten eskuara (ITS, KA).

**también te he dicho que te amo* ■ esan dizut ere, maite zaitudala: maite zaitudala ere esan dizut (O, EL, G), erran ere dizut, maite zaitudala (ITS, AX, KA), grinek trabatzen ere gaituzte (ITS, KA), errana dautzut jadanik, maite zaitudala (ITS, KA), hauxe ere esan dizut: maite zaitudala (O, G, ID), baita maite zaitudala ere esan dizut (O, G, ID).

*han zegoen ere katua: an zegoen katua ere (IB, IP, O, KA).

*esan dugu ere, ona zela: esan ere (esan) dugu, ona zela (GR), ona zela ere esan dugu (G, O), errana dautzut jadanik ere, ona zirela (KA), berotzen ere du (KA).

**baita* ere irakurleari aipamenak egiten dizkio / *baita* (ere): irakurleari ere aitamenak egiten dizkio (O), irakurleari kontsejoak ere ematen dizkio (O), irakurleari kontsejoak eman ere egiten dizkio (O), leitzailari kontseiliak eman ere dazko (KA), irakurleari aholkü ere emaiten deio (LAR).

*aipatu behar dira ere agertzen diren pertsonaiak: agertzen diren pertsonaiak ere aipatu behar dira (O, ID, KA), orai eldu direnak ere ezagutzen ditut (S).

*laster ere beste arazo bat agertu zen: laster beste arazo bat ere agertu zen (O, G).

*laguntzen dute ere bai digestioa egiten: digestioa egiten ere laguntzen dute (O, ID, S), pilura horiek digestioa egiten ere... (KA).

*loditzeko, jan behar da ere: loditzeko, jan ere egin behar da (O, ID), (gizentzeko) (KA).

**también vinieron los padres* ■ gurasoak etorri ziren ere: gurasoak ere etorri ziren (G, O), (jin) (KA).

*aho handia, bekokia handia ere: ...bekokia ere aundia (EG, MO, O), kopeta ere handia du (KA).

*poetaren jokaera berdintsua da ere: poetaren jokaera ere berdintsua da (EG, ID, O, KA).

*badira ere beste gizon batzuk: beste gizonak ere badira (G, O), beste gizon batzuk ere badira hor (KA).

*jaun hauek izenpetzen badute ere: jaun auek ere firmatzen badute (EG, ID, O).

*semea hil zitzaion ere: semea ere il jakon (EL, IB, ID, IP, O).

*idazlanak egunkarietara bidali eta baita ere hauek pozik argitaratu: ...eta bai hauek pozik argitaratu ere (EG, ID, MO, O).

**yo también actúo* ■ ni ari naiz ere: ni ere ari naiz (EG, ID, O, KA).

*han zegoen ere Uxune: Uxune ere an zegoen ~ an zegoen Uxune ere (ID, EG, O), Uxune ere han egonki zen (KA).

*izanen dira ere epaileak: juezak ere izango dira (ID, EL, IN, KA).

**baita* ere laguntzen dio euskarak (*baita* aintzineko terminu bati loturik dator) / *baita*: euskerak ere laguntzen dio, bai (EL, IP, IB), ...laguntzen du (KA), frantsesak laguntzen dio; euskerak ere bai (EL, IP, IB), frantsesak laguntzen dio; bai eta euskerak ere (S), Kepa etorri da eta Irune be bai (IN), Jon ona zan ta Kepa be bai (IN), Jon ona zan ta Kepa be (IN).

*bai eta ere ekintza ona da: ekintza ere ona da (O, EL, IP), Karmen ona da; Elizabete be bai (IN), teoria ona da; ekintza ere bai (ID, S, AM, O, EL), teoria ona da; bai (e)ta ekintza ere (ID, O, G, EL), bai ekintza ere (O, ID, G), nik bai; baite ak pe (IN), nik ez; ak pez (IN), nik ez; ta Jonek pez (IN), Maite ona da; Patrizia ere bai (KA).

*ohean lotan ere, katu bat zegoen: ohean katu bat zegoen, hura ere lotan (O), (a be lo) (IP), katua ere lotan zegoen ohean (O, IP, ID), baita gatia ere lo zen ohean (KA).

*Nekane irriz; Edurne irriz ere: Nekane irriz; Edurne ere irriz (AM), Melani parrez ari da; bai eta Edurne ere (O), Maite irriz ari da; bai eta Patrizia ere (KA).

*deskribapen batzuk agertzen dira ere: anaiak ere agertu ziren (G, ID, KA).

*nik esan nion ere bai: neuk be esan neuntzen (IN, IP, ID, KA).

*etxerako ekarri behar du ere: etxerako ere ekarri bear dut (G), (etxeko) (KA).

*gu elkartuko gara ere: gu be batuko gara (IN, IP), gu ere alkartuko gera (EL, O, G).

*gurasoen lana da ere: gurasoen bearra bada, izen (IN), gurasoen laguntza ere bear da (G, KA), gurasoen bearra, izin (IN), aitan errespetua ere bear da (S).

*ba al daki zure aitak? Ez daki ere: Berak ere ez daki (EG, G, KA).

EREIN: 1. aldatu. 2. egin. 3. erein. 4. landatu. 5. sartu. 6. ipini. 7. bota.

1. tomatea, porrua, letxu(a)k aldatu (G, O, ID), arbola aldatu (O), tomate landarea aldatu (O). 2. patata egiten ari da (O, AM, S), pumaterra egin (LAR), ogia egin (LAR), arbia egin (O), artaazia egitera noa (O), bainak egin (ID), arbiazi egiten ari dira (O), galazia egiten (O), arto eginean ari ziren (O), Artoa ta baba arrastoan; arrastoaz mintzo generala, denetan «egin» esaten da (O). 3. patata ereiten ari da (G, IN, S), (erain) (IP, KA, AM), otazia erein (ID), arto ereiten (G, O, IN, KA), (eraiten) (IP), baberna motxa erein (G), gari ereiten (G, O), (ogi) (KA), tomate azia erein (IN, O), patatea erein (IN), hazia erein eta arto errillak nabarmendu dira (O). 4. tomatea, porruak, entsalada landatzen (KA, S), tomatea lantatu (LAR), kipulak landatu (S), arbolak landatu (S), sagar sabiak mutegian landatzen dira (O). 5. tomate, porru, letxuga sartzen (IP), piñua sartu (IN, O). 6. patatea ifini dau (IN), porruak ifini (IN), tomate landarea ifini (IN), porru ifinten dabil (IN). 7. zitua bota dugu (ogia, artoa...) (AM), galazia zabalean botatzen da; bai eta pagotxa ere (O), pagotxazia botatzen ari dira (O).

ERGATIBOA / *joskera*: jatetxe honen kiratsak goragalea ematen hasi zait: jatetxe onen kiratsa botalarria ematen ari zait (O), botalarria ari zait ematen jatetxe onen kiratsa (O).

*gizona, mendian erori zenean, min hartu zuen: gizonak, mendian erori zenean, min artu zun (G, ID, AZ, EG, MO, IB, KA).

*barka, printze agurgarri hori: barkatu, printzipe agurgarri horrek (G, ID), barkatu, lagun maite orrek (IN, O, G).

ERITZI: a. izen eman, deitu. b. uste izan. d. maite, gorrotatu.

a. Peru deritzan gizon bat (O), Pedro deritxon gizon bat (IP, IN), Gimnosophista zeritxen iende batzuek (AX 19). *b.* zer deritzozu orri (O), zer deritzozu horri? = *¿Qué te parece?* (IN, IP), zer deritzazu? (IN), zer deritzok horri? (IN), zer erizten diok horri? (EL, IN), zer erizten deutsozu horri? (IN, IP). *d.* batzuk txarto erizten deutse (IN), zergatik daritzen Jainkoak hain gaitz hirur bakhatu suerte haui (AX 128), batari gaitz eritziren drauka eta bertzeari on (LEIZ. Math 6,24), Ahaidei baino Christi hobe eritziteko (LEIZ. Math X), gach irrichico ez deusula (Peru Abarka), arraultzari eskuakin ez ikutu, bestela gatx eretxikutso amak (IP), hura deritza asko (AX 292).

*lagunak bata bestearen eritzi txarrak egiten hasi ziren: lagunak bata bestiatatik gaizki pentsatzen asi ziran (O, IP), bat bestearentzat gaizki mintzo dira (KA), horiek elgarrentzat gogoeta txarrak egiten dituzte (KA).

*hizkuntzari buruz gauza zenbait deritzio: Zer deritzo Aristotelesek hizkuntzari? Ba du eritzi zenbait hizkuntzaz (GR), Zer deritzo orrek orri? (IP, IN), zer erizten dio? (EL).

**deritzen* zaio: deritzo (IP, IN).

OHARRA: bi izen lotzen dituen «DERITZAN» kendu egiten denean, ez zaio aurreneko hitzari «-ko» eransten. ADIBIDEAK: Tebas deritzan herria oso polita da ~ Tebas herria oso polita da / -ko / herri / plaza.

hori beti bere eritzian / tema.

ERLATIBO: ese es el profesor del que huimos ■ berarengandik alde egiten genuen maitsua: ihes egiten diogun irakaslea hauxe duzu (O, G, S, IN).

**ese es el asunto de que hablamos*: hori da aipatu genuen arazoa (O, G), hori da mintzo ginen afera (KA), ori da gu solastu giñen gizona (S).

**el hombre con quien he hablado es mi hermano* ■ hitz egin dudana gizonarekin nire anaia da: berbetan egon nazen gizona neu-

re anaia da (IP, MO, EL), berbaz egon naizen gizona neure anaia da (IN), berba ein doten gizona neure anaia da (EL), izketan egon naizen gizona nere anaia da (O), itz egin detan gizona nere anaia da (O, G), solastu naizen gizona nire anaia da (S), mintzatu naizen gizona nere anaia da (S), elestatu dudan gizona ene anaia da (AL, LAR), euskaraz mintzo nizen gizon hori ene anaia da (KA), euskaraz mintzatu duten gizon hori ene anaia da (KA).

*nik eztakit zuk dakizunaren erdirik (O), zuk dakizun erdia (G).

terrorismoa ekintzekin **ERLAZIONATURIK** dago: ekintzei loturik dago (GR), txakurra arboliei lotute dao (IP, O), zakurra arbolari estekatua da (KA).

Arantzako **ERLJIO jaiak**: elizjaiak (GR), elizkizunak (O, G, S), elizbesta dugu (S), elizako funtzioak (IP), elizako besta (KA), eliza besta (LAR), eliz funtzioak (O), eliz egunak ditugu (S).

ERLOJUA atzeratua dago ~ / (ordularia) atzera.

-ERO, -ISTA (*panadero, motorista...*)

OHARRA: *Azpeitia aldean* -zale erabiltzen dute *espainolen* -ero, -ista *adierazteko*: ogizale, ardozale, motorzale (O), esnedun, arraindun, ogidun (EL, IB), arrainketari (AM, S, G), ogiketari (G, AM, S), ogigin (IP), ardoketari (G, AM, S), ardukari (AL), ardaudun (IP), eznekari (AL), esnetari (IP), esneketari (G, S, AM, KA).

se volvió loco ■ **ERO** bihurtu zen / **burutik**.

NONDIK ERORI da? / **behera**.

astotik **ERORI** zen / **behera**.

komuneko zulotik **ERORI** da orrazia / **behera**.

ERORI egin dugu / (joan) **behar**: erori egin gera (O), jausi egin gara (IN, IP).

eztabaida batetan **ERORI** ziren / **eztabaida**. **milioia ERORI** zitzaion: milioiak urten zion (O), milioia erden emen zako (O), milioiak urten deutso (IN, IP), milion bat irabazi du loterian (KA).

etxe hartan **tximista ERORI** zen: **a**. aire gaiztoa sartu de gure etxean (AM), etxean inestura sartu da eta ezta lertu (U), tximista

sartu zen (G, O, AL, AM), ximista sartu da (KA), inazia sartu da (AL), aire gaixtoa sartu da etxean (G, S, AM), etxean oiñazia sartu da (AL), etxien oiñaztarria sartu zan (IP). **b**. aire gaiztoaren bat sartu zaio (= pertsonari gaitza, erreuma... elbarri, ibiltzeko gauza ez dela...) (O).

gaixorik **ERORI** zen / **gaixo** (erori).

euria **ERORI** da / **euria** (erori).

zaparrada **ERORI** da / **euria** (erori).

bertso txapelketan **gai** erraza **ERORI** zitzaion: gai erraza eman zioten (O, KA), gai xamurra emontsen (IP).

BEREIZ: 1. **ERORTZA**: luizia (S). 2. erroitzatza: amildegi (S).

ese caserio cae a Zumaia ■ baserri hori **Zumaiara ERORTZEN** da: 1. Elkano Zarautzako egiten da (O), Ipurtotz Aramaixora eitten da (IP), ori basarrixori Aramaixora eitten da (IP), Oñatirako egiten da Arantzazu (O, AM, S), baserri ori Zumairako egiten da (O, AM, U, ID), baserri ori Sunbillerako egiten da (S), Unanuarako egiten da (U). 2. Goizuetakotik dao (G), baserri Leitzakotik dao (G). 3. laborari etxe hori Aiherrakoa da (KA, ITS).

itsas haizea ez zaio ongi **ERORTZEN**: 1. itsas aizeak ez du ongi artzen (G, O), beroak ez du ongi artzen (AM, G, S). 2. euzkiak ez dio onik eiten (O, IP, KA). 3. itsas haizeak kalte egiten dako (KA, O, EL).

auri tantak **ERORTZEN** hasi dira / **auri**.

la fiesta cae en jueves ■ **jai**a ostegunean **ERORTZEN** da: 1. aurten Amabirjinan eguna ostegunakin da (G), jai igandeakin da (G), ortzegunarekin dugu biltzarrea (ITS, KA), abentiarekin da Atharratzeko besta (AL), San Bladi igandearekin heldu zaku (LAN, G, S, AM, ITS), oai ibikoitz arratsarekin egiten baita pazkoko meza (LAN), labea goritzaarekin, ore sartzentzuten (AM, G, S, LAN, AL, ITS), neskaegunarekila da besta (LAR), astelenakin dator Karmengo eguna (O). 2. maiatzaren bostian, Phintakoste astelehenian jin zen (AL), urrengo eguarri eguna ostegunean da (O), jai larunbatean da (O), astelenean da Karmengo eguna (O), Andrea Maritan

etorten da (IN, EL), San Bartolomietan poz aundia eukitzen gendun (EL). 3. astearte inauteriz torrerak jaten ditugu (O), dimu santu zapatuz de (IN), gaurko egunez gertatu zen (ID), bildotsar Santa Kutzez moztzen zien buztana (KA).

me caes mal ■ **gaizki ERORTZEN** zatzaizkit / **pakete** (dio): etzera nere gustokoa (G), etzera niretzat egiten (G), etzaitu bere gogoko (ITS, IN, O), aren kolkoko mutilak ziren haiek (GR), begikoa zuen lagun batekin ezkondu zen (LAN), mutiko hori ez zen neska horren gustokoa (KA), hori begi bete betekoa duk (O).

ERRAZ / **zail**: 1. ori erraza da **egiten** (O, ID, G, IN, ITS), aija da egiten (LAR), erraz baita garbitzen (AX 342). 2. ori **egitea** erreza da (O, ID, G), aije da horren egitea (KA), errazago bada ere salbatzea (AX 88). 3. ori erraza da **egiteko** (O, ID, G), horren egiteko aije da (KA), ori xamurra da egiteko (IP), ori egiteko lan arraxa da (S), Ardia erbelatu berrian da erraxenik edireiteko (AX 52, 242). 4. **egin** errax da (LAN, KA).

no le di facilidades ■ ez nizkion **ERRAZTA-SUNAK** eman ~ ez nin aurrerapiderik eman (G), ez nion aurrerapenik eman (O, IN, EL), eneutzen emon aurrerapenik (IP), ez nakon erraztasunik eman (KA).

prohibido fumar ■ ez daiteke **ERRE** / **prohibitua**.

ERRE. Sunbillan eta Baztan aldean ongi be-reizten dute: **a**. **kaskal urriña** da (= sukaldean janaren bat erre denean) (S), kiskil urriña da (AM, AR), esneak kiskil urrina du (AM), esneak karrauka usai artu du (AM), esneak, babak duten garmin usaina! (O). **b**. **erre usaia** da (S, AM, AR), (jana ez denean), erre urreina da (LAR).

plomoa ERRE da ~ plomoa bota du (AR, AM, S, G, O).

ERRETZEA zapuztu du; ez du gehiago erretzen / (bizioa) **gainditu**.

ERREAKZIOZKO abionak: ekedun abionak (AM), abion ekedunak (S), abion kedunak (KA).

era secretario real ■ **eskribau ERREALA**: errege eskribaua zan (GR), erregiaren sekretarioa zan (IP, O, ID, KA).

arriku ERREAL bat zen: egiazko arriku (IB, EG), egiazko irriku ~ lanjerra (KA).

fábrica real ■ **ERREAL fabrica** = *fabrica en que se producen reales*: erregearen fabrika, lantegia (O, S), erregearen usina (KA).

Corte Inglesean **ERREBAJAK** daude: 1. merkealdia da orain (O), merkealdian daude (O), gauza merkeo do (G), gauzak merkeago dira (KA, O, IB, IN), axibiyi merkatu egin da (U), bildotsa merkatu egin da (G, AM, IP), arkumea merkautu dago (O), bildoskia merkatu (egin), da (S). 2. beera egin du prezioak (O), berantza in du prezioak (IN), prezioak beiti in du (AM), prezioak behehitu dira (KA), be(he)raka aundia egin du (O), prezioak beheiti joan dira (AM). 3. almonedan jarri omen dituzte gauzak (O), jertsei ori almonedan omen dago (O) / **subasta**.

neri **ERREFERITZEN** den neurrian: **A**. 1. Zure humanitateaz den bezenbatean (LEIZ. Sar), konserbatzen garen bezenbatean (LEIZ. Sar). 2. nitzaz denaz bezainbatean (AX 34), eskiribatzeaz denaz bezainbatean (AX 9), bere aldetik denaz bezainbatean (AX), kanpoaz denaz bezainbatean (AL), Jainkoaren aldetik denaz bezainbatean (AX 69). 3. gure herrialdeaz bezenbatean (LAN), erlisioneaz bezenbatean (LAN), eskolako haurrez bezenbatean (LAN). 4. «Jainko dan hainbatean» **UBILLOS**. **B**. mintzo naiz ahora ukitzen zaitzan gauza guziez (AX 258), niri joan den (zaidan) gauzaz mintzatzen ari gira (KA). **D**. niri dagokidanez (GR).

¿te refieres a mí? ■ niri **ERREFERITZEN** al zara? / **esan** (nahi).

ERREFLEXIBOA: egungo egunean bizkaieraz egiten da ongi erreflexiboa.

***nik nire** burua zaintzen dut ongi: nik neure burua ondo zaintzen dot (IB, EL, IP), gibela ezazu zeure oiñ (AX 27), kontsolatzeintugu geure buruok (AX 48), geure buruok kontu onik eman (AX 38), applica ahal dezaquet neure defensionetan (LEIZ. Sar), egotzak eure burua beherera (LEIZ. Mat 4,6), nik neure burua jamoten dot (IN), geure etzian lau neba-arreba gara (IP), guk geure bizi-

tzea in beogu (IN, ID, EL), geure begion aintzinean (AX 139), ez eman olako tratu-rik eure buruari (IB, MO, EL, IP), Neure mende anhitx ihusi dut halakorik (AX 159), neure denboran olako gauza asko ikusittut (IP, IN, EL), zeure buruari kalte egiten diozu (EL, IN, IP), zerorrek egozten duzu zeure burua (AX 399), applica ahal dezaquet neure defensionetan (SAR), Auk bada othoi, pietate... eure Seme gure Iau-naren izenean (LEIZ. Otho), ezaizela bel-dur eure emazte Mariaren hartzera (LEIZ. S. Mat 1,20), Halatan testifikatzen duzue zeuron buruen kontra (LEIZ. Mat 23,31), guk geure buruok zaindu bear ditugu (IP), geure buruak ahalik eta hobekiena erreka-itatu (AX 109), guk geure ama oso maite dogu (IB, EL, IP).

ERREGE: Egungo egunean nahaste handia da lexema honekin. Lehen ere ez zen dena garbi. Axularren eta Leizarragaren arae-*ra*, badirudi *joera* hauxe dela: *a.* nongoa den zehazten ez bada, *errege*. *b.* nongoa edo norena den esaten denean: *erregea*.

*ERABILKERA: beti ezar *errege*. Errege beti da errege, Peru beti Peru den bezala.

A. ERREGE: egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri (AX 229), Erregek aintzint-gibel... (AX 229), huna, hire rege ethortzen dun (LEIZ. Ioan 12,15), Erran ziezon orduan Pilatek, Rege aiz bada hi? Ihardets zezan Iesusek, Hic diok ezen Rege naizela ni (LEIZ. Ioan 18,37), Huna zuen Regea... zuen Regea Kruzifikaturen dut? Ihardets zezaten Sakrifikadore printzipalek, Eztiagu regerik Zesar baizen (LEIZ. Ioan 19,14), baldin Israeleko rege bada (LEIZ. Mat 27,42), Eztezala eskriba Iuduen Rege: bai-na berak erran duela, Iuduen Regea naiz (LEIZ. Ioan 19,21; Mat 2,2), Regen Regea (LEIZ. Apok 19,16), egun batez, erregek bere semia in hogei urteren ohoretan besta handia egin zuen (LAN), erregeen semiak hura galde egin zizin emaztetzat (LAN), erregeen semiak neskatoñoa ikustearikilan (LAN), erregek ez dute hori egiten (LAN), paristarrek errege irazi zuten (AL).

B. ERREGA: Huna, eure regea ethortzen zain mansorik (LEIZ. Mat 22,5), Huna

zuen Regea (LEIZ. Ioan 19,14-15), Khrist regea (LEIZ. Luk 23,2), Iuduen regea (LEIZ. Mat 27,37; Mark 9,18; 9,26; Mark 15,26; Luk 19,19; 19,21; 23,3; 23,37; 23,38; Ioan 18,33; 18,39), sorthu Iuduen Regea (LEIZ. Hitz eta Mintz), Israeleko regea (LEIZ. Ioan 1,49; 12,13; Mar 9,32), lehenagoko Regeak (LEIZ. Bat), Korinthioek bere erregeraren izendatzean (AX 264), nola dute bere erregea (erleek) (AX 21), ...Iesus Khrist hire Seme gure Iauna dela regen Regea (LEIZ. Oth), lurreko regeak (LEIZ. Ap Ak 4,26; Apok 19,19), mundu guztiko Erregeari (AX 214,319), Likurgo Thraziako erregeari (AX 266), Sesostri Ejiptoko erregea (AX 267), Ingalaterrako erregeak (AX 233), David regea (LEIZ. Mat 1,6), Arkelao Erregeari... aurthiki zioten zenbait ur (AX 208), regea (LEIZ. Mat 2,9), Othoitz egiteko regeakgatik (LEIZ. Hitz eta Mintza), Eta regeak zazpi dirade (LEIZ. 17,10), hura zortzigarren regea da (LEIZ. Apok 17,11), hek hasi ziren galdeka non sortia zen judiuen erregea (LAN).

musean 8 ERREGETARA jokatu du gu / **kartak:** 8 erregean jokatu du gu (G, O, S, IP), zortzi erregerekin (KA).

ERREGE Davidek erran zuen: David erregek erran zuen (KA), Juan Carlos erregeak ez daki euskeraz (S, AM, ID, O, G).

IRAK ERREINBINDIKATU hilketa hori: bere gain hartu du (IP, ID, KA), talde ori ilketen jabe egin da (O, ID), aitortu du berak egin duela (G), ipartarrek bereber hartu dute atentadu hori (KA).

está a régimen ■ **ERREJIMENERA dago:** errejimena egiten du (O, IN, G, AM, IP, KA).

janariari ez dio **ERREPARURIK** bilatzen: ez dio janariari aitzekirik ematen (O, IP, ID), ez dio tatzik egiten (S), horrek ez dio jatekoari estakururik atxemaiten (KA), jana-gaz eztau eukiten atxakirik (IN).

horrek ez dauka lan egiteko **ERREPARURIK:** ez du lan egiteko kupidarik (G, O), bildurrik (IP, EL), ez du lan egiteko estakururik atxemaiten (KA).

ERREPIKATU: mugaz bestaldean erabiltzen

dute, batik bat. *Soimuari*, hots, kantuari, hitzei, musikari... loturik eskuarki.

*Itsasun igande guziet ezkilak errepikan jotzen dituzte (ITS, AL, LAN), mila aldiz errana dautzut (KA), txoriak errepiketari dira (KA), txoriak kanta-arrapikotsez ari dirade (AL), txoriak arrapikatzen ari dira (AL).

*ba da **bilera** hauek **errepikatze** asmoa: badogu berriro batzarrak egiteko asmoa (IP, IN), badegu berriz ere batzarrak egiten asteko asmoa (O, ID), badugu parada biltzar ~ bilkura horren berriz egiteko (KA), berriz ere biltzarra egin behar dugu (S).

*hori bai dela besteen ideiak errepikatzea / **monagilo**.

*(telebistan partidoa ikusten ari garela) Orain **errepikamena!**: berrikusaldia (GR), berriz pasatuko dute gol hori (KA), berriz erakutsiko dute (O, G).

ERREPUBLIKA sobietarrak / **-tar:** sobietar errepublikak (GR), azpeitiar emakumea (O).

azkenean **ERRESIGNATU** zen / **itxaropena** (galdu).

soldaduei **ERRESISTENTZIA** presentatu zien / **frente**.

ERRESPETUA sartzen zuen: nolako lazka ~ ze lardaria ematen dun (S), lardaria ematen zuen (AM, AL, KA).

ez dio **ERRESPETURIK** aitari: **1. a.** Handia da lankoaren izen sainduari ekharri behar zaikan ohorea (AX 175), eztio iñori oorerik ekartzen (IP). **1. b.** ez dio errespeturik ekartzen (G, S, AM, ITS, AL), ez diote errespeturen pixarrik ere ekartzen (S). **2.** ez dako aitari ohorerik emaiten (LAN). **3.** ez dio aitari errespetu aundirik artzen (O). **4.** ez dio errespeturik jartzen (O). **5. a.** ez deutso aitari errespeturik (IN), aitarendako ez du errespeturik (KA), errespetu tikia diote (S), ez diote pizarrik ere errespeturik (S). **5. b.** ez dio aitari larderiari (AM). **6.** ez dautzut errespeturik galdu (ITS).

horrena oso **ondo ERRESULTATU** da: / (motza) **egingo:** orrena oso polita joan da (O), orrena ongi atera da (G), orrenak

ondo urten dau (IP), orrena ondo urten da (EL).

gizon zaharra **ERRETIRATZERA** doa: erretirua artu du, artzera doa (G, S, AM, IN), lanetik gelditia da, zeren erretreta hunkitzen baitu (KA).

banuen errezelue ez al zen **ERREZELATUE** izein (tisikatue, ondatue) (AM). banuen beldurra ez al zela errezelatue ~ eritue (S). hori **ERRIOXA** on bat duzu ~ Errioxako ardo ona duzu hori (O, G, IP), Baxe Nafarreko arno ona duzu hori (KA).

ERROITEN / **erruten** / **arraultza**.

ura bere **ERROTARA** dakar: orrek bere opillari su (O), bakoitzak bere santuari erreza-tzen zio (S, IP), bakotxa bere sainduari oititz (AM), nork bere astoari arri (G), bakotxak hura bere heiheralat (AL), bakotxa bereber (KA).

ERROSKILAK bezala salduko da: egiñ ala saltzen debe (O, G, S), egiñ ala eramaten didate (S), egin arau (ITS, KA), nai aina salduko dute (O), nai aña saltzen du (S, G, O), egin bezain sarri saltzen du (S, G, O), egin bezain sarri saltzen du (LAR), nahi bezainbat saltzen dute (KA), arrapataka (IN), arrapatakean (IN), jendeak arrapazka eramaten du ogi au (O, G), arrapala badame (S).

ERRUZ okerrago: aunitzez okerrago (S), anitzez makurrago (KA), askoz okerrago (O), askoz makurrago (U), askoz txarragoa (IP), askotaz okerrago (G), hanitxex gaiztoago (LAR).

ERTZ / BAZTER: **a.** ertz: *borde, reborde, arista*. **b.** bazter: ertzaren ingurunea, barne aldera.

a. bide ertzera joan zan, azpiko aldetik pendiza zegoen eta (O), ertzak jan (O), orko ertzean dago (G), ertzak landu (O), bide ertzean baztertuta utzi zun kotxea (G). **b.** bide bazterrean utzi zuen berebila (kotxea) (O, IN, G, S, IP, KA, LAR), bide bazterrean jarri zen (ITS), bide hegian (KA).

presa ERTZEAN etzan zen: presa bazterrean etzan zen (G, O).

bide ERTZEAN utzi zuen berebila (= hegi hegian) (O, G), bide bazterrean (IN, S, G,

AM, U, IP, O, KA), bide hegian (KA), kotearekin bazterreara noa (IB, ID, MO).

gelako ERTZ batetan mahai handia zegoen: gelako bazterrean mai aundia zegoen (O, IP), ganbarako bazter batean (KA).

ESAJERATU egiten du horrek: 1. ahobero galanta da (G, O, LAN), ahabero haiz hi (AL), ago zabala da (S), hori ago haundia da (S). 2. orrek deuka artobero usaia (O). 3. beatza baldin bada, eskua esan; eskua bada, besoa esan (O), (atzamarra) (IP), beatza bada, eskumuturreraino esan; eskua bada besoa (O). 4. ez da behetik galduko (G). 5. ezer kendu ta ezer erantsi gabe esaten ditu gauzak (O), orrek puska bat erantsita eukiko du (O), den baño geiago erantsiko dio orrek kontuari (O), puskak irasten dizkio kontuari (G), kontuz orrekin, puskak iratsita kontatzen ditu gauzak (G). 6. horrek espantu egiten du (KA), espantuntzi! (AM, S). 7. onek gauzak geituta esaten ditu (O, IP). 8. orrek gauzak aixa aundituta erraten ditu (S, AL, KA), diren baino haundiago esaten ditu (O). 9. bi sosen pupua eta ontzako baten trapuk (G), bi sosen pupua eta lau sosen trapua (S), errial biren pupua ta bi pezeta(re)n trapua (O). 10. garranga ontzi! (AM). 11. den halako bi esaten du (G), bat baldin bada bi kontatu (S, G). 12. hantü (AL). 13. beroena kendu bearrekoa izango da (O, IP). 14. edozein gauzakin mendiak egiten ditu (O), ezer gabe mendiak... (O). 15. horrek gauzak sobera er(ra)ten ditu (AM). 16. ezer ez eta pesta! (O). 17. mingain aundia da hori (G). 18. leihoa ireki, atera dadila agudo (S). 19. sake ederra bota du horrek (S). 20. alpe usain dexente dago emen (O).

ESAN. Esan, agindu, nahi, eskatu... (↗ agindu ↗ nahi ↗ eskatu...) eta horien antzeko aditzek jokamolde hauek dituzte: 1. honuzkaldean: *a. -teko. b. subjuntiboa + -la.* 2. mugaz bestaldean: *subjuntiboa.*

1. *a.* esan nion, bada, emen egoteko (G, AM, IP, O, KA, EL, S). 1. *b.* esan nion, bada, an egon zedilla (O, G), eskatzen diot hori egin dezala (O), ori egin deiala esautsot (IP), ...egin daiela (IN), kontuz ibilli daitela esan dautes, ostean jo ingotela

(IN). 2. erran neion, heben egon zedin (LAN, AL, KA), erran Manezi berehala jauts dadien hunaraino (ITS), amak erran daut zureganat ethor nadin (ITS), otoan sar gintezen galdatu zigun (ITS), galdatu dakot hori egin dezan (KA), oiuhu egin behala jin ditian (AL), zer nahi duzu egin dezadan? (ITS), kontuz ibilli daiten esan dautes (IN), nausiari erran zakozun joan zadin jauregirat (LAN), erran ziten beste bide batetarik joan ziten (LAN). 3. eskatu dio egiten ahal duten (S).

BEREIZ: 1. hori egin **dezan** gezurra **ESAN** diot / 2. hori egin **dezala** esan diot ~ **egiteko** esan diot (= agindu diot).

ya decia yo ■ **ESATEN nuen** nik!: banengoen ba! (O, S, G, U, IP, EL, ID), baninagon bai! (AM), banindagon ez othe zenetz samur (ITS), alere! (O), nindagon ere ez ote zenez holako zerbait gertatutko (KA), ori uste nuen nik (O, KA).

joan dela ERRAN du (S, O, IN, IP, KA) ↗ **gerundio** ↗ *-a:* joana dela erran du (S, KA), **jaunik** dela erran du (AL).

te refieres a los hombres? ■ **gizonak ESAN** nai duzu?: *a.* gizonak ala? (O, IP, ID, G), Donostian eztago operatzen obeagorik. Estesobrea ala? (O, P), oso okerra da. Pedro ala? (IP). *b.* Piarresez ari zarete? (KA), nitaz ari zera? (O), nortaz ari zate solasin? (S). *d.* zeñekin ari aiz (G), orrekin ari giñan (O). *e.* zein gero, Iturriaga? (O, ID).

atzo **ESAN** zuen **irratia** ~ atzo eman zun irratia (O), Odriako aitona il egin da. Eskelak eman du (O).

«Zibillak **ESAN naute**, biziro egoki» ↗ nor nori: zibillak esan didate (ID, EG), horiek erran daukute (KA).

que luego digan! ■ **gero ESAN dezatela:** gero esatea dauke (O, IP, G), gero arreguratztea berantegi izanen da (KA), alperrrik da gero damutzea (O), geroko damuak alperrrik izango dira (G), ura pasau ta presa (e)ginen (IN), ura joan eta ondolik presarik ez egin; eztu balio (S, IN, O).

ESANA / ESANDA: 1. aitak esanda (= esan eta), amaren esana egin zuen (IP, EG, O, ID, IN). 2. zelan dakizu hori? Orrek esanda (IN, O), orrek errana (S, AM, KA).

aitak ESANA egin zuen ~ **aitaren esana** egin zun (O, G, U), **aitaren esana** aitu! (U, IP), **aitain errana** in du (AM, S), **aitaren errana** egin zian (AL, KA), **aiten esana** bete oan (IN), zure esana egingo dut (G, O, IP). 2. aitak esandakoa egin bear da (O, EL, IB, EG, KA), nik errana egin dute (ITS, KA). 3. jitanuen esanari jamonik ez in (IN).

horrek dena **ESEKIN hitzegiten** du: sisibasa haundia dauka (O), itzegiteko sisau aundia du ~ dauka (G), orrek dena sisibasa egiten du (O).

han zetorren zaldi zuri baten gainean **ESERITA:** an zaian zaldi zuri baten gainean (AM, O, G, IP, KA).

ESFORTZU handiak egin zituen: leerrak egin zituzten (O), leer egin zuten (S, G), zazpi ahalak egin ditu (ITS, KA), aletin aundixak egin arren (IP), leertu artekoak egin zituen (IP), kaka ateratzeko modun lan egin zuten (G), ardia katrazkaka ari da (S), ori ari da karrakillaka kotxea ezin konponduz (S).

ESFORTZURIK handienak egin arren... ↗ (bideak) **ipiniko.**

ESKAILARETAN behera jaitsi ↗ **jaitsi.**

estaba arriba de las escaleras ■ **ESKAILE-RETAKO** goian zegoen ↗ **goen** / barren ↗ **igon** ↗ **jaitsi:** 1. eskailleren buruan dago (G, IP), eskalera buruen da (AM), eskeler būrian da (AL), eskeler gania (AL), eskalerrren gainian da (KA), eskil goanean dago (ID, O), eskalleren goieneko aldean (S), eskillera goiti dago (U), eskalleran goiko puntan (esku zurubietan) dago (G). 2. eskallera barrenean (IN), eskaillbarrenean dago (O, IP, IN, ID), eskalerrren beherean da (KA), eskaillerraren beeko mallak (O), eskalleran beko muturrean dago (G), eskillera beiti dago (U), eskalerrain beitikio eskiñan (AM), eskeler pia (AL). 3. eskeler pausian dago = *en el descansillo* (AL).

ESKAINI: 1. **opari** egin. Jainkoari biotza eskeñi zion (O, IP, EL, ID). 2. **mehatxu** egin: uriak eskaintzen zian (LAN), eskaini dako ukamilo bat (KA), ukabillakin eskeinyo dio (S).

ofrece esa dificultad ■ **zailtasun** hori **ESKAITZEN** du lan horrek ↗ **zailtasun.**

asken agurra **ESKEINI** zioten: egin zioten (O, G, S).

aurreprentsa ESKEINIKO da: prensaren aurrean hitz egingo du (G, O, IN), peridisten aurrean hitz egingo du (G, O, IN). azterketak prestatzeari orduak eta **orduak** **ESKAITZEN** dizkio ↗ **denbora** (hartu). **omenaldia** **ESKAINIKO** zaio Xalbadorri ↗ **ospatu:** omenaldia egingo zaio (O, G, KA). **ESKATU:** **ADIBIDEAK:** eskatu dirua aita-txori (ID, EG, MO, AZ, AM, IP), Eska zaitezte eta emanen zaizue (LEIZ. Mat 7,7), zer ere eskaturen baikara (LEIZ. Mar 10,35), batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen zaie (AX 38), hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu (AX 109).

ESKATU ↗ **esan** (egon zedila).

barkamena **ESKATZEN** dute **elkarri:** eskatzen diote elkarri (S, G, O, IP).

hara joateko **ESKATU** zion ↗ **esan:** mesedez ara joateko esa(n)usten (IN, O, EL, IB, G, KA).

esa comida requiere aceite ■ janari horrek **olioa** **ESKATZEN** du: olioia nai du (G, S), olioia bear du (O, KA), artuko leuke (IP, IN), jateko orrek ongi prestatzeko bear du olio aunitz (S).

eso exige amor ■ horrek **maitasuna** **ESKATZEN** du: horretarako maitasuna bear luke (O, G), bia da (IP, IN), horren maitasuna behar da (KA).

ES KE esan nion: esan nion ta (IB), esan nion, esan ere (GR), esan nion ba(da)! (EL, O, G), izan ere, ez nion esan (G), esan nion barren! (EL, AZ).

ez egin **ESKENARIK:** ez zaitez erotu (G, S), ez zaitez jarri ola; zaude lasai (O), ez oiuhuka hasi (G, O), ez zatez olan parau (IN), ez dezu erotu behar (O), ez asi zataka (IN), ez zaitez orrela jarri (O), ez ar(i) oiuhuka (KA), etzitela ero! (KA), ez asi hola (EL, O).

Jainkoari **ESKER** ~ Jainkoari **eskerrak:** ezinari esker, eta ez zuen borondateari (AX 119), emazte multzo bati esker (ITS), Jaungoikoari **eskerrak** (IP, O, G, S), Jainkoari esker (KA).

gracias a que ha venido ■ **ESKERRAK** etorri **delako**, **eskerrak** etorri **denari**, **eskerrak** etorri **dela** ↗ **beharrik.**

ESKERRAK Martin etorri zela, bestela denak galduta geunden \nearrow **beharrik**: eskerrak Martin etorri zen... (IP, O, S), Martin etorri zen eskerrak (G), eskerrak Martini Aitor etorri zen (G), eskerrak jon etorri zen (G), eskerrak Joni etorri zen (G), eskerrak ama etorri da (ID), eskerrak ama etorri den (G, O, IN, U), eskerrak ez dun e(g)in (O, ID), eskerrak Martin etorri zalako, bestela or ilgo giñan (IP), eskerrak amari, ume au ezta lurrera erori (S), eskerrak amari semea etorri zen (G).

ESKERRAK ezbeharra gertatu dela, umeak han ez daudela: eskerrak umeak an ez daudela gertatu den ezbeharra (G, O), eskerrak umeak an ez zeudela gertatu zen ezbeharra (G, O), eskerrak an ez nintzen (G, O, U), nahiago dut enitzen an (AM), eskerrak aurrek etziren an (AM), amari eskerrak! (IN), bearrik ama! (AR), eskerrak etorri aizen! (O, U), (IP), beharrik haurrak eskolan ez zirelarik gertatu da hori (KA).

ESKERRAK irratira etorriagatik, Pello \nearrow **-teagatik** \nearrow **beharrik**.

ESKERRIK asko. Ez **deusetaz**: eztao zegaitik (IN), ezta zerengatik (S), ez orregatik (G, O, IP), ezta zeren (AM, ITS, KA), ez orregatik (U), ez da zerik (S), deus ez! (ITS), ez düzü (= da) zeren (AL, LAN, LAR).

estoy muy agradecido a esa familia ■ oso **ESKERTUTA** nago familia horri: asko zor diot familia orri (G, O, IP), aunitz zor diot (S, KA).

aulkiaren **ESKINAN** eseri zen: züzülü hegin jarrik aholkü emaiten (AL), plaza hegila heltü ziren (AL) ~ plaza bazterrerat (KA), suñekoak züzülü hegian dütü (AL), landa arto erreldua burun buru dago (S).

heldu mahaiari **ESKINATIK**: har zazu mahain hau buru batetik (muturreko eskinatik) (ITS, KA), makila bi buruetarik atxiki zuen (ITS, KA).

deklarazio **ESKLUSIBOAK** egin dizkio Euskadi Irratiari: azalpenok Euskadi Irratiari egin dizkio bakarrik (EL, O, KA, S, IN).

ESKOLAN huts asko egiten zuen ~ eskolara joan gabeteñikan, piper egiten zuen (S, AM), eskolara bialita, piper egin zun (G,

O), eskola pipertü dü (AL), gutxi ~ gutxitan etortzen da eskolara (O), uts asko egiten du eskolan (O) horrek eskola usu huts (eg)iten du (KA), ardura bipher da (LAN), sasi eskola egin.

Ez zara gehiago **ESKOLARA** joaten?: eskola utzi duzu? (S, KA), eskola akitu duzu? (S), eskolatik gelditu zara? (S, AM, O, G), eskolara joateari itxi eutso (IN, IP), eskoleari itxi utso (IN), eskolatik atera da (U), eskolarat joaitetik gelditu da (KA), kantatzetik gelditu dira (ITS), eztiade elhestatik ekhüätzen (AL).

ESKU eskubiarekin egin nuen ~ eskoigaz igurdi eutso burua (IN), eskubiko eskuakin eldu zion (O), eskuñeko eskukin (G), esku-meko eskuaz ein dau (IP), esku eskunaz jo du (KA), eskuñekin bakarrek egin dut (S), eskuñeko eskukin bakarrek egin dut (S), eskumiakin (EL), eskuñakin (G), eskubiz egin du (O), eskoigaz in dau (IN), esku eskunarekin egin du (KA).

ESKUA itxi eta internazionala abesten hasi ziren: eskua ukabillan paratu eta... (S), ukubile altzauta (IN), okabilla itxita (G), ikubilla potortuta (O), ikubilla batu (IP), eskua ukamilo egin du (KA).

zu zara **ESKUA** \nearrow **kartak**.

echale una mano ■ bota **ESKUA** \nearrow **bota** (eskua).

neskari **ESKUA** eskatu zion Xabierrek: ezkontzeko mandatua egin zion (G, S), berarekin ezkontzeko eskatu zion (O, ID), neska ezkontzaz galdegin zuen (KA).

haurra **ESKUA** emanda eramane zuen \nearrow **besotik**: aurra eskutik zaman (AM), haurra eskutik ereman zuen (KA), umea eskutik elduta eramane zuen (O, ID), aurra eskutik artuta eramane zuen (G, U, S), eskutik gatuta (IN), eskutik eutsin (IN), eskutik oratuta eroan zeban (EL), eskutik ebatuta (IP), eskutik goatu (IN).

kotxe ori **bigarren** **ESKUKOA** da (O, IP, G) ~ bigarren eskutakoa (S, AM).

¿a qué manos irán las ovejas? ■ ardiak **zeintzu** **ESKUTARA** joango dira?: ardi oiek zeinen eskutan geldituko dira? (G, O), ari oriek nori tokatu ote zaizko? (AM), ardixok noen eskuetan geldituko ete dia? (IP, KA).

kotxea **ESKUTIK** aldatzea ez da ona: kotxearentzat esku aldatzea ez da ona (O, IP), (eskuz) (G), otoa eskuz aldatzea txarra da (KA).

ESNE botila bat eman zioten haurrari \nearrow (txanpan) **botila**.

kafea **ESNE** askorekin? \nearrow **kafesnea** (kafe).

behi horrek **ESNE** gutxi ematen du ~ **A. 1.**

bei esne **legorrak** ziran; haragitako bakarrik balio zuten (O, IN), bei esnaleorra da (G). **2.** esnedun idorra da (AM), bei ori idorra da (AM, S). **3.** bei ori errape sikue da (IN), esne sikue da (IP). **B. 1.** **esnalie** da (IP). **2.** bei ori esnazua da (G, S), oso esnetsua da (O, IN). **3.** esne bera da (O). **4.** bei ori esneduna da (AM, KA), ardi eznedünak (AL), bei ori esnedun aundia da (AM).

ESNEA urarekin nahasia haturko dut: \nearrow (ardoa) **nahasia**.

txakurkumeek amaren **ESNEA** edan nahi dute ~ **irain** eske daude (O): **1.** behi hau eskura iraintzen al da? (G), eskura biltzen dena al da? (O), eskura ematen al du? (O). **2.** ama iraintzen ari da (G), orain iraindu da (G), anduria etorri jako (IN), beiak iraina eratsi du (O), ereindura jautsi zaio (AM), ez du erasten (O), iraina jaso du (O), behiak anduria bajatu du (IN), iraiña iritsi da (ID), ereinduratzeko aretxeak kolpe tiratzen du (S), bei onek ez du errez iraiña erasten (O), oraindik ez zait irainik etorri (G). **3.** txerrama iraina ematen ari zaie txerrikumei (O, ID), urdama ereindura ematen ari zaie (S, KA), irindura ematen ari da (U). **4.** bildotsa amaren batzen ari da (KA), txerrikumeak iraina hartzen ari dira (O), txala esnea edaten dao (IN), txala esnea edaten ari da (O), txokorra esnea edaten ari da (G).

ESNEA jeitzen \nearrow **deitzi** (behiak).

ESPABILATUTA ibili da: erne ibili da (O, G, S), hori erne düzü (LAR), argi ibili da (IP), azti ibili da (ID), bixi bixia ibiltzen da (KA), esna ibilli da (O), zur ibiltzen da ori (IN).

governu **ESPAÑIARRA** \nearrow **-tar**.

hura izan zen **ESPEKTAKULUA!**: aura zalaparta (EL), hura zen kalapita (KA), ura izan zen istillua (O, G), eskandalu ederra

jarri zun (O), ango istillua (O, G), an ziran istilluek! (IP), ango larraspastarie! (IP), aura zan izateko gauza (EL), au izan zen izitekoa (IN).

lantegian **ESPEKTAZIO** handi bat zegoen: lantegian jentea larri zegoen (O, G, IP), usinan jendea arrengean dira (KA), jentia larri dao zer etorriko ete dan (IP).

ESPERANTZA galdu dut \nearrow **itxaropena**.

etorriko diren **ESPERANTZA** dut \nearrow **itxaropena**.

lagunduko didaten **ESPERANTZAN** nago \nearrow **itxaropena**.

ESPERANTZA horrekin joan da (G), gu orduko esperantzak bizi gaitu (AX 209), orren pozean joan da (O), orren pozean lan egiten dute (O), orretxen pozien fuen da (IP), espeintza orrekin ari da lanean (S), esperantza orretan egiten du lan (G), ...orre-gaz (IN).

horiek ze **ESPERIENTZIA** izango dute, bada! ~ ze eskarmentu eukiko debe ba! (O, G, S), athüneko gizuna da Piarres (AL), asko ikusia da Maximo (O), asko ikusi ta asko ikasia da Zezario (IP, ID, O).

Malentxoren **ESPERO** gabeko erabakia \nearrow **bat** (baten hartu).

etorriko dela **ESPERO** dut \nearrow **itxaropena**.

amaren **ESPERON** daude (G) \nearrow **itxaropena**.

Loli **ESTADOAN** dago: Loli aur egiteko dago (G, AM), umea izateko dao (O), ume eukiteko dago (IN), seindun dao (IN), haurdun da (LAR), baditu berrogei azkazal (*esaera*).

mañana el cielo estará cubierto ■ bihar **zerua** **ESTALIA** egongo da \nearrow **laino**: bihar goibel izango da (S), egualdia goibeltzen ari du (O), bihar eguraldi lañotsua (KA), biar laño izain da (S), goiarre dago (G), biar laño izango da (O), biar goibel izanen da (G, KA), benbora nabarra, goibel (S), biar laño eginen du (G), ze denbora goibarra dagon! (S), biar lañoa egongo da (IN), eguraldi gaixtoa (LAR), egun illune dago (IN), biar tapatua agertuko da (S), lana heldu da (KA), lanbroa (KA), lainoak sartu dituk (S, IN), lañoa sartu da (G), lañoak urten deure (IN), goibeltzen ari du (S), goibelak eldu dira (S), goibel zuriak heldu dire

(S), denborea txartuten doa (IN), denbora onduko du (S, IN), aro hobea izanen da (KA), aroa altxatu du (KA), denbora txartzera doaie (S), aroa txartu du (KA), denborak onera emain du (S), zizareak dire bide bazterrean; denbora txartuko du (S), uritsuko du denbora (S), laño do; euria heldu da (G, S), lañotuten dago; eurie dakar (IN), bihar lanotsu izanen da (KA, IN), denbora lainotua izanen da (KA), biar lañoa izein da (G), bihar lainoak iza(n)en dire (S, IN), bier egun lañotsue egongo da (IN), bihar lanotuko du (KA, IN), goiarre da: zeru zulatuak direnean (G), goibel: dena lainotsu (G), goibar dago gaur; goibelak badira (S), erdi laño dago (O), laino itsua zon (G), laño zardai batzuk badaude (G), denbora lanbrotsu da (KA, S), lanbro dago (S), hedoitsu da (KA), denbora eroria dago (S), goitzen ari du (argitzen) (S), lañoak leundu dira; erasoko dio (G), azpilainoa dago (O), eguzkia itzali egin da, lainoa sartu delako (ID), eguzki begia atera nahian dago laino tartetik (G), iduzkia laino tartetik kirikatzen hasi da (AM), laino tartetik kirika ari da iduzkia (AM), goizean erreka lainoa dago (ID), erlaino da: goize-tan behe-tien izaten da. Iduzkia ateratzea-ekin lekutzen da (AM), erlainoa sartu da (AM), gandua da (laino meha. Egunik eguzkitsuenetan ere izan liteke) (O), goibartu du (S), goibela goiko lainoa da (S), iparlainoak mendi gailurrak estali ditu (O), iparlainoak mendi gailurra karrapatu du (O), Otsondotik behe-tien iperlainoak etortzen dire, haize mehe batekin (AM), laño lodia da (G), iparlainoa dator goitikan behera (O), Ernio lainoak jo du (O), lainoa ez da goitituko (AM), lainoak narratx dagoen tokian ezparak ibiltzen dira (ID), lainoa hankaperaino sartuta dago; hau laino itsua (O), laino koska haundia dator (O), laino tontorrek datoz (ID), lainoak errestaka dabilta (AM), laino tontorrek daude (trumoiaren aurretik datozenak) (O), laino koskak ekaitz aurretik eta bestela ere izaten dira (O), mendiari lañoa erantsi dio (O), Ernio lainoak jo du (O), lainoa sartu sartu egin da (O, G), lainopeko egualdia izango

dugu (O), lanbrotsu dago (AM), zerua lanbrotsu diago (AM), denbora lanbrotsu da (AM), arratsaldean mendian behera lausoa dator (ID), lausoak txi txi, dena busti du (ID), odoi ponpolloak dira (handiak) (S), ortots ponpolloak (S), odoi lainoak dira; trumoiak dakarte (ID), ortots goibelak atera ditu (S), ortots goibelak daude (AM), ortots erauntsiaren aintzinetik goibel konkorrak agertzen dira (AM), trumoi konkoi-loak daude (trumoi laino borobilak) (G), trumoiak jo du, laino kizkurrak bait daude (G), laino zarralda batzuk badaude (G), zerua dena garbi dago, izar dago (G), zeru laino lapatsa da (G), goizean laño zan baña garbitu du (O), ...oskarbitu du (O), lañoa altzetan doa (IN), lañoa kendu dau (IN, G, S), lanoak joan dira (KA, S), lañoa joan da (KA, S), ihesi egin du (KA), lanoa ezeztatu da (KA).

ESTALI zu hemen = *escóndete* (U) ~ *altxa zaite* (AM), gorde zu emen (G, O, S), izkuta zaitez emen (O), gorde zite zü heben (AL, KA, LAR), ostondu zatez emen (IN), ezkutau zaitez emen (IP).

ESTETIK legeak ongi ezagutzen ditugu ↗ **kultur** ↗ **fisik**: estetika legeak (GR).

gizon **ESTIMATUA** da **herritarrengandik** ↗ **por** (txaloka hartua) ↗ **haize**.

gutxi ESTIMATZEN dute Edurne: 1. orreri ez dite deus ere aintzako artzen (G), ez dute aintzako artzen (G). 2. haren esanak ez dituzte aintzakotzat hartzen (IN), Edurne ez-tute aintzakotzat hartzen (O, ID, G, IN), bere burua aintzakotzat dauka (O, ID), ez zuten aintzakotzat artzen (O). 3. aintzat hartzen (IN). 4. ez dute egiteko artzen ~ sinesten (AM). 5. artakotzat artzen (IP), ez deure atakotzat artzen (IN). 6. euskeraz eskribitzeari gutxi erizten deutso (IP), iritzi aundikoa da (O, ID), burueritzia zen (IP), eretxia da (IN). 7. euskaraz iskiribatzea guttiesten du (LAN). 8. ez dute Deikunde ezertan artzen (O). 9. oso maitea zuten (O, G). 10. ez dute hura onhartzen (LAN, KA) ↗ **haize**, erritarrok ondo artuta daukau (IP), esandako guztia ondo hartzen dio (O, ID, EL, G), ango aiziak ez nau ondo artzen (O), aita-semik ez-tute ongi artzen (S), aitak

ez omen du semea ondo artzen (O). 11. esandako guztia ontzat hartzen dio (O, ID, EL, G, S). 12. ez dute serenidade aundiekin artu (S). 13. bere burua eztauka ankapera-ko, uste aundikoa da (G). 14. eritasuna joan denean, edukitzen da ezertan osasuna (AX 354). 15. ez deusendako hartzen dute (KA). 16. ezer gutxitan hartu zuten (O).

ESTO, ESTO... (totelka): ene, ene... (G, O), zera... zera... (O), ori... ori... (IN), ba, ba...(O).

Zergatik maite duzu Arantza? Zintzoa da **ETA** ↗ **-lako**.

ETA: bi hitzen arteko *eta* kentzen denean, bigarren hitza pluralean ipini ohi da eskuarki, aurretik zenbakirik ez badator.

***ama eta** umea ur edaten ari dira = **amaumeak** ur edaten ari dira (S, G, O, U, IP), Jainkoak zeru-lurrak egin zituen (ITS, O, IB, EG, KA), hiru ama-seme bizi dira (ITS, KA).

***aita-semea** mendira joan ziren: **aita-semeak** mendira joan ziren (IN, S, G, O), haurra aita-amekin joan da (ITS, KA).

***gure** goresmenik beroenak ait-**amari**: gure goresmen(ik) beroenak ait-ameri (= **ait-amei** = aitari eta amari) (ITS, KA).

***ama-umea** ur edaten ari dira: **amaumeak** ur edaten ari dira (G, O, S, U, KA).

***ama-alaba** etorri ziren: **amaalabak** etorri ziren (= ama eta alaba) (O, G, KA), ama eta alabak etorri ziren (= alaba bat baino haboro) (O, G).

***andre-gizona** ziren: **andregizonak** ziren (O, AZ), andregizonak zirean (IN, IP), andregizonak fan ziren (U).

***esku-musua** garbitu ditut: **eskumusua** (GR), eskuak eta arpegia garbi itzazu (O, G, S), musturrak garbitu (IN), esku-begitarteak garbitu (GR), eskuak eta begitarte (KA).

***iloba-izeba** bizi ziren: **izeba-ilobak** bizi dira (S, O, ID, G), tanta-ilobak (KA), izeba-lobak bizi dira (IP), iziko-lobak (IN).

***izen-deitura** idatz itzazu: **izen-deiturak** (GR), izena eta deitura (GR).

***nire** ondoan neska-**mutilla** zeuden: neska **mutillak** zeuden (= mutil bat eta neska

bat) (O, G, IP, AM, IN), neska mutil taldea zegoen (O, G), mutil-neskatxiek datoz (= taldea) (IN), gazte moltzoa (IN), neska mutil mordoska bat (G), neska mutil batzuk zeuden (O, G), amak neska-mutikuk nai zittun (= neska bat eta mutiko bat) (S), nire ondoan neska eta mutillak zeuden (= taldea) (O, G).

***osaba-ilobak** sardina zaharra erdibana jan zuten (IN, AM, O, G, IP).

***seme-alaba** zituen: **semealabak** zituen (IN, G, AM, O, U, IP, S), bi seme ta bi alaba ditu (O, IP), seme alabakaz bizi dire gurasoak (IN).

***senar-emaztea** etorri ziren: **senarremazteak** etorri ziren (AM, O, G, S, ITS, LAN, KA), andregizonak (IP), andregizonak (O, ID), senar-emazteen arteko maitasuna (G, S).

***martxoan** eta apirilean etortzen da ~ **urri-azaruetan** jiten da (LAN), arbiak martxo-apiriletan liskatzen dira (S), primadera-udetan (LAN), martxo-otsailetan moztzen dugu ardieria (LAN), urtarril-otsailetan etortzen da (S, LAN, AL), gaur biarretan egingo dugu (G, O), gaur eta biar (G).

***nola** daude? **Zazpi-bi**: zazpi eta bi (AL, LAN, S, IN, O, G), sei ta utsa irabazten ari naiz (U, EL, G), sei ta uts irabazten ari naiz (O, IP), sei ta bapez (IN), sei ta batez (KA).

ez esan gezurrik, ikusi zaitut **ETA**, bizikletan etortzen ~ ...bizikletan etortzen ikusi zaitut eta (O, IP, G).

-ETAZ ↗ **-taz**.

hemos tenido que interrumpir la conversación

■ **elkarrizketa** **ETEN** erazi behar izan dugu: elkarrizketa bukatu bear izan dugu (G), elkarrizketa eten bearra izan degu (O), alkarren arteko berbaaldixa bertanbera itxi biar izantzan (IP), eleketa ar(i)tzetik gelditu gira (KA), geiago solasteko giñen, baño akitu egin dugu (S).

haurrak hizketan **ETENAK** egiten zizkion ↗ (hitz egiten) **ebaki**.

ETORKIZUNA: hurrengo egitura oker honi begia eduki. Egiturak etorkizun-aldia nahi du ↗ **aditzaldia**.

***behar** bada, **datorren** urtean Erromara **joaten** naiz: bear bada, datorren urtean

Erromara joango naiz (G, IP), heldu den urtean jinen gira (KA, S).

este es mi futuro cuñado ■ hau da ene **ETORKIZUNNEKO** kuñatua ↗ **koinata**.

ETORRI: *¿Vienes? (Venir) Ya voy (= respuesta: ir)* ■ Ba al zatoz? Bai, **banoa**. ↗ **orainaldia**: Ba al zatoz? Bai, **banator** (O), (Aditza ez da aldatzen), eldu al zera? Bai, eldu naiz (G, AM, U), heldu niz, haurra (ITS), ba al zatoz? Laster naiz (O), laixter naiz or (O), Tziaurri! Horra nüzü (AL), Hau(g)i gure etxerat; heldu nuzu (KA), ba al zatoz? Bereala naiz zurekin (O), horra nuk (AL), horra düzü (badator) (AL), hel-türük da (etorri da) (AL) ~ jinik da (AL), segituan naiz (O), beala or naiz (AM), bela ortxe naiz (G).

ETORRI: **a.** ezagutzeko. **b.** ezagutzera. **d.** ezagutzen. **e.** ezaguketan.

a. kooperatibak ezagutzeko, Arrasatera etortzea onena (O, KA). **b.** Euskalerrira etorri dira kooperatibak ezagutzera (O, S, G). **d.** Arrasatera etorri dira kooperatibak ezetuten (IN). **e.** inglesak Mundrako kope-ratibak ezauketan etorri zien (IP).

¿cómo decir lo que viene después? ■ nola esan gero **DATORRENA?**: nola esan ortik aurrerakoak? (G, IN, O), zelan asmau ortik aurrerakoak? (IP), hortik goitikoak ez ditut erraiten ahal (KA), ortik aurrerako arrazoirik ez dizut emango (O).

armada **ETSAIA** suntsitzeko: kontrarioen ejertzitua desegintzeko (O), arerixoen ejertzitua txikitu euen (IP), kontrarioen ejertzitua autsi zuen (G), ...xehetu zuen (S), etsaien armada desegin ~ debenu zuen (KA).

ETSI: *etsi*-rekin egindako aditzek konplemento zuzena nahi dute gehienetan. **ADIBIDEAK**: aski etsi: aski esten du edo sobera esten du (AX 76), begietsi: gauza itsutzen... begi esteaz (AX 377); berantetsi ↗ **tardatu**; ederrets: ederresten duzu (AX 62) ↗ **gaitzetsi** ↗ **goretzi**; gutietsi lagüna (AL); nik sagar hau haitetsia dü (AL) ↗ **miretsi** ↗ **onetsi** ↗ **sinetsi**; adinik hoberena sobera etsirik (AX 123) ↗ **hautetsi** ↗ **handietsi**.

ETXE berean bizi dira (AM, KA) ~ etxepe

batean bizi dira (O), etzepe baten (IN), tellape baten (IN, IP), tellatupe baten (G, IN), etze bikotxean bizi dire (IN), idorpe berean bizi ziren (S), etxe batean (U), tellatu beran azpiyin bizi dira (S).

nire **ETXEAN** lau anaia bizi gara ↗ **anaia**.

ETXEKI ↗ **atxiki**.

ETXERAKOAN ↗ (etxera) **joatean**.

ETXIALAT (= inoren etxera) / etxerat (geure etxera) noa (AL).

amak haurra lurtean **ETZAN** zuen (Faktitinoan hobe *eratzan*, *eratz*o edo *eratzon* erabiltzea): Zerk aratza hor, alfer-nagia? (AX 21), Nik nahien dudanian bertzek besoan daratza (Etxepare), umeak eurekin oean eratzotea (Fr. Bartolome), amak haurra etzanda utzi zuen lurtean (S).

se apoyó un poco en la pared ■ **ormán** zerbait **ETZAN** zen ↗ **zerbait**: ormaren kontra jarri zen (O), paretaren kontra bermatu zen pixkat (GR), ormaren kontra jarri zan (IP), (paretaren) (G), murraren kontra bermatu zen (KA, LAR), paretaren kontra jarri da setan (S).

burua mahian **ETZANIK** zuen: burua maian gañera botata zeuan ~ maian gañean ~ mai gañean (O), mai gañen paratuta (G), burua mai gañean eukela euen (IP), burua mahainaren gañean ezaririk dago (KA).

gelan **harri** bat **DATZA**: gizona etzinda dao (U), beia itxunde dao (IN), gizon hori heldallo da (AL), gizona etzanik da (AL, KA), gizona etzanda dago (O, S), moketaren gañean etzanda zegoen (G, O, IN), losa bat etzanda dago (AM), arlosa etzinda dao (IP).

EURIA ↗ **eguraldia** ↗ **estali** ↗ **laino**: euria da (G, O), eurie da; istilla etengabe ari du (O), euria dago (EL, IB), euria badagi ere (*por si llueve*: Mikoleta), txenarak oso behetik dabilta eta euria egingo du (O), euri arrastada bat egin du (pixkat) (O), ateri dago (AM, O, G, EL), orain atertu du (AM, O, S), ez du euririk atertzen (O), euri basaka ari du (S), uria basakaka ari du (AM), ze basakak bota dituen! (S), axeri bataioa (euria ta eguzkia batera) (S), axeriain ezteiak (LAN, O), hara azeri bataioa! (euria ta eguzkia batera) (G), donarioz ari

du euria (ID), donario onean ari du euria (ID), baretu du denbora; erasanen du (AM), gaur tenorez erasanen dio (S), erasen behar dio (S), uria erasen dio (S), erasan behar dio (S), gogorki erasan du uria, elurra (AM), egualdi au erasotzera dioa (G), eraso dio euriari, trumoiari, txingorri... (O), eraso purrustada horrek ez du balio (G), eraso ederra ari du (G), euriari eraso dio (O), euria eraso du (G), eraso ederra bota du (G), eruantsia egin du (AM), ze erauntsia ari zuen (G), erauntsia bota du (AM), botako du erauntsiren bat ederra (O), euria egin du erradaz botata bezala (O), euria ezti ezti ari du (AM), goian behean ari du euria (O, G), goian direnak behean ari du euria (O), goian behean eraso zek (G), euria goitik behera ari du (ID, S, G, O, AM, ITS), urie gozo gozo ari du (AM), euri gozoa ari du (AM), aizeka ari du (S), uri aizeka ari du (S), aizeurie ari du esker gaiztoan (AM), euri haundie ari du (O), asi du urie (AM), intza ari du (G), ijito euria ari du (G), uri lanbrotsa (LAN), euri lapratza lankarra baino gehiago da, baina euri zaparrada baino gutiago (S), lankar pixkat ari du (AM), lankarra ari du (AM, G), euri lapratza egin du (O), euri lardatsa egin du (O), euria da; lardaska pixkat (O), egualdi epelarekin euri lasaia ari du (G), euri lazo lazoa ari du (AM), leher eta zarpert ari du euria (AM), euri latza ari du (AM), euri liska in du (pixkat) (LAN), trumoi jotzen du (G), trumonadako erauntsia da hau (O), euri xirtxila ari du (LAN), euria zaldizkaka ari du (euria barran bezala ikusten da, haizearekin) (AM), zaldizko ederrak eldu dira (G, O), zaldizkoka ari du euria (AM), zaldizkoekin ari du (S, AM), euria zaldizko(e)kin ari du (G), elementuak zaldizko(e)kin ari du (G), zaparrada itsua dator (ID, O, EL), osti zaparrada egin du (AZ), uri zarrapata handia egin du (LAN), zeru lurrak ari zituen urie (AM), zerukoak eta lurtekoak ari ditu (AM), zirimiri dago (EL, O), gaur zunpernaka eraso dio (S), urie zurrutaka ari du (AM), egun guztian basaka ari du (S), euria atertu gabe lau egunez egin du (O), eurixei derautso

(IP), eurixei erautsen (IP), au de zaparrada! (IN, EL, IP), au da eraso! (G), goitik beiti ari du uria (S), au erauntsi animelia ai duena! (AM, S), goian beian ari du euria (O), hau da euri erauntsia (KA).

EURIA egitera doa ↗ **estalia**: **1.** üdüri dü ebi eginen diala (AL, KA), segur ere ebi eginen düzü (AL), bereala urie eginen du (AM, G, S), euria egin bear du (O), (auria) (U). **2.** auxe illuntzea! Euria dakarki (O), euria, elurra, denbora txarra dakar (IN). **3.** eurixei ekingo deutso (IP). **4.** egualdi au erasotzera dioa (G), erasen bear dio (S), eguldi onek eraso egingo du (G), gaur zarrapadaka eraso dio (G), euriari eraso bear dio (O), gaur zunpernaka eraso dio (S), egualdi onek eraso egingo dio (O), erasan bear du (AM), gaur tenorez erasanen dio (AM), trumoi kozkor aundik daude eta erasoko dio (G), trumoiu du berriz ere (G). **5.** azpiko aizeakin erauntsia eldu da (U), goialdea beltza zegoen; bazetorren euria (O). **6.** euria, elurra dakar (IN), denbora txarra dakar (IN). **7. a.** ebia asiko du (O, G), euria asi du (O, KA). **7. b.** odei beltzak jarri dira eta euria asiko da (G, KA). **8.** ebia egiteko itxuria dauka (O), egualdi onek euri itxura dauka (O, ID, EL, G). **9.** üdüri dü denbora ederrialat ari girela (AL), aroa ~ denbora ebialat da (AL), denbora euriarat ari da (KA). **10.** eurie urrin eztago; odeitorra andiek daoz (IN), eurie mogitan deu ~ eurie mogidu deu (hasi da) (IN), lanoak dira, euria ez da urrun (KA), eraso ederra eldu da (G), euria heldu da (KA), zaldizkoak heldu dira (G).

EURIA erori da: euria izan da (G), euria egin du (O, EL, IB, N, MO, KA).

EURI tantak **erortzen** ari dira: euri tantak asi ziren (AM, U, G, ID), asi zituen euri tantak (AM), ebi tanto batzuk asi ditu (O), tantaka batzuk asi dia (IP), euri xortak ari dira (KA).

EURIPEAN joan ginen (KA), euriten ~ euritzen dabil ume ori (IN), euria ari zelarrik (KA), auritan (U), euri ta aterri fuen giñan (IP), euria goian beian joan ginan (O), euritan (G, O, IN, IP, S), eurixei eretsaula joan ziran (IP), euri ta aterri an dabil (IP).

autonomia EUSKALDUN arazoa da ~ autonomia euskal arazoa da (O), autonomia euskaldunen arazoa da (G, S, IN), afera (KA).

EUSKALDUN gizonen nagusi izan zen ~ euskal gizonen nagusi (O, IP, ID), gizon euskaldunen nausi (IP), euskaldun gizonen nagusi (G, IN), euskaldun soldadoen nagusia (KA), soldado euskaldunen aintzindaria (S).

jende EUSKALDUNA etorri zen: euskaldun jendea etorri zen (IN, G, AM, O, IP, KA, S), euskaldun sendimentuak (LAN), frantses euskalduna (O, G), espainol euskalduna (LAN, KA).

lau liburu EUSKALDUN erosi zituen: ~ -tar: lau liburu euskerazko (G, O, S, IN), lau euskal liburu (O), lau euskaldun liburu leitu ditu (KA), uskaldun usantxa ederra (AL).

EUSKALDUNEN 3.000 **gudariak** etorri ziren: 3.000 soldadu euskaldun (IN, O, IP, G, KA, S).

EUSKARA hiltzen ari da ~ **hil**.

EUSKARA ederrez hitz egiten du ~ **menderatu**.

EUSKARA ongi menperatzen du horrek = *ése somete bien el euskera* ~ **menderatu**.

horrek ez du EUSKARA ongi menperatzen = *no somete bien el euskera* ~ **menperatu**.

nongo EUSKARATAN, zein euskaratan ari dira mintzatzen? ~ **hizkuntzan**.

Landerrek Nextor EUSTEN du: autsin euskereari (IN), eutsin (IP), saiatu egin bear dugu ekontzera (S), eutsi euskerari (O, G), euskarari ekonto in bear diogu (S), barreri ezin eutsinda egon naz (IN), maieri autsin dautso (IN), euskara atxiki behar da (KA), euskarari ekontzera saiatu behar dugu (S).

lan horrek denbora asko EXIGITZEN du ~ (hamar minutu) **eraman**.

EXISTITU dira bokale sudurkariak: noizpait izan dira bokale sudurkariak ere (GR), lehenago baziren bokale sudurkariak ere (GR), nozbait izen ei zien sorgiñak (IP, O), denbora baten izaten omen ziren sorgiñak (G), denbora batez baziren sorginak (KA).

«h» posizio horretan EXISTITU da: izan zen

«h» egongune horretan ere (GR), otsuek be ize zien Euskalerrian (IP, O), otsoak izan dira mendi orretan (G), beste denboran baziren otsoak mendi hortan (KA).

horrentzat «ezina» ez da EXISTITZEN ~ **ezina**.

todos los extremos se tocan ■ **ESTREMO** guziaz **ikutzen** dira ~ **muturrak**.

BEREIZ: -EZ / -EZ GERO ~ (-ez) **gero**.

EZ: aurrean ala atzean ipini, esanahia alda liteke ~ **bai** (jan).

*a. egun legatza jango nuke, besterik ez (= gehiagorik ez; horrekin nahikoa dut) (O, G). **b.** egun legatza jango nuke, ez besterik (= ez nuke bixigurik edo olagarrorik jango) (O, G).

*NIK EZ / EZ NIK: jan al duzu ori bein? Ez nik! (ez nuke nahi, gainera) (O, IP), jan al duzu ori bein? Nik ez! (Beste batek bai, behar bada. Ez da adierazten nahiko lu-keentz) (O, IP).

*EZ: Zenbait esaldi laburtutan, «ez»ek aditzaren aurretik agintera adierazten du. Aditzaren atzetik gertakaria. **1.** ez onartu drogarik (IB, EG), ori ezpa (ez bada) iriki! (= ez hori ireki!) (O, G). **2.** amak dirurik eduki ez, ordea (S), ori iriki ez, ordea (O, G), (= ori ez zuen ireki). **3.** neri ez esan! (O, G, EL) / neri esan ez! (O, G, EL) (= *por qué no me lo diria!*). **4.** amak esan bai; horrek egin ez / ez hori egin O, G, ID.

No fumadores ■ **EZ ERRETZAILERIK** ~ **prohibitua**: erretzailerik ez (O, EL).

(E)Z: ergatiboaren ordez gaizki erabiltzen da ~ **por**.

*lurralde etsaiez inguraturik zegoen: kontrarioak etxea jira guztian artuta zeukaben (O, G), etxejira guztia artuta daukate kontrarioak (O), etxe inguru guztie artute dauke arerixoek (IP), etsaiek etxe itzuli guzia hartua dute (KA), Faraonek... inguratuak (AX 86).

*orduan bete zen **profetez** errana... ~ **por**: orduan bete zen profetek errana (LAN, O, ID, IP), (gertatu) (KA), profetak errana egin zen (S).

EZ BESTE ~ **baizik**.

EZ + - ez gero (ez eginez gero) ezean ~ **ezik**.

EZ BADA ~ ezpada (zenbait tokitan = agian, behar bada): bateonbat etorri da. Mariaxun ezpada! (G, IP, O, KA), non da Mariaxun? Ohean ezpada! (G, IP, O, KA). ta EZ BAKARRIK ez dauka lekurik bestien pozak geure barruan, ezpada ze mingostasun barriak emoten daukuz ~ ez bada ta besteen pozak geure barruan lekurik ez izateaz gainera, mingostasun barriak emoten deuskuz, emon ere (GR).

Ez dut inor maite, ama EZ BADA (ezpada) ~ **baizik**.

-EZ ETA ~ **ezta**.

EZ dut hartuko ez **jinebra** eta ez **koñaka**: ...ez jinebrarik ez koñakik (IN, O, S, G, AM, IP), ez ardurik ez hurik (AL), ez deuko ez ardaurik eta ez ogirik (IN, G), ez ardo ta ez ogi gelditu dira (G, U, IP, O, ID), egun ez dut ez arnorik ez xanpañarik edanen (KA), ez du jan ez edan (KA).

EZ ditu erlazio **sozialak**: ez du erlazio sozialik (GR), ogirik ez dago etxean (O, G), ez du ardirik (O, G, KA).

bere eginbideetarik EZ okertu ez berandutuko zenik ez zirudien: bere eginbideetarik okertu edo berandutuko zenik ez zirudien (GR), bere eginkizunei utziko zienikan ez zirudien (O), bere eginkizunei bertanbera itxikoutsenik ezken uste (IP), bere eginbearrari utziko ziotenik etzun ematten (G).

jatetxe EZ garestiegi bat aukeratu zuten ~ (ez) **garestiegi**.

jausteko **arriskua** EZABATZEN zion lagunak: lagunari esker, ez zan erortzeko ~ jausteko arriskurik, (ezeuen) (IP, ID, G, O, S), hori dela kasu, ez da erortzeko lanjerrik (KA).

burua higitzen zuen bere EZADOSTASUNA adierazteko ~ **abstrakto** ~ **zail**: buruari eragiten zion konforme ez zela adierazteko (G, O, IP), burua inharrosten zuen akort ez zela erraiteko (KA), burua mugitzen du orrek; ez dago agitz konforme (S).

EZAGUERA galdu zuen (O) ~ **konozimendua**.

EZAGUERARA etorri zen ~ **konozimendua**. hori EZAGUNA egiten zait: **1.** Itsasne arpegiz ezagutzen det (O, ID), arpegiz ezauna dot (IP), arpegiz bakarrik ezagutzen dut

(AM, IN, O, U, G, IP), arpegi ori ezaguna dut; nonbait e(re) ikusia dut (G, O), arpegi ezaguna iruditu zitzaidan (ID, O), horren begitarteak zerbait erraiten daut (KA), orren arpegia izaguna iduritzen zait (S), orren arpegia ezagutzen dudala iruditzen zait (S). **2.** ikustez baizik ez nuen ezagutzen (LAN, AL, S, G), ikustez bakarrik (G, S, KA). **3.** ikusiz bakarrik ezagutzen det (O). **4.** omenez ezagutzen düt (AL). **5.** ezauketanen antza artu neutsen (IP), haren antza hartu nion (G, O, IP, IN), aren antza eman nion (O, IP, G, AM, S), aren antz andie asmau neutsen (IP), Arantzari izeba Pakitararen antza ematen diot (O). **6.** iduritzen zaut norbaiti ite duela (KA), haren egite emaiten deiot (AL). **7.** aren itxura artu diot (O). **8.** ezaun ein jata (IN, O), gizon hori ezagutzen dudala iruditzen zaut (KA), tankera hori eman nion (O).

EZAGUTU: ez ahantz, aditz honek baduela zenbait **molde trinkorik**. ~ **Euskaltzaindiaren** aditz batua.

Honatz Leizarragaren adibide zenbait: guzien bihotzak baitezaguzkik (LEIZ. Ap Ak 1,24), badazagugu erran duena (LEIZ. Heb. 10,30), Bethidanik lainkoak badazuguzki (Ap Ak 15,18 LEIZ.), Nondik nazaguk? (LEIZ. Ioan 1,48), badazagut hura (LEIZ. Ioan 8,55), bazaut (Añibarro).

EZAGUTU / **Jakin**: **a.** jakin = *saber*: bada- kit etorri dena; badakit euskaraz. **b.** ezagutu = *conocer (reconocer)*: ezagutzen dut neure bekataua.

*orain, irratiko entzuleok, **berriak ezagutuko** ditugu: ...berriak entzungo ditugu (O, IP, G, KA), ...berriak jakingo ditugu (O).

*euskararen ezagutza hobetzeko baserrira joan zen: euskaraz obeto ikasteko (IN, O, IP, IN), obeki ikasteko (AM), okiango ikasteko (G), euskaraz hobekiago mintzatzeko behar duzu laborari etxe batetarat joan (KA).

*haren arkitekturaren ezagutza oso eskasa zen: arkitekturaren oso gutxi entenditzen zaio (EL), gutxi aiketa jako (IP), gauza oietan ez dut entenditzen (S), ikusten da arkitektura kontuan gutxi entenditzen zakola (O, G).

*ezagutzen duzu euskara?: Ba al dakizu euskaraz? (G, O, EL, ID, IB, KA).

*lan horretarako hizkuntzen ezaguera eskatzen dute (G, O), berbetan jakitea eskatetan daue (IP), lan hori ukaiteko ~ lan hortan ar(i)tzeko behar duzu jakin euskaraz (KA).

*Izaban zer gertatzen den guziok ezagutzen dugu: ...guziok dakigu (G, O, IP), denek badakigu (KA).

*ezagutzen zuen gizon hura oso gaizto zela: baizakien gizon hura biziki lanjerosa zela (LAN, KA), bazekian gizon gaiztoa zana (IP, PN, O).

EZAGUTZEN da jatorra zarela / notatzen. denak **EZAGUTZEN** dira herrian: ez dugu elkar ezagutzen (G, O), (ezauketan) (IP, KA), ez degu alkar ezautu oraindik (O), denak elkar ezagutzen dute (G), haur haurretik elgar ezagutzen dugu (ITS).

nik neuk ikusita bakarrik **EZAGUTZEN** dut / ezaguna.

esa noticia no se dará a conocer ■ berri hori ez da **EZAGUTZERA** emango / aditzera (eman): berri ori ez da zabalduko (O, IP, G, S), berri hori beretzat atxiki dute (KA), berri hori ez dute hedatu (KA).

se dieron a conocer ■ **EZAGUTZERA** eman ziren: 1. orduan ezagutu genuen elkar (O, KA), ezagutu berriak dira (G). 2. ezaupide egin genuen (O, IP). 3. ez dizut neure ezaupiderik eman (O), ez dugu ezaupiderik eman (S), elkarri ezaupidea eman (S, O). 4. nik ez nuen ezagutzen baña berak eman zidan ezaguera (G), elkarri ezaguera eman zioten (G, S, AM, O), han egin zuten ezaguera (O), orrek ezaguera ematen du (= agurtu, saludatu) (G), ordun in genuen ezaguera (G), elkarrekin ezagunak egin ttuzte oiek (S), elkarrekin ezaguera dugu (G), ...elkarrren (ID). 5. alkarri ezauketan emotsen (IP). 6. elgarren ezagütziak egin zituzten (AL), (ezagutzak) (ITS, LAR, KA), hareki ezagütziak egin ditüt (AL, KA), ezagutzak (KA). 7. ez du bere burua ezagutzerera eman (S). 8. ezagun haundia genuen hori (S, O, EL).

EZARRI / **JARRI** / erabili / ibili.

Ezarri galdu egin da zenbait eskualdetan. *Jarri* erabiltzen da *ezarri* (= ipini) aktiboaren orde. Batez ere mugaz bestaldean atxiki dute ongi hitz hori; «ezarrarazi» eta «erazarri» ere erabiltzen dituzte: hor dut ezarria zure askaria prest (ITS, KA), muga berria ezarri dute (ITS), ohean ezarri dugu eria (ITS), lege berriak ezar ditzazke (ITS), preso ezarri dute (ITS), heben ezarri ditut izenak (LAN), elizan ezarri dugu kutxa (LAN), konfiantza Jinkuatan ezar dezagün (AL), gük ezarri dügü gorpitza (AL), ezkila berria ezarria izan da (ITS), bulego aintzinean ezarri du afixa (ITS), leku hunean ezartzen du artaldea (LAN), jaso nagizu, ta ezarri oera (Peru Abarka), eskiribuz ezarri dute (AX 325), sillan ezarri zatez (IN), haren itxurak larría latz latza eratzartzen zeion (AL), olloa ezarrita deukot (= txitak aterateko) (IN), behar da gatza ezarri egun guzietz ingurian (LAN), badira pozoina ezartzen dutenak (LAN), bezperatik ezartzen zen irina prestaturik (LAN), puskak dilindan ezartzen dira serailan (LAN), bere alaber ezarri zitien kalote gorriak (LAN), legea ezarten duena (LEIZ. Ham Manam), haren khorpitza hobian ezarri dügü (AL), mahain gainean ezarrarazi zuen haren gorpitza (ITS).

ERREGEREN alde ezarri zen: erregeren alde jarri zen (G, O, ID).

zaplato edo bat **EZARRI** zion masailean: plastada bat emotsen matrallan (IN), bellarriondoko bat emon eutsen (IP, O, ID, G, S), mazalako bat eman dako (KA).

kolpe izugarriak **EZARRI** zizkioten: emon (IP, O, ID, G, S), ukaldi ~ kaska bat eman dako (KA).

las clases que distinguimos ■ **EZBERDINETAN** ditugun klaseak: bereizten ditugun klaseak (S, AM, KA).

hamar janari **EZBERDINAK** atera dituzte: amar janari klase baño geiago atera (AM), amar jateko klase (G), bost jan klase (O), bost klasetatik jaten eman ziguten (O), amar klase baño geixago egon zien jateko (IP), hamar jateko mota baziren (KA).

ohe **EZBERDINETAN** lo egin zuten: oe banatan (O, AM, IP, G, IN), oatze banatan

(S), baktotxa bere zaldian jin ziren (KA), banaka lo egin zuten (G).

gauzak horren ederki egiten zituen, **EZE** denek maite zuten / non / -la.

EZEAN ~ ezik / ezik.

Su Excelencia dirá! ■ Zure **EZELENTZIAK** esanen du!: Esan ezazu, jaun agurgarri horre! (IP, O, ID).

EZENEZ ~ ezinez ~ eziez (Erdal usaina darie lexema hauei) / baino: nahiago dut bizi, ezenez ta hil (ITS, KA), nahiago dut hil ezinez eta ohorea galdu (ITS), haboro balio du perak eziez sagarrak (AL), hobe da maithatzia eziez hastio izaia (AL), nahiago düt hil eziez Jainkoa ofentxatü (AL), heldü bada, odola ixuriko die, eziz ez hitzari üko eginen (AL), nahiago dut hori, ezinez mendiko gasna (ITS), gurao neuke bizi, iltie baño (IP, IN, O, ID, EL), dantzan nahiago dira eziez lanaren egiten (AL).

Denak etorri ziren, Mariren **EZEPZIO** bakarraz / ezik / baizik.

EZER — zeredozer — deus — zerbait — batere: 1. Ekialdean *deus* eta *zerbait* sarriago erabiltzen dituzte; sartaldean *ezer* eta *zeredozer*. 2. ezer ~ deus (eskuarki). 3. zeozer ~ zerbait (eskuarki). 4. Galderetan gehienetan: «ezer ~ deus» erabiltzen dira. 5. Ezezko perpausetan: ezer ~ deus. 6. Baiezko galderetan «zeredozer ~ zerbait». Salbuespenak: ezer gutxi, ezer baten... 7. aurreneko perpausan «ezer ~ deus» erabiltzen denean, hurrengoan (aurrenekoa argitzeko bada) «zeredozer ~ zerbait» erabili ohi da. 8. gehienetan *ezer ez*, *deus ez*, erabil daitekeenean, *bat (ere) ez* erabil daiteke; alderantziz ez. 9. Zenbaki konkretuentzat *deus ez*, *ezer ez*, baino sarriago «alerik ez», «bihirik ez» erabili ohi da (galderez denaz bezanbetean).

*1. lanik egin al duzu? batez (G, O, ID), ez dot batere egin (ID, O), deus aundirik ez (G), deuz ez dut egin (G, AM, S), ez dut deus egin (KA), ez dut iaus ere egin (S), ez dut ja in (AM), eztüt deüs egin ahal izan (AL), eztot in ezebe (IN), eztot egin ezebe (IP), deus ez (S). 2. sagarrak ba al duzu? bat ez (G, O), ez deukot bape (IN), ez deukat batere ez (S), ez dut batere (G), bat ere ez

düt (AL, KA), alerik ez (G), ezta alerik ere (O, ID), bihirik ere ez dut (KA). 3. zenbat ardi duzu? bapez (IN), ezta batere (ID), batere ez (S, AL, O, O), alerik ez (G, U, ID), ez dut bat bakarrik (AM), bat ez (G, O), garanik ere ez (S, AL), bihirik ere ez dut (KA), ez, batere (AL), batrez (AM, G, O, U), bat eztu ardirikan (G), Margaritaren berririk batere eztügü (AL). 4. Ikusi al duzu partidoa? Ez! (AL, S, G, AZ, ID), ez dut ikusi ahal izan (KA). 5. gehiago nahi al duzu? ja ez (AM), ez (G, ID, KA). 6. ikusten al duzu? ezta ikusten ezebe (IN), deus ere (S), ez düt deus ikusten (AL, KA), ez da jeus (i)kusten (AM), deus ez ~ bat ez (G, O, U), bat ez da ikusten (G), deus ezta ikusten (G), eztot ikusten ezebe (IP), eztet ezer ikusten (ID), emen ezta ikusten bat ere (EL). 7. Gauza txarren bat egin al duzu? nik ez dot in ezer (IN), nik eztot egin ezebe (IP), nik eztet ezer egin (ID, O, EL), nik ez dut deus egin (KA), hunek deus ez daki (ITS). 8. onddo zerbait atzaman düzia? (/ zenbat ardi duzu?) Ez, batere (AL), deus ez dut atxeman (KA).

BEREIZ: **A. EZER** ~ deus aurkitu al duzu? **B. zeredozer** ~ zerbait aurkitu al duzu?

A. ezer ~ deus aurkitu al duzu? Batzutan galdera hau egiterakoan, zerbait konkretiaz ari gara. Badakit perretxiko bila joan zarena: *ezer* ~ *deus* aurkitu al duzu? Perretxikorik asko aurkitu? Gauzaren bat galdu dut eta laguna bila ibili da: ezer aurkitu al duzu? 1. ezer esan al du nigatik? (O, ID), ezeren enkargurik al dezue? (O), ezer jan al dezue? (O, ID), ezer ikusi al dezue? (O, ID), topau dezue or bidetan ezer? Ez. Zeozer galdu ein jazu ala? (IP, O, ID, IN). 2. deus arrapatu al duzue? (S), deus bildu duzue (kamamillurik)? (G, S), deus ediren düzia? (AL), deus billatu altzu? (G), arrapatu duzu deus? (AM), deus ez (AM, G, AL), deusik ez düt atxeman (KA, AL), onddoketa joan zira? Deus atxeman düzia? (KA).

B. zeredozer ~ zerbait bilatu al duzu? Galdera hau ez da horren zehatza. Mendira joan da eta galdetu egin diozu ea perretxikorik, erbirik edo zerbait jatekorik... aurkitu duen. 1. zeredozer jan al duzu? Zeozer

jan degu (ID), ez dut ja ere jan (AM), gauza aundirik ez (S), ez, deüs (AL), ez dut ja ere jan (G), batrez (AM), ja ez (AM), ez degu ezer jan (O, ID), ez, bat ere (AL), ez bakotxik ere (AL), bapez dot jan (IN), bat ez (G), ezer ez dot jan (IN, O, U), deus ere ez (S), deus ere (S), ez, deüs (AL), deüs (AL), deus ez (G, AM, S), eztut jan sagarrik bate-re (AL), zeozer ikusi al dezu (O, IN), zeozer billau al dezu? (O), esan dau zeozer (IN, O, ID), zeozer topau dozu? (IP), zeozer galdu al zaizu? (O, ID). **2.** zerbait aurkitu duzue? (S), billatu duzue zerbait ere? (U), Ezer ez (U), bat ere ez (U), zerbait esan al du? (G), zerbait esan du (G), mendira joan zira? Zerbait atxeman duzia? (KA).

D. atzenenean ezer esan dau? (IN), esan dau zeozer (IN), azkenean ezer aitortu al du? Bai, esan du zeredozer (O).

*EZER EZ ~ DEUS EZ: **1.** jateko ezer ez dago (IP, IN, EL), jateko ez dago ezer ere (O), bapez eztao jateko (IN), ez da jateko yaus ere (S), ez da deus jateko (G), ez dut deus ere jateko on denik (S), zer jan eztao (IN), deus ez da jatekorik (KA), deusik ez da jatekorik (KA), ez da jatekorik (KA, S), jatekorik ez dago (O), ez da ezer jatekorik (O), zer janik ez dago (IB, MO, IN, O), janik eztao (IN). **2.** ez diot ezer esan (O, IN), ezer ere ez dio esan (O), ez dakot deus erran (KA, S), nik ez diot esan ezer ere (O). **3.** ez zaude ondo? Nik ez daukat ezer (O), nik ez dut deusik (KA), ba al daukazu zeozer? Nik ez daukat ezer ere (O), ez dut deus ere (S).

hacen un drama por nada ■ **EZEREZETIK drama** bat egiten dute ↗ **esajeratu**: uskeri batekin mendiak eiten ditu (O), errial baten pupua eta pezeta biren trapua (O), deusengatik aserretzen da (AM), deusentzat kexatzen da (KA), deusezetik ~ deus gutxitikan aserretzen da (G), lau meixen pupue ta sei meixen trapue (IP).

EZERGATIK nigarrez hasten da: deusengatik nigarrez hasten da (AM), deusezagatik asarratzen da (G), jaus gutxikin aserretzen da (S), jausezengatik asten da nigarrez (S), deusezengatik (G), ez deusendako ~ ez deusentzat... (KA), edozerrengatik (O),

edozer gauzakin (O), uskeriagatik nigarrez asten da (IP, ID), utsaitik (IP), aski dik ulian ostikoa asarratzeko (S), pintalakulo: deusendako gaitzitzen dena (LAN).

nolako ikara izan dudana. Eta **EZERTARA-KO** ↗ sustua: eta ezebezegaitik (IN), nolako ikaria pasau detan uskeri bategatik (O), uskerixe bategaitik asarratu (IP), izitu niz eta ezdeusengatik (KA).

hiria EZEZAGUNA zuen: ez zuen erria eza-gutzen (G, O, IN, IP, KA).

Uholde handiak izan dira. **Kalteak EZEZAGUNAK** dira: ...Zenbaterainoko kalteak izan diren eztakigu (O, ID, G, S), ...ezin leike jakin (IP, ID, G), zelango kalteak (IN), ez du erraiten ahal ze makurrak egin dituen urhasteak (KA).

han ari zen **EZEZKA**: ezetz eta ezetz ari zen (G, O, IN, KA), (jardun euen) (IP), ez eta ez (AL), an ari zen teman, ezetz ta ezetz (G, AM, O), ezetzean dago (O).

EZEZKOA eman ↗ **baiezkoa**.

EZIEZ ↗ **ezenez**.

EZIK ↗ **baizik**.

EZIK ~ **EZEAN**: **1.** aundirik elitzake izango, txikirik ezean (O), izerditzea ona da, gero oztu ezean (O), izerditutea ona da, ostea ozitu ezik (IN), egurrik ezean, neguan otz (O), besterik akordatu ezean hori egin du (O), nik ikusi ezean ez nuke sinistuko (O), nik ikusi ezik, enoa siñistan (IN), ura izan ezean, zein izango zan ba! (O), Bera izan ezik, nor izango zan ba! (IN), bera ez izanik, nor zatekian? (AL), besterik gogoratu ezean, hori erran zuen (Xalbador), golde horrekin ezean ezin leike lurra gorritu (O). **2.** esan nai ezik dago (G), geldi dago joan nahi ezean (ITS).

no encontró sino a su mujer ■ haren emaztea **EZIK** ez zuen ediren ↗ **baizik**: aren andria bakarrik billatu zun (ID, O, G), semia bakarrik topo euen (IP), semea bera ~ bakarrik atxeman zuen (KA), ardia bakarrik arrapatu; zerria ez (S).

ez zuen ezer eskaintzeko, bere bihotza **EZIK** ↗ **baizik**: ez zeukan ezer eskeintzeko, bere bihotza besterik (O), ez zuen deus ere eskeintzeko, bere bihotza baizik (ITS), bere bihotza ezpazen, gañekon etzaukan

deus ere eskeintzeko (G), etzeuken ezer emoteko, bere bihotza izen ezik (IP).

toki guzietan bakea da, gure etxean **EZIK** ↗ **baizik**: gure etxean ez, beste guzitan pakea da (G, O, IP).

jan **EZIK** ez du egiten ↗ **baizik**: jan da lo, besterik ez du eiten (O, IP, ID, G, KA, S), ase ta lo... (KA), izkutuan dagona agerian jarri; orrek ez du besterik egiten (O).

laguntza **izan EZIK**, zail da hori egiten ~ laguntza gabe, zaila da ori eiten (O), laguntasunik barik (IN), ori eittia gatxa da, lagundu barik (IP), laguntza euki eze(a)n, zaila izango zan (ID), laguntzarik gabe ez da aise egitea ~ egiteko (KA), norbait ere gabe ori eztegu ginaunek eginen (S).

EZIN:

I. NO PUEDEO HACER: **1.** ez dut egiten ahal (ITS, LAN, AL, AM, KA) ↗ **ahal**. **2.** ezin dut egin (G, S, O, EL, IN, ITS, AL, IP), ezin egina dut (KA). **a.** ezin izango du egin (IP, IN). **b.** au ezin egingo du (O, G). **d.** ezingo du egin (EL). **3.** ezin dezaket egin (O), guk egin ez genzaken gauza da ori (G), etzazket egin (S), ez dezakete egin (ITS), ez lezake ori egin (G), ezin neinke jakin (IN), ezin iakin baitezake (AX 328), ezin dukegu (LEIZ.), baina orain ere oraino ezin dezakezu (AX 64), «baserritarrak gera gu, ezin genzake ukatu», ezin leike ikusi (O), ezin neike egin (IP). **4.** ez dut egiterik (G) ~ ↗ ez dut joaterik B.4.b. ez daukat egiterik (IP, IN, O, ID, G), eztegula itzurtzerik (AX 42). **5.** ez dugu ori eginikan (GR). **6.** jan ezina dauka (O, ID), esan eziña dauka (IP, ID), ezin jana dauka (G), au ezina! (G).

II. NO PUEDO IR: **1. a.** ez niz joaiten ahal Donapaleura (LAN, AL), ez naiz gaten al Elizondorat (AM), ez nintzen gaten al (AM), ez naiz gaten alko (AM), ez nintzake gaten alko (AM). **2. a.** ezin naiz joan (EL, O, ID, G, IN, AM, U AL), ezin etorri naiz lehenago (ITS), ori ezin bizi da (S), atzo ezin nintzen joan (G, IN), ezin izango naz etorri (IN), bihar ezin etorriko da (O, G), biar ezingo da etorri (EL). **b.** biar ezin izegot joan (IN), biar al dozu etortea? al izan-

go ezto pa! (IN), ezin dut joan (S, IB, IN, U, Gat. de Art.), orrek olan ezin dau bizi (IN), atzo ezin izen noan joan (IN), ezin izengo neunke joan (IN), ezin dau etorri edurregaitik (IN), zergatik ez zoaz? Ezin detalako (O), zegaitik ezara joan? Ezin noalako (IN), ezin izin noalako (IN), orrek olan ezin dau bizi (IN, S). **3. a.** ezin naiteke joan (Antzuola, Maruri), ezin neinke joan (IN, O, ID), ez nainte joan (AL), ezinateke joan (S), ez naiteke joan (G), ez nintake joan (AL), ni ezin higi naiteke (AX), ezin naiteke gan (AM), ezin nindeke gan (AM), ezin nindeke fuen (IP), atzo ezin nitekean joan (O). **4.** ori orrela ez daiteke bizi (S, KA), ori ola eztekeke bizi (S).

*BEREIZ: **I. A. 1. ez dut joaterik. 2. ezin naiz joan.** □ Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait eskualdetan, bereizi egiten dute:

1. ez dut mendira joaterik (= egun; bihar bai, apika) (G, O), ez dut mendira joaterik; lana egin behar dut (G, O), ez deukat mendira joaterikan; beharra egin behar dot (IP, O, ID, G), atzo ez nun joaterik izan; biar joaterik izango det (O, IP), ez naiz egun libro (KA, ITS, AM). **2. ezin naiz mendira joan** (= ez naiz mendira joateko gai) (G, O).

B. 1. Ezinezkoa da: ez dago joaterik (O, G, ID), ezta probearen gabe egotzterik (AX 152), ez dago joaterikan; eguraldi txarra da (G), biar ez da gateik (AM), biar ezta etxe onetikan joaterikan (S), eztago orruz fate-rik (U), ez dago egiterik (IP, O, ID, EL, G), ori egiterik ez dago (S). **2. Ez da joan beharrik**: ez dago joaterik (IN), igandea denez gero, ez du lanera joaterik (KA, AL, ITS), ez deukot joaterik ~ ez deukot zetan joan (IN). **3. Ez du asmorik**: Ene auzoko hori noiz aterako ote den etxetik! Bainan ez du partitzerik! (KA, LAR).

D. 1. gureak ez zuten izan ara joanikan (EL), gureak ez zuten izan ara juterik (O), ezi euren ara joan (IN). **2. joan ezina dauka** (IP, ID, O).

III. NO SE PUEDE HACER: **1.** ez da egiten ahal (ITS, LAN, AL, AM, S, KA, LAR). **2.** ezin da egin (O, ID, G). **3.** ezin daiteke egin (GR), ezin leike egin (IP, O,

ID), ez litake egin (KA), ezin liteke egin (G). 4. ez dago egiterik ↗ ez dut joaterik.

IV. NO SE PUEDE IR: 1. ez da joaiten ahal (KA, S). 2. ezin da joan (O, G, EL). 3. ezin daiteke joan (GR), ezin leike fuen (IP, O, ID, EL), ezin liteke jon (G). 4. ez dago joaterik ↗ ez dut joaterik.

EZIN: zenbait esamolde. A. 1. ezin egon — hartu. 2. ezin egona — hartuta. 3. ezin egonez — hartuz. 4. ezin egonik — harturik. B. 1. ezina dut. 2. egon — hartu ezinda. 3. egon — artu ezinez nago. 4. egon — hartu ezinik.

A. 1. laguna ezautu ezinke ibilli naz (IP), ezin egon nago (U), geldirik ezin egon! (IP, EL), lana ezin akatu ibiltzen da (U), ezautu ezinik ibilli naiz (O), atsa ezin artu nago (U). 2. ori ezin egona dauka! (G), ezin egona badüzü (AL), ezin edena badüzü (AL), ezin ezaututa egon naz (IN, EL, O). 3. ezin ezagutuz egondu naiz (G, S), ...ibilli naiz (S), ogia ezin irabaziz (ITS, AM), ezin eginez ari da (KA, S), inun ere ezin egonez dago aur ori (S, AM), ezin egonaz do ~ oñazez (G), kotxea ezin piztuz ari da (AM), otoa garajeaz ezin sartuz ari da (KA, G), atsa ezin artuz dabil (S), atsa ezin artuz ai da (AM), esnasa ezin artuz (G), ezin ezagutuz (LEIZ. Ap Ak 21,34), gako morroilan ezin sartuz ari zen (LAN, ITS, AL), lana ezin bukatuz ibiltzen da (G), zutik ezin egonez lurrera joan da (KA). 4. zutik ezin egonik nago (G, S, O), ogia ezin iraba(ir)ik dabil (ID), esnasa ezin arturik dago (G), gurdia ezin sarturik dabilla (G), lanak ezin bukatu ibiltzen da (ID).

B. 1. ez naiz joan, ez ezina daukatelako (= dudalako), ezin detelako baizik (O), parau ezine deuko (IN), jan ezina deuka (O, ID). 2. lana despatxau ezinda ibiltzen da (IP), arnasia artu ezinde dao (IP, IN), egon ezinda dao (IN), zutik ibilli ezinde nabil (IP), kotxea sartu ezinde dabil (IN, IP), lana bukatu ezinda ibiltzen da (O), parau ezinda dao (IN). 3. zutik ezinez nago (U), zutik ezin egonaz nago (G), ezin egonez (S), zutik egon ezinda nago (O), (zutunik) (IN), ibili zen ezin ethenduz (AX 34). 4. a. zutik egon ezinik nago (O, IP, ID), (zutunik) (IN),

ogiarentzat aña irabazi ezinik dabil (O), arnasa artu ezinik nago, nabil (O, ID), kotxea sartu ezinik dabil (O, ID, IN). b. Bihar Donostiara? Bai, joan ezinik ez daukat (O), Etxea erosi behar al dezu? Erosi ezinik ez daukat (O), Larri al zabiltza? Ez, ezinik ez daukat (O), Larri al zaude? Ez, egon ezinik ez daukat (O).

le *tocó vivir lo que era imposible de conocer* ■ ahal EZIN ezaguna bizitzen toka zitzaion: ezagunezina bizi beharra izan zuen (GR).

no *puedo hacer* ■ EZIN ahal dut egin ↗ ezin: ezin eta ahal ez datoz ongi batera baiezko perpausetan. Galderazkoetan bai: ezin etorriko al gera, bada? (O, G), ezin etorri izango ote gare ba? (IP), ezin al ziñazke etorri, bada? (G), ez dut egiten ahal (KA).

langilea, geldirik egon EZIN daitekeena: gelditzen ez dakiena (O), gelditzen ez dena (S), ez da gelditzen ere (G), lanetik ez da gelditzen (AM), gelditu be ezta eiten (IP), langile hori ez da sekulan gelditzen (KA).

hori EZIN dizut esan nik: ori nik ez dut erten al (AM), hori nik ez dut erraiten ahal (KA), ori nik ezin dot esan (IN, IP), ori nik ezin nezake esan (O, G), ori ezin neizuke nik esan (O), nik ezin esan ori! (O).

ezer EZIN zuela geratu zen: ezinak jo zun gero (O, IP), ezina etorri zin eta lana utzi behar (G).

hemen EZIN daiteke fumatu ↗ prohibitua. gehiago EZIN zuenean etorri zen: ezinbertzean torri zen (AM, U), (jin) (KA), derrigorrean etorri zen (IN), besterik ezinean (G, O, IP), ezinbeltzean (O, KA), azkenbeltzean jin zen (KA), ezinbeltzak ekarri du onera (O), ezinbeltzean bizi dira ~ miseri gorrian (O), ezinbeltzak jo dunean, txofer ikasi du (O), ezin beltzak eramane du ori medikuarengana (O), gehiago ezinean (IN), gehiago ezin zun da... (G).

A. 1. EZIN HOBEA ~ 2. hobe ezin. B. 1. ezinago hobe ~ 2. ezinago on.

A. 1. orreik mutillok ezin obiak dia (IP), orrik mutilek ezin obeak dire (IN, O, U), ezin hobeagoak (AX 61), ezin hobeki (G, U), besta ezin hobeki iragan da aroaz buruan buru lagunda (LAN), ezin ta obekia egin du (S), ezin obeto i oan (IN). 2. egokio ezin (G), obeto ezin (O, EL).

B. 1. ezinago hobe da (KA). 2. ezinago laketa zaio holako kantiak entzütia (AL), plaza ezinago eijerki aphainturik zen (LAR), ezinago maite zian adixkidia (LAR), herri-tar xahar maite ezinago goxua (AL), ezinago hun da Felisi (LAR).

D. iten al baño obekio in dut (AM).

EZIN daiteke zerbitzari, bi nagusiren morroi izan: ezin liteke zerbitzari bat bi nagusiren morroi izan (O), ezin leike bi buru txapel batekin tapau (O, ID), buru bi txapel bategaz ezin leikez tapau (IP), ezin liteke sehi bat bi nagusiren zerbitzari ~ zerbitzuko izan (KA), ez daizke bi nagusi batean zerbitza (KA).

han EZIN kontatu dirua zegoen: ezin konta ahala sos (AL, AM), ezin konta (ah)ala diru! (G, O), konda ahala sos bazen (KA), kontau ezin ala diru (IN, IP).

horrentzat «EZINA» ez da existitzen ↗ existitu: orrentzat ez da ezinezkorik (O), orrentzat ez da ezinikan (G, KA), ...ezin eginik (KA), orrentzako eztao ezinik (O).

EZINEKOA da hori (IP) ↗ imposible ↗ beharrezko ↗ gogoko.

EZINEZ ~ eziez = baino ↗ ezenez.

esan EZINEZKO kontuak (EL), ezin erranezko (AL, O, ITS), ezin erran diren kontuk dire oiek (S), esan eziteken gauza (G), esan ez iteko moduko kontuak (IN), ezin esan leizken moduko kontuak (O), esan ezinik moduko kontuek (IP).

goiz osoan EZINGO dezakegu kanpokoekin hitz egin: goiz guztian ez degu kanpokoekin itz egiterik izango (O, G), kanpokoekin ezingau berba in (IP), ezin itzgingo degu kanpokoekin (O), ezingo degu itzegin kanpokoekin (ID), goiz guztian ez gira mintza-

tzen ahalko (KA), egun guztian ez degu inorekin ere solasteko modurik izango (S).

EZKERRO ↗ (-ez) gero.

EZKERREKO begiz begiratzen zioten ↗ pakete (diote herrian).

sozialista EZKERTIARRA ↗ -tar: ezkertiar sozialista (G), pelotari ezkertia (O, EL), ezker gorri(a)k (G, O).

EZKONGAI 1. = ezkongaietan dabilena (G, ID, O). 2. = ezkondu ez dagoena (G, O).

Gurutze eta Antxo EZKONDU egin ziren (IN, G), (Ez da zehazten) = Gurutxe Antxorekin ezkondu zan (O), Gurutze Xabierrekin eta Antxo Edurnerekin ezkondu ziren (G, O), azkenean alkarrekin ezkondu ziran (O).

beste pertsonaiak ez dira batere sakonak EZTA ↗ ere: beste pertsonaiak ere ez dira batere sakonak (O), beste pertsonaiak ere ez dira batere onak (O), alkarren antzekoak dira (O, IP), denak alkarren modukoak (G).

ez dut EZTABAIDA batean erori nahi: ez det eztabaidan asi nai (O, G), ezbaixen ez dutset ekin gure (IP), ez dut kalapitan hasi nahi zurekin (KA).

-EZTAKO: a. beste inork jarrietzako izena (O, G), bein ere iritsi eztao tokian izan gera (O). b. inork jarri gabeko izena (O, G), lehenago nehorrek eman ez duen izena (KA), bein ere izen beeko (izan gabeko) tokian... (O).

EZTARRIA hartuta daukat ↗ itxi (eztarria). EZTUL luzea etorri zaio: ezultariak eman dio (AM, O), eztulak emon deutso (IN, IP), eztulka ari da (KA).

EZUSTEKO gauza gertatu da ↗ bat (batean hartu).

F

lapur hark behartsuei **FABORATZEN** zien: probeak faboratzen zituen (AX 147).

FABOREZ / *otoi*.

FALTA duzu / *falta zaizu*. **1.** *Falta duzu*, gehienetan = galdu duzulako: ama falta dau (IN). **2.** *falta zaizu* = ez duzu berez eduki behar zenuena: umorea falta zaizu (O).

ezer **FALTA** al zaizu? **1.** Zer falta duzu? (LAN, O, G, U, KA), ze falta ozu? (IN, IP), Zertzu falta? (S), Zerbait falta izu (AM), gurasoak falta ditu (O), sega falta du (O), ardi bat falta dugu mandua, buru gorri, ilhurra (LAN), eztügü falta ama baizik (AL), besoa falta du (G, S). **2.** zer du horrek eskas? (KA), zakurra eskas du (ITS), gauza asko eskastu zauzkit (KA).

BEREIZ: **A. FALTA. B. faltatu** ~ gaizki esan.

A. falta / *falta* / *haserre*.

B. 1. lehen faltatu baduzu ere (= gauza txarren bat egin) (AX 161,291), ongi itz egin, iñori ere faltatu gabe (G, O, S). **2.** ondo itz egin zazu, gaizkirik esan gabe (O), iñori gaizki esan gabe (G, O). **3.** iñorekin uts egin gabe (O), mintza zite nehoi hutsik egin gabe (KA, LAR), hori erreza da uts egiten (O), orrekin aixa da utsegiten (S), gauza utsakin aserraten da (O), gauza utsa bear du esarratzeko (O), jausezengatik kolerratzen da (AM), gauz guti aski du kolerratzeke (AM), ezdeusendako ~ deusendako kexatzen da (KA, LA).

liburu berririk erosteko aukera **FALTA** zuen: liburu ura erosteko aukerarik etzuen izan (O, IP, ID, G).

zazpi seme alabetatik bi **FALTA** ziren (IP), zazpi semealabetarik biga eskas ziren

(ITS), biga ments (LAR), atxeman zuen laguna eskas zela (ITS, KA), zombaiten eskasean gara (ITS), eztügü latsün laberik egür eskasez (AL).

gutxi **FALTA** da / *puntu*.

100 urte betetzeko egun gutxi **FALTA** zitzaizkiola hil zen (O), egun gutxiren faltan (O), egun gutxi falta zituela (betetako) (IP, KA).

ez da **FALTA esaterik!**: ez dago zetan esan bez! (IN), ez da erran behar (KA), ez dao zer esanikan! (G, IP), ori ez dao esan bearrrik! (O, ID).

txakur bat **FALTA** da (O, G, IP), eskas da zakur bat (ITS, AL, KA), zakur bat ments da (AL, LAR).

echaba en falta a su madre ■ ama **FALTAN botatzen** zuen: aren falta aundia billatzen da etxean (O), an amaren palta ederra nabaritzen da (G), amaren mentsa senditen du (LAR), amaren falta billau zuen (O), amaren hutsa senditzen du (KA), amaren falta nabaritu zun (G), aman faltia etzian sometan da (IP), amaren falta sumau uen (IP), amaren falta (e)zautzen du aurrak (AM, S), amaren faltia sometan daue umiek (IP), haren eskasa ez da ageri (KA), utsune aundirekin gelditu gera (O), amaren utsune aundia topatzen dot (IB).

lo **FALTAN** nago / *lo* (faltan).

poco le faltó para ahogarse ■ gutxi **FALTATU** zitzaion itotzeko / *gutxiagatik*.

ez gara **FALTATUKO** / *falta* / *faltatu*: ez dugu hutsik eginen (ITS, AM, O, KA), seguru etorriko gera (G, IP).

orain ez da ezer **FALTATZEN**: orain ez da ezer falta (O, IP, ID), (deus) (G), iruditzen

zait ez dela deus falta (AM, KA), ezer ez dela falta iruditzen zait (O, IN), iruditzen zait iaus ez dela falta (S), heben ez da deus mentsik, orotarik ba da! (AL), heben ez da deuseren mentsik (AL), hemen ez da deus eskasik (KA).

gutxi FALTATZEN zaio hitzegiten hasteko: falta zaio (S, O, IP, ID), gutxi falta dau berbetan asteko (IP), gutxi falta du izketan asitzeko (G), agitz gutti aski du solasean asteko, xutik joateko aur orrek (S), guti eskas du mintzatzen hasteko (KA), aski du guti orai mintzatzen hasteko (KA).

a *ése le falta el humor* ■ horri umorea FALTATZEN zaio ↗ **gelditzen** (umorea): umorea falta zaio (O, AM, ID), ez da umorekoa (AM), ezta umoretsua (O), ez dauka umore ederra (O), eztauko umoreik (IP, O), umore eskasa du (KA).

FAMA: fama txarra eman diote (G, O), fama txarra jarri diote (O), gizon deitua (S), fama txarra atera diote (G), motiborikan gabe (S, KA, G, O), liburu sonatua (O), hori sona haundikoa da (O), ori oso sona txarreko gizona da (O), aditze aundikoa da (fama) (G), entzute haundikoa da hori (O, IN), urriko peria aitua da Elizondon (AM).

qué famoso es! ■ hau FAMATUA: au zakutua au (G), au xelebrea (O, S, G, AM, IP), hau gizon bitxia (KA), gizon hori bere gisako bat da (KA).

FAMILIA bereko pertsonak elkarren kontra ari dira: etxeok alkarren kontra ari dira (O, KA), (dabiz) (IP, G) ~ dabilza (G).

ekarri zuen FAMILIAK: etorri zuen etxekoekin (O, U, G), ekarri zuen familia (O, G), zuen familiakin etorri (U, O, G), zuek familixia etorri! (IP), zato etxekoekin (KA).

FANTASIAARIK ez zaizue FALTA: zuek asmatzen duzue! (O, G), zuek asmata itezue, zuek! (IP).

hori beti FARDATZEN: ori beti arrokerian (O, G), ori arropuz bat da! (IP), ori beti arro dabil (O, G), ori beti berea goitik doaie (S), etxian elbi bat akabatzeko aña diranik ez dute ematen eta kanpoan esan bear badirala mundua (O), hori beti espan-tuka (KA).

hi beti FAROLADAK botatzen: i beti erronka jo bear! (O), i beti arrokeixetan (IP), i beti arronkaz ibilli bear (G), hi beti desafioka! (KA), erronkosua da (O).

FARRE luzea bota genuen ↗ **barre**.

konpainia FEMENINOAREN bila dabil: emakumen laguntasunaren billa dabil (O), emakumen adiskidetasunaren billa (O), emakumeak lagun egitea(re)n billa dabil (O), emakumien adiskidetasunen atzien dabil (IP), orren gustoko adiskideak emakumeak dira (G), (emazteak) (KA).

pon la fecha ■ FETXA ipini: urte-egunak idatzi (GR), eguna jarri (O), data eman zazu (KA), data ezar zazu (KA).

le tocó en la fibra ■ FIBRAN ukitu zuen: itz orrek benetan min eman dio (O, IP), etzio-ken ongi joan; giñarrin ukitu zun itz arekin (S, G), hitz horrek hunki nu (KA), giharran ukitua (AX).

¡fiate mucho! ■ asko FIDA zaitez! ↗ **kontua**.

¡no te fies de ése! ■ ez FIDATU horregatik ↗ **kontua**. 1. nirekin ez da fiatzen (G, O, ID), enuk fida horrekin (AL), ez fidatu orrekin! (O). 2. ez da nitaz fidatzen (AL), zutaz, zure erranez ez niz fida (KA). 3. ez fiau orregaz (IN, IP), nizez ez da fietan (IN). 4. ez zitela fida horri (KA). 5. Jainkoaren miserikordian fidatzen bazara (AX), ez dü nitan konfidantzarik (AL), hartan fidaturik (AX 50), elgarretan fidantxa da (LAN). 6. kasu horri! (ITS). 7. kontuz horregaz! (IN).

orduekin ongi FIJATZEN dira zerriak: tenorea ongi autesten dute zerriek (S), tenorea zautze ute (AM), zakurrek jendea falta autesten dute (AM), miruek txitak arrape-tako orduek ondo aukeraketan ditu (IP), beren garaia ongi artzen dute beiek ~ tenorea ~ ordua (G), jateko tenorea untsa ezagutzen dute zakurrek (KA).

FIJO dago kortxoia eta ezin atera: tinko dago buxona (KA), buxona tinkaturik gelditu da (KA), ez aintzina ta ez bigela, ortxe dago (S), ez atzera ta ez aurrera, or dago (G, O), idiak tengo egin du (ez aurrera eta ez atzera) (G), tengon jarri da astoa, zerria, per-sona (G), hori tenk eginda dago (ez da geiago aziko) (O), horrek tenk egin du (O), kortxoia tenkan gelditu da boteila mutu-reean (AM).

hor daude FIJO: or daoz, egotez (IN), egotez or daz (IP), bizitzez, or bizi dira (O, G), beren bizilekua or daude (G), or dute bizitokia; or bizitzen dire (S), hor bizi dira (KA).

ordu FIJORIK al dadukazue?: ordu jakinik? (G, O), jakiñeko ordue daukazue? (IP), egun jakina du ostegunetan (G, O), egun fijo-tan ez, berexietan (e)tortzen da (AM), ohera joateko oren xuxenik baduzia? (KA), Ezen Aingeru bat iausten zen ordu iakinez (LEIZ. Ioan 5,4), egun akin bat (LEIZ. Hamar Man).

BEREIZ ↗ **herri**: A. GAIZKI: 1. FILOSOFIAKO Fakultatea = Filosofian dagoen fakultatea (mendiko zakurra). 2. FILOSOFIAZKO Fakultatea = filosofiaz egindako fakultatea (harrizko mendia). B. ONGI: Filosofi(a) Fakultatea (ehize zakurra).

BEREIZ: A. GAIZKI: 1. FILOSOFIAKO ikasleak = filosofian dauden ikasleak. 2. filosofi(a)zko ikasleak = filosofiaz egindako ikasleak. B. ONGI: Filosofia ikasleak: filosofia ikasten dutenak (mendi gizonak, baso mutilla).

FINALA jokatu zuten: azken partidoa (ID, O), azken partida (S, AM, KA).

azken FINEAN (KA), atzen baten (IN), azken batean (O).

hori FIRME dago bere esanetan ↗ (tinko) jarraitzen. 1. hori beti bere hitzean da (ITS). 2. ori bere itzetakoa da (G). 3. ori itzekoa da (O, ID), ezta itzeko gizona (O, ID), itzeko gizona da (O, ID). 4. ori berbakoia da; esaten dauena beteko dau (IP, IN), ezta berbako gizona; berbia ezta bete (IP, IN). 5. bere hitza atxiki du (ITS), ez du hitza atxiki (ITS). 6. bere berbiei euntsingo dutso (IP), bere itzari eutsiko dio (O), bere esanai eutsi zien (O, ID).

Margaritak FISIK problemak ongi egiten ditu ↗ kultur ↗ karrrik: fisika problemak (GR), fisikako problemak (KA).

kontakto FISIKO handitako kirola da: kirol horretan alkarren gain samarrean ibiltzen dira (O), joko horretan elkarren gainka ibiltzen dira (S), bat bestearen gainean ari dira (KA), ...ibiltzen dira (IN), bat bertzearen gainean dabilzki (S), bata bestearen gainka ibiltzen dira (G).

antz FISIKO handia zuten ↗ antz: alkarren antz aundia daukate (O, IP, G).

Itsasneren deskribapen FISIKOA jakin nahi dut: Itsasne ze itxuratoko neska dan jakin nai nuke (O, KA), ze etxuretako neskie dan jakin gure neuke (IP), zer moduzkoa den (G), Andrek zeri iduri ~ eite duen nahi nuke jakin (KA).

bere FISIKOAZ asko arduratzen zen: a. osasunakin naiko kezkatuta ibiltzen da (O, G), beti bere burua zaintzen dabil ori (O, G), orrek beti gazte azaltzeko alegiñak eiteitu (O), ori beti gazte itxurakoa da (O), bere osagarriaz arreguratia da (KA), fleitean ibiltzen da ori beti (LAN), ori bere burue nundik zainduko dabil (IP). b. bere burua ondo apaintzen du orrek (O, KA, S), bere burua ondo atonduten dau (IN).

FISIKOKI ederra zen neskatxa hura: neskatxa ederra zen (G, O, ID, IP), neska pollita zen (KA).

Itsasne FISIKOKI ezagutzen zuen ↗ ezaguna.

haiekin ere burukatua zen, FISIKOKI ere: alkarrekin borrokan egin zuten (O), borrokan ibilli ziren itsatsita (G), buruz buru borrokan ari dira (AM), buruz buru solasean ari dira (AM, AL, S), elkarrerri lotuta borrokatu ziren (S), alkarri ebatuta burruken ein euen (IP), alkarri eltzerano allegatu omen zi(ra)n (O), borrokan asi eta alkarri itsatsi ere egin ziran (G), elgarri loturik joka ari dira (KA).

Bordeleko arno FLASKU bat edan zuen ↗ botila: Bordeleko flasku bat ardo edan zuen (LAN, KA), Errioxako botella bat ardo edan zuen (G, O).

haragi FLOJOA dauka horrek: A. 1. aragi arola dauka orrek (EL). 2. aragi berak ditu orrek (G). 3. bultua badu, baña aragi bera-tzekoa da (S, U), aragi beratza du (S, AM). 4. haragi guria du (KA). 5. aragi lasua du orrek (S, AM). 6. gizen mazkala dago ori (O), aragi maxkalekoa da ori (O), aragi mazkalak dauzka orrek (O). 7. aragi arroa du (G). 8. aragi fardoa du orrek (AM). 9. gizen ori ez du onazkoa; buiatua dago hori (G). 10. gaitz puztu egin da (O). B. 1. aragi gogorra du orrek (S, KA, LAR), aragi go-

gorrak ditu orrek (O, G). 2. aragi idorra du orrek (AM). 3. aragi trinkoak dauzka orrek (O, G), ume tringua da ori (IP, O). 4. aragi zaila du orrek (AM), zeilla (U).

beti **FOILOIAK armatzen** ari da: \nearrow **probokatzaille**: 1. bazter nahastaile bat da (KA, O). 2. beti bazter guztiak naasten ari da (G), bazterrak nahasi beharrez jin da (ITS), beti bazterrak naasketan dabil (IP), (naastuten) (IN), kasu horri, oro nahasten du (LAR). 3. ori beti istilluetan (ID), orrek beti istilluak baditu (O), bakiñat istillu ibillitakoa da ori (O).

FOOLERA jolasten ari dira \nearrow **joko**.

baina **FORMA guzietara**, oso jatorra zen: dena dela (G, O, U), txar edo on, egin beharra dago (O), alere oso jatorra zen (AM, O), alabe (IP), edozein moduz (AM), erhokeria liteke gisa guzietarat (LAN, KA), gisa orotara (LAR), nola ala, era batera ez bada, bestera (O).

katuak **hartzeko FORMAN** ez utzi: katuen bidetik kendu (AM), ez ezarri katiaren menean (LAN), gauzak katuak harrapatzeko moduan ez utzi (S, G), katuaren eraspidean ez utzi (O), gatuaren menetik kendu hori (KA), ez utzi katuaren bidean (AM), esku-menean du (LAN).

gaur ez nago **FORMAN** \nearrow **umore**: 1. ez niz fleitean egun (LAN, KA), fleitean da (KA), arnoak fleitean ezartzen nu (KA, LAN), frango fleitean da (LAN, KA), gorputzaldi txarra daukat (O). 2. gaur ez nago neure onean (IP, O, S). 3. begi nahasi horietarik ezagun duzu, ez zarela ozkan (ITS). 4. egün ez niz hokian (AL). 5. gaur ez nago oso santuba (O). 6. ez nago oso talanta onean (O). 7. tankera txarrean nago (G, O). 8. ez nago tientun (O), ez nago oso tientu onean (O). 9. trenpean nago (AM, KA), trenpu onean da (KA), trenpü hunean gira (AL, KA, LAN, LAR), trenpu gaitzean niz (KA), bethi trenpü hun da (AL), trenpu gaiztoan (LAR), egün ez niz trenpian (AL).

edari FORMAN eman zion pozoina: edarrikara (ITS).

de todas FORMAS, hori egin behar da: alde edo moldez (O), nola edo ala (S, O, U), zela edo ala \sim zelabait (IP), andikan edo emen-

dikan edo ortikan orrek egin bear du (S), nolazbaitere akitu bear dugu (AM), nonahika (KA), aieka batera edo bestera (G), modu batera edo bestera (G), gisa guzietarat (LAN), zernahi izanik, hori behar da egin (LAR), zelan edo halan in bihar da (IN), edozoin gisaz (KA).

gizon horrek **FRAKASATU** egin du \nearrow **itxaropena** (galdu): erreka jo dü (AL, G), errekalat joan da (AL, LAR), arrunt errekan behar du izan (ITS), errekaratu dira (ITS, KA, S, AM), errekarat ari da (ITS), zuregatik gira denak errekan (ITS), gizon horrek errekaratu gintuen (ITS), horrek etxea errekarat eremanki daut (ITS), lur jo du (O, U, IP, G, AL), lur jota dago (IP, G), zeharo jo omen du (O), porrot egin du (O), pot eginda gelditu da (O), poto egin du (G), pot ein dau (IN), tut egin du (G), kukuak oker jo dio (G), uste ez zuen kukuak jo dio (G, S), uste ez duen erara jo dio kukuak horri (O), uste ez zuen kukua aditu du (S), peto egin du (pot egin du) (KA), auts egin dik (S), negozioetan jota gelditu da (O), indarrak aitu zaizkio eta oke egin du (G).

1. ur **FRANKO** \sim 2. ura **franko** \sim 3. **franko ura** \sim 4. **franko ur**.

1. ur franko (AX 252, AL), ur on franko bada emen (S), askazi frango zuen (LAN), gizon franko (S, AL, G), ogi zahar franko ba dugu emen (S), emazte franko (AL), emakume franko bazen (G, U). 2. ure franko bada (AM, KA), astia franko badu (AM), pertsua frango kantatu du (KA), gizona frango jin dira (ITS, AM, O), emakumea frango zen (ITS, O), badu pentsatzen lana franko (AM), edukitzeko lekhua franko eginen dut (AX 50), oin hatza franko (AX 310), laguna ere franko baitute (AX 310), jenerue frankue euen an \sim ugari (IP). 3. frango gizonek ez dute hori eginen (ITS), frango keinka hitsak jasan ditu horrek (LAN), franko ura bada emen (S). 4. bertze frango hitz erran zuen (ITS).

ba al dakizu **FRANTSES mintzatzen?**: \nearrow **aleman**: frantsesez mintzatzen ba al dakizu? (S, AL, G, AM, KA), frantses solasten ba dakizu? (S), frantsesian badakizu? (S).

polizi **FRANTZIAR** batek \nearrow **-tar**.

horrek edozeini **FRENTE** egingo lioke: 1. aren alde atera zen (G, O). 2. edozeini arpegia emango lioke (O), edozeini arpegia emateko modukoa da ori (G). 3. edozein atzeratuko luke orrek, (O, IP). 4. burua atera oan aren alde (IN, O, IP). 5. etsaiari buru egin dako (KA). 6. gogor eraso zien (O). 7. gogor egin zion etsaiari (AM, S, G, O, IP), zenbait aundimaundiri gogor egin zion (O, IP). 8. edozeini kontra egingo lioke (O, S), (nornahiri) (KA). 9. soldadoei ihardoki zien (ITS). 10. oldartu zaie (KA). 11. borrokan edozeini parre egingo lioke (G).

pintura **FRESKOZKO** usaina da hemen: pintura berriaren usaina (G, S, O), tindu freskoaren usaina da (KA), pinture berriein

useiña (AM), pintūra berriaren ürrin da heben (AL), pintura emon berrien usine (IN), pintau barrixen useñe (IP).

estrella **FUGAZ** bat ikusi dut: izarra aldatzen ikusi dut (O).

«**FUNDADOR**» botila osoa **edan** zuten \nearrow **botila**: botila bat «Fundador» oso osorik edan zuten (O, ID, S), botila bat Fundador osoa edan euen (IP, G), botoila bat Napoleon edan zuten (KA).

makina ez da **FUNDATZIONATZEN** \sim 1. makina matxuratua dago (G). 2. makinak ez du laneko balio; ondatue da (AM, O, ID). 3. makina au ez dabile batere ongi (S, G, IN, O, IP), otoa ez da ebilten (LAR). 4. maxina andeatua da (KA).

nire koinatu **FUTUROA** da hau \nearrow **koinata**.

G

GABE ~ baino lehen / (baino) lehen.

a. nor da bekaturik **GABEKOA**? **b.** nor da bekaturik **gabea**?

a. erru bakoak dire (IN), pekaturik gabea (O, KA), pekatu bako (IP), faltarik gabekorik ez da inor (S), nor da pekatu bako? (IN). **b.** pekaturik gabe ezta nihur ere (LAR), utsik gabea da (O, G), pekaturik gabea (G), kulpikan gabeak dira oiek (S, G), bekatu gabe (AL), inori kalterik egin gabeak ziren (O, G), erru gabeak dira (O), kontzientzi gabea, lotsagabea (G). **d.** zein da emen pekaturik eztena? (O), zein da emen hutsegiterik egiten ez duana? (O). **e.** utsik gabeko ardia (O, S, AL, G).

maitasunik **GABEAK** gelditu dira: maitasunik gabe gelditu dira (O, ID, G, KA), ogirik barik gelditu gara (IP).

GAI / balio.

BEREIZ: A. 1. GEHIAGO. 2. GAIAGO = *más apto* (AX 7,115) / balio. **B. 1. gehiena. 2. gaiena** (= egokiena) (AX 43).

1. txinarrak holandarrak baino gehiago dira. **2.** holandarrak haizerrotak egiten txinarrak baino gaiago dira.

se comió una bolsa de galletas de chocolate: boltsaka(da) bat txokolatedun **GALLETA** jan zuen (O), boltsa txokolatedun galletagaz beteta dago (IN), bolsie txokolatezko galletakin beteta (IP), bolsa bat galleta txokolatezkoa jan zuten (G, S), boata bat xokoleta jan zuen (KA), xokolatezko bixkoxa jan zuen (KA).

-ez **GAIN** ~ gaine(a)n / (-ez) gero / -tekotz / -tekotan: Uskal Herrian girenaz gañen, izan gitan uskaldun (AL, LAR), hori nahi düzüenez gañen (AL, LAR), hor hizanaz

gañen (AL, LAR), deusik egin etzienaz gain... (LAN), hola denaz gainean, ez da xamurtzeko motiborik (ITS), jin zirenaz gañen, elgarrekila joanen gira (AL).

dos enemigos cayeron sobre mi ■ bi etsai nire **GAIN** jausi ziren: bi etsai gañera etorri zitzaizkidan (O), (arerixo) (IP, G, KA).

GAINDI: A. lohi haietan gainti iragan ziren (AL), Zimitz errekan gainti (LAN), errejuma aizutan gainti (AL), mendian gainti (ITS, KA), gainti (LAR), bidexkanda baten gainti dator (AL). **B.** larre horier gandi zabiltsan (LAN), eremu handier gainti (AL). **D.** mendia gainti jua zen (AL), bide phatarrak gainti (AL), ühaitzak elgiak gainti duaz (AL), ardia ixtilartiak gainti dua (AL). **E.** otsoa han gainti zabilan (ITS), heben gainti (AL), han gainti iragaiten zen orga (ITS).

edateko **bizioa** **GAINDITU** du: **A. 1.** pipatetik eküratü da (AL). **2.** erretzetik gelditu da (S), pipatetik gelditu da (ITS), edatetik galditu da (KA). **3.** bizio ori kendu dau (IN). **4.** bizioa menperatu dau (IP), menderatu du (O, ID). **5. a.** edateko bizioa utzi dizi (LAN, S), erretzea utzi du (AM), edatia utzi dü (AL, AM, KA, LAR), pipatzea utzi dü (AL), edana utzi dü (AL, S, AM). **5. b.** erretzeari utzi dio (G, O, U), Jonek takorrixe erretiei itxitso (IP), edateari itzi deutso (IN, IP), utzi dio (O), janari utzi dio (U), edanari utzi dio (G, O, IN). **6.** pattarratik utzita dago (O). **B.** edanari eman dio (O, S, IN).

-ez **GAINEAN** / (-ez) gain.

etsaiak gudarien **GAINEAN** jausi ziren: etsaiak gudarien kontra egin zuten (G),

neure ganera jausi jatan (IN), gudariei eraso zieten (O), etsaiak soldadoen gainerat jauzi egin zuten (KA).

hondartza **GAINEAN** futbolearen ari dira: ondartzan ari dira futbolearen (O, KA), zelaietan dabiz futbolien (IP), zelaietan olgauren futbolearen (IN), ondartzan dabiltza futbolearen (G), ondartzan egin bear debe (O), ondartzan dabiltza futbolearen (O).

el malhechor poniéndose encima de mí ■ gaizkilea nire **GAINEAN ezarritu...**: gaizkilea ni azpian artu eta... (O, IP, G), gaizkileak azpiratu egin nindun (O, IP), azpian ezarritu nintuen (KA).

GAINERA / **erori**, jaitsi, igon (asto, zaldi, arbola).

la ventaja que tenía sobre sus enemigos ■ etsaiaren **GAINETIK** zuen abantaila: kontrarioari bentaja aundia kendu zion (O, IP, S), ain aldean euki oan bentajea (IN), aien aldean zeukan bentaja (G), haien aldean abantail handia banuen nik (KA).

asto **GAINETIK** erori / (nondik) erori.

etsaiari **GAITZESTEN** dio / **etsi**: zakurrak gaitzesten du, jo egin zuelako (AM), etzedukaten bekhatu etsaiaren gaitzestea (AX 213), arraultzari gaitxerezteutso txoriak (IP), denek gaitzetsi dute herio hori (LAN), zakurrak gaitzestu du artzaia (G), gaitzesteintut (AX 1277), zakurrari gaitzitu zaio, jo dudalako (KA).

BEREIZ: I. **a.** orain **GAIXO dago** (O, ID) ~ orain gaixorik dago (EL, IP, IN, IB). **b.** gaixoa da (O, ID, EL, IP, IN, IB). II. **a.** eri da (= gaixorik dago) (ITS, KA), eri handia da (LAR). **b.** eria da (= gaixoa da) (ITS, O, KA). III. **a.** Añorben bizi da (IN, IB, O). **b.** bizi da (= pilota, mutiko... bizi / motela) (IN, G, O, ITS, KA). **d.** bizirik dago (IN, IB, IN, O, G).

GAIXO erori da / **gerturik**: gaixotu egin da (O, IP, ID, EL), gaizkitu egin da (G), eri da (ITS, AL, LAN, KA), eritü düzü (LAR, AL, AM, KA).

GAIXOTI itxura zuen: gaixo itxuria zeukan (O, IP, G, IN), gaizki daon itxura dauka (G), orren arpegixak gaixo itxurie dauko (IP), erien itxure zuen (AM), eri dela irudi du (KA), eri iduri du (KA).

GAIZKI ESAN: 1. elgarri eletzarka ari dira (KA). 2. bestetzaz gaizkiz ari dira (AL), besteentako gaizkiz ari dira (AL, LAR), gaizkiak erraiten ditu bere auzoak (KA), gaizki erraiten du (KA). 3. **a.** elgarri zerna-hi erranka ari dira (KA), harendako zerna-hi erranka ari da (KA, A), erraiten die (LAR). 4. **a.** bata bestiagatik gaizki esaka ibiltzen dira (O), bata besteentzako gaizki esaka ibiltzen dira (G), beti gaizki erraten ari dira (S), elkarri gaizki erranez dailtze (AM), gaizki esaka ari dira (O), (esanka) (IP, G), gaizki esaten ari zaio (O, G), elkarri gaizki esaka ai dira (O), bata bestiatik gaizki esaten dabiz (IP). 4. **b.** hartaz gaizki hitzegiten dute (G, O). 4. **d.** jende oiendako gaizki mintzatzen, mintzo dire (AM), ortaz ez da agitz ongi mintzatzen jendea (O). 4. **e.** haregatik txarto berba eiten da (IP). 5. orrendako ez du jendeak agitz ongi erran nai (S). 6. besteen txarrak esaten dabil (IN). 7. ari dira jenten jorrazten (AL, KA, LAN), gibeletik jorrazten ari da (KA). 8. aren izena beti aotan dabilkie (O, ID), inor ez da horrela ahotan hartu behar (O), beti ahotan hartuta dabilkie Juanito (O, AZ), beti ahotan hartuta daukebe (O), ezereen kulparik gabe ahotan hartuta (O). 9. beti mendratzen ari da (G, S), ez da inor hola mendratu behar (G, S). 10. mazkalak jaten dabil (IN). 11. gibeletik aztalak jaten ari dira (S), bigeletik aztalak jan nahi zition gaizki erranez (S). 12. bizian erdia kendu dit orrek (G, O). 13. nundik edo handik punta aterako diote (O). 14. jendeen aho mihitan da (KA). 15. ez du zikin horrek mingaña autsikika jaten (kritikatzen ari denaz) (S), ori minganjia ibilli dute; orraztu dute elkar (S).

GAIZKI hitzegina da (G, O). A. 1. gaizki mintzetue da (AM), oso ondo hitz egina da (O). 2. ao zikiñekoa da (O, IP), ori da aho txarra (O), ao txarreko personia da (O). 3. mihi zikina du (KA), mingain zikiña (G, S), mihi gaiztoa (LAR, KA), mingain txarra du orrek (S). 4. gaizki esalea da (O). 5. txori gorriek botatzen dauz (IN). B. euskera txarto in (IN, IP) / **menderatu**. euskeraz gaizki itzegiten du (O, G).

GALDEGAIA / **ere**: Maite erori da / Maite erori egin da. Bereizketa hau oso bakan erabiltzen da mugaz bestaldean.

I. **a.** Nor erori da? Maite erori da (S, IN, EL, AL). **b.** Zer gertatu zaio Maite? Erori egin da (O, AZ, IN, EL, IB). II. **a.** Nor erori da? Aitor erori da (O, IB, IN), zein etorri da? zakurra etorri da (O, IB, IN), zer higitu da? Harria higitu da (O, IB, IN). **b.** Zer gertatu zaio Aitorri? Erori egin da (O, IB, IN), zer gertatu zaio zakurrari? Etorri egin da (O, IB, IN), zer gertatu da harriarekin? Higitu egin da (O, IB, IN), zer egin du Aine-sek? Larrañera joan da (O, IB, IN).

GALDERAK zuzentzen zizkion / **zuzendu**: galderak egiten zizkion (S, O, G), galdatu dako (KA), galde in (AM), galdetu egiten zion (O, AM), nik nere galdemoduk egin dizkiot nere airera (S), hauxe galdetu zion (G, S, O), galdetu du hor zirenez (KA).

A. **GALDETU zidaten** (G, O). B. **galdatu ninduen** (ITS, KA), galtegin nundian (AL, LAR), aitak galdatu nintuen lanera joaiteko (KA).

1. joan behar duan **GALDETU** al diozu? (O, G), joango al dan galdetu al diozu? (O). 2. joan behar ote duan galdetu al diozu? (O, G). 3. joan behar duenez galdatu dako (KA, LAN).

ez dugu ezer galtzen **GALDETUZ**: galdeu alere! galdetzeak ez du deus e galtzen (G), galdeuakin ez degu ezer galtzen (O), galdetzeak ez du kalterik egiten (KA), galdetzeak ez du hobenik egiten (LAR).

Euskal Herritik **kanpora** ez zaio **GUSTATZEN** / **laketu**: 1. ez da etxean etxekitzen ahal (AL), ez da etxean atxikitzen al (AR, AM). 2. Euskalerritik kanpora ezin deu burutu (IN). 3. etxean ez du etsitzen (G, O, ID, U), Euskalerritik kanpora ezin du etsi (G, O). 4. ezteu hartzen mendirik hemen (IN), ezin dau artu mendirik (IN), Euskalerritik kanpora ezin emen deu mendirik artu (IN). 5. Euskalerritik kanpora ez du lake-

tzen (AM), Euskal Herritik joanez geroz, ez da laketzen (KA).

ez zaie etxean egotea **GUSTATZEN** ~ ez dira hoiek etxean egoteko ederrak (O), ...egoteko onak (IN, G), etxetik joanik egon da (KA), horrek etxean ezin egona du (KA) / etxe zilo da (KA).

behia bere **GUSTUAGATIK** etorri da / (bere) **kontura**.

zu ez zara haren **GUSTUKUA** / **erori** (gaizki).

gauzak **norberaren** **GUSTURA** ez dira gertatzen: aldika ez dire gauzak gogora (etortzen) (AM), gauzak ez dira nahiera etortzen (O), nahi bezala joaiten (KA).

GUTI da ~ gutxi **dira** / **mugatugabe**. a. guti joaiten duzu orain Ameriketarat (LAN, KA), ez da hanitx juiten (LAR). b. gutxi joaten dira orain Ameriketara (ID, IB, EL).

GUTIELTSI: ama hori nehorik ez luke gutielsi behar (ITS), aitaren errana ez gutielsi! (LAN), ez zuen nehor gutiesten (LAN), nik hori gutiesten dut (KA).

ale **GUTXI** eman ditu zuhaitzak ~ / **kontatu** (batzuk).

apetito **GUTXI** dauka / **gutxi** (jaten).

GUTXI batzuek alde egin zuten / **kontatu** (batzuk): bakarren batzuk (O), bakar batzuk (G), holako bakar zombait (ITS), zombait bakar jin dira (KA).

bero **GUTXI** da: / **asko** / **gehiago**: ez da bero aundirik (O, G, KA), eztao bero aundirik (EL), bero ttikia da (S).

euskaldunok etorkizun **GUTXI** dugu: etorkizun eskaxa (O), txarra (O, G), geroa txarra ukanen dugu (KA).

GUTXI ezagutzen dut Onintze: ez dut ongi ezagutzen (G, O, KA), Bilbo eztoz ondo ezauketan (IP).

ile **GUTXI** dauka / **ile**.

ile zuririk ba al du? Bai toki batzutan; **GUTXI** baina / **ile** (zurituta): nuncan bat badauka (O), banaka batzuk (G), zenbait bakar (KA).

jateko **GUTXI** eman diote ~ jateko urri dao (IN), jateko urri samar eman diote (O), jatera urri samar eman diote (S), jatekoa xur eman diote (AM), jatekoa xuhur da (KA), jana eskax xamar eman omen diote (O).

GUTXI jaten du ~ A. jateko gogo eskaxakin dabil (O), jale mirgilla da (S), jangartsu da (O), ondo jatu mirrina da (O), jale ona da (G), jatu txarra da (IN), jale txarra da (G, AM, S), jale txar porrakatua da (S), jatu eskaxa da (O, IN), jaten milindriña (O), oso jatu mixkiña (O, ID), jatu mirriña da, baina gaur janaldi dauka (O), jatu txarra (IN), jateko limina da (AM), jatu txikia da (O, IN), jatu mañosua (O), jatu mirgilla da (S), limiskia da (AM), mirdingesa (G), milindriña (O), miluts (KA), linbresa da (AM), jatu maskala (O), miligena (G), miliskina (AM), jale miliska (LAN), milunga da (KA), mutur zuri (KA, LAN), ume murgilla (S), apertorik ez du (LAR), apertito txarra dauka (O, KA). B. begi zulotik ere jango luke (O), ezeak eta igarrak jango nituke (ID, G, O), idia bere adarrekin jango luke horrek (O, G), idi bat adarrez aurre jango luke orrek (G), orrek jango luke idia adar ta guzti (O), iranoi (estegorri) ona deuka horrek; agudo iristen ditu emandakoak (G), jale haundia (O), jatu irikia da (O), jatu (EL, O), lepo jan da joan zan (O), jale porrakatua da (S), hori da pertsona saloa (O), jatu saloa (O), zakur saloa (O), tripazai (O), zintzurra aldapa eta sabela zelai ditu orrek (G), orrek dauka zakua! (O), orrek janen luke zakurra bere larraurekin (AM), sudur zulotik ere jango luke horrek (O), gazteak buruan ere esteak (O).

horrek lan **GUTXI** egiten du / **kolperik** / **alfer**.

lauak laurden **GUTXI** / **ordu** (laurden).

lo **GUTXI** eginda nabil / **loaren** (faltan).

GUTXI nekatua nago — **gehiago** nekatua nago — **pixkat** nekatua nago: 1. ez nao oso nekautu (O). 2. nekatuago nago (O). 3. nekatu xamar nao (O, ID), nekaturea nago (S, G). 4. eñherik gütüzü (LAR), agitz nekatua nago (S), leher egina niz (KA).

orain dela **GUTXI** / **orain** (gutxi).

GUTXI pisatzen du ~ ez da kilo asko ande ori (O, G), emakume hori eihartia da (KA), pisu aundirik ez deuko (IN).

aurten sagar **GUTXI** da / **behi**.

sineste **GUTXI** zeukan: sineste ttipia ~ ez

du sineste handirik (KA), sinesmen ttikia du orrek (S), sinesmen ttikiko persona (S).

su **GUTXI** / su **txikia** / **asko**: su gutxi izan dira aurten udan (O, ID), su txikiak ez du bero handirik ematen (O, ID), su ahula dago (G), su ttipia da (KA).

ur **GUTXI** zegoen han ~ ur mea zegoen an (O, S, AM, ID), (= barna ez zela) □ ur ttikia (= barna ez zela) (G, O), ur ttipia (KA), uhaitza txipi düzü (LAR).

por poco me caigo ■ **GUTXIAGATIK** erortzen naiz: ia erori nintzen (S, G, AM, O, ID), jausi eztaian! (EL), erori eztaian! (ID, O), kasik erori zira! (KA), erortzer izan zira! (KA).

por poco pegas el árbol ■ **GUTXIAGATIK** jontzen duzu zuhaitza: ia jo zenuen arbola (O, G), arbola joiter duzu (KA), gutik egin du, ez baitute hil (ITS), hiltzer dute (KA).

por poco se ahoga ■ **GUTXIAGATIK** ez zen ito: ezenean ito! (U), ito ez zenean! (IN, O, G), ito ez zelikan! (S), ito ez delarik! (AM, ITS), itotzer zen (KA), ixa ixa ito zan! (IP), ari aritik libratu zen (O).

por eso no son menos hombres ■ horregatik ez dira **GUTXIAGO gizonak**: horregatik len aña gizon badira (O), len ainbeste (G), len bezelaxe gizon naiz (G), lehen bezalako gizona niz (KA, S).

han venido a menos ■ **GUTXIAGORA** etorri dira: pobretu in dire (IN, O, AM, KA), arrunt lur jo dute (G), betixeago etorrik dira (S), praubeturik dira (AL), behartsün egin dira (AL), behartu niz norbaitetarik (KA) / pobretu niz (KA).

batzuei **GUTXIEGIKO zigorra** iruditu zaie: zigor txikiegia (O, EL, G), biunegia (O, EL), kaztigu ttipia da ~ ez da aski handia (KA), bere umekin beratxegia da (S).

Azkoitia zen herririk **GUTXIEN fortifikatua**: Azkoitia zen gerrarako gaizkien prestatua zegoen erria (O, G), herri hori ez da aski prestatu gerla hortako (KA, S).

ez zen haizerik **GUTIENA** ere: ez dabil axerik errasturik be (IN), ez zebillen aizean izpirik ere (O, G), aizin pizarrik ere ez (S, AM), ez da haize mikorik (KA).

zenbatean salduko duzu? **GUTXIENEZ** 100

pezetan: 1. barrena mila pezetan (O), milla pezetan erosi omen du. Hori barrena (O, EL), zenbati salduko te zenuke? (S, G), aphürrenik ~ gütienik (AL), bost duro barrena balioko du (O), phüru (AL), gutienez / gorenaz 1.000 libera pagatu beharko dituzu (KA). 2. behar da ebili bi egun aphürenik harat heltzeko (AL), ixtoria horrek irainen düzü hiru urte pü (LAR).

GUTXIENEZKO errekesitoak bete behar dira / **minimo**: bear bearrenezko kondizioak bete bear dira (O), behar beharreko kondizioak (G), beharrezko kondizioak (KA), gaur bear bearrezko lanak egin ditugu (S).

no se suprimirán los servicios mínimos ■ **GUTXIENGO** zerbitzuak ez dituzte kenduko / **zerbitzu**.

GUTXIGORABEHERA ~ -tsu / **pixkat**: zure adintsua da (AM, KA), halatsu da (G, LAN), al(a)txukua da berdin (S), bateantsu (KA), bateratsu bukatu dute aizkolariak (O), alkarrekin batetsun bukatu dute (G), soraio eta illupa beretsua da (= axolakabea) (S, AM), berdintsua da (KA), denbora beretsuan (S, KA), zure adin bertsua da (KA), zer egintsu ote du horrek? (KA), oren erditsua bat (LEIZ. Apol 8,1), gure zakurra honen erditsua da (G), beti garaitu batean etortzen da (GR), azienda ori ezta hal(a)tsokoa (S), hamartsu jin ziren (KA), nola duzu osagarria? Heintsu bat (LAN), heintsu batean (KA), holatsu igaro ziren (AM), holatsuko besta (KA), gisatsu hortakuak dira (LAN), erditsua jin ziren (LAN), illautin erditsun etortzen da, gutti goitibehiti (S), agorrila erditsutan jin zen (LAN, KA), bizkar erditsutan dut min (ITS), uztaila erditsutarik harat (LAN), nolatsu da? (LAN), hura bezalatsuko da (LAN), nik badakit nontsu dagoen (G), nortsu ziren? (KA), ordutsu baten ibiltzen dira (O), zer orentsu da? (KA), gauzarik ederrena ordutsuan zen gertatu (ITS), zeintsu dira oiek? (G), zenbatsu etorri dira? (G,S), zertsu egin zuen? (KA), zertsu ordu da? (G, S), zertsu diteke? (ITS).

nire edadekoa da, **GUTXIGORABEHERA** / **adin**: nire adintsua da (AM, S, LAN,

KA), ene adintsu da (AL), ene beradineko da (AL), ene adin bertsia du (KA).

inoiz ez **ihardun GUTXIGORABEHERA**: inoiz ez jardun iritzira, segurura baizik (O), eretxi batetik ez esan gauza, seguru baño (IN), ez itz egin nolana, seguru dakizula (G), ez niz nolana hika ari (KA), alitzi esan diot (O), horrek ez ditu gauzak baezpadan esaten (O), Ez dakigu, iritzira ari gera (O), iduri batera ari gera erraten (S), alamoduz esan du (ID, O), segurean jokatu (AX, O), segurian jokatu (AL, KA), alik eta seguruna egin bear dira gauzak (S, G), segurutik jokatu behar da (ID, G), seguru jokatu (IN).

hamabost etorri ziren, **GUTXIGORABEHERA** ~ / **bat**: amabost bat etorri ziran (IN, G), (jin) (KA), amabosten bat etorri ziran (O), amar bat (S), amarren bat (ID), amartsu etorri dira (KA).

urte bat GUTXIGORABEHERA, gutxigoitibehiti ~ / **bat**: urte beterren bat goitik behera (KA), lau bost bat urte izango dira (O, G), (izain) (AM), andik lau bat urtera (G, AM, O, IN), hantik lau-bost urten bürrian nunbait (AL), urte gabe (AL).

urtean **batera** etortzen dira **GUTXIGORABEHERA**: urtean batetsu etortzen gara (AM, O), alkarren ingurutsu (G), elkarrekin batetsun ibiltzen gara (S).

konfiantza **GUTXIKO** gizona: fidantzia gutitakoa da (AX) (mugatugabea denez gero, *gutikoa* baino hobeki dago), ezagutza gutitakoa (AX).

ni ezkondu eta **denbora GUTXIRA** / **orain** (dela gutxi), ezkondu berri artan (G, O, KA), ezkon berriten (IN), ni esposatu berri hartan (AM), esposatu berritan (S), ezkuntü berrian (AL).

GUTXIREKIN haserretzen da hori / **falta** / faltatu.

handik **GUTXITARA**: hantik denbora llabürren bürrian (AL), andik laster (IN, AM, IP, KA), hantik bertan (AL), andik gutxira (G, O).

por poco te doy una buena ■ **GUTXITIK** on bat ematen dizut / **gutxiagotik**: ia galanta eman nizun (O, ID, EG, G), joiter zitut (KA), ia ederra eman nizun (G), joiter nuzu (KA).

echó de menos a su amigo ■ laguna **GUTXITIK** **bota** zuen / **faltan** (bota).

abiadura GUTXITU ezazu: zoaz polikiago (O, G), mantxoexago (G), orain polikiago (G), polikitu egin zan (O), polikixago zoaz! (G), poliki(ag)otu egin zan (O), joan politoago (IN), mantxoago joan (S), len azkarrago zijoan; polikitu ein da (O), baraxtü da (AL), zu(a)za baratxago (LAR), zoazi emekiago ~ arraposki (KA), kotxeak mar-txa ttikitu du (G).

GUZIA, DENA, OSOA, ORO / **dena**.

nahigabe handiak izan zituzten **GUZI** harrengatik: gauza oiek danegitikan (O), orrik gauze guztiekaitik (IN), gauza guzti aiengatik (O), gauza orreikaitik etzan eto-

rri (IP), horrengatik ~ hori ala kausa preso altxatu zuten (KA), onelako gauzengatik ez dut etortzeko modurikan izandu (S).

medikua bere bolsarekin eta **GUZI** etorri zen: medikua bere boltsa ta guzti etorri zen (G, IN, O), mirikia bere muntaire guziarekin jin zen (KA), medikua bere boltsakin eta denekin etorri da (S).

begi **GUZIAN** jo zuten: begi erdi erdi(a)n (G, KA), begian bete betean (G, O), begi begian jo zuten (S, IN, AM).

dena garbitu gabe zegoen izkina **GUZIE-TAN**: baztar guztiak zikinak zeuden (O, KA), dena zikina izkina guzietan (G, O), izkina guziak garbitu gabe zeuden (G).

H

HABER *hecho... te arrepentirás de haber hecho eso* ■ hori egin izatearen damutuko zara ↗ **pena**.

HABITANTE asko ditu hiri horrek ↗ **pertsona** ↗ **lagun**: zenbat bizilagun ditu erri orrek? (O, G), herriko bizizaliak kontent dira (AL, LAR), zonbat herritar ditu herri hunek? (KA), zenbat kristau ditxu erri orrek? (EL).

azken egunetako **HAIEN** ibilera: haien azken egunetako ibilera (G, AM, O), heien azken zakurra (KA).

gizon **HAIN** ederrak: hain gizon ederrak (O, G, S, IN, KA), oiek gizon ederrak eta il bear (AM).

toki **HAIN** ederrean bizi da eta...: hain toki ederrean bizi da eta (O, KA, EL, G, S, IN), holako toki ederrean bizi da eta triste (S), holako toki ederrean bizi ta kexaz (IN).

autobusa umez eta ez **HAIN** umez betea: umekin eta umek ez diranakin beteta (O, G, S), haurrekin eta haurrak ez direnekin betetzen da (KA).

HAIN moeta askotako arrosa ederrak: ainbeste motatako arrosa ederrak (O), ainbeste larrosa klase (IN), ez dut egundaino ikusi hainbeste lili mota (KA), ainbeste klasetako arrosak (G, S).

amaren aldetik euskaltzale zen; aitaren aldetik ez **HAIN**: aitaren aldetik hainbeste ez (G, S, IN).

HAIN ona zen, denek maite **zutela** ↗ **-la** (hain...).

Xenpelarren herriak merezi du **HAINBAT**: orrenbeste merezi du (IN, O, G), horren bezainbat merexi du (KA), beste orrenbeste merezi du orrek (S).

HAINBAT maitatua zen sinbolismoaren aurka jarri zen: ain maitea dan gizon ori (O, G), horren maitatua den sinbolismoaren... (GR), hain maitatia zen gizon hura hil zen (KA).

zuk **HAINBAT** diru badu orrek (S) ~ ↗ **adina**: zuk aña diru badu (O, ID), zuk beste diru badeukat (IN, IP, EL), zuk ainbeste diru badauka (G), zuk bezainbat sos badu horrek (KA), zuk bezainbeste (LAR).

ba dago zelairik? Ez bat, **HAINBAT** baizik: bat ez eze, asko (IN), bat baño geiago dira (S), bat ez ezikan, bai asko ere! (O), zakur oki dago an (G).

ez zuen **HAINBESTE** hotz sentitu ~ ↗ **asko**: ez zuen otz aundirik sentitu (O), otz andia dago (IN), egun ez dut hoinbeste hotzik senditzen (KA), gaur ez du ainbeste otz sumatzen (O), nabaritzen (G).

sagarrek **HAINBESTE** udareak jan ditu: 1. eztu **sagar bezainbat udari** (AL), sagar bezainbat aran jan dut (AM, S), jan düt pera sagar bezainbeste (AL), sagar bezainbat madari jan dut (KA). 2. orrek ez du sagar **ainbeste** udare jan (G), sagar ainbeste udare jan du (G). 3. sagar **beste** madari (IN), sagarretan beste madari jan dot (IN). 4. sagarrak **añe** txermen ba deuke (O, ID), sagarrrik aña txermen jan du (O). 5. sagar **ainbat** udare jan du (S), poz ainbat naigabe izan dute (U).

ez dute lana **HAINBESTE** maite: ez dute lana orren maite (AM), ez dute lana oin ~ bizi-ki maite (KA), ez dira oso lantzale (O, G), ez dira lan gose (S), langille zurie da (O), ezta bear zalea (IN), beargiña ezta (IN), zurie da (IN).

HAIZEA egiten du ↗ (hegohaize) **pixkat**: **A.** haizea altxatu da (KA), haize fina ari du (KA), uri haizeka ari du (S, KA), aizeka ari du (S), basaka ari du (S), haizea ari da (O), atera du aizea (G, S, AM, O, IN), haize mehetxoago atera du (O), axeak urten dau (IN), ezpainak ebaki nahi ditu aize mii onek (S), haizea hasi da (LAR), atzo bezalakoa haize zakarra, harroa dabil (O, G, EL, AZ, IN, S), gaur aize ostraka samarra (hotz samarra) dabil (O), goizetik haizea epeldu egin du (O), aizea arrotu du (O, S), aize arro dabilla (S, O), aize purrustada ederrak jo ditu (O), haize handia da (LAR, U, O, G, IN), haize tzarra, basa, gaiztoa da (KA), haizia jeiki da (AL), zaldizkoak heldu dire (S, G), azpiko ipar aizea mubitu du (S), aize otza mubitu du berriz (S), aizea aunditu egin du (G), aizea gallendu egin du (handitu) (G), haize miña dago (O), egoaizea duk eta lamada ederra heldu duk (G), heldu duk goikoa. Zein? Galtza zahar (= hego haizea) (G), haize bihurria dabila (S), haizea sendo dabil (AM), haizea sendotu da (AM), haize poxi bat jauzi xi (LAN), haizea zakartu du (S). **B.** haizea eküratu da (LAR), aizea gelditu du (G), orain ez dabil, ez da axerik (IN, G), aizea gelditu du pixkot baina eman ditu kolpe ederrak (S).

HAIZE ezkutu (O), haize babesa (O), gure baserria oso babesa da (O), leku babesean dago (O), hori oso toki haizegordea da (O), haize girizara joan ginen (G), haizepotea / haizemalda (LAN), etxe hori gaitzeko haizeportean da (LAN), haize tokia (O).

1. HAIZE. 2. aire. 3. aide ↗ **estimatu**:

1. Errezilko aizeak on iten dit (G, O, AM, ID), mendi haizeak on egiten daut (KA), hango axeak eztau ondo artzean (IN). **2.** mendi aireak onik egiten dio (ITS, G, O, AM, ID, LAN), ileak airean zabiltzan (LAN), ango aireak ez nau ongi hartzen (G, S). **3. a.** ori aidian dijoa (O), jo ta aidean bota zuen (O, IN, G, AM, ID), beldurak aidean bizi dira (O). **b** Xiberuan bada aide sanua nunnahi (LAR, AL), Maulerat jun zein aide hunaren hartzera osagarriaren azkartzeko.

HALAERE = zinez, benetan, egiatan (O), gi-

zonezko jatorra alaere (O, ID), merezi dute zigortzea, ondo alaere! (O, ID).

HALABER: halaber semia Ameriketarat jun zen (AL), bihotzez halaber bestiak beno suharrago (AL).

ur tantek atariko zolua busti zuten, **HAN hemenka**: an eta emen ur tantakadak (IN), an eta emen ur tantuek daude erorita (O, ID), han hemenka mahasti zenbeit ikus ditazke (ITS), an da emen sagasti ederrak ikusten dira (O), han hemenka euria egin du (KA), guneka egin du euria (LAN), ur tanto bana batak batzuk egin ditu, ondoa busti aña ~ autsak iltzeko laña (O), an ta emen ur tanta batzuk botatzu, errautsa asentatzeko (S).

bekatore **HANDIAGO** dira ~ ↗ **gehiago**: bekatoreago ziradela (LEIZ. Luk 13,2).

behi horren balioa **HANDIETSI** dut (KA).

HANDIK lasterrera ↗ **latererra**.

egungo egunean euskaraz ez jakitea **HANDIKAP** handia da: moztalle aundia da (G, O), eskas handia da hau (KA), ments handia da (LAR).

HANDIDUR minak ezin irauin ↗ **kultur** ↗ **literatur** ↗ **fisik**: aundidura minak (O, G).

HANGOXEKO da: angoxia da (IN, O), antxekoa da (G), toki hartako berekoa (KA).

saltaba con los pies juntos ■ **HANKA** **elkartuekin** jauzi egiten zuen: **1.** ankaberdinean salto (jauzi) egin (O), apo jauzika ari da (KA), saltamotxin dabil (S, O), apo saltoan dabilla (G), saltamotxa einda (AM), oinbardin sailtu in dau (IN). **2.** txingoka dabilla (S), txingon dabilla (G), xingilka (AM), txantxa bakarren dabil (ID, S), txingorgain dabil (EL), txingilka ari da (KA), txingirrinean dabil (O), anka bakarka dabil (AZ), hanka baten dabil (EL), xingilka ibiltzen nuxu (LAN). **3.** apotzarka joan da (KA), lau pataka (KA).

Mirenek **HANKA hotzak** edukitzen ditu ~ Miren ikaragarri ankaotza da (O, G), zangoak hozperak ditu (KA).

HANKA oker ↗ **oker**.

atados de pies y manos ■ **HANKAK** eta **eskuak** lotuta: esku ta ankak lotuta (G), eskuek eta ankak lotuta (AM, O), nola eraman behar duzu arkumea libre edo uzkaldu? (G), estekaturik ereman ~ joan

zuten (KA), ardiari lau ankak elkarrengana lotu muzteko (S), ardia uzkaldu (G, S), hankak eta besoak uzkaldu dizkio (G, S), ardia uzkaldu moztu (G), uzkaldu da otoa (= irauli) (KA), ankak eta beso(a)k lotu zizkiten (G), besoak eta anka ~ eskuak eta oinak lotu zizkioten (O), zangoak eta besoak lotu (AM), ...estekatu (KA).

no tiene ni pies ni cabeza ■ ez ditu ez **HANKAK** ez buru ↗ **sentidurik**.

burutik HANKATARAINO begiratu zion (O) ↗ **oinetatik**.

zakurrak HANKAZ ogia eskatzen zion: besoarekin (G, AM).

a. besoak: aurrekoak (S, O, G, AM), aintzineko patak (KA). **b.** hankak: atzekoak (S, O, G, AM), gibeiko patak (KA).

BEREIZ: 1. HANKAZPIAN (= hanka baten azpian) (O, IN), ankapean (= baten azpian) (G), zangopean (S, KA). **2. hankape-tan** (hanka bien azpian) (O, IN, G), zango-petan (S, KA). **3. hanka tartean** (O, G), ankartean (IN), zangun artakan daukat zakurra (S), zangoen artean tinkatzen dut zakur horren burua (KA).

HANKEKIN aurretik atera zuten: anka aurrera atera dute (= hilik, hila) (O, EL, G).

Mojados de piez a cabeza ■ **HANKETATIK bururaino** bustiak: burutik zangotaraño (S), zangotik bururaino (KA), goitik bekalderaño ure egin naiz (S), burutik anketa-araño bustiak (AM, O, G), gaintik behera dena bustirik (LAR) ↗ **izerdi**.

HARAGI / OKELA ↗ **gorputza** / gorpua: **a.** haragi: bizirik dagoena. Orrek aragi arola dauka (= floja) (EL, IB). **b** okela: jatekoa. Orrek bai okela jan! (IB, EL).

HARAGIA eskatu zuten, arkumearena: arkumea eskatu zuten (O, ID), artxoa eskatu eurien jatetxean (IN), bildoskia eskatu zuten (S), bildotsa eskatu zuten (G, AM), bildoskia galdatu zuten (KA).

bei oiek **ARAGITAKOAK** dira (O) / bei oiek **esnetakoak** dira (O), okeletako txalak (EL), aurreko zuten behoka (G), txal oiek kentzeko dira (ID), aretxe oiek kentzeko dira (G), aurrerako (O, G, ID), aratxe hori haragitako da (KA) / hazkuntzako (KA,

LAN), txal hau hazteko dauk(ag)u (IN), txal horiek aurrerako, bigatarako (O), urruxa au aintziñarako utzi behar dugu (S, AM), ahari hori harakaitako behar dugu (S).

HARAGO: *mira más lejos que aquellos montes* ■ aik mendiek baño arago begira dao (IN), mendi horiek baino urrunago bizi da (KA), etxetik haruntzatxoago auntzak daude (O), etxea baino pixkat haruntzago (O, G), zoaz arago (IN), urrinego (tarte handietarako) (IN).

HAREN aurpegiak kezka hori nabari **zaio** ↗ **notatzen**.

amak ezustean **HARRAPATU** zion semeari: arrapatu zuen semea (O, ID, G), ustekabean atxeman zuten (KA).

HARRIDUR keinuak egiten zituen ↗ **kultur** ↗ **haserredur**: harridura keinuak etiten zituen (GR), harritzeko keinuak egiten zituen (KA), harritua zegoela ematen zuen (G), ...iduri zun (S), ikaratua dagoela esan lei (IN), arritu itxuria zeukan (O).

denen aurrean agertu zuen **bere HARRIPE-NA** ↗ **bere**: danen aurrean arrituta gelditu zan (O, EL, G), denen aintzinean harriturik gelditu zen (KA), arritua (S).

HARRITU: har ez jakitea arritzen naiz (G, S, O, KA), ark ez jakitea ez zait arritzen (O, G), arritzen naiz orrek ori egitea (G, S, O), orrek ori egiteak arritzen nau (O), txoketan jata horrek ori itea (IN), orretxek arritzen nau, orrek ori egitea (O), izigarri da horrek eztezan hori jakin (LAR).

HARTU / UKAN ↗ **atzaman**.

alabatzat HARTU zidan ↗ **emazte**: alabatzat artu nindun (O, EL, G, KA, IN), beren umetako artu dute (S).

horrek denbora **HARTUKO** lidake ~ ↗ (hamar minutu) eraman.

eztarria HARTUA daukat ↗ **itxi** (eztarria). Jesukristo **eredu HARTU** dugu ~ **eredutzat** hartu: Jesukristo ejenplotzat hartu dugu (O, KA).

katarroa HARTU dut ↗ (eztarria) **itxi: 1. burutik beitikoa** bildu dut (AM, S, G), burutik berakue artu dot (IP), burutik berakoa arrapatu det (O, EL, G). **2. marranta** daukat (G), marrantatua dago (G), marranta

bildu dut (= burutik beheitikoa) (KA, AL), marranta niz (enrhumé) (KA), arrunt marranta naiz (= eztarria gaizki) (S). **3. erkastu** niz (= eztula duzula edo eztarria gaizki: enroué) (KA). **4. eztula** dut (S), eztula daukat (EG), eztul tzarra dut (S). **5. katarroa** bildu dut (S), katarroa arrapatu dut (G, O, IB). **6. eztarri lastua** daukat (G).

lan hau **HARTZEN** al **duzu?**: hartuko al zenuke lan hori? (O), lan au inen al zenuke? (G, AM), lan hori egiten ahal zinueka? (KA), bear au ingo zeunke? (IN), egingo al zenuke lan au? (O), lan handia hartu duzu (S), ...egiten ahalko duzu? (KA).

solapetatik **HARTU** zion / **solapa**.

mugaz **HARANTZ** ezagutu nuen Maite / **mugaz**.

HASERRE (ADIBIDEAK): / **letxekoa** /

falta: bere burutik armoni(a)n joan da (G), hori armoni(a)n joan duk (G), bekozkoa zimurtu dik (O), betozkotu (O), etxeokekin bihurtu egin da (O), berehala hartzen ditu goiak (O), ... gainak (O), hoiiek erkeraka omen daude (O), laster jotzen ditu horrek goiak (O), gauza hutsa behar dute haserretzeko (O), utsegiten errega da ori (O), igui antzean dago ~ dabil (ID), bereala artzen dute iguia (ID), kako antzean dabilz (O), kako samar ibilli behar debe (O), kandela pizteko moduan dago (O), kasketan gelditu da (G), zein kokina den haur hori (AM), kopeta haserrea zeukan (O), kopeta beztuta zeukan (ID), zeinen kopetilluna paratu duen (G), kopetillun dabil (G), alkarri moka ari dira (O), batek moko ta besteak moko (O), mutur beltzakin dabilla; argituko zio (G), muturtu egin da (O), muzindua dago (G, O), txirrindatua dago (O), alkarri zipoka ari dira (O), laster frinkatzen da (AM), mutur zagon (KA, S), musturrekak dao (IN), mutur beltza zeukan (G, O), mutur illuna zeukan (G, S), mutur beltzakin zegoen (O, S), mutur saltsa egiten du ~ koskan da (KA), kexu da (KA), kexatu da (KA), kako antzean dabilza (O).

HASERREDUR keinuak egiten zituen / **harridur** / **kultur** / **literatur**: haserredura keinuak (GR), aserre itxurak egiten zituen (O), haserre itxura egiten zuen (G, S).

HASERRETU da ~ haserretu zaio: **a.** Itsasne haserretu da (ITS, G, O), Jainkoa haserretuko da (AX 51). **b.** Ez al **jaquee** aserratuko (Peru Abarka), Echaco aserratuko (Peru Abarka), ama etxaku asarratuko (IP, IN, ID, EL).

HASI + mediatibo = eman + datibo = ekin + datibo (beti ez): **1. nigarrez** hasi zen (ITS, KA, S), lasterkan asi zen (O), kantatzen asi zen (G). **2. nigarrari** eman zion (AM, S), lasterkari eman zion (O), kantatzeari eman zion (AM). **3. lasterkari** ekin zion (O), kantatzeari ekin zion (O).

HASI: **1.** hasi gaitzen **Mirenendik** (O), Mirenengandik (IN). **2.** hasi gaitzen **Mirenetik** (G), Maitetarik has giten (KA), Mirenerik has gitian (AL). **3.** asi gaitzen **Mirenekin** (AM, G, S).

lana prestatzen **HASI zuten**: lana prestatzen hasi ziren (KA, S), etze iten asi dira (IN).

euria egitera **HASTERA** doa / **euria**.

garai hartakoak dira bien arteko harremanen **HAS(D)ERAK**: garai artan ~ orduan asi ziran artuemanetan (O, EL), garai artan (G), denbora artako gauzak dira oiek (S), orduan adiskidetu ziren (KA).

HAS(D)ERA batetan ongi zihoan / **laster** (batetan): asieran ongi zihoan (G, O), asieran (ID), hastean ~ hastapenean (KA).

oinetakoez **HASERAN** min ematen zidaten ~ aurreneko jantzialdian min eman zidaten (O, G), lehen jantzialdian pintza egin zakon zapatak (KA), lenbiziko jauntzialditik eman zidaten miña (S).

gertakizun hau **ulertzer** **HASTEKO**, hauxe egin behar dugu: ulertzen asteko (IB, O), hasi zen enseiatzen (AX 58), hasi da entseiatzen (KA).

HASPEREN bat **bota** zuen / (hasperen) **bota**.

HATZAMAR / BEHATZ: **a.** goikoak atzamarrak dira (IN, EL). **b.** bekoak beatzak dira (IN, EL), beatzak eta zangoko beatzak (AM), eskuko erhiak / zangoko erhiak (KA, LAR), eskuko beatzak, ankako beatzak (O), eskuko beatza / zangoko behatzak (G, S).

HAUEZ azaltzen dira aldakuntzak: honela azaltzen dira (O, G), hola (KA).

Bereiz: **a.** nire **aurrean** (= aintzinean) (IN, IB, MO, AZ). **b.** ene **HAURREAN** (= ene haurtzaroen) (LAN, ITS, KA), haur haurretik (AL, LAN, ITS).

sagar **HAUTUAK** ~ sagar hautak: sagar autak (S), sagar arradoak dira (= onak baino hobeak) (KA), haitiak (AL), autazazu oberenetik (AM), obenak berexik daude (G), oberenak berexiak (AM), sagar onaurki(a)k apartatu (O).

estoy hecho polvo / **HAUTS** egin nago / **lehortuta**.

HAUTS kilo bat irentsi zuen / **kilo**.

tenemos que romper con el dogmatismo / **dogmatismoz** **HAUTSI** behar dugu: / **-kiko** (harremanak).

BEREIZ: **1.** **makila** **HAUTSI** zuen (O, KA), adiskidantza hautsi dut (KA). **2. makilaz** bizkarra hautsi zion (GR), makilarekin bizkarra hautsi zakon (KA), **3.** adiskide **batekin** **hausten** duzunean (AX 181, KA), Nik hautsi dut munduarekin, egin dut harerikoaz (AX 55).

txal hau **HASTEKO** daukagu (IN) / **haragitakoak**.

txoria berehala **HEGALDATU zuten**: hegaldatu zen (KA), hegaltatü (LAR), txoria egin asi da (IP, O), (= egaz) (IN), txoria egaka asi da (ID, S).

hori hartu zuen **bere** **HELBURU** / **bere**.

ongi **HELDU** zara? (= *vas bien?*) (G, S, AM, ITS) ~ untsa zirea? (KA), heldu den urtean (= datorren urtean) (AM, G, S, ITS, KA), eldu da beirik goiti (= badator) (G, S), eldu da azpitik goiti (AM), eldu da gainbera (AM), hor düzü (AL), heltü bada, bortiala banoazü (behar bada) (AL).

HELDUTASUN falta somatzen dut zuregan: umetasunean zaude oraindik ere (O), urtez aurreratua badago ere, buruz oraindik oso ume dago (O), umetasun aundi daukazu (O), oraindik ume xamarra zera (O), oraino haurra da (KA), neska eldu xamarra da (= ein xamarra) (O), urteak bai, baña umeak baño eskaxago (G), zarrago eta eroago (G), neska ori egitekoa dago oraindikan (S).

HEMEN ondoren datozen azalpenak: onen ondun (AM, S), onen ondoren eldu dianak

(G, O), horren ondotik heldu direnak (KA), onen ostean (IN).

anda de aquí para allá / **HEMENDIK haruntzako** dabil: ori beti arat onat dabile (S), harat honat ari da (KA), arata ta onata dabile (S), kuartoan arat eta onat daille (AM), ara ta ona (IN), ara ta onara (G), aruntz eta onuntz ibilli ziren (G, O).

zu **HEMENDIK?**: onontzaldia? / **nola** (hemendik)?.

HERIO / HERIOTZE / **bizi** / **bititze**: **A. herio**: bizia kentzea. Bizkaieraz, herioaren orde *balbea* erabiltzen zuten. **B. heriotze**: herioaren inguruko gertakizunak barna direla.

A. herioa dasta lezantzat (LEIZ. He 2,9), herioaren iurgoa zuna (LEIZ. Heb 2, 14), herioa heriotara eman (LEIZ.), heriotara eman (LEIZ. Apok 2,13), heriotara eman behar zela (LEIZ. Mat 15,21), heriotara libratzeko (LEIZ. Ap Ak 15,16), herioak harapatu du (ITS), herioak eramandu (LAR), herioak bazkatukoitu, herioa izanen da heken bazka, eta bai hek ere herioaren (AX 381), esku dorpea du herioak (ITS, LAR), herioari bu(ru)z da (hiltzorian) (LAR), herio merezi dute (LEIZ. Rom 1,32), hark herio iraganik (LEIZ. Regeri Defen), guk badakigu ezen iragan garelara heriotik bizitzera, ezen on dariztegu anaiei: anaieari on ezaritzana, herioan dago (LEIZ. Ioan Epis 3,14), herioa hurbiltzen zaizunean (AX), arek zeukan erioa! (= larri handia; animalientzat ere erabiltzen) (O), beiak bere erioan saltau egin zuen (= estuasunean) (O), azken aphaudia herioaren gañen egin dü (AL), heriari soginez phentsamentükan zagon (AL), gazte anhitz herioaz joak bezala dira (LAN, KA) eriosur joan zen (G), herioak bere lana egin du (LAN, LAR), herioak zeruko bidea hartu zuen (ITS). **B. heriotzeko** ordua (IN, G, AM, O), eriotze oso ona izan du (IN, O), heriotze ona ukan du (KA).

*aingeru hark **heriotzearen itxura** zeukan: herioaren itxura zeukan (ITS), herioa gauza hitsa da (KA).

***eriotzea ezeztuaz**, piztu bizia: herioa ezeztatu (GR).

HERIOTZE orduan otoitz egin zuen ↗ (hiltzeko) puntuan.

torturaz HERIOTZERARTE eramán zuten: ia iltzerano torturatu zuten (O), hiltzeraino sufriarazi zuten (KA), oñazez ia il egin zuten (O), paliza ederra artuta il zen (G).

HERRI.

ARAUA: **deritzan kenduz gero, ez erantsi** -ko aurreko izenari ↗ **plaza**.

***Sarako** (deritzan) **herrian** izan naiz: Sara (deritzan) herrian izan naiz (O), Saran izan naiz (O), «Armak etxian itxi nituzan, Motriku erri onian, Motriku erri onian eta, Ana Joanaren etxian».

Erroman gertatu zen (O, G), Kartago hiri hartaz (AX 18), Sparta hiriko batek (LEIZ), Ierusalemeko hirian (gaizki = Ierusalem dagoen hiria) (LEIZ. Luk 24,49).

*Ongi berezi: **1. Sara** herrian gauza onik bada (= Sara deritzan herrian) ~ Saran gauza... **2. Sarako** plazan neskata eder bat ikusi nuen (= Saran dagoen plazan) ↗ **plaza**. **3. Sararen** nortasuna handia da (= Sarak duen nortasuna).

HERRIKOI = herrizale.

*horrek euskara **herrikoa** erabiltzen du: horrek herriko euskara erabiltzen du (O), orrek erriko euskara egiten du (G), (emaiten) (KA).

*bertso **HERRIKOIAK** gustatzen zaizkit: herriko bertsoak (O, G, KA).

HEZUR hutsetan gelditu da ~ ezur huts bihurtu da (O), hezur eta larru gelditu da (KA), ezur utsa gelditu da (AM, S), ezur utsa in da (G), azur utsean gelditu de (IN).

HIKA: TOKA, NOKA. ADITZ JOKO ETIKOA

A. Bigarren pertsonari dagozkion aditz-joko guziak noka edo toka joko litezke.

Adib. Etorri al **haiz?** Hik egiten **du(k)an** lana ongi egina beti. Sagarra emango **dinat**, nebari eman **diezaionan**. **Hoa** etxera.

B. ADITZ JOKO ETIKOA. Lehenengo eta hirugarren pertsonekin joko etikoa erabil daiteke.

***BAI: Indikatiboan eta ahalezko moduan (potentzialean) baina perpausa nagusietan bakarrik.**

Adib. Ama ona **duk**. Katua lapur galanta **huen**. Hori hire nebarentzat kaltegarri **litekek**.

*EZ: *Subjuntiboan, aginkeran eta galdere-tan.*

Adib. *para que haga tu madre:* hire lagunak egin **dezakan:** egin dezan □ hire amak egin **dezaala** (gaizki): hire amak egin deza □ hire neba etorri al **dun?:** etorri al da?

*EZ: *Menpeko perpausetan.*

Adibidez: erlatibo-zko perpausetan □ etorri **du(k)an** hire arreba oso zintzoa duk: etorri den.

Baldintzako perpausetan: hire ama etorri **baduk**, emazkiok eskerrak niketz: etorri bada.

Zergatizkoetan: pozik niagok, hire ama etorri **bait duk:** bait da.

Beste adibideak. hire beharra dutela ikusten diat □ Jainkoa ezagut dezaten otoitz egiten diat □ Hire neba etorri denentz galdetu diat □ Hire nebarekin ezkondu nintzelako, oso pozik niagon □ Hire neba etorri den arren, pozik niagon.

*OHAR: **Ezen ondoko perpausetan joko etikoa joka daiteke.**

Leizarraga:

Eta bertzalde nahi dituan, othoi, eure Eliza guziak enparatu eta begiratu otso harraparien ahotik, bai eta mertzenario eta alokazer orenen menetik, ezen hek bere ohorearen edo probetxuaren ondoan diabtizak.

***BESTE ADIBIDEAK:** eure burua pur begirezak (LEIZ. Tim I 5,22), Hire ikusteko desir dudalarik (LEIZ. Tim 2,4), Magistruak zioz, Non da neure dizipuluekin Bazkoa ianen dudan ostatua? (LEIZ. Mark 14,14), makila bat hartzen badut, xehakatzten hait (KA), ezen ikusi die (hika) (LEIZ), maite hait, zeren hun hizan (AL), amak semea maite dik, zere hun beita (AL, KA), ...zere hun den (AL, KA), ...zere hun duk (AL, KA).

HILABETE.

***ilebete pasau** dau (IN) ↗ **aste**, ordu, urte: ilebetean egon da gaixo (O, IN), illebete egin du gaixo (ID), hilabete igan düt mendian (AL), udan denbora polita egin du hiru hilabetez (LAN, KA), zenbait hilabete

hontan eri zen (ITS, KA), laur hilabetez ere izan da (AL, KA).

***ilebete** bat **egon** zen eri (AM), illebete bat egin zuen gaixo (O, ID), illebete bat irao du (G), ilaute bat pasatu dut (S, KA), hilabete batetarako joan zen mendialat (AL), hiru hilabete iragan ditu ospitalean (LAN).

***illebete inguru** (O, IN), hilabete goiti behe-ra hemen izanen da (KA), ilebete ingurureko etorri nez (IN), illebete inguruko etorri da (G, O), han uzten da alderdin bi hilabete idortzen (LAN), illebete bat inguru (O, ID).

***illebeterako** dator (IN, ID, O), ilaute bato-ko etor da (S), zombat denborarentzat? Hilabete batentzat joan da Angleterrarat (ITS, KA), lau hilabetetarait helturik da (AL), illebete batendako (AM), illebete baterako (G), lau astendako (KA).

***iru ilauteko** etorri da (S), iru illebetendako (AM), iru illebeterako (O, IN), iru illabete-ko (G, ID), hiru hilabeterako (AL, O), hiru hilabetendako ~ hilabetentzat (KA), iru illebetendako pixkat goiti beiti (AM), iru bat illabeteko (G), iru bat illebeterako (O, ID), iru bet ilebeterako (IN).

***illebete bakarrik** pasau det (O), ilaute bat bakarria igaro dut (S), hilabete bat bera igan düt (AL), ile bat bakarrik pasaut (IN), illebete bat bakarrik irao dut (G, KA), ilebete bat bakarria (AM), etze orretan lau ilabetean bakarrik bizi izan zen (IN, O, AM).

***ilian baten** etortzen da (IN), biten, iruten etortzen da (IN), illian bein, bitan, irutan (G, O, ID), illebetean bein (AM), hilabetean behin heldu da (KA), hilabeteko lehen igande guziez bezala (ITS).

***bortz-hilabete huntan** (ITS), bi hilabete huntan (LAN), hainbeste illebetean egonda, ez du ezer ekarri (IP, IN, ID), joan deneko iru ilabete ontan (O, G), gan deneko iru illebete untan (AM), iru ilebete okaz gaixorik egon naz (IN), zazpi ilabete ontan eri dago (S, O, KA), hilabete hunen lehenan (ITS).

ezkontzatik **HILABETE** bat **igaro** zen hil zenean: ezkondu eta ilabete geroago il zen (IN, ID), ezkondu eta illabete batera il zen

(G, AM), ...ilaute baten burun il zen (S, KA), ...illebetea il zan (O, ID).

datorren **HILABETEAN** izango dira **EGA** azterketak ~ datorren hilean izango dira... (IP, IN, O, ID, G), datorren illebete osoan euria izango omen da (O, G), heldu den hilabetean (KA), el du den illautin izanen dira examinak (S), dagün hilabetean (LAR).

BEREIZ: a. gaur **HILAK zenbat** ditu?: Hogeita bi. **b.** gaur **ze egun** da?: osteguna.

a. 1. gaur illak zenbat ditu? Ogei ta bi (G, O, ID), gaur zenbat ditu illautik? (S), Illautik amabortz du gaur (S), illek zenbat egun dekoz (IN), gaur zenbat egun ditu illak? Bost (IP), gaur illebetek ogetalau du (AM), gaur illak 24 ditu (G). **2.** zenbatean gera illebete untan? (AM), zenbatean gaioz? (IN). **3.** egün zombata da? Apirilaren hamarra (LAN, ITS, KA), gaur zenbatgarrena da? (IN), Ze egun da ilebetea? Ogetaseia (AM), gaur zeinbekarrenean gaioz? (IN). **b. gaur ze egun da?** Astelehena (O, ID, G, AM, S), egun zoin egun da? Ibiakoitza (LAN, AL), ze egün da egün? Asteazkena (AL), ze egun da gaur? Barikoa (IN), ze egunetan gaioz? Ogeta lauan (IN, O), gaur ze egunetan goazi? (S), illautin ogeta laba (S).

HIL: batez ere pertsonentzat erabiltzen da. **1. euskara hiltzen** ari da: euskara galtzen ari da (AL, G, O, ID, S, AM), euskara galduz doa (LAN), Arruazun euskara galdu eran dago (O), euskara galduaz doie (IP), lehen-go ohidurak galtzerat doaz (LAN), euskera galtzean doa (IN), gaitzi zizeiken üskara gal zedin (AL), erreka hurbil da gure eskuara (ITS). **2.** etsaia hil dute (KA, S), suia (= sua), argia hil dut (KA), hil ezazu argia (KA), ur otz ilda ekarri (ID), otzilla ekarri (AZ).

***zakurrak** arkumea hil zuen: ito zuen (O, KA), kalitu dut sugea (LAN), bildotsa ito zuen (S, G, AM, IP), orain azkendu dira euliak (O), zakurrak bildotsa porrukatu du (AM), azienda zoldazu hori kasatu egingo diat (S), euliak azkena ematera leihora joate dira (O).

***basurdea** hil dute ~ basurdea bota dute

(G, S, IN, AM, O), erbia, txoria bota (O), tiroan hil dugu (KA), zakurra erraustu zuen basurdeak (S).

*zakurrak **katua hil** du: ito du (O, G), porrokatu du (AM), zakurrak katua ondatu du (= ito gabe) (G), eho dü (AL), sugea kalitu dugu (KA), zakurrak ardi galtzen ari dira (G), ...ardi botzen (G).

bazekien **HILTZEN** ari zela ↗ (hiltzeko) **puntuana**.

HILDAKO milioi bat pertsonen odola: milloi bat pertsona hildakoen odola (O, G), milium bat jende hilen odolak ez du hori garbituko (KA).

gure aurrean **neska HILDO** bat zegoen: ↗ **kola**.

Txernenkoren **HILKETETAN** jende mordero bildu zen: Txernenkoren hiletatan... jende asko izan da (O), horren ehorzketan jende anitz bazen (KA).

ez eman holako trataturik **HIRE** buruari ↗ **erreflexiboa**.

Erromako **HIRIAN** gertatu zen ↗ **herria**.

HIRUGARRENEZ alargun gelditu zen: iru aldiz alargundu da (G, AM, S, O, KA), irugarren aldiz alargundu zen (G), irugarren aldian alargundu zan (O), hirugarren aldi-kotz alargundu da (KA).

beti **HISTORIA berarekin**: bete musika berarekin; beti berea goiti (S), beti musika berakin (G, O, S), beti hizpide berarekin, ongi nazkauta nago orain (G), beti musika bera du (KA), beti kanta bardina (IN), ...kanta bardinagaz (IN), beti ereta batean (S), beti ereta hartan dago (S), beti gauza batekin (O), tekela alakoa! (AM), beti gauza bera aitzen aspertuta nago (G), betiko leloa orrek (O).

aurretik **HITZ** egina dute ↗ **konplot**.

non **HITZ** egin dezakegu ~ non alkartuko gera itz egiteko? (G, AM), nun itz egingo ote degu? (O), nun elgarretaratuko gira mintzatzeko? (KA).

Bereiz: **a**. hizlari horrek oso ongi **HITZ** egiten du (G, O) (= hitz egiteko erraztasunik badiuela). **b**. gizon hori ongi **hitz** egina da (G, O) (= biraorik eta, ez duela esaten): Pello ongi mintzatua da (AM) ↗ **gaizki** (hitze-gina).

Aitorretaz **HITZ** egiten ari gara ↗ **-taz** (hitz egin).

BEREIZ: **1. HITZ eman** zion harat joanen zela (agindu) (KA) ↗ **geratu**. **2. harat joan** ziren, **hitz hartuak** ziren bezala (itundu) (KA).

HITZ gutxitako jendea da: jende murrizta da (AM), jende uzkurra da (KA), jende ahalgea da (KA), itz justuko jendea (O), jende lotu(a)k dira (G), ze jende kokiña den (S).

Pello tomó la palabra ■ Pellok **HITZA hartu** zuen: Pello itz egiten hasi zen (O, G, AM), (mintzaten) (KA).

HITZEN bat esan omen zuen: itzen bat egin omen zuen (= hil aurretik edo) (O), itz bat edo beste esan omen zuen (G, O, KA), itz erdi bat esanda jon da (G, AM).

pentsakizun hau ez zuen **HITZETARA eramana**: pentsatzen zuena etzuen adierazi (O, G, KA), ...itzekin adierazi (O), bere hizketa gai hortara eraman zuen (O).

HIZKETATU ginen, ortatik hizketatu ginen (= elkarrekin hitz egin genuen, nork bere eritziak azalduz) (O, G), alkarrekin hizketatu ziren zerbait egiteko (G), eztakit tratua egin ote dute, baina hizketatu dira (O). zein **HIZKUNTZATAN** ari da hori? (Perpau-sa zuzena: zein hizkuntzaz ari da?): **1.** Bizkai euskeraz ai da (O), bizkaitar egiten du orrek euskeraz (IP), ze lenguaiaz mintzo da? (KA), nongo lengoajaz mintzo da? (KA), baxenabartar euskeraz ari da (KA), ze izkuntzaz itz egin duen eztakit (G), egin balitz... erdaraz eta hizkuntzaz (AX 10), zoin mintzajez (AL). **2.** nongo mintzaiara ote du ori orrek? (S), ze lengoaje mintzo den ez dut konprenitzen (AM), ze izkuntza da ori? (O), horrek ze mintzaje du? (LAR), nongo euskaria iten du orrek? (IN, G, O, AM, IP, ID), ze euskaria iten du? (IN), Bizkaiko euskerea egiten dau (IN). **3.** ze izkuntzatan itz egiten du orrek? (O), zein hizkuntzatan ari da hori? (O), zoin mintzajetan (AL).

HIZKUNTZA arrotzean mintzo ziren: arrotzez mintzatu (Orixe U.G.M.B. 553), lengoage arrotzez mintzo (LEIZ. Ap Ak II, KA), euskeraz egiten du (G), bere lengoage propriz hek mintzaten (LEIZ. Ap Ak 2,6),

ori ezta emengo izketamodua (S), orren mintzaidoa oso polita da (AM), Asiako izketia eiten zun (O).

poemaren **HIZTEGIA oparoa** da: poema oso aberatsa da itzetan (O, G, KA), poema orrek itz aberastasun aundia du (GR).

HOBE: **1.1.** nahiago dut erdaldun baino euskalduna **izan** (KA), nahiago zuen... erori (AX 96). **1.2.** naiago det erdalduna baino euskalduna **izatea** (O). **2.1.** obe dezu orain **jan** gero baino (O), obe duzu zeorrek jan (G), hobe dozu zauk jan txakurrak barik (IN). **2.2.** obe dezu **jatea** edatea baino (O, EL), hobe duzu jatea, bestenaz ahulduko zira (KA, S), hobe duzu zeuk jatea (EL, G, KA), (ziaunek) (S, IN), txakurrak baino hobeto dozu zauk jatea (IN), obe duzu ziaunek jatea bertzek jatea bino (S), orri utzi ta obe dezu orain jatea (O), oben obena leen bezala utzitzea (S), onena leanean uztea (O), hobereana leheneko heinean uztea (KA). **3.1.** eskuen deuko **in** nahi in ez (IN), bere eskuan dauka hori egin edo ez egin (O). **4.1.** hobe da **jan** edan baino (S), bat egin edo bestea egin gauza bera da (G), bata ala bestea egin berdin da (KA), alde batera edo bertzera egin igual da (S), bat nai bestea egin bardin dautso (IN), bata egin edo bestea egin berdin da (O), bata in nai bestea in bardin da (IN), berdin dio (O, S), bata egin edo bestea egin berdin da (O), alde batera egin edo bertzera egin igual zait (S). **4.2.** hori **egitea** gauza ona da (EL, G, O, KA, S, IN), hobe da ixil egoitea eziez gaizki mintzateza (Oihen.), hobe da jatea (EL, G, O, KA, S, IN), badiruzi hobereana lizatekeiela behin erakustea (AX 178), hobe da batekin zoazin parabisura (AX 167), Hobe baita halakoei alde egitea (AX 216), Bada etzatekeien hobe... zeure eskuz egitea? (AX 157), hobe bailizateke, ez entzutea (AX 268), hobe da zeorrek jatea (G), hobe da zeuk jatea horrek baino (O, KA, S), hobe da horrek jatea (EL, G, O, KA, S, IN), onena nork bere buruari galdetzea (G). **5.** bata ala bestea igual da **egiteko** (G). **6. erraitea** ongi egiten dugu (AX 42). **7.** hobe zen haurrak hil **ziten** (LAN).

HOBE / HOBETO, hobeki, hobekiago: **a. hobe**: «nolakoa da?», «zer egin» *galderei erantzuten die*: Onintze Gertrudiz baino hobe da (O, G), Obe degu mendira joatea (O, G), hobe duzu gelditzea (LAN, KA), hobe dut alde-eginik (ITS), hobe dizügü heben egonik (AL, LAR), ez othe litake hobe horren egitea (ITS), hobe zukeen ez sorturik (ITS). **b. hobeto, hobeki...**: «nola?» *galderari erantzuten dio*: egun atzo baino hobeki naiz (ITS).

*aurpegia **hobe** ikus niezaion: obeto (O), obeki (AM, KA).

*«DEIA» berria; informazio **hobe**: «DEIA» berriak informazio hobe dakar (ID, G, O), Oraingo «DEIA»n informazioa hobeki azaltzen da (G, O, ID).

***hobe** pentsatu dut eta ez noa: obeto pentsatu dut eta ez noa (O, EG, EL, IN), dudatu zaut eta ez naiz joanen (KA), obekiago pentsatu dut eta ez noaie batzez (S), gauzea hobeto pentsau ot eta ez noa (IN), untsa karkulatu dut eta ez niz joan (KA, S), gauzak ontsa pizatu ondoan (KA), gauzak pentsatu ditut eta... (S), ongi pentsatu dut eta ez noa (G), ongi pentsatu ta gero (S, G, AM), obeto pentsau ta gero (IN), obeto pentsautu ori egingo det (O, IP), bere baitan egin zuen hobe zuela Pariserat joanik (KA).

*ondo afaldu eta **hobe** edan ondoren...: eta obeto afaldu ondoren (O, EG), hobeki (KA, S), bazkaria baino afari obea egin ta alde egin zuen (G), ...anka jo zun (G), bez-titzen zela ongi eta oturuntzaten obeki (AX) untsa bazkaldu eta hobeki afaldu ondoan (KA).

*nola dago eztul hori? **Hobe**: hobeto (O), obeki (S, KA), ezin obekiago bizi da (G), ezin obeto bizi gera (O, IN).

***hobe** al zaude?: obeto al zaude? (O, EL, IN), okiago al zaude? (G), obekiago zira? (KA), ola okiago zaude (G).

HOBE, kendu zelako ohitura hori ~ ↗ **esker**: obe, kendu zan oitura ori (O, ID, G), obeto kendu zalako (IN), beharrik galdu da usaia tzar hori (KA, S).

HOBETU ↗ **mejoratu**.

HOGETAKA: adibideak ↗ **milaka** ↗ **urte** ↗

piko: zenbat ardi deukozuz? Ogetakak (IN), ogetaka ardiek, beiek deukoz (IN), ogetaka txalupak etorri dira (O, IN), ogetaka urteak igaro zituen Ameriketara (O, IN), berrogetaka urte deukoz (IN), berrogetaka urtetan dago (O), berrogoiez goiti (KA).

HOMBRE, hombre! ■ to, to! (AM, AR, AL, LAN, KA), bai to (G), bai zera' (G), ia, ia! (IB, EL), ara, ara! (O, EL), b(eg)ira, bira! (G, EL), behatzak horri: (AM), Ikusi! (O, EL), arrapazak! (ID, O).

asi son las cosas ■ **HORRELA** dira gauzak! orixe da ba! (O, ID), ez dago ba(da)! (G, O), hola da ba! (KA), ori duk pa kontua! (S).

Jainkoak egin zuen **HORRELAKOA izatea:** ori Jaungoikoak orrelakoa egin zuen (O), olakoa egin zuen (G, AM, KA).

erleak HORTZAKA egin zion: erleak eldu dio (O), erlemandoak atsiki al du? (AM), zakurrak aginka egin zion (EL), zakurrak ortzaka egin dio (O), oilloak mokoka egin zion (O), sugeak eldu zion (O), katuak atzaparka egin zion (O, EL, G), aztaparra egin dio (KA), sugeak atsikituko zaitu (AM), Juanitori zakurra itsatsi zaio (G), erreginak sagarra ausiki zuen (LAN), hiru aldiz zakurrak elduta dago (O), sugeak, erleak, zakurrak ausiki du (KA), moko ukaldika ari da oiloa (KA), txakurre ausike dao (IN) (= zaunka) / txakurrek usike iten dau (IN).

HOTSA = **diote, zioten...** minbizi otsa zeukan orrek (O), orain dago egin hotsa (O), ondo otsa dauka fabrika orrek (O), garesti hotsa badabil (O), ondo dabillen otsa dauka (ID), orain dago egin otsa (O), usina hori untsa joan dela diote (KA), ezkondu hotsak dira (O), andregai utzi zuen otsak izan ziren (O), fabrika horrek larri hotsa dauka (O), Mojetatik erten al du? Erten otsak dabiltza (O), laga hotsean daude (O).

HOTZ egiten du orain kanpoan ~ / **eguraldi:** otz dago kanpoan (O, KA, LAR), otz da karrikan (AM).

zenbat HOTZ pasatu duzun! otz galanta pasatu degu (O), otz ederra (G), otz andie (IN), hotz handiak ukan ditugu (KA).

gaur HOTZ pixkat gehiago egiten du / **gehiago:** gaur pixkat otzago egiten du ~ dago (O, G), egun poxi bat hotzago da (KA).

HOTZ asko da gaur / **asko:** otz aundia da gaur (O, G, KA, IP), hotz handia düzü egün (LAR, IN, O), urdea hiltzen da hobenez hobena abenduan edo urtarrilan, biziki hotz delarik (LAN), aurten egin du biziki hotz (LAN, KA).

hanka HOTZEKIN egon nintzen ~ anketa-ko otzak egon nintzen (O, G), zangoetarik otzak nago (AM), zangoak hotzak ditut (KA).

uraren HOZTASUNERA ohitu naiz: jarri naiz ur otzara (AM), jarri naiz ur otzakin ere (O), ur otzera oituta nago (O), ur hotzarekin usatia niz (KA, LAR).

estatua hori HUEKOA da: estatua orrek barenena dena utsa du (AM), (barnea) (KA), barru utsa dauka (O), barnea hüksik dü (AL), ori arbolea arroa da (IN), enbor ori barren utsa da (S), barren utsa da (G, S) / trinkoa da (G).

I. a. HÜLLAN ~ hur ~ **hurbil** ~ **hurrian** ~ **hurrian** ~ **b. alde** ~ **bertan** ~ **gertu** ~ **ondoan**. **II. hurrun** ~ **urrun** ~ **urruti**.

***I. a.1.** Atarrantzerik **hüllan** gira; Baionatik, aldiz, **hürrün** (AL), mendiarik **hüllanago**, hotz handiago (AL), etxeak elgarretarik **hurbil** dira (LAN), hebentik **hüllan** (AL). **2.** **emetik ur** (IN), **Intxaurre Zeanitik ur dago** (IN). **3.** **Aiherra Hasparnetik hurbil** da (KA), **etxolak elgarretarik hurbil** dira (LAN), **oheari hurbil** (ITS), **Sunbilla Donestebenetik urbil** da (S), **emendik urbil bizi** dira (AM, S), **nereganik hurbilago** (LAN). **4.** **Denopaleutik hurrien** gira (LAN). **5.** **Bentatxo emendik oso urrian** dago (O, IP). **b.1.** **Goizueta Leizatik alde** dago (G). **2.** **emendikan bertan** daude (G, O). **3.** **Azpeiti Azkoitik gertu** dao (O), **gertuan** daude (O). **4.** **urruti ez, ondoan** dago (IB).

II. aitagandik urrin dago (IN), **emetik urrin** (IN), **aitaganik hürrün** da (AL), **aitagandik urrun** (AM, LAN), **Baionatik urrun** da (KA), **aitagandik urruti** dago (G, EL), **aitaren ondolik urrun** da (KA), **irakurleagan-**

dik urruti dago (G), **elgarretarik urrun** (ITS).

Tebas hiria izan zenaren HURBIL: Tebas iria egon zen tokitik urrian (O), egon zan tokitik bertan (O), galdu zun tokitik apartaxea-
go arrapatu zun (S), Tebas zen lekuaren ondoan atzeman dute eliza hori (KA).

HURBILEKO bezala **aditu** arren: **urrian** ~ **ondoan** balego bezela (O, G), **hurbil** balitz bezala entzuten dut (KA), **ondo ondun** bezala aitzen da (S).

hura HURBILTZEN dago: **ura badator** (IN, O), **ura eldu** da (G, S, AM), **ez dakit nundik baina ura heldu** da (KA, O, IP, IN), **bidean eldu** da (S).

emen HURREKO etxe batera joan bear dot: **ondoko etxe batera** (AM, O, IN, KA, S), **urrian dagon etxe batera** (O, IP, IN) (~ ur) (IN), **aldameneko etxe batera** (G), **auzoko etxe batetarat** (KA, S), **aizulat jun** da (LAR).

(H)URRENGO arte (G), **(h)urrengora** arte (IN), **(h)urrena** arte (O), **ikus arteo** (AM), **sarri arteo** (AM, KA), **urten arte** (S), **sarri arte** (S, LAR), **ikus arteo** (KA), **gero arte** (IB, EL), **urrengo aldia** arte (S).

alkohol botila bat **HUSTU** zuen / **botila** (hustu).

HUTS / **baizik**.

HUTS ~ **HUTSA:** sei eta hüts (AL, S, G, O, ID, KA), sei eta deus (AL), bat eta uts gelditu dira (G), berdin gelditu dira (G), iruna berdindu dira (G), sei ta batzez (S), berdiñean gelditu dia (O), iru ta utsa daude (G, EL), iru ta bapez gaiez (IN).

BEREIZ: **a. HUTS** egin **dut**. **b. huts** egin **diot** (= iraindu) / **faltatuko:**

a. denek egiten ditugu **hutsak** (KA), **utsik egiten** ez dugunik ez gaude inor (O), **utsik iten** ez dunikan ez gara inor (G, AM). **b.** **hitz horiekin huts** egin diozu (ITS), **uts egin** na izango det orrekin (O), **elkarrekin uts egin**ak dira (S), **hitz horrekin min** egin daukozu (KA).

hoy ha fallado a la Universidad ■ **Unibertsitatera HUTS** egin du / **eskolarik:** ez da Unibertsidadera joan (O, ID, EL, G, KA).

HUTS / BAKAR / **baizik**.

***BEREIZ:** **a.** **hemen euskaraz bakarrik** egiten dugu (= **erderaz ez**) (S, G, AM, O, KA, EL), **euskera baizik ez dute emaiten** (KA, LAR), **etxe artan euskaria bakarrik** egiten da (O), **bera bakarrik joan** da (O, G). **b. euskara huts** egiten dute (= **euskara garbia, erdal hitzik sartu gabe**) (GR), **euskara utsa egiten dute** (S), **auskara utsean etorri** dire (IN), **uskara utsa solasten** dire, **egiten dute** (S), **kape hutsa** da (KA), **auskara utse iten** da an etzean (IN), **gezur huts**ez ari da (KA), **bere bekatu**en **dolore huts**ez (AX), **erabil**li huts^{ez} (AX), **euskara garbia maite** du ez frantsesarekin nahasia (KA).

Hobetu ezazu zure gestioa behatz bat mugitze **HUTSAREKIN:** **gestio** hobea egin ezazu, **behatz bat higituz** (mugituz) **bakarrik** (GR).

hur HUTSEAN lo egin zuten / **hurrian**.

lanean ari beharrean mistika HUTSETAN iharduten dute: **kopletan ibilli bearrian**, **biarra eiñ** (EL), **lana egin bearrian**, **denbor**a **alperrik galtzen** (O, EL, G), **lana egiteko or**de, **debalde egin dute** (KA), **bearren barrik koplea bai** (IN), **bear in bearrean koplea** bai asko (IN), **lanak aintzin joxettugu** (S).

han queredo a cero ■ **HUTSNAGelditu** dira:

1. **berdin gelditu** dira (G, KA), **uts eta uts** (O), **biak utsean** (O), **bapezean gelditu** dira (IN), **berdin gelditu** dira, **alerik ez** (G), **berdinean gelditu** dire (S, IP, O), **ez dute golik sartu** (O, EL, G). **2.** **usna on duzu**, **kiratsa aditzen duzu** (AX 62).

koartela kainoiez **HUTSIK** zegoen: **koartelan** ez zen **kainorik** (O, ID, G), **kañorik gabe** zegoan (O, ID, G), **kasernan** ez da **kanoirik** (KA).

I

IA egin ditu lanak ~ lanak intxek ditu (G, AM), egin xamartuak ditu lanak (O), finituxeak ditugu lanak (ITS, LAN, KA), lanak aintzin joxettugu (S).

IA zoro bihurtu nintzen / **bihurtu**: zoratu ez beste guzi in nintzan (G), zoratu ez beste danak egin nintzan (O), erotu ez bertze guziek in nitzen (AM), zozotzer izan nintzen (KA).

IA jo duzu atea / **aditzaldia** / **gutxiagatik**. *han venido casi todos los amigos* ■ **IA** guraso guztiak etorri dira: gurasoak ia danak etorri dira (IN), lagunak ia danak etorri dira (O, S), politikako gizonak kasi denek irabazi dute (KA).

IBILI: BEREIZ: 1. erabili. 2. ibilarazi.

1. berak erabiltzen du berebila (= berak gidatzen du). 2. berak ibilarazten du berebila (= abia arazten du).

Jolandak bere begiak aretotik **IBILI** zituen: Jolanda bazter guztietara begira egon zan (O) ~ ibilli zan (O) ~ egondu zen (S), bazter guztietara beha da (KA).

desertua **IBILI** zuten: desertian ibili ziren (AL, KA, LAR), basamortuan ibilli ziren (G, O), basamortu guzia mutur batetik bestera ira(g)o zuten (G).

Bereiz / **ari**: **a.** haur hori ikastolan **DABIL** (O, G) (= ikastolara joaten da ikastera). **b.** haur hori sukaldean **ari** da ikasten (O, G) (= orain han dago ikasten).

IBILALDITXO bat **eman** behar dugu: ibilalditxo bat egin bear degu (O, G), itzulia egin al duzu? (AM), egin duzia itzulia? (KA), egin ahal duzia itzulia? (KA).

IBILI / **ERABILI** / **erabili**.

iraganbidea **IBILTZEN** hasi zen: pasillu(a)n ibiltzen hasi zen (G, O), kularrean harat-hunatka hasi zen (KA).

kalea **IBILI** zuten / **kalea** (korritu).

zutitu eta **sukaldea** gora eta behera **IBILI** zuen: batetik bertzera daile sukaldean (AM), alde batetik bertzera (S), suitian batera ta bestera ibili zen (IN, G), aruntz ta onuntz dabilla (G), sukaldean batera bestera zebillen (O), asensorea gora eta be(he)ra ibilli (= erabili) zuen (O), sullardan batetik bestera erabilki (= ibilki) da (KA) ~ harat hunat (KA).

IBILI dituzte metro batzuk: metro batzutan ibilli dira (O), ibiltzera erten ta metro batzuk egin zituzten (O, G), urrats bat edo beste egin dute (KA, S).

kotxera hasi zen **IBILTZEN**: kotxera abiatu zan (O, G), kotxeruntz joan zan (EL), kotxerantza joan zan (IN), kotxe aldera fuen zan (IP), otorat buruz abiatu da (KA), otoilat bü(rü)z abiatu da (LAR).

IBILTZEARI utzi gabe / **utzi**.

nondik **ZABILTZA**, gizona?: 1. zu nondik nora emen? (O), zu nondik nora etorri zera? (G), nun zabilte? (AM), nondik nora zabiz? (IN). 2. ze, hemengo aldi? (KA, AM, S, LAR), ze, Aiherrako aldi duzia? (KA). 3. **a.** *Erdal kutsua?*: emendik zu ere? (O, EL), ze, alde auetatik zu ere? (O), ze, Bilbotik? (EL, IN). **b.** *Ongi*: emendik etorri da (IN, O, EL), Bilbotik Larrañera bide luzea dago (O, EL, IN).

erreuma du eta ez da **ongi** **IBILTZEN** ~ ...eta ez du ibilpide ona (O, EL), ibilpide txarra deuko (IN), ibilkune motza / bizko-

rra (IN), artrosa du eta nekez erabiltzen da (KA).

inork ikus ez zezan **IBILIZ**: iñork ez ikusteko moduz ibiliz (O), iñok ikusi ez iteko moduan (IN), ez ikusi naiz daitze (AM), nehorik ikusi gabe behar dugu erabili (KA), nekork ikusteko gisan (KA).

lantegi hori ongi **DABILELA diote** ~ / **hotsa**.

gerlak **IDAZGIROAN** ere gauzak aldatu zituen: gerlak idazgiroa ere zearo aldatu zun (O), gerra ezkerotik arrunt aldatu da erria (G), gerlaz geroz herria barreatu da (KA).

ni ere **IDEIA berean** nago / (tinko) **jarraiten**. hara **joateko IDEIAN** dago / **asmotan**.

ganibeta Imanolen **IDUNEAN** sartu zuen (iduna: jantzien lepoa) / (nabala) **sartu**.

IDURI / **irudi**.

elkarri **IDURIAK** dira (AM, ITS) / **antz**.

nire **aurpegiak** beti **idurikatu** du nik dudan baino urte gutxiago: arpegi gazteago ematen dut (G, S, IN, AM, O), dun adiñeko puska gaztiago ematen du (S), den baño gazteago ematen du (O), üdiri beno gaztiago, zaharrago nüzü (AL), uste beno gaztiago (AL), begitartez gazteago iduri du (KA), üdiri dian beno gaztiago nüzü (AL).

IDURITU (Axularrek aktibotzat ere hartu du = *Juzgar*): iustiziaren arrazoin hau bortitazgo iduriturik (AX 231), soberania iduriturik (AX 352), nik iruditu dut Xako zela (S).

1. **IGANDEAN** **goizean** etorri zen. Astelehenean arratsean (O, G, S). 2. **igande goizean** etorri zen (O, S, AL, G, ITS, KA), domeka goxean (IN), igante arrestiez mendira joaiten da (AL).

pasan cosas semejantes con frecuencia ■ maiz holakoak **IGAROTZEN** dira: / **ematen** (jarrera).

ikus orduko **IGARRI** zuen ona zela / **notatzen**: igarri zion ona zala (G, IN), segitxuan igarriko dio zeñek egin deban (EL), antz emontzen ona zana (IP, ID), igarri nion ona zana (EL), atxemaiten zuen Pello mutiko ona zela (KA, LAR), berehala igarriko dio zer egin duen (O).

nola **IGARRI nauzu**: zertan ~ nola igarri di(d)azu? (O), zelan antz emontsau? (IP), ze-

lan igarri dautsu? (IN), zelan igarri diozu? (EL).

1934.ean ez zion inori esan, **IGAZ** zenbat irabazi **zuen**: 1934.ean ez zion inori esan aurreko urtean zenbat irabazi zuen (O), ez diot esan igaz zenbat irabazi nuen (igaz esaterakoan, «*aurten*» go aldian gaude; = *aurten* ez diot esan, igaz zenbat irabazi nuen) (O).

zer egin duzu? **IGERI**: igarian (O, EL, IB, G), igerika ari izan niz (KA, LAN), igerika ibiltzen (LAN), badaki igerika (KA).

langileek **IGOERA** bat eskatzen dute: soldata geiago eskatzen dute (S, G, O), jornala goititzea (AM), soldata hobea galdatzen dute (KA), jurnal ohea ematen dute (S).

Azpiroz **bortuaren IGOERAN** ostatu bat bada: Azkaratera igotzerakoan ostatu bat dago (O), Aramaiora igoten, ostatua dago (IP), San Migelera bidean (IN), Etxegarateko bidean (ID, G), mendiratekoan bada ostatu bat (KA), mendirat iraiten (KA), Belatera bidin bada ostatua (S).

a. **IGON naiz** ~ b. **igon dut**.

a. mendira iyo naiz (O, EL, G, ID), mendirat irain niz (KA), egatzila igaiten nüzü (LAR), arbolan gañera igan naiz (S). b. mendira igon dot (IN), mendira iyo du (O, G, ID), igo dot (IP).

astora **IGON** zuen / **zaldira** (igon).

haizkolaria **enborrera IGON** zen: enborran gainera igan da (S), egur gañera iyo zen (O), haritzari goiti joan da (KA).

*idazle horrek euskara goi mailara **igon** erazi du: euskera goi mailara jaso du (O), eskuara geineko ozkara altxatu du (KA).

*eskailerak **igon** zituen / **jaitsi** (eskalerak): 1. eskilletan gora igo euen (IP), eskilaretan gora igo nintzen (O), eskalaretan goiti igon zen (G), eskaletan goiti gan zen (AM). 2. zübier gora dua (AL), zoazi selaururat zurubi hoier goiti (ITS), eskeleler goiti / beheiti joan da (KA), eskeleler goiti behiti ari da (KA). 3. zulubia goiti abiatu da (ITS), eskalerak gora heldu zen (ITS, LAR), eskelellarak gora igon noan (IN, AL).

*sagarrik sapaira **igon** zituen: sagarrik bitu ta ganbarara jaso ditugu (O, ID), sagarrik ganbarara bildu ditugu (G), kanbara-

ra altzau dau (IN), goiti gan ditugu (AM), ar zizu kutxa goiti gateko ~ goitira gateko (AM), eramn goiti kutxa (G, S), lastoa sabaira jaso dot (IP), jaka kuelloa jasota (O), kuelloa goituakin doae (S), belarra selaurirat altxatu dute (KA).

*espaloia **igon** zuen: espaloira igon zuen, igon zen (GR), espaloira igo zen (O), mendi tontorrera iyo zen (G), trotuarraren gainera irain da (KA).

*journalak **igon** in deure (IN, G, O), soldata goitu (S, G), soldata goititu dute (KA), altxatu dakote (KA), niri jornala altzau egin in duztie (IN).

*kriseilua eskuz gora **igonda** zeukan: eskukin gora jasota (O), ontzia eskuz altxatu du (KA), eskukin goitu du (S).

*mendia **igotzean** axeria ikusi nuen / **gerundio**: mendira iyotzerakoan (O, EL), mendira igotzean (G), mendira igokeran (IN), mendira abiitzean (AM), oihana gora, mendia gora joaitian (AL), mendirat iraiten ~ goiti joaiten (KA), mendira igoten, asto bat ikusi neuen (IP), mendien igaitean ardía ikusi nian (LAR).

IGUAL etorri / **posible**: 1. bero date (= igual bero da) (AL), bero ditake kanpo hortan (KA). 2. jin da, izan laite (AL), jin ditake (KA). 3. othian jin da (AL). 4. jin da, eltü bada (AL, LAR). 5. aurki, etorri izein da (G), etorri da aurki (EL), aurki axe izango da (IP), (aura) (EL), aurki etorriko da (IP). 6. bear bada, etorri da (S, AM, IP, O, EL, ID), bear bada, etorria da (G), jin da, behar bada (KA, O), bear bada, onuzkero etorriko zan (O, IP), behar bada ez (O, ID), behar bada hor da (KA). 7. etorri da, doike (AM, AR). 8. naski (e)torri de, ezkakit, seguru (AM), jin da naski (LAN, KA), noski, (e)torri izan bear du! (S, ID, G). 9. onenez etorriko zan (IP). 10. etorri da, urtean (IN), bai urtean! (IN, EL). 11. seguru asko etorri izein da (G, O, ID), etorriko zan, seguru asko (O, ID), seguraski (S, ID, G), seguraz ere jin da (KA).

IGUAL etorriko da! / **ojala**: agian etorriko al da! (S), jinen ditake (KA), etorriko al da benpe! (G), etorriko da doike (AM), agian jinen da (KA), agian giten ahalko da!

(KA), arauz jinak bait ziren (KA), hamar orenak ditazke (uste dut) (KA), izango du andarea edo liburua; biak ezpaditu ere (O), etorriko da naski (AM).

norbait etorri da; **IGUAL** Antxon da: ...; Antxon ezpada (G), ...; Antxon ote da? (O), Pierre ditake, naski (KA), ohatzean ezpada! (AM).

gero **IGUAL** joaten gara hara / **aditzaldia** / **ojala**: joanen naiz noski (dudatan) (S), bear bada, jungo gera (O, ID, S, IN), bear bada, berak ingo dau (IN, G, IP, O), etorri lei, bear bada (IN), baleike etortzia (O), behar bada, joanen gira (KA), jinen girateke berdin (KA), bear bada, eldu den urtean gan naiz New Yorkera (AM), elthü bada, dai-gün urtean joanen niz (AL), araij jinen da bihar, bestenaz berantegi izanen da (KA), araij jinak dira (KA).

IGUAL industria ere gizonen onerako da: erlijioa ere berdin, gizonen onerako da (O, ID, G), erlijioa gizonaren onetan ditake (KA).

IGUAL da! (S, G) / **inporta**.

bi horiek **IGUALTSU** dira? ~ biak ere! (O, G), berdintsu (KA).

todo le repugna ■ denak **IGUINTZEN** du ~ denen nazka dauka (O, ID), gauza guziek okaztatzen dute (KA), orreri denak nazka ematen zio (S, G, AM), danakin nazkautu dago (ID, S), danari nazka dio (ID), danen iguiña dauko orrek (IP), danak iguiña ematen dio (EL), orrek gauzok iguiña ematen digute (EL), iguindu egiten gaitxu (EL).

IGURIKI: *lehengo zaharrek datiboarekin ere jokutzen zuten; Oraingo euskaldunek maiztxo akusatiboarekin*.

a. igurikitzen **dio** (AX 220), Nihork iguriki dezake (= diezaeke) hire arma zorrotzei (Jo. Etxeb.). b. *ez zaituzte* iguriko (ITS), idurikatzen dut ama (KA), etzütügu egürükitzen (AL), egüki nezazü (LAR), iguriko zaitugu (ITS), deus ere abantaila egürüki gabe (AL), ez igurika ondar eguna (ITS), batak bertzea iguriki ezazue (LEIZ. Kor I, 11,33), iguriki lezaten Aitaren promesa (LEIZ. Aps Ak 1,4).

IHARDOKI: gaitzari ihardoki dio (LAN, KA), ezin etsaiari iharduki (ITS).

IHARDUN: *Urola ibarrean jardun da (ihardun da) esan ohi dute.* Hobe ihardun du esatea, *Deba ibarrean eta Bizkaiko zenbait tokitan egiten duten bezala. Tokiotan molde trinkotan ere erabiltzen dute.* berriketan diardu (EL, IB), zertan ziardun? (EL, IB), biarrarian diarduzu (EL, IB).

Francori IHES ibili zen ~ **A. 1. a. Francoren iges** ibilli zan (O, G), Francoren ihes joan zen (KA), Saulen ihes zihoala (AX 61), Pedororen igesi zijoala (O, G), aitaren igesi dabilla (S), ematen dik aitaren igeska dabillera (S), Etsaiaren ihesi dabillala (AX 277), lagunain igesi gan da (AM), frankismoaren igesi joan zan (O), politikoen iesi (G, O), ezkontzaren iesi (G, O), poliziaren igesi alde egin zuen (O), munduaren iesi joan zen (G, O). **A. 1. b. ezkontzaren igeska** dabil (O), frankismoaren igeska doaie (S). **A. 2. guthizie** ere ihes egiek (LEIZ. Tim, II, 2, 22), hirari ihes egiten (LEIZ. Luk, 3,7), gerlari ihesi doa (LAN), etsaiari ihes (ITS), txerkazaler ihes egin zien (AL). **A. 3. abiatu** zen Kain **mundutik ihesi** (AX 282). **B. andregaiaren itzuli** dabil (GR).

IHESARI eman **zitzaion:** **A. 1.** igesari eman zion (O, IP, G). **2.** igesi asi zan (O). **3.** ihesari lotu zen (= zitzaion) (ITS), ihesari lotzekotan ziren (ITS). **4.** igesi jon zen (G), ihesi joanik zen (ITS), ihes joan da (KA). **5.** ihes egin du (KA), iges egin du (EL). **6.** igeska dabille (S).

etsaiak **IHESEAN ipini** zituen: etsaiak aurrean artuta bialdu zituen (G, O), iesi bialdi zituen (O), kontrarioak, izututa, alde egin zidan (S), kontrarioak alde egin azi zituen (O), iges egitera beartu zituen (O), etsaiak ihes arazi zituen (KA).

Xabierrek **IHESEAN** min hartu zuen: igesi zijoala (O, KA), ies egin zuenean (G).

nigandik IHESI dabil: nere igesi dabil (O), zure igesi (O), mutila(re)n iesi dabilla (G, O, S), neska igesi dabil (O), ene iheska dabilla (ITS), nitarik ihes egiten du (KA), nes-kari igesi ibiltzen da (G, S), nitarik ürren egoiten düzü (LAR).

IHZIAN ibili ~ **ari:** **1.** ihizin ibili (ITS, S), arraintzan ibili (ITS), intzien daile (AM), intzire gan da (AM), eizen ibiltzen dira (G),

arrantzan daile (AM), eizean dabil (O). **2.** ihizekan ari gütüzü (AL, LAR), ihizian ari dira (LAN, KA). **3.** intzire gan da (AM), ihizera joan da (O).

-IK / ez (erlazio).

IKARAK eman zion hura ikustean / **sustua:** ikara eman zion (O, IP, G, KA, S).

euskara **IKASI** behar dugu (IN, KA), euskaraz ikasi! (O, IP, S, G), euskaraz badaki (G, KA, S, IN, O, IB, MO), euskera badaki (IN, KA), eskuaraz mintzatu behar dugu (KA), üskaraz badakizü (LAR).

Nola dakizu hori? Pedrori **IKASI diot** (O, Eibar, G), nic eztaquit beste eusquerarik neur guraso, ta auzocoei entzunda icasi deuseedana baño (Peru Abarca), hori **EGIN-i** letu diot (GR), hori **EGIN-eri** leidu utset (IN).

teologiazko **IKASLEA** da: Teologia ikasle da (GR), teologiako ikasle (O, KA), teologia ikasten du (KA), teologiaren ikasten ari da (KA, S).

-IKO (historiko...) / **-ista.**

la visibilidad era mala ■ **IKUSGAITASUNA** urria zen / **abstrakoak** / **zail:** gaizki ikusten zen (G, IB, O), hemen ez da untsa ikuste (KA), lausoa dago eta ez da ondo ikusten (O), illun dago emen; gaizki ikusten da (S, O), lanbro dago; gaizki ikusten da (G), lauso ikusten zan telebisioa (O), etzen ongi ikusten; lanbroa zeukan telebisioak (G), lanbro aire bat (i)kusten dut (AM, S).

goizean Onintzeri **IKUSI** diot: Onintze ikusi dot (IN, AL, EG, KA, ITS), Onintzeri bellarria ikusi diot (O, G, EG).

hori egiten **IKUSI zioten:** ori egiten ikusi zuten (O, IP, IN, G), ori iten ikusi euren ~ eurien (IN), horren egiten ikusi zuten (KA).

telefonatzen **IKUSI diot:** telefonetan ikusi dot (IN), telefonatzen ikusi dut (G, O, S, KA).

ez **nion** eskutitza apurtzen **IKUSI:** ez nuen eskutitza puskatzen ikusi (O, G), enoan ikusi kartia zabalduten (IN), letra idekitzen ikusi nuen (KA), ez nuen letraren xehatzen ikusi (KA), ...ürratzen (LAR).

ispiluan **IKUSI zenean**, nigarrez hasi zen / **jokera:** bere burua ispiluan ikusi zuenean... (O, S, G, AM, O), (mirailan) (KA).

iheslea **poliziaz** inguratua **IKUSI** zen / **jokera:** iesleak inguru guztiak poliziak artuta ikusi zituen (O), gizon arek jira guztia poliziz beteta ikusi zuen (O, G), bere burua poliziz inguratuta ikusi zuen (O, G), ohoinak ikusi zuen poliziak inguratua zuela (KA).

gaur Patxi Salinas **ongi IKUSI** dut (= toki onean nengoelako): gaur Patxi Salinasek oso ongi jokatu duela iruditatu zait (G, O), egun Platini biziki untsa ari izan dela iduritu zait (KA).

arratsaldean **IKUSIKO gara** / **elkar** / **jokera:** arratsean alkar ikusiko dugu (G, AM, KA), arratsaldean elgar ikusiren dugu (LAN), arrastiritan algar ikusiren dögü (AL, LAR), hameketan elgar ikusiko diagu (ITS), gero algar ikusiren dögü (AL), gero alkar ikusiko dugu (G, U), sarri ikusiren dugu elgar (LAN), gero ikusiko dugu elkar (AM), atsaldian ikusiko dugu elkar (S).

zu **IKUSTEAGATIK** pozten naiz / **-teagatik** / **pozten.**

eso está muy visto ■ hori oso **IKUSITA** dago: aspaldiko kontua da ori (O, S), kontu zaharra da hori (O), aspaldian esan nuen nik hori (O), aspaldiko ixtorioa da (KA, LAR), eztuk oraintzeko kontua (S), atxineko kontua da (IN).

Aintzane **IKUSIZ** bakarrik **ezagutzen** dut / **fisikoki.**

IKUSKATU, jangatu, izandukatu / **-katu.**

oraingo jokoak **IKUSTEKO** dago ~ oraingo jokoak ikuskizun dago (O), jokoak oindio ikusteko dago (IN), ikusteko ederra badu oaindikan (G, IN), partida ez da oino segur (KA), oaindikan ikustekoa da (KA), espezak, espezak! Oraindikan geroroxeago ikusiko duk ori! (S), oraindikan ikusteko dago zein aldetara joan den (S), oindio ikusteko dao nok iribaziko dauen (IN).

ze **IKUSTEKORIK** dugu guk biok? / **zergatik** (beldurtu): **1.** Zer dut nik hirekin emaztea? (LEIZ. Ioan, 2,4), Zer da gure eta hire artean? (LEIZ Mat 8,29). **2.** guk bion artean eztaukagu zer ikusirik (O), nik ezte zurekin zer ikusirik (O), orrik eztekie zer **ikusirik** arkalegaz bata bestegaz (IN), ez dute alkarrekin deusen ikusi(ri)kan (G), ez

tebe alkarrekin zer ikusirik (O). **3.** nik ez dut phits **ikustekorik** horrekin (ITS), nire lanetan ez du horrek deus ikustekorik (ITS), horrek ez du phits ikustekorik hortan (ITS), nehorik ez du hortan deus ikustekorik (LAN), elkarrekin ez dute iaus ikustekorikan (S), horiek algarreki ez die deus ikustekorik (AL, KA, LAR). **4.** zer **ikusikizun** du bada spirituak haragiarekin (AX 308). **5.** ez dut aphezekin **egitekori** (ITS).

neskatxaz **IKUSTEN** zen gauza bakarria belarri bat zen: mutilari belarri bakarria ikusten zio (G), areri neskatxieri ikusten jakon gauze bakarria belarri zan (IN), nes-kari belarri bat bakarrik ikusten zitzaion (O), sudurra bakarrik zuen ageri (KA).

beti **IKUSTEN** dut **eskuan** zerbaitekin: beti ikusten dut zerbait eskutan badula, (S), (duela) (AM, KA), ...zerbait eskutan dula (G, O).

Antonengan **salbatzaile** bat **IKUSTEN** dute: Anton salbatzalletzat deukie (IN), Jesukristo salbatzalletzat daukagu (G, O), giristinoek salbatzailatzat hartzen dugu (KA).

oso posik **IKUSTEN zitzaion** Miren Aingeruri / **notatzen.**

meritu handia **IKUSTEN** diot nik: meritu aundiak ematen dizkiot (G, AM, O), meritu aundiak dauzka (O), mereximendu handia ematen dakot (KA).

nik oso **gaizki IKUSTEN** dut hori (= bista llaburra dudalako): nik ori gaizki arrapatzen dut (G, AM), nik ori oso gaizki biltzen det (O), txarto erezten deusat (IN), horri gaizki irizten diot (EL), nik hori gaizki atxemaiten dut (KA).

hori zerbait **erraza bezala IKUSTEN** dut: lan arraxa iruditzen zit (G, AM), (errexera, zait) (O, KA), lan fazila erezten jata (IN).

IKUTU ~ **UKITU.** *Oharra: A hobetsi.*

A. ez ukitu **zakurra** (AM), horrek atseka-beek biziki hunkitze naute (ITS), ez ukitu ori (G), ez hunki zakurra (LAN, S, KA), ez hori hunk (AL), hunki nu (ITS), ukitu ditu lau kuia (LAN), ez ukitu haurrari burua (G). **B.** ez ikutu telebisioari (O, EL, IP, ID), ez ukutu Mirentxori (IN), inori ezetan ikutu бага (Peru Abarga).

toca bien la guitarra ■ **gitarra** ongi **IKUTZEN** du horrek: ongi jotzen du (G, ID, MO, IB, KA).

tocó el timbre ■ **txirriña** **IKUTU** zuen: txirriña jo du (O), txintzarria jo du (Errezil), soneta jo du (KA, LAR).

gudu hartan bi **itsasontzi** **IKUTUAK** izan ziren: bonbak bi itsasontzi arrapatu zituzten (O), bonbak itsasontzia jo zuen (O, G, IP, KA).

elkarrizketan **gai** arruntak **IKUTU** ditugu: erabili ditugu (O), zertaz ~ ze itz egiten aritu zerate? (G), zertaz mintzatu zirezte? (KA), edozein gauzaz solastu gara (S), izlariak ortaz jardun du (EL).

ha hecho una luna hermosa ■ **ILARGI** ederra **egin** du: bart illetargi ederra egon da (O, EL, G), bart illargia azaldu da (O, EL), barda argizaria xuri zen (KA), atzo itargi ederra egon zen (IN), bart arratsin illargi ederra zagon (S, IN), bart illargi ederra zen (G), barda argizari xuri ederra zen (KA).

ILEA hartzen **ARI DA** ↗ **burla**: adarra josten ari da (G, IN, O, IP), arpa jotzen ari da (O), zirikatzen ari da (O), narritatzen ari da (S), nitaz trufatzen zira (KA), nitaz futitzen zira (KA).

ILE **asko** dauka ~ bilo azkarra (LAR), ille gizona (AM, G), ille lodia (O, KA), bilo lodia (LAR), ille ugaria dauka (O), ile azkarrak ditu (KA), ille sarri (S), oso illetsua da (= gorputzean ile ugari du) (O).

ILE gorria da ~ buru gorria da (S, G, O), bilhagorri da (AL), bilo gorriak ditu (KA), rukina düzü (LAR).

ILE gutxi zeukan ~ ileak argal ditu (KA), ille argala dauka (G), ille saretua (O), ilhia arinxka (AL), oso ille bakana dauka (O), bilo txarra (LAR), ille urria dauka (O), ile argala du (AM), illea xare xare eginda dago (O), ille txepela dauka (O), ori arrunt soildua dago; ille kilmin batzuk besterik ez du (G), ille laprats pixkat (O), ule meatz (IN), ille kilmin batzuk dauzka (G), ule mea deuko = *pelo fino* (IN, O), ille urria dauka (O), ule banan dauko (IP).

ILE zuridun jaun bat: jaun buru zuri bat (O, IN, G), gizon buru zuri bat (AM, KA), buru gorria da (G, O).

ILEA erori zaio: illea gutxitu zaio (O), illea

bakandu zaio (S), ilea mehatzu jako (IN), ileak mehatu zazko (KA), illea arindu zio (G), illea txartu zaio (S), biloa galdu dü (LAR).

ILEA lepo **guzian** zeukan: lepo(ra)ño badu illia (S), leporaño illia dauka (S, O, G), lepoa illea(re)kin tapauta (O), lepo erditik bera (IN), bizkarrean beeraño illea zeukan (O), kokoteraño uli euken (IP), lepoa betean illea dauka (G), illea lepotik bera (ID), lepoari beheiti baditu ileak (KA).

lepoko **grimak / zurda** (buztaneko **ILEA**) (ID, O), beorak lepoan kimak izaten ditu (S).

Nola duzu **ILEA?**: ille gogortua (G), ille karlatua (nahasia) (S), ille kollatua (G), ille koltxatua (G), ille kozkortua (G), ille kizkur kizkurra dauka (O), ille kuzkurra (S), ille mordollo ederrak dauzka horrek (G), ille morkoilloa du (G), illea sakasten hasi zaio (zarbazu) (O, ID), illea sakastua (ID, O), zakurrari illea sapatu egin zaio (O), ille sapatuakin (O) (= zarbazu) (O), ille sapsa (O), zarbazu: ile handi orraztu gabea (G), zimazu: zarbazu (G), ille zipitza ugari (ile punta asko) (O), andre ule sakil ori (IN), zarbazu: ile handia eta orraztu gabea duena (G), orrek daukan zarba! (G), ori zarba! (G).

ILEA pixkat **zurituta** zeukan: ullia apur bat urdintuta deuko (IN), urdindua (G), urdindua (O).

ILLOA-izeba etorri ziren ↗ **eta**.

Ona da beraz Onintze! (*Er.*) **IMAGINATU!**: Pentsa! (O, G), ezta bada ona! (S), ez dao pentsatzerik ere (O, ID), ezbairik gabe (O), dudari be (O), dudik gabe (G), dudarik gabe (KA, O), orixe bai! (G, O), pentsimazu, zein ona den! (KA), jakina! (EL, O, G). *Me imagino que te habrás escarmentado* ■ eskarmentatuko zinela **IMAGINATZEN** naiz: ikasita geldituko ziñan, orregatik! (O), mantsua(ga)tik ikasiko zendun (O, ID).

qué bien le imita ■ zein ongi **IMITATZEN** duen: **1.** eskarnio egilea da (LAN), eskarnioka ari da (KA), haren eskarnioak egiten

ditu (LAN), eskarniak (KA), horren eskarniatzen ari zara (LAN). **2.** bertzearen ixtak egiten ari da (S), Laidaren ixta egiten du (S). **3.** Laidaren ingrestiak egiten ditu (AM), zein ingristiuntzi den (AM). **4.** bertzeren krimesiak egiten ditu (AM). **5.** errexilarren siñu egiten asi dira (O), Harkaitzen siñuak berdind berdind eiten ditu (O). **6.** ziminerian ari da (ITS). **7.** haren ehakina egiten ditu (KA, LAR). **8.** izkiantxak egin (LAN).

eguraldi txarragatik edo **INDAR** handiagotik **suspenditu** egingo dira jaiak: ...edo beste garrantzizko arrazoiren batengatik ez da festarik izango (O), ...edo beste errazoi inportanteagaitik (IN), ...edo beste zerbaitengatik (G), arrazoin inportanta horrengatik ez da eskolarik (KA).

INDARRAK **ahuldu** zaizkio: auldu egin da (O), indarrak aitu zaizkio (G), indarrak akitu zaizkit (S, AM), inderra joan jata (IN), indarra ttipitu zait (AL, KA, LAR).

neure **INDAR** guziekin egin nuen ~ nere indar guztia(re)kin (O, ID), ene indar guziekin jo dut (KA), neure indar guztiekin jaso neuen arria (IP, EL), neure indar guztiegaz (IN), nere indar guziekin egin nuen egiñala! (S), nun indar guziekin jo nun (G), bere indar guziez egin zuen (ITS), indar oroz jo du (LAR).

bititze **INDEPENDIENTE** bat darama: **1.** bereber bizi da (KA), bi lagunek beren lana bereber daramate (LAN). **2.** bere era ibiltzen da (O, EL), bere erara bizi da (IN). **3.** bere gisa bizi da (G, AL, AM, S, G, LAR), bere gisa utzi dute (KA), bere gisako bizitzia damaki orrek (O), bere gisetan bizi dira (S). **4.** bere arira bizi da (IN). **5.** oiek danak been kasa bizi dira (O, ID). **6.** orrek danok euren kauten bizi dia (IP).

INDIOETARA jolastu ↗ **joko**: indioka dabilta jolasean (O, IN, AM), ze jolasetan dabilta? Indioka (O), indioka jostaka (G), erbike olgetan dabiz (IN), ze jolas iten dozue? (IP), indioka josteta ari dira (KA).

hiria salatariz **INFESTATURIK** dago: salatariz beteta (O, G), salatariz josita (O).

haien asmoz **INFORMATURIK** gaude: aien

barri badakigu (IN, IP, IB), heien berriak badakigu (jakin) (KA).

INGLESEAN dago idatzita ↗ **mintzatu** ↗ **hizkuntza** ↗ **aleman**: ingelesez dago idatzita (O, EL), ingelesez izkariatua da (KA), ingles eskribituta dago (S).

INGELES kainoiak onak ziren: kañoi ingelesak (G, S, AL, IN, AM, O, LAR), oto ingelesak (KA), kotxe ingelesak (S, G, AM).

gaixotegian **INGRESATU** dute: gaixotegira eraman dute (ID, O, G, S), joan dute (KA), gaixotegian sartu dute (ID, O, G, KA).

orain hamabost urte **INGURU** etorri zen ↗ **bat**: orain hamabost bat urte etorri zen (O, G, ID), orain amabost bat urte gutxigora-behera (O), duela hamabost bat egun (ITS, KA), bi urte izuli oi = *alrededor de* (AM).

mutiko bat, hamabost urte **INGURU** **nonbait** han zukeena ↗ **bat**: amabost bat urteko mutikoa (O, G), urtetako (KA), hameka urtheren heitñsian (AL).

kilometro erdi **INGURU** ibili zen (IN) ↗ **bat**: kilometro erdi bat inguru egin zuen (AM, S, G, O, IP, ID), (goiti behera) (KA).

sei liburu **INGURU** erosi zituen ↗ **bat**: sei bat liburu erosi zituen (O, IP, IN, ID, G), bospasei liburu (KA), bost sei bat (S).

hiruak **INGURUA** zen ↗ (ordu bata) **aldera**: irurak inguru zan (O, IN, ID, G), bederatziek inguruen dira (AM), iruek inguruoi (AM), laurak inguruen etorri zen (IB, O, G, ID), iruek urbil da (AM), iruetara doaie (AM) ↗ **joan** (doaz izatera), hiru orenak iri zen (KA), iruk aldia zen (S).

hamarren **INGURUAN** joan zen ↗ **aldera**. 600garren **urtearen** **INGURUAN** jaio zen (KA) ~ 600garren urte inguruan jaio zan (O, G).

apirilaren erdi **INGURUAN** etorriko da ↗ **gutxigora-behera**: apirilaren erdi aldera etorriko da (O, G), erditsutan jin zen (KA), urriaren erditsutan izanen dugu besta (ITS).

Donostiaren **INGURUAN** bizi da: Altzaiko üngürrietan bizi da (AL, KA), Larraineko üngü(rü)netan (LAR), Zeani inguruen (IN), Donosti ingurun bizi zen (G), Donosti inguruan (O), Elizondo inguruen (AM,

AP), Goizueta inguru(a)n (G), Sunbilla inguruan bizi ~ bizitzen da (S).

eskolako **INGURUAN**: eskola inguruan (O, G, ID), eskolaren inguruan (KA), eskola inguruen (IN, AM), eskolondun (S), elizan ondun (S).

San Pedroko plaza **INGURUAN** daukan etxera juntzan (O) ~ San Pedro plazaren ondoan dagon bere etxera joan zan (O, G, AM), (den) (KA), San Pedro plazaren inguruak jendez beterik zeuden (O).

ordularia belarriaren **INGURUA** eraman zuen: belarri ondoan paratu zuen (AM), erlojue balarrian jarri zuen (O), belarrien ifini deu (IN, G), montra belarriaren ondorat hurbildu zuen (KA), beharriaren ondoan ezarri zuen (KA).

INIZIATIBA berak hartu du: bera asi da (MO, ID, EG, KA).

hori egiteko **INKAPAZ** gara \nearrow **kapable**: ongi egiterakotz ez deusgayak (gara) (LEIZ. Ot-hoitz Eccl).

haur hori **INKLUSATIK** atere da: Billabonatik jasoa da (O), bere haurtzat hartu dute (KA), uritik ekarri eben (IN), ondokotzat hartu dute (KA).

INKREIBLE da: ezin leike sinistu be ein (IP, IN), ezin liteke sinistu (G), sinistu ez itekoa da (IN), ez daiteke sinets (ITS, AM, S), sinistekoa ez da! (O), sinistu ezina da (ID), ezin sinetsia da (ITS, LAN, KA), ezin erranezko khar batekin erraiten zituen gauzak (ITS), ezin sinetsi alako da (S), sinesteak baditu lanak! (S).

zuru beltzak euriaren **INMINENTZIA** abisatzeten du \nearrow **euria** (egitera doa).

INONGO beldurrik gabe joan naiz (G), ezeinere iziapen beldur etzaretela (LEIZ. S. Pierris I, 3,6).

entzun, entzun! **INORK** kotxearen giltza galdu al du? \nearrow **zu** \nearrow **zuek**: 1. inok kotxearen giltzarik galdu dozue? (IN), ...galdu al duzue? (O), inork galdu al duzue kotxen giltzik? (G). 2. hoietako inork ez du giltzarik galdu (EL, EG, ID, G).

beretzat ez zegoen beste gizonik **INOR**: berarentzat ez zegoen beste gizonik (IN, G, O), berarentzat ez zegoen ura besterik (O), horrendako ez da munduan beste gizonik (KA).

kalera al doa **INOR**? \nearrow **zu** \nearrow **zuek**: 1. karrikara ba zoazte inor? (AM), kalera al zoazte inor? (O), errira ba al zoazte inor? (G), inor ba zoazte plazara? (IN), zopa gehiago behar dezue inork? (ID): \nearrow **zuek**. 2. Idiazabal-en inor joaten al da mezetara? (ID, EG, EL), etxe orretan inor ez dago gaixorik (EL, ID, IB).

INORK ere ez nau jo (O), inozeptau jo (IN), ez nau inork jo (O), norbaitek jo zaitu? Inork ere ez (O), nehork ez nu jo (KA), ni ez nau inork jo (S).

NO IMPORTA: *NO ME, TE... IMPORTA*:

1. eztu nik **antsiarik** (LEIZ. Luk 10,40), ezpaita antsia (AX 304), ezta kargatik antsia (AX 320). 2. orregaitik eztau **ardure** (IN), ezta ardura aundiko gauzia (IN), ez deusta ardura (IN), orreri ezteutso asko ardura (IN), ze ardura utso orreri? (IN), Joni eztutso ardura (IP), ez deusku ardura horregaitik (IN), zuri zer ardura utso? (IN), niri ez deuste ardure (IN), orreri ez deutso ardure (IN), ezteutze ardure periodikoan ifinten deuriengaitik (IN), orreri eztio ardura (EL). 3. ez du **arregura** handirik (KA). 4. ez zaio **axola** aundirika (S), ez du axolarik (KA), nehork ez du gutaz axola handirik (LAN, KA), hortaz axola guti dugu (LAN), ez düzū axolik (AL), orregaitik ez zaio axola aunitz (S), zuri ze ajola dizu? (O), izenagatik bost ajola zait (O), bost ajola digu guri (ID, O), etzaut axola (KA), etzait axolik (S), zaldi bat agertu arren, ez dio ajolik (O), ez dio ajola ~ ez zaio ajola (O), ez dio ajola aundirik (O), neri asko ajola dit, ba, orregaitik (O), neri ez dit asko ajola (O), ez dit axolik (S). 5. **bardin** zaut (ITS, AM, KA), berdin dio! (O, EL), berdin du (ITS), berdin zaio (O), Non utziko dut? Berdin du, or berean (AM), bardin dautso (IN), bardin dautso arre nai iso (IN). 6. ez da **galdugorde** aundiko gauzia (IP). 7. ezta **gorabera** aundiko gauzia (O, G). 8. zer **joan** zaizu, ama etor dadin ala aita? (ITS, KA), orren gitxi joat? (Añibarro), zure arimaz dijoakizula (AX). 9. **guti zaut** munta (ITS), munta handikoa (XAL), deus ez du munta (ITS). 10. zer **zait** niri? (ITS), orri zer **dio**, nik egiten detanagatik? (O), neri zer dit ba, periodikoak esaten du-

tenagatik! (O), zuri zer dizu, ba(da)? (O), niri zer deust? (Añibarro), horri oro bat zaio (AL, KA), orobat düzū hori (AL), oro bat zitadazū ~ zait (AL), oro bat ziozū (AL), horobat zitadazū (AL), zernahi orobat zitadazū: berdin zait (AL), zer deust inok ikusiarren? (Kresala).

asko INPORTA zaio alaba ezkondu ala ez: anitx inporta ziniozū alaba ezkunt dadin (AL, KA), asko dihoakio (GR), hainbat dihoakizun gauza (AX), gorabehera aundiko kontua da, alaba ezkondu ala ez (O), arrenküra handia badüzū (AL), ze gorabe(he)ra du orrek? (O), ez genion inportantzirik paratu (AM, S), axola ttipi dü so egilez (AL).

zy yo no te IMPORTO? ■ nik neuk ez zaitut axolik: nigatik ez al dizu ajolarik? (O), nitaz ez duzia axolarik? (KA, S), nigaitik ez tutzu ardure? (IN), ez dut hartaz axolarik (ITS).

merkeak balira, ez luke **horrenbeste INPORTA**: merkeak baleizke, gaitzerdi (O), kario izanik ere, ona balinbada ez da gaizki (KA).

Estatuak elebitza **INPOSATZEN gaitu**: Estatuak elebitza bortxatzen digu (S), lan hori behartu digute (O), ez zaitut bortxatu nai lan ori egiten (G, S), ...lan ori egitera (AM), bortxarazi daukete (KA).

ez dizut lan hau egitea **INPOSATZEN**: etzaitut lan ori egitera beartu nai (O), ez dautzut bortxarazi nahi lan hori (KA).

nazkagarria da, beti **INPOSATZEN zaigu** \nearrow **monagillo**: orrek beti gu mendean euki nai gaitu (O, IP, G), horrek menpean atxiki nahi gita (KA).

INPOSIBLEA da hori: ori ez daitekena da (AM), ori ezin litekena da (G), ezin leikena da (O), ori ezin leiken gauzia da (IN), ori ezinezko da (AL, O, IN, G, S, U, EL, KA), ezinezkoa da ori (IP), jai zegok emen (EL, G, IN), ez da deus egiterik! (S), ezin egina da (KA), eztao zer eginik (IN).

ez zaio **INPOSIBLE**: ezinik ez deuka (O), ezinik ez deuko (IN), ezin i(gi)ña ez dauka (G), horrentzat ez da ezin eginik (KA), orrentzat eztao ezinik (O), iten al eztenik ezta (AM).

INPOSIBLE da **adibinatzea**: ezin leike asma-

tu (O), ezin pentsatuzkoa da (KA), ezinezkoa da asmatzea (GR), asma gaitza da (GR), asma ezina da (GR), ez da asmatzen errez (O), gero zer ikusi behar den ez jakin! (S), asma be inondik hori (IN).

INPOSIBLE da alde egitea: eztao eskapatarik (IN), ez zuen eskapatzerik (KA), eztao alde egiterikan (O, G), emendik ez da aldartzterikan! (S), ezin leike alde egin (O), emendik ez da iges gaten al (AM), alde egitea ezinezkoa da (O), alde egitea ezin leikena da (O).

salbajeen **INPRESIOA** ematen zuten: basapistiak dirudite (O) ~ ematen dute (EL, IN, G), basapistien itxura deuke (O), animale basak iduri duzue (KA).

pistola Poli **INPRESIONATZEKO** zen: Poli bildurtzeko (O), iziarazteko (KA), Poliri larderia emateko (S, AM), nolako larderia eman daut (AM), nolako dardaria eman zidan (S).

oso **INPUNTUALA** da \nearrow **puntual**: ordu kontuan zabarra da (G, O), ori bere orduan zuzen ibiltzen da (O), ez zirezte sekulan tenorean xuxen (KA, LAR), ez duzue tenorerik (KA).

zoaz, zoaz, **INSISTITU** zidaten guziek \nearrow **ekin**: joateko ta joateko ekin zidaten (O, G), joateko ta joateko, ekin ta ekin iustien (IN), erran eta erran ari zeitzen (AL), erran ta erran ari zitzaion (AM), lagunari bein eta berriz ekiten zion (O, G), usu erran zautan joateko (KA).

EZ INSISTITU puntu horretan: puntu horretaz ez jardun (O), alperrik zabiltza kontu orrekin (G, S), alferretan ari zara ixtorio horrekin (KA).

ez dut horretan **INSISTITUKO**: nik eztiat gai onetan berriro ezer esango (O), ez naiz beti esaten ariko; aspertu naiz oraintxe (G), ez deizüt beti bergaiza erranen (AL, KA), ez deizüt hori nik beti arrapikatüko (AL), ez dut tematuko (KA).

ebangelioan **INSPIRATZEN** da: ebangelioetik ari da (ITS, KA, LAR), ebangelioa du argibide (O), ebangeliotik artu dittu gauza oiek (G, IP).

INTELEKTUAL mailako eztabaidak: intelektualeen mailako eztabaidak (GR), intelek-

tualen arteko eztabaidak (O), txakurren arteko borrokak (O, G), intelektualen arteko kalapitak (KA, LAR).

denbora **INTENPESTIBOAN** etorri zen: oiek ez dira garaiaik; desordutan etorri ziran (G), ez da etortzeko tenorea (AM), behar ez den tenorean jin da (KA, LAR), eztere etortzeko orduak (AM), ezorduan etorri zan (O, IN), ezorduetako ibillerak dira oiek (O), beti ezordutan ori! (O).

ez daukat hori egiteko **INTENTZIORIK** / -**tekotan**.

haren alde **IPINI** ziren: aren alde jarri zian (G, AM, O, IP, KA, S), aren alde parau zen (IN).

alpargata ere **IPINTZEKO** ez zeukan / **jantzi**: anka jantzeko espartziña ere ez zuen (O), anketan jantzeko alpargatarik ez zeukan (O), soñian ze jantzirik ez zeukan (O), ankatan jantzeko askapiñik ere etzun (G), ankan ifinteko abarketarik be ez zeukan (IN), etzuen espartinik zangoan paatzeko (AM) ~ ezartzeko (KA), oinetakorik etzun! (S).

me pongo el traje de baño ■ bainujantzia **IPINTZEN** dut / **jantzi**: igaritako prakak jantzi ditut (O, EL), galtzak jantzi dodaz (IN, G), pantalonak jauntzitu (AM), uretako prakak jantziko ditut (IP), igerika ar(it)zeko galtzak ezarriko ditut (KA), ...igerixka (LAR), jantzi berria jantzi oan (IN, G), arropa berria jauntzi zuen (AL, AM), traje berria jantzi du (O), jantzi hauek jantzi itzazu (O), onek erropak jantzi (IN), onek erropok jantzizu (IP, EL), mutiko, jauntzizik arropok! (S), arropa berria soinean ezarri du (KA).

IPIN zaitzez hormari begira: jarri paretari begira (O, AM, G, S), parau zatez ormeari begire (IN), murruari so jarri da (KA), murruari beha da (KA), jarri zaitzez ormari begira (EL, G), egon zite paretari begira (KA), parau zatez ormara begire (IN).

leihotik begira **IPINI** zen: leihotik begira jarri zen (AM, G, O, S, IN) ~ beha (KA, LAR), parau zan (IN).

Manu herrirako bidean **IPINI** zen / **-rako**. *al menos pondremos los medios* ■ bideak **IPINIKO** ditugu, gutxienez: biden egitea (AX

243), alegiña egingo dogu (O), alegiñak eñnen ditugu (G) (benpen) (S), egiñalak egin arren (G, IP), egiñalak eginda ere (AM), egiñalak egiñagatik (O, LAR), bortz ahalak eginagatik (ITS), zazpi (eg)in ahalak egin ditugu (KA).

etxea Donostian **IPINI** du: artu du (O), Donostien pisue artu du (AM, IP), pisua Donostian erosi du (G, IP, KA).

gaixorik **IPINI** zen / **gaixo**.

haserreago **IPINI** zen: jenio andiegoagaz parau zen (IN), len baño ere jenio txarragoan jarri zen (G, AM), len baño ere jenio txarragoakin (O), jenioan parau zen (IN), ase-rre bizian jarri zen (O, G), ni ez naiz orrela jartzen (G, O), ni ola ez naiz paretan (IN), len baño asarrego jarri nindun (O), kolera-tu nintzen (AM), ez zen isiltzen eta errabin paratu niñun (G), biziki triste jarri zuzun (LAN), kexatu da (KA), haserretzenago da (GR).

póngame la cuenta ■ **IPINI** iezadazu kontua: ekarri, mesedez, kontua (O, IP, G, S), ekarrazu, otoi, nota (KA).

kotxea **martxan IPINI** ~ kotxea abiatu da (G, O, KA), kotxea ibiltzen asi da (O), otoa abia(ra)zi du (AL), abiatzera dijua (O), juaiteko abiuan da (AL), galthatu zeion eia nurako abiun zen (AL).

salda bero bat **IPINIKO** dizut: salda beroa egingo dizut (O, G, KA), salda beroa emango dizut (O, G), salda beroa inen dartzut (AM).

gero eta zoroago **IPINI** zen: gero eta eroago daie (AM), gero eta eroago in zen (AM, O), ...jarri zen (G), joanago eta eroago (KA).

orain **IPINIKO** zaitut zuzendariarekin: orain esango diot nagusiari jartzeko (O, G, KA).

Lapurretan ez die inork **IRABAZIKO**: ...iñork eramango (O), ...iñork eramain (G), orreri ez deutso iñok geago ingo (IN), lapurren eztutso orri iñok eruango (IP), orreri ez deutso iñork pelotan gain (IN).

Atleti **IRABAZTEN** dabil, irabazten dijoo: irabazten ari da (O, S, G, KA), Atleti aurrena dijoo (O), zein da aintzina daiena? (AM), zein da irabazten ai dena? (AM), pelotakan irabazi deizüt (AL).

oinetakoei ura **IRAGAZI** zaie: sartu jakie

(IN, AM, O, G, KA, EL), oskiek hura hartzen die (LAR).

IRAIÑEAN datorren **esnetik** zuka zuka edaten ari da xerrikumea / **esnea** (edaten).

herriari **IRAKASTEN** ari zitzaion: herria irakasten ari zen (GR), Jesusek herria erakasten zian (LAR), herriari Jainkoaren bidea irakasten ari zitzaion (GR), irakasten gaituzte (LEIZ.), Gaitziturik zeren irakasten baitzuten populua (LEIZ. Ap Ak 4,2).

elaberriak ez zuen arrakastarik izan **IRAKURLEGOAREN** artean: irakurleen artean (O, G, KA), leituten deuren artean (IN).

notizi ori periodikoari **IRAKURRI** diot (EL), Don Pedrori ikasi diot (Eibar).

a. Napoleonen **IRAULTZA** / b. Napoleon iraulia ~ Napoleon(en) iraultzea.

euskara **IRAUNGO** da beti: euskerak beti iraungo du (O, IN, G, KA), gerlak hanitz urthez iraiñ zian (AL).

haurrak bizirik **DIRAU** ~ / **segitu**.

jaiak hiru eguneko **IRAUPENA** izango du / **abstrakto** / **zail**: jaiak iru egun iraungo dute (O, IP, G, KA, S).

isilik **egotea** / isilik **IRAUTEA** (lehenago ere isilik zegoen).

IREKI / **zabaldu**: **Gasolinategia**. **IREKIA** ~ lanean ari dira (G).

IRIN zaku batekin talo asko egiten genuen / **tomate** (zaku).

IRION: **Irion** aditzaren forma batzuk *galdu egin dira*. Gramatikatik ikastea merezi du.

A. 1. a. odola narion nago (S), odola narixola nago (IP). b. txistuba daiotala nao (O). d. odola dariola nao (IN, G, ID), mukia dariola nago (AM). 2. a. txistuba daiozula zaude (O), beha, aho-urina darian! (GR). b. kakak dariola hago (AM), zu odola dariola zaaz (IN, O). 3. hagua dariola dago (LAN), odola darixola dago (IP, EL), malkoa dariola dao (IN), erdea dariola dago kokotsean beiti (AM). 4. kaka dariela daude! (O). B. odola jutun zat (O), odolak erteteizu (O), erdea diokizu kokotsetik beiti (G). D. malko arraka dago (G), erdea arraka kokotetik beiti (S, G), odola arrakan nago (S, G).

*Zuloz beteriko ontzi bati ura **dariolaka** ir-

teten zaio: zuloz beterik dago eta urak erteten dio ontzi horri (O), jarria dauka ontzi onek (O, G), ontziak ziloa du eta ura galtzen du (KA), ontzi au zulatua da eta ura dariion dago (S).

Kendu IRRATIA / **itzali** irratia: a. **kendu** ortikan radio ori (IB, ID, G, S), radioa aldatu beste aldera (G), aldarazazu hortik radioa (KA), kendu zazu hori katuaren **menetik** (KA). b. **itzali** radioa (G, AM, O, S), amatau (IN), ematau (EL), hilaizu radioa (KA), radioa pitz / eho ezazü (LAR).

Leconte **IRREGULARRA** da / **arratzak**. zure ustez zein da **IRTEERA**? / (lau) **posibilitate**: zure ustez zein da irtenbiderik onena? (O, ID, G), zure ustez zein da emen urtenbiderik onena? (IP), aterabiderik hoberena? (KA), orrek ez du erremiorik (G).

lantegiko **IRTEERA** ordua zen: gelditzeko ordua zen (AM, S), lantegitik irteteko ordua zen (O, IN), lana uzteko ordua zen (G, O), lana uzteko garaia (O, G), bearrari izteko ordua (IN), gelditzeko tenorea da (KA), lana uzteko tenorea da (KA).

IRTEN da / **erten** du (irten, urten): urten dau (IN, IP), erten du (O), urten jako (EL), urten da (EL), ateratzen da (KA), jalitzen da (KA), etxerik elki da (LAR).

ez zarete biok arrantzan **IRTEN**? ez zerate arrantzara jon? (G, AM, KA).

gaizkilea Sunbillatik **IRTEN** erazi zuten: biali egin zuten (G), bigali zuten (S), igorri zuten (AM, KA), bialdu zuten (O, ID), errotik bota dute (S).

aurrera **IRTETE** nahia ez da txarra: aurrera erten nahia (O, ID), aurrera urtetea gura dau (IP), aurrera urten gura dau (IN), saiatzen da orixe aurrera atera naian (G).

¿ahora sales con estas? ■ orain hauekin **IR-TETEN** haiz? / (ateraldi) **bakoitza**: ori da ateraldia! (O, ID, G), ori ere badugu? (G, O, ID), horrek eman dizkigun azak! (O), arrazoi motza eman du! (O).

IRUDI / **iduri**. *parece que soy bueno* ■ ni ona naizela **DIRUDI** (ematen du, irudi du): nik ona dirudit (GR), nik ona naizela iduri dut (KA, S), nik ona naizela ematen dut (G, O).

parece que eres tonto ■ **zu** ergela zerala **DIRUDI** (ematen du, irudi du): hik ona dirudik (G, O), zuk ergela iduri duzu (S, KA), zuk ona ematen duzu.

Lorena ona dela **DIRUDI**: Lorenak ona dirudi (G, O), Mirenek ona dela dirudi (G, O), eskuarak pobre dela iduri du (KA, S), katuak jaten ari dela dirudi (G, O), badirudi Irenek ona dela (G, O), orai badirudi euskarak ahalke dela (AX 10), hipokritak kanpotik baitirudi saindu (AX 330), Idoiak ona ematen du (EL, O, G), Idoiak ona dela ematen du (G, O, EL).

zuek onak zaretela **DIRUDI** (irudi du, ematen du): zuek onak dirudizue (GR), zuek onak iduri duzue (S, KA), zuek onak zaratela iduri duzue (S, KA), zuek onak ematen duzue (EL, O, G), zuek onak zeratela ematen dezue (O, EL, G).

BADIRUDI Laida eta Irene onak direla: Kattalinek eta Itziarrek onak dirudite (GR), Julenek eta Josebak badirudite onak direla (GR), Igonek eta Izaskunek onak direla dirudite (GR), Jaionek eta Mireiak onak ematen dute (EL, O, G), Leirek eta Amaiak onak direla ematen dute (EL, O, G), Maitek eta Patriziak onak direla iduri dute (KA, S, AM), gizon horiek üdürri dizie eñherik diela (LAR), Leirek eta Joanek on itxurie daukabe (O).

*mutilxoak oso bakarrik **ZIRUDIEN** ~ oso bakarrik zegoela zirudien (O), bakarrik dagoen itxuria deuko (IN, O, G), haur horrek bakarrik dela iduri du (KA).

*lanerako prest **DIRUDI** ~ iduri du lanerako prest dagola (AM), iduri du laneko prest dela (KA), lanerako prest dagola dirudi (O), borrokarako beti prest daola esan lei (IN), borrokarako beti prest dola ematen du (G).

gaiztoa zabela **DIRUDI**: iduri duzu ez duzula minik senditzen (ITS), Üdürri düzü hun zirela (AL), gaiztoa zirela irudi duzu (KA), ona zaren itxuria daukazu (IP).

zer **DIRUDIK** hiri? **1.** zer iruditzen zik? (G), zer iruditzen zauk hiri? (KA), zer erezten deutsek? (IN). **2.** hik ona dirudik (O, G), ona zabela ematen duzu zuk (S).

zozoa **DIRUDIK** ~ zozoa irudi duk (AM,

KA), zozoa ematen dek (O, G), zozoa zarella ematen duzu (S).

parezco bueno ■ ona dirudit ~ nik on itxuradet (O), nik inteligentia nizela iduri dut (KA), ona ematen dut (O).

han dagoela **DIRUDIT** = *parezco*: an dagoela iruditzen zait (G, AM, O), an dagola dirudi (G, ID, O), han dela iduri du (KA), nik ona dirudit (GR).

¡Ya me parecía a mí! ■ **IRUDITZEN** zitzaidan niri! / **esaten** (nuen nik).

ZIRUDIENEZ, neskatxarrik ederrena omen zen: neskatxari ederrena omen zen (O, EL, G, KA, S).

IRUDIZ / **itxura** (lotan).

IRUZUR / **enganiatu**.

lo pasé en silencio ■ **ISILEAN** iragan nuen: ixilik utzi nun (S, AM), ixilik pasau nen (O), ixilik gelditu nintzen (AM, IN), nere baitan pasatu nun (G), ixilik egon nintzan (KA).

BEREIZ: **1.** gauzez **ISILKA** ibiltzen da (= izkutuan, gordeka) (EG, G). **2.** gauzez **isilik** ibiltzen da (soinurik, hotsik atera gabe) (EG, G).

*Herri batasunak **isilka** egin du kale-agerpidea (manifestazioa): ...isilik egin du... (EG, G).

larderiaz **ISILERAZI** nion / **arazi**: larderia-turik isilarazi nuen (KA), isilazi nuen (AM, O, G).

andreagandik **ISILPEAN**, alde egin zuen: andrearen isilik alde egin zuen (O, AM, G), andrearen isilean i oan (IN, O, KA), guarda(re)n ixilka ies egin zun (S), iendearen ixilik (AX 263), beren etxekuen gordailuz juan zan (AL), emaztearen gordaxka jun züzün (LAR).

-**ISTA**, -**iko**: **a.** sustantibo □ txirrindulari: *ciclista*; txirula **jole**: *flautista*; naturaleza **zale**: ecologista. **b.** izenlagun □ *novela histórica* ■ kondaira elaberria (romana).

zakurrek eta abereek **ISTINTO** handia dute: sumo andia (AM), sen aundia dute (O), arratoñak arrapatzeko usma aundie dute katuek (AM), mandoek usma aundia dute (AR), zakurrek eta abereek suma aundia dute (S, G), astoak suma ona du (G), zakurrek asmu handia dute (KA), kabaliek badizie bere ganua (LAR).

berebil barruan bi gizon **ITOAK** zeuden ~ / **gerundio** / **gorpua**: itoak zeuden (G, AM), itota zeuden (O, IN), itorik ziren (AL, KA), bi gizon itoak arrapatu zituzten (S, AM, G), itota billatu zeuden (O), itorik atxeman dute (KA), itota agertu de Olatz (IN). beroa **ITSATSI** zait gorputzaren pluetara: gorputz guzin zabaldu zait berotasuna (G), gorputz guztia berotu zait (O), plugu (= usai, ohidura) gaiztoak hartu ditu (KA), iguzki onekin arront berotu naiz (S), bero onekin lapa egin naiz (S).

ITURRI onetik jakin dut: bide zuzenetatik jakin dut (O, ID), bide zuzenetik jakin dot (IP, ID), toki ~ bide seguritik ikasi dut ori (G), leku seguritik (KA, LAR), leku seguritik (S).

teilatutik **sortutako ITURRITXOAK** asko ziren: tellatuko istillak (kanpokoak) (O, ID), itukin (etxe barrukoak) (O), tellatuko itotiak (barrukoak eta kanpokoak) (G), ituxura (S), itaxurak heldu dira (KA), hegatzeko txortak (LAR).

azkoitiarrak irabaztea **ITXARO** dute: azkoitiarrak irabazi egingo dutelakoan daude (O, EL, G), irabaztea etxoten deure (IN), partida irabaziko dutela esperantzan da (KA), azkoitiarrak irabazi egingo dutela uste debe (O, IP, EL), ...irabaziko deben esperantza badebe (O), irabaztea espero dute (G).

hau nire **KOIDATA** izango da ~ au nere koñata gaia da (O, IN), nire koñata bearra (S, A, G, KA), koñadu bearra (G, S, AM), koñado gaia (O, IP), koñatu geie (IN), kũñatagei (AL, KA, LAR), Irene da espos laguna beharra (ITS).

herdea dario **KOKOTSEAN** / **irion**.

KOLA handiak zeuden zain: errenka aundiak zeuden zain (O), kotxe pilla galanta, ikusgarria (ID), jende pilla ederra zegoen zain (O, G, EL), kotxe pilla izugarria (ID), kotxe illera aundia zegoen (O, G), neska mordo bat errillan zegoen (O), iladan parauta (IN), illaran (ID, G), neska mordo bat illeran zegoen (O), neska multxo bat lerroan ziren (KA).

aurpegiak gorri **KOLOREA** hartu zuen: aurpegia gorritu zitzaion (AM), kolore gorritu da (S), gorri gorri egin zen (G, O, KA), koloreak gorritu zitzaizkidan (O, AM, IN), musu(a)k gorritu zitzaizkion (O), gorritu egin da (IN, O, KA).

KOLOREA galdu zuen Onintzek: kolore guztiak joanda zegoen (O, G), kolore guztiak ganak ditu orrek (AM), kolorea pasauta

parau zan (IN), kolore danak gorritxutta, zurituta deuko (IP), orretxek zurbildu ederra artu du (O), zurbildu da gogotik (O), zurpaildu da (KA), nola ziritu den! Zerbait ere pasatu zaio orreri (S).

aurpegiak berde KOLOREA hartu zion: asertu eta berdatu zen (AM), kexatu eta perdatu zen (KA), arpegi berdea jarri zitzaion (G), koloreak oritu zitzaizkion (O).

solairua **zuri KOLOREAN** pintaturik zegoen: zuri pintauta zegoen (O), solairua zuriz pintatuta (G, IN, S), murrak zuriz tindatitak dira (KA).

alkondara **KOLOREDUNA** zeukan: kolorezko alkandorea (IN, O, IP), kolorezko atorra jauntzi zuen (AM, KA) ~ soinean ezarri du (KA), koloretako alkandorea (= kolore bat baino haboro badu) (IN, G, O). eguzkiak ez dit **KOLORERIK** ematen (G), eransten (O), adirazten (S), guti adirazten dit (S), eguzkiak ez nau bezten (AM), eguzkiak ez nau beltzatzen (KA), ekiak ez nau beztu (LAR).

no hay ni color ■ ez dago **KOLORERIK** ere / **konpara** / **antz** / **diferente**: 1. ez da onen mallakoa, ezta **alderatzeko** ~ alderatzeorik ere (G), emen eztago orrena alderatzeorik (O), ez da alderatzen arentzako (G), ezta orren parekoa, ezta alderatzeko ere (G). 2. **alderdi** ederra daukate batak eta besteak (G). 3. **antzekoripez** (IN), alkarren antzik ere ez dute (O), antzik pez (IN). 4. oso **desbardin** dira (AL). 5. ez dute elgarren **eiterik** (KA). 6. pollita da bena ez **hillanik** ere Maitexa bazaiñ ejer (AL), hurbiltzeorik ere ez (S), urrik emon bez! (IN), emen eztago orri ur emateorik (G, O), ez hurranik ere (ITS), ori ezta asko arena urreratzen (O), ez eta urreratu ere (O), urretan bez! ez eta urrik emanik ere (O, G), urri pez! (IN), arek oni laxterkan ez zion urrik ematen (O). 7. ez dira algar **irudi** (LAR).

KOLOREZKO jantzia: gorria, urdina, berdea, horia... (IN, O, AM, MO, S, G, KA), beltza, grisa, zuria... ez dira kolorezkoak.

dorreak **gris bizi KOLOREZKOAK** ziren: dorreak gris grisak ziran (O, KA), gorri bizia, urdin bizia, berde bizia (O), gris, beltza, zuri, ubela, more: hauekin ez da **bizi** erabil-

tzen (O), ori il illa da / ori fuertea da (O), arront grisa da (S), arront gorria da (S).

korbatu **KOLOREZKOA** zeukan: kolorezko korbatu (O, IN, AM, IP, G), (krabata) (KA).

KOLPEA tira baña ez omen zuen arrapau joztzeko (O, G), ukaldi bet eman zion (AM), eskukhaldi bat emaitera dua (AL), ezpata khaldü (AL, LAR), eskukaldi bat eman alhorrian (LAN), aizkora ukhaldiak (ITS), bizkarrean makhila-ukhaldika (ITS), harri ukaldika ari da (KA), pello kolpatu (egin) zuten (AM, KA), haixtur ukaldika (ITS), golpia tiratu nion biño ez arrapatu (S).

leihoa **KOLPEIATU** zuen: leiho joka ari zen (O, G), ate joka ai dire (AM), leihoa joiten ari da (KA), athea atheari darauntsanean (AX 29).

elkarri **KOLPEKA** ari dira: alkar joka dabil-tza (G, O, AM, IP, KA, ID), joka ari dira (S), alkar kolpeka dabiliz (IN).

no dais ni golpe ■ ez duzue ezta **KOLPERIK ematen**: ↗ alfer.

haren **bizikarra jo** zuen **KOLPETXO** batzuez: zanpa zanpa egin zion bizkarrean (AM), bizkarrean jo zuen (S, G, O), bizkarrean joz balakatu zuen (KA), laguna bizkarrean balakatu zuen (S), bizkarrean jo du (KA), laguna ~ zakurra bizkarrean palakatu (G), laguna lepagañean jo zuen eskuakin (O, G), bizkar gainean jo zuen (AM).

KOMENI zaizu hori egitea ~ ↗ **merezi**: on duzu hori egitea (ITS, AM, LAN AL), balio du horren egitea ~ egiteak (KA, LAR). haurrentzako zine **KOMIKOA** eman zuten: farreegiteko zinea (AM, S, O), filma hori irringarria da (KA), zapartingarria da (KA), barre eragiteko pelikula da (EL), parrera egiteko (IN, G, O, S), irriarzteko filma (KA).

KOMULGATU duzu gaur? ~ komekatu naiz (AR, S), komümiatü niz (AL, KA), komulgatu ginen (O, IN, S, G).

gauza bat daukate **KOMUNA**: gauza bat daukate berdiña (O), (dute) (KA), gauza berdiña daukate oiek (G), gauza bera (IB).

Poloniako **KOMUNIST** Alderdiak ez ditu **erradikal** elkarteak onartzen: Poloniako Alderdi Komunistak ez ditu elkarte erradi-

kalak onartzen (O, KA), Poloniako komunisten Alderdiak (O, ID).

ba dirudi **KONBENTZITU** diodala: badirudi konbentzitu dudana (EL), iduri du konbentzitu dutela (AM), badirudi konbentzitu duela (IP, ID), esa lai konbentzidu otela (IN), iduri du konbentzitu zitutala (KA).

KONBENTZITUTA egon zaitez!: hori etsian egon! (O), orren etsia hartzen altzu. Ez da etorriko! (G), segur izan zite! (KA), segur düzü (LAR), seguru egon (G), segur izaiten ahal zira (KA).

ez daki **KONBERTSAZIOA** eramaten ↗ **adarretatik**.

KONBERTSAZIOA ebaki digu ↗ **solasa**.

KONDIZIO berdinetan taloa baino nahiago dut ogia ↗ **proporzioan**: aukeran ogia nahiago (G, O), berdiñean (G), aukera banuke... (AM, S), aukeran autatu bear ditut (S), hautu bat egitekotan nahiago dut hori! (KA), hautatü behar badüt, nahiago dü hori (LAR).

utziko dizut otoa, baina bihar itzultzeko **KONDIZIOAN** ↗ **-tekotan**.

KONFESATZEN dago (IB, EL), konfesatzen ari da (G, O, KA), konfesatzera joan da (O), konfestara joana da (S), konfesten ari da (S), konfesetan dago (IN).

KONFIDANTZA hartu zaitut ↗ **fidatu**: konfiantza artu dut zurekin (O), (daukat) (EL, G), (konfiantza gogorra) (S), horren baitan ,Terexaren baitan konfidantza ukan dut (KA), itato ari ziren alkarri (O), oiek itato jarduten dira alkarrekin (konfiantzan) (O).

KONJUNTOAN zenbat dira?: denetara (S, G, KA), oro har (ITS), orotarar (LAN, KA), danak jota (IN), denetara jota, zenbat balioko du orrek? (G), danera jota ere, zenbat kostako da, ba(da)? (O), geinera jota... (O), denera jota, zenbaten alde izango da ba! (O), guztira (EL), guztiz ogei bat izango zitxuan (EL).

KONOZIMENTUA galdu zuen ↗ **mareo**: A.

1. **akordua** joanta dago (G, S), akordorikan gabe zegoen (S). 2. **destrenpütu** düzü (AL, LAR). 3. **ezaguera** galduta dago (O, IP), ezaguera galdu zuen (O, ID), ezagutza galdu zuen (ITS, KA), ezagützia galdu du (LAR). 4. **ingoxatürik** da (AL), ingoxatü

düzü (AL, LAR). 5. **konorte** gabe gelditu eta ez zitzaion berealakaon ezaguera etorri (O), konortua joan zaio (S), konorturik gabe gelditu da (S). 6. **konturik** gabe da (G), kontua joan (G) / etorri (G). 7. **kordea** joan zaio (ID), kordea galdu / etorri (ID). 8. **trenputxartu** da (KA). 9. **zentzune** galdute dao (IP). **zentzurdatürik** da (AL, LAR), **zentzurik** pae gelditu da (U), **zentzu** galdu du (ID). B. 1. frango laster bere **baitaratu** zen (ITS, KA), bere beithalätü zenian (AL), memoria galdu du bainan berebaitatua da orai (ITS), berrebeitaratü da (AL), berriz jin da bere baitharat (KA), arrajin da (LAR). 2. **ezaguera etorri** zaio (O), bere ezaguera(ra) etorri da (IP), berriz jin zako ezagutza (KA), orano ezagütze osuan zen (AL, LAR), ezagutze betean da (LAR), ezaguera badauka; ezagutzen ditu denak (G). 3. **konortean** dago (ID), oraindikan ere konortatu gabe dago (ID), konortua etorri zaio (S, IP), konortea etorri (IN), aunitz gosta zaio konortua etortzea (S). 4. **kontua** etorri zio (G), asko koste zio kontua etortzen (G), oraintxe pixkot konturatzen ari da (G), ori konturatu da atzera (S). 5. **kordea** etorri zaio (ID). 6. bere **onera** etorri da (O), berriz oneratu da (O), arnasa ezin bueltatuz egon zen; gero etorri zen bere onera (ID), kosta zitzaion bere onera etortzea (O). 7. **zentzua** etorri dakio (U), **zentzunera** etorri da (IP). 8. **memoratu** da (KA). D. **bere(a)n** zegoan (G), ezagueran zegoan (O), etzegoan bere onean ori egin zuenean (ID), ezaguera onian dao (IP), bere baitan da (KA) ↗ **kasilletatik**.

KONPARAKETA: bai bata ta bai bestea, biak ziran onak (O), biak ziren onak, bat bezin ona bestea (G), biak ongi dira bat bezin ongi bestea (G), ongi daude bat eta biek ere (S), ongi dira bat eta bertzea ere (AM), bata ala bestea biak berdin ziren (KA), ondo dao bata nahi bestea (IN), naiz bata ta naiz besta (O), ongi daude naiz bat eta naiz bertzea (S, G), añen ongi zauden nola bat eta ala bestea (G), biak ziran langilleak nola bata ala bestea (O), untsa bata ala bestea (LAN), nola zeruan ala lurrean (Gure Aita).

ez **KONPARA Ainara eta Leire** ↗ **kolorerik ere** ↗ **diferente**: ez bardint ~ konpara Pierre Jonesekin (AL, O, G, AM, S), ezin liteke konparatu Ainara Leirekin (G), ezin liteke konparatu Arantza Sorkunderekin (O), ezin liteke konparatu bata besteagaz (IN), ezin liteke konparatu bata bestiakin (O), ez-tateke konparatu Ines Maiderrekin (S), bere buruak bere buruekin konparatzen dituztela (LEIZ. Kor II, 9,12), Eskritura sainduan konparatzen dira gristino onak harri preziatuekin (AX 93), hemengo sua hangoarekin konparaturik (AX 372), ez dago berdintzerikan Juan Pedrekin (G, O), Azpilikueta ezin daiteke konparatu Elizondoekin (AM), ezin konparatuak ~ konparatuzkoak dira Maitexa ta Patrizia (KA).

gaurko eguraldia diferentea izan da, aurreko egunekin **KONPARATUZ**: ezta legunetako moduko denborea (IN), ezta aurreko egunetako moduko egualdia (O, G), egungo denbora ez da azken egunetako bazalako (KA), aurreko egunetatik asko aldatu da egualdia (O), lengo egunetatik diferentea da gaurko egualdia (O), aurreko egunetatik diferentea da (O), gaurko egualdia atzokoa(re)n aldian beroa izan da (O), atzo baino beroago da gaur (O), atzoko aldian bero aundia da gaur (O).

berak ere gure ideia **KONPARTITZEN** zuen: ori gurekin bat dator (IP, O, ID, G), hortan biok bat gatoz (O), neu be orretan nao (IN), zeinen ongi eramaten dion haria (S), orregaz nao ni (IN), ori gugez dao (IN), batera joten dugu horretan (IN), ados niz (KA), neu be ere ortan nago (IP), akort niz zurekin (KA, LAR, AL), konforme (G, S), ipurdi batetik kaka eginez dabilizta (G).

KONPLOTA egin zuten, hura hiltzeko: 1. **abadearekin berarekin aditurik** (AX 249). 2. **a. aurretik berba** eginda egozan (IP), aurretik hitz egin dute (O), aurrezdi berba eginda dao (IN), aurretikan itz egiñak zian oiek (G), aurretikan itz eginda zeuden (O). 2. **b.** itz eginda egongo ziran oiek (O), itz egiñak ziren (S). 3. **aintzinetik egon** al ziren (AM). 4. **aintzinetik elestatü** zire (AL), antzintik solastu ziren (S). 5. **lenagotik el-**

kar artu zuten (S), aiekin alkar artu du (O), ekin elkar artuta dabil (AM), elkar artu dugu (S, G), elkar artuta zauden (G, O). 6. horren egiteko hitz hartu zuten (ITS, AM), hitz artuak dira horren egiteko (ITS, KA), lehenago haiekilari hitz arturik da (AL), üskaldün khartsu eli batek hitz artü die (AL), hitz artü lekhü batetara jua ziren (AL, LAR), harekin hitz harturik, aintzina jo zuten (ITS), bata bestiareki hitz artü ziren (AL, LAR), hitz artu zuten elgarrekin haier guzier jazartzea (LAN).

haserretu egin da. (Er.) Hor KONPON bere haserrea: hor konpon! (O, AM, S), ibal ~ berdin zaut (KA) / inporta.

KONPONDU: 1. horiek elgar ongi aditzen dute (ITS), ez dugu biek elgar aditu (ITS, KA, IN), ez dute elgar aditzen (ITS), alkarrekin ondo aitzen dira (IP), bi oiek ongi / gaizki aitzen dute elkarrekin (AM), horrik arkalegaz ondo aituten dire (IN), biek bietara ondo aituten dira (IN), Jon eta Miren ondo aituten dire (IN, IP), aregaz ez zen aituten (IN), aregaz txarto aituten zan (IN). 2. zeinen ongi artzen dioen adrendua (= el carácter) (S). 3. elgarrekin untsa akoma(d)atzen dira (KA). 4. ongi antoltzen dira elgarreki (AL, ITS), Piarresekin ongi antolatzen da (ITS), elgar ahal bezen ongi antolatzerat eginen dugu (ITS). 5. ez dira arrolatzen (AL), untsa arrolatzen dira algarreki (AL), algarrekin untsa arrolatzen dira (AL). 6. orrek denekin asmatzen du (O, ID). 7. ongi alkartzten dira (G), ontsa algarretzen dituzu (AL). 7. algar untsa entzuten die (AL, KA), algar untsa entzütien die (AL), ez dira algar entzütien (AL). 8. katuak eta zakurrak ez dute alkar ongi eramaten (G), Silberio Anabelekin ongi eramaten du (S). 9. ez dira elkarrekin ongi heldu (S). 10. ez dira untsa jiten (AL), nirekin ez da ongi etortzen (G, U, O, ID), Silberio Anabelekin ongi etortzen da (S), alkarrekin ongi etortzen dira (G, O, U), ni ez nator orrekin ondo (O), ni ez naiz orrekin ongi etortzen (G, O, U, ID). 11. arekin ez zuen ongi artzen (AM), katuak eta zakurrak ez dute alkar ongi artzen (G), elkar ongi hartzen dugu (AM, S, G, O), ez dute

elgar untsa hartzen (KA, LAR), oiek elkarrekin arront ongi eldu dire (AM, S), horrekin gaizki hartzen zuten (AM). 12. alkarrekin ondo konpontzen dia (O, AM), Maite izebarekin ondo konpontzen da (O), denekin ongi konpontzen da (O, AM, ID). 13. ez dira algarreki kurutzatzen (AL, LAR). 14. ez dira horiek elkarrekin ongi moldatzen (KA).

haginak KONPONTZEKO beharrik ez du izango ~ ez du agiñik konpondu bearrik (AM, S, G, O), agiñak konpontzeko beharrianik (IN).

tú nunca nos has comprendido ■ ez diguzu inoiz KONPRENITU ~ zuk ez gituzu sekulan konprenitu (KA), orrek ez gaitu entenditzen (S), horrek ez digu entenditzen (G).

horrek KONSEKUENTZIAK ekarriko ditu: orrek ostea deu (IN), orrek ekarriko du ondorioa (AM, KA), ondorea (S, G), ondorena (O), ondorenak (ID), horren ondoamena badükezü (LAR).

KONTADURA pagatu zuen: eskura pagatu zuen (O, IN, AM, G, KA), eskuz esku pagatu (S, KA), eskutik eskura pagatu (KA).

KONTATU batzuk bakarrik etorri ziren / sueltos: bakar batzuk bakarrik (S, AM), zombait bakar jin dira (KA), lagun banaka batzuk (G), bakar batzuk baizik (KA), banaka batzuk (O), bakar batzuk bakarrik gelditu ziran bizirik (O), batzuen batzuk etorri dira (O), ale bakar batzuk (O, ID), ale batzuk (G), sagar banaka batzuk (G), ale banaka batzuk (G), ale banaka batzuk (O, ID).

guztia Peru Abarkarengandik KONTATUKO digu / por: Peru Abarka ikuspundutik.

ispilu aurrean kontenplatu zen: ispilluari begira jarri zen (O, IP, IN, ID), dago (S), mirailari beha dago (KA).

KONTESTUA nola da?: nola dator orren segida? (O, G), nola da horren segida? (KA), horren ingurupena nola da? (KA).

hori KONTESTU horren barruan dago: itzuli huntan da hori ere (KA), horren itzulian da hori ere (KA), aurretik nola dator? (O), atzetik nola dator? (O).

gogoz KONTRA egin zuen ~ / gogoa: gogoz (are)n bortxara (S), gogoz gainti (AL, LAR), gogon kontra (G), gogoaren kontra (KA, AM), gogoain kontra (AM), gogoz kontrara (IN, EL O), etsi etsian jan zuen (O), gogotik ezbazuen, gogoz garai eginen zula (LAN), gogoz garaitik (LEIZ. Hebr 13,17).

hormaren KONTRA jo zuen ~ pareta jo zun (G, O, S), ormea jo dau (IN), paiten kontra jo zuen (ID, O), kotxea paretaren kontra joan da (S), bihurtune gaixto batean, ustegaberik murru bat kontra joan zen otoa (LAN, KA), arbola bati kontra gelditu zako otoa (LAN).

gorrotoa al zion? (Er.) KONTRARA, oso maite zuen: ...Aitzitik, oso maite zuen (ITS), ...Bai zera! Bestera, oso maite zuen (O, KA), bestaldera (KA), eztira trailla, aitzitik... atsegin hartzen da (AX 315).

batzuk alde zeuden, beste batzuk KONTRARA: kontra (O, G, S, IN).

KONTRARIETATEAREN itxura adierazi zuen / abstrakto / zail / notatzen: aserre zegoela adierazi zuen (O), kexu zela erran zuen (KA), asarre zegoela antzemanten zakon (O), aserre zegoela igartzen nion ~ igarri zun, nabari zun ~ ezagun zun (G), aserre egoala igitzen jakon (IN), aserre dela nabari du (S).

Jone ederrago da, Olatzekin KONTRASTATUZ / konparatuz.

KONTRASTE bitxia ikusi zitekeen pertsona bi haietan / diferente.

Jon bikain zen, Peru KONTRASTEZ oso itsusi: ...Peru, aldiz (ITS, KA), Peru, berriz (O, G), ordea (O), ostera (EL).

bere buruaren KONTROLA galdu zuen / kasilletatik.

Ia Irene hobeki KONTROLATZEN duzuen / kontua (horrekin).

morroiak nagusiaren KONTROLPEAN zeuden / monagillo: morroiak nagusiaren esanetara ~ mendean zeuden (O, G, N), dabiliz (O, G), sehiak nagusiaren menpean daude (KA).

larogei urte baditu, baina ez da zaharra KONTSIDERATZEN: ...ez dau pentsetan zarra danik (IN), ...ez deuko bere burua za-

hartzat (IN), ...ez dauke bere burua zagartako (AM, S), ...ez du bere burua zartzat jotzen (G, O), ez du bere burua zahartzat hartzen (KA).

gasolina gutxi KONTSUMITZEN du: esantza guti erratzen dü (AL, KA), erretzen du (AM, S, G, O, IN), erretan dau (IP), ze erretzen ote duen gasolinatan (O, ID, G), zenbat litro gasolina erretzen du? (S, G, O), zenbat pinta esantza erretzen du? (KA, AL).

bere KONTSUMISIOAK zutik egiten ari zen: zutik ari zen edaten (O, G, KA).

hori nire KONTU! (ID) / (ardura)-pean.

KONTUA horrekin!: 1. begiari edukitzen ez-pazaika begia (AX 256), jendarmer begia eratxeki (AL), horri begi atxik! (ITS, KA), begiez kontu eduki (AX 256). 2. kontuz orrekin! (O, EL, G, IP), kontuz ibilli! (O, G, AM), kontu aundia (a)txiki bear da orrekin (AM) ~ eduki (S), orrekin kontu aundiagokin ibilli (G, O). 3. kasu, kasu, urdandegi batean etzaten diren zerriak dira horiek! (S), hemen kasu emanez era(b)il (KA). 4. ez artu txantzik (AM). 5. ez fiatu! (S, G), ez fida horri! (KA), kontuz ibilli; ez fixau! (IP). 6. ia gero! (G).

¡cuidado, al andar en coche! ■ **KONTUA**, kottez ibiltzerakoan: 1. kontukin ibili (S), kontukin ibilli orrekin! (S), kontu aundirekin (G, O, ID), kontuz ibili (G, O, IN, ID). 2. kasu aundikin (AM), kasü zien osagarriari (AL), kasu egin (S, AM), kasu eman horri (ITS), kasu egin ozo ebiltian (AL, KA). 3. burua ibilli behar da (AM). 4. erne ibilli (G). 5. emen zazpi begiekin ibili behar da (KA). 6. zazpi izpiritu behar dira haur horrekin (AM). 7. zazpi zentzuekin (AM), zeren sentidu guziekin ibilli bear duzu (S), zentzuan ibilli behar da (AM), zentzunaz ibilli behar da (IP), zentzu zentzu ibilli behar duzu kotxez (AM). 8. begirauzu eror! (ITS).

date cuenta!: eman KONTUA! / imaginatu: kontuak atera (IN, S, AM, G, O), pentsa zak! (KA).

ezazu sinets! KONTUAK dira (G, IN), ...Ipuinak dira (IP, O), kontu oiek ez sinetsu! (ID), etzaitzte kontu oiekin neregana

etorri! (O), etzazula sinets! Erran-merranak dira (KA), oiek erranak dire, bertze gauz frankon gisa (S), oiek ez sinistu; txorakeriak dira (G).

hori **KONTUAN** harturik (O) ~ kontutan hartu (AX 393, IP), kontutan artzekoa da (ID, G), hori gogoan hartu behar duzu (KA), ori kontun ongi artu bear da (S, IN).

bere **KONTURA** utzi zuen zigarroa: 1. bere **baitatik** utzi du zigarroa (AR) (baitarik) (KA, LAN), bere baitetik etorri de (AM), nire baitetik ari naiz lanean (AM). 2. **berainez** (AL). 3. **berartarik** (AL). 4. **a. nere burutarat** (KA). **b. nere burutarik** ari naiz lanean (S). **d. bere burutikan** egin du (S), bere burutik etorri de (AM), ez naiz neure burutik mintzo (AX 140). **e. bere buruz** etortzen da behia (S, G, AR), bere buruz ari da lanean (AM), bere buruz egin du (S), nere buruz egin dut (G, O, KA, S). 5. bere **gisa** utzi du zigarroa (G). 6. bere **gogoz** (O). 7. bere **kasa** (O). 8. tristura hura bere **nahiz** eta borondatez... hartzen baitu (AX 323). 9. bere **ogüz** (AL).

1. bere **KONTURA** ari da lanean (O, ID), lanean bere buruz ari da (S). 2. bere **gañin** jarri da (S), bere gain ari da lanean (AM, S). 3. bere **buru** ari da (AM). 4. lana beren aldera hartu zuten (S).

OHARRA: 1. **KONTURATU** naiz etorri **denaz** (= *del que ha venido. Pedro da*). 2. **konturatu** naiz etorri **dela** (= *que ha venido*). 3. **konturatu** naiz etorri **zarenaz** (*gaizki*). 4. **konturatu** naiz etorri **zarelaz** (*gaizki*).

*konturatu dira zer egiten **duenaz**: konturatu dira zer egiten duen (AM, S), konturatu naiz, zer egiten ari diren (G, O), (ohartu) (KA).

*bere eritzia aldatu egin beharko **zuelaz** konturatu zen: iritziz aldatu bearko zuala konturatu zan (O), dirurik ez zuela konturatu zen (S, G, O) (ohartu) (KA).

*gezurra esaten **zuelakoaz** konturatu zen / **notatzen**: gezurra esaten ari zela konturatu zan (O), (ohartu) (KA, S), ...antzman zion (O), igarri zion (G), guzurre esaten egon zala igirri nauntsen (IN), hatsa gezurra du gizon horrek (KA).

KONTUZ zure argiei: kontuz zeure argiekin! (O, ID, G), itzali argiak! (S), kasu eman zure argiari! (KA), kontuz zure argiekaz (IN), kontu zeure argiei! (O), kontu argi oiei! (O).

cuidadito, eh! ■ **KONTUZ**, el: ia gero! (O), kontuz gero! (S), begira, gero! (G, AZ), ez gero erori! (G, O), joko zaitut, gero! (G, O), ori ez egin, gero! (G, O), kasu, ez in ori! (AM, KA), kasu, min artu gabe! (AM).

haiekin **KONTXABATU** da / **konplot**.

KONTZENTRAZIO guziarekin egin zuen: arreta guztia jarri zuen (O), ardura guztiakin egin euen (IP, IN), alegin guztiakin (ID, G), al zun guzia egin zun lan ura egiteko (S), arta guziarekin egin zuen (KA).

KOPA bat hartuta dago / (pixkat) **mozkortu**.

patxaran KOPA bat edan zuen / **botila**: kopa bat patxaran edan zuen (AM, S, G, O), kopa bat txanpañ edan zuen (AM, G, O, IN, S), tanta bat koñak (AM), godalet bat txanpaña edan zian (AL, KA), botoila bat txanpana kado emana (LAN, KA).

KOPURU. Sarritan sobran dago hitz hau euskaraz.

*ardien **kopurua** jaitsi egin zen: ardiak gutxitu egin debe (O, G), ardi gutiago da (KA), ardiak seitik bat bakarrik gelditu da (O), ardiak ugaldtu egin dira (O), ardiek berarratu (egin) dire (AM), geitu (egin) dira (S), ardiak gutxitzen ari dituzte baserri ortan (S).

*irakurle **kopururik** handiena hor bizi da: irakurlerik gehienak hor bizi dira (O, G, S).

horiek **KORDA** berekoak dira / **antza**: ari berekoak dira (S), soka batekoak dira (O, G), soka batetik dijoaz (O), oiek elkar artuko dute, bai; orepil bateko taloak dira (G), ore bateko opillak dira (O), orepil bateko taloak dira oiek (G), Antso ta Mantso denak igualtso (S), oiek ore pilota batekoak dira (G), ore bereko opillak (KA, S), egur bateko ezpalak dira (O).

KORRIKA joan zen ~ laisterka (O, LAN, KA), antxintxinka (EL), ariñeketan (IN).

gelak **KORRITU** zituen / **kalea** (korritu).

kale guztiak **KORRITU** zituzten / **kale**.

ha corrido el rumor ■ zurrumurrua **KORRITU** da: zabaldu zan otsa (O), ola moduzko zurrumurruek daude (G, O), zurrumurrua ba dabil (IN, IP), alako zurrumurruek dira (KA), burrunbori edatu da (S), badao zurrumurrue (IN), kontu ori zabaldu da (G), zurrumurruek badira (KA), ala diote (KA), jenden errana da (KA), aipu da jin dela (KA), zurrumurrue ori zabaldu omen da (O, IP), usu aipatzen dute berri ori (KA), egunetik egunera zabalitzen ai dira (G), aotik aora dabilta (O, IN), aoz ao dabilta (O), bulla badabile; zer zirimurrue badabile (S).

jantokitik **zehar KORRITZEN** hasi zen / **zehar**: jantokian ibiltzen asi zan batera ta bestera (O, G, IN), jateko lekuan harat honat ari da (KA).

KOSKA / KOXKA / KOZKA: 1. mahai honetan koska asko da (ID, O, EL). 2. hor dago koxka (ID, EL, O) (= kontua, untzea) (ID, EL, O). 3. ezparak kozka egin zion Loreari (= hozka) (ID).

KOSTA: *Españolezko costar bitara adieraz liteke, beti egiten ez bada ere.*

a. costar dinero: oso garestia da (IB, S, ID, O, MO), asko kosta da (G), asko kostatzen da (IP, IN, O), zenbatean erosi duzu? (O, G), zenbatekoa da hori? (GR), zenbat egiten du esneak? (EG), zenbat balio du horrek? (ID), honenbertzetan saldu du (AR), milla errealean erosi zuen (ID), ze prezio egiten du? (ID), prezio bizi antzekoa du (O), prezio gordin antzekoa du (O), behi horrek diru handia egin du (O), oso diru egiten du (O), bixiguak kanta ederra zeukan gaur (O), diru aundia egiten du (G), ba al dakizu ze diru egiten duen? (G), ze preziotan dago? (S). **b. costar, ser dificultoso**: lanak izan, neketsu izan...

*haur hau hazten asko **kostatu** da: ume au azteak lanak eman zizkigun (O), haur gostaria da au (S), ederki kostea da (G), ume au azteak eman zigun naiko lana (O), haur milunga bat da (KA).

*zenbat **kostatu** die?: eun pezeta kosta jata (IN), ogei duro kosta zaie? (S, O, G), kosta ziezü ehün libera (AL), amar milloitik gora koste omen da (= ha costado) (G).

*lan hori hori egitea asko **kostatzen** da: lan nekozua da (IP, O, G), neketsua da (ID), lan gaiztoa da (KA), «Ezeukan Mañasik lan makala izketan ari erakusten» (Kresala), lanak eman dit liburu orrek leitzen (G, O), nahiko lan eman dit liburu orrek leitzen (O), horren egiteak izigarrizko lanak emaiten dauzkit (KA), ori sinistiak lanak ditu (O), ari sinistek lanak ematen dizkit (O).

también el vender cuesta mucho* ■ saltzea ere **KOSTATZEN da: saltzeak ere lanak ditu (G, S, O, KA), lanak ematen ditu (ID), lanak izaten dira ura ixiltzen (O), naiko lana badago ura ixiltzen (G), predikatzea da erraznik. Obratzeak emaiten dauku lan (ITS), horren sinistek ere lanak ditu (ITS).

*etxe bat montatzea asko **KOSTATZEN** du: etxe bat ongi prestatzea aunitz gostatzen da (S), etxe bat paratzea garesti etortzen da (G), garesti da (G), etxe bat arrainatzea gostatzen da (KA), kostatzen düzü (LAR).

kosta **bezala KOSTATZEN dena**, egin behar da: kosta ala koska egin bearko degu (O), kostia kosta (O), zernahi kosta, eros ezazu (LAR), zonbeitek hemen egoitea hautatu dute, gostarik gosta (ITS), gostatzen dena gosta (AM, S), kostako dena koste (G), zer nahi gosta (ITS), nolanhika egin behar da (KA, LAN), zernahi gostarik ere, eros ezazu (KA, LAN), gostaia gosta egiten dut (KA), kostala kosta in bia da (IN), kostetan dana kostetan dala in bia da (IN).

KOTOR (= sendo) oso kotorra da (S, AM), gotor (LAN) / mengel, ahul (AM, S).

KOTORRA batek baino gehiago hitzegiten du: / **txismoso**.

KOTXEAN joan zan (O), otóz jin da (AL, KA, LAR), ontziz joan zen (AL, KA), zaldiz etorri da (O, G, KA), mandoz (LAR), itsasoz omen dijoa (O), udez omen dijoa (O).

KOTXIA (= kaikua, esnea biltzeko) (LAN, AL, KA), kotxia haguñez gainti da (AL, LAR).

KRISTAL ~ beira: beira bat ur (AX 264), beirazko untzia (AX 40), berinazko untzia (KA), Eta ikus nezan beirazko itsaso bat (LEIZ. Apok 15,2).

KRISTAU: Debako ibarraldean *kristau* = presuna, bizilagun.

txunditzeko moduko andre **KRISTORE-NAK:** kristoren andreak, jendea arritzeko modukoak (O, G).

KUADROZKO alkandora zeukan: alkandora kuadraua zeukan (O, IN, IP), atorra karrikatua (KA), atorra karrelazia (LAR), atorra kuadratua (S), alkondara kuadratua (G, ID).

ez ditu gitarra jotzeko **KUALITATEAK:** ↗ **abila.**

seguruak ez dio erdia ere **KUBRITUKO:** pagatuko ~ ordainduko (O, G, KA).

hor dago **KUESTIOA!:** ori dago ba(da)! (O, EL), orixe dago ba(da)! (O, EL), ori da kontua (IP), or dago untzea (IN), hori da afera (KA, LAR), hor da hori afera (KA), or dago kontue (AM, S, IP, AR, U, G, EL, O), hori da püntia (AL), or dago gorabe(he)ra guztia (O), or da koska (S), or da gako (ITS), hau da aferaren gako (KA), hortan da gako (KA), ori dago txarra! (O), hori daukazu! (O).

ongi **KUIDATU** hori! ↗ (Irene) **kontrolatzen:** elizea ondo jamonda dago (IN), ondo zaindu ori! (O), eliza biziki untsa atxikia da (KA).

oilarra **KUKURRUKU** bota du: ollarrak jotzen duenean... (O, G), ollarrak kukurruku jo du (O, LEIZ.), ...egin du (O), ollarrak kukurruku ederra, zatarra egiten du (O), oilarra kukurruka ari da (KA), «gure etxean kukurruku ollarrak jo beharrean oilloak jotzen dik» (S), ollarra kukurrukaka ari da (O), oillazkoak txutxurrutxu egiten du (O), horrek goitik jotzen du kukurruku (harro dela) (G, O), kukuak soiñua ongi jotzen du (G, O), kukia ari da kantuz (LAN).

horrek du **kulpa** ~ orrek du errua (O), horrek du hobena (LAN, ITS, KA), horren hogena zük düzü (AL, LAR), nik ez dut deus hobenik (ITS, KA), kulpa haren gain bota dute (G, O, S), ez du makur horietan deus hobenik (ITS), ez eman eni hogena (AL), enea da hobena (AX 1), nik ez dut deus

ikustekorik (KA), Seme bastartak berak ezto hobenik (AX 238), aphezak hogen hanitx ütziaren deio igaraitera (AL), hori egite badu ezta gure hoben izanen (KA), kulpa aren bizkar bota dute (S, G), (bekatua) (KA).

euskara **KULTOA** du horrek: euskera landua du orrek (GR).

Toma Agirrearen estiloa **KULTOA** da: ...oso landua da (GR).

KULTUR: azken aldiotan oso hartua da mugaz honuzkaldean. Gaizki hartua. Zazpi probintzietan herriak ez du erabiltzen. Idazle zaharretan ere ez da *kultur, literatur, arkitektur...* eta horien antzekorik ikusten. Alemanez ongi legoke.

↗ **arkitektur**, bihurdur, haundidur, kutsadur, literatur, tristur... fisik, karrik, matematik, kimik.

***Kultur** Mintegian izan naiz: Kultura Mintegian (GR), kultura kontuetan asko daki orrek (O, EL, G, ID, IN, U, AM, S), badi-tu mendian erostura sailak (O).

*Iruñeako **kultur** etxeak lan ederra egiten du: kultura etxeak lan ederra egiten du (G, EG, ID, AM, AL, LAN, ITS, MO, O).

*txinarrek eginiko **kultur** iraultza: kultura iraultza (GR), Udaletxeko kultura ekintzak txalogarriak dira (G, AM, O, ID, EG).

***kultur** arlo horretan lan egiten dute: kultura arlo orretan (IN).

***kultur** sail hori ezertan eduki behar dugu: kultura sail ori (G, O, AM, ID, EG, S).

*euskera **kultur** gaietara igoerazi behar dugu: euskara kultura maillara jaso bear degu (O), (irain) (KA), kultura mallan ipiñi behar da (IN).

edozer gauza emanda ere, **KUNPLITU** dugu harekin: aza jarrita ere, arekioa egingo degu (O, G), ...arena egin dugu (S, IP), ...orrena egiña dago (O, IP), ...harekilakoa egin dugu (KA), hori kado eman ezozü eta harenkilankoa fini! (LAR).

Bilboko **KUTSADUR arazoak** latzak dira ↗ **kultur** ↗ **fisik:** Bilboko kutsadura handia da ↗ **arazo.**

L

-LA.

*hain ona zen, denak maite zutela: denak maite zuten; ain zan ona (O), ...biño ura ona zen! (S), ain ona zen (S, G, IN, O, ID), ain ona zan, guztiek maite euen (IP), eniz estonutzen, haiñ hun da gizun hori (AL), uli bat adi ditake, hain da ixil ganbara (ITS), denek laudatzen zuten; gauzak ain ongi iten zituen (AM, O), etzezaken nihuntik ere bere lehen sehharra ahantz, hain zen gizon huna (AL), musu emango nioke, ain da zoragarria (O, G), ...alain ederra da (O).

*gogo onez hartu dute nik ikasketa horiek egin ditzadala: nik egin ditzadan (KA), nik ikasketa oiek egitea gura deure (IN), ondo artu dute nik ikasketa oiek egitea (O, G, ID).

*ordu da joan gaitzela: ordü da joan gitian (AL), ordu du joan gitin (KA), joateko ordua da (O, G, IB).

*gezurra dirudi hori egin dezala: gezurra iduri du horrek hori egiteak (S, O, G).

*ez zait komeni inor hemendik joan dadila: ez düzü hun nehor hebentik joan dadin (AL, KA), ez düzü ihurrentako hun, hebentik joaitia (AL), ...emendik joatea (S, O), ezpaiztan nahi ederragorik izan zain (LAN), hobe zela haur horiek berak hil zitzen (LAN).

*apostua egiten dizut, joaten naizela: apostua egiten dizut, joan baietz (G, O, ID).

*etxera nindoala ↗ **joatean** (etxera).

-LA / -ENA. «-LA»ren ordez «-ENA» erabiltzeko bi arau ematen dituzte *Arejita-Gamindek:* **1.** «-Ena»*dun perpausa galdegia ez izatea.* **2.** «ziurtasuna» *adieraztea edo esaldi errepikatua izatea.*

***-La / -enik.** Zenbait euskaldetan, *perpausa nagusia ezezkoa denean, -la-ren ordez -enik ipintzen dute. Honen antzeko egitura: hola-korik ez dakit nik.*

1.1. ez uste ori berez gertatu denik (O, IN, G, EL), ez det uste etorri denik (O, G, EL), ez dot pentsetan etorri danik (IN), ez nuen uste horren jatorra ziñanik (O, ID), nekez sinetsi zuen Jesus piztu zenik (UBILLOS), zala (O), ezta egia etorri danik (IN, EL), enaz konturatu etorri danik (IN, O, EL), ez naiz akordatu etorri danik (O, EL). **1.2.** izan da esan duenik (AX). **2.** pentzetan dot etorriko dala urrian (IN), etorriko dala uste det (O, KA), nola bururatuko zitzaion ba, erden bear ziola (O), ...zionik (O), ezta egia etorri dala (O, KA, LAN, LAR, G, S), ez dut uste jin dela (KA, S), enaiz konturatu etorri dela (G). **3.** ezta egia etorri dana (IN), badakit etorri dana (O, EL), jakiña etorri dana (EL, IB), badakigu ona zarana (IN, O, EL), egia da Madriken egon zerana? (EL), seguru nago etorriko dana (IP, EL, IN).

LAGUNDU: **a.** lagun **zakizkidate** (AX 3), elkarri laguntzen zaitza (AX 209), laguntzen baitzaika (AX 119), laguntzen natzaizuela (AX 327), laguntzen zaitzu (AX 320), lagunduko zaitzula (AX 294), arima ioanei laguntze zaiena (AX 146), untzira lagundu zaizkan (LEIZ. Ap Ak 20, 38). **b.** nik mendira lagunduko dizut (O, G, AM, IN, S), lagun zidazu, faborez (S, O), lagunduten deusat lapurretan (Peru Abarka), neskari laguntzera joan da (G), lagun zidazu mendira (S). **d.** harat joateko lagunduko zaitut (ITS, KA), nik lagüntüko zütüt (AL), lan

huntan lagünt nezazü (AL, LAR), elgar laguntzen dugu (LAN, ITS), lagunak laguntzen ditu (ITS), lagun nezazu lan horren egiten (LAN, ITS), neskalaguntzera joaten zen (O) ~ neskatarra joan da (G, O), Sent Antonik gaiza (= gauza) galdien hatzamaiteen laguntzen gütü (AL), haurrekin laguntzen gentuztela hiri lekorerano (LEIZ. Ap Ak 21,5), elkar launtzen dute (AM), laguna untsa lagüntzen dü (AL), nik lanian lagüntüko zütüt (AL), lanean laundeko zaitut (AM), mendira laundeko zaitut (AM).

(Eguraldia) Bihar LAINOTASUNA izango da / (zerua) **estalita**: erranen dut lainoki (con sencillez) (KA), lainotasuna (xalotasuna) (KA).

LAKETU: **a.** laket **zauku** erakustea zer ardie-tsi dugun (ITS), ez nintake hor lakhet (ITS), laketzen zira Xiberoan? (AL) ~ maite düzia Xiberoa? (AL), laketzen zira heben? (LAN, AL), ni Engalateran lake-tzen niz (LAN), ni laket nindüzün Larrañen (AL), horri laket zaio Xiberua (AL), espainoleri lakhetzen zaiote hemen (ITS), laketzen zirela heben? Bai. Laket dizit horren entzutea (LAN), hetan laketzen baitzaitzu (AX 71), laketürük zira heben? (AL), laketia niz aiherran (KA), jin da eta orozbat heben laketu (AL), biziki maite ukan dizit beti eztia bena gure etxian erleek etzizien laketu nahi (LAN), laket dira itsas-bazterrerrian (AL), laster laketuko da Landibarren (LAN), laketuko dea hemen? (ITS). **b.** iñon ere ezin du laketu orrek (S), laketzen duzu Sunbillan? (S, AM), ez du frantzian laketzen (AM, S). **d.** laket dizit horren entzutea (LAN), laket zuen irakur-tzea (ITS), seignoriatzea laket zaienek (LEIZ. Mark 10,42), hekin zuen lakhet (AX 352), halakoarekin guztiek dute lakhet (AX 195), laketago dut gasna (ITS), naiago dut gasna (AM, S), üdüri zien heben laket zirela (AL, LAR), arresa ezta laket bustian (AL), larretan beno laketago dirade oihan-pean arresak (AL), etzitazut hori laket (AL), laket zira Xiberuan? (LAR).

BEREIZ: **a.** -lako / **b.** -eta, bait.

a. galderetan -lako: Zergatik maite duzu Marta? Zintzoa delako (G, O, EL, IN). **b.** besteetan denak: zintzoa delako, oso maite du Deikunde ~ zintzo da eta ~ bait da (G, EL, O, IP).

-LAKO = jadanik aipatia duguna (KA), eri zelako gizona (LAN), egin dutelako etxea (LAN), delako Paputxin horrek egin du (KA), «Securite social» delako hortan sartu da (KA, LAR).

-LAKO: *Zeamuritik Goizuetaraino «etorri den berria zabaldu da» esaten da. Sunbillatik Larrañeraino, ordea, «etorri ~ jin delako berria».*

a. etorri den berria zabaldu da (G, O, ID, EG, MO, IB, IP), gizenduko zeran bildur-rak al zaude? (O), etorri dan barri zabaldu da (IN), Jaungoikoa il dan barririk eztao (IP), zeozer entzun dudana susmoa daukat (O), zerbait aitu dudala uste dut (G), zerbait aitu dutela iruditu zait (AM), ameriketatik etorri dan notizia artu degu (U), Jon Ameriketatik etorri den barri badakigu (IN, G), etorri den berri ori zabaldu (egin), da denin segidun (S), etorri den berria aitu dugu (S), etorri den berria jakin dugu (O), izan dugu berria, etorri dela (AM), etorri dan berria izan degu (O), etorri berria izan bear du (ID). **b.** «erran delako indartto hura bestetan enpleg' ezazü», etorri zelako berria edatu zen (S, AM), jin delako berria hedatü da (AL, LAN, KA, ITS, LAR), Zenbait granoz arin delako seiñalea (AX 270), egin dugulako berria hedatu da (ITS). *hori egin zuelako ohartu ginen: ori egin zuela oartu giñan (O, ID, KA).

-LAKOA: diru daukalakoa egin du (ITS) / itxura.

-LAKOAN: **1.** = lakotzat: uste izan. **2.** = -lako.

1. ori egin dutelakoan nago (O, IP, ID, G), bi milla pezeta artu eurelakotzat nao (IN), amor emanen zuelakoan jin zen (ITS), garaitia izan zutelakoan jin zen (LAN), oiek obiak diralakoan gaude (O), onduko dire-lakoan egin du (ITS, KA), poxi bat edanen dutalakoan (ITS, KA), zuregana jin da, hun zirelakuan (AL), hun delakoan, joan da (AL, KA), ohartuko nautelakoan joan

naiz (ITS), unara eldu zelakoan nengoen (S), ...onak direlakoan erosi ditu (O, ID), ontzat erosi ditut (IP), obe bearrez erosi ditut (ID, O, G), jatea naikoa zelakoan nengoen (O, ID), etorri dela deukat (ITS), etorri dela uste dut (O, ID, G, KA), etorri izan bear du (ID, EL). **2.** bideak hormatuak zirelakoan, otoak lerratzen ziren (KA), euria zelakoan, ez dira haurrak eskolarat joan (KA).

-LAKOAREN (*kasurik gehienetan gaizki ipinia izaten da*) / atxakiaz / itxaropena / salakuntza / susma / ustea / ziurtasuna. *gingo duzulakoaren ziurtasuna daukat / ziurtasuna.

-LAKOAZ / konturatu.

LAN handirekin bizi dira (O, G), eldu ezinde bizi dire (IN, DI), ezin elleatu bizi dira (U), xuhurki bizi da (KA), bi buriak ezin helduz bizi da (KA). **2.** lanakin lepo gaude (O), lan-ekin ezinda dabil (O), egin ezin ahala lanekin gabiltza (O), behatzak bete lan badugu (O). *Nik ez daukat hortarako astirik. Katiauta nago (ID).

LANEAN ari da (AM, S, G, O, ID, KA), ni lanean ari nuxu (LAN), bearren dao (IN, IP), biarrian dabil (IP, EL), biarrian diardu (EL).

LANEGUNEAN ere morroia hostatuan: astegunean ola ibiltzea! (G, IN), astaleguna / jai eguna (S), astagün gorri eta hori ostatian (LAR), astegun buruzurian tabernan! (IN), astelegun gorrian (S), astegorrian ere (G), astelun gorri gorria (AM), astegun buru gorrian (O), astearen artean ere bai (KA), astegun buruzurian erregiña baino dotoreago jantzita (O).

LANGABEZIA da: lan eskasia aundia da (G, S), lan eskasa handia (KA), lanik eza aundia dago (O, ID), lanik ezta (AM, LAR), lanik eztao (ID), lanipe nao (O, ID), lanik gabe zegoen (G, O, KA), lan barik dao (IP), biar barik dago (EL).

LANGABEZI hutesean geratu da: lanik bate-re gabe gelditu da (O, ID, G), ez du lanik (KA, LAR).

-(E)LAREN / aldeko / atxakiaz / itxaropena / itxura / mehatxuz / segurantzat / seinale / uste.

*diru asko daukalarena egin du / itxura.

LARRUGORRI ibiltzen ez ziren lotsatzen / **gaixo**: larrugorriak ibiltzen (O), buluzgorri da (KA), narrugorriaren neuen (IP), biluzik ~ larrugorrien (AM), pikarrai (LAR), larrugorriak ibiltzen da (G, O), pilloxik (IP), narrutsik (IN).

etorri bezain **LASTER** / orduko.

LASTER batetan azalduko da egunkarietan / **hasiera** (batetan): laster azalduko da (G), abian jinen da (KA), laster urtengo dau (IN), agudo agertuko da (S), behala agertüko düzü (LAR).

ahal bezain **LASTER** / ahal.

bezain **LASTER** ~ bezain azkar / orduko. handik **LASTERRERA** etorri zen: handik laster (O, AM, S, G, ID, IN, E, ID, IN, AL), andik bertan (IN, AL), hantik zalhe (AL), handik behala (KA), handik pixka batera (O).

oraindik zortzirak dira. **LASTER** zatoz: goiz zatoz (G, O, ID).

LASTIMA ez duela aurkitu / **pena**: damurik, ezpaitu atxeman (LAN), damurik, ez dira jin (LAN).

LATA: *lata eta pakete lexema berri samar dira. Lexema hauek direla eta, euskal senaren kontrato egiturak sartu dira euskararen. Sintagma zuzenak tomate jan, zigarro erre dira. «Zenbat» sintagma hauen aintzinetik ezarri behar da.* / tomate / pakete.

lau tomate **LATA** jan zituen / tomate.

honen **LAUGARRENA** ez du jaten: onen lautik bat (S, G, O), orren laurdenikan ere ez du jaten (G, O, ID, KA), orren laurenipe eztao jaten (IN).

temperatura **LAUKOA** da / temperatura: lau gradukoa da (O, G, IP), lau gradu baitu (S), lau degrekoa da (KA).

LAURDEN gutxi / ordu.

-LAZ / konturatu.

eskuaz **buruan LAZTANDU** zuen: eskuekin eldu eta burua laztandu zion (O, ID), aurra besarkatu zuen (G), eskuetan hartu eta burua besarkatu zakon (KA).

amak **LAZTANDU** egin zuen alabaren **masaila** / (masaila) musu.

hori ez dago **LEGALKI** egiterik / legez (kontrakoa).

Garoan artzaintza goستن da bizimodu **LEGEZ** ↗ **bezala**: artzaien bizimodua goraltzen da (O), ...goratzen da (ID), famatzen da (O, G), baserriarren bizimodue abonatu ~ goratu dau (IN), laborarien bizimoldea gorapatzen du (KA).

LEGEZ kontrakoa da ↗ **prohibitu**.

conforme le va contando cuentos ■ ipuinak kontatzen dizkion **LEGEZ** ↗ **arau**.

oinarri **LEZ** etxe hori ezarri zuten ↗ **bezala** ↗ **gisa**: etxe hori ezarri zuten oinarri.

ondorio **LEGEZ**, dirutza jaso zuten ↗ **bezala** ↗ **gisa**: ondokotasunez sosa anitz ukan zuen (KA).

como no es peligroso... ■ arriskutsua ez den **LEGEZ**, hurbilduko nazaio ↗ **-ez** gero: ...ez denez gero... (O, ID), arriskutsua ezta ta... (IN, O, EL).

LEHEN.

***A. LEIZARRAGA**: 1. **LEHEN** = lehenbiziko: Baldin nehor lehen izan nahi bada (Mark 9,35), neure lehen defentsan (Tim II, 4,16), ogien lehen egunean (Mark 14,22), bere Seme lehen iaioa (Heb 1,6), bethi lehenak ohilat, eta azkenak lanilat (AL). 2. baino lehen: ni baino lehen zen (Ioan 1,15), zuk baino lehen erabili zituen (AX 270), hil baino lehen (AL, S, O).

***B. AXULAR**: *Oso bereizketa eskuarra egin genezake Axularrengan oinarriturik*: 1. (baino) **lehen**: eritu baino lehen (AX 139). 2. **lehenago** = *antiguamente, anteriormente*. Lehenago, Lege Zaharrean (AX 213). 3. **lehenagoko** = *antiguo*. lehenagoko sailduak (AX 314). 4. **leheneko** = *anterior*: leheneko bihitegiak handitu (AX 50), ezta... hain fite leheneko estanterara... bihurtzen (AX 63). 5. **lehenbiziko** = primero: gure lehenbiziko aita amei (AX 42), azken eguna (AX 43). 6. **lehenbizi**: *por primera vez*: lehenbizi pena horietara zinenean (AX 387). 7. **lehenik** = *en primer lugar*. foroga dezagun lehenik (AX 311, ITS, LAN, KA), lehenik / **azkenik** (ITS, KA, LAN).

***D. a. Beste tokitan**: le(he)nbiziko / azkeneko katua (S, G, AM), lenengo eguna / azkeneko eguna (O, ID), zu zera lenena (O), zu zera lenena (EL), zu zera aurrena ~ aurrenekoa ~ lenengoa (O), zu zera azke-

na ~ zu zera azkenekoa (O), lehena / azkenena (KA, LAR), lenengoz sartu zaitez zu ~ sartu zaitez zu aurrena (O), aste(are)n lenaldia / aste(are)n ondarra (S), lasterkan zu izan zera azkena (O) / aurrenekoa alleau zera (O), pagatzen zu zera azkenekoa (O) / aurrenekoa zu zera pagatzen (O), lenengo / atzenengo egune (IN), leenbizi ori egin bear dugu (G), aurrena (O), estrañeko (O), lehenik (ITS, AL, LAN).

***D. b. Beste xenplu**: 1. le(h)enagoko: oiek orain baino leenagoko kontuak dira (O), lehenagoko ohidurak (LAN). 2. lengo oiturak onak ziren (AM), lehengo usaiak onak ziren (KA). 3. lehenbiziko egunean (ITS, G, S, ID) ↗ **bata**: azaro(are)n leenbiziko eguna zen (G) ~ leenbizikoa (G, ID), maiatzaren lenengoa (IN, O), maiatzaren bata (G, IN), maiatzaren aurrena (O, G, ID), maiatzaren aintzineko eguna (S), maiatzaren leenbiziko eguna (AM, S), uztail lehena (AL), maiatzaren lehenan jin zen (AL, AM), maiatzaren aurreneko eguna (O) ~ aurrena (O), maiatzaren lenengo eguna (O), (lelengo) (EL), lenengo mallakoa da (O), maiatzaren lehena (KA), maiatz lehena (LAR).

***BEREIZ**: 1. **a. LENGU** egunean an egon nitzan (= el otro día) (EL, IN). **b. lelengo** egunean egon nitzan (= el primer día) (EL), (lenengo) (IN, O). **II. a.** ni naiz lenengo (= zu baino lehenago) (IN, EL). **b.** ni naiz lenengoa (= beste denak baino lehenago) (IN, EL).

denbora baino **LEHEN** hazi da ~ ↗ **fijo**: **A.** oso gazte hazia da (O), ze gazterik azi den (S, ID, AM), gazte hazi dator (O, ID), adin gabe in da (S), gaztetik in da (G), ori salkortu da, ezta aziko (G), gazterik heldua da (KA), gazterik aski goiti joan da (S), ume hau gazte hazi dator (G, O, ID), gaur hau aundigaia dator (O), ume hau hazgaia dator (ID). **B.** mutil sapatsa gelditu da (O) ↗ **fijo**.

baino **LEHEN** ↗ **barru**.

LEHEN: *antes de* □ egiturak: 1. noz bazkalduku? Ordu bate t'erdie parik ez (IN). 2. noiz bazkalduren dugu? Ordu biak gabe ez (KA). 3. ...Ordu biak baino lehenago ez (O, G, EL).

BEREIZ: 1. hemendik aurrera **LEHENAGO** afaldu behar dugu / 2. **lehenago** afaldu egin bear dugu.

*1. zortziak baino **lehenago** afaldu behar dugu (O, G). 2. **leenbizi** afaldu egin behar dugu; gero mendira joan (G), lehenik hori egin behar dugu (AL), leenengo afaldu egingo dugu, gero mendira joan (O).

zuk nik baino **LEHENAGO** jaten duzu: zuk nik baino azkarrago jaten duzu (O, ID), bizkorrago ~ aguruago (IP), zuk nik baño fitio jaten duzu (AM, KA), agudogo (S), zuk presaka, nik baño aguro jaten duzu; nik mantso jaten dut (G).

erantzuna eman baino **LEHENAGOTIK**, galdera bat: ...baino lenago (O, AM, S, G, KA).

horiek protestan **lehenago LERROAN** ibili dira: aurrenak ibiliak dira (O, G), beti leenbiziko dira oiek (AM), protestatzeko lehenak izan dira (KA).

LEHENGUSU-MAILAK: 1. Iñaki-Kepa = **anaiak**. 2. Horien haurrak = **lehengusuak** (G, O, EL, ID). 3. Hauen haurrak = **bestengusuak** (G, O, S), lengusu txikiak (O, ID), bigarren lengusuak (AM, S), bigarren kusi (KA), gu oiekint bertzengusu gara (S). 4. Hauen haurrak = **iztar lengusuak** (G, O), iztar senideak (IN), hirugarren kusi (KA), erengusu (S). 5. ...**kusi hurrinak** (KA), kosi hurrünturik (LAR).

zure adiskidea **LEHENIK** ulertuz gero, maite izango duzu: zure adiskidea ulertuz gero, ... (G, O, ID), lehenik behar dut erran (AL, KA), estrañeko hori egin beharko degu (O), lenengo (O).

LEHERTUTA nago: 1. **leher** egin niz (KA, AM, S), leer in du gaur (AM, O), ler eginda (G, O, ID), leher egin etorri da (G), leher eta zapart eginik niz (LAR, KA), leher gaizto egin zun (G), leher aztante egin dugu gaur (S), leer zanpon inna nago (S). 2. **arika-tuta** nago (O). 3. **ebaindua** etorri nauk (G), ebaindua nago (G), ebaki ebaki eginda gelditu naiz (O). 4. gorputz guztia **eratxita** gelditu zait (O). 5. gaur **jota** nago (O, IP, IN), gorputz guztia jota daukat (O). 6. **negauta** nago (IN), neka neka eginda dago (O). 7. **zapart** eginik nago (AM). 8. **zarta** egin zuen (KA). 9. biziki akitua niz (KA).

estalló la guerra ■ gerra **LEHERTU** zen: gerra hasi zen (G, O, S, IN), gerla hasi da (KA).

LEKU ~ **TOKI EGIN**: ützi izozü lekia (AL), tokia utzi! (G, S), leku egin du hemendik (AR), tokia ~ lekua utzi (AM), lekua itxi! (IN), elkarri leku eman eziniñ (O), toki egin (= alde egin) (O), leku emanez (LEIZ.), lekhü egin ezak (AL, G, KA), toki hori hustu beharko da! (O, S), lekuak hustu hemendik (KA), lekua egin (IP, IN, ID, G, LAN), egin toki (O, ID, S, G), zoazi harat / harat(ag)o (KA), hurrun zite (KA), leku, toki eman (G), egin tokia horri (S), hortikan lekutu adi (G).

a los puestos! ■ **LEKUETARA!**: bakoitza bere lekura (G, O, IN).

LEKUZ kampo sentitzen naiz hemen: arrotz nüzü heben (AL, KA), eniz heben ene lekian (AL, KA), nere tokian nagonik etzait iruditzen (O, ID), etxean bezin gustora ez da egoten inon (G).

LEKZIO bat merezi du: eskarmentua merezi luke orrek (AM, S, O, ID), sartuko da denborakin eskarmentu(a)n (G), eskarmentua bear luke (G), makilaldi bat ~ haize aire bat merezi luke (KA).

LELO ↗ **tonto**.

trabaja bajo ese lema ■ **LEMAPEAN** lan egiten zuten: ↗ **-pean**: lema orrekin (O), asmo orrekin (O), asmo orretan (O, G), beti lelo orrekin dabil (O).

belar LEPAKADA bat ekarri ↗ **botila** ↗ **lur** (palakada): lepakada bat belar ekarri (O), bizkarkada bat egur (G), besartekada bat belar (ID, U), besotarat belar ekarrazu! (KA), sorta bat belar (ID), zama bat belar (G), eskutakada bat belar (O), eskute bat belar emaiouzu bei orri, ixil dadin (G), zaldiari ahur bat garagar eman dako (KA, LAN), eskukada bat garagar eman zion behiari (O, IP, G), eskukada bat artale eman zion txerriari (O, ID), besat(a)ra bat belar eman zion (LAN).

eskuak **LEPO atzekaldera** eraman zituen: kokotera (IN), lepatxokora (G), eskuak lepatxokorrin daramazki (S), zurtzuillera (AM), besoa kokotera pasauta dago (O), besoak buru gibelean ezarriak ditu (KA), eskuak garkotxean ezarri ditu (LAR).

LEPOA ebaki zion / (burua) ebaki.

lagunaren LEPOAN kolpe bigun batzuk eman zituen / kolpe.

LESIONATUTA dago: min hartuta dago (O, G, ID, IB, IN) min hartua da (KA).

kantatzerakoan ez zaio LETRA ulertzen: ...hitzik ere ez zaio entenditzen (O, AM), berbarikpe etxako ulertzen (IP), hitz bat ere ez dakot konprenitzen (KA).

mala LETXEKOA da / (teman) jarraitzen / umore / haserre: barrazkoa da (O), ez adi ain burduntzi izan (O), odol berokoa da (O, S, G), odol gaiztokoa da (AM, S, G, KA), hortaz odol gaixtorik ez egin (LAN, LAR, AL, ITS), odol gaizto eginarazi zeion (LAR), odol txarrekoa da (O), egoskorra da (O, G, S), elkarra da (O), gizon elkorra (ID), agudo errabiatzen da (G), txinparta baino erreago da (O), errea da (G), kaka errea baino erreago da hori (O), erretxin hutsa da (G), zartzaroen arrunt erretxindun zen (G), egin dako firrinta bat (zapuzkeriatan erantzun) (LAN), frinkosa da (AM), ez da giro oiekin (O), ez da oso goxoa (O), gozakaitza da (O), hari gaiztokoa da (G), haserrekorra da (S), ipurterre (ID), ondo kalkarra da hori (O), ori mendebaleko trumoi baño kalkarrago da (O), kaxkar (O, S), kaskagor (G), kaskagortu egin da edadearekin (G), arrunt kaskagortu da (G), kaskallu (O), kaskurrio (S), murruskan erantzun dio (O), murruskaria egin dio (O), murruskada ederra egin zidan (O), oiekin ez da gauza onik izaten (S), ori esanda otsana jarriko da (O), petral hutsa da (O), petral zikin bat da (S), suburbina baino petralago da (O), ...erreago da (O), sugegorria baino petralago (O), burrunzia baino petralago (O), petralaldiarekin zebillen (O), petralduta dago (O), gizon pipermina (AM), agitz pozoia da (S, G), purrustakeria ederra egin dizkio (G), hori puttinke (AM), seta gogorrekoa da (O), gizon hori peste peatea duk (S), zein teleka den (AM), trapallu (O), txatxu (G), txirrinduta dago (S), zakar hutsa da (G), zakar ipurdi ederra da hori (O), dana zakartuta dabil (O), mendebaleko trumoi baino zakarrago da (O), zapuztean dago (O), esan behar duen guz-

tia zapuzkerian esaten du (G), jende zapuzte da ori (= pertsona) (S), zapuztua (G, S), arront zipoizta da (G, O), zipoizkeriatan ari da (arrazoi txar ematen) (G), zipoizkeriatan dabila (G), zipuztean zegok hori (G), berak nahi duen baino zipoizteagoa da (G), zipoztuta dago (O), arrunt zitala da (G, O), zital alu hori! (G).

LETXEROA etorri da / -ero: esneduna etorri da (EL), esneketaria (G, S, KA, LAR), esnekari (AL), esnezalea (= esneketari) (O, ID).

hilabete bat bada presondegitik LIBRATU zutela ~ ...atera zutela (O, G), ...ba da illebete bat atera zela (AM), ...illaute bat badu etorririkan (S), badu hilabete bat presondegitik jalia dela (KA), bada hilabete presondegitik elki dela (LAR).

de buena me he LIBRADO ■ ederretik libratu naiz: eskapada ederra egin det (O, ID), eskapo ederra egin dut (G), txiripa ederra egin dot (IP), ia erori nintzen (ID, IP, G), doi doia egin du ezpaitugu makurrik ukan (KA).

Jauna, LIBRA nazazu gaitzetik: begira nazazu gaitzetik (ITS, LAN, KA, LAN, AL).

zakurra LIBRE dago: zakurra laxo dago (AR), txakurra askauta dago (O), zakur ori eskazue ortikan (G), lixatu zakurra (S), zakurre laxatue dago (AM), laxatürrik da (AL, KA), txakurra jareinda dago (ID), zakurra eskatu (G), txakurra lazatu (U), txakurra jareinda dabil (ID), zakurrari jarein (ID, IP).

LIBREKI onartu ala utzi dezakezu: nai bazu artu ta nai bazu utzi, zere esku daukazu (G, O), nahi baduzu hartzazu eta ez balinbaduzu nahi utzazu! (KA).

LIMOI ur baso bat edan zuen / baso: baso bat limoi ur (O, G, S), baso bat zitroi ur edan (KA).

zein LINEA egiten du unti horrek?: nondik norat gaten da? (AM, S, G, O, KA).

LITERATUR egitura aztertuko dugu orain / kultur: literatura egitura (GR), literatura saria eman diote (ITS, LAN, AL, IB, MO, IN, AM, S, EL, O, ID).

zenbat gasolina LITRO erretzen du? / konsumitzen.

ongi LO egin: ~ gabon pasa! (ID, O, EL, S), pasa zazu gau on bat! (KA), gau on bat pasa (IN), gai hun igan ezazu (LAR), gau ona pasa! (G), pasatu gabon! (S), gaubon! (IN).

bi egun pasatu zituen LO egiten: bi egun oso lo egin zituen (O), bi egun segidan lo egin dut (KA), bi egun osoan lotan egon zen (O), egun bi osoan egon zan lo (IN), igaran dit bi egün osorik lo (AL), bi egün osorik egon nüzü lo (AL), bi egunez lo egin dut (AL), bi egun esnatu gabe lotan eginak ditu (O), bi egun oso lo in zitun (G), bi egun oso osu(a)k lo egin zitun (S), esnatu gabe sei ordu lo egin ditut (O), iratzartu gabe sei oren lo egin dut (KA, G), ernatu gabe sei ordu oso osoak lo egin dut (S), iratzarri gabe sei oren igan düt (LAR), itxartu barik sei ordu lo egin dot (IN), itxartu barik sei ordu in deuz (IN), lau joko errenkan irabazi zituen (G), lau joko erreskaran irabazi ditut (O), lau joko erabat erabazi dut (O).

gure etxean hamalau lagunek LO egiten zuten ~ egunero amalau oe janzten ziren (G, O), amar oge ipinten nittuen egunero (IP). orain afaldu eta LO: afaldu eta lotara (G, O), afaldu eta oera (G, O, KA), zaldi zurian gañera joan bearko degu (O), afaldu ta goatzera (AM, S), ohialat banoat ~ ohera (AL), lotzera banoa ~ lo egitera (AL).

nekeak LO erazten nau: nekeak lo eragiten dit (O), lokarrarazten nu (KA), esneak logale ematen du (G), esneak logalia ematen dit eta kafeak logalia kentzen dit (S).

sakonki LO egin zuen / sakonki.

zaratak haren LOA apurtu zuen: A. 1. herotsak loa galerazi ditazüt (LAR, KA, G), orrek lo asko galazi dit (O), makina orren burrunbak lo egiten galezi dit (S), loa galazo uzten (IN). 2. zateak logurea kendu (IN, O), loguriek kendu zizkion (O), eman ditan sustuakin loguriak kendu dizkit (O), lo egiteko gogoa kendu zion (G), kezkak gautako loa kendu zion (O), notizi orrek gabeko lua kenduzten (IP). 3. ura zela medio bi gaben lo egin gabe egondu nintzen (G). B. herotsak lotik elki nüzü (AL), herotsak lotik iratzarri nüzü (AL).

LOAK irabazi zion: 1. loak errenditu zuen

(G). 2. loak gan zuen (AM), loak joan du (KA). 3. loak garaitzen zuen (S). 4. loak menderauta zeukan (O), loak menderatu nindun (O). 5. loa nagusitu zait (KA), loa nagusi duzu (O). 6. lokartu zen ~ loak artu zuen (O, IN, KA). 7. Txomin dator (EG, O), Martin itsua dator (G), Joanes heldu zaio haurrari (AM), heldu zaio karatotx (AM). 8. loak erreta dago (O). 9. au logalea etorri zit (G), 10. logaletu da (KA).

LOAREN faltan nabil: 1. lo beharrean nüzü (AL, O), lo beharrean nabil (O), lo behartuta nago (O), lo beharra daukat (O), lo behar ikaragarrian nabil (O), egun okaz lo bearrizenean nago (IN). 2. lo eskasa dut (KA), lo eskasia du onek (AM, S), lo eskasian nago (G, S), lo eskasi aundia daukat (G), lo eskasien nabile (AM, G, S, O), loain eskaisin nao (AM), gau auetan lo gutxi antzean nabil (O). 3. lo gabetua dabile (S). 4. lo galduan nabil aspaldian (O, G), lo galdu aundiakin nabil (O), lo galdu egiten zuen (G), orrek lo galdu asko egiten ditu (G), aspaldi lo galdu asko dabilki (O), lo asko galitzen deu (IN, O), gau galdua izan dugu (G, O), gaua galdu dugu (G, AM, KA), gaba aunitz galdu ditut (S, AM), gau galdu asko egiten dugu (O), makina bat gau galdu eginezitako umea da ori (O), gau galdu asko eman dizkigu ume onek (O).

LOARI eman gabe egon zen gau guztian: loak artu gabe (O, G), lokartu gabe (S, KA), gau guzia pasatu zakon lo egin gabe (KA), esna egon zan gau guztian (O), esna pasau omen zuen gaua (O), itxarrik egon zan gau guztian (IN).

LOGURA asko dauka: oraindik logaleak da (G, S), logale niz (KA), loguriak dago (O), bi egun osoan ez du lorik egin (G, AM, S), bi egunean lorik egin gabe egon da (O), bi egun lorik egin gabe pasau ditu (O), naiko loa eginda nago (O), loz asean nago (G, S, AM).

txoferra baxua eta LODIA zen / (lodia) behea.

LODITASUN faltsoa du horrek: gaitz puztu egin da (O, ID); buiatua dago (G), bere gaitxak emoteutsen gizontasunaz purtzurrituta dao (IP), eritasunarekin hantu da (KA), anpatua (S).

LODITU - GIZENDU: Pertsonen ari direla, usu *loditu* erabiltzen dute baserrietan. Animalientzat *gizendu*. *Loditu*-k batzutan *haurdun izan* adierazten du: emakume hori loditu duk (= haurdun da) (KA, S, G, AL, AM, LAN), emakume hori loditzen hasia duk (= haurdun da) (O, KA, AL, AM, LAN).

LOGALE naiz / **gose**.

LOTSA sortarazi zidan: lotsa eman zidan (G, O, IP, IN), ahalgerazi nu (KA), lotsa (e)man zatan (AM), ahalkerazi nüzü (LAR), ez zera lotsatzen ori egitea? (G), ez zera lotsatzen ori egiten? (O, G), Ezteutsut nik lotsarik galdu, ez galduko bere (Peru Abarka).

LOTSA(TU): Nafarroa Beherean eta Zuberorain = beldur(tu). «Verguenza» adierazteko «ahalke» erabiltzen dute. 1. lotsatu ziren denak gosearekin hil beharko zutela (LAN, LAR), enüzü arima herratian lotsa (AL), eniz lan hortan ar(i)tzeko lotsa (KA). 2. gizonen aitzinean ahalge da (KA).

LOTU egin zuten besoz eta zangoz: / **hankak**. **elkarrekin LOTU** txakur horiek: bi txakur oiek bata besteari lotuko dizkiot (ID, O, S), arkaleri estu (IN), bi txakurak alkarri lotuko dizkiot (O, G), bi zakurak elkarri lotu (AM, G), bi zakurak estekatu elgarri (LAN), estekaizkizu bi zakur horiek elgarri (KA).

bi txakurak elkarri **LOTU** ditut — bi txakurak elkarri lotu diet: ...elkarri lotu dizkiot (G, O, ID), urteak elgarri lotuak gate bate-tako erreztunak bezala (ITS).

bi txakurak arbolan **LOTU** ditut: bi txakurak arbolari lotu dizkiot (O, G, IN, ID), astoa sokarekin lotu arbolari (O, AM) ~ estekatu (AM), astoa zühaintziari esteki düt (diot) (AL), lanari lotu zaio (ITS) / **dedikatu**. bi zakur horiek estekatu dizkiot arbolari (KA).

heriotze biek **LOTURA** bat dute: elkarri lotuta daude (O, G), eriotz biak badute alkarren artean zer ikusia (O), oso alkarri lotuak daude (O), elgarri estekatuak dira (KA).

aurrekoarekin LOTURIK dago hori: tradizioari, aurrekoari lotua dago ori (G, O,

AM, IP), kotxeari erremolkea erantsi dio (O), ethorkizuna presentekoarekin lothurik (AX 102), langileak lotuak dire lan horren bururatzeari (ITS, KA).

bi berebil daramatzate bata besteari **LOTUTA** ~ bata besteari erantsita (O), bata besteari iratsita (G), bata besteari loturik (KA).

hilobian berak bota zuen lehen **LUR palakada** / (paper) **astokada** / (ur) **balde**: illobira berak bota zuen aurreneko palakada lur (O), palakada bat lur bota euen (IP, G, ID), palatara bat lur (KA), palakada txirbil ekatzu (O).

LUR mugikorretan sartu eta ito egin zen: linga faltsuak zeuden (S), hor bada ihiztoka (KA), iztinga (O), linga faltsuetan sartu zen (AM, AR), lingira dago or (G), zingira da or (O), or lintzira da (G).

gure **LURRAREN DEIA** (= la llamada de nuestro suelo): gure lurraldearen deia (O, G), gure herriaren deia (O, G, S, ID).

LURREAN / LUR GAINEAN: 1. ume ori beti lurrean etzanda dago (= etxe barruan) (O, S), lurrean lo egin (etxe barruan) (O, G, IP, IN, S), solairu gainean lo egin du (S). 2. ume ori beti lur gainean etzanda dago (= etxetik kanpo) (O, S), lurraren gainean lo egin (= etxetik kanpo) (O), lur gorriaren gainean lo egin du (kanpoan) (O), lur gañean lorik ez egin; paratu zerbait ere (S, IN), lurraren gainea lo egiten zuten (KA, S), lur hutsan gainean (S), lur hutsaren gainean ez dute lo egiten (G). 3. ondo gorrian lo egiten du (bai etxe barruan bai kanpoan) (O), gogorraren gainean lo egitea ona da; olaren gainean ere (G).

LURREAN zegoen sagarra jan zuen ~ lurreko sagarrak bildu (AM, AR, S, G, IP, KA), (batu) (IN, S), ondoko sagarra bildu dugu, etxean denok jateko (O, ID, S).

marinelak **LURREAN** daudenean oso esku-zabal izaten dira: marinelak lehorrean daudenean... (O, G, ID, EL), itsasoan daudenean (O, G, ID, EL).

*Euskaraz honelaxe bereizten da: **a.** lur / zeru. **b.** itsaso / lehor.

behartsuok aski lan dugu dirua hilean **zehar** nola **LUZAERAZTEN:** beartsuak ba ditu-

gu naiko lanak ilaren azkena arrapatzen ~ illare azkenera arte dirua luzarazitzen (O) ~ illaren azkenearaño (O), diruari ezin eutsiz ibiltzen gera (G), badugu aski lan hilabetearen bi buruetarat arribatzeko (KA).

LUZARO baino **lehenago** etorri zen: luze gabe etorri zen (AM), berant ere gabe (KA), egin zazu biar gabe (AM, ITS, KA), etxera gabe (ITS, KA), etxera allegatu gabe (AM), mendi hartara gabe (ITS, KA), negua gabe (ITS, KA, S).

ESALDI LUZEAK: maiz, moztuak hobeki. **ADIBIDEA:** Baina emaztea trankil egon zedin, telegrama bidali zion, esandako orduan ezin zitekeela etxera itzuli abisatuz: Emazteari telegrama bidali zion, ordea; lasai egoteko; esandako orduan ezin zitekeela etxera (itzuli).

denbora **LUZEAN** egon zen gaixo / **denbora** (pilla).

LUZEENA, LUZEAGO: **a.** bietan zein da luzeena? (G, S, O), (bixotatik) (IP, KA). **b.** bietan zein da luzeago (AM), zoin da handiago? (LAR), bietatik zein de andiegoa? (IN) □ Ingeleseraz: *which of the two is the tallest?* (gaizki); *which of the two is the taller* (ongi).

largometraje ■ **LUZEMETRAIA:** pelikula

luzea (O, IN, G, AM), filma luzea (ITS, LAN, AL, KA).

LUZERA oneko gizona: gizon luzesko bat (AM, S), gizon luze samarra (G, O), gizon luzaska (G), gizon luzeska (O, KA), emakume luze samarra (G, O, IP), luzaran (LAN, KA), emakume luzesko bat (AM, S), neska luze bat (O, G, AM, AL, KA), Margarita luzekara da (AM), neska lerdan bat (AL, O), neska handi bat (AL, O, G, U, KA).

hondartzaren LUZERA ibili ziren futboleant: plaiaren luzeroan ari ziren futboleant (O), ondartzaren zabalka ibili ziren (G), luzeka (G), zearka (G), plaiaren luzera ari ziren (AM), plaiaren luzakara (S), plaiaren luzearan ari izan gira futboleant (KA).

LUZERA ipini ohol hori: luzetara ipiñi (O, IP, ID), zabaletara (IP, ID), luzarat emazu (KA).

kilometro bateko **LUZERADUN** untzia: eun metroko itsasontzia (O), iru metro luze (IN, G, O), sei metro zabal (O, IN), sei metro sakon (IN), bi metro beiti da (AM, S), zulo ori sei metro bera da (O), sei metroko zuloa (G), zulo au ba da sei metro beiti (G), hiru metretako mahaina (KA).

LLEVAR □ *Baztanen eta mugaz bestaldean joan, gan, aktibotzat ere hartzen dute = llevar.*

M

gure pisua **MAILA** behekoa da: gure pisua beinekoa da (G), bean dago (G), behe-rean da (KA), beian dago (O, IP).

behe MAILAKO familia da: ondasun gutxiko familia (O, ID, IN), diru gutxiko familia (G, S), pobre xamarrak dira (G, S), aberas-tasun gutitakoak dira (KA), jende xumeak dira (KA).

MAITE dut ~ 1. hori ume maitea da (ID, EL), Emilita herri maitea da (O), Kattalin zakur maitea da (O). 2. hori etxezulo da (O), ohezulo (O), etxezulo (LAN), amazilo (KA). 3. haur hori aitazorro da (S), amazorro da (S).

MAITE dut ~ maitatzen dut: maiteketa dot (= lehenagotik) (IP), arrunt maite dut (G), Alazne maite dut (KA, O, IN, LAN, AX), amaizunak eta beste ahizpek etzuten hala maitatzen (LAN, S).

nik Eunate **gehiago MAITE** dut ↗ **gehiago**: nik eunate maiteago dut (O, G), nik arrai-na baino maiteo dut txitxia (LAN, O), nik arrañe baño guragot okelea (IN), gatia beno txakürra maitiago düt (AL), nik maiteago zaitut (O, G), ni baino maiteago (LEIZ. Mat 10,37), gehiegi maite duzu ~ maiteegi duzu (KA), arrunt maite dut (G), Peter maite dut, baina ez oso (O).

gehiena emaztea **MAITE** du: maiteena emaztea du (O, G), maiteena detana horixe da (O), nik ere anai maiteena dut (LAN, KA), orixe zun bere gogokoa (O), orixe da bere gogokoa (IN), zoin duzue laketena? (ITS).

ez dit ezagutu beste anaiak **horrenbeste MAITATZEN** direnak: ez dut ezagutu anai ain

alkar maiterik (O), ez ditut ezagutu anai ain elkar maiteak (AM), ez dut ezagutu anai orren alkar maite dutenikan (G), ez dut izautu personik oiek bizin elkar matte dutenik (S).

neska **berberataz MAITEMINDURIK** dago: berberaz ~ berberarekin maitemindurik dago (GR), berberagaz (IN), bi anaiak neska berarentzat amoros dira (KA), neskatila horrek motiko hori maite du (LAR).

Kabierrek eta malenek **elkar MAITEMINDU** dute: Xabier eta malen (elkarrekin) maitemindu dira (GR), neska horrekin amodio-tan sartu da (KA).

azkenean entzun egin nau, **hain MAIZ** esan bait diot: erran eta erran, azkenean kasu egin dauku (KA), ainbeste aldiz esan eta kasurik egin ez (O), esan ta esan ari generala, kasu egin digu (O), erranan pasionin kasu egin ziten (S).

MAKILA batez lagundurik zetorren: makila batekin zetorren (O, G, AM), makila batekin heldu da (KA).

kontuz horiekin, **MALA** letxe edukitzen dute ↗ **letxe** (mala).

MALIZIARIK gabe esaten ditu gauzak ~ ↗ **txarretara**: maleziarik gabe (AL, KA), maltzurkeriarik gabe (KA), ez du batere malizirik (AM), deus ere malizirikan gabe (S), orrek gaitzipe esaten ditu gauzak (O), bate-re gaitzik gabe (O), gatzbarik esan dau (IN), ezta Joxeba gatz txarrekoa (IN), gaitzipe esan du (O), malizi gabe ~ pentsatu gabe (G), on beharrez esan du, hobe beharrez (O), emakume xaloa (S), gileko bortarik gabe (LAN), orrek ez du gibe-leko aterik-

xaloea da (KA), Maite, Felipe eta Patrizia lañoak dira (KA), faltukeriarik gabea (LAN).

MALKOAK botatzen zituen: \nearrow **negar**.

bere **MANIAN** segitzen zuen \nearrow **tinko** (jarraitzen).

nabala ongi **MANEJATZEN** du: nabala ondo dantzaten du (O, S), gani(be)ta untsa erabiltzen du (KA), ongi dantzaten du mingaña (S).

MANIPULATU egin gaituzu \nearrow **monagillo**: nai duzun eran erabili gaituzu (O, KA), nai duzun moduan erabili gaituzu (O, G), nai duzun moduan manejatzen dituzu (O), zeuk gorozun moruen ebalten gaituzu (IP), nai duzun bezela ibilli gaituzu (G).

pilotan **MANO** **mano** jokatu zuten \nearrow **pertsonalki**: **1.** pilotan buruz buru ari dira (ITS, AM, KA, LAR), batpanaka (S), banan banan jokatu euen (IP), bürüz bürü ari dira (AL), banaka ari dira pilotan (S), eskuz esku (O), banaka ez bi bitara (G), buruz buruka pilotan (ITS), buruz buru aise garaitu zuen (LAN). **2.** pilotan biranazka ari dira (LAN, KA), biraka pilotan (S, LAR), biñaka jokatu zuten (G, O, IP), biga bigen kontra (AL, KA), bi bien kontra (IN), bi bitako partidoa (O), bi bitara jokatu zuten pilotan (G, O). **3.** irunaka (S), hirunazka (KA).

MANO **mano** hitz egin behar dugu \nearrow **pertsonalki** (hitz egin).

MANTENDU: euskaraz hazkurri eta gorputzarekiko gorabeherak adierazten ditu, eskuarki.

mantendrá reuniones con el ministro* ■ ministroarekin bilerak **mantenduko ditu: biltzarra eginen du ministrarekin (KA), izanen ditu (KA), bilerak egingo ditu (O, G), izango ditu (O, G).

*honetaz kanpo **mantendu** zaitez: zu ez zaitez orretan sartu (IN, O, G, IP), ez da zure afera (KA), hori eztüzü zure egitekoa (LAR).

*moztu arbolak luzaro **mantendu** daitezen: ...luzaro iraun dezaten (G), ...galdu ez daitezen (G), arbolak brankak mozten ditugu (dizkiegu) azkar dituen (KA).

*prezioak **mantendu**: prezioei eutsi (O, G),

prezioak hein berean atxikitzen dituzte (KA).

*ez zuen hitza **mantendu** \nearrow **firme** (esantzan).

*zuzendariak bere tesiak **mantendu** zituen \nearrow (tinko) **jarraitzen**.

*interesa elaberri osoan **mantentzen** da: irakurminak... irauten du (GR), interesgarria da memento guzietan (KA), hastetik eta bururaino interesgarria da (KA), aspeneetik akabillera bitartiko interesatea da (S), asieratik azkeneraino interesatea zen pelikula (G).

*esku batekin pixu handia **mantentzen** zuen: esku batekin pixu aundiari eusten zion (O, G), (elaberriak) lotura horri eusten dio (O, G), esku batekin pizu handia atxikitzen zuen (KA).

hark **ireki** zuen **MARATILA**: ark eragin zion maratillari (maratiliz etsi egiten da) (O, G), krisketarekin hetsi dugu borta (KA).

joan den astearen **MARATILA** giltza hor dago \nearrow **kuestioa**.

MAREO egin zaio \nearrow **konozimendua**: **1.** alditxartu da (ITS, KA), alditxartu zaio (ITS). **2.** burua **bueltaka** dabilkit (G, O), burua itzulika ari zako (KA). **3.** buruko **zorra** deukot (IN). **4.** **burutza** sendi zian (AL), burtxoratu niz (ITS, KA), burtxoro batek hartu zuen (ITS, KA). **5.** **illuntasunak** emon deutso (IP). **6.** **itzaltasuna** egin zaio (G, AM). **7.** elizan **lillura** egin zaio (S), egatzetikan begitu dutelikan, liluri pixkot egin zit (S). **8.** **mintxuria** egin zaio (O, G). **9.** otoan **nahasi** nuxu (LAN, AM, G, KA). **10.** **naieza** egin zaio (G). **11.** **ondoeza** egin zaio (ID, O). **12.** **trenpia** txar dü (AL), trenputxatu da (KA), trenputxar dut (LAR), trenputxar egin (KA). **13.** **txakala** ~ txakalaldia egin zaio (O). **14.** **txoranbilla** egin zit (G). **15.** zorabioa ~ txorabioa egin zitzaidan (O). **16.** otoan **desarrañatu** niz (LAN).

MARKA berria **ezarri** zuen lasterkariak: marka ondu zuen (O, G), onek ez du marka onduko (O).

va a toda marcha ■ **MARTXA** osoan doa \nearrow **abiara** (ederra).

MASKAREKIN ibiltzen dira ihauterietan: mozorro jantzita ibiltzen dira (G), zomorrotuta dabilta (O), zomorro jantzita (O),

mozorro jauntzia ate zen (S), mozorrotua (S), inautitan mozorrotuak dabilta (S), mozorroz beztitu dira (S), kokomarroz jantzita (IN), kokomarroak datoz (IN), inauterietan mozorro jantzi zan (O), kukutzen da ahuntzaren larruaz (KA), estalien barnean ontsa kukuturik egoki niz (nago) (KA).

ondo **MASTIKATUA** jaten du horrek: ahoan ondo gozatuta jaten du horrek (G, S), ondo txikituta (O), mastakatu (LAN), batere gozatu ~ txikitu gabe jaten du; iretsi egiten du (G).

partida hau **MATX** hutsa bezala gelditu da \nearrow **hutsna** (gelditu).

bada **MAXIMUN** eta **minimun** bat: gauza guziek badute bere neurria (G, AM, O, IP), gauza guztiak badebe beren neurria, geiegia ere bai ta gutxiegi ere bai (O), gauza guziek badute hein bat (KA), gaiza orotan bada hein bat (LAR).

zuk haragi **MAZIZOAK** daukazku \nearrow **flojoa**.

gizon **MEDIANO** bat zen: **1.** tarteko ~ erdi-banaxeko gizaseme bat (S, AM), gizon bitartea zan (O, ID), gizon erdimodukoa (G), gizon erdizperdikoa (IP), gizon heineko bat (KA), gizon bitarteko bat zan (O), behi bitartea (O, ID), erdi modukoa zen (G), gizon tartekoa zen (AM). **2.** gizon bitartea / bitartekoa. **a.** handia ere ez ta txikia ere ez eztana = bitarte. **b.** bitarteko: ararteko.

dela **MEDIO** \nearrow **dela** (medio).

hizkuntza indartsu baten **MEDIOZ** adierazten du: hizkuntza indartsuz (GR), mintzaia bortitzez izkiriatu du (KA).

belar **MEDIZINALAK** biltzen ari da: sendabelarrak biltzen ari da (G, O, AM, S, IP), «adinarentzat sendabelarrik ez» (S, AM).

lehergailua lehertaraziko zuelaren **MEHATXUZ**... \nearrow **berri**: ...lehertaraziko zuen mehatxuz (GR), ...lehertaraziko zuelako mehatxuz (KA), bomba leertaziko zuen amenazuarekin (O), bomba paratuko zuelako meatxua eman zion (S), bomba paratuko zun desapiota egin zun (G).

asko **MEJORATU** da \nearrow **nahiko** (ongi): **a.** (osasunez): gaixoa oheratzen ari da (O), askoz obeto omen dioa (O), ongi jartzen ari omen da (G), obetuaz doie (IP), eria hobe-

kitu zen (LAN, LAR, KA), oneratzen ari omen da (O, G), eria hobetzen ari da (KA), eria obekixio dago (S), ondoezik zegoen baina tajatu da (O), Nerea hobeto, hobetoxo dago (O), osasunez obeto dabil orain (O, ID, G), osasunez obeto doia (IP, IN), Patrizia hobekio da (KA, S), untsatu da (KA), azkarkiz hobekio dago (S), gaixoa pixkat tajatu da (O), eri zen bainan pizkolatzen ari da (LAN, KA), berriz ontsatzen (KA), arpegiz oso itxurauta dago (O). **b.** (ontasunez) gaiztoa zan baña asko ontzen ari da (O), ondu da (ID, O), zintzotu da (ID, O, G), ontu da (KA), orain oso onduta omen dago (ID, O), ezinak ondu du ori (O), on zaitezi, hobe zaitezi (AX 398), hobetu zarenz sentitu gabe (AX 127), gaiztoa zen bainan hobetu zen (LAN, ITS), gaiztoa zan baña ondu egin zan (O, G), semea hobetzen entseiatzen da (ITS).

MELINDROSO da \nearrow **gutxi** (jaten).

MENTU **bakoitzean** berri txarren bat entzuteko beldurrez zegoen: noiz baño noiz berri txarren bat entzungo beldurrez zeuden (O, IP), noiznahi berri txarren entzuteko beldur niz (KA).

MENTUZ horrela uztea hobe: oraingoz orrela uztea hobe (G, O, IP), bein beinean obeto olan ixtia (IN), memento huntan hobe da bera uztea (KA), ...üzten ahal da bera (LAR) \nearrow **probisionalki**.

este es el robo del siglo ■ hau da **MENDEKO** lapurketa: hau da mende huntako ohointzarik handiena (KA), au da gizaldi ontako lapurretariak aundiena (O, IP), au da mende ontan ezagutu dan lapurretariak aundiena (O), au da mende untako lapurrikan aundiena (S).

domina bien el euskara ■ euskara ongi **MENDERATZEN** du horrek: **A.** (= somete bien al euskara) \nearrow **menperatu**. **I.a.1.** euskara **ederra** hitz egiten du (O). **2.** euskeraz iteko **erretasuna** deuko orrek (IP, ID), euskaraz errez egiten du (O, IN), (erraz) (G), euskaraz aija ari da (AM), euskeraz errez egiten du horrek (O, EL), uskaraz aixa ari da ori (S, G). **3.** euskeraz **garbi** egiten du orrek (IP, ID), euskara garbia (egiten du) (AM, O), euskara garbia du horrek

(KA). 4. euskeraz **ondo iteu** (O, ID, G), euskeraz arrunt ongi itz egiten du (G), euskeraz agitz ongi egiten du (S, G, IN, O). 5. eskuara **untsa emaiten** du (KA, LAR), xiberotar ederra emaiten du (AL), eskuara garbia emaiten du (KA). 6. euskara **ongi derabilia** (ITS). 7. euskeraz oso **ederki daki** (G, O), (ederto) (IP, AM, S, IP, KA), euskeraz oso ongi daki (G, ID, O). 8. hori biziki **untsa mintzo** duxu eskuaraz (LAN), xiberotarrez untsa mintzo da (AL), euskaraz ongi mintzo da (AM, KA). **b.2.** euskaldun **ederra** da (O, IP, G). 2. euskaldun **garbia** da (O, IP, IN, ID, G, AM, S, KA). 3. euskaldun **zaharra** da (ID). II. euskeraz defenditzeko adina badaki ↗ **defenditzeko**. B. Gaztelako Fernandok nafarrak menderatu zituen (O).

XIV. MENDETIK Bizkaia indartsu izan zen: XIV. mendetik aurrera (O), amalau urtetik aintzina (AM, S), menditik aintzina (KA), amalau urtetik atxine (IN).

atzo **MENDIRA** joan ginen ~ atzo mendian izan ginen (AM, G, S, O, KA).

gai honek beste batzuk biltzen ditu **bere MENPEAN** ↗ **-pean**: biltzen ditu beregana (AM, S, O, KA).

ijitoak zubi **MENPEAN** bizi ziren ↗ **-pean**: zubipean bizi dira (AM, G, O, IP, ID, LAR), jituak zubi azpiyin bizi dire (S), buhameak zubi azpian bizi dira (KA).

euskera **MENPERATZEN** dutenak behar dira, **sexu** batetako zein bestetako: euskeraz ongi dakitenak behar dira, nola gizaseme(a)k ala emakume(a)k (G), ...gizon eta emazte (KA), ...nola gizonak ala andreak (G, O).

euskara ongi **MENPERATZEN** du (= some- te) ↗ **menderatzen**.

ez du euskara **MENPERATZEN** (= no avasalla el euskara) ↗ **menderatzen**. 1. **euskalgaitza da** (O, IP), ziero euskalgaitza zan (O), uskalkaitza da ori arront (S), euskalgaitza da (G), eskualkaitze da (AM). 2. **euskalgaitza egiten** du (AR, S, AM), euskalgaitza egiten du (ID, IP). 3. **eztaki** ondo euskeraz (O, IP, G, KA). 4. orrek **batekoz bestera** itz egiten du (O). 5. ez ditu bi hitz **alkar josten** euskeraz. 6. **kiskun kaskun**

mintzo da (KA). 7. **nahas mahas** mintzo da (KA).

deabrua **MENTATU** eta hura agertu: otsoa ao(a)n ta otsoa ate(a)n (G), aitatutakoa urrian izaten da (O), nun aipa ala gerta (KA), otsoaz ai eta otsoa atarin (ID), otsoa aipamenin aldamenin (S).

etorriko zaizu **MEREZI** duzuna: atalburuan kana (ID, O), ateburuan izango da kana (IP), billatuko du horrek bere neurriko zapata (O, G), arpateko izu negurriko zapata (AM, S, G), nolako anka, alako zapata (G), atxemanen duzu zure izariko zapeta (KA), ori ere neurtuko du atalburuko kanak (O).

MEREZI: 1. **a. merezi** du liburu ori **leitzek** (G), ori egiteki merezi dau (IP, ID). **b.** orrek ez du merezi gaizki egitea (G), ongi eginak ez du gaizki merezi (G), orrek merezi dik bisita bat itia (S), gaiza eijer horrek merexi dü oroek ikustia (AL), liburu orrek leitzea merezi du (S), merezi du orrek auxen egitia (S), merexi du liburu horrek leitzea (KA). **d.** liburu ori **irakurtzea** merezi du (O, IN), merezi ete dau hori egitea? (IN, AM, O, G), ori egitea merezi du (O, EL, IN, G), hiltzea merexi zinduke (LAN), merezi luke etxea emen egitea (S), merezi du hori egitea (LAN, AM, O, IN), eztu... balia dakion merezi (AX 90). 2. **a. balio** düzü hunen egitea (LAR), holako phartiden ikusteak balio du (ITS), izenen aiphatziak ezü balio (AL). **b.** hola ürhentzekotan, biziak ez dü balio (AL). **d.** lan horren egitea balio dü (AL) ~ egiteak balio dü (AL), eztizü balio horren egitea (AL) balio luke liburu honen leitzea (KA), ez du balio odol gaixtorik egitea (LAN). **e.** ezü balio heben eman **ditzadan** xehetarzünak oro (AL).

MERITU **gehiago** izango duzu... ↗ **gehiago**: merituago izanen duzula... probeari emaiten diozunaz (AX 157).

arazo horrek **MESEDE** ekarriko digu (IP), mesede egingo digu (O, IN, S, G, IP, ID), afera horrek onak ekarriko dauzku (KA).

MESEDEZ! ↗ **otoitz**.

Anes-etaz **MESFIDATZEN** da ↗ **fidatu**: Anesekin ez da piatzen (G, O, ID), orregaz ezta fixetan (IP), horren baitan ez da fidatu

behar (KA), mesfida zite hontaz (KA), hontaz ez fidatu (KA), mezfida zite hontaz (KA), mesfida zite horren baitan (KA), horri mesfida zite (LAR).

hoge **METRO** oihal erosi nuen eta hamar metro kable; oihalaren lau metro onak ziren; kablearen bi metro txarrak ziren (GR).

MEZARA, mezetara: 1. igande guzietan mezetara joaten gera (O, IN, IB, MO, ID, IP), igande guzitan mezara gaten gara (AM, KA), mezialat nora (AL), mezialat banua (LAR). 2. gaur mezetara goaz (= funerals) (AM), ehortzetala noa (AL), ehortzetako mezara (KA).

MILA aldiz esan nion: 1. **makina bat** egunean egon nintzen jan barik (IN, O), makiña bat ikusi du orrek ~ ikusia da ori (O), bakiña bat aldiz (O). 2. **askitan** erran nion (AL). 3. **bostetan** (LAR), biga bostetan eran deiat (AL). 4. **hamarretan** (LAR), hamar aldiz errana diat (LAN, AL, KA, LAR). 5. **ameka** aldiz erran nion, baina ura berea goiti joan zen (S), ...azkenean berea egin zuen (S, AM), amaika aldiz esan nion (O, G, IP), amaika bider esan nion (O), amaikatxo bider esan neutson (IN). 6. **hanbatetan** abisatzen gaitu (AX 396).

MILA eta mila **behi** dauzka: **a.** milla ta millaka **bei** dauzka (O, G, ID, KA), an millaka pobre egoten dira (G, O), etxekeori milaka goraintzi (ITS), milaka bei dekoz (IN), milloika dolar dauzka (G), millaka dolar irabazi zituen (G), millaka ta millaka erretrato ateratako gizona (O), millaka duro irabazi zituen (G), loterian ehundaka milioi ukanen ditu (ITS), milaka pobre dira munduan (KA), amaika pobre badago munduan (S). **b.** millaka deuzka **beiak** (S, O, AL, IP), horrek baditu milaka ardiak (LAR), an millaka egoten dire pobre(a)k (S), pobreak millaka egoten dira an (O), milaka pobreak badira munduan (S), milaka ardiek zituen (AM), eundaka ardiek dauzka (IN), millaka pezetak gastatu zituen (G, O, AM, S, IN), millaka dolarrak irabazi ditu (S, AM, O, IN, AL), millaka duruak irabazi zituen (O), milaka frankoak (AL), eunka ardi(a)k dauzka (G), millaka ardiek ditu (AM, IP), eundeka ardiek dau-

koz (IN, U), eunka omen dauzka ardiak (S), milaka ba zütian ardiak (AL), eunka dauzka orrek ardiak (O).

MILA infanteriako soldadurekin joan zen: infanteriako milla soldadurekin (ID, KA), milla soldadu infanteriakoakin (O, G), infanteriako milla soldauaz fuen zan (IP).

MIN hartu / ukan: 1. istripuz min hartu dut zangoan (KA). 2. buruko mina ukan dut gauaz (KA).

drogak **MIN** asko egin du Euskal Herrian: ...kalte aundia egin du (G, O, IP, ID, KA), kalte aundixak ekarri ditu Euskalerrira (IP), drogak hogen handia egiten du orai (LAR).

me haces daño ■ **MIN e gñten** didazu: A. 1. atzamarrak min emoten deuste (IN, G, O, ID), min aundia eman zidan (S, AM). 2. ez dut minik ukan (LAN, AL, KA), Atarratzerat joaitian min ukhen nian (AL, KA). 3. min hartu du (KA, O, IB, EG), min hart dezakezu (ITS), min hartzen da (AX 167). 4. zuk min harrazi datazu (LAN, KA). B. min in deustuzu (IN, IP, AL), min egiten diote (AX 53).

a. hagineko MINA / b. hagineta mina.

a. hagin edo hortz batetan bada: ortzeko miña dut (S, G, O, KA), daukat (IN, O), agiñeko m. (O, S, G, IP, KA), latagiñeko miña (G, KA), betortzeko m. (O). **b. batetan baino haborotan bada**: aginetako m. (G, O, S, AM, IP, KA), hortzetako mina (AL, G, S, O, KA).

suaren **ondorioz** ez da inor **MINDUTA** gertatu ↗ **ondorio** ↗ **gertatu**: suarekin ez du iñork minik artu (O, IP), suiak ez du nehor erre (KA), suak eztu arrapatu iñor (IN), suiarekin ez du nehor min hartu (KA), sukin eztu deus ere makurrikan izandu (S), suakin ez du deus ere izandu (G).

zerbitzu MINIMOAK bakarrik beteko dituzte: 1. Bearrak in dozeuz? Danak ez baina **andi andiak** bai (IN). 2. bear **bearreko** lanak egingo dira (G), bear **bearreko** zerbitzuak egingo dituzte (O), bear **bearreko** egin ditugu (O), gaur bear **bearreko** in (AM, G, KA), bear **bearreko** lanak egin (S), bear **bearreko** zerbitzuak izango (O), **bearrenak** in (AM), lanik **bearrenak** iñ (G),

bearreko lanak egin (O), bearrenekoak eginda, alde egingo degu (O). 3. lan hau **bestarik ezean** egin behar da (O). 4. lan au **ezin bestekoa** da (O), ezin utzizko lanak (LAN). 5. **premiatzko** lanak (O), premiñezkoenak egin ttugu (IP). 6. lan **presenak** egin dira (LAR). 7. **baitaezpadakoa** da hori (LAN, KA).

gastuak **MINIMUN** batera **jaitsi** erazten zituena: a(ha)l zuen gutxiena gastatzen zuen (AM, O), al zuen bezin guti gastatzen zuen (S), ahal bezain guti (KA), al euenik gutxien kastetan euen (IP).

gu **MINORIAN** gaude (= en ictericia): geinak beste iritzikoak dira (O), talde txikia / talde aundia (O), gehiengo / gutiengo (GR).

literaturaz **MINTZATU** gara / **-taz**, **-taz** (hitz egin).

euskaraz oso ederki **MINTZATZEN** du ~ / **menderatzen**: mintzatzen ~ mintzo da (S, AM, ITS, LAN, AL, KA), euskaraz oso ondo berba egiten dau (IP), euskara ~ euskaraz biziki ongi mintzatzen du (KA), gizon hori mintzatzen dut (KA).

hablaban en una lengua extraña ■ hizkuntza **arrotzean MINTZO** ziren (itzulkeria) / **hizkuntza**.

denetaz MINTZO dira (ITS), / **-taz** (hitz egin).

hori da sendagilerik onena. (Gal.) Iturriagaz **MINTZO** zarete? ~ / **esan** (nahi).

MINUSBALIDOA da / **normal** (ez da): ezindua da (AX), elbarra da (G), elbarria (O), emalierria da (KA), erbaldua dago arrotin (S).

MIRETSI / **etsi**: a. danek miretsi dituzte lan **horiek** (LAN), haren talentua miresten zuen (ITS), orok miretsi dute familia horren batarzuna (AL). b. **hartzaz**: hunetzaz miresten baduzu (AX 125) (= ez dirudi horren jator denik).

MISIOLARI bezala egon da African (= balitz bezala) / **bezala**.

traje arre **MODAKOA** zuen: modako traje arrea (O, IN, AM, S, G), azkeneko modako trajea (G, IN, AM, O), modako jaun-tziakin da (KA).

MODAZKO desfilea izan da: modaren desfi-

lea (S, O), jantzien erakusketa izan da (O), soinekoen erakusketa (KA).

MODU askotako jendea gaude / **klase**.

Harkaitz artzai **MODUAN** joan zen Ameriketara (= balitz bezala) / **bezala** / **gisa** / **era**: artzain joan da Ameriketara (ITS, AM, LAN, AL, ID, IB, IP, KA).

oroigarri **MODUAN**, zazpi bat hartu zuen / **bezala** / **gisa**: oroitzepepetako arri bet artu zuen (AM), oroigarritzat (O), gomutagarri zapi bat erosi dot (IP), oroitzapentzat (KA).

iloba semea **MODUAN** hartu zuen / **bezala** / **gisa**: semetzat artu euren (IN, G, KA), semiantako primatu dizie (LAR), iloba ondokotako artu zuten (AM), iloba umetako artu zuten (S), lobia umeordekotzat artu euen (IP).

Orantes dago kapitan **MODUAN** / **bezala** / **gisa**.

soldata **MODURA** egunero 2.000 pezeta ematen zioten / **bezala** / **gisa**: eguneko jorjala 2.000 pezeta ematen zioten (O), eguneko soldata 200 liberako zuen (KA).

ipuin askok bizitza daukate gai **MODURA** / **bezala** / **gisa**: ipuin askoren gaia bizitza da (O), ipuiñen pasadizoa polita da (IN), ixtorio horietan egun guzietako bizia ateratzen da (KA).

MOKORDO ederrak **bota** zituen hark / **bota**.

ni ez naiz inoren **MONAGILO** ibiliko / (ardura) **-pean**. 1. gansterren **azpian** dago (IN), gansterren azpiko da (KA). 2. aren **begiekin** ikusten nuen (O), haren begietarik ikusten du dena (ITS). 3. bestearen **burutik dijoa** etxeko martxa (O), andreairen burutik ibiltzen da hori (G, O, S), ori bai dala inoren burutik pentsatzea (O), bestearen buruarekin dabil (O), besteren burutik bizi da (O), haren burua baizik ez du ikusten (KA), orixe besten burutik ibiltzea (G), orixe bai dabillela bertzeren buruz (S), Martinen buruz egin dute (S), Martinen buruz dabil (S). 4. horren **era jarria** dago (G), ori besteen erara ibiltzen da (O). 5. osabak berak **nahi** ditun **bezala** erabiltzen ditu (O). 6. horren **esanera** jarria dago (G), ori bertzen erranen gañian dabil (S, KA), andrea-

ren esanean (IN), bertzen erranekin dabile (AM), ori besteen esanekin dabil (O), ori beti bestien esanekin dabil (IP), ori besten esanera ibiltzen da (O, IN), bestek erran elekin bizi da (KA). 7. Aitorren **esku** dabil (G), ni ez naiz inoren esku ibiliko (G), Aitorren esku ibili behar al du honek? (O), gaizkilleen eskuan dabil (O), esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gainean (AX), aintzindariaren eskü makila da (AL, KA), erregeren eskupian dira horrik oro (AL), bere esku dauka (O, G), bere eskutan (S), hori lagunaren eskura dabila (AM), horren eskupian dabil (AL), ...düzü (LAR), bere eskupean dauka (ID), bere eskupian dü (AL), ori bertzen eskutik dabile (AM, O), Keparen eskutik dabil (O, G). 8. **ipurdi** batetik kaka egiten dabil (G), aren ipurditan egoten da (S), hori beti horren ipurditik dabila (AM, S), horriek ipurdi beretik kaka egiten dute (KA). 9. **bertzen manatz** daile (AM), bestek manatz dabila (KA), bestek manaturik düzü (LAR). 10. euskara gazteleraren **mende** jarri nai dute (G, O), orren **mende** ibilli bear al det? (O, EL), gizon hori andraren **mende** dago (G, O), gaiztoen **mende** dabil (O), besteren **mende** bizi da (O), inoren **mende** bizi da (IP). 11. bere **manuko** (AX 235), manukor da (AX 347). 12. bere **mendean** du (AM), bere bendien dauka (IP), mendean ditu osabak (O, ID), menden hartuta dauka (G), gaiztoen **mende(a)n** ~ esku ibiltzen da (G), bertzen **mendez** bizi da (AM). 13. laguna **menean** dauka (G, S, KA), bertzein **menean** dago (AM), horren **menean** da (LAN), bertzen **menin** bizi da ori (S), gizon higuigarrien **menean** da (LAN), eskuara españolaren **menean** pa(r)atu dute (AM, S), eztu bere buruarekin agintzen; andreairen **menen** do (G), gaiztoen **menean** bizi da (AM, S), bere **menean** dauke gixajo hori (S), horren **menean** erori da (ITS), gure **menerat** bildu dugu (ITS). 14. bertzein **meneko** da (AM), hori Pariseko bulegoen **meneko** da (ITS, KA). 15. nere **menpe** da (IP), nagusiaren **menpean** da (KA), ondo **menpean** dauka (IP), inon **menpian** bizi da (EL), ez naiz inoren **menpian** jarri-

ko (IP). 16. ni ez naiz inoren **morroi** ibiliko (O). 17. hori horren **mutila** da (G, O, KA). 18. laguna **pian** hartü dü (AL), horren **pian** dago (AL). 19. eüskara ez da frantsesaren **zərbütari** (AL). 20. andreak **sudur** punta-tik erabiltzen du (KA).

ekintza hark nafarren **MORALA** **jausi** eraziko zuen eta erdaldunena gora eramane / **itxaropena galdu** / **animatu**.

dirua **MORDO** bitan ipini zuen: bi multzotan paratu zuen (AM), bi mukurotan paratu (S), pillo bitan ifini (IP, IN), bi puskatan paratu (G), bi pillatan banatu zuen (O), moltzo bitan ifini oan (O), bi atetan ezarri zian (AL), ...bi aldetan (KA), bi mototan (AL), sosa bi metatan ezarri dut (KA).

lagunak **MORDOKA** etorri dira: taldeka (G), jendea metaka jin da (KA), saldoka (LAR), jendea multzo aldeka (e)torri dire (AM), jendea mukuroka etor da (S), lagun ~ jende mordo bat etorri da (O), jendea pillaka etorri zan (O), pilloka (IP, IN).

alkoholaren **MORROI** aurkitzen zen / **monagillo**.

argia **MOTELDU** egin da: argia tristetu egin da (O), au da ipurtargia daukaguna (EL, O, ID), argixa bajaiaz doie (IP), argia beheitu da (KA), argia txipitzen (LAR).

gaizki hitzegiteko **MOTIBOA** eman du: / **ebitatu**.

MOTIBORIK gabe beldurtu zen Marta: izitu da! Etzen bada zerik! (LAN), etzen zeren! (KA).

MOTORISTAK etorri dira / **-ero**: motorzaleak etorri dira (= motorista) (O, ID).

MOTZ: bizkaieraz = itsusi, zatar, txar: a. orrek neskok **motzak** dira (IN, IP), belarrietara **motzago** iten da (IN) (= peor). b. euskaraz jakin gabe **motz** gelditzen zera (O, ID), euskaraz ez jakitea moztalle aundia da (G).

BEREIZ: beso **MOTZA**: ukalondoaz goiti moztua (O, ID), esku motza: ukalondoaz beheiti moztua (O, ID).

PIKKAT MOXKORTU: A. poxi bat alegeratu da (KA), ardotu da (S), argi argi eginda zebillen (O), bellotüxerik (LAR), belloxe da (LAR), beroturik da (LAR), ederki berdinduta zego (ID), berdoztuta dago (O),

erdi berdoztuta zebillen (O), briu da (LAR), briutü da (LAR), briuxka da (LAR), koparen bat edanda dago (O), arrotuxea dabil (G), erdi harrotua dago (S), katuerdian dago (O, ID), katu erdian zebillek (S, O, ID), katu erdian pasautua emen zeuan (O), erdi mozkortuta (IB, EG), moxkorxka da (AL), nabartua dago (G), pinpirrendua da (AM), pixkat sasoiua dago (S), sasoiua dago (S), utzi, utzi ori bakean; tanttiko dago (S), tanttikatua dago (S), teteletua da (KA), txepeldua dago (G), tximinotürrik da (AL, LAR), txintxin eginda dago (O), txirripin eginda (O), txurrunpin eginda (O), txurrunplin eginda dago (emakumeentzat) (G, O), zepelduxea dago (G), zepelduxea zebillen (G). **B.** ark zeukan atxurra! (O), atxur ederra arrapatu du (O), ark zemakien atxurra! (O), ori auntza dakarra (G), ze eperra arrapatu duen orrek (AM), ganorabakotuta dago (IP), arri egina dago (G), harria baino mozkorrigo (G), jorrada ederra eraman dik orrek gaur (S), katu ederra eukan (IP), lakatza arrapau dau (IN), mozkor arrailla dago (S, AM, G), (da) (KA, LAR), mozkor eroria dago (G, S), mozkor ikaragarria arrapatu du (G), mozkor mozkor eginda (O, ID, IN), xepel xepel egin da (G), arrunt zepeldua dago (G), zepelin ederra bildu du (G), zepelin ederra arrapatu dik (G), zepelin ederra du (G).

le cortó la palabra ■ **hitza MOZTU** zion: hitz egitea galerazi dio (O), ez duzu mintzatzeraz uztan (S), mintzatzea bedekatu dako (KA). Maradonari **baloia MOZTU** dio Salinasek: ...kendu dio Salinasek (O, KA, IN).

ez da erbestean egina, Euskal Herriko **MUGA barnean** baizik: ezta kanpoan egiña, Euskalerrian baizik (O, ID, G), ezta kanpoan egiña; beriunetan egina da (S).

MUGAGABEA. *Lehenagoko idazleek eta orain ere mugaz bestaldean mugagabea guk baino sarriago erabiltzen dute* ↗ **-a** ↗ **goraintzi** ↗ **zorion** ↗ **urte** ↗ **aldi**. **1.1.** Piarres hun da (AL), bazen ardi (AL), hanitx hun da egia salbagarrien entzütia nuzitarik nuzta (AL). **1.2.** zühainak **handi** tia (LAR, AL), oro berdin dira (LAN), ez ziren hola-

ko aintzineko gazteak (ITS), Presuna hase-rrekorrak eta kolerak adimentsu direla (AX 192), oihanak egün mendi pikarrai dirade (AL), eskualdun direla ahantzi dute (LAN), hemen gu izanen gira nausi (ITS, KA), usu deus handirik balio ez dutenak dira aintzindari (ITS), etxe hartan katu anitx bada (AL, LAN, KA), gau on! (AL, LAN, KA, IB, G), eman ezadazü ogi (AL), ekar ezak arrautze (AL, LAR), Jinkoak egün hun deiziela (AL), Egun on Jaungoikoak dizuela guztioi! (EL), fabore handi egin deitadazie (AL), pastorea ari jamoten dago (IN), estimazione on gure hurkoaz ukaiten (LEIZ. Ham Man), urte berri on opa dizut (O). **2.** pazientzia **handitako** da (ITS), sinesmen gutitakoa (LEIZ. **3.** bere zütian etxeak oro (AL). **4.1.** pekatuen **bar-kamendutan** ixurtzen dena (LEIZ), zure laguntzaren beharretan gira (ITS), luzaro bekhatutan egotea (AX), bidetan izan (AX 4), burutan artu dut izen ori (AM, S, G), burutan jarri zait (G), burutan ez zaio sartzan (AR, S, AN, G), neure defensionetan (LEIZ), edifikazione handitan predikatzen (LEIZ.), gosaritan gutxi jan degu (O), kontutan hartu (AX 125), ogia esnetan bustita (O), ohore handitan bizi da (KA), jar adi orazinotan (AX 46), presa handitan dirade (AL), sinesten duen guziaren salbamendutan (LEIZ. Rom 1,16), zorretan gaude zurekin (O, AM, G, S). **4.2.** **dudatarik** itlki (AX 140). **5.** neure mendean anitz ikusi dut **halakorik** (AX), parropietako kantariak eman deikie kantü ederrik (AL), hartarik jan eta izan da eriturik (KA), baditake hori egin duenik (KA). **6.** **ogirik** ezta (S, IN), ogirik badao? (IN), mermeladarik ba al da? (O), badea erreximetarik? (KA). **7.** joan deneko hoge urte **honetan** (AM) ↗ **aldi**: makiña bat egunean (O), jun dan gabonetan (O).

el ejército se limitaba a unos grupos desorganizados ■ gualostea talde desorganizatu **batzuri MUGATZEN** zitzaien: gualostea talde desorganizatu batzuk besterik etzan (O).

MUGAZ... ~ **MUGAREN...** **A. 1.** **mugaz**

bestaldean (G, O), mugaz bestaldetik bizi da (G, IP), mugaz emendik (O), mugaz alde onetatik (O), mugaz arunztik lan egiten du (O), mugaz onunztik lan egiten du (O), mugaz emetikaldean (IN), mugaz andikaldean (IN), mugaz arateko aldean (AM), mugaz unateko aldean (AM), mūgaz haintitik jin dira (AL, LAR), mugaz gaindi ihesi ganzen (ITS), mugaz ha(ra)jidian (KA), hu(ra)jidian (KA). **2.** Españako **hegi**az haintitik jin dira (AL), hegiz haitilat (AL). **3.** **Bidasoaz** haintian gure aneiek bizi dira (AL), urez ha(ra)jindian da (KA), erreka bestaldetik (S, O, U, IP), Iordanaz bertze aldean (LEIZ. Ioan 1,28). **B.** **muga(re)n** arateko alde (S), Iordanaren bertze aldeaz (LEIZ. Math XIX), itsasoaren bertzen aldetik (LEIZ. Ioan 6,22), lakaren bertze aldera (LEIZ. Luk 8,22, AL), itsasoaren beste gaintitik (AL), mendi orren bertze aldean bizi dire (AM), erreka(re)n beste aiekan (G). **D.** Españako hegitik hunat jin dira (LAR).

Mirentxo, **MUGI** ezazu **seaska**, haurra lokart dadin ~ seaskari eragin (G, O, IN, IP), kūna txurdun patü (AL).

MUGITU: ez higi! (ITS), otarria higika (ITS), etztila zotüka horti (LAR), zotüka zite horti (LAR).

lurra MUIN dezaten lortu dute: lurrean muin eman dezaten lortu dute (O), lurrean muin ematea lortu dute (O), lurrei mun emotuetso (IP), potta eman dako lurrari (KA).

alkateak **MULTA** asko **ipintzen** ditu: multa asko kentzen ditu (O, IP), multa kentzallea da (O), prozedura anitz egiten dute (KA).

elefante MULTZOKADA bat igaro zen (-kada bukaera ez dago ongi kasu honetan: katilukada bat esne, eskukada bat belar... eta horrelakoetan erabiltzen da) ↗ **pila:** begor alde bat daille (AM), beor pillo bat (IP), bei alde dator (G), elefanta andana bat jin da (KA), elefante pilla bat dator (O), montüra, mando saldo bat (LAR).

il y avait du monde ■ **MUNDUA** han zen: hango jendetza! (O, ID), ango jentia! (IP), ango jente pilloa! (IN, ID, G), ango jende pilla! (S), han jendie alde handia bazen

(KA), jende oste handia bazen! (KA), ango jende mukuru! (S).

por nada del mundo te molestaria ■ **MUNDUKO ezergatik** ezinduket molestatuko: deusengatik ez nizuke pena eman nai (G), deusetan ere etzütüt nahi debeierazi (AL), deusengatik ere ez zuen nai (AM, S, G), ezegaitik bez! (IN), ezergatik ere etzaitut mindu nai (O), ezergaitik be etzuzut penaik emon gure (IP), deusetan ere etzütüt gaitziarazi ~ kexaarazi nahi (KA).

urpean MURGILDU zen: udetan murgil egin zuen (O, ID), uretan murgildute fuen zen (IP), murgillean ibilli zen (G), murgillean sartu da (EL), hurpialatü ~ hurpelü (AL), urpean sartu da (KA), hurpilat jun düzü (LAR).

gaixotasunean MURGILDU zen: oso gaixo jarri zan (O, ID, EL), oso txarto jarri zan (IP, IN), guztiz txarto parau zan (IN), arrunt gaizkitu zen (G), eri handi zen (AL, LAN, ITS, KA, LAR).

jokoan MURGILDURIK daude: or ari dira joko(a)n begiak zulotik ia atere(a)n (G), or ari dira... begiak atera bearrean (O, ID), begiak ate urranin (S), jokoan sututa dabiz (IN), buru belarri ari dira (KA).

Ioan MURGILDURIK zegoela lapurra sartu zen: ↗ **lo** (sakona).

gabonetan MURGILDURIK gaude: gabonetan gaude (O), gabon gabonetan gaude (IN, EL).

MURMURATZEN ari dira: murmuretan dao (IN), marmarikan ari da (KA), marmarka ari da (G), marmarrean ari da (O, ID), marmarian ari da (AM, G, S), jendea jorratzen ari dira (KA), murmuzikan ari düzü (LAR), elia iaurri da (LAR), gaizki esanka ari da (G).

MURMURAZIOAK ebitatu ↗ **ebitatu**.

reduzca su velocidad ■ **MURRIZTU** zeure abiadura ↗ **gutxitu**.

MUS eman al duzu? ↗ **kartetan**.

masaila **bakoitzean MUSU bana** jarri zizkion: ↗ **bana:** semeak musu bana eman zioten amari (O), matrallan (IP), mateletan bi potta eman zazkon (KA), papu bietan musue emoutsen (IN), arpegi bi aieketan musu bana eman zion (G), matralletan bi musu

eman zizkion ~ alabari musu eman zion masallean (O, IN, G), arpegiaren alde banatan musu eman zion (O), arpegiaren bi aldetan musu eman zion (G).

aurpegia **MUSUZ** bete zion: musuka ari zitziaion (O, AM, G), musuka ari dira (G), haurra amari pottaka ari zako (KA).

MUTIKO koskor (S), mutiko (IN, S, IP), muttiko (ITS), mutiko koskor (KA), mutikotxoa (IN, IP), mutikoskor (G), mutil koskor (EL, O), potiko (haurra) / motiko (koskortua) (LAR).

MUTIL: Sunbillatik Zuberoaraino = mo-

rroi: hori gure mutila da (ITS, LAN, AL, AM, S, KA).

los extremos se tocan ■ **MUTURRAK** ukitzen dira: muturrek elkar ukitzen dute (GR), geiegikeri guztiak berdintsu (O), geiegikeri guztiak txarrak (O), larreixe dana da txarra (IP), larra dana da txarra (IN), soberakin guziak kalte dira (KA), soberania guziak dira gaxto (AX 87), gauza guzietan bada hein bat eta hortik kanpora txarra (AM), bada geineko eta gutxieneko bat (O).

MUTURREZ aurrera ↗ **aldapa** (muturrez).

N

-NA. ↗ bana: duro bana (O, G, EL), bina duro (O, G), hiruna duro (O, G), launa duro (O, G), bostna duro (O, G), hamaikana duro (O, G), bakoitza sagar banakin etorri ziren (O, G), danak otarrakada bana sagar ekarri zuten (O), milla bana pezeta eman zizkien (O, G), ogeina milla duro (O, G).

-NA ↗ **-ena**.

BEREIZ: **NABALAREN** zuloa / **nabalaz egindako** zuloa.

oso zintzo zela **NABARITZEN** zitzaion ↗ **notatzen**.

NABARITZEN denez, neskatilla zintzoa da ↗ **notatzen**.

gaur **deseginda** **NABARITZEN** naiz ↗ **leher-tuta** (nago).

ori estudioetan guztien artean **NABARMENDU** da (O, ID), eskribitzen ori da gallen ~ gehiena (G), nabarmendu: nolabait ere gauza itsusietan (EL), literaturan onenetakoa da (O).

berezko **NABARMENA** zuen ona izatea ↗ **notatzen**.

nire **ezintasuna** **NABARMENDU** zait ↗ **ezin**: au eziña! (O, ID), ezin jasaina (KA), eztakit zer duten; biño ezingonez nago (S).

NABARMENDU zitzaien zerbaite nesken begiei ↗ **notatzen**.

zirrara ttipi bat **NABARMENDU** diot Manuren eskuari ↗ **notatzen**.

NABO otarrakada bat ekarri nuen ↗ **lur** (pallakada): zankada bat nabo (IN), otarrakada bat arbi ekarri nuen (O), otzarakara bat arbi (IP), saski bat arbi (KA).

jai NAFARRAK politik izan dira ↗ **-tar**.

«rik **NAGUSIENA**»: **nagusi-k ez du kasu hauetan superlatiborik**. **Herriak na(g)usixena** (= senideetan zaharrena) (EL, IP), **erabilzen du**.

*hori da **idazlerik nagusiena**: idazleetan ori da nagusia (O), ori da idazlerik onena (O), ~ oberana (S, AM, G, KA), anaia nausixena (IP, EL), laur aurrhiden gehiena (AL), alaba nausixena (IP, EL), anai zarrena (O, ID, G).

NAGUSI baten kotxea ongi ibiliko da: esku batean dabilen kotxea ongi ibiliko da (G, O), esku batean dabilen otoa untsa ibiltzen da (KA).

biar **lainoa** **NAGUSITUKO** da ↗ **laino**.

laster **guziez** **NAGUSITU** zen: laster guziei nagusitu zitzaien (GR), dener nagusitu da (zaie) (KA), morroi joan zan baña laster nagusi jarri zan (O, ID), laister danen gañetik jarri zan (O, ID), kolera... nabusitzen zeikala (AX 192), laster egin zen guztien nagusi (O).

nigar eta **barre** biak **NAHASIAN** egiten zituena: irriek eta nigerrak biak batean iten tuzte (AM), negar ta parre batera egiten zituena orrek (O), irri ta nigar denak batean egiten ditu (S, KA), parra ta negarra alkarren ondoan du ark (G), barre da negar bate(r)a eiten zittuen (IP).

mendiko **ura** **NAHASITA** zetorren: uer gogorrrak intu (AM), urarreak datoz (G, Errezil), bideur aundiak datoz (O), sursak partitu dira (LAR), ur loiek datoz (IP), euri uharra heldu da (KA), mendiari behiti burruztan heldu da ura arroilak eginez (KA), uriolea in dau (IN), urhastea heldu da

(KA), urhasteak egin ditu (KA), ura uherra dator (KA).

ura ta ardoa NAHASITA edaten du (S, AM), udardoa edaten det (O, IP), ur eta ardoa edaten du (LAR), ardoa ta ura naasita edaten du (G), uresnea edaten det (O, IP), esnea, ardoa pataritu (G), ardo pataritu edaten du: urardoa (G), ardoari ur pixkat naasi (G), ure ta ardo naste edaten dot (IN), arnoa urarekin edaten du (KA), pentua eta esne autsa alkarrekin nastuta (O), ura esnekin ~ esnari ura emanta edan bear dut (S), esneura edan (G), esnea urarekin nahasten dugu (KA).

tipo hau **urdaia** eta **abiadura NAHASTEN** ari da: (morroi honek) goiak eta beiak naasten ari da (O), danak naasteko aña bada ori (O), orrek naasiko ditu goiak eta beiak (G), aza ta illarra denak naasten ditu orrek (S), azak eta babernak naasiko ditu orrek (G), goixek eta beiek nasketatitu (IP).

NAHI: zu hil nahian dabil (O), zu il guran dabil (IP), zu hil nahiz dabil (AL, AX), ari da (KA), muthikoa bildu beharrez ari da neskatxa hori (ITS), gaitzitu egin zen, hain baitzen auzaphez izan nahitan (LAN).

todos le querian ■ denek **NAHI** zioten (= herriari oso erabilia. Erdararik itzulua): denak maite zuten (O, G, IN, IB).

NAHI adina gartzainak jaten ditu / **adina** (gizonak).

gauzak ikusi **NAHI nuke** / **joskera**.

NAHI ~ **GURA** / **esan** (egon zedila) / **ojala**.

I. A. 1. Zeanira **joan gurot** (IN, IP, MO), Sunbillara **joan nahi nuke** (S, O, ITS, KA), erran nahi dut gauza bat (AX 240), Zer egin gogo duzu? (AX 142), egin gure neunke (IN), harian hari, jarraiki nahi nuke (KA). **2.** Elgoibarrera **joatea** nai dot (EL, G), horren egitia nahi düt (AL). **B. 1.** lagunak Aramaiora **joan daitezela** gure dot (IP, MO, EL, G). **2.** lagunak Azpeitira **jutea** nai det (O, EL, S, IN), zuk hori egiterik ez det nahi (O, G), ure gatea nai nuke (AM, S), semea ara joatea nai nuke (G, O). **3.** adixki-deak Itsasura **joan diten** nahi dut (ITS, AL, LAR, KA), laguna Zeanira **joan daiten gurot** (IN), nahi dut harat **joan** dadin (ITS,

LAN, AL, LAR), nahi duk goazen? (LEIZ.), nahi duzu gu garen onak (AX), nahi düt hori egin dezazün (AL), ori fuen dain gure neuke (IP), Pierres **joan** dadin nahi nuke (KA), nahi dut ixilik dagoen (GR), nahi nuke ixilik legoen (GR), nahi dut etor dadin (GR), nahi nuke etor ledin (GR), nahi nuen etor zedin (GR), ez zen nahi nehor ere ederragorik izan zain (LAN). **4.** nahi nuke iben **bazinitza** begiak (AX 385), nahiago nuke hori egingo ezpa-zendu (O). **D. 1.** **nigex joan** gure leuke (IN), (nigaz) (IP, MO), erran nahi du (AX 147), nerekin **jun** naiko luke (O), enekin **joan** nahi luke (ITS, S, KA), eneki **juan** nahi lizate (AL, LAR). **2.** **nigex joatea** gure leuke (IN), nerekin **jutia** naiko leuke (EL), neugaz **jutie** nai leuke (IB), nik ori egitea nai luke orrek (G, O), nik oi itea nai luke (AM, S). **3.** nahi du guztiak salba **ditezin** (AX 69). **E.** hemen **balego!** (O, EL), etorri izan balitz! (O, EL), etorriko balitz! (O), lehenbailen alde egin dezala! (O), agian joango al da! (G). **II.** ez dut hori egin nahi (O, G, KA), zuk hori **egiterik** ez det nahi (O, G), ez dut nahi zuk hori egin dezazün (KA).

NAHI DUZU / NAHI ZARA: mugaz bestaldean «nahi naiz» aditz intransitiboekin; «nahi dut» transitiboekin.

a. Exeri **nai al dezu?** (O), horren egitia nahi düt (AL), jarri guruzu? (IN), deus egin nahi etzuen mediku bat (LAN), ezarri guruzu? (IN), nahi izan beitu Atharratzen berian azken urthiak igan ahal ditzan (AL), jarri **nai al duzu?** (AM), nik eztut **nai** zuk oi itea (AM), nik eztut **nai** oi in (AM), ikasi nahi badute (LEIZ. Kor I, 13,35), zuk ori egiterik ez det **nai** (O, G), nahi düt hori egin ez dezazün (AL) ~ ez dezazün egin (AL), ez düt nahi hori egin dezazün (aurrekoa baino usuago) (AL), zuk ori egitea ez dut **nai** nik (S). **b.** **joan nahi da** (ITS, AL), etxera nahi naiz **joan** (LAR), norbait nahi baldin bada (AL), nahi nintzen lehen zuetara ethorri (LEIZ. Kor II, 1,15), mendekatu nahi bazara zeure eskuz (AX 220), mintzatu nahi natzaitzu (AX 2), hor nahi zare iausti (ITS), etzen sarthu nahi izan (LEIZ. Luk 14,28), baldin bizitzean sarthu nahi bahaiz,

begiraitzak manamenduak (LEIZ. Mat 19,17), nahi niz **joan** (AL, LAN), ehiz nahi igitü (AL), ezpaitzan nahi ederragorik izan zain (LAN), gatüa nurapait **jun** nahi da (AL), Irene ohian sarthü nahi da (AL). **c.** neskatila **ezkunt nahia da** (AL) / **izan**: lo egin nahia da (ITS), **joan nahia** niz (KA), ez zen giroa guk nahi bezala berehala aldatu (EG), ez zen giroa guk **nai** bezain agudo aldatu (G), ...etzen guk **nai** bezin azkar aldatu (O), **nai** ordu ezta etorri (G), ezta **nai** ordu etorri (G), etzan guk gure genduiñ aguro aldatu (IP).

hori **gehiago NAHI** dut / **gehiago** (nahi) / **maite**.

gehiena hori **NAHI** dut / **gehiena** (nahi).

NAHI ezta bezala egiten dira gauzak: **nai** ez bezala (O), uste ez bezala (G, O), norberen gustora eztaue urtetan batzuetan gauzak (IP), ez dira nahi bezala egiten gauzak (KA).

BEREIZ: 1. **NAHI gabe** egin zidan (= bere-riaz ez) (O, S), barkatu, ez dut nahita egin (S), nahi gabean (KA). **2.** **naigabe eman** zidan (O, S, G), naigabe artu nuen (O, S, G), naigabe aundia eman zida (S), ark eman zidan biotzondokoa (O), ...bihotzmin handia (KA).

zopa NAHIKOA ~ **nahiko zopa** ~ **nahikoa zopa**: **1.** zopia nahikoa artu det (O, IN), ogia naikoa jan dozu? (IN, S). **2.** **a.** naiko ogia jan dut (G, O). **2.** **b.** nahiko sagar badago (O, S). **2.** **d.** naiko ogirik jan dozu (IN). **3.** naikoa jan dozu ogia? (IN), ez daukat naikoa dirurik (Kresala), naikue zopa artu dot (IP), naikue gaztañe jan euen (IP), naikoa ogi jan dot (EL, IP), nahikoa dago ogirik (IN), naikoa neke igaro dot (Kresala).

joan ez balitz, **NAHIKOA** zen: ez joatea asko zuen (O), aski zuen ez gatea (AM, KA), aski zuen etxean gelditzea (AM), fuen ezpailitz e oba euen (IP), naikoa i oan joateagaz be (IN).

lanak **NAHIKOA** eginak ditugu: lanak egintxerik ditugu (LAN), lanak egintxeak ditugu (KA, LAR), lanak egin xamarrak dauzka-gu (O).

NAHIKOA garrantzi handia du: naiko inpor-

tantea da (G), inportante xamarra da (O), aski aundie da (AM, S), aski larrie da (AM, S), aski inportanta da (KA), balio handikoa da (KA) / **inporta**.

zu ez zara **gizon NAHIKOA** honetarako / **kapable**.

emakume **NAHIKOA luzea** / **luzera** (oneko).

Zer moduz? **NAHIKOA ongi**: ondo esan bear-ko! (O, EL, IP), ainbestean (O), aski ongi (AM, S), ongi aski (AM, S), alosa! (IN), arras untsa! (= nahiko) (KA), horrekin badao hainbatean (KA).

traktora **NAHIKOA ongi** dabil (G), ein batean dabil (AM, ITS), hein batean **joan** da (KA), bildotsak saldu dira hein batean merkatuan (KA).

NAHIKOA ongi jarri zen / **mejoratu**: ainbestean jarri zen (G, O), ainbestian be jarri zan (IP), ederrak ikusi ditu, baña ikusi(a)k ikusi aski ongi jarri da (S, O), ontsatu da (KA).

NAHIKOA urduri dago ~ (/ pixkat): nerbio-so samar dago (O), naiko artega nago (IN), kezkatuik samar gaude (O), kekkatuxeak gaude (G), izitu xamarra dago ori (S), Piarrres bizia (nerbioso) da (KA).

NAHIZ: Erdararen eraginez -*arren eta -gatik* galtzen ari gara (lehena batez ere); *nahiz* nagusitu zaie. Euskal senak, ordea, konjuntzioak azkenez nahi litzuzke / **baina**.


NAHIZ hori esan, oso maite dut: **1.** hori esan **arren** (EL, IP, IN, IB, ID). **2.** ori esan **agatik** (O, S, AM, ITS, LAN, AL, ID), haur baktxa izanagatik (AL, LAR), zuk dirurik edukiezagatik, maite zaitut (O). **3.** hau erranik ere (LAN, KA), hori eginik ere (ITS), ohidura bereziak izanik ere (LAN). **4.** hori erran **zuelarik ere** (LAN), Manez lagun duzularik ere... (ITS). **5.** heriotzea hain segura duzularik **arren...** (ITS, LAN). **6.** ori eginez **gero ere**, ez gera aberastuko (GR). **7.** ori esanda **ere**, oso maite dut (ID, G, O), ez izanta ere (G, O). **8.** ori esan **bazuen ere...** (O, ID), hori inta ere, ez gera aberastuko (G), ori eginda ere.. (O).

natur zientziak / **kultur** / **fisik** / **karririk**: natura zientziak (GR), naturalezako jakintza (GR).

NATURA: ez ahantz lexema honek zenbait

eskualdeta *lakuntza* (AM), (animalien «vulva») esan nahi duela. Oso erabilia da: (O, G, ID).

NEBA: *bizkaieraz gorde egin dute neba lexema. Bizkaierak beste euskalkiek baino hobeki atxeki du euskal alor semantiko honi zor zaion egitura.*



NEGAR: negar muskullutan dago (O), mara mara malkoa zeriola (O), nigarrez tantaka dago (S), negar zotinka ari da (O), malkoa mara mara dario (O), malkoa zeriola zegoen (O), malkoak arraka dauzki (G), malkoak arraka z(e)gon (G), odol arraka dago (G), odola burrustan ateratzen zaio (AM), odola burrustan dario (AM), odola zirriztan dario (AM), esnea zarran dario (ID), malkoak ertetzen zizkion (O), malkoa arraka zen (G), nigar xortak ixurtzen zituen (KA), nigar tantak eroritzen zazkon (S), nigarra arrakan zagon (S), negar in pillue dario (IN).

NEGATIBA eman zioten **baiezkoa.**

NEKATU: 1. basoan ibiltzen kantzautu dao (orain ere badabil, agian) (IN), ...nekautu (O), ...da (G). 2. mendian ibillita nekautu dago (S, O), basotik buelta inde, kantzautu dao (IN). 3. mendian ibilteagaz kantzautu dago (IN), mendian ibiltzeaz kansautu dago (IP), «arrapostu emaitz debeiatürük nüzü». 4. mendian ibilirik akitia da (ITS, KA), mendian ibilirik eñherik da (AL, LAR). 5. basoan ibilteagatik kantzautu dago (IN). 6. mendian ibiliz akitua da (KA). 7. mendian ibillixakin kantzautu dao (EL). 8. mendian ibiltzetik nekaturik da.

-NEKO ~ -nerako **orduko.**

musika hori entzunda **NERBIOSO** jartzen naiz: artega paretan naz (IN), arreguraturik jartzen niz (KA), musika orrekin ondarran naasten da (S), (= urduri jarri) (S), aidean egoten naiz (G, O), airean egoten naiz haren zain (S), artega egoten naz (IN), zainek atxikitzen gaituzte airean (KA), zainen gainean gira (KA), zainen puntan gira

(KA), ez zituen zainak menperatzen ahal (KA).

NERE Donostiako laguna: Donostiako nere lagunak (EL, G, O), (ene) (KA, S, IN), batiko bere laguna (O).

NESKA-MUTILA zeuden eserlekuan **eta**. **NESKATXA / neskato** (= neskame) (S, AM, ITS, LAN, AL KA).

igande arratsaldeetan Leitzako **NESKATXENGANA** goaz **bizidunak** (neskatxatara): neskatar Leitzara (G, O), neskatara (KA).

baditut **NEURE** kezak **bere:** kezkatürük nago (ID), kezketan nao (IP), arreguratia naiz (KA), kezkatuta nago (O, ID), kezkatua nago (S, G), baditut kezak (O, ID), kezkekin nago ze pasatuko ote den (S), nik neure buruausteak ditut eta zuk zeureak (IN, IB, EL).

por las mañanas me fumo mi cigarro, después...

■ goizero **NEURE** zigarratxo erretzen dut, gero... (= ez dut besteen zigarrorik erretzen): goizero zigarratxo bat erretzen dut (IP), (**bere**), goizean neure zigarratxo erretan dot; arrastian neure lagun(ar)ena (IN, IB, EL).

elur hau **NEURRI** batean ona da: gauza guzietan bada hein bat eta hortik kanpora txarra (AM, AL), elur au era batera ona da (O, IP), alde batera (IP), ogia hein bat on da (ITS), hein bat bada orotan (KA, LAR), Xiberuan oihanak hein bat eder dirade (AL), elurra hein batean ona da (KA, AM).

dena berarentzat hartu zuen; berekoikeria **NEURRI** horretaraino **eraman** zuen: ...; ain da berekoia (O, ID) **-la.**

NEURRI politikoak hartu behar dira ~ erabaki politikoak (O), ori pasatu aintzinetikan, artu bear dira neurrik (S, O), kontseiluak izari hori hartu du, laborariak laguntzekotan (ITS), deliberamendu bat hartu du Aiherrako merak (KA).

zahartzen zen **NEURRIAN**, makaldu egin zen **arau.**

haren leialtasuna **zein NEURRIKOA** zen jakin nahi zuen: zenbaterainokoa zen aren leialtasuna (O), horren leialtasun nahi nuke jakin ze heinetaraino joan litaken (KA).

oinetakoak **NEURRIKOA** ditut (IP, O) **justu:** zapeta honen izariko zango ezta heben (LAN), haren zangoko izaria zen zapeta (LAN), izarikoak ditut (KA), izarian ditut zapeta hauek (LAN), aginteak ere izari bat badu (ITS), oñetakoak ez ditut ez txikiegi ez aundiegi, alde aldekoak (G), bestearen heinean ezarri izarian (KA), oñetakoak ez ditut ez txikiegi ez aundiegi, alde aldekoak (G), bestearen heinean ezarri izarian (KA), oñetakoak ez ditut ez txikiegi ez aundiegi, alde aldekoak (G), lasak / estuak (G), estu antzean (O, IP), estuxko (AM, S), estu xamar (IP), zapatak hertsisko ditut (KA) / laxosko ditut (KA).

zakua **NEURRIZ kanpo** batea zegoen **to-peraino.**

NI eta **hau** etxe berean bizi ginen: au eta biok (O, EL, IP).

NIGARRARI eman **zitzaion** **eman** (nigarrari).

-NIK: 1. orokortasuna adierazteko. 2. menpeko perpausa ukatzeko:

1. izatu da gaizki heldu denik (AX), bada txakurrik heben (LAR). 2. ez dut uste etorri denik (O, IB, EL), ez da txakurrik (LAR, O, IB).

NINGUN ■ **ezeinere** (LEIZ.): Nehork etzaitzatzela seduzi ezeinere maneraz (LEIZ.), iñork ere etzaitzatzela engañatu (O, IP, G), ori iñola ere ezin det engañau (O), iñolat ere ezin dut egin (S).

nik **NIRE** laguna maite dut **erreflexiboa.** konfrontazioak **NIRE** haserrea **areagotu** egin dit **bere:** len baño asarreago jarri naiz (O, IP).

NIRE amak oso maite gintuen **anaia:** gure amak (O, EL, KA), gure etxean sei aurrige gara (AM), gure osaba, gure andrea (ID).

ezin nuen **NIRE** haserrea gorde **erreflexiboa:** neure asarrie ezin gorde izan neuen (IP, O), ezin nuen atxiki ene kexadura (KA), neure akhidura ahantzirik, abiatu nintzen (ITS), amurrazioz ezin nintzen egon (G), errabiakin... (G).

NIRE loa amesgaiztoz **bestarik** joan zait **bere:** amestxarrakin lo egin dot (IP), amestxarrak egin ditut (O, ID, G), amets txarrak egin ditut (KA), gaur amets nahasiak

egin ditut agitz (S), ameseta txarrak ein do-daz gaubian (IN).

NIREAREN alboko eserlekuan zegoen: ene kantuko kaxetan jarri zen (AL), ene ondoan den kaxetan (AL), nere alboko eserlekuan (O, ID), nere ondoko sillan zagon (S, AM, G), neure ondoko sillan jarri zan (IP, IN), ene ondoko kaderan jarri da (KA), ene kantuko kaideran jarri da (LAR).

NIXKA / neska ~ neskata **bustidura:** a. zein nixka pollita (= neska koskorra) (G). b. erriko neska ~ neskatak jatorrak dira (G).

NOBELA: mugaz bestaldeko euskaldunek *romana* erabiltzen dute □ horrek romanak irakurtzen ttü (LAR), novella: ingelesez = elaberri laburra □ nouvelle: frantsesez = short story □ Nouvelle: alemanez = short story □ Mugaz bestaldeko idazleek maiz «eleberri», «elaberri» erabiltzen dute. Axularrek *elhaberri* darabil.

NOIZ? **gerundio** (jaia) **erori.**

hori **NOIZ behingokoa** izaten da: noizean beingoa izaten da ori (O), noizian beñekoa (IP), noizik bein gertatzen da ~ noiz bein (G, S), noiztenka (KA), noizen beinke (AM), noizen bein (AM).

NOLA: *Zergaitzko perpausak (kausalak) eta berdinketak egiteko maiz erabilia izan arren, nola berez zuzen eta zeharkako galde-esaldiei loturik dator.*

***Nola** zaude, Miren aingeru? (ID, G), Miren aingeru **nola** dagoen jakin nahi nuke (ID, G), nola den (KA).

***nola** oso behartsu zen, gaixotxe batetan hil zen; behartsua zalako, gaixotxean il zan (O, IN), behartsua zenez gero (G), behartsua zen eta... (IN, IB), behartsu bait zen (AL, ITS, LAN, AM, S, G, KA).

***ikusi** dugu **nola** liburu polita den: liburu polita dala ikusi dugu (G, KA), liburu polita dana ikusi dau (IP).

*Antxo etxetik **nola** irteten zen ikusi nuen (= zein modutan, isilik, lehioetik behera...) / Antxo etxetik irteten ikusi du.

lan hori lortzeko, karrera **NOLA** amaitua izan **denaren ziurtageria** behar da **abstrakto** **zail:** ...karreraren ageria behar da (GR), karrera titulua behar da (GR), ka-

rrera ze notakin atera duen jakin bear da (O, ID, G, IN), estudioen titulua (IN, O, G), estudioen diploma behar da (KA), karrerako titulua (IN, O), ikasketa(re)n titulua (O), eskolako titulua (S), istudioiko titulua (O, S, IN), estudioetako titra (KA), istudioetako titra behar da (KA).

kontatzen da NOLA behin Gautier-ek Taineri esan zion: behin Miren Aingeruk Maiteri esan omen zion... (IB, IN, ID, O, KA).

badakizu NOLA gazteak jator diren: badakizu gazteak zein jator diren (G, AM), (zintzo) (KA).

NOLA zeruan hala lurrean: zeruan bezala lurrean ere.

zuk hainbat merezi duzu NOLA horrek: orrek beste merezi dozu zeuk pe (IP, IN), orrek aña merezi duzu zeuk ere (O), horrek bezainbat merezi duzu zuk (KA), bezainbeste (LAR).

NOLA zuk hala amak: zuk eta amak ere bai (ID), zuk bezala egingo du amak ere (G, KA).

NOLA zu hemendik? / (nondik) **ibili** □ (*hurrrango esaldiak: a. erdal kutsuzkoak*): **a.** zu emendik, nola ba(da)? (O), zelan emetik! (IN), zu emetik? (IN), zu ere emendik? (O), zu be emendik? (IP). **b. ze,** emengo aldi duzu? (KA, LAR), ze, emengo aldi? (AM, S).

NOLA bidaia?: **biajia** zer moduz? (O, S), **biaje(a)n** zer moduz? (G), nolako piaia izan da? (KA), nula egin duzu bidaje hori? (LAR), zer gisa egin duzu **biajia**? (S).

zer, NOLA atzo?: atzo zelan? (IN, IP), zelan atzo? (IN), zer moduz atzo? (AM, S, G), atzo nola pasatu? (KA).

jócomo no!: NOLA ez! (O, LAN): orixe bai! (O), bai, bozik! (AL, G, AM, O, EL), nondik ezetz? (AM), hala(b)inan (KA).

NOLAKO euria ari den!: / **auri**.

gauzak horrek ederki egiten zituen, NON denek goraiatzuten zuten / **la**.

a. NONBAIT. b. nonbaiten.

a. nonbait: **1.** itxuraz, dirudienez. **2.** nonbaiten (= en algún sitio). **b.** nonbaiten (= en algún sitio).

a.1. nonbait, bazekien (O, EL). **2.** hor izanena da nonbait (AL, AM), nonbait ditake

(KA, LAR), antza, itxuria, itxuria dagoez (itxurionez EL), (IB, EL, O). **b. nonbaiten** egon da (O, EL, IP), or izango da nonbaiten (O, EL), nonbait eoin da (G), etxe barrene(a)n izain da nonbait (= nonbait ere) (G), etxe barruan izango da nonbaiten (O), etxe barruan egongo da ainbaten (IN), jo atea; etxin barrenien izango da (S).

despistatuta NONBAITEN utzi du: eztokiren batean utzi du (O), toki jakinean ez du utzi (G), konturatu gabe eztokiren batean utzi du (O), toki jakinean ez du utzi (O), leku jakiniñen eztau itxi (IP), konturatu barik ezleku(re)n baten itxi dau (IN), ohargabetarik nonbait utzi du (KA), izpi(ri)tia nahasi du (LAR), atzo burua hankatan ibili zuen (O). **NONDIK** da Larramendi kalea?: non dago Larramendi kalea? (O, IN, G), (karrika) (KA), nondik joa(n) laike Larramendi kalera? (IN).

A. NOR ~ NORTZUK. B. Zein ~ zeintzuk. *Ingelese eta alemanieraz bezala: Who is he? Who are they? Wer ist er? Wer sind sie?*

1. Nor etorr(i) da? (S), gizon horik nur zien? (LAR), Nor etor **dire**? (S, AM), Nor jin dira? (LAN, AL, ITS, KA), nor dira gazte horiek? (ITS, AL, LAN). Nor ote dire oiek? (S), nor dire oiek ori guri errateko? (S), oik nor ote ditugu? (S), nor zate zuek? (AM), eztakit nor etorri diren (S), zoaza ikustera nor jin diren (AL). **2.** nortzuk dira orrek? (IN, IP), eztakit nortzuk etorri diren (IN, IP). **B. 1. zein dira** oiek? (O, EL, G), zein etorri dia? (G, O, EL, ID). **2. zeintzuk?** (IN), zeintzuk liburu artu deuz? (IN). **D. ze** liburu artu **dituzu?** (O, KA), ze erosketa eintzu? (G, O), ze liburu artu ittezu (IP), ze liburu erosi **duzu / dituzu** (bat baino gehiago) (KA).

NOR-NORI gaizki: *mugaz bestaldean maiz egiten den akatsa / joskera.*

*munduko filmarik ederrenari baino gustu handiago hartzen **zuten** haren **ditxoei** † amari emanen **dut**: ...hartzen zieten haren ditxoei (O, G, ID), amari emanen diot (AM, S).

*ama hurbiltzen **da** haurrari: ama haurrari hurbiltzen zaio (ID, EG).

*amari pota emaiten dü (AL): amari musu

eman dio (AM), xakhurrari sogiten dü (AL): zakurrari so egiten dio (GR).

*egunero Jainkoari eskatzen **dut**: egunero Jainkoari eskatzen diot (ITS), eskaketan deusot (IP).

NORK-NOR: *mugaz honuzkaldean gaizki egina.*

*kalean ikusi **diot Maiteri**: Maite ikusi dut kalean (EG, ID), Maiteri begiak ikusi dizkiot (EG, ID).

***jendeari** aurrerantz pasa zedin erreguz ihardungo **zuen**: jendeari aurrera pasatzeko esaten zion (O, IP, ID).

*buruzagi egingo **ziola** agindu zion: buruzagi egingo zuela agindu zion (ID, EG, O), buruzagitzat hautatuko zutela hitzeman zakoten (KA).

*ekintza bertara eroaten **dautso** irakurleari: uste ortara eramaten du irakurlea (ID, EG), aitag umea mendira eroaten dau domeketan (IN, IP, IB, MO, KA).

hoberena **NOR bakoitzak** bere baitan galdeztza: onepa bakoitzak bere baitan galdeztza (GR), onena nork bere baitan galdeztza (GR), nik neure buruei galdetu neutsen (IP), bakoitzak bere buruari galdatu behar dako (KA, S).

NORABAIT: norapait gan da (AM), (fuen) (IP, KA, LAR), norapait ere joan da (AM), norabait ere bestetara joan dira (G), inora bestera joan dira (O).

NORBAIT ezagunaren antza hartu nion / **ezaguna.**

NORBAIT irten zen. **Norbait** hura beltzez jantzia zetorren: norbaitek erten zuen. Beltzez jantzita zetorren (O, ID, G).

pertsonaiek **NORBERENTZAKO** hitz egiten dutenean / **bakarrrik** (hizketan).

gaur ez dago **NORMAL**: ez dago bere orrien (AM), gaur ez dago bere onian (IP), gaur ez dago bere senean (IP, IN), ez dago bere baitan (KA, LAR).

zuk egin ezazu bizitze **NORMAL** bat / **bat**: zuk egin ezazu bizitza normala (G), zuk egin zazu eguneroko bizitza (O, AM, IP), zuk zure bizia egin zazu (KA).

gauzak orain **NORMAL** doaz: gauzak bere bidetik dijoaz (O), orai gauzak hobekituz doazi (KA).

ez da **NORMALA**: **1.** adimenduz **ahul** da (ITS). **2.** izketan **atzera** heldu da (G). **3.** ori ezta **bete** betea (O, IN), ezta betea oietakoa (O). **4.** buruz **atzeratua** (O), atzeratua da (G, IP), ez omen da buruz betea (O), burutik eskas da (ITS), burutik eskasa badu (KA), ezta ematen buruz oso jantzia danik (O, ID), ez dago buruz ondo jantzia (O), ezta maingu burutik; bere alde egin du (S), hori burutik ments da (LAR), ezta buruz osatutakoa (O). **5.** ori ezta agitz **natifoa** (S). **6.** ez da arras **sanoa** (AM), ezta oso sanoa (G). **7.** ezta zearo **zearokoa** (O).

ez zen hain txikia; **NORMALA** / **mediano.** zakur hau ez da **NORMALA** ~ zakur au ez da naturala (AM, IP), zakur au ezta arront naturala (G), txakur au antzemanda dago, ez dela oso naturala (O).

konorte NORMALEAN zegoen / **konozi-mendua.**

NORMALKI / **jeneralki.**

NORMALKI ni lehenago hilgo naiz, zaharra-go bait naiz: zuzenbidez ni lehenago... (G, AM).

NORMALKI semeak lagundu beharko luke aita: ontsalaz semeak behar luke aita lagundu (KA), berez umeak lagundu bearko liokete aitari (ID, EG, EL).

NORMALTASUNA nagusitu da: gauzak berriz ere bere bidetik doaz (ID, O), (atzera be) (IN).

gauzak **NORMALTASUNEAN** joan dira: gauzak bere bidez joan dira (AM, S), gauzak bide onetik jun dira (O, IP), (fuen) (IP), gauzak bere bidetik jon dira (G).

NOSKI baietz! / **jakiten** zen: bai noski! (G, S), nahi luke! (O), behar luke! (O), jakina! (G, EL), aije! (KA), bai horixe! (O), bai eki! (ITS), ez eiki! (ITS), bai ahal! (AL), ez ahal! (AL), hala(ba)inan! (KA), hola da! (KA), egingo ezte pa! Errez! (O).

NOSKI lortuko dugu: kontsegituko dugu, noski (AM), iritsiko dugu ori, noski (G), ukanen dugu, seguraz ere! (KA), ...segür (LAR).

NOTATZEN da ona dela / **nabartzen**: **1.** ageri duzu ez nuzula ezagutzen (ITS), ageri da ona dela (ID, KA), ageri düzü hun zirela (AL, KA). **2.** begietan **antzematen** zitzaion

(O, IP, ID, G), antzematen zitzaion berezko ona zala (O, ID), gezurretan ai zala antzemanion (O), pozak zegola antzematen zitzaion arpegian begituta ere (O), antzeman diot eskuan dardara pixkat zeukala (O), (eukena) (IP). **3.** atxemaiten duzia ona dela? (KA). **4.** (e)zagun zuen gizon ona zela (AM, ID), (e)zagun zuen gizon ona zela (AM, ID), ezagun duzu ona zerala (G, KA), ezaun dozu, neska ona zarena (IP, IN, EL), ezaun dau ona dana (IP), ezagun daue, gexoik dagozera (IP), ezagun du kezketan dagoela (AM), ezagun dira bere hitzetan (AX), ezagun da arduria daukazuna (IP, IN), begietan da ezaun (IN), ezagün zen haren trazitik hun zela (AL, O). **5.** igarten jakon (IN), denak igarri zioten izututa zagola (G), igartzen jakon oso ona zana (EL), oso pozik dagona igartzen jako (EL), oso pozik dagola igartzen zaio (G), gezurretan zebilela igarri zion (EL, G), begietan igirten jako (IN). **6.** (i)kusten denean, gizon ona da (AM), ikusten denez,

neskatxa zintzoa da (G), ikusten zaio oso pozik dagola (O). **7.** laster eman diot aserre zegoen itxurie (O). **8.** kontu (e)man dugu eskuen dardara bazuela (O). **9.** nabari da ona zerala (ID), nabari dute erituk daudela (S, G), nabari du orrek gizon ona dela (S, ID), pozik zegola nabari zitzaion (G), aien begiak nabari zuten (S), aurpegian nabari zaio kezka ori (G), arek begitan nabari zun (G), nabari duzu ona zerala (G). **10.** oartu naiz ona dela (ID, KA), fite ohartu nintzen kexu zela (KA). **11.** pozak zegola seinale zun arpegian ere (O), señale dute zaurituak izan dirala (O), zaurituak izan diren seinaleak badituzte (O), seinale duzu on zirela (ITS, O, ID). **12.** agudo eman nion traza zertxo zen (S).

ez ditugu haren NOTIZIAK: ez dugu aren zantzorik (S), ez dugu aren berri batre (AM), ez dago aren zuntzarrik (G), arrastorik (O), eztaukagu txarruen arrastorik be (IP, IN), ez dugu haren berririk (KA, LAR).

zakur hori **OBEDIENTEA** da: esan aditzailea da (O), esaneko da (IN, IP), manatzeko erretxa da (KA), manatzen aija da (LAR).

OBEDITU: *a.* ama (LAN, AL, ITS) ↗ *deitu:* obeditzazue aitak eta amak (LEIZ. Kol 3,20), obedi nezazü (AL, LAN, KA), egia obeditzen (AX 184), obeditzen dute erregea (AX). *b.* amari (O, G, IN).

ez du **OBEDITZEN** ~ ez du aitzen (AM), aur onek erran ta ez du aitzen; beti beria goitti (S), esan da ezta aitzen (G), errana aitzen zuten (AM), ez du inoren esanikan aitzen (G), aitu, ba(da), esana (O).

ideia horrekin **OBSESIONATUA** dago: burutazio ori jarri zaio (O, G), burutan sartu ta ezin du kendu (S), burutan artu du ori eta ezin kendu (AM), orixe burutan sartu jako (IP), ezin du gogotik kendu (KA), gogotik ez du kentzen ahal (KA), ideia hori ez du pentsamentutik elkitzen ahal (LAR).

ODOL pixkat isuri zuen ↗ **pixkat.**

OFENDITURIK antzean begiratu dit: ↗ **haserre:** muturrean (G), mutur dago ori gaur (S), aserre antzean begiratu dit (G, O, IP), aserre modu joan da (IN), enekin kexaturik joan da (KA).

ez zitzaion **OHARKABE** geratu: ongi oartu zen (AM, S), igarri zion (G, EL), antzeman zion (O), gaiza hori ohartü zitazü (LAR), untsa ohartu zen (KA), ondo konturatu zan (IP, G, IN).

bethi **OHART** da (AL).

OHARTU: **1.** zerbaiti ohartu nazaio. **2.** zerbait norbaiti ohartu zaio. **3.** zerbaiterik ohartu naiz.

1. oso triste ohartu nintzaion (ITS, KA), lagunari ohartu zitzako (ITS), etzakion ohart

O

Ioseph, ez bere ama (LEIZ. Luk 2,43), gapiarioari ezatzaio ohartzen? (LEIZ. Mat 7,3), bere buruei ohartuz gero (AX). **2.** ohartu zeion behar ziala Salgizerik ekharri ardua (AL), hitz hori zaiku ohartzen orai (AL), gaiza hori ohartü zitazü (LAR). **3.** zerbeitzez ohartu da (ITS), hortaz ohartu niz (KA, S), deustaz ez zarete ohartzen (S). **4.** arras nerbioso **arrapatu** nuen (AM, S, G) ↗ **notatzen** □ oso nerbioso **billau** nuen (O), ...**ikus**i nuen (O), **ezaun** dau triste daue-na (IP).

OHARTU naiz Miren Aingeru oso ona **denez:** printzea ohartzen duzu zapeta bizi ederra zela (LAN), haurra falta zela ohartu ziren (LAN), ohartu dira hain segur, erdi debaldetan ari direla (ITS), ohartu zuzun hain segur hura izan behar zela (LAN), ohartu niz Maite ona dela (KA, LAR).

OHARTZEN dut ona dela: ona dela oartu naiz (AM, O, G, ITS, KA, S).

Maritxu, zoaz **OHEA** egitera ↗ (ohea) **egin.**

OHI: eskuarki **iraganaldiari** josten zaio. Axularrek orainaldiari ere bai ↗ **-katu.**

*mendian ez da lanik egiten ohi: *a.* mendian ez da lanik **egin ohi** (O, ID), ereinroan ez oi da uztarrrik ikusi (O). *b.* hala dabilanari **gerthatzen ohi** zaikana (?) (AX 1), gertau oi da (O), erraiten ohi da komunzki halakoagatik, utziko dituela denborarekin emazteak (AX 247), erraiten ohi dugu (AX 42). *d.* **askotan gertatu** izandu da (G), askotan gertatzen da (G), usu gertatu izan da (KA), usu gertatu behar izan da (KA).

haizea **OHI bezalako** zakarra zen: aize zakarra zen, betiko modukoa (G, O), gizon orrek beti bizin kazkar ~ zakar segitzen du

(S), beti bezain zakarra (AM), ez da ezer gertatu usaiz kanpokorik (ITS), usaian bezala, afal ondoan oherat joan dira (ITS), gerezia usaia baino goizago onthu da (ITS), usaia zen bezala, mendirat joan ziren (LAN), üsatü baino haboro egin dü (AL), üsatü bezala (AL), usaian bestelako haize hotza da egun (KA).

antzokiak beti **OHI bezalakoak** (= *ohi* so-bran): beti bezalakoak (AM, KA).

Ez **OHI** zitzaion nahikoa iruditzen gizon bakar batekin egotea: ez zitzaion nahikoa... (O, G), ogi hori etzako aski (KA), ez du aski sagar batekin; bearttu bida (S), ez du aski sagar bat (S).

OHITU da **bizi** berrira ↗ **etsi** ↗ **laketu**: bizi berrira jarria da (AM), oingo bizimodura jarrita dago (O, IP), bizi berri ortan laketu omen du (S), ango bizitzara jarri da (G, O), arako jarri da (G), an etsi du (G), etsitzen al duzu emen? (S, G), bizi berri hori laketz zaio (KA).

OHITUR elaberriak dira: ↗ **kultur**: ohitura elaberriak dira (GR).

OHITURA hedatua da: usalegia aundia da emen (S), ze usalegia da emen? (S), oitura aundia da (G, O, IP), usai handia da herri horren egitea, egiteko (KA), mundu huntako legea hola da (KA, IN).

larunbatean, **OHIZ** bezala, etorriko da: beti bezala (O, IP), üsatian bezala (AL), usaia den bezala (KA), ohi den ~ ohi bezala meza zortzi orenetan düzü (AL), urte guziz ohi den bezala (ITS), üsatü bezala neskanegünean jinen düzü (LAR).

kalean **OHIZ baino** jende gehiago dabil: ohi den baino jende haboro da (AL, O), inoiz baño jende geiago (AM, G, IP), usaian baino presuna gehiago (ITS, KA), usaian bezala (LAN).

OHIZKO denez, bazkaltzeko baba gorriak: postretako beti bezela laranja (G, S), beti lez, bazkeiteko baba gorrie (IN), postria beti bezela naranja (O, ID), postrerako beti moduen lez laranja (IP), postretzako beti bezela naranje (O), desertako, usaian bezala, liraina (KA).

afari hura ez **OHIZKOA** zen: afaria oituraz kanpokoa zan (O, ID), ezta egun guztietan

ko moduko afaria (IN), usetan eztan moduko afaixa zan (IP), afaria bein ez bezelako zan (ID), ez üsatü bazkaria izan da (AL), ez da usaiako bazkaria izan (KA), afaria egunerokoa ez bezelakoa zan (ID), gaurko afaria ezta eguneroko afaria; berezia da (S).

Garmendia **OHORATUKO** da Donostian: Garmendia ohoratua izango da Donostian (O, KA), Garmendia ohoratu egingo dute Donostian (O, KA), famatuko dute (G), ohoreak eginen dazkote (KA).

ez zion **OHOREA gordetzen** ↗ **errespetu**.

nik laster egiten dut **OIHU**: nik kurrizka azkarra det (O), nik agudo egiten dut alliska (S), ori segidun asten da alliskaka (S), nik segitun egiten dut karraxia (G), segitun asten da karraxika (G).

OIHU bat **bota** du: uuu in du (AM, S, G, O), zantzoa bota du (IN), oiuhu egin zuen (ITS, AM, O, ID, KA), oihegin dit (LAR), mikrotik oiuhu egin zuen (LAN), garraxi egin zuen (U, EL), aiek karraxiek egin zituen (O, G), txilixuek egin zittuen (IP, EL), diarrak egin zittuen (IP, ID, EL), irrintzek in dauz (IN), diar eiozu (IP), irrintzi in oan (IN, G), karraxika asi zan (ID).

hori egingo balu, beste **OILAR** batek **kantautuko** lioke: ...beste zakur batek zaunka egingo lioke (O), ...beste txori batek kantauko leuke (IN), (luzkio) (IP), ...beste txori batek kantauko lioke (G), hori egin balu bestelakorik izanen zen (KA).

OILAZKO lapurra: oilo lapurra (O, IN, ID), oilo ohoina da (KA).

OILAZKOA gazte da oraindik **arraultzak** jartzeko: ↗ **arraultza**: oilazkoa gazte arra da (S, AM, O, G), oilanda gazte emea da (S, AM, O, G).

OILOA arraultza **ipintzen** ari da ↗ **arraultza** (jartzen).

OILOEK ez dute arraultzarik **ipiniko** ↗ **arraultza** (jartzen).

dando pie para eso ■ horretarako **OIN emenez**: nik ez dot emon orretarako biderik (IN), nik ez dut ortako motiburik eman (AM, S, G), nik ez diot aurrerapenik eman-go (O, EL, IP), nik ez dot etxen (= egiten)

biderik (EL), ez dut akulatu horren egiterat (KA), ez du nik erranik egin (KA, LAR).

OIN bakoitzean zapata ezberdina zeukan: oiñetako diferentekin dioa (G), oiñetako desberdiñekin dijoa (O).

estas son las bases del concurso ■ hauek dira **lehiaketaren OINARRIAK** (= estos son los fundamentos del concurso): hauek dira lehiaketaren (baldintzak) kondizioak (O, G), (onixek) (IN), kondizio onek (baldintzok) bete behar dira lehiaketan (EL), lehiaketaren legea hauxe da (GR), lehiaketan parte artzen dutenak lege auek bete bear dituzte (G), hok dira txapelketaren kondizioak (KA), lan egin nai baduzu kondizio orrekin (S).

OINETATIK burua begiratu zion: **1.** burutik zangoetariano (AM, S), burutik oiñetaraño (G), burutik asi ta anketaraño (G, IP, O, ID), burutik anketaraño (IP), burutik asi ta zangapuntaño (S), burutik behera behatzen dako (KA). **2.** goian asi ta beraño (IN), goitikan beittiño (S, G), goitikan asi ta beittiño (G). **3.** bean asi ta gorraño begitu eutsen (IN), betik goiti (KA).

OJALA ez!: agian ez! (S, AM, KA), agian bai! (AM, ITS, KA).

OJALA ez den gehiago ohetik **jaikitzen!**: **1.** agian ez al da gehiago oetik jeikiko (S), ez ahal da hilen agian (ITS, KA), agian ez al da etorriko (AM, S), ez ahal da agian hilen (ITS, KA). **2.** ez al aiz geiago oetik aterako (G), ez al da geiago begien bistan azalduko (O), ez ahal zait ontzia hautsi! (ITS), ez al da sendatuko! (G). **3.** ez da jinen arai! (KA), arai ez da holakorik gertatuko (KA). **4.** auz ez da jinen! (LAR). **5.** «balinban ezta eri» (LAR, KA, LAR). **6.** menturaz ez litazke joan Ameriketarat (ITS).

OJALA sendatuko balitz: **1.** agian sendatuko al da (S, AM), agian ukanen dute bizitze luzea (ITS), piaia on, aro on batekin, agian! (ITS), agian lehertuko da (LAR). **2.** itoko al da! (AM, O), ilgo al aiz! (G), etorriko al da (S), osatuko al da! (IN). **3.** sartzen ahal balitz! (KA). **4.** arabez laster sendatuko da (ITS), arai bihar denbora ona izanen da (KA). **5.** itoko balitz! (IN). **6.** obe sartuko balitz! (IP, O). **7.** ailekigu balia! (AL), sar-

tuko ailitz (baina ez da sartuko) (GR), **ailizagu** sarreraz hori burun barnen! (AL, LAN). **8.** obe sartu izan balitz (IP, O, ID, G, KA, S), ailitz sartu! (baina ez zen sartu) (GR).

OKELA / haragia ↗ **haragia** ↗ **gorputz**.

a. hanka **OKERRAK** ditu (O, G), hanka kaktak (AM, AR) (= barnealdera okertuak) (G), anka zabalak (G), zango makurrak (KA), arkulo da hori (S), hanka arkua dauka (O). **b.** anka garrasoak ditu (AM, AR), (= Charlot-enak bezalakoak, «ordu biak hamar gutxitan» ezarriak). **d.** zankopil in = txorkatillak elkar jotea □ horrek zankopil iten du (IN).

beren eserlekuak **OKUPATU** zituzten ↗ **bere**: eserlekuetan eseri ziren (O, G), ezarlekuetan ezarri zirean (IN), kaderetan jarri ziren (KA), alkitan jarri dira (S).

(trenean, autobusean...) **OKUPATURIK** al dago leku hori?: iñor al dago or (hemen)? (IB, EL, O), norbait al dago? (S), norbaiten lekua da hori? (KA), norbaitek artua al da leku ori? (S).

etsaia **OLDARTU** zuen Harkaitzek: zakurra jendeari oldartu zaio (AM, KA), fuerte lotu zion zakurrak (S), artaldeari oldartzeko (AX 189), oldartzen da (AX 30), othoitz egizue oldartzen zaizkizuenakgatik (LEIZ. Luk 6,28), oldar zedin garaitik behera itsasora (LEIZ. Mat 8,23), oldar zitezen gogo batez theatrera (LEIZ. Ap Ak 19,29), basaurde xerhama oldartü zeio (AL), otsoa ardiari oldartu zitzaion (LAN).

OLIO bi **ontziz** igurtzi zituen atea: bi ontzi olioz igurtzi zituen atea (O), Ehun barril olio (LEIZ. Luk 16,6), Ehun neurri ogi (LEIZ. Luk 16,7), kontzak olioztatu (KA). huts egin **OMEN** zuen, **dirudienez** (*dirudienez* edo *omen* sobran): dirudienez, uts egin zuen (O, ID), uts egin omen zuen (O, ID, G), badiudi uts egin duela (ID), iduriz, finitia du lana (KA), uts inixueu (IP), akitua dagola idui du (S).

aberastu **zela OMEN** da: aberastu egin omen zen (O, IP), aberastu omen da (KA, S).

itxura denez, onak **OMEN** dira: itxura denez, onak dira (O, ID), itxuraz onak dira (IP, EL, S), onak dira, nonbait (O), onak omen

dira (ID, KA), onak ei dire (IN), ala dirudite, onak direla (G), iduriz onak dira (KA), onak dira, antza (EL, IN).

esan dute ihes egin OMEN duela: ies egin omen du (O, IP, KA), ies egin duela esan dute (O, IP).

goian OMEN zegoela pentsa zuen: goian zegoela uste zuen (O, G), ara emen, gaixo zegoela ta (O), gainean dela uste dut (KA), emen nun dauen, gaixoik euena (IP).

OMENALDIA eskeiniko diote: egingo dakote (KA, ID, O).

BEREIZ: a. janak ON egin digu / b. Jainkoak on(ak) egin gaitu (KA).

¡Tú si que estás bueno! ■ zu bai ONA zaudela! ↗ tipo (da hau).

¡bueno se puso! ■ ONA jarri zen! ↗ letxekoa: otsana jarri zen! (O), ze kexua den (KA), hori kexia dina! (LAR), gozoa jarri zen! (ID, O) ↗ haserre.

¡buena le has metido! ■ ONA sartu diozu!: ziri ederra sartu diok! (AM, S, G, O, IP), ze gezurra sakatu dakon! (KA).

(pilotan ari garela) pilota hori ONA eman dugu (gaizki) □ ona bezala eman dugu (gaizki) □ ona moduan eman dugu (gaizki) □ ontzat eman dugu (G, ID, O, EL, KA) ↗ estimatzen ↗ tenis.

¡Buenos somos los dos! ■ ONAK gara biok! ↗ pajaro: a ze bi gauden gu (O, IP), a zelang bi gaozen emen (IN), a ze biek gauden (AM), a ze bi gauden (S), a ze biko gauden gu (G), a ze biko zaudeten zuek (G), i ta ni, a ze bi (O), a ze parea, karakola ta barea (O, G, KA, S).

saltzeko ONAK dira ~ hebenko axuriak saltzeko gei dia (AL), selgei dira (KA).

¡Con buena nos vienes! ■ ONAREKIN zatzokigu! ↗ (zer) tipo: ederrarekin zatoz! (O, IP), a ze balentria egin duzun! (KA), ederra kontua! (O, H), ez daukazu ona! (O, G), kontu ederra! (AM, S), gauza ederrakin eldu zera (G), Zer? Au ere ba al dugu? (G, O, AM), zer, au ere badugu! (G), Oin ori dakazu? (IN), ez daukazu ona! (O, G), hori da ateraldia! (KA).

ez dute Miali ONARTZEN ↗ estimatzen.

A. ONDOAN. B. ONDOREN. D. ONDOTIK.

A. 1. onen ondoan egoten ezta errex (O),

meza ondun (S), mezonon (G), bezpera ondun (S), honen ondoan egoitea ez da erretx, aije (KA). 2. orren ondoan bestia askoz txarrago da (G, AM, S, IN), orren aldean bestia... (AM, S, G, IP), orren alderen askotaz ohea da (G). B. elurte onen ondoaren egur(r)aldi ona izango da (O), meza ondoren (G), pezpe ondoren (G), bezperan ondoanean (O), oin ondoren berriak eman go ditugu (O). D. mezaren ondotik (AL, KA), etxe baten ondotik iragan zen (LAN), horien ondotik dabil (LAN), bat bestearen ondotik mintzatu zen (LAN), ohoinaren ondotik joan dira (ITS), jendarma ondotik zuten (KA), Aita... hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme (AX 2).

BEREZI egiten dute: A. 1. ONDOAN = *junto a*: semearen ondoan ama dago (EL). 2. ONDOREN = *después de*: semearen ondoren ama etorri zen (EL). B. 1. ONDOAN = *junto a*: semearen ondoan ama da (KA), bata bestearen ondoan (KA). 2. ONDOTIK = *después de*: semearen ondotik ama jin zen (KA), bata bestearen ondotik (KA).

nuestros vecinos ■ gure ONDOKOAK: gure bestekoak (= vecinos que viven en la misma casa) (O), gure auzokoak (= hurbileko etxean bizi direnak) (O, KA) ~ gure barri-deak (A), gu bestekora joan eta... (O), aldamenekoak ~ beste bizitzekoak (G, IP, ID), goiko bizitzekok, beko bizitzekok (G).

después del padre vino la madre ■ semearen ONDOREN ama etorri zen (O, ID, EL), aita etorri da; gero ama etorriko da (IP), aitan atzetik ama etorriko da (IP), semearen urrengo ama etorri zen (IN, G), semearen ondotik ama jin da (KA).

DESPUES DE (↗ orduko): jan ONDOREN (G, O), jan eta gero (G, O, IN, IP), janeanke-ro (G), jan ondoan (AL, AM, S, KA), jan ostean (IN, IP), jan eta joanen gira (KA), bear au egin da gero (IN), bazkal ostean (IN, EL), bazkaldu ta gero (IN), joan eta segidun joan zen karrikara (S), azkal ondoan (AM, G, O), ondoko urtean (KA).

entzun ongi: «ONDORENGO bide hauek itxita daude»: orain esatera goazen bideak itxita daude (O), orain erranen dugu zoin

bide dire hetsiak (KA), orain erran bear diren bideak etsiak daude (S).

lo veremos en el siguiente reportaje ■ ONDORENGO erreportaian ikusiko dugu: hurrengo erreportaian (O), urrengo liburuen ikusiku (IN), heldu den emankizunean (KA).

A. ONDORIOZ (↗ eragin) = *por el resultado, por la consecuencia*. B. ONDORIOZ ≠ como consecuencia.

*gaixotasunaren ondorioz hil zen (= por la consecuencia de la enfermedad).

*1. gaixotu ta il zan (IP, IN, EL, IB), eritü da eta hil (LAR), gaixotasunagatik il zen (O, ID), eritasunagatik hil da (KA). 2. pausatuta da, eritasun luze ta borthiz baten ondotik (ITS, KA), hil berri da eritasun luzea jasan ondoan (LAN, KA). 3. ondorio txarra ekarriko du (S), horrek ondorio huna ukhen dü (AL, KA), ...hala uzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik zenbait ondoren (= ondorio) gaizto (AX 63), janaren ondoriuak (AL), orrek ondorea ekarriko du (G), ondorena (O), nere oker guztien ondorena (O), paga ditzala kaprizaren ondorioak (ITS), etxea ondorioz ukhen zuen (LAN).

euriaren ONDORIOZ ez ginen mendira joan (= por el resultado: de la lluvia): gan den urteko uritearen gatik... (ITS), euria zalako ez giñan fuen (IP, IN, O, G), ebia zala ta, ez giñan joan (ID), euria ala kasu, ez gira mendirat joan ahal izan (KA), denbora txarraren ondorioz uzta lurreratu da (KA). euriaren ONDORIOZ busti egin zen: urikin (S), euriagatik (KA), euriagaz (IN).

tratamendu desagokiaren ONDORIOZ hil zen: tratamendu txarragatik (O, ID), tratamendu-txarra eman ziotelako... (O, ID, G), tratamendu txarra ukan zuelakotz, hil da (KA), tratamendua etzen hun eta hil da (LAR).

istripu baten ONDORIOZ hil zen (= por el resultado del accidente) (KA), ezbearrez il zen (G, O, IP, ID), ixtripuz hil da (KA), ezbearra izan eta il egin ziren (G, O).

gaixotegian dago, istripuaren ONDORIOZ zauritutik: kotxearekin min artu eta ospitalean dago (O, G, EL, KA, S).

1. gerlaren ONDORIOZ eritu zen (KA), gerlan izan zaurien ondorioz hil zen (ITS). 2. gerra denporan gaixotu zen (IN), eritu zen (G), gerran eritua da (G, LAR). 3. gerlan ibilli zelako eritu zen (G). 4. gerlan ibili ta gero gaixotu zen (IN), eztanda egin eta lau polizi hil dira (O).

salaketa hauen ONDORIOZ, lau lagun espetxeratu dituzte: salaketa auengatik (O), salaketa horien ondotik preso altxatu dute (KA).

aurkiketa langile baten deialdiaren ONDORIOZ egin zen ↗ abstrakto ↗ zail: langile baten deiari esker (O, ID), langile baten deiagatik (GR), langile bati esker (ID, IB), langile batek deituta ikasi dugu (G, KA, O, ID), langile batek deitu zuelakotz (KA), langile batek deitu duelakoz (S).

ama hil du; ONDORIOZ, gaiztoa da ↗ orduan: ama hil du; gaiztoa da beraz (O, ITS, KA).

ONDOTIK ↗ ondoan.

ilea ONDULATUTA dauka: 1. ule koskatua dauka (IN), ule jiroia da (IN), illea koskak aterata dauka (O). 2. ilea kizkur kizkur (O), ileak kuzkuilatuak ditu (KA), ille kuzkur ori (S).

kasurik ONENEAN ere, ordaindu egin beharko du: ongiena aterata ere... (G), onenera jota ere, zeozer pagatu beariko du (O), alik eta obekiena konponduta ere, pagatu beariko du (S), kasu hoberenean... (KA), okienaz ere gaizki geldituko da (G), onenera jota ere anka bat moztu beharko diote (O), gitxienez (IN), gutien gutienean (S), gutienez ere beharko dakote erhi bat be-(de)ren moztu (KA).

1. ONERATU / 2. ondu ↗ mejaratu.

ONETARA egingo dugu; txarretara ez ↗ txarretara: 1. obe bearrez egin nun (O), honek ongi baino hobeki beharrez egin du (S). 2. obeagoz egin dot (U). 3. ez hori egin hire hobetan (AL), ez lan horri lot nire hobetan (AL). 4. on bearrez (O, IP), zure on beharrez egin det (O). 5. on onean hasi (O), ene hun hunean (AL), on onean hartu zazu semea, ea zeozer egiten duzun (O). 6. on ustez esan dut (G), on ustin erran eta gaizki artu dit (S). 7. al dana ondo esanean artuta ere

izango dira naiko lanak (O). 8. **ondo bearez** in noan (IN), ondo bearrean (IN), ongi bearrez esan eta gaizki artu zun (G). 9. **ondo ustetan** egin nion (O), ongi ustez esan dizut (G). 10. **onean** esan dot (O, IP, IN), onez onean hariko naiz; gaiztoan ez (G), onez onean hitz egin genuen elkarrekin (O), onez onean moldatu bear dugu (AM, ITS, KA), onaz onian solastuko naiz; txarrian ez (S), onez onean hartu (O), onaz onean itzegingo diot, gaiztoan ez (G), onez onean egiten ez duzuna, bortxaz beharko duzu egin (ITS). 11. **bere onerako** esan dio, baina gaizki hartu dio (O). 12. **hire onetan** egin ezak hori (ITS), zure onetan mintzo niz (ITS), hire onetan ari nauk (KA), hobe duzu, zure onetan, hemendik ganik (ITS). 13. **nere onik oberenean** in nion (AM). 14. **larderiak** ez dugu deus eginen; **lausenguz** (KA). 15. **gaitzipe** esaten ditu gauzak (O). 16. **ondo esanean** hartu beharko dugu (O). 17. **onginahia** haundia dauka harentzako (O). 18. **zure onagatik** nabil (O).

lagunari **ONETSI** zion: ezin onhets dezake bere etsaia (AX 181), Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala (LEIZ. Mat 19,19), onhets itzazue zuen etsaiak (LEIZ. Luk 6,27; Mat 5,44), gizon guziek onherranen zaituztenean (LEIZ. Luk 6,26), Jinkuaren nahi saintia unnetsi behar (AL), amak ez du hori onhetsiko (ITS, KA), onets bitza gure doluminak (LAN), apezek ez dute ohidura hori onesten (LAN, KA).

hura ezagutzen zuen **ONGIEN** ~ ondoona (= ondoena) (O), onduen (IP, IN), o(be)ki(e)na ori ezagutzen dut (G), obekiena (AM, S), hura dut hobienik ezagutzen (KA, LAR).

ONGIETORRIA eman zion: ongietorria egin zion (IP, O, ID), batzarre egin (LAR), ongietorriak egin dazkote (KA).

ONGIETORRIA eskaini zion / **ongi**etorria (eman).

ONTZI bat **ur bete** eman zion / **ur** (baso).

ONTZIAN joan ziren Ameriketara: untziz (AM, KA), barkuz (IN, G, S), itsasoz (O, KA).

nire **OPINIOAN**, Sandra oso zintzoa da / **susmoa**: 1. ene **arabera** Maitexa da hobere-

na (ITS, LAN). 2. **nere iritiz** (O, ID), nere iritzia da (O). 3. **nere irudia** orrela da (S), gure irudian (LAN), nere irudiko (S, KA), ene üdürila (AL, LAR). 4. ni be **orretan nago** (IN), ni ere hortan nago (S, AM, O, G), ni ere alan nago (AM). 5. **nere ustez** (O, IP, ID), ene ustez (KA, LAR), nere ustetan (O, ID), nire ustea ala da (AM). 6. **neuk** ere orrela **usten** dot (EL).

bere **OPINIOAN** dago / (tinko) **jarraitzen**.

OPOR egun batzuk ditut: egun batzuetan oporretan nago (GR), egun batzuez bakan-tzetan niz (KA), egun batzuk bakaziñoak daukadaz (IP, IN), egun batzuetako opor-rrak dauzka (O).

Euskal Herriari **OPOSATZEKO**: Euskal Herriari jazartzeko (KA), Euskal Herriari oldartzerat joanak dira (KA), etsaiari kontra egiteko (S), ongi jan eritasuna iraultzeko (S), bere etsaiari jazartu zaio (= ataker) (KA), ...jazarri (KA).

ORAIN bertan / **erakusleak**.

1. **ORAIN** gaixorik dago (= une honetan) (EL, IB, IN, O), (eri) (KA). 2. **orain** ere eri ~ gaixorik dago (= berriz gaixotu da) (EL, O, IN, KA). 3. **oraindik** ~ oraindik ere gaixorik dago (= gaixorik dirau) (EL, IB, IN, O).

ORAIN ~ **ORAN DELA** ~ **BADU** ~ **DUELA** ~ **ORAIN DUELA** ~ **DIRELA**: 1. **ORAIN** ordu erdi bat (AM, G, O), orain bi urte (O, U). 2. **ORAIN DELA** hogeit urte etorri zen (G, IN, O, ID, EL, IP, S). 3. **BADU** lau egun hemen girela (ITS, KA, LAR), denbora asko du or dagoela (U). 4. **DUELA** bi urte heben izan zen (LAN, KA), duela mende bat (LAN). 5. **ORAIN DUELA**: orai diala bi hilabete zenthü da, gerlaren ondorioz (AL). 6. **DIRELA** hamabost urte ikusi nuen (LAN).

ORAIN zela bost minutu etorri zen / **orain** dela gutxi: bost minutu lenago etorri zen (IP, IN, O, ID, KA, LAR).

ORAIN zela denbora asko ez zuten usoa ikusi: aspalditan ez zuten Usoa ikusi (G, S), aspaldixan Miren ikusi barik eukien (IP, IN, O), aspaldin ez zuten Estitxu ikusi (ID, EL, KA, S), aspaldi untan (S).

ORAIN DELA... 1. **arestian**, arestion (hace

un momento, hace un rato): aixtion emen izan da (AM) (= hace un rato, hace un momento), (aixtin) (S, G), hunan non heldu den, oxtian aipatu laguna (ITS), ostion jan duzu (ITS), oxtian aipatu duzu (ITS), oxtian jana duzu (KA), arrolltze oixtion errunak (ITS), zoin ederrak oxtiko hitzak (ITS). 2. **aspaldi** du (ITS, LAR), aspaldian du hemen izan zela (KA), aspaldi ez dela (AM, O, G, U), eztu orano aspaldi (AL), aspaldixkuan ez da jin (AL, LAR). 3. **urte asko dute** esnea emendik eramaten dutela (G). 4. **atxine** eztala (IN). 5. **a. berriki** (= no hace muchos días) heben izan da (AL, AM, ID), berrikitan oraino (LAN, ITS), berrikitan jinak dira hunat (ITS, KA), berriki jan düzü (AL), ezagutzak berrikitan eginik gaude (ITS), orain berriki il da (ID). **b.** orain berriro il da = No hace muchos días (G), **berriro** emen izandu da (S, G), orain berrirokoa da (G). **d.** ixtorio hau **berritan** entzun dut (LAN). 6. **hori doi doa** erraiten zautan (ITS), doi doietan gauza hori errana daut (KA). 7. **orain urrengo** ikusi nuenean (O), orain urren ikusi nuenean (O), orain urren ikusi nuenean... (O), azkena ikusi nuenean (O). 8. **orain aurrekon** ikusi nuen (G), orain aurretikan ikusi nuen (G). 9. **a. orain dela gutxi** (G, O), orain duela gutxi (LAN), orain duela denbora guti (KA). **b.** oraindik denbora asko eztala (O). **d.** eztü orano aspaldi jin zela (AL), ez du aspaldi jina dela (KA). **e.** oraindik orain emen egon da (O, ID), oraindik orain ezkondu da (O), oindio oin (IP), ointzu (IN), ointxe jo ituz amarrak (IN, O). **f.** «orainago esaten genuen bezala» (UBILLOS). 10. **a.** ekhia **jeiki berri** da (AL), jan berri niz (AL, KA), etxe hori egin berri da (AL), etxe hori egin berria da (LAN, IN, S, G), Itsasuko elizan hamar orenak jo berri dute (ITS), Elizako ezquila dorrin eguerdiak jo berrik dira (ITS), ezagutzak egin berriak ditugu (ITS), jan berria naiz (LAN, O, AM, G, S), il barria da (IN, S, G, AM, U), edan berria naiz (G, O), jan barri nao (IN), hamar orenak pasatu berriak ziren (LAN, KA), egon berria da (O, IP), herri hori sort-hü berriago da (AL), jan berria zaude (O,

G), jan berrizkoa zaude (S). **b.** **jan zahar** ziren (AL), jan zahar niz (AL), jan zaharra naiz (LAN, S, O, G), jan zahar nao (IN), ez naiz jaten aritu zaarra (S), ez da il zaarra (O, AM, S, G, U), ez zera edan zaarra (G, O), edan zaharra naiz oraintxe (G, O), bazkalondo niz (AL).

ORAIN nator udaletxetik auzapezarekin mintzatetik / **-tetik**.

ORAINALDIA. **BEREIZ**: 1. Aditz trinkoa: behin gertatzen denean. 2. Aditz perifrastikoa: maiz gertatzen denean.

***gaur etortzen da** Maite: gaur dator Maite (AZ, MO, IN, S).

***gaur joaten da** Maite Donapaleura: gaur doa Maite (AZ, MO, IN, S), egunero joaten da Maite Lasartera (AZ, MO, IN, S).

***gaur ekartzen dizkigu** goxokiak: gaur dakarzkigu goxokiak (O, G, S, EL), egunero ekartzen dizkigu goxokiak (O, G, S, EL).

ORAINALDIA: *Euskaraz orainaldi historikoa iragan burutuan ematen da.*

Entonces Onintze va y le dice* ■ orduan Onintze joaten da eta **esaten dio: joan da, bada, Onintze eta esan dio... (O, G, EL, ID, IB, IP), Baserrian bi lagun bizi ziren. Etorri da kanpoko gizon bat eta... (O, G).

*Harrijoka ari ziren. Holako batean **botatzen diote** harri bat...: ...bota diote arri bat... (O, ID, G, ITS).

ORAINALDIA: erdaraz *orainaldiz* adierazten diren esaldiak, euskaraz ahalezko aldian hobeki leudeke / **ahal**: hori erosi nahi nuke, izan leike (= izan liteke), hori ezin nezaizuke esan.

ORAINALDIA: Batzutan, behar ez denean erabiltzen da orainaldia / **aditzaldia**:

y ante esta situación, ¿qué hacemos?* ■ eta orain zer **egiten dugu? (= ¿qué estamos haciendo?): oin ze ingau? (IP), (ingou) (IN), oin zer egin biogu? (IN, IB, EL), zer egin behar dugu orain? (KA), eta zer egingo dugu orain? (G, O).

***egunero** autobusa **zortziretan** doa Uhartera: egunero zortziretan joaten da (IP, IN, ID, O, G), egun guzietz jiten da (KA).

***bihar**, beti bezala, autobusa zortziretan **doa** Izabara: ...joango da (IP, IN, ID, O, G), abiatuko da (KA).

*urtero bezala, **datorren** ilean antolatzen da jaia: ...datorren illean antolatuko da jaia (O, IP), (egingo) (IN, ID, G), heldu den hilabetean muntatuko da (KA).

***atzo esaten dit** lagun baten...: hara zer esan zidan atzo lagun batek... (ID, O, G, KA), atzo auxe esa usten lagun batek (IN).
***abuztuan** etxe bat **erretzen da**, irailean beste bat; ez da seinale ona: abuztuan etxe bat erre zen, irailean beste bat... (O, ID, G, IN, KA).

*hitz hori espainoletik **etortzen da**: dator (O, G, IP), heldu da (KA).

*orain arte denbora naiko astiro **igarotzen da**: igaro da (O, IP), denbora emeki joan da (KA).

*gaurko egunkariak **ekartzen du**: ...dakur (O, IB, EG, IP, IN), periodikoak maiz ekartzen du (G), gaur periodikoak ekarri du (G).

*bihar Durangora noa ~ joango naiz (O, IN, AM, G, IP, ID), Doneztebera joan nai nuke (S), Doneztebera joanen naiz (S).

*bihar ez nauzu ikusiko. **Gaur erteten naiz** (= suelo salir de noche): gaur gabean urtengo naiz (EL), gaur aterako niz (KA), jalliko niz (KA).

*bada hilabete gartzelatik atera dela ~ ba dü hilabete presontegitik elki dela (AL), ille-bete bat ba du kartzetatik atraie dela (AM), ille bi de urten oala (IN), erten zula (O), ilaute bat ba du kartzelatik atera (S), bada ille-bete kartzelatik ataa euela (IP), badu hilabete bat ateratia ~ jalia dela (KA).

*Euskal Herrian oraindik ere **egoten direla** etsaiak erakutsi digu: Euskalerrian etsaiak badaudela erakutsi digu (O, ID, G), Euskalerrian kontrarioak daukaguzela erakutsi deusku orrek (IN), Euskal Herriak baditu orain ere beti etsaiak (KA).

*Badator osaba. **Ekartzen ditu** goxokiak?: ...goxokiak ba al dakartza (S, G, O, EL).

***uzten** al didazu giltza?: utziko al didazu giltza? (O, S), emango al didazu giltza? (O).
*horrek igual **bihar egiten du** / **igual** (joaten gara).

*igual **datorren** urtean **joaten** naiz New Yorkera / **igual** (joaten).

*¿Vamos a la calle? ■ kalera **joaten** gara?

(= solemos ir a la calle?): kalera joango al gara? (O, EL, IP, IN), gain gera? (AM), kanporat jinen gara? (KA), ba al goaz? (O, G).
*Ilari, **goaz** kalera!: Ilari, goazen kalera! (O, IP, KA).

*Zer, **goaz?**: Zer, ba al goaz? (G, O, ID), ze, bagoaz? (IB, EL, IP, IN), goazen! (G, O), abituko al gera? (G, O, KA), joain te gara oraintxin (S).

*Etxahun Erroman **egoten denetik**, barkatzeko prest dago / **aditzaldia**: ...dagoenetik (O), Goizuetara etorri zenetik ~ zenezkero oso pozik dago (G, KA).

*zure anaia **atzo ia jaten** nau / **alditzaldia**: zure anaia **atzo jota ia** xetu nindun (S), zure anaia **atzo ia jo** niñun (G), kasik jo nintuen (KA).

*sagarrak oso merke daude. Ongi, **erosten** dizkizut / **aditzaldia**: ...Ongi, erosi egingo dizkizut (O, G), erosiko dauzkizut (KA).

*¿Qué, ya lo has hecho? Sí, ya está ■ Zer, egin al duzu? Bai, **badago**: Bai, egin dut (G, ID, IB, KA), Bai (G, ID, IB).

*Ya estamos todos. ¿Hablamos del asunto? ■ Guztiok gaude orain. Arazoaz hitz **egiten** dugu?: ...Zer, arazoaz hitz egingo al dugu? (G, IB, EG), hortaz mintzatuko girea? (KA).

*Se ha escapado el ladrón. ¿Vamos detrás de él? ■ Lapurrak ihes egin du. Ze, **goaz** atzetik?: ...Haren atzetik joango al gara? (O, IB, S, ID), haren ondotik joanen gira (KA).

***goizetan** haur zain **dago** / **aditzaldia**: ibiltzen da (O), egoten da (AM, S, G, KA).

***igandero** gurasoetako bat **dator** / **aditzaldia**: gurasoetako(r)en bat etortzen da (O, IP), gurasoetarik bat etorten da (IN), igande oroz burasoetarik bat jiten da (KA).

ORAINDIK: euskaraz «oraindik» **orain lexe-mari lotua dago**. **TODAVIA**: 1. **arte**, artean (= iraganean eta etorkizunean). 2. **oraindik** (orainaldiari lotua). 3. **are** ~ areago (= nolakotasuna adierazteko).

1. emendik bost urtera etortzen bazara, **artean** ere emen **izango** gaituzu (O), ni zaharra nintzen baña Miren gaztea **zen artean** (O), gure ama il zanean, artean Miren oso gaztea zen (O). 2. **oraindik** eri **dago** (AM), oraindik gaixorik dago (IB, EL, IN).

3. Itziar **polita da**; Maite **areago** (O), are miretsikoago duzuna (AX 125), au ona da ta ura areago (O), irakurtzen ez daki, idazten are gutiago (ITS), Ez dut ezagutzen Gaxuxa. Maitea are gutiago (ITS).

*gure ama hil zanean, Miren **oraindikan** gaztea zen ~ ...Miren artean gaztea zen (O, IP, ID), Maite, artean gazte zela, gaixotu egin zan (O, IP, ID), oraino orduan ezpaitzen bekhatu (AX 12).

*zu ezkontzen zarenean, Itsasne ttikia izango da oraindik: ...Itsasne artean ere ttikia izango da (O, ID).

*zu oso maite zaitut, baina Miren **oraindik gehiago** ~ / **gehiago**: ...baina Miren areago (O), ...baina Miren maiteago (O, KA), zu ona zara ta a ohea (IN), zu jatorra zara eta zure anaia areago (ID), zu gaiztoa zera ta ura areago (ID, O).

*hori egin behar zuen, **oraindik** indarrak **zeukanen**: ori indarra zeukan arte egin bear zuan (= zukeen) (O, ID, G), ori indarra daukan arte egin bearke luke (ID), duen bitartean (S), indarrak ditueno behar luke egin hori (KA).

*zazpi urte izango al ditu? **Oraindik** ez ~ Ez oso (O, IP), oraino ez ditu arras zazpi urte (KA), zazpi urte ez dira oso izango (IN).

ORAINEZ GERO: DAGOENEO - ENGOITIK - GEROKOZ - JADA ~ JADANEKO ~ JADANIK - JAGOITIK - ORAINEZ GERO.

1. DAGOENEO (= seguru dakizu): dagoeneko jan ditu hiru oilazko. Zenbat jango ote luke orrek? (O), gauneko etorri da (AM), gauneko (para ahora) akitu du (AM), dagoeneko egin du ori (O, G, ID), dagonoko egin du (S), oraindikan eziñuzen espero; dagoeneko etorri zera (G).

2. ENGOITIK (= ustea, eskuarki): engoitik gure ama ez da jinen egun (KA), engoitik ez dugu besterik idurikatuko (KA), engoitik gosetua bide zira (ITS, KA), engoitik joaiteko tenorea dugu (KA), engoitik gina litake (KA), engoitik etorri da (ITS), engoitik gelditia litake lanetik (KA), engoitik jaten ari dituk (ITS), engoitik ez dut hori eginen (ITS), engoitik ez da sendatuko (KA),

ingoiti debeatirik izan behar dizie, gure haidü (AL, LAR), horik engoitik gure elki haidürü dira (LAR, AL), gehienak engoitik ikertuak ditu (ITS).

3. **gerokoz** agertü düzü (LAR).

4. JADA ~ JADANEKO ~ JADANIK: 1. alaba jada ehorztekotan zuten (ITS), aspaldikoa zen jada (ITS), jada etxea ikusten dut (ITS). 2. etorri da jadaneko (ITS). 3. jadanik parte hartu izan dute (ITS, KA), «jadanik dut aditzen...» (ELIZ.), jadanik aiphu zuten (KA), jadanik agertu zen (LAN, KA), oren laurden bat jadanik joanak direla (KA), hori bazakiten jadanik (ITS, KA), lana jadanik egin dute (ITS), jadanik suntsitua zen (ITS, KA).

5. JAGOITIK (ziur): Obra onik hartarakotz etzaidike jagoitik (Lhande), gaixtoek ezte jagoitik egiazko alegrantzarik (Lhande), honik egite engoiti, ezi ez jagoiti (Izagirre), hantik harat eztukela bothereik jagoitik (Izagirre), jagoitik ezin santifika zitzakeen (LEIZ. Heb 10,1).

6. ORAINEZ GERO (= ustea): orainez gero egin du ori (IP, EL, IN), onuzkero urruti da (O), onezkero etorriko zan (O), onezkero erroman egongo da (O), onezkero etorri bear zun (G), onezkero an dao (IN), onezkero asi da lanean (O), onezkero einda dao (EL) ~ onez gero etorria izango da (O), onazkero Zeanin daoz (IN), onezkero bi gol sartu dituzte (O), gargero etorri da (S), gargero etorri behar ziken (S).

BEREIZ: 1. **ORAINGOZ** (= por ahora) / 2. **orainez gero** (= para ahora) / **orainez gero**.

eskutik **ORATU dut**: eskutik oratu diot (EL), eskutik eutsin deusot (IN), eskutik artu du (AM), eskutik gatu (IN), eskutik ebatu eutsen (IP), besotik hartu zuen eta etxerat ereman zuen (KA).

hori egiteko **ORDE**, bestea eginen dut (KA), gaizkia ttipituz juaiteko orde, gehiago finka (AL).

bizitza **ORDENATU** batera ohitua nago: bizitza zuzena egiten oituta nago (O, ID), persona ordenatia da (KA).

idi pare baten **ORDEZ** zaldia eman du: a. zaldien truk ~ truke beie (e)man du (AM),

zaldian trugin beia eman du (S), idi baten alde zaldia eman du (O), erlojua xaldiaren truka artu zun (G), hua joain zela haren plazan (LAN), amatxiren partez zer ikusi zuen? Otsoa (LAN), ehün zaldin trükü saldü dü (AL), zaldian truk astoa eman du (KA). **b.** Pelloren ordezen neu joango naiz (IN, EL), zoaz nere tokian (O), nere ordezen joan zen (S, O), amaren orde alaba jin da (KA).

Pelloren **ORDEZ** goraintzi \nearrow **partetik**.

Baztanera joan **ORDEZ**, Erronkarira joango naiz \sim Baztanera joan bearrean... (IP, O, ID, EL, IN, S), ...joan bearrekotan (IN), Azkoitira joateko partez, Errezilera joango naiz (O), Baztanerat joateko orde, Nafarroa Beherat joa zen (KA).

egun onak eta txarrak **ORDEZKATU** ziren: egun onak eta txarrak txandaka izaten ziren (O, ID, G), ...aldizka izaten dira (KA, S), boladaka (S), egün onak eta gaixtoak aldika dira (LAR).

Vino el Vicerrector ■ Erretore **ordezkoa** etorri zen: Erretore bigarrena (O).

ORDOTSA / ORTOTSIA \nearrow **ar / eme**: zerri ordotsa gan (= eraman) zutelaik, ortots erauntsi izigarria ai zuen (AM, S, AG).

ORDU.

*Zer ordu zen?: ze ordu da? (S, IN, G, O), zer tenore da? (AL, KA, LAR), ze ordu da? (AM, S), ze tenoretan bizi gara (S, ITS), zunbat orenak dira? Hiru eta erdi (AL).

***ordu bata da**: **1.** oren bakotxa da (AL), ordu bata da (S, EL, O), oren bata da (KA), ordu bata artiño (S), ordu bata ointxe da (G), ia ordu bata zan (O), ordu beta da (AM), ordu beta artio (AM), ordu bata arte (G, O), hor nūkezū oren bakotxak artino (AL). **2.** ordu bat ogei gutxi (G), oren bata hogoi guti (KA), ordu batetarte egon zan (IN), oren bakotxaren aldean (AL), ordu bata aldean (O, S, AM, G), ordu bata ingurura etorri zen (G), ordu bata dire (IN, IP), bi orenak dira (KA), oren bata ingurian \sim inguru hortan jin zen (KA).

***1. a.** zazpirak eta **laurden** \sim zazpi eta laurdena (O), zazpiak eta laurden (AL, G, ID, KA), hirurak eta laurdenetan (AL, LAN,

KA). **b.** zazpirak eta **laurenak** dia (IP), zazpirak eta laurenak dire (IN), irurak eta laurenetan (IP). **2. a.** zazpirak **laurden gutxi** da \sim dira (O, ID), zazpiak laurden gutxi da (G, O, ITS, KA), seirak amar gitxi dira (O), hiruak laurden bat guti (AL), zazpiak laurden giti \sim ments (AL), zazpiak laurden guti (ITS), bostak laurden gutxi dira (G), zazpiak laurden gutxi aldera etorri zan (ID), bostak bost gutxi (ID). **b.** seiak **hamar guti** dira (KA), seirak amar **gitxiago** dira (IN, EL), bostak ogeta bost gutxiago (IP), amarrak amar gutxiago dira (IP), bostak lauren gitxiagoak (IN), ordu bata laurden gitxiagoak (IN), bostak zazpi minutu gitxiago (IN, EL). **d.** hiruak hogei minuta **gatik** (AL), guti (KA). **e.** hiruak hogei **ments** (LAR). **3. a.** zazpirak laurden **gutxian** etorri zan (O, ID), ordu bata ogei gutxien etorri da (O). **b.** ordu bat ogei minuto **guttitan** (S), ordu eta ogei minuto gutitan torri zen (AM), bostak amar gutxitan (G), zazpi(a)k laurden gutxitan (G), guttitan (KA), laurden gutxitako etorriko da (G). **d.** ordu bat ogei **gitxiogotan** (IN), bostak amar gitxiogotan (EL), zortzirak laurden gitxiogotan (IN).

***ORDU ERDI**: bostak eta erdiak dira (KA), bosterdik dire (S), bostak et'erdi da (AL), bostak et'erdia dira (AL), arrastiritako biak eta erdian jin zen (AL), ordubi t'erdia zan (O, G), hamarrak eta erdian jin zen (ITS), biak eta erdian joanen da (ITS), amar d'erdian (IN, O, IP), amar t'erdian (G, O, S), boste t'erdiek dira (IN, AM, G, IP), lau t'erdiek (IN), zortziak eta erdiak (AL).

hirurak, **pixkat beranduago** dira: iruek pastuxen etorri dira (AM, S), iruek ondoan etorri dire (AM), iruek itzuluen (= inguruan) (AM), hiru orena izan berri dira (LAR), irurak jo barri dia (IP), hiru orenak jo berriak dira (KA, O), iruretatik belaxe etorri zan (O), irurak ondoan etorri zan (O), iruk inguruxe izin zen (G), amarrak ointxe jo dute (G, O, IP), ba dira hamarrak eta ez dira jinik (AL) \sim ez dira hor (AL), hamarrak igaranik eta ez dütüzü horrano heben (AL), bedratziak jota daude (O, IP),

hamarrak jurik... (AL), bederatziak pasatuk dira (S, G, AM), bederatziak pasa dira (AM, S), amarrak jo zuten (G).

a. ha venido a la una / b. ha venido en una hora:

a. **ORDU bate(a)n** etorri da (G), ordu bat batin etor da (= zuzen zuzen) (S), oren bakotxian jin dütüzü (AL), oren batean jin da (KA), ordu batetan etorri da (IP). **b.** Donostitik Elizondora **ordu batez** (e)torri da (AM), oren batez (KA), ordu bete(a)n etorri da (G, IP, IN), oren bat ezarri düt bidaia (AL), oren bakotx batez... (AL), hirur oren batez hor izanen dira (ITS).

lan horrek pare bat **ORDU hartuko** dit \nearrow **pare** \nearrow (minutu) **eraman**.

a estas horas estará en Lerin ■ **ORDU haue-**tan Lerinen egongo da \nearrow **orainez gero**.

joateko ORDUA da (IP, IN, O, ID), joateko tenorea da (G, KA, S, LAR), joan ordü dügü (AL).

zortzirak eta **AMARRETAN** etorri zen (KA), eta hamagurean (O, G, ID, AZ).

HAMABIAK arte \nearrow **arte** (hamabietaraino).

sei **ORDU barru** \sim buruan \nearrow **barru**.

hiruak **INGURU**, inguruan \nearrow **inguru**, inguruan.

mendirira iru bat **ORDUKO** noa (G) \nearrow **hilabete** \nearrow **urte**.

HAMARRAK ointxe jo dute \nearrow **pixkat** (beranduago).

amar t'erdietara **DIOA** (G, AM), (doaie) (S, O, IP) \nearrow (hamarrak) **joan** (izatera).

hamar **ORENETAN xuxen** jin zen (ITS, LAN, KA) \nearrow **puntuan**.

jolasean ORDUAK eta orduak **ematen** zituen \sim jolasean ordutan ibiltzen ziran (IP, O, ID), jostaka ordutan ibiltzen dira (G), olgetan orduak eta orduak pasau zituen (IN), orenak ari izan dira pilotan (KA), jostan orduk eta orduk pasatzen zitun (S), orduk iragottuzte izketan (G).

1. ORDUAN bertan (G, O), orduantxe (O, G, IP), orduen berean in zun (AM, KA), oraintxe berian joana da (S) \nearrow **erakusleak**, orduantxe berean (S). **2.** orain bertan, hemen bertan / orduan bertan, an bertan (Ibarrangelua, Ea).

ORDUAN eta **gehiago** zirikatatu, orduan eta

lasaiago: zirikatatuago, lasaiago (GR), zenbat eta geiago jan, orduan eta mardulago (O), zarrago eta gogorrago (G), zaarrago eta bearrago (S), zaharrago eta elkorrago (= belarriz sogorrigo) (KA), zenbat eta geiago tenta(ara)zi, orduan ta lasaiago (G), zaarrago ta txarrago (IN).

Ongi bereizi: **a. ORDUAN. b. beraz, horregatik, bada**.

a. orduan: berez, aldia adierazten du \nearrow **aldi. b. beraz, horregatik, bada...** ezin daitezke **orduan** lexemaz adieraz. Oso sarri entzuten da, halere, erdarak eraginda.

*mutil horrek ama maite du; **orduan**, ona da: ... beraz, ona da (ITS, KA), mutil ori ama maite badu, ona da (IN), arras ona zen; ez da beraz miretsi behar, ohoratua izan baita (ITS).

*zergatik egin zuen **orduan** hori?: Zergatik egin zuen bada? (O, G), Nola deituko ditugu beraz? (ITS, KA).

*lapurretan egin du; **orduan** espexera eramango dute: ...; orregatik espexera... (O, G).

*eniz han izan; eztüt beraz ikhousi (AL, KA), ezta arren estonagarria (AL).

ONDUKO: *bi gauza adieraz litzake*: **A. bezain laster. B. ordurako**.

***A. 1.** sartü **zelarik arrunt**, jaten hasi zen (AL). **2. heltü baiko** lanean hasi dütüzü (LAR), etzan baiko, lo! (LAR), ni jin baiko, lanean hasi zen (LAR). **3.** jaten hasi zenarekin **batera**, nagusia etorri zen (O), etzean sartuegaz **batera** jaten hasi zen (IN). **4.** jiten den **ber**, hasiren da jaten (LAN), ardia etzan dadin ber joanen da (LAN, KA). **5.** etorri **ta berehala** hasi zen lanean (O). **6.** etorri **ta bertan** hasi zen lanean. **7.** jaten hasi den **bezala** utzi du (S). **8.** sartu **bezain laster** (ITS, AL), bezain aguro (G), etorri bezin laster lanean asi zen (O), ukitu bezain laster xutitu zen (ITS), bezain azkar (O, ID). **9.** gerlatik ütüzü **bezain sarri** eskuntü zen (AL), etxia egin bezain sarri jin da (AL), ekhia etzan bezain sarri joan ziren (AL), ikhuzi zuen bezain fite (AX 116). **10.** sartü **zeneko** \sim sartu bezain sarri, jaten hasi zen (AL), etxera direneko lanean hasiren dira (AL), ori egin dudaneke, jaten

asi naiz (O), sendatu nintzanerako itsasora barriri (*Kresalla*), etorri zaneke joan zan lanera (O, ID, ITS, AL). **11.** Ziberotarrak sorthü **ondokoz** dantzari dira (AL). **12.** ura etorri **ordu** ~ orduko asi bear da lanean (G), jaten asi ordu iltzen (G), etorri orduko lanean hasi zen (AM, O, IP, G, ID), etxerat orduko ohera joan zen (KA), etxerat heldu orduko, lanean hasi da (ITS), hori egin ordüko, berria iaurriko da (zabaldu, hedatu) (LAR, AL), hek itzuli orduko, jaten hasi zen (LAN, ITS, KA), sartu orduko hasi zen jaten (AM, S, KA), oiek ola asi orduko, zu ilko zara (S). **B. 1.** ni **jin** **baiko**, lanean ari zen (LAR), ama jua **baiko**, semea hil beitzen (AL, LAR), Euskal Herrirat heldü **baiko**, hilik zen (AL, LAR), zu **jin** **bait**, eginik **düket** (AL). **2.** horren egin **orduko**, itsasoa ere agortuko da (ITS), zuk ori itorduko ni zarra izango naz (IN, S), zuk hori ikasi orduko, urak eginen du bide (ITS, KA), ura etorri orduko, pronto eduki bear dugu bazkaria (G), gaitzüia hutsik **dükek**, hi hartarat ordüko (AL), etorri orduko amak prestatua zeukan bazkaria (AM, S), (gertauta) (IP). **3.** sartu nintzanerako ilda zegon (O, ID), ni etxean sartzerako, afaria prest zegon (O, ID), zuk ori egiterako ni zaarra izango naiz (G, O), semea etortzerako lana bukatuta zeukan (O, G), etorri nintzenarako lana egina zegon (G, O). **4.** gu arribatu **gabe** jana zuten (KA). **5.** arribatu **aintzin** (KA).

para cuando vinimos ya los había entregado:* etorri **gineneko emanak zituen (G), gu arribatu orduko, jana zuten (KA), gu arribatu **gabe** jana zuten (KA), etorri **ginanera**ko salduta zeukan (O, ID), alleget'orduko emonda euki euren (IN).

para cuando vengamos ya los habrá entregado:* gu **allegatzerako salduta izango ditu (O, ID), allegatu ~ allegatze orduko salduak egongo dira (G), gu alleget'orduko emonda eukiko daurez (IN), gu harat heldu **gabe**, salduak izango ditu (KA).

cuando tenemos las ocho en el reloj de enfrente, vamos a dar noticias ■ aurreko **ORDULARIAN** zortziak **ditugunean**, berriak ematera goaz: oraintxe dira zortziak geure aurrean

dugun erlojuan; honatx berriok... (GR), ...geure aurrean dugun erlojuaren arauera (GR).

a. ORDURARTE. b. ordurarteino:

a. bedratziak arte (O, IP, G), bedratzietarte (IN), be(de)ratzi orenak arte (KA). **b.** bedratzi orenetarano (LEIZ. Mark 15,33), gabeko orduetaraño (AM, O).

lau **ORDUTAN** ez du ezer egin ↗ **aldia:** lau orduan lan ederra egin du (IP, IN, O, G), ainbeste orduan ez du ezer ikasi (IP, IN, O, G), lau orenez (ITS, LAN, KA), lau orduz lan ederra egin du (S).

Euskadiko **ORKESTRA** Sinfonikoa ■ *inglesari lotua balego hobeki.* Philadelphia Sinfhony Orchestra: Euskadi(ko) Sinfoni(a), Orkestra.

ORO: *mugaz honuzkaldean oso bakan erabiltzen da. Zenbait adberbiotan ikusten dugu: egunoro, igandero... ↗ dena.*

OROITU ~ **oroit izan** ↗ **gose** ↗ **gogoratu:** amaz orhoit dira (LAN, AL), zurekin oroit tu naiz (ITS, G, O), huntaz oroit (ITS), nik erranez oroit! (ITS, KA), nere erranez oroit hadi (KA).

gu **OROITZEN** garela, lehenago pinu guti izaten zen: gure gogoranean (O), gure oroitzenean (AM), gure oritzean len etzen emen piñurik (G, S), ni oroitzen nuzu etxean arraxinarekin argia iten ikusirik (LAN), orhoit niz Jean Pierre ginuela auzapez (LAN), gure gomutan (IP, IN), ene oroitean ez da hemen sekula pinurik izan (KA).

BEREIZ: **1.** Onintzek laguna hitz hartzaz **OROITARAZI** **zuen.** **2.** Onintzek lagunari hitz hura oroitarazi **zion.**

***1.** adiskideak orhoitarazi **zuen** (AX 211, KA). **2.** Onintzek lagunari hitz hura oroitarazi **zion** (KA).

en conjunto eran buenos ■ **OROKORREAN** onak ziren ↗ **konjuntoan.**

zuhaitzetatik erorten ziren **ORRIAK** biltzen ari zen: orbel biltzen ari zen (S, G), behiak ihautzeko ostoa idorra biltzen ari da (KA), orbeletan joan da (IN).

BEREIZ: **orri / osto:** **1.** artaorri (O), azaorri (O), pinuorri (O), txillarorri (O), iratzeorri (S, G), garo orri (ID), iratze luma (KA, S),

iratzeak zertako ebaki? Orri guztiak joan zaizkie eta ziztortuta daude (G). **2.** haritz, pago, sagar ostro (O), aza ostro (O), lore ostro (ID).

tripek **ORROAK** egiten dizkirate: tripek orroaz dauzkat (O, G), tripek aserre dauzkat (O), tripek orroaka deukoz (IN, IP), tripek arro dauzkit (G), tripek korrokaka ditut (AM, S), beia orroa betean ari da (O), beia orroaka dao (IN), orroa baten dao (IN), beia murruka ari da (S), beiak marruz daude (G), beia orroka ai de (AM), tripa gosearekin kurrunka ari zaut (KA), beia orroiz ari da (ID).

ORTOTS / ORDOTS ↗ **ordots.**

haren inguruan talde indartsua **OSATU** zen: aren inguruan gizon alde bat bildu zen (AM), gizon pilla bat bildu zen (G, O, ID), gizon mordo bat alkartu zan (IP, EL, O), gizon andana bat (KA).

erdi **OSATU** da ↗ **mejoratu:** erdi osatuan dago (O, IN), erdi sendotua da (KA), eri erdi da (KA), ia osatu da (G), ia iduri du onera eman dula (S).

bihar zeruak **OSKARBI** izango dira ↗ **nagusi** ↗ **estalita:** biar oskarbi izango da (O), biar zerua garbi izain da (G, KA), biar oskarbi egingo du (O), biar zerua arin izanen da (KA), oskarbi dago (O, ID, EL).

gaur goizean **OSKARBIA** izan da nagusi (= el amo) ↗ (zeruak) **oskarbi.**

oso ↗ **dena.** elkarren **OSO** lagunak dira: oso elkarren lagunak dira (O, IP), arrunt lagunak dira alkarrekin (G), biziki lagunak dira (KA).

gizon **OSO** ona zen (IP), oso gizon ona zen (O, ID), guztiz gizon ona zan (IN), oso mutil ona (O), biziki gizon ona da (KA), agitz gizon ona da (S), arrunt gizon ona (G), ona zen arrunt (G), oso izakera kementsukoa da (O, G), oso gauza arrigarria (O, G), agitz gauza izigarria (AM, S), oso zan alaia (O), oso dira jatorrak (O).

bide **OSOA okupatzen:** bidea dena artu du (S, IP), bide guzia hartuz joan da (KA), bidea bere mendean artuta (ID), bide guzia benpeko artuta (G), bidea betean joan zan (O, IP).

vive en pleno bosque ■ baso **OSOAN** bizi da:

baso utsean bizi da (O, IN, AM, G), baso batean bizi da (O), baso basoan bizi da (IP), baso itsu baten erdian jaioa da (U), oihan beltzen bizi da (KA, LAR).

korriente **OSOAN** zaude: korriente bizian (O), korriente aundian zaude agitz (S), korriente erdi erdian (G), kurranderaren erdi erdian (KA).

datorren ostegunean **OSOKO** bilkura izango da: biltzar nagusia egingo da (ITS, KA), batzar nagusixa (IP, IN, O).

taxia **OSORIK** gelditu da bide bazterrean: arrunt gelditu da (KA), tasise guztiz parau de (IN), erabat gelditu da (O).

governua bere **OSOTASUNEAN** etorri zen: governua osorik etorri zen (O), gobernu osoa (S, EL, G, O), gobernamentu osoa jin zen (KA), gobernu guzia (S, G), diputazio dana han zan (O).

OSPATU: *maiz gaizki erabili ohi da. Ospatu lexemak eskuarki «ospe» adierazten du, hots, ohorea, aintza.*

*asanblada **ospatu** zuten (= festejaron): **A. 1.** billera egin zuten (O, ID, G), batzarra in deue (IP, IN), urtheko bilkhüra egin die (AL, KA, LAR), zindikatibak egin du urteko biltzar nagusia (ITS, KA). **2.** billera izan da (G), biltzar bat izanen da (KA). **3.** biltzarre haundi bat plantatu zizin (LAN), festa haundi bat formatu zien (LAN), besta egin dugu (S). **4.** igan ostegünian uhuratü dügü axaita xaharra (AL), bere eguna ospatu du (O), haren sari irabaztea ospatu zuten (O), ezkondu zireneko berrogei urte ospatu dute (O).

*bazkari bat **OSPATUKO** dugu: bazkari bat egingo dugu (O, G, S), ...izango dute (O, G, S), haren ohoretan bazkaria izanen da (KA), ...eginen da (KA), aren eguna ospatzeko bazkaria izango da (O, S, G).

*meza bat **OSPATUKO** da haren arimaren alde: meza emango da haren arimaren alde (IP, IN; O, KA, LAR).

gure etxean **OSPEDATZEN** dira: **1.** geurian egon zan (IP, EL), geure etxean egon zan (IP, AL, S, KA, G), gurekin egon zen (S). **2.** ostatuz gurean daude (IN), ostatuz gure etxean daude (G, AM, O), hor hartu du ostatu.

«Eguna» **OSTEGUNETIK** kostegunera aterako da: ostegunero (S, G, ID), eguen guztietan (IN).

OSTIKO bat bota zion ↗ (ostiko) **bota**.

bizkarrean sagar **OTAR** bana ekarri zuten (= sagarrik gabe) ↗ **sagar**.

manduek etzanda lo egin **zutelako** egia **OTE** zen jakin nahi zuen: manduek etzanda lo egiten ote zuten jakin nahi zuen (G, O, ID), ...zutenez (AL, LAN, KA).

ez dakit **barre** egiten **OTE** digun ~ ↗ **bur-la**.

zerbait txarra gertatutko **OTE** litzaiokeela bururatu zaio: gauza txarren bat aterako ote den bildurak do (G, O), gauza txarren bat gertauko zaiola bururatu zaio (O, KA), burutan sartu zaio gauza txarren bat gertatuko zaiola (S).

Bereizi: **a.** joango **OTE** da esan du (O), (= zalantzatan zegoen), joango ote den esan du (G), (= zalantzatan zegoen). **b.** joango **dela** esan du (= seguru zegoen) (O, G). **d.** ez daki joanen ote denez (KA).

HOART: 1. begira zazu, ea or **OTE** dagoen (AM, G, O, S), 2. begira zazu, or **ote** daon (O). 3. ...ea or dagon (O, IN, IP, ID). 4. beha zazu hor **denez** (KA).

OTOI: otoi ~ faborez ~ arren (AM), mese-
dez, egin zazu ori (EL, G, IP, O, IN, ID),
faborez, egin zazu ori (O, ID, G), othoi,
egin ezazü hori (AL, KA, LAR), zato, ot-
hoi (AL), lan hori maite düzü; arren (= por lo tanto) egin ezazü arrunt ~ berehala (AL), plazer badüzü, egin ezazü hori (AL), etorri zate arren bai arren (IN).

OTHOIZTU nau eramatea (ITS), othoiztu nu eramaiteko (KA), othoitü (LAR).

afal **OTORDUA** iritsi zen ↗ **gosarian** (hitz).

OTORDUAN hitz egingo dugu (O) ↗ **gosarian** (hitz egin): janorduan berba ingou (IP), jatorduan ingou berba (IN), jatorduan itz ingou degu (O), jatorduko denboran (ID, O, EL), otorduko denboran (G), jateko denboran mintzatuko gira (KA), elestatuko gira (LAR), bazkaltzin solastuko gara (S).

P

PAGATU: **a.** ezin paga dezakegula **Jainkoa** (AX 321), ez dezakegu ordain Jainkoa (KA). **b.** ezin paga **Jainkoari** egiten dizki-
gun mesedeak (O).

lehenago okerrak ari da **PAGATZEN** ~ ...ari da nozitzen (O, ID), lengo okerra oin da pagetan (IN), lengo okerrak oin urtetan daure (IN), oraindik nozitu bearko du berak ere (= pagatu) (G, O), oraindik ordaindu bearko du (AM, KA), odolkiak ordainetan izaten dituk (O), ordainak izango dituk, egon, egon! (O), pagatuko du narrutik (O), artuko dituzu zeure neurriko galtzak (S) ↗ **merzei** (duzuna).

PAJARO ona zara zu! ↗ **tipo** (da hau).

PAKETE (paketa): *oker asko egiten dira lexema honekin. Sintagma zuzena hauxe da:* pakete bat **zigarro erre**, lau pakete **zigarro erre** zuten, botila bat **ardo edan**, lau baso ur edan den dezala.

*ekatzu **zigarro pakete** bat (= trae un paquete vacío de cigarros): ekatzu pakete bat zigarro (GR), ekatzu botilla bat ardo (O, IB, EL, AL, MO, LAN), «Amabostean bein, bederatzi pakete zigarro ematen ziguten errazioa» (Patxi Lazkano: *Tiro tartean bertsoan* 94).

*bi zigarro **pakete erretzen** ditu egunero (= zorroak erretzen ditu): bi pakete zigarro erretzen ditu egunero (GR), poliziak hamar kaja zigarro bahitu eta erre zituen (GR), zigarro pakete bat heroinaz bete zuen (= paketea utsik zegoelako) (GR), iru pakete Ducados erosi ditut (G).

*erropa **pakete** bat **garbitzera** bidali zuen (= paketeak ez zuen erroparik): pakete bat erropa garbitu zuen (= sintagma zuzena

erropa garbitu) (GR), (herriak eskuarki *erropa pakete bat* esaten du) □ pardela ogia eskutan (S).

PAKETE handia **diote** herrian ↗ (ongi) **begiratuta**: begitan artua zeukaten (G, O, AM, ITS, KA), begitan zeukaten (IN, O), ziero begitan zeukaten (O), etsaiak begitan artu zuten (O, IN, S, G, AM, ID), (begietan) (ITS, AL, U, IP), Herodias aihar zaion Joan Baptistari (LEIZ.), begi txarrez ikusten dute (O, ID), ezin dute ikusi (AM), ezin ikusi nahi (AM), begitan artute dauke (IP). **lur PALAKADA** bat bota zuen hilkutxaren gainean ↗ **lur** (palakada).

neskatilla horrek dituen **PANTORRILLAK!**: aztalak (O, AM, G), zanko sagarrak lodiak dütü (AL, KA, LAR), berna lodiek deukoz (IN), zankoak (ID).

protagonistak ongi **betetzen** du **PAPERA**: ongi egiten bere lana (O, KA), ongi egiten du bere egitekoa (AM, O, G).

PAKE: *akats asko egiten dira pare-kin. Pare-kin eta doze-na-k egitura bera nahi lukete: doze-na bat arraultze, pare bat arraultze* ↗ **ardo**, baso, ur, botila...

*arraultze **pare** bat **jan** zuen (*arraultze jan* da sintagma zuzena): pare bat oski erosi dü (AL), bi arraultze jan zian (Sunbillatik hasi eta Zuberoraino *pare* guk baino bakana go erabiltzen dute) (AL), pare bat arraultza jan ditut (EL), pare bat galtzerdi erosi ditut (EL, IN), pare bat galtza (AL), pare bi fraka miesaskoak (Mikoleta), bi pare pantalon jauntzi zituen (AM), docena bat pare escarpiña (Mikoleta) (O, G), bi kilo azukra (↗ azukra, kilo) (O, G), doze-na pare bat galtzerdi (IN, O, AM, S, G),

pare bat pañuelo eroantzazu (EL), pare bat oilasko (AL), pare bat oñetako (EL), pare bat praka (IP), pare bat zapata (IP), mila pare bat soldado (ITS).

frantsesak errusiarren PAREAN gutxi ziren: apür ziren errusiarren altian ~ eretzian (AL), errusoen aldean (G, O, AM, KA), errusoen ondoan (AM, S, G).

a la par de soldados envió mujeres ■ soldaduen PAREAN emakumeak ere igorri zituen: soldaduekin batera (O, IP), hurreki batian amak jin ziren (AL, AM, S, G, KA), atariaren PAREAN gelditu zen: atarian (O), atartien (IP), atari aurrean (O), atari antzin (S), atariko aten aurrean (G).

partidoa PAREJETAN jokatu zuten / mano mano.

inmediatamente se puso a mi lado ■ berehala PAREKATU zitzaidan: berehala ondoan jarri zitzaidan (G, O, IP), neure onduen jarri da (IP), ene sahetsean jarri zen (KA).

no compares a Ainara con Leire ■ ez PAREKATU Ainara Leirekin / konpara.

baliteke Baztango baserri batzuk soilki honekin PAREKATZEA: baliteke... batzuk bakarrik onen antzekoak izatea (O, ID), ...au bezelakoak izatea (G), bear bada... Baztango baserri batzuk onen antzekoak dira (IP, O, ID), etxe hori eite dute (KA) / antz.

egungo eguraldia beroa izan da atzokoarekin PAREKATUZ / konparatu.

Pelloren gan bere PAREKO bat aurkitu zuen: Pello beretzat modukoa zen (G, O), Pello bere gisako bat zen (AM), bere gisoko laguna arrapatu du (S), lili baten pare bere adin handiagatik (AL), ezteietako salha haundi baten pare (ITS), beretzako modukoa da (IP), beretako aproposa litzateke (IP), larrosa baten pare da (IP), bere izariko bat atxeman du (KA).

PARENTELA handia daukagu / lehengusu: jendaki aundie dugu (AM, S), senidealdi aundia gera (G), gure familian ahaide ainitz bagira (KA), senitarte aundia gera (O, IN, IP), guk senitarte haundia degu (O), askazgoa handi dügü (AL), ez dut horren askazirik ezagutzen (ITS), familia eta askazien mezak (LAN), askazi-adixkidek salan ürhentü die besta (AL), aphezaren askazi zen (AL).

gu haren PARIENTEAK gara: gure senitartekoa da (IN, EL, IP), gü haren askazi gira (AL), gaitz hori zaizkitik heldu zio (G), askazi gütüzü harekin (AL), gu Tobeneko Bordako zaizkikoak gara (G), gu haren jendaki gara (AR), gu aren senitartekoa gara (IN, O), gu haren ahaide gira (KA), ori zaizkitik eldu da: sortzez ez izan arren gure askazia (Xalbador), de la casta (G), aien zaizkiak dira ~ aien zaizkikoak dira (G).

PARIENTE atzeratua / lehengusu: 1. ahai-koarik hurkoenaz ere (AX 233), aaide atzeratua (O), ahaide hurbila (KA, LAN), ahaide urruna da (KA), urrutiko aaide (G), ahaide hurkoa (AX). 2. askazi ürrüngo / hüllangoa (AL, LAR) askazi hüllan düzü (AL, LAR), askazi ürrün (AL, LAR). 3. gure tarteko atzeratuak dira (O). 4. urruneko senidea (IN), urrineko senidea (IN), senide urriñe da (IP). 5. jendaki urruna ~ urrundia (LAN, KA), jendaki urrunduek dire (AM), jendaki hurbila (LAN, AM, S), jendaki hurranak / hurrundiak (LAN). 6. pariente atzeratua (O, G) / pariente urrekkoa (O), pariente urrak dira (O), pariente urrutikoa (O, G), pariente aldekoa (G).

PAROAN zegoen / langabezia. horretan PARTE hartu zuten ~ 1. parteliant izan ziren (AL), parteliant jarri ziren (AL), eneki parteliant düzü (LAR). 2. bere ontasunetan (= ondasunetan) partzuer hartu zuen (ITS), gaztanbera partzuekoan janen dugu (ITS), enekin partzuer da (LAN, KA), lanean partzuer jarri dira (KA), nirekin partzuar da (AM), denak partzur ari dire jaten (ontzi beretik) (S). 3. nere lankidea da (ID). 4. laneko laguna dut (O, G).

PARTE hartu borrokan euskararen alde ~ Zeu ere euskararen aldeko borrokara (O), zeu ere bearrera (EL), zu be zoiiaz biarrera (IP), zu be joan bearren (IN), zu ere lanera (G), zazi zu ere lanera, tonorea duzu! (KA). akatsak ere PARTE onera hartzen zizkion / ona (eman): haren akatsak ondo ikusten zituen (O), ondo artzen zituen (O, G), ontzat artzen zituen (IP), semearen hutsak onhartzten ditu amak (KA).

arratsalde PARTEAN etorri zen: atsalde par-

etik etorriko da (IP), goiz partean etorri zen (O, IN, ID), goiz partetik etorri zan (O, IP), goizaldera etorri zen (S, IP, O), goizean ~ goizetik etorri zen (O, IP, ID).

Oñatiko PARTERA erortzen da Arantzazu / erori (baserria).

PARTETIK, PARTEZ: 1. amaren izenean goraintziak (IN), eskerrak eman gük exi (AL), hark exi goraintzi (AL), nik exi, goraintzi (AL, LAR), amak exi, goraintzi (AL, LAR), Anjek exi goraintzi (AL, LAR). 2. niketz (AX). 3. a. amaren partetik eskumuñak (G, O), amaren partetik goraintzi (S, AM). b. Pelloren partez goraintziak (IN, IP, KA), aitaren partez mintzatzera (AX 218), Aitaren partez (LEIZ.), printzearen partez (LEIZ. Mat 12,24).

amaren PARTEZ alaba etorri da ~ / orde. nola daude PARTIDAN?: zenbana zaudete? (G, O, IP), zenbana doazi? (S, G), nola doazi? (KA).

joko hau hiru PARTIDETARA jokatu dugu / jokatu / joko: iru usteletara (O), (musean; hurrengo adibideetan ere), iru txikotara (G, S), launa ustel jarri dira (O), hiru mantxetara ari izan gira (LAR).

Mirentxu da Donostiako PARTIDURIK hoberena: Mirentxu da Donostiako ezkongairik desiatuena (GR), Donostiako mutil guztiek berai begira deuko (IP, O, ID, G, S), Maite da Aiherran neskarik gutiziatuena (KA).

PARTIZIPIO / gerundio.

bi etorri berriei gelara PASA erazi zien: bi etorri berriak gelara pasaerazi zituen (O), (ganberarat) (KA), gelara ~ sukalde(a)n ~ sukaldera sartzeko esan zien (G, AM, O).

hiri guziak berdin dituk PASADIZORAKOAN: pasaderan (S), pasadizo(a)n (G), pasatzerakoan (O), herri hortan pasatzean behi bat ikusi dut (KA).

zer lotsa PASARAZI zidan atzo: zelango lotsea emoustan (IN, IP) ~ lotsaria (G), ura lotsa eman zidan atzo (G, AM, S, O), ahalgea eman zautan ene lagunak (KA), ahalgearazi nu (KA, LAR).

mina pasatu zaio: minak alde egin dio (O), minek gan zaizkio (AM, S), mina joan zaio

(KA, LAR), mina jontxe (= joan-xe: joan samar) zio (G), mine kendu jako (IN, IP).

bi urte PASATU gabe / barru. hamarrak PASATUTA daude / pixkat (beranduago).

algunos se pasan de la raya con las chicas ■ batzuk arrastotik PASATZEN dira neskekin: oso lotsagabe jokutzen dute neskekin (O), bear eztan eran (O), batzuk lotsagabe ibiltzen dira neskatxekin (G), oiek markatik kanporakoak dira (O, S), ez dute errespeturik neskekin (KA), or batzuk lotsagarrri ibiltzen die neskekin (IP, IN).

ongi PASATZEN ari zara?: ze, gustora? (O, EL, IP), ze, pozik? (IB, IN), ze, kontent? (S, AM, LAN, KA).

salatariak gaizki PASATZEN dute Euskal Herrian: salatariak ez dute giro Euskalerrian (O, G), giro aundirik (IP).

hori da PASATZEN dena: hori dago bada! (O), ori zegok pa kokka (G), hori da problema! (KA), hori gertatzen da (KA).

zuhaizpetatik PASIATZEN doaz: arbolapen pasiatzen dabilta (G, O), pasaietan (AM), arpolapeian pasietan dabiz (IP), arbolapean paseetan dabiz (IN), arbolapean zombait urratsen egiten ibiltzen gira (KA).

PASIBOA: espainieraz egitura aktiboa duen esaldi zombait, euskaraz pasiboan eman ohi da. Ingelesezt beratsu gertatzen da: I happened to meet him in the street □ I have been assured that... □ I have been told that... □ I have been given time.

*beia kasu eginda dago (O, G), beia kasu inez dago (AM), beia kasu inta dago (S).

*lapur oiek lenago ere ori egiñak egongo dira (O, G), gertatuta gaude, mendira joan eta... (O).

*ori (urtetan) berrogei ta amarretik gora dago (O), ...goitik de (AM, G), oiek berrogei goitik jendea da (S).

*dagoenean deliberatua (AX 176), deliberatua daduka (AX 75), geure ania saldurik baikaude (AX 286).

*zazpi operazio egindakoa zen (G, O), ihes egina zebillan (AX 192), zazpi operazio inta dago (AM, IP), ez naduka bertzeren beldurrak ihes egina (AX 192).

*«promes emanik nago Jinkoari lehenik».

*etxea saltzekotan daude (AM, G, O), etzea saltzekotzat daoz (IN).

*esanda daude (O, AM, G), mediku askok esanda zegoen (O, G).

*moztu pasadia emanda dago zati ori (O), moztu pasadizoa emanda (G).

*beiak emanda al daude? (O, IN, IP), emateko daude (O), emoteko daoz (IN), egaztiak emonda daoz (IN), denak emanda dauzkat nik, katuak eta zakurrak (O).

*beorak etorrita dagoz (IN, O, IP), beorak etorriek dire (AM).

*ezagututa gaude gu, negua etorri eta... (O, AM), salda xorta baten hartzerat gomit zira (LAN), ikusitxa nago txerria amar umerekin (EL), irakurturik gaude haren bizitza (ITS), ohartia niz hurbil dela (LAN, KA).

*geiago ezinda gelditu naiz (O), jota gelditu naiz (IP).

*gertatuta gaude (O), gertatutak gaude (ID, G, AM), ikusitxa nao (EL).

*ori ikusita nago (IN, EL), istillu gorriak ikusita dago (O, G).

*txakurra janda dago? (IN, IP), ez nao jana, ez nao erana (G), Arantzazu zer da, janda? (O), ontzak oso gutxituta daude orain (O), ontzak tipituek dire (AM).

*miña artuta dago (O, G), mina harturik da (KA), min (= hobeki) artute dago (AM, S).

*amaika bertso kantatua naiz (AM, S, G, O).

*Gotzaiak kejututa daude (G, O), arrengratiak dira mutikoa ez delakoan etxerat sartu (KA).

*ori oso erri maitea, andre maitea da (O, G, EL), oso etxe, herri maitea da (EL, G, O).

*(jokoan) paso naiz (S, G, KA).

PASO, gurdia dator / leku (egin).

PATATAK gogortu egin dira ~ gorbizituta daude patata hauek (O), patatak zoztortu dira (S), patatak gogortu dira (S), patata hauek ez dira ondo egosi, gorbizituta daude (O), biaramuneko patata gorbizituta gelditzen da (O), patatak zekordindu egin dira (G), patatak biaramuneko zekordindu egingo dira (G).

PATATA porruk jan dodaz (IN) / tortilla: porru patatak jan ditugu (O, IP, ID), patata eta porrua jan dugu (S), aza eta patata jan dugu (S), porru patata jan dugu (G), porruak lursagarrekin (KA).

PATATA zaku bat erosi nuen geure alorrean ereiteko: zaku patata erosi... (ID, EG, O), patata zakuan bildotsa sartu zuen (ID, EG), zaku patata bezela erori zen (G, O, AM), zaku bat lursagar erosi dut (KA).

PATATAZKO purea jango dugu: patata(re)n purea jan dugu (G, O, IP, ID), babernan purea (G), lursagarrekin egin purea (KA), pumaterra pürea (LAR).

sentimendu hau PATENTE dago liburu osoan / notatzen: agerian dago (O, ID), garbi dao (IN, O, G), garbi ikusten da (O, ID, G), argi dago (IP, O, ID), ezagun da (ID), nabari da (ID, S), age(ri) da (S), garbi ageri da nori ite duen (KA), xahü ageri düzü (LAR).

PATTAR botila bat edan zuten / botila.

PAUSATU: Baserritarrek batzutan bereizi egiten dute: a. pausatu da. b. pausatu du.

a. pausatuko da (atseden hartuko du) (AX 277), Itsasun pausatu da 45 urtetan (= hil) (ITS, KA), bihotzak huts eginik, pausatu da (AL), ezti ezti phausatü zen (AL), pausatü zira? (LAR, AL), meza emaiten ari zen tenorean pausatu zen (ITS), pausatu pixkat (AM), pausatzen ari dira (AM), pausen daude (AM). b. Ur irakinean eztu uliak pausatzen = no posa (AX 24), burua mahai gainean pausatu du (ITS, KA), han pausatü zian ezpata (AL), pausa ezazü hori (LAR), sükhalt'erditan pausatü zian eznia (AL).

en PAZ daude orain: orain kito gaude! (AM, S, G, O, IP), kito gira (KA), alkarrekin kito gaude (O), arkalegaz kitu gaoz (IN), alkarrekin kito egin debe (O), kitu parau gara (IN).

mundu honetan PAZIENTZIA eduki behar da: pazientzia artu bear da (O, G, AM, S, ITS, U, IP), har pazientzia poxi bat (ITS, KA, LAR).

kotxearen PEAJEA garesti da / (bidaia) balio.

-PEAN: eskuarki tokia adierazteko erabiltzen

dute baserritarrek. Egun, ordea, erdararen eraginez, maiztxoegi ikusten dugu. Zenbait adibide: arbolapean (S, KA), arbolan azpin (S), belarpean (O), egien pian ari izan da dantzan (AL), haurra extalgien pian gorde-rik da (AL), haren gerizaren pean (LAN), aize girizin (G, S), kaizpetan (IN), kerizpean (EL), aize kerizuen (AM), urien kerizuen (AM), hankapean (O, IP), ühaitzeko harripetan (AL), illunpetan (G), illunpean (O, S), illunetan (O, S), illunetan (IP, S), itzalpean (O, AL), itzalean (AM, O, AL, S), eliza saintaren itzulpian hil zen (AL), lanpean (O, G), lanain azpien bizi da (AM, S), lurpean (O, S, EL), nekepean bizi da (O), oihanpean (ITS, S), oinpetan (IP), urpean (O), hurpialat juan ziren (AL), kope-tako gorriak uztarriaren pean (LAN), zor azpian dago (S), zorpean dago (EL), zubipean (O), zühaintzepean da ama (AL), gorapean (AM), giltzapean (O, G), uztarpean (G, O).

*xaren agintepean bizi ziren: erregen mendean ~ mende bizi ziren (G, O, IP), erregearen menpean (KA), azpiko dira (KA), mehatxien pian bizi da (AL).

*ardurapean zegoen / arazoak (zeuzkan).

*haren ardurapean utzi zituzten gauzak ~ / monagilo / bijilatzen: 1. bere arduran itxittu (IP). 2. aitxakin arduratzen da (EL), aittekin asko arduraketan da (IP), (aitegaz) (IN), amakin ni arduratzen naiz (O, ID), aitarengatik arduratzen da (O), amagaitik arduretuten da (IN), bera arduratuko zala esan oan (IN, O), ni ez naiz politikaz arduratzen (O, ID). 3. ama aritzen zen illea moztan (G). 4. amaz artha hartu zuen (ITS, KA), hark du haurraren arta (LAR). 5. ez dira hun khorpitzeko beharrunean arthatzeko (AL), ez dira hun bere burien arthatzeko (AL), ez du bere burua arthatzan (KA). 6. aisa aski haren bizkar utzi dute lan hori (S). 7. ari leporatu diote lan ori (ID, EG). 8. osabak begiratzen du haurra (LAR), begira zazu aita! (LAN). 9. aitaren ona(re)n billa dabil (O). 10. beran buruaz laga ditzugu gauzak (EL). 11. gure esku utzi dituzte gauzak (G, IP, ID), aren esku utzi zuten arazo ura (IP, O), oien eskura gelditu

da ume ori (EL), haren eskuetan (KA), nere eskura utzi du (G). 12. nere gain jungo da ori (O, G), lan ura bere gain artuko zula esan zun (ID, G, O, KA, S), bere gañ hartü dü eskola berrien egitia (AL, KA), aren gain utzi du (S, O, ID, ITS, G, ITS, KA), utzazu hori ene gain (ITS). 13. ama izaten zen ilea mozteko (O). 14. zein da ardien kargu? (G, O, ID), aman kargua ~ ardura nik eukitzen det (O, ID), aren kargu artu zuen (O, ID), aren kargu ni izango naiz (O), ni gelditzen naiz oien kargu (O, ID), kargu artuiozu horri (IN), ...horri (O). 15. nere kontu utzi dituzte lan oiek (O, ID). 16. oien mende (G, O), oien esku gelditu da (O) / monagilo: nere mendean gelditzen dira ardi oiek (O, ID), nere menpe (ID). 17. amak zaintzen du umea (EL, EG, IB).

*arbola baten babespean geratu ziren: arbolapean (O, ID, G, IN, KA), arbolazpian gorde ziren (G), arbolapeien egon zien, artetu arte (IP).

*emango ziola, bera etxera etortzeko baldintzapean / -tekotan: ...bera etxera etortzekotan (G, O), bera etxera etortzen bazen (G, O), ...kondizio onetan (AM), kondizio honekin (AM, S), kondizio oitan (G), etxea erosi du kondizio auekin (O), ...kondizio auetan (O).

*bekatu mortalen pean behaturik gaude (LAR), obligatu gara bekhatu mortalen penan (AX 162), pekatu mortalaren azpian (O, IP), bekatu mortalaren irriskuan (KA).

*bestearen pean dago ~ / monagillo / euripean.

*euripean joan ziren / euripean.

*Pelloren gidaritzapean egin zuten: Pello gidari zutela (G, O), Pello buruzagi zelarik (KA), kantariak hemen ziren apeza buru (ITS).

*mehatxatu egin zituen heriotzepean: eta manatu zuen, biziaren penan (AX 229), biziaren pena emanda (O), maledikzionezko penan (LEIZ. Ap Ak 23,21), biziaren azpian agindu zien (Lard. Test.), heriotzeaz dixidatzea (J. ETX. M. H.).

*Euskadiko immo-pean urten zuten parlamentariak: euskadiko ereserkia jotzen zutela (O), (zutelarik) (KA), Euskadiko imnoa

entzunez (IN, O, KA), ordian jin zen, kantika eijerrek bethatzen zielarik eliza (AL).

*herri guztiaren **irainpean** hil zen: erri guztiak gorrotoan zeukala iltzan (O), herri guztiak harentzat herra zuelarik (KA), herri guztiak herretan da harentzat (KA).

*pobrearen **itxurapean** bizi zen / **itxura**: pobre itxuran bizi zan (IP, IN, O, ID), pobren modura (IN, O), eskekoen antzera (IN, O, EL), bizi dira alegia aberatsak (KA).

*«Pecos» **izenpean** agertu ziren: «Pecos» izenarekin agertu ziren (O, KA).

*denei garaitu zitzairen, sainduen **laguntzapean**: sainduen laguntzarekin (O, G, KA).

*kotxea **pistolapean** kendu zioten (= debajo de la pistola): pistolaz mehatxatuz (GR), pistolarekin desafiaturik (AM, S), pistolakin ertenda (O, IN), pistolarekin mehatxatu zuen (KA), pistolakin eskeindu zion (S).

*etsaiek **tiropean** hartu zuten: tiroka artu zuten (O, KA), tiroka asi zitzairen (AM, S, G).

*tristura **handipean** erori zen: pena aundia artu zuen (O, S), tristaturik jarri da (KA), tristura aundixa artu euen (IP), tristeziak hartu du (KA), oso tristetuta gelditu zan (O, ID, G), tristeturik da (LAR).

*xirimiripean joan ziren: xirimiri ari zuela (O, G), lankarra ari zuela (S), lanparra dala joan dire (IN), lantxurda ari zelarik (KA), euripean (KA).

PELOTA / pilota.

PELUKERIAN dago Tomas: bizartegixan (IP, O).

PELUKEROA DA: bizar egilea (AL).

PENA EMAN - PENA HARTU.

*I. 1.a. **damu da** ez baitute gehiago preza-tzen kantua (ITS), damu **dut** ori egiña (O), (Mikoleta) pekatu egiña damu zuen (O), damu dut an ez egona (O), eztu orren damurik (KA), damu dut an ez egotea (= orain) (O, AM), balioko ihizi motak gisa hortan funditzerat uztea damu litake (ITS), aski da hori amari damu handi baten eratrekazteko (AL), jende gaiztoek gutzaz gaizki erraiten dutela hartzen dugun damua (AX 291), aldez damu dut, eta aldez atsegin (AX 5), damu det zuei ainbeste mo-

lesti emana (O), egiña damu zako (O), damu dut hori eginik (AL), damu dut hori egin beit dü (AL), damu dut neskato polli-taren hiltzia (LAN). **b. damuago** baitzendu-ke (AX 206). **d. damurik** da holakorik ik-hustia (AL), ez dakienak ez du damurik hartzen (AX 206), damurik ez baitzen gazte gehixago jin (LAN), damurik, ez baitut har-rat joateko astirik (ITS), hartan batere da-murik hartzen dutela iduririk egin gabe (AX).

*I. 2. **damutan** nago ori egiña (G).

*I. 3. **damutu zaio** esana (O), damutu jata ori esatea (IN), damutu jata hori esana (IN, U), damutu jata ori egitea ~ ori ina (IN), damutu bear zaio orrela izatea (AM), ori egiña damututa dago (IP, O, G), damu-tue dago (AM), esanagaitik damutu in zen (IN), ori inik damutu zaio (AM, S), damu-tu jacon arrotasuna artubaz inoren mese-diacaz (PA), damutu zitzaion etortzeko esana (O), damutuko zaio ederki ori (S, O, AM), damutzen zat ori egiña (O), damutu jat ori egiña (EL).

*I. 1. **dolu egiten** zakon adin hartanhala izaita (ITS), dolu eta bozkario, mundu huntako goiti beheitiak (ITS), orai oroen dolu handia beita haren hain gazterik juaitia (AL), irabazkunek ez dute dolu (LAN), dolu diat (LEIZ. Luk 17,4), dolu dizit hori eginik (LAN), dolü dü hori eginik (AL), ez du dolurik (ITS), dolu duzu herria utzirik (ITS, KA), egin hori; ez zaitzue dolutuko (ITS, LAN).

*II. 2. **dolutua naiz** (ITS), doluturik niz hori eginik (AL), dolü dü horren eginez (LAR).

*III. 1. **errukarriak** eukitzen ditu eskuak (O, G), errukarria zen (O, G), eskaleak errukia ematen dit (G, O, IP), urrikarmen-tua artu nuen (U), ez dut hura guti errukari (ITS), urriki dut (ITS), ez diat urrikirik (ITS), ez du urriki izanen hunat bildurik (ITS), ez dut urriki harat jinik (ITS), erruki zit jongo nintzela esana (G), ori inik erruki-tu zaio (S). 2. **errukitu zit** etortzeko esana; naiago nun esan ezpanio (G), urrikitua naiz (ITS), errukituta egoten naiz (O, ID), urrikiturik nago (ITS), jin denak, etzauzue urrikituko (ITS), zuk ori egin, ezizo urriki-tuko (G), urrikitu zio ori esana (G), orero

urrikitüren zaizie (AL). 3. **urrikitan** dago (AX), niri segitxun urrikaltzen zait (G), ni aije urrikaltzen niz (KA, S), urrikitan nago ori egiña (G).

*IV. **kupituta** egoten naiz (O, ID).

*V. beti dago **penetan** ~ / **jeremias**: «beti penetan, beti penetan, bizi naiz mundu honetan» / **arazo**: penaz egoten da (IN), (IP), penatan egoten da (O), beti arregura da hori (KA), atsekabez bizi da (O), beti kezketan (O), beti minez (IP, IB, IN), nahigabez (O), beti oñazik dago jende hori (S), beti pleñi da (KA), penatxo daukat joan eza (IN), pena det ordaiñik eman eza (O), ori degu pena; lenago jarri eza (O).

merzi du PENA / merzi.

PENA da horrek hori egin **dagiela**: ...orrek ori egitea (IB, O), domai da hori egin dezan (LAN, KA).

niri misterioek **PENTSA erazten naute**: zer pentsaurik asko emon duste (IP), naiko pentsakizun ematen didate... (GR), apezaren hitz horiek gogoetarazten naute (KA), orren esanak pentsatzeko bidea eman zidaten (G), gauza asko pentsatzera jartzen naute (O), ni Jainkoaren ezkutukiek pentsaerazten naute (GR), zer pentsatu eman zidan aren esanak (ID), zer pentsau emosten niri aren esanak (IP), naiko zer pentsaua eman zian aren esanak (O), zer pentsatu franko ematen didate (G), naiko zer pensau ematen didate (O, IN), zer pensaua franko ematen du ~ ugari ematen du (O), ze pentsakerioa ematen diten ume orrek! (S).

nork **PENTSA** hori gertatu behar **zuenik?**: / (gertatu) **beharko**: nork pentsatuko zuen, ola gertauro zela (AM), nork pentsatuko zuen, ori gertatu bear zula (G, S), nork pentsauko zuen, gertatu zitekeenik (O), nork pentsauko euen, ori pasauko zanik (IP), zenek usteko zuen, ori gertatuko zanik (ID), nork uste zuen, holakorik gertatuko zela (KA).

PENTSATI geratu zen: pentsetan geratu zen (IN), pentsateko parau zen (IN), pentsatzen gelditu nintzan (G, AM, O), larri zen bere buruarekin gogoetan (AX 50), pentsetan gelditu zan (IP), gogoetaka gelditu niz

(KA), pentsamentükan eküratu nüzü (LAR).

hobe PENTSATUZ hori egingo dut: / **hobe** (pentsatu): aitzingibel behaturik (AX 182).

PENTSATZEN nago (S, O, G), pentsatzen ari naiz (G, S, AM), pentsetan nago (IP), gogoetaka ari niz (KA), pentsaketan ari niz (KA), pentsaketan hasi niz (KA).

bizikletetaz PENTSATZEN nago / **-taz**: bizikletaz pentsatzen (G), bizikletaz pentsaketan ari niz (KA), Bere bekhatuak pentsatzeintu (AX 38), Iainkoa baithan phensatzeko desirkunde batzuk (AX 30), Hartan guti pensaturik (AX 62,103), ni ere ortan nago pentsatzen (S).

lagun **batean PENTSATZEN** ari nintzen: lagun batekin pentsatzen egon naiz (AM, G), lagun orretzaz pentsatzen neuan (O), Iainkoa baithan phensatzeko desirkunde batzuk (AX 30), lagun baten gainean (AM), eztu bertzetan pentsatzen (AX 250), lagun batez pentsaketan ari niz (KA).

jendeak ez du diruan baizik **PENTSATZEN**: diru mendean jarri da jendea (O), diruen mende jarri da jendia (IP), dirugosea dauka jendeak (G, IP), diruarendako baizik ez da bizi (KA), diruaren mendean bizi da (KA).

Se piensa que será una buena medida ■ **PENSATZEN** da neurri ona izanen dela: neurri ona izango dela uste dute (G, ID, O), ...erabaki ona (G, O), deliberazione ona hartu du (KA).

Euskal Herrira **joatean PENTSATZEN** dugu / **asmotan**: Euskalerrirako asmoan gaude (O), Euskalerrirako asmoagaz gaio (IN), Euskalerrira etortzeko asmotan gaude (G, IP), Euskal Herrirat joatekotan da (KA).

hori **PENTSATZEN** dut nik ere / **opinioan**: nik ere ala uste dut (G, O, KA, S), nik ere hola ikusten dut (LAR), niri ala iduitzen zait (S, G).

Zer **PENTSATZEN** duzu? ~ zer pentsatzen jak? (Eibar) (EL), iri zer pentseta jak? (IP). arrazoirik ez duela **PENTSATZEN** dugu: arrazoirik ez duela uste dugu (AM, G, O), arrazoirik ez duela iruditzen zaut (KA).

PERIODIKOKI bilduko dira: aldika aldika

egun jakinetan bilduko dira (ID), egun xuxenetan joaiten dira (KA), aldika aldika pixkan pixkan biltzen dira (S).

PERMITITUA dago hori egitea ↗ **prohibitua**: **1.** Bide dugu eman tributurik Zesari, ala ez? (LEIZ. Luk 20,22). **2.** herriko komunitetan **haizu** da pottokak alatzea (ITS), haizu da horren egitea (LAN, ITS, KA, LAR), Haizu naiz hirekin mintzatzerazera? (LEIZ. Ap Ak 21,37), Iaunaren zerbitzazera haizu garentzat (LEIZ. Ham Man). **3.** gezurra **sori** da kartetan (LAN), eztaikit jüratzia sori denez (AL), Sori da Sabbath egunean sendatzea? (LEIZ. Mat 12,10). **4.** zenbeit orduz elkargana biltzera **zilhegi** garen (LAIZ. Ham Man).

PERSEGIZIOA utzi zuten: segiteari itxi iutzen (IN, O), segitzeari utzi zioten (G), etsitu du aren esperoan (AM), etsitu ta etorri da (S), segitzetik gelditu dira (KA).

PERTSONA ↗ **kristau**. *Gure egunotan pertsona lehen baino sarriago erabiltzen da. Lehenago kristau eta lagun maizago entzun irakurtzen zen.*

***pertsona** gutxi etorri dira bilerara: **1.** **kristau** gutxi (EL, O, IN), kristau jatorra da Pello (EL), zenbat kristau ditxu erri orrek? (EL), ez dago kristaunkia baño gauza patalagorik (ID), kristaunkiak amasei urte bear ditu ezer asteko (ID). **2.** **jende** guti jin da biltzerrerat (KA), jende ori ezta beti igual egoten (jende = persona) (S). **3.** **lagun** asko bildu omen ziran (O, EL, (batu) IN, G, IB), zenbat lagun ditu erri onek? (S). **4.** zenbat **herritar** dira? (S). **5.** zenbat **bizilagun** ditu herri honek? (S), emakume horrek badauka bizilaguna etxean (O), herri horretan zonbat bizizale da ~ dira (KA), ainbeste gizartea ikusita alde egin zuen (O).

***hurrengo pertsona** oso itsusi zen: hurrengo oso itsusia zen (G, O), horren ondokoa (KA).

***horrek ez du pertsona** bat hiltzeko kemenik: ez du inor hiltzeko kemenik (O, IB, ID), ez du nehor hiltzeko indarrik (KA), ez du laneko kalipurik (KA).

***sekula ez du horrenbeste pertsona** ikusi: sekula ez det olako kristautzarik ikusi (O), olako jendetzarik ikusi (O, G, ID), ainbeste

jende (IP, ID), an zegoan gizajendie (O), olako jende pillorik! (IN), egundaino ~ sekulan ez dut hainbeste jende ikusi (KA), egundaino ez dut ikusi olako jende mukururikan ~ jende alderikan (S).

***pertsona** batzuentzat beltzak gaiztoak dira: batzuentzat beltzak... (G, O), zonbaitentzat (KA), batzuen ustez... (G, O).

***pertsona** nekatuaren itxura du Miren Aingeruk: (*pertsona* sobran): nekatu itxura dauka (O, G, S), akituia irudi du (KA).

***zen pertsona** legez agertu zen: zen bezelakoa agertu zen (O, ID, G, KA), ori beti bezalakoa agertu da (S), ori dan modukue argiketari da (IP), dan modukoa agertu de (IN).

maila PERTSONAL batetan egin du: bere gisa egin du (O, G), gauzak bere kasa eitenttu (IP), gauzak bere kautan... (IN), be-reber egin du (KA), bere baitarik egin du (KA).

ez da **PERTSONAL mailako** arazoa: ez zurekin ezer daukatalako, baño... (O, ID), ez zure kontra ezer... (ID), ez zure kontra nagoelako, baina... (G), zuretzat ez dut deus kontra (KA), nik ez dut deus ere gaizki errateko orren kontra (S).

Azkueren kasu **PERTSONALEAN**: Azkueren kasuan (IB, MO), Azkueren kasu ortan (IB, MO, KA).

dokumentazioa **PERTSONALKI** aurkeztu behar da: agiriak nork berak aurkeztu bear ditu (AM, O), dokumentazioa bakotzak berak joan (= eraman) behar du (KA).

ni PERTSONALKI joango naiz: neu joango naz (IP, IN, O), neroni joango naiz (ID), niaune joain naiz aisa (S), neune joinaiz (G), nihaur joanen niz (KA).

arazoak, niretzat **PERTSONALKI**, bide oke- rretik doaz ↗ **opinionean**: arazoak, nere ustez, ... (O, IP, ID, G), ene ustez (KA).

zuk PERTSONALKI egin beharko duzu hori: zeuk egin beariko dozu ori (IB, IP, O), zerorrek egin bearra daukazu (ID), neunek eginen dut ori (G), nihaurek eginen dut (KA), niaunek bakarrik egingo dut ori aisa (S).

Jonek PERTSONALKI esan zidan: Jonek berak esan zidan (O, IB, EG, IP, KA).

zurekin hitz egin nahi nuke, **PERTSONALKI**: zurekin itz egin nai nuke aurrez aurre (O), zurekin itz egin nai nuke biz bian (S, G), bi bian egoiteaz (AX), buruz buru mintzatuko gara (AM, ITS, LAN, KA, LAR), zeugaz berba ein gure nauke aurrez aurre (IP), arpegiz arpegi (IP), bekoz beko mintzatu (KA), zurekin bakarrik (ID, IB, MO).

zuri PERTSONALKI gomendatu nahi dizut: zeuri emango dizut enkargu ori (O, IB, EL, IP, IN), zeurreri emain dizut (G), zuhauri emanen dautzut (KA), ziaurreri emain dizut eskuz esku (S).

hori gizaseme **PESAUA**: zinez, gizon lekeda! (S), olako lekeda! (S), ze teleka den (AM), bai aspergarria dela (O, G, EL), gizon gogaikarria! (IP, IN), bai iguingarria! (EL), nardagarria gizona! (ITS), hori asegarri da (AL), aspertuta nauka nazkagarri orrek! (O), gogait eginda nauko (IP), iguinduta nago orrekin! (EL), akigarria da mutiko hori (KA), eñhegarri da (LAR) ↗ **-ta**.

hari peto **PETO** begira jarri nintzen: begira begira jarri nintzen (O), beha beha dago (KA), peto jota dago (= erabat) (O), har-matua beha dago (KA), barriak orrek peto jo du (= akitu dela) (O), barriak eperdi jo dau (bukatu) (IN), jario eperdian apur bet (IN).

PETXUA erakutsiz doa: paparra zabalik dioa (O, IN, IP), papoa zabalik da (AM, KA, LAR), kolkua zabaldua zoaien (S), haserreturik paparretik eldu zion (O), paparretik goatu (IN), kolkua zabal zabal dula dioa (G), paparra zabalik darue (IP).

diru guzia mila PEZETATAN emateko eska-tu zion: milla pezetako monedatan (O, AM, S), tratua milla pezetan jarri zuten (= prezioa) (O), diru guzia milla pezetakotan jarri zuten, ogei durokotan (G), mila libera xehetan eman zakon (KA), miliun bat mila libera moneretan eman zakon (KA).

amuan **PIKATU** du ↗ **amuan** (pikatu).

berrogei eta **PIKO** bildu ziren etxera ↗ **urtez** (goitik) ↗ **hogetaka**: berrogeiez goiti bildu ziren (LAN, AL), hamarrez goiti (AL, ITS), hamar jendez goiti (KA), berrogeitik goiti (S, AM, G), berrogeitik gora (O, IN),

berrogetaka lagunak etorri ziren (IN, O), berrogeika (G), 50 haurrez goti bildu dira (ITS, KA), lumeroa 500tik goragokoa da (LAN, O), ehün liberaz goiti eman deio (AL), hogeiz goiti dira (AL), milla ta gehi-ago (O).

PILA bat kotxe agertu zen: **1.** **pillaka** dago an gauza (S), olloak arraultza pilloa ein deure (IN), bedar pilloa (IN), belar pilla ikaragarria (G), egur pile bat (AM, S), egur piloa (IN), urte pilla (O), egur pilla ederra (G, O), gauza pilla bat (G), kotxe pilla bat (O, S), lorak pillegin (G), ondar, sagar, harri pilla (O, S, IN). **2.** etxe itzulian oto **andana** bat bazen (KA), gizon andana bat bazen (KA), mutiko andana bat etorri da (AM). **3.** egür **ate** bat (AL). **4.** egür **haxe** bat (AL), belar haxe (AL). **5.** kotxe **mordo** bat (EL), ardi mordoxka bat (AZ), urte mordoxka dauka (G). **6.** gizon **saldo** (LAR), ardi saldoa (LAN). **7.** onddo **pustrika** bat ba zen (S). **8.** lorak **usuegi** daude (G). **9.** patata **multzo** ederra dago (IN), ardi batzuk multzoan dira (AM). **10.** sagar **mukuru** aundia zen (S). **11.** azienda **parrasta** bat (S), zaldi parrasta bat (S). **12.** kotxe **alde** ederra (G), au behialdea! (O), kotxe aldea (S).

gizon **PILA** handia zen han (IP, IN), gizon mordoa zegoan an (O, IP) ↗ **pertsona**. gizatalde aundia zijoan (O), gizon andana bat bazen (KA).

hori egiten baduzu, **PILA** bat poztuko gara: biziki kontent izanen gira (KA), ...oso poztuko gara (O), agitz kontent jarriko naiz (S).

PILA bat milioi balio du: milioi pila bat balio du (G), diru pile bat bear de (AM), eskuzorroan milloi pilla zeraman (O), milloi mordo bat balio du (O, IP), milion andana ~ parranta bat (KA), miliun paketa (LAR).

lore **PILA**: **1.** liliak **ateka** ttüzü (LAR). **2.** maats **luke** (ID). **3.** baba **marda** (O), maats marda (O). **4.** liliak **metaka** dira (KA). **5.** lora **moltzo** bat (IN). **6.** maats **mordo** ederra jan dut (G), lore mordoa (G), lora mordoa zeuan (EL), lore mordoxka bat (S). **7.** lore **mustriko** bat (S). **8.** ze maats **porka** ederra (S). **9.** kamamillu **torto** ederrak ikusi ditut

(O), an bazeuan lora tortoka bat (O), marubi tortoka bat billau zuen (O). **10.** maats **txordo** (Ikaztegieta). **11.** loreak **usu** daude.

PILA bat **maite** dugu zakurra / **asko**: oso maite dugu txakurra (O, ID).

PILOTAN / **tenisean** / **jokoa**.

ez zuen **PINTA** onik: ez du itxura onik (AM, G, S, IP), itxura hitsa du (KA), itxura txarra du (S), ez deuka itxura onik (O, IN), ori ez da parte onezkoa (O), ori ez da parte oneko jendia (S, ID), antz onik ez dutset artzen (IP), gaur itxura hobea daukazu (O), Josek mejorau egin du aurpegira (O), arpegira mejoratu da (G) / **sospetxa**.

ilea **PINTATUTA** zuen: **1.** ille tinta (O, AM, S, G), ileak perdez tindatu ditu (KA), ilea tintatua du (KA, ITS), illea berde tintatu (O), artzainak arresen tintatzen ari dira (AL). **2.** etxea oriz pintatu du (S, G, AM), etxea berde, baltz pintatu deu (IN).

PIPAN erretzen zuen: pipa artzen ari zen (O, G), tabakoa pipan egiten du (LAR), pipatzen du (AM, AL, LAN, KA, LAR), pipa erretzen ari zen (G), pipia artzen euen (IP).

pesalo ■ **PISA** ezazu / **pisu**: **1.** hazta! (LAN), eskuetan haztatu ditut oiloak (ITS, KA). **2.** pizuairekin pizatu dut (KA).

Miren aingeruk 60 kilo **PISATZEN** ditu (ID, O, G, S), pizitzen du (KA).

PISU handia du emakume horrek: ez da kilo asko emakume ori (O), badu hazta ardi honek (LAN, KA), haztatu duzu? (= has pesado) (LAN), hazta! (LAN, KA), pizuairekin pizatu dut (KA), emakume ori berrogei bat kilo izango da (O, ID).

¿*En qué piso vive?* ■ **zein** solairutan bizi da (= en qué suelo de madera): **zein** etxebizitzatan bizi da? (O), **zein** pisutan (O), **zenbagarrengoan** bizi da? (O), **zein** estaietan bizi da? (KA).

gela honek **PISU** txarra du: gela onek solairu ederra du (zurezkoa) (O, G), taula (zurezkoa) (KA), zola dena baldosa da (AM, S), sukalte zola (zurezkoa ere bai) (LAR), zola zerekin in duzue? (G, KA), bideko zolera oso ona da (G), belasoro honek zolera ederra dauka (G), ondoan dana baldosa da (O), egar zola ona du etxeak (= etxe oinarri) (AM), zoladura (= suelo en general)

(AL), selaura (= gizonak elizan egoten diren tokia, kalaita, galeria) (AL).

PISTA bat emango dizut: argibidea emango dizut (O, ID), lagunduko zitut (KA), arrasto bat emain dautsut (AL), erreztasuna emango (G).

PIXKAT: *Eskuarki zenbat adierazten du, gaur trinkoetan. Isurgaienezat xorta erabiltzen da.*

a. ogi pixkat (AM), dener ogi poxi bat emaiten genien (LAN, AM). **b.** ardo xorta bat (AM, LAN, AL, KA), txorta (LAR), xorta bat ezne (AL), esne xorta bat (KA), txorta bat ezne (AL), ur xorta ba (ITS, AM, AX 156, KA), salda xorta bat gurekulan hartuko duzu (LAN), txortañi bat ezne (AL, LAR), odol fresko xorta bat (LAN) kafe txorta bat hartuko duzia? (AL, LAN, AM), arno xorta bat zintzurra beheiti egorri zuen (ITS). **d.** kafe urrupa bat artu, ttantta (S), olio ttinttaña bar (LAN, KA), olio, ur iñhar bat (AL), pitaita bat ezne (AL), ditaita bat ezne (AL), ezne inkai bar (AL, LAR), inkaiñi bat ezne (AL, LAR).

PIXKAT adierazteko, euskal senak atzizkiak nahi lituke. Lekuan lekuan zehaztu, ahal baldin bada. ERABILI, adibidez: **a.** samar. **b.** -xe. **d.** -sko, -xko. **e.** -txo...

***pixkat** ~ **-sko, -ska**: andereska (LAN), apürxka (LAR), arinsko (S), aspaldixko (S, AM), txori arrexka batzuk (G), barnasko sartu ginen (AM), beranduxko etor da (S), berosko (S, KA, AM), eroxka da (LAN, KA), erixko dabil (S), ezongixko nago (AM), gaiztoxko (S), gizonska (LAN), goitisko (AM), gosexka (LAR), gutixko (LAN, KA, AM), hanixko (KA), lodixka (LAR), oberenexkoak (S), kontexko niz (LAN), logalexko da (AM), ardi mutur narrosko bat (S), ongixko (LAN, KA), orixka (O), soberasko (S, LAN, KA, LAR), untsasko egiten du (LAN), urrunsko (LAN, KA, AM), xoxoxka da (LAN, KA), zarrasko (S).

***pixkat** ~ **-kara**: hozkara dago (AM), gazikara dago (AM), kaskabarkara (AM, S).

***pixkat** ~ **-sta**: berdesta, gorrista (AM), orista (S, AM).

***pixkat** ~ **-xe** (aditzetan ere bai): hatsa

hartu nahituxeak ziren (LAN), halakoxea (O, G), anaia hurbilduxe zenean (ITS), hurbilduxea da (KA), handituxe zenian (AL), ezinduxea da (LAN), bakeanxe ereman zituen bere azken urtheak (LAN), nekaturxe nago (G), akituxia da (KA), lentxeago (G, O, KA), aurreraxeago (G, O), geroxeago (KA), beroxe (LAR), gerotxo (O), atze(ra)xe(ag)o (G), gerotxoago (IN), lentxoago (IN), aintzintxiago zoazi (S), bigeltxigo (S), atzeratxo (O).

hiruretan, **PIXKAT beranduago** eyorri zen / **ordu**.

PIXKAT berotu da ~ doi bat berotu da (LAN, KA), berotuxe da (AL), berotu xamartu da (O, ID, G).

PIXKAT bertsolari da: erdi bertsolari da (O, G, AM, KA, S).

PIXKAT edanda dago / **mozkortu** (pixkat). okela **PIXKAT erretra** jan dut / **gutxi** (egoisia).

oinetakoak **PIXKAT estuak** daukat / **neurri** / **justu**.

hegohaize **PIXKAT** dabil / **haize**: egoaizen antxa dago (O), aizegokara dago gaur (S), egoaize punta dabil (O), zearaizik ematen dio (S), egoaxe antza dago (IP, ID), haizego poxi bat ari du (KA), egoaize pixkot jotzen du (G).

hotz **PIXKAT** dago: hozkara da (AM, S), hotz samar da (O, G), amiñi bat hotz düzü (LAR).

PIXKAT lehentxeago ezkondu zen (O, ID): aurre artan ezkondu zen (O), aurreraxeago (O, ID), geroxeago (O, ID), ura joan aurretouen (O), hil aurretouan (G), esposatu baino lehentxeago (KA).

lo **PIXKAT** egin du: loalditxo bat egin du (O), loaldi ederra egin diat (G), kuluxkada bat egitera noa (O), begiak bete lo egin dut (G), lo kuluxka bat egin dut (KA, G, O), begi itxi bat bakarri ein dot (IN), loaldia (bazkalondokoa) egin dut (KA), siesta egin dut (O, G, S).

ondoez **PIXKAT** dauka: **a.** ondoez antzean dabil (O), **b.** ongiezik dabilla (G), ondoezik dabil (IP). **d.** ez dabila batere untsa (KA).

bidea **PIXKAT** zabaldu zuten: bidea doi bat zabaldu zuten (ITS, KA).

Plorentxio **PIXKAT** zaharra da: zaar samar (O, IP, G, ID), zarraxko da (S), zaharsko da (KA), adintako da (S), zagartiko da (AM).

bidean izotz **PLAKAK** daude: izozgune (O), leitokiek (IN), leku ospel horietan hormaguneak badira (KA), ori ormatokia da agitz; beira ze orma ziriak dauden! (S).

hori egiteko **PLANAK** dauzkate / **-kotan**.

daukalako **PLANTA** egin du / **itxura**.

ez ikusi **PLANTA** egin zuen / **itxura**.

jakin **PLANTA** egin zuen / **itxura**.

jotzeko **PLANTA** egin zuen / **itxura**.

Markele gogor **PLANTATU** zitzaion / **frente**.

PLASTIK balioak onartu behar dira / **kultur** / **fisik** / **karrrik**: plastika balioak (GR), plastikazko untsiak dira (KA), plastikozko zakuak (ID, EL, IB, S).

PLAZA.

BEREIZ: / **herri**: **a.** «Sunbilla» plazan gaude (O, ID, G), (deritzan plazan). **b.** **Sunbillaren** plazak diru asko balio du (plazaren jabea Sunbilla da) (O, ID, G). **d.** **Sunbillako** plaza oso polita da (O, ID, G), (Sunbillan dagoen plaza) (O, ID, G).

hegazkinerako **PLAZA** bat eskatu zuen: tokia eskatu zuen (O), billetea eskatu (ID, IB), telefonaz billetea arrastatu ~ galdatu du (KA).

gansterren **PLAZERERA** bizi zen / **monagillo**.

vivian en PLENO bosque ■ baso osoan bizi ziren / (baso) **osoa**.

PLENO del parlamento ■ **osoko** bilkura / **osoko** (bilkura).

denboraren **PODERIOZ** ez ginen horretzaz mintzatu: **A.** **1.** denboraren **faltaz** (O). **2.** denpora(re)n **faltan** (IN). **3.** **ezin** genun **denborarik artu** eta... (G). **4.** denporaik **ez arren**, eztogu ori ein (IP). **5.** denboraren **eskasez** (KA). **B.** **1.** denboraren **poderioz** bukatuko dugu lan ori (O, ID). **2.** denbora **khostüz** ikasiren dü (AL), aski denboraren gustuz paper horiek bururatuko ditugu (KA). **3.** denporan **puruz** aterako dau (IN), ekiren puruz aterako dau (IN). **4.** aritzearen **bortxaz** bururaturen dugu (KA).

POLIKI baina seguru doa: nekez baña segu-

ru (O, G), mantso baina seguru (S, AM), astiro baie seguru (IN, IP), emeki bainan seguru (AL), emeki eta segurki (KA).

POLIKI hitz egin ezazu, mesedez (G, O) ~ baratxa mintzatū zen (AL), baratx mintzaten dūzū (LAR), polito berba egin (IP), astiro berba egin (IN), emeki mintzo da (KA).

zakur **POLIZIAKO** bat: otso zakurrak oso maite ditut (AM, S, G, O), polizi txakurra (IN, G, O, KA).

bi gizon haiek **POLIZIAKOAK** ziren: jaun aukerik bik poliziak dire (G, O, ID), poliziatakoak dira (O, G), onek jaun bixok poliziak dira (IP), onik gizon biek (IN), jaun horiek poliziakoak dira (KA).

POLIZIAKO buruzagia oso buruargi zen: poliziaren burua (O, IN, G, S), Baionako poliza buru (ITS), poliziaren buruzagia (KA).

POR: *erdarazko por euskaratzean, akats aumitz egin ohi da.*

***irratiatik** gauza oso jakingarriak esaten dizute: radiotik (IN, G, KA), radiotikan entzun dugu (S), irratitik zein gauza politak esaten dituzten! (O), irratian entzun nuen ori (O), irratiatik (= irratiazi buruz) gaizki esaka dabil jendea (O).

por hoy he acabado* ■ **gaurtik bukatu dut: gaurkoa akitut (AM, S), gaurko egin dugu (S, IN, IP, KA), gaurkoa bukatu dut (O, G), gaurko aski dut (AM, S), egungo finitu dut (KA).

estuvo por poco tiempo en el monte* ■ **denbora gutxiatik egon zen mendian: denbora gutxian eon zan mendian (O, IP), denbora gutxi ein zun mendian (O, AM, G), ez da luzaz egon mendian (KA).

*ezkondu egin ziren; ez **elizatik**, ordea: ez da elizaz ezkondu (AM, S, O, IN, G, IP, KA), ezta elizan esposatū (LAR).

***guztiengatik** ongi begiratu zen Malentxo / **begiratu** (ongi).

he estado por decirte: esateagatik* egon naiz / **-teagatik.

***BEREIZ:** 1. bai, ori zuri **esatekotan** nengoan (= esateko asmotan) (O, G), zuri erratekotan nago (S), esatekotzat egon naz, baie atzanean ez tuzet esan (IN). 2. ori **esa-**

tea(ga)tik etorri naiz (= etortzeko motibua zuri hori esatea izan da = para decirte) (G, O, ID), ori esatearren etorri naiz (EL, IB, IP, IN).

***esperientziagatik** frogaturik da hori: esperientziak frogatu (AX 328), bizitzak berak erakusten du ori (G, ID), biziak berak erakusterat emaiten du (KA).

*haren sendimentuengatik gidatzen dira: aren sentimentuak dituzte gidari (O), mendian artzaina dute gidari (KA).

***gizentzeagatik** eman dio / **-teagatik:** gizentzeari eman dio (O), gizenketiei emoutso (IP), lodituteari emon deutso (IN), loditzeari eman dio (S), gizentzen, loditzen aida (AM, G), jokaturteari emon deutso (IN), orrek deuka joko aizea (O), jokatzan asi da (AM, G), gizentzen hasi da (KA), jokatzeari eman dio (= trabesak egiteari) (O), jokoari eman dio (O, ID), edanari emana da (KA).

***gugatik** (= gure alde) gurutzan hila (O, G), guk gurutzan hila (O, G), Jesukristo gurutzan guk ezarria da (ITS, KA).

***erabiltzen** duen euskaragatik lagunduta, lan bikaina egin du: euskarak lagunduta (ID, O), amak lagundurik (KA), amaren laguntzarekin (KA).

andaban jugando por las peñas* ■ **haitzetatik jolasean dabilta: arkaitzetan joskataka dabilta (G, O), burkaitzetan ari dira jostetan (S), atxian jolasian dabiz (IP), harroketan josteta ari dira (KA) / **nondik**.

***handik** dauden etxeak politak dira: an daozen etzeak (IN, O), ango etxeak ederak dira (G, KA) / **nola** (hemendik).

*eritegian **harengatik** galdetu dugu (O) / **galdetu**.

***horrengatik** ez du gauza txarrik entzun (ID, O), orrendako ez dut solas txarrik aitu (AM, S), (ele) (KA), orrentzat ez dut gauza txarrik entzun (G, O), orretzaz eztoz ezer txarrik entzun (IN), orrengan eztoz gauza txarrik entzun (IP), hortaz ez dut gaizkirik, deus gaixtorik entzun (KA).

*Kristo igarleez aldarrikatua izan zen / **-(e)z**.

*elaberriaren amaiera onartuta dago irakurleagatik: liburu ori irakurleak ontzat

artuta dago (O), irakurleak ongi artuko du ori (G), onartu dute (ID), ontzat hartu dute (KA).

***pilotaria jendearengandik** txaloka hartua izan zen: pilotaria jendeak txaloka artua izan zan (O), txaloka artu zuen jendeak (G, IN), arribatzean esku zartak eman zazkoten (KA), esku joka errezibitu dute pilotaria (S).

influenciado por la historia* ■ **kondairagandik eraginda: kondairak eraginda (G, O), kondairaren eraginez (O), orrek erainda in dau (IP), orrek ereinazota in deu (IN), azkenean joan da, aitak bidalita (S), aitak pusaturik ~ akulaturik joan da (KA).

***pertsonaiak** beti deskribatzen dira kontalariagatik: pertsonaiak kontalariak deskribaturik daude (GR), kontalariak deskribatzen ditu pertsonaiak (GR), etxe oiek gizon orrek egiñak dira (O).

*harremanak ez dira etxeoengandik onartzen: artuemanak ez dia izan etxeoak ontzak artuak (O), etxeoak ez tuzte gauza oiek ongi artzen (G), etxeoak eztaurez onik gauzek ondo artzean (IN), etxeoek ez zuten hori onartzen (KA).

***larogetik** zihozazenean hil ziren gure gurasoak / **urte:** larogetaka urteetan zihozazela il ziren (O), larogeta urtiak zituela il zan (IP), larogetaka urtekaz (IN), berrogei urtez goiti zuelarik hil zen (KA).

era diputado por Tolosa* ■ **Tolosagatik diputatu zen: Tolosako diputadoa zen (G, KA), Tolosatik erten zuen diputado (O, IP).

*ba al dago **hemendik** telefonorik? / **nola** (hemendik): **a.** ba ete dao emen telefonorik? (IN, O, IP), (da) (KA), inguru ontan ba ote dago telefonorik? (O). **b.** emendik joan da (EL, IN, O, IB), Ze, emendik zabiz? (IN) / **nola** (hemendik).

dejaremos por aquí el coche* ■ **berebila hemendik utziko dugu: hemen nonbaiten (O, EL), hemen nonbait (KA).

***Gran Via-tik** jaitsi zen: / **jaitsi:** menditik beiti jaitsi zen (S), menditik beiti jaitsi zen (G), Gran Viatik bera joan zen (O), kale artan ~ artatik bera joantz (O), atxak bera

jatxi da (IP), atxian bera (IP), atxetik bera (IP), mendia behiti joan da (KA).

*azken hauek Cassirer-**engatik** zuzenduak daude: Cassirer-ek zuzenduak dira azken aukerak (GR), gidariak zuzenduta joan ziran mendira (O), buruzagiak gidaturik joan ziren (KA).

horren **portaera** onaren **testigantza** eman al dezakezu? / **abstrakto** / **zail:** zintzo ibili den lekuko al zara? (testigo) (O, G), ni niz untsa ibili delako lekuko (KA).

ez da kristau baten **PORTAERA:** ezta kristau batentzako jokabidea (O, IN), ez da girristino baten jokoa (KA).

inguru arrotzean neure buruaren **PORTAERA** frogatzeko: arrotzen artean nola bizi naiteken ikusteko (O, ID), nola bizi leiken ikusteko (O, ID), ...bizitzen ahal litaken (KA), giro arrotzean neure burua aztertu nai nuke (O, ID).

mutilaren **PORTAERAZ** ez nago ados: orren jokabidea etzait gustatzen (G), orren jokabidearekin ez nator bat (O), (etxata gustatan) (IN, KA), horren jokoa ez zaizkit gustatzen (KA).

bera ere besteekin berdin **PORTATZEN** zen: berak beste orrenbeste iten dau (IP, O, ID, G), beste hainbeste (KA), bere jokaera ere berdintsua, antzekoa da (O, ID), beste hainbeste egin duelakoan, duelakotz, nik ere egin dakot (KA), berak ere bertziari bertze orrenbertze egiteko prest egoten da (S).

hori gertatzeko **POSIBILITATEA** dago / **ahal** / **abstrakto** / **zail:** ori gertatzen al da (S, KA), hori gertatzen ahal litakea (KA), ori gerta leike (O, IN, EL), ori gertatu litake (G), ori gerta daiteke (AM), ori sortitzen al da (S), hori agitzen ahal da (LAR).

POSIBILITATE hori ez dut gogoan izan: holakorik ez zait burutaratu (AM, S), gogoratu (KA), olakorik gogoratu ere ez (G), olakorik ezta gogo(a)k eman ere (G).

lau **POSIBILITATE** dauzkagu auzi onetan: lau irtenbide (O), aterabide txarra du hortik (KA), gauza orrek ez du zuzentzerikan (S), horrek ez du aterabiderik (KA), zure ustez zein da irtenbiderik onena? (O, ID, G), zein da emen irtenbiderik onena? (IP), aterabiderik hoberena? (KA), orrek ez du erremiorik (G).

POSIBLE da / imposible / igual: baliteke (IN, S, IP), litekena da (G, IP), izaten al da (S), leikiena da ori (EL), badaiteke (S), dai-tekena da (AM), baditake hola izan dadin (KA), hori gertatzen ahal ditake (KA), ...li-take (KA), leikena da (O), baliteke (O).

POSIBLE zena egin ondoren: alegiña ein da gero (O), altzana ein da gero (O), al dena in dut beintzat (G, IP), in al zana in da gero (IN), ahal duguna egin dugu (KA).

hori egin du telebista ikustea **POSIBLE** izan dadin: / ahal: telebista ikus ahal izaiteko egin du hori (KA), telebisioia ikusteko egin du ori (G, ID, O, IB, KA).

POSTREETARA iritsi ginenean: postre garaira (O), bazkari akabillan (S), postre jaten asitzen orduko asea nengoan (G), desertako tenorean ~ mementoan joan da (KA).

tomate POTE bat jan zuten (sintagma zuzena: *tomate jan*) / **tomate** / **ardo** / **baso** / **ur** / **zigarro** / **pakete**.

POTXOLARA jolasten zuten / **jokoa**.

zu **ikustearen POZTEN** naiz / **gerundio**: 1. ura **iten** aspertu nitzen (S). 2. zu **(i)kustea**z kontent jartzen naiz ~ zu etortzeaz (AM), zu ikusteaz atsegin dut (ITS, KA), atsegin dut horren jakiteaz (ITS), kontent niz holako berri onen entzuteaz (ITS), biziki kontent zen haren harrapatzeaz (LAN), zu ezauketiaz pozketan naz (IP), botz niz gauza horren zier aiphatzez (AL), Bekhatu egiteaz... karga handitzen duzu (AX 57), hori egiteaz, kontent izanen zira (AL), kontent niz zurekin ezagutzeak eginik (LAR), atsegin hartzen du irabazteaz, eta damu galtzeaz (AX 328). 3. triste niz ez **ikusirik** (ITS, KA), pena dizit hori ikusirik (LAN, KA). 4. ura **ikusita** gustura gelditu nitzen (S, O, IN, ID), ori ikusita poz aundia artu nuen (O, G), hori ikusi eta kexatu zen (KA), zu izautu ta kontent naiz (S), poza artu dut zu ezagututa (G). 5. ura **(i)kusiz**, aspertu nintzen (AM). 6. atsegin handia nuke haren **ikustea** (ITS), laket dizit horren entzutia (LAN). 7. etzidan onik ein ura **ikusteak** (O), poztan nau zu ikusteak (G). 8. pena düt horren **ikustez** (AL). 9. zu **ikustearekin** poz artzen det (O, IB, EL), zu ezagutzearekin (O, IB, EL). 10. zu **ikustian** ~ zu ikusita (IP).

teoria **PRAKTIKARA** eraman zuen / **bihurtu** (ekintzetan): ikasitakoa egiten asi zen (O, ID), teoria praktikatzen asi zan (O, ID), ikasitakoa usetan asi zan (IP), elhetik obra-la (AL), eskolan ikasia egiten hasi da (KA, S), «Lehenik praktika, gero aldiz predika» (Esaera).

admisión de urgencias ■ **PREMIATASU-NAK** onartzeak: larri daudenentzat (O, G), eri handi direnentzat (KA).

PREOKUPATUTA ikusi nuen / **arazo**.

PREPARATURIK zaude, Itsasne? / **gaixorik** / **gertu**: Zer, Itsasne, ba gara? (O), prest zara, Itsasne? (AM), prestatu zara? (S), ba al gara? (G, O), bagirea? (KA), bazkaria prest presta da (ITS), gertu zaoz (IP), aihariaren adelatzen ari da etxekandera (AL), idazteko prest niz (AL, AM), (nago) (O, S), dana pronto dao (O), preparauta zaozie? (IN), burdia paratua dago ibiltzeko (S), prestatue dago (AM).

amari **PRESA** sartzen zion: bereala egiteko esan eta esan ari zitzaion (O), beti esaten ari zitzaion (G), prisa emote(n) utsen (IN), amak alaba ernaarazi nahi zuen (KA), agudo egiteko ari zaio erran ta erran amari (S). Felipe Iturri! (Er.) **PRESENTE!**: Hemen nago! (O), hemen niz! (KA).

euskararen **PRESENTZIA** handiagoa izango da zenbait egunkaritan: euskera geiago izango da (O), euskera geiago erabiliko da (O, G, ID), geroago eta haborago mintzaten düzü üskaraz (LAR).

haren **PRESENTZIA** ere izango dugu: Pedro be geugaz egongo da (IN), hura ere geure artean izango dugu (O, EL), hura ere jinen da (KA), hura ere gurekin izanen da (KA, S).

euskararen **PRESENTZIA** Zangozako bizitza publikoan aztertu dute: euskera Zangozako gizartean (O), erri orretan zenbat uskara egiten den ikusi dute (S), erri orretan zenbatek egiten duen euskaraz ikusi nahi nuke (G).

usainaren **PRESENTZIA** sudurretik sartu zitzaion: usai txar ura su(d)urra bete(a)n etorri zian (G), usaia artu zun (O), usaña aitzen zuen (AM), suturretan sartuta daukat usaia (O).

zure **PRESENTZIAK** asko laguntzen nau: zu nerekin egoteak poza ematen dit (AM, S, G, O, IP, KA).

hura bilatzea da nire **PRESENTZIAREN** zergatia: ura bilatzeko nago ni ementxe (AM), ura arrapatzeko nago ni emen (AM, S, G), aren billa nabil ni emen (O), aren billa etorri naiz (O), haren xeka jina niz (KA).

amaren **PRESENTZIAREN** falta sentitzen zuen haurrak / **faltan** (botatzen).

haren **PRESENTZIARENGATIK** haserretu egin zen / **poztan**.

behartsuak aberatsek **PRESIONATU** eta herri-rik **irten erazi** zituzten: beartsuak bortxatu eta igorri (in) zuzten erritik (AM, S), ...bi(d)ali egin zituzten (G, O, IP), herri-rik kanpo igorri die (LAR, KA).

PREST / **preparaturik**.

irabazi egin zuen, baina **PREZIO** oso **garesti batetan** / **kosta**: ...ederki kostata, ordea (G, O), aski kostata ~ aunitz kostata (AM, S), dirue asko in euen, bañe ondo kostata (IP), gosta ala gosta egin behar dago (KA).

PREZIO erdian saldu zuen: erdipreziotan (KA, LAR), erdiprezioan (S, G, O, IP, IN, ID).

zurekin hitz egin nahi nuke; **PRIBATUAN** baina / **personalki** (hitz egin).

tomatea **PRIMERAKOA** zen: tomatea bana banakoa zen (O), tomata hau hauta da (KA), tomatea aukerakoa zen (G, IP).

PRIMERAN bizi da ~ aukeran bizi da (O), aukera guztian bizi da (IP), nai bezalaxe bizi da (O, KA), nai duen bezela bizi da (O), zer nai ta ura bizi da (O).

etorri da, **PROBABLEMENTE** / **igual**.

PROBISIONALKI egin dute auzapez: aldi baterako (O), oraingoz alkate hori da (EL), eztebe betiko jarri; beste bat jarri arte (O), oingoz ori dago alkate (IN), aldi batetako (KA), ori ezta sartu erabat; tenporada bateko (G), bertzea egin arte dago (S), mementoko auzapeza (KA), oraingo bakarrik (EL), denbora puxka bateko; bestea egin arte (G, S), denbora pixka baterako ori dago (O), zenbait denboratakoa (AX 297), bein b(e)inean (IN).

PROBLEMA / **arazo**.

personala **PROBOKATU** dio (saski baloian): eragin dio (EL, O), eginarazi dako (KA).

PROBOKATZAILE handia da hori: / **arazo** / **foiloiak**: sesio billa ibiltzen da beti (O), okasio billa dabil (G, O, S), su piztaile da (O), lizkar xekatzailer da (KA), erronkosua da (O), aharra xekatzailer (KA), kamorra ontzia da (S), aharra xekan dabil (LAN), niri okasio paratzen ez ibilli (G), maiz sestran dabilta (O), ipiztu pentsatzen ari da (LAN), gerra billa dabilta (O), gezurrezko arrazoi-ekin billa (G), kalapita xekan ari da (KA), ez dira arrazoi-ekin billa (O), sesio billa dabil (G, O), sesioren billan dabile (S), beti dabil allego topetan (IN), asarre bidea ifinten dau (IN).

PROFETA Davitek ongi erran zuen...: David profetak ongi erran zuen (ITS, KA), David igeltserua Azpeitira joan da (O).

zuloa oso **PROFUNDOA** zen / **altura**: putzua duk barna (LEIZ. Ioan 4,11, ITS, LAN, AL, KA, LAR), patin ori barrure dao (IP), leiza oso barruraño dago (O), osiña ori oso beera dago (O, ID), oso sakona (EL), oso beeraño dago (O), oso barrena da (EL), oso beiti du zuloa (G), agitz barrena ~ beiti dago putzu ori (S).

PROHIBITUA dago hori egitea / **permittedu**: 1. ez da **legiaren arau** ~ arabera (AL), arabera (KA). 2. **bide** ez tiraden gauzen egitera (LEIZ. Rom 1,28), ezta zuzenbidezkoa ori egitea (S). 3. **debekatuta** dago ori egitea (O, IP), peskan eitia debekatua dago (IP, O), eizea debekauta dago (O). 4. **legez** ezin leike ori egin (O, G, IN, ID), ez da legezko gauza (KA), ezta legezko ori orrela egitea (O), ori ezta legezkoa (O). 5. eizean ibiltzia **galazita** dago (O, ID, G), arrantzan egitia galazita dago (O, ID, G, S). 6. haren etxean zangorik sartzerat **haizu** ez naizenaz gainean (ITS), ez ditake haizu oto bat bestea abantzatzea karrika hortan (ITS), gaxtake-ria ez da haizu (LAN, AL, ITS), zakurrak hola librantzan ez dire haizu (LAN, KA, AL), arreintzan ar(i)tzea ez da haizu (KA), arrantzuka ez düzü haizü (LAR). 7. lege(a-re)n **kontrakoa** (G, ID), legiaren kuntre da (AL), legiaren kundre da (AL), legeain

kontra da (AM, S), paper hori legez kontrakoa da (KA), hitz horiek legearen kontrakoak dira (KA). **8.** legeak ez du hori onhesten (ITS). **9.** ezta sori Jainkoaren representatzea (LEIZ. Ham. Man), ez da sori txitxirik jatea (LAN), sori eztena (LEIZ. Mat 12,2), ortziraletan ez da sori txitxi jatea (LAN), Eta besta egunean ere debeku zen, etzen sori eta ez zilhegi bide luzerik iragaitea (AX 134). **10.** ori ezta gauza zuzena (O), ori egitea ezta gauza zuzena (O), ez da xuxen horren egitea (KA), ori ola ezta zuzenbidezko gauza (S). **11.** ori ezta ongi egi-na (G).

PROHIBITUA dago erretzea: hemen erretzerik ez! (O, ID, G, EL), hemen ez erre, mesedez! (ID, O, IP, EL), heben ez da haizu pipatzea (LAN, KA), ez pipa! (AL), pelotan egiterik ez (O, ID, G), toki honetan ez erre! (IB, MO), hemen etzazula pipa! (KA).

bizia errespetatuko zela **PROMETATU** zien: bizia barkatuko zela agindu zien (O), hitzemaite dautzut ez zitutala hilen (KA).

el muchacho y ella se prometieron ■ neskatxa eta mutila **PROMETATU** ziren: ezkontzekotan dire (S, KA), ezkontzekotan dabilta (O, ID, EL), ezkontza ertsi dute (GR), ezkontzekotzat dabiz (IP), elkarri ezkontzeko itza eman diote (O, ID), ezkontzeko asmotan dire (S), ezkontzeko asmoa artu zuten (G, IP), ezkontzeko idean omen dira (G), ezkontzeko idea dute (AM), deliberatu dute ezkontzea (KA).

ez du *r* ongi **PRONUNTIATZEN**: ez du *r* ongi esaten (G), ez du *r* ongi ahozkatzen (GR), ez du ongi garbitzen; berak jaten du (S).

kafe **PROPIOA** egingo zuen, sukalderraino egitera joan beharra bazegoen ere: **1.** berak egingo zuen kafea, sukalderraino joan bear bazuen era (O), sullardarat joanik kafea egiten dut (KA). **2.** etxe ori propio egin zun (G, O), ezpres (KA), adrede (S), apropos (EL), berariaz (AX), beren beregi (IN).

handituz zihoan **PROPORTZIOAN** gehiagotzen zen haren katuentzako amodioa: zenbat eta zarrago gero eta kutuzaleago (O), zaharrago, kutuzaleago (GR), zenbat

eta zarrago orduan ta bearrago (G), zartzez bearrago (S), zaharrago eta elkorrago (KA).

beste gauza guziak **PROPORTZIOAN** zeuden: dena erabera zegoen (S), alaberean an gauzak merkeago dira (AM), gauza guziak erabera zeuden (S), araberean merkeago da hemen (KA), gauza guziak tankera batean zeunden (O), gauza guziak alaberean zeuden (AM), bardiñean hemen merkeago da (IN), orren modura dioz beste gauzak (O), eraberean an merkeago da (G), orren mallan doaz beste gauzak (O), alaberean = berdintsu (KA).

zuk zer **PROPOSATZEN** duzu?: zer egingo zenuke zuk? (KA, O), zuk zer ingo zaunke? (IN), zuk zer egingen zenuke? (G), kasu huntan zer egin zenizake? (KA), Zuri ze iruditzen zaizu? (ID), Ola egingen ote dugu? (S).

PROSTATATIK operatu dute: txixakotik operatu dute (O, ID), gernu debekutik operatu dute (S).

langileak **PROTESTAN** hasi dira: langileak usinan jazarri egin dira (LAN), oldartu dira (KA), gaiztotü (LAR).

PROZEDUR arazoetan denbora luzea galdu zuen **kultur**: prozedura arazoetan (GR), lan au bukatzerako denbora asko joango da (O), auzia erabakitzen (O), jaialdia zuzentzen... (O), jaialdia gertatzen (ID), besta muntatu (KA), gauzak atonduten egun bet pasau ogu (IN), auzia bukatu arte (O, G), gauzak prestatzen ~ moldatzen denboraz leher galdu dugu (KA).

PUES horrela: orrela, bada! (AM, O), bai, hola! (KA).

oso **PULKROA** zen hitzegiten: itzak ondo erantsita hitzegiten zuen (O), itzak alkarri ongi erantsita (G), eskuara garbia du horrek (KA).

txirrina **PULTSATU** zuen: jo zuen (O, EG, ID), tირrinta jo du (KA).

hanka **PUNTAN** ibili zen ~ anka muturren gañean (G), zanko püntetan (AL, KA, LAR), anka puntan (S), zanka puntan gañean (S), zangoen puntan ibili zen (ITS), bietz puntakin fuen zan (IP), gaur egun guztian anka puntan gañean ibilli naiz (O), gaur egun guzia zango puntan gañean pa-

satu dut ~ ibili naiz (AM), egun guzia ankan gañean irago dut (G), zanga punta gañean (S), oin punta gañean (S), gaur egun guztien oñen gañean nabil (IP), anka gañean (O), ankan gañean pasau dot (IN).

Hernio **PUNTARA** igon zen ~ Oriko pünta- la izan niz (AL), Oriko ganiala ~ tiniala (AL), hernioko puntara igo naiz (O), Mandubiko puntan ~ goiko puntan ~ Mandubi puntan (G), Auze gañera ~ kaskora gan zen (AM), Mendaurreko kaskora (S), Loitzateko mendiko puntan (G), Anbotoko puntara fuen zan (IP), Ori püntan izan nüzü (LAR), mendiaren gaineko kaskorat (KA).

PUNTERIA frogatu behar zuen: ze apunte daukantan probatu bear det (O), apunteria probatzen ari da (G, IN), ikusi nahi dut tiratzaile ona nizenez (KA).

hori **PUNTUALA** da **puntu** **justu**: ori orduan zuzena da (O), orrek badaki orduak errespetatzen (O), ori ordutan zuzena da (S, G), ori orenetan xuxen da (ITS), tenoretan xerrenta da (LAN, KA), tenoretan xuxen da (LAR), bethi tenorez xuxen ibiltzen da (ITS), horrekin orena oren da (KA).

aberasteko **PUNTUAN** zegoela, hil egin zen: ia ia aberastuan zegoela, il egin zan (O), ixa aberastuen euela il zan (IP), aberaster zelarik hil da (KA), aberastü ondoko hil da (LAR), etxea ia erorian dago (O).

erortzeko **PUNTUAN** zegoen etxea: erortzer da etxea (ITS, KA), erortera da etxea (AL), bota urrena jarri da ~ dago etxea (AM), etxea bota urrenean jarri da (S), erortzeko zorian (G, O), etxea ia erorian jarri zitzaien (O, G), jausi inik izinez (= he estado a punto de caer) (IN), jausi inik parau zen etxea (IN), erreka hurbil da gure eskuara (ITS).

hiltzeko **PUNTUAN** zegoen **-ter**: **1.** azkenetan dago (O, ID, U, S, G, IP), ondarretan da (azkenetan) (S), arront azkenetan dago (G, O), atzenetan dago (IN). **2.** azken **arnasetan** (G, IP, ID), azkeneko esnasetan (G), ondar atsetan dago (AM, S), azken atsetan (LAN, G, AL, KA), iltzeko ondarretan

dago (S). **3.** azkeneko **hariraino** etorri nintzen (G), hari haritik harrapatu omen dute (= hiltzorian zegoelarik), azken harira etorrita omen dago (O), azken ariraino gelditu nintzan (G, O). **4.** hil **abantxü** da (AL, LAR), a(b)antxu hila da (KA). **5.** ilagiñeko bat (GR). **6.** ia **ille(a)n** zegok (G, IP, ID, O). **7.** hil **geian** da (AL), hiltzeko heinean da (KA). **8.** hil **hurran** (AX, LAN, ITS), il urrena dago (AM), hemengo aldia egin hurran baitut (AX 5). **9.** il **inik** izan da (IN), il inik dago (IN). **10.** **iletsia** emana dago (S), hiletsian dago, ez deuka zerik (AM). **11.** **iltamuan** dago (GR). **12.** **iltorduen** (IN). **13.** **hiltzeko mendean** da (ITS), hiltzeko menian (AL, KA). **14.** behia **itoan jarri** da (G). **15.** **iltzeko zorian** dago (O). **16.** etsaia **hiltzer** du Piarresek (IT, KA), hiltzer da (ITS, KA). **17.** eri izanez, **hiltzera zohian** (LEIZ. Luk 7,2, G, O, AM), hiltzera zen (AL, LAN), pirun pirun ari duxu hiltzerat (= emeki emeki) (LAN). **18.** **iltzokotan** dago (S). **19.** **iltzorian** zegoen (G, O). **20.** **erdi illean** billau zeben (O, IN), erdi illik dago (AM), erdi hilik edin düte (AL), erdi illa da (G), ia illean dago (O, G). **21.** **eriotzeko orduan** (G, AM, O). **22.** **ezin hilez** ari da (KA), ezin illez dago (S), ezin akituz dago (S).

lokartzeko **PUNTUAN** zegoela, deitu egin zuten: loak artu ez artu zegoan orduantxe (O), luk erreintua nago (S), lokartzer da bolantean (KA), loak botaia nago (AM).

eserlekua puskatzeko **PUNTUAN** dago: eserlekua libratuan dago (O), kadera hauster da (KA), ia lertuan dago (G, O), ürhentü abantxü zen (AL, LAR).

zoratzeko **PUNTUAN** zegoen: burutik ia egiñean zegoen (G, O), ixa burutik einda dao (IP, ID), burutik aldatzer da (KA), burutik nahaster da (KA).

oraindikan ez dira hamabiak **PUNTUAN**: amabi laurden gutxi oindikan txoil ez dira (G, S), ordu bata oindikan ez txoil (G), oraintxe dira amabiak (AM, G, O), ointxe dira amabixek lauren gutxiao (IP), eguerdi arras ez da (KA).

lauetan **PUNTUAN** etorri zen **justu**: **1.** zazpitan **beretan** etorri zen (AM), bostetan bertan (IB). **2.** hamabietan **doi** jin zen

(AL, AM), hirur orenak doi-doia iganik heltü da (AL, LAR). **3. lau lauretan** etorri zen (IN, O, IP, G, S, AM). **4. lauretan zuzen** etorri zan (O, G, S), ordu(a)n zuzen etorri zan (O), bulegoa zortzi orenetan hetsiko da xuxen (ITS, AL, KA, LAI), zuzen etorri zen amabitan (G, O, U).

sukarra **PUNTURIK** altuenera igon denean: goienera igo duenean (O), sukarra gorenera denean (AX), sukarra gorenean du (KA).

Bereiz: **a. PURO kaja** bat erre zuen (= kaja bera erre zuen). Puro kaja urrez bete zuen (= hutsik zegoelako). **b. kaja bat puro** erre zuen (= kajan zeuden puroak erre zituen).

Bereiz: **PUSKETA goxoren** bat emango diot

(G, O) / **goxo pusketaren** bat emango diot (G, O).

PUTA semea (AX), ardi (= ahardi) seme hori (Mikoleta).

PUZKER / PUTZ: **a. puzkar** (EL), uzker (IN, LAN, IP, KA), üzker (AL), puzker (G), (*asantzaz, baina usu usainik gabe*). **b. putz** (IN, LAN, O, KA), pütz (AL), putz usaña (IP), (*isila; kiratsa, baina*). «Uzker-rra dena irri; putza dena aharra» (= uzker-rrak, zaratsua denez gero, irri eragiten du; putzak, ordea, nork bota duen ez dakigunez gero, aharra, hots, eztabaida sortzen du, elkar salatzen bait dugu) (LAN), bateonbatak bota dau ixilikoen bat (= putza) (IN).

R

-RAKO, -ko ↗ **-ko:** **1. Sartaldean, denera jota, ekialdean baino sarriago erabiltzen da -rako atzizkia.** **2. higidura adierazteko -ra maiz erabili ohi da:** Baionarako bidea. **3. zerbaitetako denean, ekialdean -ko erabiltzen dute:** neguko, bihamuneko... *Mendebaldean -rako sarriago:* negurako...

BEREIZ (*herriak ez du beti bereizten. Ikus hurrengo adibideak*): **1. Landibarreko bidea** (= Landibarretik igarotzen dena edo Landibarren dagoen bidea) (LAN, ITS, KA). **2. Landibarrerako bidea** (= harunzkoa) (LAN, ITS, KA), Aiherrarateko bidea hetsirik zagon (KA). **3. Landibarretikako bidea** (= Lanbidarren hasten dena) (LAN, ITS, KA).

***1.** gaurko **etxerako** lanak bihar azalduko dizkigu maisuak (O, G). **2.** aitak bukatu ditu **etxeko** lanak (O, G).

***1.** **Zeanuriko** autobusak Afrikan saltzen dira. **2. Zeanurirako** autobusak ordutan oso zuzen ibiltzen dira.

***A. 1.** atariko atea (G), Balkoiko atea (G), Atarratzeko bidian zuhaintze eijerrik bada (AL), Baionako bidea (LAR), etxeko bidean galipota bota dute (ID), etxeko bidea mendiraño dioe (IP), etxeko bidea artu du (G), kaleko atea (EL), kanpoko aterantza joan zen (IN), karrikako borta hetsazu (KA), zer ezazu (LAR), karrikako atea (S, AM), mendiko bidea (ITS, O, S), Frantziako bidean etxe ederrak daude (IN, O), oke-rrako bidea artu du (G).

***2.** bihamuneko lanik aski bazuten (KA), bihamuneneko (AL, LAR), biharko (LAR, O, IN), egün orotako bada aski (LAR), egungo badu aski (KA), sagar hau geroko

(KA, EL, IN, O, LAN, AL, S, LAR), be-deratzietan urdea hil eta eguerdiko lana egina da (LAN, AL, KA), labean erratzen zen ogia eguerdiko egina zen (LAN, AL, KA), eguerdiko baberna gorria (G), bihar eguerdiko egina izanen dugu (KA), etorkizuneko (G, ITS, KA), gaiko (AL), deuse- ren biderik ez geroko (LAN), igandeko (ITS), badugu neguko egurra ausarki (KA, LAR), neguko egurra bildu behar dugu (KA, G), betiko (ID, EL, G, KA, S), uda-ko belarra neguko behar izaten da (S), or-duko (LAN, S), lau barrika arno urteko (LAN, KA), gaurko naikoa da (O, IP, IN, ID, EL, G, S), etziko (O, IN), oingo naiko- zu (IN), oraingoz badezu naikoa (O), orai-ko badut aski (AM), lauretako emen egon- go da (IN).

***3.** hazkurria gorputzeko (LAN, KA), la- borantxako lür gizen da hau (AL, KA), bi ordenantza atera zituzten Frantzia guziko (ITS), gizonak medikuntzako dohain haundia bazien (LAN, KA), orotako den- bora behar da (ITS, KA), kontent naiz urt- he guzikotz (ITS), egün orotako bada aski (LAR), egün oroko badü aski (AL), suko da hori (LAN), jana gorputzendako, otoi- tza arimandako (S), zure zerbitzuko orde- natuak (AX), hartako ez gai (AX).

***B. 1.** Ameriketarako pentsamentuak ditu (O, ID), Atharratzerako bidiari arralotü zen (zitzaion) (AL), Baionalako bidea (LAR), balkoirako atea (O), Frantzirako bidean min artu zuten (O, AM), errira bi- dean zijoan (O, IN), errirako bidean zion (G), errirako bidea artu du (O), etxera bi- dean min artu nuen (ID, U), etxerako bidea

hartu du (ITS, IP, G), hotelerako otobusa ez da jin (ITS), hirirako da (ITS), hiri handirako bidea ongi egin zuen (ITS), kale alderako atea (O), kalera joten deban atia (EL), kalerako atea (ID), baserriko gizonak errez billatzen du kalerako bidea (O), karrikalako bidia (LAR), karrikarako bidean zaien (AM), mendilako bidea (LAR), mendirako bidea (O, ITS), norako da? (ITS, G, O), terrazarako atea (O, S), txarrerako bidea artu du (O), zerurako bidean doa (ITS, LAN). 2. Atharratzerakoan (AL), Bilborakoan (EL), etxerakoan (G, O, LAN). 3. etxerakoan (AL). 4. Baionaterako bidea ona da (KA), etxerako bidiari lotu ziren (zitzaizkion) (LAN), etxerako bidean otoa lerratu zako (LAN), ezkaratzetik kanporateko atea (ITS), Maulerateko bidea hartu zuen (ITS, KA), mendirateko bidea hortu doazi (KA), zerurateko bidea hartu du (KA). 5. gerorako (IP, ID), ordureko (IN), urrerorako utzi gabe (O), arbola hori landatzen dugu gerorako izan dezagun itzala (KA), eguerdirako lana bukatuxe izango degu (ID, O, IP, IN, EL), etorkizunerako (IP, IN, O, ID), gaberako (EL), badugu egurra negurako (EL, O), iganderako (O, EL, IB), bada ura erri guttirako (IB, EL, EG), udako belarra negurako gordetzen dugu (O). 6. jana gorputzerako; otoiiza arimarako (O), txarrerako jokerie artu dau (IP), surtarako egurra da ori (EL, IB), jana gorputzarentzat; otoiiza animarentzat (G).

*autodeterminaziorako eskubidea: autode-terminazio eskubidea (GR), eize zakurra da (G, O), ihiziko, erbiko, axeriko, lumako... zakurra (KA), ihizoa (zakurra) (LAR).

*hilketarako batzordea: hilketa batzordea.

*lanerako indarraren teoria Marxek asma-
tu zuen: lan indarraren teoria (GR), ehiza-

kurrak garesti dira (G, ID, O), ihiziko za-
kurra (KA).

*laneko adreta da (AL, LAR), eztu laneko funtsik (ITS, KA), laneko balio du (G), lanerako balio du (IP, O, EL), zure beharra badugu kabalen lanetako (ITS), mutikoa hartu zuten laneko (LAN), neskatotako hartu du (AL), oso lan egokia da (O), laneko sasoina bazen (LAN, ITS), lanoko sasoina orain dauke (S) \nearrow balio.

*«Pako»ra joango gara ardo edatera: «Pako»nera (G), Pakoingena gain gera (AM), Kapotenean bizi niz (KA).

-RANTZA: *hacia el oriente se emplea «jin»* ■ sortalderantza jin erabiltzen da (-rantza: *higidura adierazten du*): sortaldeko eskualdetan jin erabiltzen da (GR), mendirantza noa (IN), mendiruntz noa (EL), mendirutz noie (IP).

-RATEKOAN ~ -rakoan: oheratekoan \nearrow -rako.

viene regularmente ■ REGULARKI etortzen da \nearrow periodikoki: erregularki! (jakina!) (O, EL).

RIDIKULOA nahikoa egin dugu: nahiko farregarri agertu gara (G, O), irringarri zinen besteen aintzinean (KA).

-RIK ~ Ø \nearrow gertu.

-RIK ~ -ta ~ -a: josirik ~ josita ~ josia \nearrow gerundio.

*1. ogirik gabe (KA). 2. ogi gabe (LAR). 3. ogi barik (IN, EL).

*1. gaiztakeriak egin gabe ibili (O, ID, EL). 2. gaiztakeriak egin gabe ibili (KA, S).

*inor kanpokoa baldin bazen: inor kanpokorik bazen (O, AM, S, G), ihur kanpokorik (AL), kanpoko norbait heldu bada... (KA).

-(R)IK: (hobeki legoke ezezko perpausetan).

*ez du ardoa edaten: ez du ardorik edaten (G, IN, AL, S, KA, LAR), ez du lotsa aundirik (O, G, IB, IN), ez da gizonik etorri (O, MO).

S

bizkarrean SAGAR otar bana ekarri zuten (= sagarrak gabe): otarkada bana sagar (O), saski bat sagar (O, KA), xaxkita bat onddo (LAR), san bete sagar (IN), zankada sagar ja(n) euren (IN), zareta bat sagar (LAR), otarkada bat onddo ekarri zuen (G, O).

aurten SAGAR gutxi dago \nearrow behi.

horrelako lanak SAIATZEN ari gara \nearrow ahaztu: orrelako lanetan saiatzen gera (O, ID, G, S), olango bearretan aleginduten gara (IN), holako lanen egiterat entseiatzen niz (KA), (ixeatzen) (LAR), orrelako lanak egiten saiatzen gara (O, G), horrelako lanak egiterat entseiatzen gira (KA), enseia... geure eginbidearen egitera (AX 100).

txirrira SAKATU zuen: zeñia jo zuen (AL), tinbrea zanpatu (G), tinbria jo (O), xilintxa jo du (KA).

SAKATU: a. sakatu zakua (S, KA), bortxaz otoan sakatu gintuzten (ITS), sakatu fuerte pentsua (AM), sakatu pedala (AM), takitu ongi zakua (S), estutu ongi zakua (S), untsa zapa ezazü (AL), ederra sakatutzen (ziria sartu) (IP), ongi zapatuz bete du zaku ori (S), ogi bihia zakuan behera saka (AL), gezur ederra sakatu dautzute (ITS), gezurrak sakatzen ditu (ITS). b. sakatu pedalaria (IN, O), sakatu dio ongi zaku orri (AM), azele-radorea ongi zanpatu du (G).

Pedro le tiene en el bolsillo a Juan ■ Peruk SAKELAN dauka Jon \nearrow monagillo.

gela SAKONAGO aztertu zuen: obeto (O), ankaz gora (IP), kuartoko baztarrak miatu zituen (O), cuarto guztia ipurdiz gora jirau zeben (O), ontsa miatu du ganbera (KA).

tengo que conocer eso en profundidad ■ arazo

hori SAKONEAN ezagutu nahi nuke: 1. argitasun guzietan jakin nahi nuke hori (G, S). 2. agiri guzietan azalduko diat (G). 3. azkenetarañokoak aztertu zituen (O). 4. horik oro ikertu düte barnatik (AL, KA, LAR), ahal zütien bezaiñ barnatik (AL), artzainen buruaustak ahal bezain barnatik erakusten dauzkigu (LAN), barnatu behar dügu (AL). 5. barrutik (O), barruagotik (O). 6. bazter danak mirau zituen (O), xeheki behar dugu miatu (KA), untsa miatu (KA), errotik miatu (KA). 7. egoki (G), egokiago (G). 8. errotik ikertu (LAN, KA). 9. auzi orren gorabeherak ezagutzen zituen (O). 10. gauza orren berri banekin nik (O). 11. ipi apa esan omen zizkion danak (O), ez det uste ezer asko gordea izan bear zunik; ipi apa esan omen zizkion danak (O), ipi apa esango diat dana (O). 12. afer horren itzul-inguruak ongi ikertu (LAN). 13. gako or zen (KA). 14. gauzak ondolik jakin nai ditut (ID), ondolik aztertu behar da (O). 15. puntu guztiak ongi ikusi (G). 16. sustraitik jakin bearko litzake (O), ori sustraiz jakin bie geuke (IP). 17. horiek oro tiletez tilet dakitzat (AL, LAR), tiletaz tileta (LAR). 18. xeheki miatu behar dugu (KA), xehe xehea mintzo da (ITS), xehe xehea erran dauku (A, LAN), xeheki ikertu dugu (LAN), orai badakik hori nor den xeheki (AL), xeheki sogiteko aizararik ez (AL, LAN), har ezazie orroek kaseta haur eta irakur xehe-xehia, burutik buru (AL), aipha azkitzu xeheki haren heriotzearen xehetasunak (ITS), othoi, eman itzadatzie ororen xehetarzünak (AL). 19. zehatz zehazki (O). 20. zulo geienak ikusi zituen beintzat (O).

21. gauzak **zuztarretik** jakin nai izaten ditu (O, ID). 22. / historia **larri larria** erran (gainez gain, xehetasunetan sartu gabe) (KA). euskara **SAKONEAN menperatzen** du horrek / **menderatu**.

SAKONEAN guztiak gara **parekoak**: barrutik danok gara bardinek (IN), barrerik denak gera igoltsu (G), barrutik danak gera berdintsuak (O), barnez guziak berdintsuak gira (KA).

lo **SAKONKI** egin dut: 1. lo **bakarra** egin dut (= esnatu gabe), lo bat ein det (O), lo baten irago dut gau guzia (G, KA, ID). 2. lo **bete** betean dago (G, O, S, KA). 3. lo **danpa** dago (AM), danpa lo egin dut (AM). 4. lo **eder bota** dut (S), a ze lua bota duten! (S). 5. lo **gogor** dago hura (O), lo gogorrean in dot (IN), harria baino gogorrago zegoen lo (O). 6. lo **pisuan** izan nintzen (AM), lo pisua du, gaztea baita (G). 7. lo **sendoa** du (S), untsa lo da (LAR). 8. lo **zabal** zabal egiten ari da (G), zabal zabal lo dago (G). 9. **zanpa** lo dago (AM). 10. lo **zorro** egin det (= gaixorik zaudenean egiten duzun lo astun, gaiztoa) (O, AL).

zeharo **SAKONKI** konbentziturik behar du izan (= *sakonki* sobran): ziero konbentzitura dago (O), ziero sinistuta dago (O), arrunt sinetsi du (KA, LAR), guztia sinistuta dao (IN), arront sinetsia dago (S, G). saltzaile zirelakoaren **SALAKUNTZAZ**, hilak izan ziren / **-lakoaren**: saltzalleak omen ziran ta... (ID), saltzalle ziren salaketa egin zieten (O, ID), saltzailleak zirelako salaketa (KA, G, S).

SALBU / **aparte**: oro jin dira, Maria salbu (AL, KA).

haren **SALBUESPENAREKIN**, beste guztiak etorri dira / **baizik**.

SALDA bero bat hartu zuten / **bat**.

txahalak **ongi SALTZEN** dira orain ~ txalal salmenta ona du orain (= erraz eta prezio onean saltzen), (G, O, IP), aurten bildotsak salpenta ona dute (S), mementoan atzarrak (= ardiak) saltze ona du (KA).

SALTO egin zuen: jauzi egin zuen (LAN, ITS, AL, KA, LAR).

SALTO mortala eman zuen: heriojauzia egin zuen (GR).

bidean kotxeak **SALTO asko** egin ditu: trango asko pasau ditu (O, ID), trango asko saltau ditu (O), trangu zegoen eta... (IN, ID), trango asko euen eta salto saltoka fuen zan (IP, ID), otoa jauzika joan da (KA), otoa jauziz jin da arrollak baitira (LAR), bide latza dago agitz eta burdiya doae boteka (S).

SANTA Maria, erregutu gure alde / **Aita gurea** / **profeta**: Maria saintia (AL).

Azkue **SARIKETA** emango da: Azkue saria emango da (O, G).

bezain **SARRI** / **orduko**.

haren gaiztakeriak gero eta **SARRIAGO-KOAK** dira / (jarrera) **ematen**: gero eta sarriago gertatzen dira (GR), gero ta gehiago (KA), orrek gero ta geiago egiten ditu olako gaiztakeriak (O), olako kasuak gero ta maizago pasatzen dire (S).

Miren **etxera SARTU** da (IP) / **nahi**: 1. ene **etxan** sartu nahi da (AL, LAR), etxean sartu nai du (S, ID), etxean sartu naiz dabilla (S), Onintzek Iruneren etxean sartu nai du (O), haren resuman sarthuren (LEIZ. Mintzatzeko Manera), sart gaiten salan (ITS, KA), zeruko lorian sarthu (AX 31). 2. sar gaitezen **hor** (G), sar gaitezen **horra** (IN, O, G, (orrat) S), horrat joan gitian (AL), hor sar gitian (AL). 3. ardien **tertera** sartu da (S), lagileen **artean** sartu zen (AL), ardi artetera sartu da (O).

Entre! (atea jo dutenean): **SARTU** ~ barrura!, heldu! (KA), aurrera!, bai! (EG), aintzina! Sar zite! (KA, LAR).

nabala **bularrean SARTU** zion (O) ~ bularretik (IN, AL, AM, S, G, IP), tripatik (G, IP), lepotik (O, KA, S, LAR, G), lepoan (ID, O, IP), samatik (IN), lepotik heldu zion (O), saietsetik (S).

urtetan SARTUA / **urtetan** (sartua).

etxe hartan **apaizak** maiz **SARTZEN** ziren ~ apaizen sartetxea zen (O).

no quisiera meterte en problemas ■ zu **arazotan SARTZEA** ez nuke nahi / **arazo**.

lan hau bukatzeko presa **SARTZEN** zidan: presaaarazten nindun (KA), presa ematen zidan (O).

siempre se está metiendo conmigo ■ beti nirekin **SARTZEN** da (= siempre se mete den-

tro conmigo) / **serioan**: 1. beti neri **adarra jotzen** ari da (G). 2. alkarri **arpa jotzen** ari dira (O). 3. **düdükan ari** da (LAR). 4. beti **kitzikan** ari da (KA), elgarren kitzikan ari dira (KA). 5. **narrikoan** erran zion (S), narrikatzen ari da (S), beti narritzeko gogokin dago (S), ezta zin(e)tan ari; narriko ari da (S). 6. **txantxetan** ari da (O), ez dabil txantxetan; benetan dabil (IN, O). 7. **txikana gogoan** dago beti (AM). 8. beti **zimikaka** (S). 9. beti **zirika** ari zait (O, G), zirika ibiltzeko gogoakin dago (G), nerekin beti zirikaka ari da (S, G), beti zirikaka ibiltzen da (S), alkar zirikatzen ari dira umiok (S, O, ID), zirikatzeko gogoakin dago (O), bata bestie ziriketara dabiz (IP).

badu mutilekin ibiltzeko **SASOIA**: badüt nekatilekin elkitzeko adina (AL, KA), badu mutikoekin ibiltzeko aiña edade (O), bereber ibiltzeko adinak bete ditu (KA), badu mutilekin ibiltzeko adina (G, O, S).

negu **SASOIA** dela ezin uka (IP), negua dela (O, KA), neguan gaudela (G), ura sasoi da (IP).

Mirentxo, **SEASKA mugitu**, haurra lokartu dadin / **eragin**.

SEGITU (askotara adieraz liteke): 1. **jarrai**: estüdioetan jarraiki düzü (AL). 2. **iraun**: bizirik irauten du (G, O, IP, ID), irauten du oraino (KA). 3. **oraindik** + atributo + lotura: oraindik libro da (ITS), oraindik bizirik dago (G, KA), ondio bizik dao (IP, IN), oino bizi da (KA), kartzelan dago oraindik (S, G, O), oñik (AM), oraino (KA, LAR), oraindik ere galderak egiten ari zaizkio (G). 4. apaiz segitzen al du edo utzi al zuen? (G) ~ utzi al zion? (O), bizirik **segitan** dau (IN), lanean segitzen du (G), segitzen al dio andereño? (O). 5. **aldizko** adberbioa + nolazko adberbioa + adberbioa: gero ere horrela egingo dute horiek (G, S), aurrerakoan ere horrela egingo degu (O).

SEGITU: a. **lagunari**. b. **laguna**.

1. a. lagunari segitu zion (S). b. izarrari segitu zaio (ITS, LAN). 2. segi **ditzagun horiek** oro (LAN, KA), usaia xaharrak segitzen ditugu (ITS), zakurrak katua segitu du (ITS, LAN).

SEGI beti zeure eskubitik (IN), jo beti zeure eskubira (O, ID), jo(a)n beti zure eskuiñetik (G), zoaz beti zeure eskubira (O, ID), jon beti zure eskuiñera (G), zoaz beti zeure eskubitik (O, ID), zazi beti zure eskuinetik (KA).

bideari **SEGITU** zioten ~ bidean aurrera egin zuten (O).

ez da hortik **SEGITZEN**, Miren gaizto denik: ez da hortik aditzen (AX).

Asierrek neska horri **SEGITZEN** dio: neska orren atzetik dabil (O, ID, G, IN), neskatxa orren ondotik dabil (S), neska horren gibeletik erailtzen da (KA).

Bilbora joango al zara? ■ **SEGUN** ze eguraldi da: ...? Ze eguraldi den (O, ID, G), eian zer denbora den (ITS), denboraren arabera (KA, LAN).

*Erosiko al duzu? **Segun** zer prezio daukan: ...? Prezioa nolako den (O, AL, AM, IP), Zer eskatzen duten (O, ID), prezioaren arabera (AL, KA).

***Segun** zer esan nahi den: Zer erran nahi den (AL), Joango zara Donostiara? Uda nola gaten den (AR, O, IP), noiz nola den (KA), zer erraiten den (KA).

***Segun** eta zein tokitatik begiratzen duzun (= Segun eta: sobra): nundik begiratzen duzun, ikusiko duzu Bilboko kea (O, G), Ez dituzte erroa oiek artuko. Nolakoak eramaten dituzun (O, G).

*Beti dago gaizki hara joatea. **Segun** eta zertara: ..joatea. Zertara joate an (= joaten dan) (O, G), noiz nola den (KA).

ordainduko zutelaren **SEGURANTZAK** izateko / **-laren**: ordainduko zutela seguro egoteko (G, O).

etorri da **SEGURASKI** ~ / **probablemente**.

SEGURU: Bereiz: a. *me lo han dicho como algo seguro* ■ **seguru** dela erran date (AM, G, O, IP, KA). b. *el coche es algo seguro, pero no del todo* ■ kotxea **seguru xamar** da (G, O), kotxea segurua aski da (AM, S), kotxea naiko segurua da (O), otoa aski segura da (KA). d. *quisiera algo (que sea) seguro* ■ **zerbait segurua** nai nuke (AM, S), zeozer segurua nai nuke (O, ID).

SEGURU ez dakit: xuxen ez dakit (LAN, KA, LAR).

zaharren **SEGURUA** jasotzera joan da: zaardakoa jasotzera (O), zahar arranda huntitzen du (KA), zartzarokoa (G), zagar parteak kobratzen du (AM, S), persona ori zaardadiak il du (O).

mundu honetan **SEGURURA** jokatu behar da / (ihardun) gutxigorabehera.

jugaremos a los seises ■ **urreko SEIAN** jokatuko dugu / **jokatu, joko:** seiko urrean (S, G, O).

BEREIZ: *a.* ogirik jan **duen** ~ duelako **SEINALERIK** ez da; gaztaia jan **duen** ~ duelako seinalerik bada. *b.* ogia jan **duenaren** seinalerik bada, hots, **Keparena;** gaztaia jan **duenaren** seinalerik ez da, ordea. Ez dugu horren zantzurik.

SEINALE dute, zaurituak izan **direnarenak** / **notatzen** / **-enaren.**

ura zetorrelaren **SEINALEA** zen / **-laren** / **notatzen:** ura datorren seña da (IN, O, G, IP, ID), ura eldu delako seña da (AM, S), hur badelako seinale da (AL, KA, LAR), huraren marka da (AL), ondo egingo genuden seinalea (O), ondo egiteko seinalea (O).

no hay indicios de que haya estado aquí ■ **hemen** izan **denaren SEINALIK** ez da / **-enaren** / **notatzen:** 1. emen izan **den** seinalerik ezda (G, O), hemen izan delako seinalerik (AM, ITS, KA). 2. hemen izan **denaren** seinalerik ez da (= no hay indicio, rastro del que ha estado aquí).

SEMAFOROA berde jarri da (G), semaforoa berdean jarri da (G, O, S), (parau) (IN), semaforoa gorrian dago (O), argia gorrialatü da (AL), argi gorria da (KA).

hamaika **SEME** izan zituen, sei mutil eta bost neska: hamaika ume... (O, IB, IN), hameka haur ukan zituen (KA, LAN, AL, ITS, AM, S), guk ukan ziu bost haur (LAN).

SEMIFINALA jokatu dute: azkenurreko partidoa jokatu dute (O, ID), azkenaintzineko partida egin behar du Filipek (KA, S).

Jon hartu du **SENAR** / **emazte.**

SENARREMAZTEA bizi ziren etxe hartan / **eta.**

Madrilera joan zen **SENDAKINTZARAKO** ikastera: mediku ikastera (O), bedezigoa-

ren ikastera (AL), medikuntzan ikasterat Pariserat iragan da (KA).

gauzak bere **SENETIK** ez atera / **esajeratu:** gauzak ez tiran bezala esaten ditu (O), hala ez diren gauzak ez ditzazula erran (KA), bere gontzetarik aldaratzen ditu (KA).

SENTIDU batean hobe etorriko ez balitz / **zentzu** (batean).

horren esana **SENTIDU** komun haundikoa iruditu zait: arrazoi gogorra atera du (S), arrazoin aundie arpatzeut (AM), arrazoi aundia billatzen det (O), errezo aundixa topetan dot or (IP), arrazoin ona atxematen dut hori (KA, LAR).

horrek ez du **SENTIDURIK:** 1. orrek ez du ez buru ta ez puzten (AM, S, G), ori ezta ez anka ta ez buru (O), orrek ezta ez buru ta ez (i)purdi (AM, G), ori ezta ez punta ta ez ipurdi (O), ez dute zure solasek bürüririk ez buztanik (AL, ITS, LAN, KA, LAR), orixe duk ez buru ta ez buztan (G, AM, S). 2. apentziarik ez düzü (AL). 3. ori da zentzugaiberia egin duana (O). 4. zentzu gabeko gauzak esaten ditu (O). 5. eztauka ez punta ta ez ipurdi (O), orrek ez dauka ez punta ta ez ipurdi (O).

hori bi **SENTIDUTAN** har liteke: bi aldetatik artu leike (O), ori bi aldetara hartu leike (O), bi modutara ~ bi eratara ~ bi aldetara entenditu liteke (G, IP), bi aldetara konprenitzen al da (S), bietara ~ bietarantzat aitu leike (IN), oi bi aldetara mintzo da (AM, KA, LAR), bi eskualdetarat konprenitzen den gauza da (KA), bi aldetarik erraten dugu (LAR).

orain baietz **SENTITU** pozikago!: oin baietz egon pozago (IN), oin baietz obeto egon (O), orain bai gustoa egon (AM), orain kontent(ag)o zira, noski (KA), orain bai gustora gelditu naizela (S), ez dot minik asmetan (IN).

hori egiten baduzu, **SENTITU** egingo da zurekin: gaitzituren da (LAN), gaitzituko zaio (KA), gaizki artuko du (S), horrek ez dio onik egingo (= haserretuko da) (O, S, G), haserretu egingo da (G, ID), ez dako ongirik eginen (KA), pizkat muzinduta gelditu da (O), minduta gelditu zen (O, IP, ID, IN) / **haserre.**

nola **SENTITZEN** zara?: zer moduz zaude? (AM, O, ID), nola zira? (AL) ~ ba doa? (AL, KA, LAR), joan dea? (KA), zertan zira? (AL), nola arrapatzen duzu zere burua? (G), zelan zaoz? (IP).

nola **SENTITZEN** zara nerekin?: Nirekin gustora al zaude? (G, O), neugaz gustora egon zen (IP), enekin kontent zira? (KA).

SENTITZEN dut, benetan! / **pena.**

ez zen horretarako indar nahikoaz **SENTITZEN:** ortarako laña indar ez zuela ikusten zuen (O), nik ez dut indarrrik aski oi iteko (AM, S), ortarako lañ indar etzeuken (IP), ortako ez dut indarrrik aski (KA).

nekatuta **SENTITZEN** naiz: nekatuta nago (O, G), nekatuta arrapatzen dut nere burua (G), nekatuta billatzen det nere burua (O), nekatuta topetan dot neure burua (IP), akitua niz (KA), eñherik nüzü (LAR) / **leher-tuta.**

Ezkongai al da? Ez, **SEPARATUA** bizi da: bizialarguna da (G, S, IN, O, IP), berexin bizi da (S), berexia bizi da (AM), berexirik bizi da (KA, LAR), bakarrik bizi da (AM). baina, **SERIO** hitzegiten al duzu?: benetan ari al zara? (O), egitan ari zera? (G), egiz ai zera? (AM), zinetan ai zera? (AM, S), benetan esaten dizut ~ benetan ari naiz (O), benetan nao (IN), zinez ari niz (KA, LAR), egiazki ari zira? (KA, LAR).

lagunek ez zuten Peru **SERIOAN** hartzen / **estimatzten.**

nik txantxetan esan eta zuk **SERIOAN** hartu duzu / **sartzen:** ...eta zuk zinez artu (G, KA), ...ondo benetan artu dezue (O), zinetan artu duzu (AM, S, G), seriooki erran ~ egiaz erran (AL, LAR), benetan zagoz? (IN), egiazki ari zira? (KA).

SERMOI ederra bota zuen / **bota.**

lau **SESIOTAN** egin zuten (sesio = istillu, kalapita, zalaparta): **A.** lau **asalditan** (S), lau saiotan (G, O), lau ekinalditan (O, G), lau alditan (KA). **B.** ori beti **sesioan** dabil berriz (O), benetan sesiente da (O), sesio billa dabilla (G, O), asarrebidea ifinten ibiltzen da (IN) / **probokatzaile.**

SEXU berekoak ziren: danak gizonak ziran (O), an zianak denak emakumek zian (G, O), an andreak ziren denak (AM), denak

gizonkiak ziren (KA), denak emaztekiak ziren (KA), denak gizaseme(a)k ziren (G, O).

SI (esamolde ezagunez gainera): 1. Joxe Iñazio jaiki **dedilla;** katua ere jaikiko da (O). 2. aren **tokian** egonda, auxe egingo nuke (O, G).

egunero botatzen zuen **SIESTA** / **bota** (siesta).

SINDROME de abstinencia dauka: orrek dauka mira, kafea kenduta (O), bei orrek dauka mira, umea kenduta (O), beiak larre mira dauka (ID), zuk kafe mira daukazu (ID), ezin droga erosi eta mira aundia zeukan (ID).

SINETSI: modu askotara erabiltzen da. 1. sailekoak hobetsi beharko genituzte / **etsi.** ***SINETSI:** 1. **Jainkoa,** gauza hori. 2. **Jainkoari,** gauza horri. 3. **Jainkoa baitan.** 4. **Jainkoagan.** 5. **Jainkoatan,** nitan. 6. gauza **hoiek.** 7. gauza **hoietan.**

*1. ez **nauzu** sinesten (AM, KA), sinhets nezazu (ITS), (= obedéceme) (AL), nik sinesten zaitut (AM), oi sinesten dut (AM, S), gauza oiek ez ditut sinisten (O), etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko (AX 171), elkarren ez sinhestea (AX 168), Emaztea, sinhets nezan ni (LEIZ. Ioan 4,51), promes hek sinhetsiren (LEIZ.), baldin Israeleko Rege bada, iaunts bedi orain Crutzetik, eta sinhetsiren dugu hori (LEIZ. Mat 27,42), nik ez dot ori sinistuten (IN), sinisketan (IP), ezpanuzu sinetsi nahi, aski duzu zuhaurrek kondatzea (LAN), sinhets nezazue ni! (ITS), horren erranak sinesten düüt (AL, KA, LAR).

*2. eta guk **nori** sinistu? Ari edo zuri? (Peru Abarka) (G, O, EL, IB), ez dizut sinisten (O, G, ID, EL).

*3. **ni baitan** sinhesten duena, ezta egarrituren iagoitik (LEIZ. Ioan 6,35), launa baitan sinhesten (LEIZ. Ap Ak XVIII), horren baitan sinesten dut (KA).

*4. **Jaungoikoarengan** sinisten degu (O, ID).

*5. **Jinkoatan** sinhesten düüt (AL), Jinkoatan sineste badut (LAR), nitan sinetsi (AL).

*6. **Jaungoikoaren** gauzatan sinisten det

(O), (sinisketan) (IP), gauza oietan ez det sinisten (O), milagroetan sinistuten dot (IN), gauza oietan siniste du (G).

*7. milagruekin sinisten zuen (S, O), orrek sorgiñekin badu fedia (S).

Frantziagan SINESMEN handia zeukan: Frantziatan konfidantza handia badut (LAR), Frantziarekin sinismen aundia zeukan (O), Frantzian (IP), Frantzian esperantza aundia zun (G), Estadauakin neukan sinismena galtzen ari naiz (O), moruak ere Jaungoikoa badala sinisten debe (O), Jaurna baithara dugun fediaz (LIZ.), Frantziaren baitan fidantza handia dut (KA).

Euskadiz SINISTEN dugu: Euskadi baitan sinisten dut (KA).

SINESTUN gabeak ziren haiek: ezazela sinheste-gabe, baina sinheste-dun (LEIZ. Ioan 20.27), sinisterik gabekoak ziren (KA, LAR).

eso creo yo ■ hori **SINESTEN** dut nik ↗ **pentzatzin**.

SITSAK harturiko jantzia: jantzia sitsak jota dago (O, ID), sitsak janda (IP, IN, ID), arropa pipietu de (AM), egurra pipiak jota dago (ID, S), pipiak arropa zulatu eta jan du (S, G), sitsak jan ditu baberna guzik (G, IP), bada gorriari zorria ein zako (O), zamorroa ein zako bada gorriari (O), zerrenak jaten du arropa (AL), zizkak janik da (AL), armairuan ere arropa bipiatu da (KA), maia pipiak jo du (S), zarena egin zio urdaiari (= lizuna) (G), urdaiari arra (S).

orain **SITUAZIOA ezberdin** da ↗ **egoera**: orain ez dira lengo kontuak (G, AM, O, IP), lengo denborak diferente ziren (AM, S), lengotik denborak kanbiatu dira orain (S), lehengo denboretarik gauzak arrunt kanbiatu dira (KA).

SITUAZIO txarra da: orain ez da giro (O), salatariak ez dute giro Euskal Herrian (O), hinka gaixtoan gaude (ITS), oso estua da gure kontu au (ID), ateha gaixtoan naiz (ITS), azkar ibilli bearreko kontua da au (ID), ateka tzarrean zare (ITS), kinka larrian gaude (KA), kinka gaixtoan (KA), oso larria da gure arazoa (O, G), larri samar gaude orain (O, ID, G), kinka txarrean da (KA), ikarak aidean gaude (S).

ortze urdina **SO** egitean poz sumatzen zuen:

Jinkoari so egiten (AL) ↗ **begiratu**.

gauza anitz **SOBERAN** daude: sobran daude (G), gauza sobera daude (AM, S), hau sobera da (KA).

bost funtzionari **SOBIETAR** etorri ziren ↗ **-tar**.

SOBRE: «*hablar sobre la iglesia*» = elizaz mintzatu □ «*elizari buruz mintzatu*» **berrixeago da** □ **elizari buruz**, mendiari buruz joan da (= elizarantza, mendi aldera) (KA, LAN), ateari buruz abiatu zen (ITS) ↗ **buruz** ↗ **-taz**.

la victoria SOBRE el enemigo les produjo gran alegría ■ etsaiaren **gainen** garaipenak poz handia eman zien: etsaia garaitzeak poz eman zien (G), etsaia menderatzeak (O), azpiratzeak (IP), kontrarioa pilotan garaitzeak plazer egiten daut (KA).

epaia **SOBRESEITUA** izan da: auzia hasi eta bertan behera utzi dute (O), itxi deure (IN), alde batera utzi dute (S), auzia hasi orduko gibelerat egin zuen (KA), ...bertan be(h)ra itxi oan (IN), (utzi) (O), bertan utzi ta alde egin zun (G), an berean utzi zuen (AM, KA, S), bertan bera laga zion (O), bertan bera utzi zun (O), bertan bera itxi (IN), txoriabia zapuztuta dago (O), txoriak arraultzak utzi ditu (G).

SOIL ↗ **txoil**: **a.** = **bakarrik**. **b.** = **hutsa**. **d.** = **erabat**, guziz. **e.** = **arranta**, sinplea.

***a.** gizon hori **soil** bizi da (AL, LAR), gizon hori **soilki** bizi da (AL, LAR), franko **soil** bizi niz (AL, LAR), bera **soilki** eta **bakarrik** (AX 183, 91), ondo **soil** bizi dira (O), ehun libera **soilki** (ITS), errege **soila** dut (KA), ehun libera bera (AL), gizon hori bera bizi da (KA, LAR), tanto **soil** batez galdu du partida (ITS).

***b.** **soineko soil** soil batekin zijoan (O), desira hutsaz, **xoillaz** eta **bakharraz** (AX), desirkunde **xoilletan** (AX 28), esine **soil** soilla artuko dezu (U), zaplada bat larrian zuen, **soila** (puska bat ilerik gabe) (G), bi **txoteko soilak** ez dituk ezertako (O).

***d.** **Alferrak xoil** dira hitztun eder (AX 27), Erregek **soil** miretsi zuen **hunetzaz** (AX 267), lana **txoil** bukatu gabe utzi dugu (G), **egualdiak txoil** aldatu dira (G), **Bukatu**

duzu lana? Oraindik **txoil** ez (G), **amabiak txoil** ez dira; **pixkot falta da** (G), ordu bata ez da **txoil** oraindikan (G), Ordu bata al da? Oraindikan **txoil** ezta (G).

***e.** **girstino xoilak** jiten dira hunat (LAN), **girstino xumeak** (KA).

banaka SOIL batzuk etorri ziren: **banaka batzuk** etorri ziren (G, O, IP, ID), **batzuk bakarrik** (O, ID), **bakar batzuk** baziren (S, O, ID), **bat** edo **beste** etorri dira (ID), errege **xoila** dut (kartetan) (KA).

OHARRA: «*soil*»etik **sortzen den adberbioa ez da «soilik», «soilki»** baizik.

***orduan soilik** sinetsi zuen: bera **soilki** eta **bakarrik** ezta **bekhatu** (AX 183), hura zen **soilki** izan buruzagi (ITS), bi **aldiz soilki** jin zen (ITS), **gizon hori soilki** bizi da (AL, LAR), **etxalantako soilki** dütü **abantallak** (AL), orduan **soilki** urundu zen (ITS), **Donapaleura soilki** joan behar diat (LAN), **Donapaleura bera** (LAR).

***ez nau soilik** umilatu, **baizik** eta **zapaldu** ↗ **ezik**: **umillatu** ez ezik, **zigortu** ere ein nau (O), **umildu** ezik, **zigortu** ere egin zuen (ID), **ez zuten bakarrik** ebatsi, **bainan jo** ere zuten (KA).

***ez zen gorri gorria**, **gorria soilik**: ...**gorria**, **gorriska** baizik (O, ID), **gorristia** (IP), **gorrista** da (G), **gorraila** da (KA), **gorrixkaire** da hori (KA), **gorristara** da (S), **kolore gorrailak** ditu (KA).

SOINEKO besodun luzea: **soñeko beso** luzea (O, G, KA), **arropa maanka** luzea (LAR), **soñeko mauka** luzea (AM, S), **txorkatillatarañoko soñekoa** (O, G), orpoan **beitiño**ko **soñekoa** zeukan (G).

vivia en el sexto piso ■ **seigarren SOLAI-RUAN** bizi zen (= en el sexto pavimento de madera) ↗ **zorua**.

SOLAPATIK heldu zion: **bularretik** eldu zion (G), **paparretik** eldu zion (O, IP), **paparretik** goatu etsen (IN), **papotik** lotu zaio (ITS), **petxutik** itsatsi zi(tzaio)n (G), **samatik** oratu zion (EL), **lepotik** lotu zaio (ITS, KA), **lepotik artu** zun ta **segutu** (menderatu) zun (S).

SOLASA oso **poliki** egiten du ~ **solas** motela egiten du (S, AM), **motel motel** ari da izketan (G), **deskantsu ederrean** itz egiten du

(G), **mantso mantso** itz egiten du (G), **itz debekua** du orrek (= **tartamudo**) (S), **deskantsu ederrean** hitz egiten du orrek (S), **eleketa** ari delarik **motela** da **pixka bat** (KA).

SOLASA **hautsi** zioten ↗ (hitz egiten) **ebaki**. bera **bakarrik** ari da **SOLASEAN** ↗ **bakarrik** (hizketan).

jolasean SOLADADUETARA ibiltzen ginen ↗ **jokatu** ↗ **jokoa**: **soldadukoan** jostetan aitzen ginen (AM), **soldau** **jolasian** dabiltz (O), **indioka** **ibilli** gera (O), **amaketan**, **txinoketan**, **soldauketan** **ibilli** gera (O), **jostaka** ari dira **soldauak** **balira bezela** (G), **soldadoka** josteta ari dira (KA), **soldau** **jokuek** ~ **jolasak** iten dabiz (IP).

SOLER. Zenbait **esamolde** ↗ **izan** ↗ **-katu**: 1. **ibilli** izan naiz (O). 2. **ibilli o(h)i** naiz (O). 3. **askok** egiten daroaz (Peru Ab.). 4. **mendi orretan** sarritan **ibilia** naiz (O, G), (usu) (KA). 5. **ibilkatu** naiz ongi (S, G), **ibilkatu** naiz urte aunitz ~ urte **azkarkiz** **sosikan** gabe (S). 6. **askotan** eginda **doaz** **holako** gauza (GR). 7. **iten** izin dot (IN).

SOLER: *esamolde ezagunetz gainera, baserri-tarrek beste politok ere erabiltzen dituzte.*

A. a. Iragana: «*Gure aita zena jaikiko zen goiz goizean; gosalduko zen eta bereala lanean asiko zen...*» (G, O, AM). **b. Orainaldia**: «*Joxe Iñazio zazpiretan jaikiko da; beitegira joango da txalax gobernatzera...*» (G, O, AM). **B. udazkenean** ere **badaki** eguraldi onak egiten (O, G, KA, S, IN).

aspertuta nauka **SOPORTAEZIN** horrek ↗ **pesaua**.

lagunaren **SORBALDA** jo zuen ↗ **lepoan** (kolpe).

SORBALDAZ eserita zegoen ↗ **aldapa**: **atzea** **emanda** egondu da (G, O), **ipurdiz** onara **eseria** (G), **gibeletok** aintzina **jarrie** (AM), **aintzinekoz** **bigela** jarria dago (S), **gibeletok** aintzin jarria da (KA).

lehengo **SORPRESA** igaro ondoren: **hasiera**ko **larrialdia** joan ondoren (G, O), **harriz** tualdi aren ondoren (O), **ixialdura** pasatuz geroz... (KA).

hau **SORPRESA!** ↗ **bat** (batean).

berri hark **nahigabea SORTARAZI** zion ↗ **nahigabe**.

haren ateraldiak **irria SORTARAZI** zion ↗ **barre**.

estalló una bomba, produciendo muchas muertes ■ lehergaiak estanda egin zuen, **hil** asko **SORTARAZI**: ...eta hil asko izan dira (O, G), ...eta asko dira illak (O, G), bonba lehertu... (KA).

herio berri bat **SORTU** du **SIDAK**: beste bat hil da **SIDAZ** (GR), ...sidakin (G, KA), **AIDS** (= **SIDA**) gaitzak beste bat hil du (GR), minbizirekin il da (S), orregaz ga-xoagaz beste bat be il da (IN).

***esaldi** horrek **aurpegian atsegina sortu** dio ↗ **notatzen**: horren esanak poz eman dio; arpegian seinale du (G, O), aurpegian nabari zun pozik zagola (G), ikusten zitzaion aurpegian ere pozik zegoela (O), aurpegi-xan ezaun dau pozik dauena (IP), begitar-tetik ageri du ona dela (KA).

***zaratak buruko mina sortu** zidan: herrotsak burukomin emaiten deit (AL), (azan-tzak) (KA), herrotsak būria hausten deit (AL), burukomin egingo (AM, O, IN, G, S), buruko min ematen dit (G, U).

***sekulako ikara sortu** zidan ↗ **sustua**.

***istilluak sortu** ziren ↗ **arazo**: istillu aundiak jarri zituzten (O, G), istillu aundiak hasi ziren (O, G), istillu aundiak izan ziren (O, G).

***hitz** horiek **izerdia sortu** zioten gorputzean zehar: ori entzun eta izerditan jarri naiz (O), aitu bakarrekin izerdia ateratzen zait, ematen dit (S), aitze utsak (S), ori entzun ta izerdi otza atera zitzaidan (G), ...izerditan jarri nintzen (KA), entzunakin bakarrik (O).

***kalte** handia **sortu** dit: kalte aundia egin zion (G, O, IP, KA), makur handia (KA).

***lepoan mina sortzen** dit korbatak: min ematen dit (AM, IP), min artzen du (AM), korbatak min ematen dit lepoan (G, KA).

***sua** ganbaran **SORTU** zen: sua ganbaratik hasi zan (O, S), sua ganberan lotu da (KA), sua ganbaratik zan (O), sua ganbaran hasi zen (G, O).

***susmorik sortu** gabe ibili ↗ **sospetxak** (sortu).

***zarata** haundia **sortzen** zuen ↗ (sartzen) **zarata**.

gaixorik ote dagoen **SOSPETXA** daukat ↗ **susmoa**.

SOSPETXAK soilki dira ↗ **soil**: au nere sus-mua bakarrik da (O), aiherkünthe hütsak dira, ez besterik (AL), ustekeriak dira (AL), sospetxa ala dut (G), dena errenkura eta tarrapata, desus bertzerik ez (ITS), sus-moak besterik ez dira (O), nere ustea da (G), susmo utsa zen besterik ez (O), uste utsa besterik ez (O), au nere susmua bes-terik ez da (O), ene ustekeria da (KA).

horrek **SOSPETXAK sortzen** dizkit ↗ **sus-moa**: **1. aiher** nüzü hogendant dela (AL). **2.** ez tuzet **antz onik** artzen (IP), antz txarra artu nion (O). **3. errezelo** txarra eginta gelditu nauk gaur (G), gure errezeloa eginda igual zaude zu (O), errezelo txarra eman nion (G, O), gazte orrekin ere errezelo txarri-ri dare (O), gure errezelo igual daukazu (G), iñork ez du orren errezelorian (G). **4. idea** txarrik gabe ibilli gera (G). **5. igerro** txarra eman nion orreri (G). **6.** ez diot orri **itxura** onik ematen (O), itxura txarra artu zion (O), ezta itxura onekoa (O). **7. nik** orren **juzkua** egin nun (O), guretzat juzkua egin du (S), orren juzkua di(a)t (S). **8.** sospetxa txarra egin nion (G). **9. ezer txarrik** izango zan pentsamenturik gabe (O), deus txarrik pentsatu gabe joan zen (KA). **10. seinale** txarra ematen du orrek (S). **11. sumu** txarra artzen diot (G). **12.** gu garen **susmoa** al daukazu? (O), susmo txar-rrak egiten ditu (O), eztago orren susmo txarrik (O), traza txarra eman nion (S), sus-mo txar ematen dit (O), susmo txarra ar-tzen diot (O). **13.** zerbaiten **susmurrua** hartu zion (O). **14.** ez diot horri **usain** onik har-tzen (O, G), usain txarra artzen di(o)t (G). **15.** tankera txarra eman nion (O). **16.** olako **uste** barik joan nintzen (IP). **17.** Kontzien-zia gaixtoa... da **goganbehartsu, idurikor,** gibel beldurti (AX 292), idurikortsu eta fi-dantzi gabe bizitzea (AX 168), presuna za-harra... idurikortzen... da (AX 123), iduri-kortua ibiltzen da (AX 237).

SOSPETXARIK sortu gabe ibili: iñork erre-zelatu gabe ibilli (O), iñor errezelatu erazi gabe ibilli (O), nehor mesfiarazi gabe (KA). **SOZIAL** arazoetan sarturik dago: arazo so-

zioletan sartuta dago (O), gizarteko gora-beretan sartuta dago (O), harremanetan (KA).

SOZIALIST egunkaria egin zuten: egunkari sozialista egin zuten (G, IB, IN).

nire **SOZIOA** da ↗ **parte** (hartu).

tresna bahituen **SUBASTARIK** ere egingo da: basoa kandelatu egin dute (G, AM), etxea antxeretan saldu dü (AL, LAR), ez-kurra kandelan atera dute (S), kandelatu egin bear dute mendi ori (S), errematera atera dute (O, IP), kandelatan saldu dute (S), kandelatan atera dute basoa (S), kandel-tan hartu (S), jo azue inkanta (ITS), inkant-tean saldu dute (KA), zatixak errematan (IP).

SUBNORMALA da ↗ **normal** (ez da).

SUDURRA behar ez duzun gauzetan sartzen duzu: muturra sartu bear ez den lekun sar-tzen duzu (G, AM), (= tokian) (O, ID), muturra sartu bear ez den toki guzietan (S, KA), zuk muturra sartuko eztozun lekuik eztao (IP).

SUDURRETARAINO nago: leporaño naz-katu nau oraintxe (G, O), kisulabea bein gañez asizkero... (S), greütürük niz (AL), le-potik goiti asea naukazu (AM, S), lepotik gora eginda nauka (O), burutik gora (IN), leporaino asea niz zutaz (KA), bururaño gogait eginda nao (IP), zorretan sartua niz lepotik goiti (KA), zoaz hemendik; okazta-zen nuzu (KA), okaztagarria zira; etzaitut ikusi nahi gehiago (KA), iguinduta nago (EL), nazkatuta nago leporaino (G, O), egin dit oraintxe bi begietaraino (O) ↗ **pe-saua**.

horrek **SUDURETIK hitzegiten** du: ori jin-juna da (AR), jinkijanka mintzo da (AR, O), orren sudursoña! (S), jiu ederra dauka (G), orrek dauka musu izketia (O), sudur mintzoa du orrek (AM, KA), surrekin ber-ba iten dau (IP), haren sudur mintzoa! (LAN), musu hizketa du orrek (O).

SUERTATU: *maiz gaizki erabilia. Erdaraz baino askoz bakanago erabiltzen da euska-raz.*

***resultó muerto** ■ **hila suertatu** da ↗ **gerta-tu**: il egin da (IB, ID, O, IP, MO, G, IN), hil da (KA, LAR).

zauritua suertatu da: min hartu du (O, G, IB, KA), erituak ba emen dira (O).

Miren ha resultado vencedora* ■ **Miren suertatu da **irabazle**: Miren izan da irabaz-lea (S, G, IN, IP, KA, LAN, S).

ez zuen beti **SUERTE** onik izaten: etzen ez beti haren aldi (ITS).

asko SUFRITU du horrek ↗ **asko**: **1. ederrak ikusi** ditu gaixo orrek (O). **2. gorriak** ikusi ditu (O), gorriak baino gorriak ikusia da hori (G), istillu gorriak ikusi ditu (O). **3. Je-susenak** ikusi zituen (O). **4. sekulakoak** era-kutsi zizkion (O). **5. senperak** erakutsi ziz-kion (O). **6. istillu beltzak** ikusi zituen (G, S), beltzak ikusi (IN), orrek pasa ditu bel-tzak (O, ID). **7. bai, baittik** bai horrek aste bat biño gehiago pasatu bi ortzirelekin (S).

gizon oso **SUFRITUA** da: gizon oso sakaua (O), isilik gauza asko pasatzen ditu orrek (O, ID, S), eraman aundiko gizona da (O, ID, G), bere buruarentzat gogorra da (KA), soraioa da jende hori (KA, S), ira-gaiten duten pena (AX 387).

bestekiko bere **SUPERIORITATEAN sine-tsirik** zegoen: bertzeak baino geiago ~ obea dela uste du (AM, O, ID), danak an-kaperatu nai ditu orrek (O), eritxia da (IN), burueritzia da (G), orrek badik bere buruz-ko edarra (S), bere buruaz hartua da (KA), bere burua famatzen dik (S), ori iritzi aundikoa da (O), buru harroa da (KA, S).

SUPERIORITATEZKO aire batez begiratu zidan ↗ **goitik** (begiratzen).

SUPERLATIBOIA (*izenlagunaren aurreko sustantiboari -ik eranstea euskal senari da-gokio*).

*horrek egin du **lan** ederrena: orrek egin du lanik ederrena (G, AL, KA), lanik gogorre-na (S, O), hori da esküaldirik ederrena (AL), Miren Aingeru da herriko neskatxa-rik maitagarriena (G), ori da gauzarik ede-rrena (G), irakurlerik geientsuak (O).

el mejor hombre*: **A. gizonik onena (IB, EL, IP, ID, S). **B. 1.** gizonetan hoberena da hori (KA, S), gizonetan onena (IB, EL, O, IP, IN, ID). **2.** gizonetarik hoberena (LAN, ITS), gizonetatik onena (IP). **3.** hori da gi-zonen **artean** onena (IP), gizonen artetik onena aukeratu zuen (IP, O).

*herriko neskarik **eder** eta argiena: herriko neskarik ederrena eta argiena (O, IN, G, AM, IP, KA).

SUPOSA dezagun: eman dezagun hori egia dela (KA), ein dezagun kontu (O, IP, IN, ID).

*ez, ez; **suposatzen** ari naiz / **opinio** / **susmoa**.

*horrek arriskua **suposatzen** du / **uste** (izan): ortara arriskuan jarri gaitezke (AM, S), lanjerrian jarten gira (AL), arrisku ederra(re)n gañean jarri ginteke (G), arrisku ederrean asiko ginateke (O), lanjer handitan sartu zira (KA).

*teknika horrek ez zuen etenik **suposatu** olerkigintzan: era berri orrek etzuen ezeren aldaketarik ekarri (O), horrekin ez dira gauzak kanbiatu (KA).

*etorri dela **suposatzen** dut / **-lakoan**.

*ez da etorri. **Suposatzen** nuen: beldur nintzen (KA), susmo hori neukan (EL), ez nuen beste beldurrik (KA), pentsetan noan baie! (IN).

*lapur talde horrek hondamendia **suposatzten** du: ondamendia ekarriko du orrek (O), ondoren txarra ekarriko dau orrek (IP, ID), oste txarra (IN), ondore txarra (G), ondorio txarra ekarriko du (KA), orrek ekarriko du ondorea (S).

***suposatu** nuen nik hori / **esaten** (nuen nik) / **sospetxa**.

supongo que vendrá* ■ etorriko dela **suposatzen dut: etorriko dela uste dut (O, G, EL, S, AM, KA), etorriko delakoan nago (O, G, EL).

norbait **dabilenaren** SUSMOA hartu dut / **-enaren**: bateonbat dabilrelakoan nao (O,

IP), etorriko direlakoan nago (AM, S, G), ilgo zituztelakoan zegoen (O, IN).

hara joan ez ote den **SUSMOA** daukat ~ / **zalantzazko** (perpausak): ara gan ez ote den sospetxa dut (AM), ara joan ete dan nago (IN, O, G), beldur niz harat joan ote denez (KA), ara ez ote den joan susmoa daukat (O), bera bakarrik joan ote zen gero? (O, AM), gaixo ez ote dagoen nago ba(da) (O), eri ote den beldur naiz (S), gaixo ote dagoen errezelua daukat (O).

Ablitasen ibili zirelakoan **SUSMOA** daukat / **-lakoaren**: ibilli zirelakoan nago (O, G), arek adarra jotzen ziolakoan nago (O, G).

SUSMOAK sortu gabe / **sospetxa**.

partidoa **SUSPENDITU** egin da: partidoa bertanbera gelditu da (O), egualdiatik partidoa utzi egin behar izan dute (O), egualdiatik ezin izan dute bukatu partidoa (O), ...ez dute partidoa bukatzerik izan (O).

eskolak **SUSPENDITUKO** dira, eguraldia ondu arte: ez da eskolarik izango (O, G, AM, EL, IB), heldu den ostegunean ezta eskolarik (LAN, KA).

hark eman zidan **SUSTUA**: 1. ark eman zidan **biotzondokoa** (O, ID), biotz zanpada egin zidan (ID). 2. ura **dardaria** eman zidan (S). 3. ark eman zidan **ikaria** (G, O), ura ikaria eman zidan! (G, O, ID), animaleko ikealdure (e)man zatan, artu nuen (AM), otzikaria pasauta gelditu naiz (O). 4. ura **izia** eman zigun aretxek! (S), ze izialdura gan nuen (AM), hura izialdura eman zautan (ITS, KA). 5. demonio itsusia! Ura **lazka** eman zidan (S), lazura handia eman zeitan (LAR). 6. arek eman zidan **zukurutzta**! (O), arek sartu zidan zukurutza (O).

T

-TA ~ **-a** / **-rik**.

***aspertuta nauzu** / **sudurretaraino** / **gerundio**: aspertu nauzu (G, O), aspertue naukazu (AM), benetan aspertuta naukazu (O), gogait eginda naukezu (IP), zugez gogaituta nago (IN), zuk enoarazi nuzu (KA).

*lanak bukatutak daude / **gerundio**: lanak bukatuta daude (O), lanak bukatu(a)k daude (G), bideak akituek dire (AM, S), lanak eginik dira (AL), lanak eginak dira (KA).

-TAKA / **hogetaka**.

-TAKO: 1. zuk ekarritako ogia jan dut (O, G), zuk egindako ogia jan dut (O, G). 2. zuk ekarri(n)eko ogia jan dot (Arteaga), zuk ekarri(n)eko ogia jan dot (IN), zuk (eg)lineko ogia jan dot (IN), (Arteaga). 3. zuk **ekarri** ogia jan dut (ITS, KA, LAN).

bere **TAKO** bakarra Sandios zen: bere esan guztia Sandios zuen (O), maldizio (G), orrek ele txarrak erraiteko usaia du (KA), orrek bere errangunea sandios du (S).

-TAKOAN / **-terako**, **-terakoan**, **-tzerakoan**: **a**. ori bukatutakoan goxokia emango dizut (O), ori egindakoan etorri (O). **b**. hori egite-rakoan min artu nuen (O) ~ ori egitean (AM, S), ori ikustean konturatu nintzen (S).

axuriak saltzeko **TAMAINU** onean daude: saltzeko heñ hunian jarri dira (AL), saltzeko heinean dira (KA), bildotsak oraintxe daude oben obenin saltzeko (S), orain daude onean saltzeko (G, O).

BEREIZ: **-tan** / **-ko**: 1. bost duroko pastelak erosi ditu (bakoitzak bost duro balio) (IN), bosna duroko pastelak (O). 2. bost durotan

pastelak erosi ditu (IN), bost duroon pastelak (O).

-TAR, **-AR** (izenaren aintzinean ipintzen da, eskuarki):

***I**. aihertar emakume bat (KA), altzaiar neskatxuna (AL), amaiurtar emaztekoa (AM), aramaixotar bost gizon (IP), austriar gizonak (O), azpeitiar emakumea polita da (O), azpeitiar gazte bat (O, IP), bost azpeitar gizon (O), donibandar emaztea (ITS), donostiar apezka (ITS), frantziar polizi batek (GR), Axun eta Gema goizuetar neskatxa politak dira (G), goizuetar mutiko jatorra (G), goizuetar gizon bat (G), irlandar abertzaleak (S), landibartar bikarioa (LAN), larraintar emaztekoa (LAR), menditar gizuna (AL), nafar bestak ederrak izan dira (G, S, AM, U), nafar atzerritatuak (G), napar baso mutillak (O), bost sobietar funtzionari (O), sobietar bost funtzionari (IP, IN), xiberotar katolikoak (AL), zeaniztar bost beargin (IN), zeaniztar gizon batek (IN).

***II**. **español langilea** (LAN, KA) / **euskaldun**: español euskalduna (AL, LAN), frantses euskalduna (LAN, AL, G, O, IP), frantses gerlariak buruzagia hil zuten (ITS), frantses neskatxo bat (ITS, S), gizon frantses euskaldun bat etorri zan (O).

-TARA ~ 1. Bigarren Gorozpe heldu zen, 30 segundotara. 2. ogei segundon **aldia** kendu dio (O), iru segundoko aldiagaz (IN). 3. 30 segunduz **atzerago** Gorozpe (G), 3 segunda gibelatik (AL), iru segundoz gibelatik (S), ...atzeragotik (O). 4. iru segundo **barru** sartu zen (IN). 5. 30 segundo **beranduago** (IB, EG), ...berantago (KA). 6. 30 segundo ge-

roago (IN, IB). 7. iru segundo benpen **bigelagotikan** eldu da (S). 8. aurrena Orio eta **hurrena** San Juan 3 segundon aldiakin (O). 9. aurrena Orio; **andik 3 segundora** San Juan (O) / **barru**.

vino a los cuatro días* ■ lau egunetara etorri zen / **barru.

ASKO TARDATU DUZU: 1. asko **luzatu** duzu (G, ID), aunitz luzatu zu (e)tortzea (AM), luzatzen du etortzea (G, AM, O, S), asko luzatu zebe izketan (O), ez da agertu. Bainan ez du luzatuko (ITS). 2. **berantetsiak** giñauden (AM, S, G, AR, KA), berantetsie nago (AM), berantetsia ninduzun (LAN), barantetsiek egon gara (AM), berantetsiak gindun (LAN), arront berantsik gaunden (S, G), berantetsirik dago (ITS), berantetsia dugu aspaldian etxerat itzultzea (ITS), berantetsia zindutan! (ITS). 3. **beransten** du etortzea (S), amak semia berantetsi zian (AL), nik bereala beransten dut (G), ama berantesten hasi zen (LAN, KA), berantesten nian (AL), etxekuen ikhustia berantzen zaizū (AL), hunen ethortea desir handirekin berantesten zuten (LEIZ., ITS), miresten zuen nola hark hanbat berantzen zuen (LEIZ. Luk 1,21), ez dezazula berant (AX 400), Berantzen du ene nabusiak ethortera (LEIZ. Luk 12,45), gauzak hobe dira naski, berant eginik, egin gabe uztea baino (LAN), erratera joan zen, ez beranteko (S), lasai egon, ez berantsi (G). 4. **luzaro eritzi** eutsat (IN), luze eretzita egon gara (IN), luze eritzi ez egon (O), luze iritzi gaunden (ID, O), luze iritzi gaude (ID), luze iritzi gaunden (O), luze heldu da! (ITS), luze iritzi zegoan (O). 5. **berandu** etorri zara (G), berandutu egin zizian (G), berant jin zira (KA), zoin berant heldu den (ITS).

asko **TARDATU** nuen lo egiten: lo nekez artu nuen (O), nekez lokartu nitzen (AM, KA), nekatan lokartu nitzen (S), ez niñun loak bela artu (G).

gehien **TARDATUZ** ere, hiru orduren buruan hemen izango dugu / **gehienez:** beranduena jota ere, iruretarako emen izango da (O), luzeena jota ere, iru ordu bearko ditu lan ori eiten (O), luzeenez ere, iruetako

(e)torriko da (AM, S, G), luzeen dala (IN), beranduen be, iruretan etorriko da (IP), berantenez zortzi orenak ukanen ditu (KA).

TARTAMUTUA da: mintzo debeku du (AM), itz gaizto da (AR), itz motela da (O), ezin esana deuka orrek (G), esan ezina deuka orrek (O), motel da (AL), itz debekua du (S), duda badu (KA), esan eziña dauko orrek (IP), debetura du (KA).

teoria eta praktika, **TARTE** handi bat aldenburik dagoz / **alde** / **goiz:** alde aundia dago teoriaren eta praktikaren artean (O, ID), bat bertzinginik urruti bizi dira (S), bata besteagandik urruti daude (O, G), etxe ori bertzetikan urruti dago (S), batetik besterat diferentzia handia da (KA), batetik bestera alde handia da (IN) / **diferente**.

está de por medio la salud ■ osasuna **TARTEAN** duzu: osasuna(re)n gorabera danean, kontuz ibilli (O, IP, IN), kasu egin ezazu, zure osagarria lehen da (KA, LAR). ordu gutxiren **TARTEZ**, Peru ere hil zen / **barru**.

-**TATIK** / **por**.

-**TAZ**, -**TZAZ:** «sobre, acerca de» *maiz -taz atzizkiak itzultzen da. -z da itzulpen zuzena. Izenorde-erakusleetan ikusten dugu -taz bukaera: nitaz, horretaz... / -taz (hitz egin).*

**mendieTaz eta horrelakoeTaz hitz egin du:* A. 1. amaz mintzo da (AL, KA), gizon batzuek mintzatu zen (ITS, KA), Eztuzuela deusez antsiarik (LEIZ. Philp. 4,6), ematetz mintzo dela (AX 268), etsaiez ezpaitzuen deus erraiten (AX 213), edazle ere, eta kurioso, behar eztiraden gauzez dadatatarik (LEIZ. Tim I, 5,13) gure hurrez ari izan gira eleketa (KA), guztiez oroitzen da (AX 351, KA), badut aski horien kalapita guziez (ITS), zaharrez untsa mintzo dira (LAN, KA), deusez ere ahal balu damurik (AX), Mintza gaitzein... obra iustiziazkoen (AX 161), kabalez ari dira solasean (LAN, KA), lagunez galdetu dute (G), gauza anitzez mintzo ziren (KA), liburu(a)z itzegin dugu (G), literaturaz itzegin degu (O, G), literaturaz mintzatu (AL, AM, ITS, LAN, KA), mendiez mintzo da (AL, KA), ardura pilotaz solastatzen dira (LAN), pi-

lotaz eta orrelako gauzez (G). A. 2. **zertaz** solas itezue? (AM, S), zertaz mintzo zizte? (LAN, KA, LAR). A. 3. **horretaz** hitz egin dugu (G, O), ortaz itzegin dugu (G, O), ortaz mintzatu (AM, S, KA), ortaz solastu gara (S), hortzaz elestatuko gütüzü (AL), ortaz solasin ari giñen (S). B. gauza askotaz (G), gauza askotaz (O), denetaz itz egin du (G, ID), gauza gustietaz (O), denetaz mintzo da hori (KA). D. Aitori buruz mintzatu dira / **buruz**. E. etxiagatik berba in dogu (IP), orregatik mintzatu gara (S), Aitorreatik aritu zerate zerbait esaten? (ID). F. haren kontuan ari dira (hartaz mintzo) (O). G. 1.1. ikastolen gainean kalapitan ari dira (KA), Aitorren gainean (IN, O, EL), gauza orren gañean (AM), lehenkusiaren gainean mintzatu gira (LAN). G. 1.2. liburu orren gañetikan solastuko gara (S). G. 2. zer erran dü hortan gañen? (AL), berri zunbait herri huntan gañen (AL), zunbait xehertasün gure artaldetan gañen eman dütü (AL), libürü apür dira gaiza horietan gañen (LAR), etzakian deüs xüxenik hortan gañen (LAR).

***amataz** arduratzen da / (ardura)-**pean**.

***andreetaz libratu** zen: andreengandik alde egin zuen (O), andrea(re)gandik libratu naiz (O), orregandik libratu naiz (O), nork libratuko nau gorputz mortal hunetarik? (AX 308), emaztetik berexi da (KA), bere andretik berexi da gizon ori (S), azkenean bidali dut aizea artzera (G).

*zeruko **gauzetaz** ez digu ezer esan / **-taz** (hitz egin).

*haren **erlijiotaz** eztabaidatu ziren: haren erlijoaz eztabaidan hasi ziren (O, ID, G), eduki behar baitu kontu... zentsuez, bistaz eta gustuaz, begiez eta ahoaz... zentsu guztiez ere... entzuteaz, beharriez (AX 268), erlijonearen gainean kalapitan hasi ziren (KA).

*galdera egin diogu **loretaz** / **-taz** (hitz egin).

***Malentxotaz** ez dakigu ezer: Malentxoz ez dakigu ezer (GR), ez dugu Malentxoren berririk (G, IP, ID, O, S), erri orren barri aundirik eztaukagu (IP, O), haren berririk ez dugu (KA).

***ni oraingoetaz** ari naiz: nik oraingo(e)z ari naiz (G), ez, ez, au oraingoa da (S), ni oraingoakin ari naiz, leengoakin ez (O), oraikoaz edo lehenokoaz (KA), lengo(e)taz ez, oraingo(e)z ari naiz (G).

*gure **indarretaz** baliatzen gara / **baliatu**.

*gauza **berataz** oharatu nintzen: gauza berberaz oharatu nintzen (O), ni ere gauza beraz konturatu naiz (G), gauza barerekin (O).

*gure **amataz** oroitu nintzen: gure amaz oroitu nintzen (G, O, KA), geure amaz akordetan naz (IP), geure amagaz akordau nintzan (IN), anaiez oroitzen zen (AM).

***zakurretaz** zaleturik dago: txakur hori ikaragarri gustatzen zaio (S), oso gustatuta dago txakur orrekin (O, G).

-**TE ALDERA:** 1. jan jate aldera (O), esan esate aldera (O), esan esateagaitik (IN), egurra eman digute kentze aldera (O), ...garbitu aldeko (S), bildotsa ematen diote lan egite aldera (G). 2. ixillik ez egonez erran du hori (S).

BEREIZ: a. -**TEAGATIK**, **tzeagatik** ~ **tearren**, -**tzearren** (= *asmotan: en orden a*). b. -**arren** ~ -**agatik** (= *nahiz...*) / **arren**.

a. otoitz egiten dut zerura joateagatik (O), joatearren (IB, IN, EL). b. otoitz eginagatik, haserretu egiten gara (O), egin arren (IB, IN, EL).

***OHAR:** -**teagatik** ~ -**tzeagatik** ~ -**tearren** ~ -**tzearren** = *por, en orden a*. *Etorkizuneko asmoa adierazten du. ≠ por ~ porque. Ez du kausalitaretik adierazten. Herriak oso erabilia, halere.*

*espexera eraman zuten, **lapurtzearren:** ...lapurtu zuelako (ID, G, O), giltza erosi zuen, **lapurtzearren** (IB, EL), **lapurtzeagatik** (O).

*eskerrak, Miren, **etortzeagatik:** ...etorri zarelako (IB, IN, O, IP, G, S), jin ziralako (KA), ona etortzeagatik mila pezeta emango luke (O, ID), ona etortzearren (IB, EL), mil esker handi bat gure etxerat jin zirelakotz (KA), esker mila etorri zarelakotz (S).

*eskerrik asko **deitzeatik:** eskerrik asko deitu duzulako (O, S), Mirenek deitzeagatik mila pezeta emango nuke (O), mila pezeta emongo neunke hori etorte arren (IN),

etortzeagatik (IN), nik ez diat jan, iretzat utzitzeagatik (S).

*liburu hau laburra izateagatik irakurri dut: laburra delako (G, AM), Maiteren adiskide izateagatik ~ izatearren egiten dut nik hau (O, EL), lagunak han biltzeagatik egin zuten hori (G, S).

*eskerrik asko, Jauna, ene otoitza entzuteagatik: aditu, entzun duzulako (ITS, G, S, IB).

*le dije por decir ■ esanagatik esan nion: errateagatik erran nion (AM, ID), zerbait esateatik esan nuen (G), esatearren esan nion (EL), zeozer esateagatik esan neuntzen (IN), izketan ari da itz egiteagatik (G), jarduteagatik (O), itz egiten aldera itz egiten ai da (O), aidian mintzo da (AL), ez deusentako mintzo da (AL), alegia erran du (LAN, KA, LAR), zeozer esan biar ta esan (IP), esan esateatik (IP), esate aldera esan nion (O, EL), erran nun, ixilik ez egoenez (S).

-TEAN, -tzean / -terakoan.

*has hecho bien al venir antes aquí ■ ongi egin duzu lehengo hona **etortzean**: ondo ein dezu lenao ona etortzea (O), ondo egin dozu ona etortzeagaz (IN), ongi inzu onara etortzea (G), agitz ongi egin duzu harat joan antzinin unat etortzea (S), unet (e)tortzea ongi in duzu (AM), untsa egin duzu lehenik honat joanik (KA).

-TEAREKIN: presoak fusilatzearekin mehatxatu dute / mehatxuz.

-TEAREKIN / gerundio: Atharrazen igaraitiarekin (= igaraiterakoan) (AL).

-TEARREN, -tzearren / -teagatik.

-TEAZ: ten cuidado de decirle a la madre ■ kontuz ibili amari **esateaz**: ez esan amari gero! (IN, EL), ez gero amari esan! (G, O, S), amari esan gabe! (O), ez gero ori erran amari! (S).

-teko / -tekotan.

-tekotz / -tekotan.

-TEKOTAN: 1. ~ asmotan ~ -teko ~ -tekoztat. 2. ~ -tekotz (= baldintza).

*1. a. ez dute euskaldunek egun hori ahanztekotan (LAN), hori ez da lo egitekotan (ITS), lokartzekotan (KA), ez dago amor emaitzekotan (ITS), perira joan da,

behia erostekotan (AM, O), etxearen erostekotan da (ITS), alabarekin ezkontzekotan zen (ID), ara joatekotan dago (O, EL), ez nago ori uztekotan (AM, O, S), auziaren xuritzekotan semea bidali (ITS), gehiagorik sepulkrrera ez itzultzekotan (LEIZ. Ap Ak 13,34), ez nago ori uztekotan (AM, O, S). 1. b. hara joateko nago (G), ez nago ~ ez daukat utzitzeko (G). 1. d. ni areri pastela emotekotzat nago (= asmotan) (IN), beia erostekotzat dago ~ dabil (IN), ni Mondragora fuetekotzat nago (IP), ori itxitekotzat enao (IN). 2. a. zerbait egitekotan auxe ingo nuke (IP, ID), zuek egitekotan jinen dira (ITS), mintzaturen naiz, bainan zuek ixilik egitekotan (ITS), au (e)main datzut, zuk oi (e)matekotan (AM, S, O, LAN, AL, G), kotxea itxikozut, biar atzera emotekotan (IN, G, EL), zuk ori emotekotan, nik au emoten noa (IN), bietan bat izatekotan, obe pobre izatea (O), hun ez izatekotan, hobe pobre izatea (LAN), hauxe emango diat, hori erostekotan (IN, AM, O, S), Dolareraño gatekotan eztu deus balio (AM), bietarik bata haitatzekotan, hori har niroke (AL), nehoi ez salatzeotan erranen dautzut (ITS), sendatzekotan, hunek eginen dik (ITS), zuek jitekotan gu ere jinen gira (KA), ezer itekotan ori in bia da (IN). 2. b. ez kargurik har, karguen ez ongi bethetzekotz (ITS), hemen egoitekotz, ba-kea eman (ITS), joaitekotz, hobe aski goiz joaita (ITS), ziek ez hastekotz, gu hasiren gira (LAN), hor ikasiko du, nehon egitekotz (LAN), mintzatzekotz, mintza zaite amaz (ITS), ez dira footballian igantziarekin ari. Tzekoz ere neskanegunarekin (AL), deus onik egitekotz, hori egin behar duzu (KA).

dale con el tema ■ eman TEMARI / (tinko) jarraitzen.

BEREIZ: -TEN / -tea / ahaztu.

TENIS-ko Open-eko, Düsseldorf-tik emango du euskal Telebistak. Ez galdu! (= no lo extravies). Düsseldorfko Open tenisa emango du. Ez utz(i) ikusi gabe (O, ID).

TENIS: hurrengo esaldiei begia eduki / pilotan / jokoa.

*bi setetan berdindu eta berriketa egin be-

harko dute (= charla): beste partida bat jokatu beharko dute (KA, G), beste joko bat jokatu beharko dute (IN, O), beste partida bat egin beharko dute (KA), beste joko bat geixago jokatu bearko debe (EL), beste partidua bat jokatu biogu (IN).

*sakeak ez du balio / balio: saka ez da ona izan (EL, G, O), sake ona atera du (S), sake txarra izan da (IN, EL, G, O), saka ez du ona egin (G, O, S) □ sakezko hutsa egin du: sake txarra egin du (EL, O), gaizki botatu du (KA), bote txarra gorri du (KA), sake txarra atera du (IN), bote txarra egin du (KA), petto bat egin du (huts) pilotan (KA).

*los tenistas han comenzado el precalentamiento ■ tenislariak beroketak hasi dituzte: berotzen hasi dira (EL, IN, G), berotzen ari dira (KA, G), berotzeagatik ari dire (S).

*Wilanderrek pilota sarera bidali du: Wilanderren pilotak sarea jo du (EL, G, O, S, IN), sarean jo du (KA).

*pilotak ez du sarea gaintitu: pasatu (KA), pilotak eztu sarea igaro (pasatu) (O, EL), ...irago (G, S), sarean sartu du (KA).

*Wilander lanzo una bolea ■ Wilanderrek bolea bat jaurti du: airera sartu da (S), airera jo du (S) aidean jo du (KA), aide jo deu (EL), airera hartu du (S), goitik artu du (G), aidean jo dau (IN), airen jo du (G), boleo jo du (O), airetik hartu du (KA), airen artu du (G).

*Wilanderrek zailtasunak izan ditu irabazteko: larri ibili da irabazteko (IN), gaizki ibili da irabazteko (EG), nekez irabazi dio (KA), partidoa estukoa izan da (EL), irabazten naiko lanak izan ditu (O), doi doia irabazi dio (KA), agitz neketan irauz dio (S), irabazi dio baina naiko lan bazun (S).

*errebezko hutsa egin du: errebes gaizki jo du (O), errebeska ederra eman du (S), errebesen uts egin du (S), errebesen gaizki jo du (S), errebes huts egin deu (EL), errebeska jokatu dute (S), errebeska jo du (G), errebes jo du (O), esku errebes ez jo du (KA), errebes eraman nahi ta utsa egin du (O).

*El partido ha finalizado con el resultado de 6-4 ■ partidoa sei-lauko emaitzaz bukatu

da: partidooan sei eta lau gelditu dira (EL, G, O, S, KA, IB), partidoa sei eta lau amaitxu debe (EL), sei ta laueta gelditu dira (KA), bukatu gabe (G), akitu dute (S), sei ta lauan akabau da (IN), gerau dira (EG).

*Wilander-ek errez garaitu du Gomez ~ aisa irabazi dio (S, IN, EL, O, ID).

*beste sake huts bat: berriz ere sake txarra (EL, O, S), beste sake txar bat egin du (EL, G, O, S).

*los fallos de saque han sido muchos ■ sakezko hutsak asko izan dira: sake txar asko egin ditu (O, IN, G, S), sake txarrak asko izan dira (EL, O), saketan uts asko egin ditu (S).

*tanto berri bat egin du / berri: tanto bat gehiago (EL, O, KA, S, IN) beste tanto bat egin du (IN, EL, O, KA, S), ...atera du (S).

*30.40 Wilanderrentzat: 30.40 Wilander irabazten (EL, G, O, S), Wilanderrek irabazten du (KA), irabazten ari da (S), aintzinean doaie (S), irabazten doa (IN).

*bigarren jokoa ere ia aseguratua dauka / puntuan: ia irabazia dauka (G, O, KA, S, IN), seguratu (S), janda dauka partidoa (EL), ia ziur irabaziko du (O, G).

*deuce berri bat: berriz ere deuce (O, EL), beste deuce bat (EL, G, O, S, IN), deuce bat gehiago (EL, OS, S, IN).

*Wilander por su parte, está tranquilo ■ Wilander bere partez lasai dago: Wilander, berriz, lasai dago (G, O), Wilander ostera... (EL, IN), Wilander, aldiz... (KA, S).

*se nota el cansancio por parte de Wilander ■ nekea sumatzen da Wilanderren partez / notatzen: Wilander nekatuta dagoela ikusten da (O, EL, IN) nabari du nekatua dela (G, S), ezagun du nekautu dagoela (O), ageri du nekatia dela (KA), akitia iduri du (KA).

*pilotak bote txarra eman du: egin du (O), peloteak bote txarra artu dau (IN), punta txarra egin du (KA), jauzi txarra egin du (LAR), pote txarra egin dio (G), okerra egin dio (G).

*partidoak hiru ordu iraun ditu: iraun du (KA, O), partidoak bi ordu irago ditu (G).

*pelota atzera bidali du ■ atzera jo du (G, S, KA, EL).

*tantoa sakez **lor**tu du: egin du (G, S, AM, EG).

***ADVANTAGE**: aurretik da (G), abantaila (KA), aintzindu da (S).

***smax** ederra jo du: ongi zanpatu du (S), ongi xehatu du (KA).

TENORE (*aldi jakina adierazten du usu*): tziailu hortik ohilat; segurki tenoria düzü (AL), arropa iteko tenorea da (AM), oraintxe abiatzeko tenora da (AL, ITS, AM, S, G), ze tenoretan biltzen dira bazkaltzera? (G), tenore ederreko joan da (LAN), meza-ko tenoria da (AL, G), Zu, hemen, thenore huntan? (AL), ze tenore da (= ze ordu da?) (AL) ~ zenbat orenak dira? (AL), tenore onetan lan asko egoten da (G), tenorez etorri da (S), tenore ontan bazkaltzen dute (G), tenore oneko etorri da (S), tenora joan zaku ohartu gabe (ITS), ixtoria horien tenoria negian zen (LAN), bazkaltzeko tenorea da (KA), laneko thenoria heltü da (AL), beti jateko tenoretan jiten da (ITS), phausatzeko thenoria heltü da (AL), ez da jostetan ar(i)tzeko tenorea (ITS), ez da tenoreko jin (KA), tenoreko denak hemen izanen dira (ITS), tenoreko hor zen (KA), eginen dut bere tenorez (ITS), destenorean ohatzetik atera (S), etxera joateko tenorea da (ITS, KA), apeza jiten duzu tenoria beno puska bat lehen (LAN), hartzeko tenorean dena zelai, pagatzeko tenorean dena malda (S), destenorean oatzetik atera zuten (S).

TENPERATURA. *Ia inoiz ez diezu zazpi probintziatoko baserritarrei hitz hau entzungo.*

***tenperatura** bajoak izango dira bihar: hotz handia izango da bihar (KA, S, AM), oso egualdi hotza izango da bihar (O), bihar hotzago izango da (S, AM), egualdi berdintsua izango da (O, G).

*bihar hogeigradutako **tenperatura** izango dugu: bihar hogeigradu izango ditugu huts gainetik (O, G), bi grado huts aspitik (O, G).

***tenperatura** bigun bat zegoen / **eguraldi**: gaur arront eguraldi goxoa do (G), oso eguraldi biguna zen (O), denbora goxoa zen (S), giro ederra zen (O, EL), aro ederra bada (KA).

***tenperatura** bajau egin da: egualdia oztu egin du (O), denbora hoztu da (KA), egualdia epeldu egin du (O), denbora hotzarat joan da (KA), otza asko autsi du (= epeldu) (O, G).

-TER, -TZER: 1. pasibo. 2. aktibo / (hiltzeko) **puntu**an: 1. **aberaster nintzen** (LAN), erortzerat ari zen etxea arraňatuko dugu (KA), erortzer zen etxea arraňatu dugu (ITS), ez niz hasiko oihuka, haster nintzen bezala (ITS), hiltzer da (ITS, KA), guziak ithotzer ziren (KA, ITS). 2. **ahazter dut** (ITS), ohoina arreatzer zuten (LAN, KA), eritasun handi bat eremaiter zuten (LAN), eroster zuten zaldia ikusi dut (LAN), ama galtzer zuten (LAN), etsaia hiltzer zuten Piarresek (ITS, KA).

-TERA, -TZERA: 1. eskura pagatzera, merkeago (G), ongi mintzatzera (AX 36), jakitera etorriko zan (G), jakitera ez nuen esango (G), ongi pentsatzera (AX 19), jakitera jinen zen (KA, S), jakitera ez nuen erranen (KA, S), jakitera etzuten nere agotik adituko (S). 2. zahartzera azaltzen dira maxurak eta ajeak (G, O).

-TERAKO / **orduko**: horrek etxe hori egiterako, gu zaharrak izango gara (O), besteak oartzera, aurreratutak zeuden (O, U), kalera joaterako, ots egiteko! (esan digu) (O), bost urte pasatzerako, aberastuko da (O, ID, G), besteak konturatu zieneako, gu aurreratuta gengozen (IP).

-TERAKOAN ~ **-TEKOAN** ~ **-TEAN** / **gerundio**: 1. Zeren etsaiarekin **batzerakoan** (AX 134), Bekhatu eginez gero baiña ez egiterakoan (AX 96), ethortzerakoan (LEIZ. Ap Ak 13, 24), iltzerakoan (AM, O), ardiak ilhantzerakoan fitetzago iaten du (AX 127), iaterakoan (LEIZ. Kor I, 11,21), mendira joaterakoan (EL, O), partitzerakoan (AX 98,0). 2. Etxarrira **fatekoan** (U), iltzekoan (G), iatekon min artzen dut (G). 3. **zahartzean** (AX 55,117), bekhatu egitean (AX 380,393, AL), gauza ederren eta plazentzen ikhustean (AX 377), partitziari (AL), iatien min artzen dut (S, KA).

-TERAT: jakiterat, ez zuten eginen (ITS, KA) / **-tera**.

baserri horrek **TERRENU** handiak dauzka:

lur sail aundiak (O, IP), eremu andiak (AM, AL), lur aunitz ba du (S), lurralde aundiak dauzka (O, ID, G, LAN, KA).

-TERAZ gero / **-tez gero**.

-TERIK: 1. = *ezin*: ez dago egiterikan (S, G, IB) / *ahal*. 2. = *beharrezkorik ez da*: ez dauko joaterik (ez du obligaziorik) (IN), ez duzu berdin treina hartzerik (obligaziorik) (KA).

hori **TERRIBLEA** da: hori dago marka! (G, O, KA), ori dago marka ori! (O, KA), bildurgarria da (EL, ID, EG), izigarria da! (AM, G, KA).

***terribleak** zarete! / **tipo**.

*paliza **terriblea** eman zioten: orri eman diote ematekoa! (O, IP, IN), ederra eman diote (ID), somanta ederra eman diote (S).

***terriblea** egin du: beltza egin du hori egitea (O, G), ori ikaragarria egin du (S), izigarria egin du hori (KA), izigarria egin du (LAR).

***terriblea** gertatu da: beltza gertatu da (O, G, ID), ori benetan beltza (O), itzela pasau da (IN, IP), baltza pasau da (IN, IP), izigarria bat agitü da (LAR), ikaragarria, izugarria, beldurgarria gertatu da (O, KA, EL).

-TETIK, -TZETIK.

*oraintxe bukatu dut horrekin **mintzatzetik**: 1. arextian mintzatu naiz horrekin (AM), mintzatu berria naiz horrekin (KA). 2. ama hil zenetik, haurra gaizki dago (G), sobera mintzatzetik ez dator gauza onik, sobera mintzatzek ez du deus onik (KA).

*hiltzetik egun gutxira: **a**. il **zenetik** egun gutxira (O, G), aita il da egun gutxira etorri zan (O), il eta egun batzuz burun (S, AM), laguna il eta ordu bete barru mendira joan zan (O), laguna il eta andik zortzi egunera (O), zombait denboraren buruan (KA). **b**. ama **hiltzetik** kalte handia etorri zaio semeari: ama iltetik... (IP), ama iltziakin (O), geiegi janetik kalte etorri liteke (O), lan geiegi eginetik (O), lar jatetik (IN), geiegi janda (G), gutxi jatetik etorri zaio gaitza (O).

-TEZ / **gerundio**: jatez jango nuke idia adarrekin (O), egitez egingo nuke baña... (O).

-TEZ GERO ~ **-TEZ GEROS** ~ **-TERAZ**

GERO (= baldintza) / **gero** / (ez) **gain**: 1. zerun **sartzezker**o, erru bat auts jan bear da (G), zerun sartzezker o imiña bat auts jan bear (O). 2. ari ordaindu bear geniola, etxerik **erostezker**oz (U), zamapean ez lertzezkeroz, zerbaiten bearra banin (U). 3. ondasunak ez **galtzera ezker**o, esna ibilli bear (O), irabaztera ezker o, maitasunakin (O).

BEREIZ: 1. **-tez gero** / 2. **-ez gero**: lapurra **izatezker**o, aundia izan (G, O) / lapurra **izanezker**o, arrapatuko lukete (G) ~ lapurra balitz, arrapatuko lukete (O).

-TIK: hau ere kontatu zuten gerratik / **taz**.

-TIK, -DIK / **por**.

-TIK: **mundutik** ibiltzeko ingelesera behar da / **nola** (hemendik): munduan ibilliko bada, ingelesez jakin bear (O, IP), ibiltzeko (IN), munduan korritzeko (G), munduan ibiltzeko, inglesa beharrezkoa da (KA).

zer **TIPO** da hau!: 1. **aundia** zera! (AM). 2. ori bai **axeria**! (O, KA), au da axeria, au! (O, S, G), ori da axeria daukaguna! (O), azeri zaharra! (ITS). 3. au ume **bihurria**! (G). 4. **biligarro** ederra hori (ITS), ze biligarro den ori! (AM), ori bai biligarroa! (AM). 5. **erreminta** ona da ori! (G), au nola atera da orrelako erreminta! (S). 6. **galanta** zera! (O). 7. **ganadu** ederra da ori! (ID), ori bai ganaua! (ID, O). 8. **ihizia**! (ITS). 9. ez zaude **makala**! (G, O). 10. **maltzur** galanta ori! (O, S). 11. ori da **pistia**! (G). 12. au ume **trastea** (G). 13. au ume **tresna**! (S, AM). 14. **zakur** ona ori! (G), zakurra da; orrek badu bere xakua (S), zakur tzar gaiztoa da ori (G), txakur zaharra da (O). 15. zieroko **zarboa** da (O). 16. ori **azienda**, ori! (ID). 17. **apajo** ederra dek ori (O). 18. **au** zer da, ostera (IP, EL), au zer da gero! (IN, O), Oraindik **olakorik**! (O, ID), au nola da olakoa! (G), au zer da berriz olakoa! (O, ID), au nola den olakoa! (AM), zer da au gero olakoa! (O, ID, EL), au zer da berriz! (G, O). 19. zu **zaoz egotekoa**! (IN), zuek zerate izatekoak! (O, IN), zu zaz egotekua, zu! (IP), itekoa in dau (IN), bada ori izatekoa, gero! (O). 20. ez **daukazu ona**! (O, G). 21. ez zara **txarra** be! (IN), etza makala! (G, O), etzara zu bigela gelditzen (S), etzera txarra! (O, KA, IN).

ez diat **TIPO** hori ezagutzen / (zer) **tipo**: ez dot morroi ori ezagutzen (Lekeitio), ez diat ori ezagutzen (O, ID).

emakume **TIPO** onekoa: emakume bikaña (O, ID, G), emakume liraña (O, ID, G, S), emakume lerdana (O, ID, KA).

TIPO hau ez da edonor: au ez da edozein (IN, G, AM, O), hori ez da nornahi (KA).

TIPO herrikoiak / **-koi**: jende xelebrea (O, ID, S, IN), herriko jende jatorra (O, ID), gizon bitxia (KA).

BEREIZ: a. tiroa **TIRA**(tu). b. tiro(a)z **animalia** bota.

*tiroa **bota** zion txoriari (gaizki). A. 1. tiroa **tira** (AL, O, ID), tiroaz bota euen saia (IP), tiroa tiratu (AM, S, G, LAN, ITS, KA, LAR), putrea tiroz bota zuten (G, ID), tiroa tiratu eta amar txori bota nituen (S, AM, G, S, O, IP, ID, LAR), azaldu orduko tiroa tiratzen zioten (G, O), tiroz basurdea bota zuten (O), kolpea tira zion (O, G), bulkaldia eman zion (S), ukaldia eman zion (AM), kañoiak ondo tiratzen zuten (O), orrek arria tiratu ta eskua gorde egin du (O). 2. **tiroka** ekin ziguten (O, ID, G). 3. **tiroka** ari dira (G, ID, O). 4. tiroa **eman** (O, G, IP, KA), zakurrari eman dio tiro (ITS, LAN), tiro bat eman (LAR). 5. tiroa **egin**: a. tiro ederra egin dik (xedeoa jo du) (O), tiroa egin du (disparar) (G, ITS, EL). b. tiro ederra egin du (zerbait lehertu eta ots handia ateratzen denean) (O, ID, G). 6. tiroa **erantsi** zion (O, ID). 7. atezainaren aztalera **tiratu** (ITS), lagunari ankatara (O). 8. **tiroz** hilarazi zuten (ITS, KA), plazaren erdian tiroz hil zuten (ITS). B. sokatik **tiraka** eramane du (O). D. beiari, aizeatzen denean, tripa **tiratzen** zaio (O), soka hori ondo tirauta dago (O), soka guztiz dao tiren (IN), korda tiran da (KA), soka oso tira dago (O).

buruan tiroa **TIRATU** zion: burura tiroa tiratu zion (AM, S, G), burura tiroa eman zion (AM, S, G).

ordu erdiz poliziari **harrira** **TIRATU** zioten: ...harrira eman zioten (O, G, ID).

belarritik **TIRATU** zuen: belarritik tira zion (O), titu zin (G), beharritik tiratü (AL, AM, S), besotik tira zion (O), besotik tiratu

zion (AM, S, AL, G), ileri tiraka ari ziren (LAN), beharritik tiraldiko bat egin dako (KA), beharria tiratü (LAR).

TIROA kultatik atera zaio: kukuak oker jo dio (EG, ID, G).

ur **TITARAKADA** batetan itotzen da: 1. urik gabe itotzen da (AM, S), etzaite urik gabe ito (AM), urik gabe itoko da ori (G), ez ito urik gabe! (G). 2. titarakada bat uretan itotzen da (O, ID), titara bat urin itotzen da (S). 3. baso bat udetan itoko litzake (O), baso bat uretan itoten da (IN), baso bat urean itoten da (IN), baso erdi bat urin itotzen da (S). 4. ori ur tanta batean itoko da (AM). 5. ez deusek lotsarazten düzü (= beldurtzen, atzeratzen) (AL).

TITI haur bat bezala **portatzen** ari zen: titiko ume baten moduan zebillan (O, IN), bularrereko aurra irudi duzu (AM), titia edaten aizeran umea ematen duzu (G).

lan txarra **TOKATU** zaio: lan txarra du (G, KA, S), lan latza dute agitz (S), lantegi txarra asi du orrek (O), lan txarra eman diote (G), lan txarra leporatu diote (G), egun lan handia egin behar dut (KA), lan txarra bizkarreratu diote (EG), haren errana egin behar dut (KA).

*orain neuri **tokatzen** zait: orain ene aldia da (KA), orain ene aldi (LAR), nere txanda da (EL, O).

*ze **tokatzen** den, hura hartu bear / **segun**: ze eldu den, ura artu bear (G), datorrena artu bear (O, IN), heldu dena hartu bear (KA, G), heldu den bezala hartu bear (KA, S).

*haren esanari jarraitzea **tokatzen** da: aren esana egin bearra dago (O, IP, ID), lan hura nik egin behar izan nuen (O, ID), haren errana egin behar dut (KA).

TOKI egin / **leku** (egin).

TOKI zenbaitera joango dira: nora nora joango dira (O), nora edo ara joango dira (G, O), norabait ere joan bearko dugu (S, KA, LAR), norabai fuengo dia (IP).

en buen sitio han quedado tus propósitos ■ **TOKI onean** gelditu dira zure asmoak ~ tokitan gelditu dituk hire asmoak (AM, S, O, ID), tokitara joan aiz (O, ID), tokitatik ator (O, ID), lekutara fuen da (IP, IN, G).

las pruebas serán en el sitio que se indica a continuación ■ azterketak **hurrengo TOKIAN** egingo dira: azterketak, ondoren esango degun tokian izango dira (O, ID), examinak orain erran lekian izanen dira (KA).

(*lehiaketan*) zein **TOKITAN** gelditu haiz? (= ¿en qué paraje?): zenbatgarrena gelditu iaiz? (S, AM, G, O), zonbatgarren gelditu zira? (KA).

TOMATE kilo bat erosi nuen / **kilo**.

Bereiz: a. **TOMATE zaku** bat erosi nuen (= zakua erosi nuen) (G, O, AM, KA). b. **zaku bat tomate** erosi nuen (tomateak zakuan zeudela erosi nituen) (G, O, AM, KA), astean zaku bat tomate jaten zuten (O, G, AM), zaku bat urre aurkitu... (O, ID, IP), perola bat alokigorri jan zuen (U), oizie xaküta bat ürhe (AL), zenbat zaku baberna jan genuen (G), zaku bat lur sagar bildu dugu (KA), zaku bat ilar jan dugu (KA), zenbat zaku (bete) babarrun jan genuen (O).

TOMATE. *Sintagma zuzena: tomate jan. Zenbat edo non zegoen tomatea aintzinean ezar.*

1. **tomate pote bat** (= hutsik) tabakorritz bete oan (IN, O), lau tomate kaja letxugekin bete zituen (O, G), lau tomate lata heroinaz bete zituen (GR). 2. buita bat **tomate jan dü** (AL), pote bat tomate jan zuten (S), lau lata tomate jan zituen (GR), «Len esan bezala egun guziko errazioa goizetikan ematen ziguten: lata mermelada, beste lata atun, beste lata sardiña, txusko bana eta ardoa». (Patxi Lazkano: *Tiro tartean bertsotan* 32), lau kaja tomate saldu zituen... (O, G, AM).

*botella bat **tomate jan** zuten (O, G), botella bat ur edan zuten (AM, G, S, O, IN).

bixigu bi TONELADA ekarri dute Baionara / **kilo**: bi tonelada bixigu ekarri dituzte Donibane-Loñizunera (O), orga zenbeit tona harriz kargaturik heldu da (ITS).

ze **TONILO** daukate hitzegiterakoan!: ze **ereta** dute mintzatzean (AM, S), ze **doñu** ateratzen du orrek (G), ze **doñuz** itzegiten duen orrek (O), Santa Grazin **ahaide** berezia die (AL), ...beste ahaide bat die (LAR), bere erriko **erratea** du orrek (S), Sunbilla

aldeko **izkuntza** da (G, O), zuk aranztarren ereta duzu (S), zertako erraten duzu holako eretan? (AM), Arraioz aldera bertze ereta bat du euskarak (AM), ze ereta luzean ari diren kantatzen (AM), holako ereta egiten du nigar egiterakoan (AM), Sunbillako **ezanta** du (AM), beti ereta berean ibiltzen da (S), beti ereta berean dago (S).

TONTOA da («tonto» esateko dozenaka hitz erabiltzen dituzte baserriarrek): A. arbiondo (O), txolonio (G), eltzaburu (G), astapiku (ID), artaburu (IN, EL), astakaiku (S), astakirten (O, ID, EL), astalapiko (EL), astaina! (emakumeentzat) (LAR), txokil (O), astapito (AR, S, AM), astaputz (S), astazakilla (G), astoa (LAR), astohüntz (AL), beti ergel, beti alukerietan (S), ergel (G, O, ID), ero (G, S), ertzo (LAR), iñozo (O, ID), nik eztaikit ze kaikua dan ori (O, ID), kaikutzar (G), kirten (EL, ID, O), kokolo (IN), llello (AL), mamale ori! (IN), mentsa (KA), moxolo (EL, IP), pertola (KA), pertoli (LAN), santzana (KA), ume tentela (O), tetele (AL), tetel (LAN, KA), tuntun (O, ID), txaldan (emakumeentzat) (O), txolin (O, ID), tzuntzun (emakumeentzat) (O, S), tutulu (LAN, KA), txoriburu (O), tütülots (AL), zozo (O, ID, S), xoxoska (AM), txonta (O), totollo: tonto xamarra (G), papaua, mozoillue, kantuta hasi ezkerro, atzenik pez (IN). B. ezta burutik maingu (G, KA, S), horrek badu zerbaite bonetaren azpian (KA), tontotik gutxi du orrek (O).

tonto más que tonto! ■ **TONTOA** baino tontoago!: ergela ez **bertzea!** (AM), neska punpulina ez bertzea (ITS), ergela alain ergela! (S), ergela ez bestena! (G), ergela **alena!** (O, ID), kirten **alena ez bestena** (O), orrelako ergelik! (S), ergela alena ez besteena (O), ergela beste ori! (G), txorrea ez beste txorrea (G), zer da au **olako txorrea!** (G), ori beste zozoa! (LAR), tupina, ez bertzea! (ITS, KA), zozoa, ez bertzea! (ITS, KA), zozo ahalena (ITS), zozo halaena (ITS), gizona **horren txorrea** izatea! (G), txorrea ez bestena (O), txorrea alakoa! (O), **gizonaren txorrea** (GR), gizon onen txorrea (GR), **alosoko mosolloak!** (IN), demontre tetelua (S).

zinema **TOPAKETAK**: 1. zine **ihardunaldiak**

(O). 2. **aritoak topaka** dabiz (IN), aariak topeka dabiz (EL, IN, AZ), topeka in eutson (IN), aariak elkarrekin joka ai dire (S, AM, O, G), aariak kunkeka ari dira (AM), aariak alkarrekin joka dabilta (G), marroak koskatu du (LAN), arito borroka (IN), ahariak trikaka ari dituk (ID).

TOPATU: 1. **a.** gizon bi **topatu ziren** kalean (O), basoan topau zirian (IN). 1. **b.** gizon ura bidean **topatu nuen** eta izketan egondu giñen (G, O, ID). 2. mendian **topo** egin zuten arekin (O, G, AM), biok topo egin dugu (O, AM, ID), elkarrekin topo egin dute (S, O, G, ID), mendian topo egin nuen gizon ura (G, O), alkarrekin topatu ziren (G). 3. mendian ardiareki **agitü** niz (AL). 4. ardi galdua mendian **arrapatu** zuten (AM, S, G), elkar ar(ra)patu dute (AM). 5. ardi bat **atxeman** du mendian (KA), elgar atxeman dute mendian (KA, ITS, LAR). 6. mendian lagüna **baratü** dü (AL). 7. **a.** ardia mendian **billatu nun** (G, O). 7. **b.** bidean **billatu giñen** (O), mendian zebilela, norbaitekin billatzea gertatu zitzaion (O). 8. galdürük ziren ardiak **ediren** nitian (AL). 9. bidean otsoa **errekontratu** nizin (LAN). 10. mendian **bürü** egin dü otsoarekin (AL), buruz buru egin zuen Matiñekin (ITS). 11. elgarreki **gertatu** gira (LAN), aren anaiarekin gertatu ginen (KA), batera gertatu omen ziren (O). 12. mendian adixkidia **kausitü** zizün (LAR). 13. **tril** egin geuen (IP). 14. mendian **kürütatü** ziren (AL).

uholdea iritsi da **TOPERA:** 1. uholdeak **gainak artu** ditu (O) ~ urixoliek (IP). 2. ur oiek **goiena jo** dute (G), ualdeak (= ibaiak) goiena jo du (S), arbola orrek goiena jo du (S, G).

zuhaitz hori **TOPERA** hazi da: arbola orrek **goiena jo** du (S, G, U), goixe jo dau (IP), arbola orrek **goiek** arrapatu ditu (ID, O), goiek goatu deuz (IN), Pedrok goiek goatu deuz (IN), orren goixena ikusita dago (IP), gazte horrek goiena jo dik (G), arbola orrek **aundiena** egin du (AM), arbol ori goiena joa da (S), pilotari horrek goiena jo dik (G), arbola orrek **goen barrenak** eman ditu (O), arbola horrek **gainak** arrapatu ditu (O, ID), ujoldeak **gainak** hartu ditu (O).

eliza **TOPERAINO** zegoen beterik / **neurritz** (kanpo): **A.** 1. zakua **ahal bezainbat bete** zuen (KA). 2. zakua **artu ali(a)n** betetzen gintun (S, G), zakua artu ala betetzen gintun (S), elizak artu ezinik jendea (O), zakua artu ala arto bete oan (IN), eleizeak artu ez iteko beste jende dao (IN). 3. **bete bete** egin du zakua (O), eliza bete bete zegoen (G, AM), eliza bete ta kanpora zegoen jendea (O). 4. **gaindizka** bete da (AM), zekua gaintika beterik da (LAR), eliza gainera artino bete zen (KA), gañaz egiteraño bete du (O, IN), gañez bete du zakua (S). 5. zakua **kabi ala** guztia beteta daude artoz (O), zakua kabi ala guztia beteta dago (O), elizan kabitu ezin ala jende zan (O). 6. eliza **kokorreraino** bete zen (KA), eliza kankarreño betia zagon (S). 7. **lepaezureraño** beteta zeuden (O, G), lanakin lepo gaude (O), leporaño bete du (G), eliza leporaino bete da (G, O). 8. eliza jendez **mukuru** bethea (LAN, KA), saski andana bat janariz mukuru beteak (LAN), eliza jentez **mükürrika** bethe zen (AL), galtzirua mukuru mukuru bete (AM), eliza jentez **mükürri** betherik zen (AL), zakua mukuruka beteak daude (AM, S), irina liro liro eman didate / mukuru mukuru (AM). 9. **tontorreraño** (G), kutxarakada bat tontor azukra (O), katillua erradaka eman dit / katilu bat tontorka (G), zaku hori tontortuta dago (O), erru erdi bat arto erraran eman didate (G), tontortzeraño bete du (O). 10. **tranpez** bete zen (KA). 11. an ez zegoan jostorraz bat sartzeko tokirik (O). **B.** 1. **errosoiak** jo zazue lakari hori (O), errosoia egurra da, laborea, garia eta, berdintzeko (O), errosoiak pasatu (O), laborea errosatu (O), lakari ori errosauta dago (O). 2. otarra **ezpain berdin** bete, tontortu gabe (O), ezpain berdineraino nahikoa da (O), zakua berdin beteta edo tuntur (ID).

TOPETAN: buscando / **topatu:** 1. zeozen **topetan** dabil (IN). 2. zeozen **atzetik** dabil (O, G), zeozarren atzien dabil (IP). 3. zerbaiten **bigeltik** dabile ori (S). 4. zerbaiten **billa** dabil (G, O). 5. zerbaiten **eske** daile (AM). 6. zerbait ere **nahizik** dabile ori (S).

7. amaren **xerka jin** da (LAN, AL), (txeka) (KA).

se enfrentó con algunos magnates ■ zenbait handimandirekin **TOPO** egin zuen / **frente**.

TOPO egin / **topatu**.

horri **TORNILOREN** bat falta zaio: orri **artalen** batzuk falta zaizkio (O), **ohol** bat ments düzü (LAR), ero **arrak** ditu orrek (S), **aleren** batzuk falta ditu (O), goiko tellatutik **tella** bat falta du (G), **tella** bat falta dau orrek (IP, KA), ongi **ornitzekoa** da (G), **ganbaratik** eztao ondo (ID), goiko ganbara ortan baduzu zeozen fallu ederra (G), **burutikan** fallo aundia du (G), burutik mainku da (KA), horrek **kintze** bat badik falta (KA).

patatazko **TORTILLA** jan zuten: patata **tortilla** jan zuten (O, AM), patatakin egindako **tortilla** (AM, O, G, IP), arroltze moleta jan zuten (LAN), **tortilla** patatekin iña jan dugu (S), patata(re)n **tortilla** (O), **tortilla** patata jan degu (ID), lekapata (IP), lekak eta patatak (G).

ogi **TOSTATUA** jan zuten: ogi zi(g)ortua (O), ogi txiortua (G), xiortua (KA), ogi zigertue (AM), ogi txigortua (S), ogi txokartü (AL, LAR), ogi tzokartia (= sobera errea) (AL), ogi kizkorra (IP), ogia kizkortu (IP).

mozkor **TOTALA** zegoen / **mozkortu**.

ezpataz bihotza **TRABESATUKO** dizut (trabesak jokoan egiten dira): bihotza aldean beste pasatu dio (KA), ezpata alden bertze pasatu dio (S), eurorren arima ere iraganen din ezpata batez (LEIZ. Luk 2,35), ezpatia alde batetik bestera pasautzen (IP, O, KA, S), ezpataz biotza alde batetik bestera irago zion (G), ezpata alde batetik besteraino pasatu dio (O, IN).

TRAFIKO izugarriaren artean joan zen: izugarritzko trafikoa zegoela joan zan (O, AM), alde egin zuenean, izugarritzko trafikoa zegoen (O, G, AM).

TRAFIKOA ebaki dute: geldiazi dute (O), geldiarazi dute (KA, S).

TRAFIKOA sendoagotu egin da: trafikoa azi egin da (O), trafikoa geitu egin da (O),

aunditzen asi da (AM, S), trafikoa gero eta handiago da (KA).

TRAGO ~ **HURRUPA** ~ **ZURRUTA:** *bada nahasterik lexema hauekin. Sintagma zuzen hauek direla dirudite:* 1. **zurrupe** egin. 2.1. **zurrupe** bat **ardo** edan. 2.2. **zurrupe**, **zurrupe**... edan. 3. **Halere**, **zurrupe** edan **ere entzuten** da.

*1. ardo **zurrutada** bat egin euen (IP, IN), ardo **zurrupe** bat ein dut (G), kafesne **zurrupe** bat egin dut (S, AM), **urrupe** bat egin zazu (AM), kafesne **txurrupe** bat egin dut (G), kafesne **txurrutada** bat in dot (IN), kafesne **furrutada** bat egin dut (U), **txurrupe** bat egin dut (O), bi **trago** egin (O), beste **zurrupe** bat ein dut (G), ardo **trago** bat egin nun (S, IN, O). 2.1. oraintxe **trago** bat **ur edango** nuke (O), **urrupe** bat salda edan dut (KA), **trago** bat ardo artuko diagu (O), **urrupe** bat arno edan dut (KA), **trago** ardo eman (S), **urrupe** bat kafesne (KA), dxangada bat ur edan ebanean (Añamendiko lorea I,118). 2.2. bi **tragotan** edan zuen (S, O), **tragu** bitan eran neuen (IP), bi **tragotan** ustu zuen (S, O), bi **zurrupe** artuko dezu esne ori (O), bi **zurrupe** edango duzu (O), bi **txurrutadan** edango du (O), **zurrupe** biten edan (IN), **zurrupe** edaten du (G), bi **golpetan** edan zuen (S), **trago** bitan edan zuen (IN), **trago** baten edan (G), bi **tragoz** edain duzu (AM, S), bi **urrupe** edanen duzu (KA, LAR), kafea **urrupe** edan zuen (AM), **dzanga dzanga** majo edan zuen (O). 3. kafesne **zurrupe** bat edan dut (AM), ardo **urrupe** edan dut (AM), bi **urrupe** edan ditu (KA), ardo **urrupe** bat edan dut (S), ardo **txurrupe** bat edan zun (O), ardo **txurrupe** bat edan zun (O), ardo **zurrupe** bat edan zuen (ITS, AL, KA), kaffe ttotta bat **zurrupe** (ITS).

dibortzioa **TRAMITATZEN** ari da: partitzeko asmotan (G), apartatzeko (O), **berextekotan** dira (KA), **berexteko** hasiak omen dira (S), **berexi** nahizik hasiak dira (S), **papelak** iten dabiz (IN), apartatzeko lanak egiten ari dira (O), apartatzeko lanak egiten ari dira (O), apartatzeko zuzenketak egiten ari dira (O), **dibortziatzen** dabiltza (G, S), **partitzeko** omen dabiltza (O),

dibortziatzeko dabilta (G), partitzekotan dabilta oiek (S), dibortziatzerat abiatuak dira (KA), berexter dira (KA), berexi dira (KA), ezkontza apurtuteko bidean daoz (IN), dibortziatzeko paperak egiten ari omen dira (G), partitzeko daude (G).

gogor **TRATATZEN** zuten: gogorrean artzen zuten (G, O), gogor artzen zuten (G, IN, IP), gaizki artzen zuten (O).

zure osasunaz **TRATATZEN** da hemen ↗ (bakea) **jokatzan**; zure osasunaren gorabera or dago (O), Anjeren osasungarriaz doa (ITS), munduko zorionaz doa (LAN), hor dago zure osagarria (KA).

haren **TRAZA** hartzen diot ↗ **antza** (artu).

le cojo mala **TRAZA** ↗ **sospetxa**.

TRENEAN joan zen Kaskantera: treñez joan da (AL, IP, KA, LAR), otoz joan da (AL, KA, LAR), oinez (S, G, KA, LAR), zaldiz (G, IP, KA), zaldikin (O), zaldi gañean (S, O, G), asto gañean joan da (O), itsasoz joan da Ameriketara (O).

TRIPAKO minak dauzkat: sabeleko miñak nago (S), sabeleko min badüt (LAR), tripeko mine deukot (IN), tripako minak ditut (KA), tripoko miñak nago (S), tripetako miñek (IP), tripako mina daukat (O, G, ID).

hizo de tripas corazón y comió los tripacallos ■ **TRIPATIK** bihotz egin zuen eta jan egin zituen tripotxak ↗ (gogoz) **kontra**.

TRISTUR giroa zen etxean ↗ **kultur** ↗ **arkitektur**: tristura besterik ez dago emen (O), tristura sartu zait biotzean (O, LAN), egualdi tristea ~ giro tristea (eguraldia) da gaur (O).

***tristur** malkoak botatzen zituen ↗ **kultur**: penaren penaz malkoak erortzen zitzaizkion (ID, O), ...nigar tantak erori (S), nigar malkoak ateratzen zitzaizkion (G).

TRONOAREKIKO eskubideak ez zituen galdu: errege izateko eskubideak ez zituen galdu (O), errege izateko eskubidea galdu du (G, IN), nagusitako eskubidea galdu du (G).

TRONPETISTA ona zen: tronpettaria (LEIZ. Pier II, 2,5).

TRUMOIAK jo du: trumoiak jo du (O, IP, ID), dündada egin düzü (AL), ühülgü egin

dizü ~ irurtzuri egin dizü (AL), trumoiak ari du (O), trumoiak ari du (G), odeiek jo dau (IN), trumoiak zarata galantak ibilli ditu (O), ortoska ari du (AM, S), trumoiak dira (IP), ortziak dira (IP), ortziak jo du (KA), dündaz ari düzü (LAR), dündaz jauntsi düzü (LAR).

oraingo dantza **TWIST and rock**: oraingo dantza xelebrea, okerka ta mokerka (O), danak gerri koloka daude (O), makurka makurka dantzan (S).

TXALOK eman zizkioten: txalo jo (IP, O), ezku zartaz ari ziren (AL), esku zapartaz ari da (LAR), zartatü (AL), esku zartaz erauntsi die (AL), esku zartaka ai dire (AM), esku zartak egin dazkote arribatzean (KA), esku joka ari dira (S).

TXANDAKA haiek ere eskua eman zidaten ↗ **banan**.

TXANPAN kopa bat edan zuten (sintagma zuzena: txanpan edan; «zenbat» aurretik ezar) ↗ **kopa** (patxaran).

urrupada batetan hustu zuen **TXANPAN basoa** ↗ **botila** (hustu) ↗ **trago**: trago batean ustu zuen baso txanpaña (O, S, IP), kolpe batez ustu zuen baso txanpaña (G, AM), urrupa batez edan zuen baso bat txanpaña (KA, LAR).

lanerako **TXAPELA jartzen zuen** ↗ (txapela) **erabiltzen**.

TXAR: *Baztanen eta mugaz bestaldean*: **a.** = ttipi: haur ttar, txar bat (AM, AL). **b.** gaiztoa: gizatxar, ematxar (AL).

no tienes mala!: ez daukazu **TXARRA!** ↗ **onarekin** (zatozkigu).

hori beti **TXARRENA pentsatzen** (O, G) ~ orrek beti txarra gogun du (S), txarrera-koan pentsatzen (AM), orrek txarra besterik pentsatzen al du bada? (O), hori pentsaketa txarretan ari da beti (KA), beti txarra pentsatzen du (KA), pentsatzen ari da txarren(ar)en txarrena (S).

no hagamos las cosas a las malas ■ ez egin gauzak **TXARRETARA** ↗ **onetan** ↗ **mali-zia**: txarrean ezin asiko gara (O, G), txarrella (AM), zure txar beharrez ez det egin (O), gaiztora ez da deus kontsegitzen; onaz onin egin bear (S), txarrera ganta ez dugu kontsegitutako (AM), txarretik ez dago ezer ate-

ratzerikan (O), txarrean ez dao zer eginik (IN), txarrean asita eztago deus egiterikan (G, O), txarretik ez dago ezer ateratzerikan (O), ...zer egiterikan (O), onezean esan deustot (IN), asmo txarrakin (G, O, ID), idea txarrez in du (AM), idea txarrean bizi da (AM), intentziño txarrez esan neutzen (IP, O), gogorrean hartu zuten (O).

TXIKI eta zabal zen ↗ (baxua) **lodia**.

aquí el amo y en casa el último mono ■ hemen nagusi eta etxean azken **TXIMINOA**: hemen nagusi eta etxean utsaren urrengoa (O), kanpoan nagusi eta etxean mutil (AM), bapez baino geiago da (IN, O), hori ez deus bat da (KA), orri arrunt deuseza da (S), utsaren urrengoa da (O).

TXIMITX / zimitz: **a.** tximitx: chinche. **b.** zimitz: otarrak eta, egiteko zuraki mehar-luzeak.

TXIMISTA erori zen etxean ↗ (tximista) **erori**.

TXISMOSO handia zen: **A.** kontakatillu bat da (S), talatta da hori (G), jende tilita da hori (AR), berriketari (KA), talatta ederra hori (G), tilite (AM), zikiro saltsa guzietan agertzen da (O), hor dabil hemen ttilitan etan han ttalatan (S). **B.** horrelako eleketa-ri! (KA), berritsu (O, EL, ID, S, IN), beti hitza ta pitza ari da (G), emazteki kalakari hori! (KA), emakume karraka; horren solasa! (S), mingain luzea da hori (S), mizto edarra du orrek (G, O), mizto ona ateratzen du orrek (G), orrek dantzatzan du miztorra ~ miztoa (O), mizto ona dauka

orrek (O, G), matxarda baño areago jarduten da (O), ori ez da errotako kalaka baino gehiago ixiltzen (S), errotako karraka baño geiago ez da ixiltzen (G), itzontzi (S), Mari-txintxerri (O), gizon kalakaria da (KA), karraka zarra biño geiago ezta ixiltzen (S).

oiloa **TXITAK** egiten ari da ↗ **txitak** (eduki-ko).

oikoak laster **TXITAK** edukiko zituen ↗ **arraultza**: oiloa lokatu egin da (O, ID), oiloa kolokatu da (KA, AM), oiloa loka dago (O, IP, ID), kolkatu (G), oilo loka txitak ateratzen dago (O, ID), oilo loka txitak atetan dao (IN), oilo loka arraultzen gañean dago (O, ID), oilo koloka xitan da (KA), txitak jaiotzen ari dira (O), oiloa kolokan da (Armendaritz).

TXIXA egiten ari da ~ txixa eaginean da (O), kaka egiñin dago (S).

TXOIL ↗ **soil**.

TXOKOLATE katilu bat jan zuen ↗ **katilua**. *me dio un mareo* ■ **TXORABIOAK** eman zidan ↗ **mareo**.

lagunek **TXURI** bat eskatu zuten ↗ **bat**: txuri bana eskatu zuten (O, G).

Bereiz: **-TZAT / -tzako, -dako**: **a.** adiskidearentzat sagarra eskatu zuen (G, O). **b.** adiskidearentzako sagarra galdu egin zuen (G, O), lagunandoko sagarra galdu (egin) zuen (S).

-TZAZ ↗ **-taz**.

-TZE ↗ **-te**.

-TZEKOZ ↗ **-tekotan**.

-TZETIK ↗ **-tetik**.

U

Bereiz **UDAL / UDALETXE**: *a.* udal = *el-kartasuna*: udalak lan ederra egin du Berbintzanan. *b.* udaletxe = *udala biltzen den etxea*: Beteluko udaletxea oso ederra da.

sagar **UGARI** samar bada ↗ **pila**: orain sagar ugari bada (O), naiko sagar badago (O), gizon talde aundia da (G, O), gizon talde ugari (O), gizon alde bat bazagon bat bertzeekin solasean (S), naikua sagar dao (IP), aski sagar badu (KA).

umea **UGARI** bazan ↗ **ume** (pila).

bidea bihurgune **UGARIDUNA** da: bide bihurgunetsua (IN, KA), bide biurria da (O), biurgun utse da (AM), marroka marroka da bide ori (S), bideak badizū ingüradüra hanitx (LAR).

UKABILKADA bat **bota** zion ↗ **kolpea**: ukumialdi bat (e)man diot (AM), ukubilkada bat emoutson (IN), ikabillezakoa eman nion (S), ukalbilkada bat eman dit (G, O), ükümilla kaldü bat eman deiot (LAR), ukamilo bat eman dakot (KA).

UKAN ↗ **atzaman**.

UKATU: *a.* Jondone Petrik **Jesukristo** ukatu zuen (KA), ez zaitut behin ere ukatu (ITS), ez ditut beharrenean adixkideak ukatzen (ITS), saildua eta iustoa ukatu duzue (LEIZ. Ap Ak 3,14), ukaturen dut nik ere hura (LEIZ. Mat 10,33), orrek bere laguna ukatu ~ saldu zuen (S, G), orrek ukatuko dik Jainkoaren anka ere (G). *b.* **hartzaz** ukatzen (LEIZ. Ioan XVIII), bere nabusiaz ukhatu (AX 173), eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu (AX 4). *d.* ezin ukhatia da hobendu handi **dela** (LAN), gizon zintzoa dela ezin ukatu (O).

gure laguntza **UKATZEA** aukeratu duzu: ez-tuzu gure laguntzarik nai (G, O, KA).

UKITU ↗ **ikutu**.

Ebak sagarra jan zuen, aginduari **UKO** eginenez: aginduari jaramonik egin barik (IN), aginduari kasurik egin gabe (O), Jainkoak erranari etzuen (etzion) kasu eman (KA).

txar ULERKETA bat, besterik ez da izan ↗ **konpondu**: alkar ez ententitzea izan da (G), ez diote elkarri ententitu (O), ez dire elkarrekin aitzen (AM, S), ez dute elgar konprenitu (KA).

hau ez dago **nork ULERTU**: au eztago ulertzerikan (O), au ezta iñor ententitzerikan (G), au eztago kristauak ulertzerik (O), ori eztago iñork ulertzerik (O), au ulertuko duenik eztago (O), au ezta konprenitzen (AM), au ezin diteke ententitu (G), ezta ori ententituko duenikan (G), ez ditake hori konpreni (KA).

ez dira elkar **ULERTZEN** ↗ **konpondu**.

etorri zaio **UMEA egiteko** garaia ↗ **puntu**an: denborak ditu (O, AM, IP), beiak denborak bete ditu; erkin da (S, KA), denbo(ra)k betea dago (G), bedetzi illabete betea dago (G), erditzeko püntüan da (LAR), termañia bete dü (LAR).

han dagoen **UME pila!** ~ **1.** an dagoen **umerria** (O), umeterixia (EL), umerri (IN), umetegi (= umeak bildurik dauden tokia) (G), umerri utsa dao olgetan (IN). **2.** an dagon aur **pillak!** (S), an dabilzin aur pillak! (S). **3.** **zaborreria** ederra ba dago or (G), ume zabor pilla ederra bazebillek or! (G), or dagon ume zaborreria! (G). **4.** **haurreria** jin da (LAN, KA). **5.** haur **andana** bat (KA). **6.** haur **saldo** bat (LAR).

UMORE onean dago gaur ↗ **letxekoa** ↗ **arratzak**: **A. 1. aldarte** ona dauka gaur (O, ID), aldarte onean dago gaur (S, AM, O, ID, G). **2. onaldiakin** / txarraldiakin dago (O), oso aldi ona zeukan gaur (O), aldi onean da (AM, IP, KA). **3. Piarres onean** da (KA). **4. atzo sasoi** (= umore) onean zagon (AM, S). **5. trenpuan** da (LAN), trenpü hun düzü (LAR). **6. tankera** onean etorri da (G), tankera onean da (G, O), tankera ona zeukak (U). **B. olako barrak** eukitzen ditu (O).

UMORE txarrean dago: ↗ **letxekoa**: **1. Jainkoa** baithan ezta... **aldarte** gaitzik (AX 299), aldarte txarrean da (ID, O, G), aldarte onean zegoen (O). **2. aldi** onean, aldi txarrean da (AM, S, G), aldi ona dauka (G), aldi txarrean dago (IP, KA). **3. gaur arra** mugitu du; kaskarrean dago (S). **4. orrek** arrapau du **kasketaldia** (O). **5. Kopeta txarrean** da (LAN). **6. muturrean** segitzen du (G), muturrean da (G), ondo muturtuta dabil (O), muturraldiakin da (O). **7. setan** dago (S). **8. tankera** onean / txarrean dago (G). **9. trenpü** gaizto düzü (LAR), trenpu txarrean da (ITS). **10. Piarres txarrean** da (KA). **11. zaputzean** dago (S, O), zaputztuta dago (G) ↗ **haserre**.

UMORE txarrean iratzarri da: lo **mozorroan** iratzarri da (S), lo **kazkarrean** (S), **lokaitzean** esnatu da (G), lo **txarriegaz** itxartu de (IN), lo **mokorrean** (S, LAN), lo **muker** jaiki da (S), lo **moker** iratzarri da (AM), lo **kaiztua** dago (S), **lomukertu** da (S), **esnaera** txarrekoa da (O).

UNGUENTU botila osoa hustu zuen haren buruaren gainean ↗ (ardo) **botila**.

A. Deustu UNIBERTSITATEA oso polita da = Deustu deritzan Unibertsitatea ↗ **herri**. *Egitura berdintsuak*: Odriozolatxo baserria polita da. Fordham University is at Fordham Road. **B. Deustuko** Unibertsitatea polita da = Deustun dagoen Unibertsitatea.

jai hartan militarrek **UNIFORMEA** eramaten zuten ↗ (txofer) **jantzitan**.

UR ↗ **botila** ↗ **ardo** ↗ **pakete** ↗ **zigarro** ↗ **lata** ↗ **pote**.

*ur baso bat edan zuen (= ontzia bera iren-

tsi zuen. Sintagma zuzena: ur edan. Ur baso bat = ur edateko erabiltzen den ontzia): botella bat ur edan zuen (O, IN, MO, IB, G, AZ, KA), ontzi bete ur (IP), udaren basoan kolakao eman zion (O), untzi bat bete ur (AM), bi baso ur edan zituen (G, S), ontzi auxen bete ura (S), bi baso ardo edan zituen (G), baso bat ur edan zuen (G, O), basokada bi ur edan ditxugu (IB, EL), basokada bat esne (O), baso bat ur edan zizun (LAN), godalet bat hur emazut (AL), bi erroa artokin joan zen errotara (G), bi anea artokin (O), baldekada bat ur eman zien txerriari (O, IN, G), balde bete ur (IN), baso bat bete ur edan zuen (G), ecarsu caldera bete ur (Mikoleta), baso bat ur emoutzen (IN), pegar bat ur (LEIZ. Mark 14,13), ekarrak ontzi hori erdikala urez (LAN), beire bat ur (LEIZ. Mark 9,41), kartzu baso erdi bat ur (AM, G, S). Eta nork ere edatera emanen baitrauka beire bat ur hotz huts xipi hautarik bati (LEIZ. Mat 10,42), xarro bat ur (ITS), txarro bat ur (G, O), pitxar bat ur (AX, KA).

UR pixkat ↗ **pixkat**.

UR asko zen; ni **betetzeko** hainbat bai ↗ **altura**.

UR titara batetan itotzen da hori ↗ **titaraka-da**.

arraultzak **URETIK pasauta** jan ditu: uretan pasauta (O, IP), arraultze gogortiak egin (AL, LAR), arraultze kuskian egin (AL, LAN, KA, LAR), urean pasatuek (AM, S, G), uretan egosita (IP).

euskara **URBANO** landu behar dugu: hiri euskara (GR), iriko euskara galdu egin da (G, O).

admisión de urgencias ■ **URGENTZIETA-KO** admisioa: oso gaizki daudenentzat (O), larri daudenentzat (O), arrunt gaizki daudenentzat (G), eri haundientzat (KA).

URGENTZIAREKIN etor daitezela: ahal den azkarren (O), lehenbailehen (G, O).

URKATU / ito: **a. urketue** arrapatu zuten (AM, S, G, O), bere burua urkatu zuen (O, KA). **b. itota** billau zeben itsasoan (O), itorik atxeman dute (KA).

URRATS bat eman zuen aurrera: horrek ere ber urhaxak eginen dütie (AL), ez du urhaxak

tsik egiten (ITS, KA), oso pauso motza egiten du harek (O), ez düzü egiten urhax bat ibiltzeko (LAR), lehen urratsak egiten ari da haurra (LAN, ITS, AM), pausorik ez du egin nai (O), pauso motx motxak eginez ibiltzen da (O).

gelaraino **eraman** ditu **bere URRATSAK**: kuartoraino gan zen pausuz pausu (AM, O), biziki urrats haundiak egiten baitzitian (LAN), nik lagunduko dut, bainan berak lehen-urhatsa egitekotan (ITS), urratsez urrats ~ emeki emeki eginen dugu (LAN, KA).

URRATSEN abiada azkartu zuen: urrats bizi batez doa (KA), pauso lasterrean hasi zen (O), pausu bizian bazaien (AM, S), pauso bizi bizian dioa (G).

URRE zaku bat aurkitu eta aberastu egin zen ↗ **tomate** (zaku).

irakurlearen **URRUN** dago ↗ **hur**.

URTARRILEAN eta otsailean etortzen da ↗ (martxoan) **eta**.

ZENBAT URTE DAU(Z)KA.

***I. a. zenbat urte** dituzu? (KA, G), zenbat urte deukoaz (IN), zenbat urte tu? (AM, S), zenbat urte daukazu? (G, O, IN), zenbat urte deukoaz? (IN, O), zenbat urte ttuzu? (S, AM), zenbat urte ttuzu? (= dituzu) (LAN, AL). **b. zenbat urte düzü?** (AL, LAR), zenbat urte deukozu? (IN). **d. ze adin duzu?** (AM, S, KA).

***II. zazpi urtekoa** da (AM, S) ↗ **aldi**, zazpi urtetakoa da (LAN, AL, KA).

***III. ogei urte ingurukoa** (IN, O, IP), hogoi urte inguru hor du (KA).

***IV. ogetaka** dauzka urteak (O), berrogetaka dauzka urteak (O), berrogetaka urteak deukoaz (IN), irurogetaka urte (O), larogetaka urte dauzka (O), larogetaka urtetan gora doa (O, IN), larogetaka zijoazela hil ziran gure gurasoak (O).

***V. ori adinean gain** de (AM) ↗ **urtetan** (sartua).

***VI. bederatzi urtetara** doa (KA), bi urte eginda dago; irugarrenean dijoo (O), zortzi urtetik bederatzira doa (ID, IN, AM, S, O), zortzi urtetik bederatzitara dioa (G).

***VII. A. 1.** hogei urte baino **haboro** (AL). **VII. A. 2.** berrogeitik **goiti** da (G), iruetan

hogei urtetarik goiti da hori (AM), irurogei urtetik goiti da (G), berrogei urtetik gora dago ori (O, IP, ID). **3. berrogei** urteaz goiti bazuen (ITS, KA), aurrerapenak eun urteaz onuzkoak (O), berrogei urteaz goiti da ori (AM), irurogei urteaz goitik egongo da ori (O, AL), 18 urteaz goitiko presunak (ITS), ogei urteaz goitikoendako (AM), 60 urte? Izango ditu goitik (EG). **4. irurogei** urteaz gorakoa da (IN), hogei urteaz gorakoentako (AL), amabi urteaz gorakoentzat (O, ID). **VII. B. 1.** ogei urteaz **azpikoa** da (S, O, ID), ogei urteaz azpikoendako (AM). **2. irurogei** urteaz azpitik da (G, O). **3. amalau** urteaz beekoa da (G), urte biz beerakoa da (IN), amabi urteaz beerakoentzat (O), ogei urteaz beitikoendako (AM). **4. 45 urteaz** pekoa da (LAN), hogei urteaz pekoentako (AL).

***VIII. berrogeiren** bat urte dituela **ematen** du ~ dirudi (O), ogei bat urte inguru dituela ematen du (G), ogei bat urte dauzkala ematen du (O), ogei bat urte ematen ditu (S), ogei urte ematen ditu (IN, S), hogoi urte gorabehera dituela irudi du (KA) ↗ **bat**.

NOIZ DITU URTEAK? ↗ (zenbat ditu) **hila**: bihar beteko dituzte urteak (KA, AL), gaur dituzte urteak (O), biar betetzen dituzte urteak (S, AM), noiz da zure urteburia? (AL), noiz da zure sortze urteburia? (AL), biar al dituzte urteak? (O), biar ete deukoaz urteak? (IN), noiz dituzte urteak? (S, G), urte muga noiz daukazu? (O), amaren urte muga da (ITS, LAR), untiaren berrogei ta hamargarren urteburia (AL), noiz egiten dituzte urteak? (IP).

ORAIN ZENBAT URTE: **1. a.** ura il zela urte bete da (G, O). **1. b.** urte bat joan da, il zela (S). **2. orain** urte bete bat edo (O), orain urte bete inguru (IN, G, O), orain urte bat inguru (AM, S), orain urte bete gan zen (AM), oraintxen urte bat joana da (S). **3. orain dela** amar urte (G, O, IN, EL, S). **4. direla** amabost urte (LAN). **5. badü** urte zunbait jin dela (AL), zunbait urte badü jin dela (AL), badu urte bat joana dela (KA), duela hamabost urte (LAN, KA) ↗ **orain**.

ZENBAT URTE igaro ditu: **1. urte bete** irago du Ameriketan (*bete* «urte bat»ekin erabili ohi da eskuarki: urte bete, aste bete, zazpi urte, zazpi aste, zazpi *hilabete* pasatu ditu (O, ID) (G, O). **2. urte bat** pasatu dut (S, AM, KA), urte bat iragan dū nonbait (AL, LAR). **3. urte bat utsa** egin zun Burlatan (= bakarrik) (S), urte bat bakarrik pasatu du Kaparroson (AM), urte bat bera iragan dū Altzain (AL), ez dū urte bat baizik iragan Barkoxen (AL), urte bat bakarra ein du Kasedan (O), urte bete bakarra irago du Kastejonon (G). **4. urte beteren** bat pasatu nun Zizurren (O), **urteren** bat pasauko zun Donamarian (O), zazpiren bat urte (O, G). **5. urte bete inguru** pasau gindun Lizarran (IN, O), urte bat gotibehera (KA) \nearrow **bat**.

ZENBAT URTE HABORO: beste amalau urtean bizi zen (O, IN, G), bizi izan zen hoge urtez orano (AL, KA), amalau urte unburuen bizi zen (AM), bertze amalau urtez bizi zen (S).

ZENBAT URTEREKIN: ogei urterekin asi zan ikasten (O), hoge urtetan hil zen (ITS, LAN, AL, AM, S, G, KA), eskolarat sei urtetan joan ninduzun (LAN, AL), 80 urthetan zenthū da (AL).

ZENBAT URTE GEROAGO \nearrow **barru**.

ZENBAT URTETAKO: urte beterako dator (G, ID, O), urte beterako gutxigorabera (O), urte batetako joan zen (AL), urte batendako gan zen (AM, S), urte batendako joan da, goitibeiti (S), urthe batentzat eman nion (ITS, KA), hiru urtetako (AL), iru urterako (O, ID), iru urteko (G), iru urtendeko, pixkat goitibeiti (AM, S), iru urtendako (S, LAR), irubat urteko etorri da (G), irubat urterako (O).

NOIZ ARTE: ZENBAT URTE ARTE: bi urtetara artino eri izan zen (AL, LAR), bi urte arte (O, G, ID, KA), ori umia urte birarte gaixorik egon zan (IN).

ZENBAT URTE ~ URTEAN ~ URTEZ egon zen \nearrow **aldia** (batera): **A. 1.** lau urte gaixorik egon zan (EL, O), lau urte egon zen Parisen (KA). **2. a.** Zorionak urte **as-koan**. **2. b.** pozik bizi ziren ainbeste **urtean** (IN, O, ID), zenbat urtean? (IN), joan deneko lau urtean (AM, G, O), ogei urtean

gaizki egondu zen (G, U), lau urtean gaixorik egon da (IN, O, AM), lau urte huntan eri da (KA). **2. d.** zombait urte huntan eri zen (LAN, ITS, KA), horrenbeste urthe hartan ez zen han gizonik agertu (ITS), urte aunitz unetan ez dut ikusi (S), urte asko ontan ez det ikusi (O), joan deneko ogei urte onetan (O), joan den ogei urte unetan (S), lau urte ontan gaixo egon da (O, S, G), lau urthe hartan ez zuen ama ikusi (ITS, KA), azkeneko bost urte ontan (O), azkeneko bost urte unetan (S), (atzenengo) (IN, O, ID), hirur urthe huntan ez dugu elgar ikusi (ITS, AM), hamar urte huntan aitzinatia da meza arratseko bederatziz orenetarat (LAN). **B. 1.** atzeneko bost urte **okaz** gaixorik eo naz (IN). **2.** azken bost urteotan (AM), joan diren hamar urteotan (AX 55), iragan diren urthe guztio- tan (AX 73). **D.** amabi **urtez** egon naiz Californian (AM, KA), lau urtez bizitu zen Parisen (S), bi urtez ~ urte egon zen eri (AM, S, KA), lau urtez lan anitz egin du (KA), amar minutoz herrian izaten ginen (S).

nire URTETAKO laguna da \nearrow **adin** (bere-ko).

ya eran dos años que había sucedido eso ■ hori **zuela** bi URTE pasatuak ziren: bi urte pasatxo dira ori gertau zala (O, IP), ordu- danik bi urte pasatuxeak ziren (S, G, AM). Ameriketan hiru URTE **betez** egon zen \nearrow (zenbat) **urte**: iru urtean egon zan (ID, O), hiru urtez (LAN, KA).

estaba metido en años ■ URTETAN sartua zegoen: **1.** adin handia da (AM, AR), adin handia dū (AL, AM, LAN, KA), oi adinean gain de (AM), adin puska batekoa da (ITS), adinetako presuna da (ITS), jende adinetakoa da (ITS), ori adinetan joan da (S), adinean sartu da (LAN), adinez aintzi- naratuak (LEIZ. Luk 1,5) adinez aintzina- tuxe (LAR), adinez aitzinatia dira (AL), adinez aitzinatūrik da (AL)/adin gordinean da (ITS), Adinetara heldua (AX 235). **2.** urte asko ditu (U), urte anitz baditu (KA), urtetan eldu xamarra dao (O), urtetan aurrera dijoa (O), urteak ez dute barkatzen (S, O), urtetza ederra zeukan (O). **3.** zahar-

tzen ari niz (LAN, O, AM, ITS), untsa za- hartia da (LAN, KA, LAR). **4.** jende gehi- tia da (AL, LAR) / emakume sasoikoa (O). orrek nere URTEAK ditu \nearrow **adin** (berekoa). 200-300 URTE **tardean** gertatu zen \nearrow **arte**. azken URTE hauek **txarrak** izan dira \nearrow **behi**. 18 eta 65 URTEEN **arteko** adina duenak ez du ordaintzen: emezortzi urtetik hiruroge- tabosterañokoak ez dute ordaintzen (O). okelak USAINA dauka: usanduta dago (O, G), usindua da (KA), usaina eginda dauka (O), usain teleka in zaio aragi orri (AM), tekua in zaio (S), ...tekua egina du (S), usai- na eginda dago (O), haragi ūrrintzūtia (AL, LAR), haragi honek kelua hartuta dauka (G).

ahoko USAIN txarra dauka (G), orrek dauka ao lurruna (O), orrek botatzen du ao lurr- na (O), botaten dau agotik usaña (IN, O, EL G), aoko usain txarra botaten dau (IP, S), orrek dauka ~ botatzen du kiratsa (ID), hats tzarra du horrek (KA).

USTE izan ~ **eduki** \nearrow **-lakoan**: **1.** etorriko zen **ustean** nengoen ni (O). **2.** zeruan zenbat izar dela uste duzu? ~ zombait izar **daukazu** dela zeruan? (LAN), bazaukan urak kalte handirik ez zuela eginen (ITS), daukat hori egin dezakegula (ITS), daukat nehor ez dela harrituko (ITS), ez daukat berriz oia- lik zorretan emanik (ITS), ofizioetan hobe- rena dela daukat (ITS). **3.** erresuma hartan sarthu **uste** zuen egunean (AX 370), egin uste nuena (KA) \nearrow **gogo**.

argiagi kokatuko dugulakoaren USTEAZ egin dugu hori \nearrow **-lakoan**. jatea nahikoa **zelakoaren** USTETAN \nearrow **-la-koan**.

garaitia lortu **zutelaren** USTETAN \nearrow **-la-koan**.

UTZI: **a.** Maitek utzi (egin) **gaitu** (ITS), utz zazu haurra bere gisa (ITS), utz nazazu za- hartzera (AX 127), ithotzera utzi zuen etsaia (ITS, KA), utz zuk hura, hark zu utzi gabe (AX 248), uzki hilak bere hilen ohorztera (LEIZ. Mat 8,22), uzten zaituz- tet (ITS), haurrak han utzirik itzuli ziren etxerat (LAN), mendian ūtzi zian (= zuen) (AL), heben ūtzen naizū? (AL), utzi ori ei- ten neri (O), ardi jeistia ūtz (AL), edana

utzi behar duk (S), alkoola utzi bear duk (G). **b.** itxi daiogun **oni** gerorako (Peru Abarka), utzi niri paken (G, O), eranari utzi bear diok (O, G).

UTZI: **A.** utzi + era = **utziera** □ hasi + era = **hasiera**. **B.** etorri + era = **etorrera** □ hasi + era = **hasera** (Errezil, ID) □ jantzi + era = **ja(n)zkera**. **D.** sortu + era = **so-rrera** □ sartu + era = **sarrera**.

UTZI: **A.** utz nezazu joaiterat (ITS), ez dūgū utziren etxen sartzera (AL), utz nazazu **zahartzera** (AX 127), esnea uzten dugu pau- satzerat (LAN), utz nazazu hori egitera (ITS), eztezagūn ūtz juaitera (AL, KA), ūtz hoztera (AL), sagarrak uzten dira meta ba- tean untsa mardatzerat (LAN). **B.** utz na- zazu **zaartzten** (G, O), itxi uztezu ori iten (IN), utz nazazu ori egiten (G, O).

BEREIZ: **a.** irakiten UTZI (= irakiten irau- dezan) (ITS), (erakiten) (KA). **b.** irakiterat utzi (= irakin arte) (ITS), (erakitzerat) (KA).

por favor, dejame ese papel ■ UTZI, mesedez, papertzo hori (= *abandonalo*), ekatzu pa- pertxo ori (O), emazu paper hori (KA), ekarrazu (KA).

lekua UTZI \nearrow **leku** (egin): lekua egin (IP, IN, ID, G), egin tokia bertzeendako (S).

UTZI niri bakean \nearrow **bakean** (utzi).

nunca he dejado de amarte ■ ez zaitut inoiz ere **maitatzen** UTZI (= nunca he dejado que me amaras): beti maite izan zaitut (IP, O), etengabe maite izan zaitut (GR), beti- danik maite ukan ~ maitatu zitut (KA).

ha dejado de ser interesante ■ interesante **iza- teari** UTZI dio: orain ezta interesante (O), aspergarria egin da (O, IP, ID), orrek asp- pertzen du (S), gogaitgarria egin da (IP), orain enoagarri da (KA).

mentzionatu gabe ezin dut **pasatzen** UTZI: aititu barik ezin dot itxi (IN), aipatu gabe ezin det utzi (O, EG, G), erran gabe ez niz egoiten ahal (KA), ori ezta nere barrenean ustelduko; ez naiz erran gabe geldituko (S). neska UTZI egin **zen** eramaten: neskak bere burua entregau zuen (O), utzi egin diot era- man nazan (O, ID), utzi in dut, eraman ne- zala (AM), utzi dut eraman nezan (KA), itxi eintset eruen naixen (IP).

lagunarekin kartetan aritu zen eta irabazten **UTZI zen**: ...eta irabazten utzi zion (ID, O, ID), ...eta irabazten utzi zuen (S, AM), irabazten itxitzet (IP), utzi egin nion irabazten (S), partida irabazterat utzi dut (KA).

oilok **UTZI** egin diote **arraultzeak egiteari** ↗ **arraultza** (jartzen ez).

edateatik UTZI du ↗ (edateko bizioa) **gainditu**.

erretzeatik UTZI du ↗ (edateko bizioa) **gainditu**.

UTZI egin zion ibiltzeari: **A. 1. gelditu** egin zen (IP, IN, ID). **2. utzi** du arront mendian ibiltzea (S). **3. utzita** dao **ibiltziari** (O, ID), ibiltziari ziero laga dio (O, ID). **4. mendian**

ibiltzetik gelditu da (KA), lanetik gelditu da (KA, S, O), lanetik geldituta dago (O). **B. gelditu gabe** joan ziran (O, KA), bidean gelditu barik joan gintzezan (IN), bidean gelditu gabe joan ginen (G, O), bidean inun gelditu gabe (S, AM), eküratü gabe (LAR). jatetik ez **UTZI** ↗ **jatetik** (ez utzi).

UZETAU: adibideak: orrek neri uzetau egin dit (O), alkarri uzetaka dabilta (O), zakurrak umeari uzetau egin dio (O), uzetaka bialdu zuten (O), niri uzetaka dator (O), oiek uzetaka ditut (O), uzetau orri! (O), elkarri uzetaka dijoaz (O), orrek egin dio uzetakada (O), Juanitori uzetaka dijoa (O) = **segitu**.

X

sukhaltia **XAHATÛRIK** da (AL), **xahatü** ontziak (= garbitu) (AL) / **xahütü** dira (= gastau) (AL, KA), igorri dira (AL).

XANPU urrin gozokoz garbitu zuen ilea ↗ (ardo) **botila**.

egiteko **xedetan**, xedearekin ↗ **asmotan**.

XOIL ↗ **soil**.

BEREIZTEN DUTE (KA): **1. XUHUR / 2. ZUHUR**:

1. etxe hortako jendeak xuhurki bizi dira (= gauza guttikin) (KA), gizon hori xuhur-xuhurra bizi da (KA). **2.** gizon hori zuhurra da (= ez du sosik xahutzen, zeken da) (KA).

Z

A. -Z joan. B. -ten. 1. ari. 2. egon. 3. etorri. 4. ibili. 5. ihardun. 6. joan.

*A. otoa zirurikatuz **doa** (LAN), «itano» galduez **doa** (IN), bülüziz dohatzin bazterrak (LAN), sal-erospenak bekhanduz dohatzi (LAN), ametzari azala mehatuz joan zako (LAN), ürzuak Frantzia apaletik Españiari bürüz gure bortü gorak, gaintitüz duatza (AL), apezak bakanduz doaz (ITS), apezak bekanduz joan dira (KA). B. 1. jaten ari da (O, G, KA). 2. jaten dago (IB, EL). 3. jaten dator (O, G). 4. gaiztakeriak egiten **dabil** (ID, G, EL). 5. txabola egiten **dihardu** (EL, IB). 6. jaten joan da (O, G).

*galderak **egitez** jarraitu zen: egiten (O, G, IB), gauza berak eginez segitu zuen (KA),

*bost urte daramatza txapelketak **antolatuz**: antolatzen (O, G, IB), boste urte eman ditu besten preparatzen (KA).

*neregana oldartu zen, nere makila eskutik **kenduz**: oldartu eta eskutik makila kendu zidan (G, O, KA).

*jendea **joz** ari da / -z (joan): jotzen ari da... (KA, O), jentea jotzen **dabil** (IN), jendeari joka ari da (G).

*Ifar Euskadin abertzaletasuna indartzen **doa** / -z (joan).

-Z + *konparatiboa* ~ *baino* + *konparatiboa*: nitaz goragoko aintzindaria (ITS), Jainkoa oroz gainetik da (ITS).

-Z **GERO** / (-ez) **gero**.

horrek dena Z-ekin hitzegiten du: zipizapa aundia dauka (O), orrek dauka zizibaza (O), orrek dana zipizapa hitz egiten du (O), orrek zizozeoa deuko (IN), zizau aundia dauka (G), orrek daukan ziza (G), arront

zezela da (AM), zizipaza aundia dauko (IP, ID), solas tetela du (S), zezel: dena za, za, za minto dena (AM).

bi emakumeZ lagunduta, Abaigarrera joan ziren / **por** / **lagun**: bi emakume lagun artuta (O, ID), bere anaie lagun artu ta mendira fuen zan (IP, IN, ID), bi anaiak elkar artu ta joan dire mendira (S).

ZABAL-luzean handia zen osina: luze-zabalean (O, G), luze ainbeste zabal (G), luze bezen zabala zen (KA).

ZABALDU-ireki: a. ideki atia (*zabald* ez dute erabiltzen) (S), ireki atea (G, O), borta ireki (KA), bi aldeko atek ideki (S), atea irekia dago, sartu (= giltzatua ez dagoelako) (G), atea edekie da, ez da itzetue (AM).

b. para zazue zabal zabala ate ori (S), zabaldu ate ori beiak iragotzeko (G, O, ID), sotoko atea zabal zabal utzita etorri da (G), zabaldu atie (IP), borta zabaltü (LAR), ohea zabaldu ta lo egin (EL, O), leioa zabaldu (ez dute **ireki** erabiltzen) (U, IN), atea zabal zabalik dago (O, G), leio danak zabal zabal eginda zeuden (O), leio denak zabal zabalik daude (G).

espediente bat **ZABALDUKO** diote: espedientea egingo diote (O, G, S).

BEREIZ: a. seme **ZAHARRA** / seme **gaztea** (O, G, EL), seme zaharra jatorra da (G), alaba gaztea jatorra da (G, S). b. **semerik zaharrena** / **semerik gazteena** (I, O, KA, G), semeetan gazteena (IN, EL), alabetan zaharrena (IN, EL), seme zaharrena ez da zaharra; gaztea da; hamabi urte ditu (G, O, KA, S, IN), seniderik gazteena ere zaharra da (O), alaba gazteena zaharra da (G, S), au dugu etxeko seme gaztiena; 50 urte ditu

(S), aniaia gazteena zuten buruzagi (ITS). **d.** seme **nausixena** (EL), seme **nausixa** (EL), etxeko primia (gizasemea) / prima (emazte-
kia) (LAR), lehena (LAR).

ZAHAR / berri \nearrow **orain** (dela gutxi).

zail DA... \nearrow **ERRAZ: 1.** zaila da horren **jaki-
teko** (KA, G, O), gaxa da iteko (IN, O), au
zailago da oroitzeke (AM, G, O), izen ori
gaiztoa da gogoratzeko (S), nekezagoa da
(ID), au gauza zallaua da gogoraketako
(IP). **2.** nekez da **jakitea** (KA), Gaitz da mi-
hiaren ongi gobernatzera (AX 311), ori ezta
aisa jakitea (S), gaxa da itea (IN, O), ori
jakitea gaxa da (IN). **3.** izigarri gaitz da
egiten (LAR), gaxa da iten (IN, O), hori
nekez gogoratzen zaut (KA), gaitz da loha-
kartzan (AX 263), zalla da jakiten (G, O).
4. zail **xamarra** da (G, O), bear gaxtxoa da
(IN), ez da lan erraxa; lan latza da (S).

eskarak zer moduz irakurtzen duzu? **ZAIL-
TASUNEZ:** oso ondo ere ez (O), ez untsa
(KA), neri zaila egiten zait (O), ez ba ain
ondo (O), zail xamarra egiten zait (O)/neri
etzait ain zaila egiten (O), errez (O, G).

¿habeis tenido dificultades en el trabajo? ■ la-
nean **ZAILTASUNIK** izan al duzue?: lan
zaila al zen? (G, O, ID), lan zaila zena?
(KA), traba asko lanean? (O, G, IB), aije
ari izan zirene lanean? (KA), lan orrek zail-
tasun ori dauka (O), zailtasunik ez zait jar-
tzen (O), lan orrek zailtasun ori ~ alderdi
zail ori badu (O, ID), ori du ~ dauka zalla
lan orrek (G), nekez ari izan gira (KA).

ESALDI ZAILAK: *texto ofizialetan batez
ere, esaldi oso zailak azaltzen dira. Berez,
errazkiago ere erran litezke.* Adibideak:

**Plan de ayuda al sector agrario* ■ Lurgin-
tza-alorarentzako laguntzako bateango
egitama: lurgintzarako laguntza (O, G,
AM, ID, EG), laborarien laguntza (KA).

**son consecuencias evidentes de haber lleva-
do una vida mala* ■ horiek dira bizitza gaiz-
toa eramamizatearen ondorio nabarmenak:
horiek bizitza gaiztoaren ondorenak
dira, garbi garbi (O), egin duen bizi txarra-
ren ondorioak (S).

*Deustu Unibertsitateko eraikinaren
etxarri ezarpenaren mendeurrena: Deustu

Unibertsitatea eraiki ~ jaso zuteneko men-
deurrena (O, ID), Deustu Unibertsitateko
lehengo arria jarri zuteneko mendeurrena
(O, ID), unibertsitatea egiteko leenbiziko
arria jarri dute (G, O), lehen arria ifini deu-
re (IN, S), ...ezarri dute (KA).

*hobetu ezazu zeure gestioa behatz bat mu-
gitze hutsarekin: gestio hobea egin ezazu,
behatz bat mugituz bakarrik (O).

Maite noiz irtengo zenaren **ZAIN** nengoen \nearrow
itxaropena \nearrow **-enaren:** Maite noiz ateko
den zai nago (G), Maitek noiz urtengo
etxoten nao (IN), Maitek noiz ertengo dun
zai nao (IN), Maitek noiz urtengo dauen
zain nao (IP), (urtengo dan) (EL), Maite
noiz jaliko ote den beha niz (KA), haidürü
niz noiz elkiko den (LAR), argia etorri
zai(n) nago (O).

era una mujer descuidada ■ emakume **ZAIN-
DU** gabea zen (= sin protección): **1.** alako
gizon **arlotea!** (O, EL). **2.** ze jende **faldaila**
den (S). **3. filda hitsean** zen (LAN), filda xa-
rrean zen (LAN), piltzar bat bezala erabil-
tzen da (KA), ...pilda txarrean düzü
(LAR), zein pilda txarrian den (LAR). **4.**
firfileria (arropa bitxia) (LAN). **5.** gaizki
jantzia ibiltzen da (G). **6. kitu iduria** du
(AM), ijito(a)k bezela ibiltzen da (G). **7.**
zein **lazoak** diren (AM). **8.** bai **narrasa!**
(EL, O), ura gizon narratxa! (O), narratx
jantzita ibiltzen da (O). **9. oraan pigura**
daukana! (G), aren pigura! (G). **10. trapu-**
ki jantzia (LAN). **11. zabarra** da (G, O). **12.**
zarpazu (gaizki jantzia) (G) / **zarbazu:** ile
handia eta orraztu gabe duena (G), zarpa
hartu (O), zarpazu ondo (jantzi) (O), em-
kume zarpail (AM, KA), zarpail ibiltzen da
(AM), zarpa zahar horiekin ibiltzea ez da
lotsatzen (G), mendiko zarpa zaharrak
konpontzen ari da (G, EG), zarpazu ederra
zebillek (G), zarpazu ibiltzen da (G). **13.**
hori emakume **zarraida!** (G). **14. zerrenda**
pinta artu du (S). **15. emakume saski** bat
(IN). **16. emakume utzia** (O, S). **17. zikin**
alena (ID), zikiña alakoa! (ID). **18. zirtzilki**
emana (LAN).

el cuarto estaba poco cuidado ■ gela **gutxi**
ZAINDUA zegoen: kuartoa ez zeukan oso
txukuna! (G), kanbera piaz gora da (AL),

kuarto guzia naasia zagon (S), kuartoa ez
zeukan oso jaso (O).

Oso bikain zaude. *Er.* Ongi **ZAIKTZEN** dut
 \nearrow **arduratu:** Nik nere buruari ongi be(g)i-
tzen diot (G), nik nere burua ondo zaiktzen
det (O), nik neure burua ondo zaiktzen dot
(IP), bere buruaz arta hartzen du (KA), ho-
rrek bere burua ondo ja(ra)moten dau
(IN), uhuratzen düzü (LAR).

BEREIZ: 1. ZAINELDUA egin zait (O, G),
(hanketako «calambre») \nearrow **kalanbre. 2.**
zaiktiratu izan dut (O) (esguince). **3. Sele-**
nek zainbildua du (O, G) (varices).

tomate **ZAKUA** erosi zuen \nearrow **tomate** (zaku).

zoaz **ZAKUTIK** hartzera: **1.** ifernuko **demo-
nioetara** bidali zuen (G), zoazi debruetarat
(KA). **2. aiena** adi emendik eta **pakea**
emantzak (G). **3.** zoaz zakurraren **ipurtzilo-
ra** (AM, S), zoaz zakurran ipurdian barna
(G), zakurraren iphurdirat igorri du (ITS).
4. zoaz **pikutara!** (O, EL). **5. airez aire an-**
tzarra ferratzerat igorri zuen (ITS), zoaz
antzarra ferratzerat (ITS, KA). **6.** zoaz **aixa**
artzen! (IP), zoaz aizea artzera! (O, G),
aizeak artzera joan! (IN), zoaz axeak ar-
tzean! (IN). **7. lekia üt ezazü** (LAR), zoaz
nahi duzun lekura (G). **8.** joari **kakatara!**
(EL). **9.** zoazi nere begien **bistatik** (S). **10.**
urrut hemenik (KA), urtikari! (S), ospa
emendik (G, O), alde hemendik (O, G).

eserlekuaren hankak **ZALANTZAN** zeuden:
kilika da silla (AM), eserlekuaren anak
koloka daude (O, G, AM), aulkiaren an-
kak kilikolo daude (EL), eserlekuak anak
kolokan zeuzkan (O), eserlekuaren anak
lokak daz (IP), kadera balantzan dago
(KA), kadera txainkü düzü (LAR).

ZALANTZAZKO PERPAUSAK: Ez dakit
etorri **ba** den \nearrow **ba.**

* **a. 1.** eztaikit fan dan (= joan den) (U),
guk eztagiku zertaratuko ote garan (G, O),
eztaikit etorri den (IN, S, AM, ITS, O), ez-
taikit etorriko den (O), eztaikit jin den (ITS),
eztaikit izan gura dauen (IN), eztaikit nik
ume oiek zer diren (= ze haur klase) (O,
G), eztaikit etortzen alko den edo ez (AM),
ondo ala txarto dagoen (IN, IP), eztaikit
etortzerik izan dun ala ez (G, O), eztaikit
zer dabilan heben gainti (AL), eztaikit egon
ote ziren ere (O).

* **a. 2.** nik eztaikitit sosik duenez (LAN), nik
eztaikitit jina denez (LAN), eztaikit jin de-
nez (LAN, AL, KA, LAR), nik eztaikitit jin-
nen denez (LAN), eijerra zenez batere ezta-
kit (AL), ez dakit erraiten ahalko dudanetz
(ITS), nehork ez daki non hil den edo hila
denentz (ITS), nork daki ona denez? (ITS),
galde egin zakon ea bazakienez non atze-
man ahalko zen (LAN).

* **a. 3. niagozü** ama hor denez (LAR), nago
hori ez ote den ama (ITS), nago othe diren
(LAN), nago zuzenean naizenez (ITS),
nago ama othe denez (KA), nago hemen
geldituko direnez bazkaritako (ITS).

* **a. 4.** eztaikit etorri ete dan (O, EL), eztaikit
etorri ote den (S, AM), ba al dakizu azken
ardia ori te zen? (G, O), dudatzen dut torri-
ko ote den (AM), eztaikit jin ote den
(LAN), eztaikit dirurik ote duen (O), eztaikit
jin ote denez (AL).

* **a. 5.** bere andreagaia izan nai **dun** galdetu
dio (G, O), bere andreagaia izan nai ote **dun**
galdetu dio (O).

* **b.** ez tot entzun etorri **danik** (IN, EL), ez tut
aitu etorri denikan (G, S, AM), ez dut ent-
zun jin dela (*denik* hobeki legoke) (LAN,
AL).

* **d.** eztaikit zozoa egan asiko **dan** (O), ezta-
kit hegaldatzen hasiko denez (AL), zozoa
airatuko ote da? (G), dudan nao egaz asiko
ete dan (IN).

* **e.** joango **ote** den esan du (= zalantzan ze-
goen) (O, ID), joango **dela** esan du (= se-
guru esan du) (O, ID), ara joan ete dan
nago (= horrela uste dut) (O, ID), ara **joa-
tekotan** zegoen (= seguru dakit) (O, ID),
berak errain du etorri al **dun** edo ez **dun** (S),
etortzen alko den (AM), berak esango deu
etorri leiken edo ez (EL, G).

ZALDI gainean zelarik gabe joan zen ~ zal-
tuts joan zen (LAN), fildutsik joan zen (S).

*poliziak **zaldian** etorri ziren \nearrow **jaitsi** \nearrow
erori: zaldi gañean etorri ziren (G, S, IN, O,
IP), polizierak zaldien gainen jin ziren
(AL), zaldiz (e)torri ziren (AM, IP), behor-
raren gainean doa (ITS, KA, LAR), semia
belhañetan gañen hartü zian (AL).

ba al dakizu **ZALDIAN** ibiltzen? \nearrow **jaitsi** \nearrow
erori: badakizu zaldi gañian ibiltzen? (IP,
O, ID, G, S).

a los caballos! ■ **zaldietara!** (zaldietara, ardie-tara = *goazen zaldiak, ardiak dauden toki-ra*) ↗ (astora) **igon:** ien zaldi gañera (AM), ien zaldi oien gañetara (AM), zaldi gañean joain gara (S), igon zaldin gañera (G, O), zaldiaren gainerat igan zen (KA, LAR).

***zaldietatik jaisteko** esan zien ↗ **jaitsi** ↗ **erori:** zaldi gañetik jaisteko (IP), zaldi gañetik erori da (ID, O, G), zaldi gañetik jetsi da (ID, O), zaldiaren gainetik (KA, LAR).

***zaldira igon** zuen: haritz baten gainerat igan zen (ITS), asto gañera igon zuen ~ igon zan (O, G, EL), zaldi gañera igon zuen (G, ID), haritz baten gainerat igan zen (ITS), arbola baten gañera igo zun (O, KA).

***zalditik erori** zen ↗ **erori.** literaturaren **ZALETASUN** handia zeukan: literaturarentako gust handia dü (AL), literaturadendako afizioa (AM), zinerako afizioa dauka (O, IP), literaturarendako gustu handia du (KA), zinerako afizioa gogorra du (S, G).

horrek ez du eliza **ZAPALTZEN:** 1. **bekan** joaiten da elizarat (KA, LAR), ezta inoiz elizara joaten (G). 2. orrek eztu elizan **an-karik sartu** ere egiten (O), ez du elizan zangorikan sartzen (S), ez du sekulan zangorik emaiten elizan (ITS), ez du zankoa sartzen alizan (LAR). 3. ez du ori aisa elizak **azpian arrapatuko** (S).

sudurra **ZAPALDUTA** zeukan: 1. sudur **motz** bat (G, AM, ID, IP, O). 2. sudur **pas-tetx** (LAR). 3. suhur **zahala** (KA), sutur zapala zeukan (O), sudur zabala (S). 4. sudur **zapato** bat (S) / sudur **makua** (S), sudur **murritz** / sudur **zabal** (AM).

berri horrek gaua **ZAPUZTU** zion ↗ **loa** (apurtu).

zukur **ZAPUZTU** egin **didazu:** zapuztu egin nauzu (G).

sekulako **ZAPLADA** bota zion ↗ **kolpe** ↗ **bota:** beharrondokoa eman ziozün (LAR), matelako bat eman zeion (LAR), matelezu-rreko ederra eman zion (S), mazalako bat eman dako (KA), sekulako zaplada eman zion (O, G), zaplaztako eman zion (ID),

zartatea (IN), a zelakotxe zartatekoa emoutzen (IP).

horrek **sartzen** duen **ZARATA!** 1. soñu aundia **ateratzen** du (G, S), zata andie ateraten dau (IN, IP), orrek ateratzen duen zarata! (O, IP, EL). 2. makiña orrek soñu aundia **jotzen** du (S). 3. orrek **egiten** duen arrabotsa! (KA), asotsa aundia in du (AM), azantza haundia egiten du (LAN), herots handi egiten dü (AL, LAR), soñu aundia egiten du (S), soñu gogorra egiten du (S), sülübita handi egiten dü (AL), zata andia eiten dau (IN).

ZATI baterako baneukan jana: pizko(t) (b)ateko (G), buelta bateko (= apur batentako) (AM), aldi bateko (para una vez) (AM, KA), puska baterako (O), aldi baterako (O), apur baterako (IN, IP), olio badüt apür batentako (AL), amiñi batentako (AL, LAR).

partidoaren bigarren **ZATIA** aspergarri izan zen: bigarren aldian sartu zuten gol (G, AM, O).

zakur hau ongi **ZAUNKATZEN da:** 1. txakur onek ondo **salatzen** du jendea, azienda... (O, S, AM). 2. txakur onek ondo **zaunkatzen** du (O), zakur onek ongi sainkatzen du (G). 3. saingaka ari da (S), txakurra **txan-paz** ari düzü (LAR, AL, KA), txakurra **zaunkaz** ari da (O), ihausika ari da (KA), ausike dao (IN).

oinetakoen **ZAURIA** ez da ona: oñetakoen urratua (O, AM), zapetak urrako bat egin daut zangoan (KA), oñetakoak larrutu egin dit (G), oskiak mankatzen nüzü (LAR).

ZAURIAN behatza ezarri duzu ↗ **fibra.**

ez du **ZAURIRIK** hartu: ez da zauritua izan (O), istripuan ez du minik hartu (KA, LAR, G, O).

ZE emakume hau!: sekula holako emakumerik! (O, G).

ZE alderoak! ~ aiek alderoak! (G), asto karga orren alderoak! (O), andakorka doa (= ziraldo) (KA), mozkorra halda maldaka doa (KA), zabuka doa mozkorra (EL), ziraldo) doa mozkorra (G).

ZE askar jan duzun! ~ bai aguro jan duzula (G), zoin fite jan duzun! (KA), orixe azkar

jan dezuna (O), zoin zalhe jan duzun! (LAR).

ZE gauzak!: oiek dira gauza moduak! (EL).

ZE bikain zauden!: oso bikaña zauden! (O), uraxe mutil bikaña dagona (O), bai mutil ederra egin zaren! (S), zein untsa beztitua ziren! (KA), beztitürik (LAR).

ZE irriak egin genituen! ↗ **barre.**

ZE egia!: egia handia! (ID, O, KA, S, LAR), hala da! (KA), bai egia! (O, G).

ZE ofizinan lan egiten duen ez dakit: zuin bülegotan (AL, KA), nongo ofizinan lan egiten duen... (O, IN), nongo ofizinan ai da lanin? (S), eztakit zoin herritakoa zen (ITS).

ZE tipo! ↗ **tipo.**

ZE liburuak irakurri dituzu?: 1. ze(in) liburu irakurri **duzu** (= bat irakurri baduzu) (G, O). 2. ze(in) liburu irakurri **dituzu** (bat baino gehiago) (G, O), liburu horietatik zoin liburu leitu dituzu? (KA).

ZEGOEN amorratua **zegoela**, etxera joan zen ↗ **amorratua** ↗ **zela.**

ZEHAR: *ażken aldi honetan «a través de» itzultzeko oso erabilia. Berez «zehir» tokia-ri lotua dago. Denborari bakan lotzen diote baseritarrek.*

***emendik ziar**, ortik ziar ibilliko da (IP, EL), txingorra, elurra zierrea ari da (O), etzen bide xuxenetik zehartatu (ITS), nun-beiteko urhatsetarat zehartu da (LAN), emendik ziarka join naiz (G), bidea zehir da (G, AM), zeharko joan da, mendiarri goiti (LAN).

*afarian **zehir** asko hitzegin zuen ↗ **gosarian.**

*aretoan **zehir** eraman zuen begirada: kuartoari bazter batetik besteraño begiratu zion (O, ID), kuartoko inguru guztieri begitu eutsen (IN).

*atean **zehir** sartu zen: atetik sartu zen (IN, EL, S), bortatik sartu da (KA), atetik barrura sartu zan (O, ID).

*bazkarian **zehir** denak pozik zeuden ↗ **gosarian.**

*1. bidean **zehir** joan da (O), bide zearka joan da (G), marroak eginez atera da goiti (S), bihurtuz bihurtuz doa bidea (KA). 2. kaminuan **zehir** parau zan (IN), bidean

zearka gelditu da kotxea (AM, S, G), kaminuaren zearrera jarri zitzaion kotxea (O), kaminuan zeartuta parau zen (IN). 3. zearbegirada egin zion (O), or jun da zearbide ortatik (O), har ezazü zeharsenda hori Atharratzerat joaiteko (AL), or bada bidezehir bat (O). 4. bidea segitu du (KA).

*gurasoekin bizi izan zen bere **bizitzan zehir:** bizitza osoan (O), beti bere gurasoekin bizitu zen (G), bere bizitza guzian (G, EL, IN), bere denbora guzian (G, KA, EL, IN), bere bizitzian (AL).

*denboraldi luze baten **zehir** ↗ **denbora** (pila): denbora luzean gaixo egon zan (O, G), luzaz eri izan zen (AL), anitz denboraz eri izan da (KA).

*sei egunetan **zehir** barur egin zuen ↗ **egun** ↗ **urte:** sei egunetan gaixo egon zan (O), sei egunetan eri egon da (ITS, KA, S).

*herrian **zehir** bira egin zuten: prozesio egin dute erriari buelta emanen (S), prozesioa erri bueltan ein debe (O), herrian paseiatu zen (AL), herria gainti üngürü bat egin zian (AL), errin buelta bat egingo dugu (G, O), herriaren üngürü egin zian (AL), herrian üngürü bat egin zian (AL), herriaren itzulia egin dute prozesioan (KA).

*ez naiz hortik **zehir** beste baten bila hasiko ~ ni ez naiz or beste baten... (O), ortik barna dabil (↗ **barna**) (S), ortik zehir joan da (IN), ez naiz asiko or barna inoren billa (G), or ziar jun da (EL), bada behi ederrik hor gaindi (ITS), han gaindi jende anitz ikusten da (ITS), nun habila hemen gaindi? (ITS), ihiztariak han gaindi pasatzen ziren (LAN).

***kurtsuan zehir** ongi ibili da: kurtsu barruan ondo ibili da (IN), aste barruan Bilbon egoten da (IN), kurtsu barrene(a)n ongi ibili da (G), kurtsu denboran ongi ibili da (G), kurtsu guziak untsa segitu ditu (KA), kurtsuan ondo ibili da (O, IB, EL), buhameak urtean barnean pasatzen ziren (LAN), gauaren barnean lan egin zuen (LAN).

***liburuan zehir** pertsonaia hori maiz agertzen da: liburuan pertsonaia (O), liburuak bein eta berriz, noiz beinka gauza ederrak erakusten dizkigu (O).

***manifestaldian zehar** «Gora Nafarroa» esan dute: manifestaldian (GR), manifestazio denboran (O), manifestazione denbora guzian (KA), manifestazio guzian oiuka aritu ziren (S, G), basurdea zelaian zear jun zan (O).

***mendian zehar** ibili omen da: \nearrow **barna** \nearrow **gaindi**: mendian zerrera jun da (O), mendian zeharka dioa (G, S), mendian zear jun zan (O), landan barna joan zen (S, G), baratzia gainti jin da (AL), basurdea zelaian zear jun zan (O), menditik barna ibilli da (S), mendian batera bestera ibili da (IN), arantza ta onantza (IN), mendian ibilli da batera ta bestera (O), sorhua gaintik juan da (AL), mendian gaindi (KA).

***paper pila haietan zehar** bilatzen aritu da: paper pilla aitan erlojun billa ibilli da (G, O).

***urte betean zehar** lan egingo du \nearrow **oso** \nearrow **urte** \nearrow **dena**: urte guzin lan egingo du (G, S, IN), urte osoan (O, IP), astean barruen bear asko egiten dau (IN), urte guzin gaizki egondu zen (G, O), urte guztien barruan bear egiten dau (IN), urte guzian lanean ariko da (KA), buhameak leheno biziki baziren, urtean barnean pasatzen ziren (LAN).

ZE HARO asperturik nago ~ asper asper eginda dago (O, S, G), arrunt enoatia niz (KA).

ja qué hora vino exactamente? ■ **zein** ordutan etorri zen **ZE HATZ?** \nearrow **puntuala**: ze tenoretan heltū zen xūxen? (LAR), Ba al dakizu seguru ze ordu zan etorri zanean? (O, IP), ze orduten torri zen xuxen? (AM, ITS, LAN, KA), zazpiretan zuzen etorri zen (G).

azken **ZEHAZTASUNETARAINO** aztertu zuen \nearrow **sakonean** (ezagutu).

ZEIN ~ **ZEINTZUK** \nearrow **nor** ~ **nortzuk**. *Toki askotan aditza pluralean izanik ere, zein erabiltzen dute. Ongi da.*

ZEIN / ZER: **zein gero eta bakanago entzun-irakurtzen da. Berorren arlo semantikoa zer-ek ukan du.**

Bi edo gehiago direla, batez ere galdera egiten denean, zein erabili beharko litzateke. Bai eta mirets-esaldietan.

***ze** arropa erosi duzu? ~ **zein** xupoea? (Mikoleta), **zein** liburu artu dozu? (IN, O, S), **ze** liburu artu dezu? (O, ID, G), **zeinen** ongi artzen dion adrendua ~ *aidia: qué bien sabe llevarle el carácter, acomodarse al carácter de otro* (S).

***ze** txakur nahi duzu? ~ **zein** txakur gu-raozu? (IN, O, S), **ze** txakur nai zenuke? (O, ID, G), **zeñen** ona den (G), **zein** polita den (KA), **zoin** ontsa doatzin (ITS).

***ze** ur nahi duzu, «Urberoaga» ala «Lizartza» ~ **Zein** ur, **geldia** ala lasterra? (AX 23), **zoin** ur nahi duzu, **ona** ala txarra? (KA), **zoin** ogi nahiago düzü? (LAR).

***ze** ona zaren, **Miren Aingeru!** \nearrow **ze** (bikain zauden) \nearrow **barre**: **zein** ona zaren (AM, O, KA), **zoin** hotz den (ITS), **zeinen** ederra den (ITS), **zeinen** ona zara (S), **zuiñ** aisa egiten duen hori (AL), **zuin** hun ziren (AL), **zuiñen** goxo den gure ama (AL), **zuiñen** hun ziren (AL), **zuiñen** hunkirik ziren parropiantak oro (AL), **zein** artzez eman zioen... **hark** xedeari (AX 249), **benetan** mutil aundiak ein zerate (O), **oriek** mutil bikañak egin zerate (G), **beharrunian** erakusten dü laborariak **zuiñen** barna dian bihotzian ikustatia eta amodiua (AL), **zoin** eskualdetan bizi zira? (KA), **Zuñen** alagera nizen zure ikhustez (AL), **Jinko** hunaren grazia **zuñen** handi den (AL), **zoin** alderditan bizi zara? (ITS), «Baratzian **zuiñen** eijer jirofleia loratū».

ZEIN hauetatik izan zen mendian?: oietatikan **zein** da onena? (G, O), otaik **zein** de oberena? (AM), otik **zein** da obena? (S), horietarik **zoin** da hobereña? (KA, LAR).

ZELA okel gehiegi jan zuela, **zela...** \nearrow **amorratua**: okela larregi jan oalako edo... (IN), aragi geiegi jan zulako edo, gaizki egondu zen (G, O), okela larregi jan euelako gaixotu da (IP).

noiz irtengo **zuenaren ZELATAN** egon naiz \nearrow **-enaren**: katua esperon dago zu noiz aldatuko zaren (S), xagua noiz aterako den zelatan dago katua (G), xagu zai dago katua (O), gatia xaguaren goaitian da (KA), xaguaren goaita düzü (LAR).

elkarrekiko **ZELATAN** daude \nearrow **-kiko**.

Chesterton bat edo beste **holakoxe ZEN-**

BAIT: Iparragirre edo aren antzeko batzuk (O), aren moduko batzuk (IP, EL, IN, G), ura bezalako batzuk (S).

ZENBAT duzu / dituzu \nearrow (zenbat) urte.

ZENBAT behi! ~ **pila**: au beialdea (S), behialde handia (KA), au beitaldea (AM, O, G), au jente pila! (IN), behisaldo (AL, LAR), behi eli bat (AL).

ZENBAT: *eskuarki kopurua adierazten du.*

no sé cuánto durará la tormenta* ■ **ekaitzak zenbat iraungo duen ez dakit: **ekaitzak** noiz arte iraungo duen... (S), ez dakit tenpesta horrek noiz arte iraunen duen (KA), **ekaitzak** noiz arte segituko ote du (G, O), **ekaitzi** onek... (S).

***zenbat maite** zaitudan: **zuin** maite zütudan! (AL), **bai** maite duela Maite! (EG, ID, EL).

***zenbat poztu** naiz, **Jone**, etorri zarelako (zenbat = kantitatea): **oso** poztu naiz (O), **sano** boztu nez ~ ni bai boztu nazela (IN), **biziki** kontent niz (KA), **benetan** poztu naiz (O), **zinez** kontent gelditu niz (KA), **egitan** (S), **egi**azki plazer haundia egin daut (KA), **pozgarria** **benetan** (O).

***zenbat ur!**: bada ur! (S, AM), badao uda! (O).

***zenbat zarata!**: **hura** zen zarata (EL, O), **hango** zaratia (EL, O), **bai** zarata ateral! (O), **ango** soñu(ak)! (G), **ura** zen soñu ura! (G), **a** ze soñua ateratu zuen (G), **ura** soñua ateratu zuen! (G), **hori** soñua! (S), **ura** zan zaratia zeuena an! (O).

ikus ezazu **ZENBAT dirutako** behiak saltzen diren: **zenbateko** beiak saltzen diran (O, G), **ze** preziotako beiak (O, G, KA), **ze** preziotan dabiz beiak? (IP), **zenbat** baliotako behiak? (KA), **zenbat** balio dute? (LAR).

Bereiz: **a. ZENBAT** emakumek egin zuten hori? (G, O, ID), **zonbat** emazte jin dira? (KA). **b. zenbait** emakumek egin zuten (zuen) hori (S), **zonbait** emazte bakarrik jin dira (KA), emazte **zonbait** jin dira (LAR).

ZENTZU batean hori baieztatu liteke \nearrow **senditu**: era batera ori ez dao oso gaizki (O), erran daiteke bere moldean (AX), alde batera eztao ori txarto (IP), eskualde batetarik ona da (KA), alde batera ori ez dago gaizki egin (EL, G), alde batetik ez du gaizki egin (IN).

ZENTZU batean hobe etortzen ez bada: alde batera obe bat ere etorriko ez balitz! (G, O, IP, ID, EL), alde batera obe ezpaltzake (= ezpaltz) agertu (S), eskualde batetarik hobe da jin balitz (KA), gisa batez hobe zatekeen jin balitz (LAR), era batera obe etorriko ez balitz (O).

cambio de sentido ■ **ZENTZU** aldaketa: itzulbidea (GR), jiratzeko tokia (O), itzultzeko lekua (KA).

ez duzu **umorearen ZENTZURIK**: ez düzü arrailleria maite (AL, KA), ez deuko umorerik (IN), ez dauka umorerik bat ere (O), ez dauka amoria(re)n arrastorik (O), ez du umoren arrastorikan (G), eztauko umorien arrastorik pe! (IP), orrek ez du bromarik; zinetan dabile (S).

bazan an **ZER galdetuba** ta zer erantzuna (O), bazen an zer galdetua ta zer erantzuna (G), orrek badeko zer preguntatu ta zer erantzun (IN), ukan zuen zer jan (LAN).

haren euskara txarra zen, **ZERAK** esaten bait zituen: zera esaten bait zuen (G), olakoak esaten bait zituen (G, O).

ZERBAIT ≠ **PIXKAT** \nearrow **pixkat**: *Erdarazko «algo»-k bi esanahi ditu: a. alguna cosa. b. un poco. Beraz, bitara adieraz liteke euskaraz: a. zerbait. b. pixkat. Ez nahas biak. Bereiz: 1. la almohada era algo comfortable, pero pequeña (= un poco comfortable) ■ biungarria biun xamarra zen, baina txikia. 2. Traigan algo comfortable (= que sea comfortable, alguna cosa conf.) ■ zerbait biungarri ekartzazue, eserleku hau gogor da eta.*

se enriqueció algo* ■ **zerbait aberastu zen (= alguna cosa se enriqueció): **pixkot** aberastu da (S, G), **poxi** bat aberastu da (KA), **amiñi** bat (LAR), **pixkat** (O, EL).

se retiró un poco* ■ **zerbait aldendu zen (= alguna cosa se fue): **pixkot** baztertu zen (S, G)/**zerbait** baztertu zuen (S, G), **zerbait** lekutu zuen (S), **zerbeixka** diru altxatu du (KA), **atetik** zerbait kendu zuen (AM), **pixkot** aldatu zen (G, S), **bazter** zite amiñi bat hortik! (LAR).

***gaztea zerbait** animatzearen \nearrow **animatu**: **gazteari** **pixkat** laguntzearen (EL, IB).

venia algo detrás* ■ **zerbait atzetik zeto-

rren (= alguna cosa viene por detrás): atzeraxeago (AL), zutarik gibelska (AL), zutarik gibeltixegotik ~ gibeltxiago (AL, LAR), atzeraxotik (O), atzexitotik eldu dira (G), poxi bat gibelagotik (KA).

se tranquilizó algo* ■ **zerbait beratu zen (= alguna cosa se tranquilizó): pixkat la-saitu zen (O, G, S), amiñi bat pausatu ondoan (AL), poxi bat eztitu da (KA).

vino algo más tarde* ■ **zerbait beranduago etorri zen (= alguna cosa vino más tarde) / **pixkat**: pixkot berandoxko etorri da gaur (S), berantxiago (AL, KA, S, LAR), pixkot beranduxeo (G), pixkat beranduxo (AM, S), beranduen torri zen (AM), apur bat berandu etorri zan (IP), beranduxeo (ID), berandoxko (S), berantxago (KA).

el cuarto está algo caliente* ■ **gela zerbait bero dago / **pixkat**: gela bero xamar dago (O, G, IP), ganbera berokko da (KA), ekartzazue zerbait bero, gela oso hotz baitago (G, S), otz pixkot bada kuarto ortan (S), kanbera berotü düzü amañi bat (LAR).

**oinak zerbait* bustirik zeuzkan: zangok pixkot bustiak dauzkit (S), poxi bat bustiak (KA), anak apur bat bustita deukoz (IN), anak bustik dauzkit (G), anak bustixek dauzkit (G), zankoak amiñi bat büstirik (LAR).

estaba algo enfermo* ■ **zerbait gaixorik dago: gaizki xamar dago (S, G), erixko dugu mutikoa; sukar pixkot badu (S), erisko düzü (AL), eriska düzü (AL, KA, LAR).

Pedro era algo sordo* ■ **Peru zerbait gorra zen: Peru gor xamarra da (S), jaiotzez sor xamarra da (G), gorska da (AL, LAR), erkor da (AL, LAR), poxi bat gorra ~ elkorra da (KA).

hace algo frío* ■ **zerbait hotz da (= alguna cosa es fría): hozkara da (LAR), hotz xamarra da (O, G).

***zerbait jateko** — **jateko zerbait**: *a.* or badago zerbait jateko (O), or badaukazu zerbait jateko (IP), jatekoa ere badago ~ da or (O), badago or zerbait jateko (G), (da) (KA). *b.* badüzü hor jateko zerbait (AL, LAR), badüzü hor zer jan (AL, LAR).

***Mikel zerbait** kezkatu dago: antsiatü-xerik da (AL), arrenküratüxerik da (AL), arrenkuratuxia da (KA), kezkatu xamar dago (G), pixkot go(go)nbeartua dago (S).

se sintió algo comfortable* ■ **zerbait konfor-table sentitu zen (= alguna cosa se sintió comfortable): gustora xamar zegoen (S, G, IP), aski gustian dago (KA), ekartzazue zerbait eroso (G), gustian egonki da (KA).

***komeni zaigu zerbait** lo egitea (= dormir alguna cosa): komeni zaigu loalditxoa egitea (IP), lokumu bat itea (IP), begi itxi ereki bat egin dut (G), lokuluxka bat eitia (O, ID, KA), begiak bete lo egin det (= alditxo llaburra) (O, G).

a.* hori **zerbait nazkagarri izango da. *b.* ori nazkagarri xamar iruditzen zait (G).

***pazientzia zerbait** baduzu: pazientzia pixkot artu bearke duzu (G, S), pazientzia poxi bat (KA), pazientzia amiñi bat (AL), doi bat pazientzia badüzü (AL).

***zerbait** seguru / **seguru**.

estaba algo nervioso* ■ **zerbait urduri zegoen: urduri samar zegoen (GR), erreütska düzü (AL), erreüstüxerik (AL), arategatxo dao (IN), arrenkuratuxia da (KA).

